



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2001

ARARTEKO ANDREAK
EUSKO LEGEBILTZARRARI
EGINDAKO TXOSTENA
2001. URTEA

© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI-108/2001.



EUSKO
LEGE BILTZARRAREN TZAKO
TXOSTENA
2001

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	21
I. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK	23
1. 2001 URTEAN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK	25
1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan eman ziren aholkuak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak	25
1.1.1. <i>Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoerari buruzko txosten berezia dela-eta hasitako jardueren jarraipena</i>	25
1.1.2. <i>Sasoikako langileen arazoen jarraipena Araban</i>	43
1.1.3. <i>Adinekoen egoitzak kontrolatzeko jardueren jarraipena</i>	48
1.1.4. <i>Adinekoei egoitzez kanpo ematen zaien laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena</i>	54
1.1.5. <i>Haur eta nerabe babesgabeen egiten zaien arretaren jarraipena</i>	57
1.1.6. <i>Adin txikiko lege-hausleekin egiten den esku-hartzearen jarraipena</i>	87
1.1.7. <i>San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipena</i>	100
1.1.8. <i>Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko jarraipena</i> ...	102
1.1.9. <i>Buru-gaixoentzat EAEn dagoen erkidego-laguntzaren jarraipena</i>	104
1.1.10. <i>Txosten berezia, EAeko hezkuntza beharrian bereziei ematen zaien erantzunari buruz</i>	109
1.1.11. <i>Ertzaintzaren ziegen eta udal atxiloguneen egoeraren jarraipena</i>	118
1.2. Gure erkidegoko ezgaituek gizarteratzeko dituzten aukeren gainean egingo diren hurrengo azterlan monografikoak	123
1.3. Genero indarkeria jasan duten emakumeen erakundeek eman beharreko laguntzari buruzko hurrengo txosten berezia	125

2.	GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATU ETA GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANAK SENDOTUKO DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK	126
2.1.	Lankidetzeta-harremanak taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin	126
2.2.	Ararteko erakundeak deitu dituen ikerketa bekak	136
2.3.	Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egiteko bekak	137
2.4.	“Adin txikikoen erantzukizun penala: giza eskubideen aldetik emandako erantzuna” gaiari buruzko jardunaldia, EHUk antolatuturiko udako ikastaroetan	139
3.	GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK	141
3.1.	Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVI. Jardunaldiak	141
3.2.	Europako erregioetako defendatzaileen mintegia. Ombudsmanak bereizkeriaren aurka. Brusela, 2001eko irailaren 19tik 21era	142
3.3.	Iberoamerikako herri defendatzaileen eta giza eskubideen batzorde publikoetako mandatari eta lehendakarien Federazioaren Seigarren Biltzarra	144
3.4.	Autonomia erkidegoetako Herri Defendatzaileek autonomi erkidegoei eta inmigrazioari buruz egindako bilera	148

II ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO ARRETA BEREZIA	151
---	------------

A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR	154
---	-----

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	154
1.1. Sarrera	154
1.2. Aukeratutako kexak	155
A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	
⇒ <i>Upelategia lekuz aldatu nahi zen, eta lekualdaketa horri ezezkoa eman zitzaion. Ezetx esateko arrazoiak aztertu behar dira</i>	155
⇒ <i>Mahasti berriak landatzeko eskubideak aitortzea</i>	156
B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Interesdunei egotzi ezin zaien preskripzio-kasu bat</i>	157
⇒ <i>Internet erabiltzeko sustapen publikoa</i>	159

C) Industria	
⇒ <i>Ibilgailuen Azterketa Teknikoan, automobila oso-osorik bigarrenaz aztertu zen, lehenengo azterketa kontrakoa izan zelako. Eta, bigarren azterketa hori garaiz kanpo egiteagatik, tarifa kobratu zen</i>	160
2. GIZARTE ONGIZATEA	161
2.1. Sarrera	161
2.2. Aukeratutako kexak	162
A) Zainketa berezia behar duten taldeentzako laguntza	
⇒ <i>GIBaren (Giza Inmuno-eskasiaren Birusa) gaixotasuna duen pertsona baten zainketa zentro espezializatu batean</i>	162
⇒ <i>Hontza zentroa</i>	162
B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Telealarma aparatua ezartzeko atzerapena</i>	164
C) Bestelakoak	
⇒ <i>Ez zioten ohean lo egiten uzten, gauetz jendea hartzeko egoitza batean</i>	165
⇒ <i>Minusbaliotasun mailaren -foru aldundiek neurtua- eta lanerako ezintasunaren -GSINk neurtua- arteko ezberdintasuna: neurketa horiek guztiak egiteko alderdiak</i>	165
⇒ <i>Baztertuta dauden pertsona batzuk bizi ziren txabola batzuen eraiketak berekin zekarren arazo soziala</i>	166
D) Adineko pertsonak	
⇒ <i>Jende nagusiarentzako egoitza batean sartzeko diru-laguntza eskatzearen arazoa konpontzeko epea</i>	167
E) Eduki ekonomikoko gizarte sariak	
⇒ <i>Orokorrean erabiltzeko ebazpen bat legearekin bat dator, baina errealitatean ezartzeak materialki bidezkoak ez diren egoerak ekar ditzake berekin</i>	168
3. KULTURA ETA ELEBITASUNA	169
3.1. Sarrera	169
3.2. Aukeratutako kexak	170
A) Elebitasuna	
⇒ <i>Udal aldizkari batean euskara erabiltzea</i>	170
B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gutunak bidali zizkien "Gazte Txartela"ren titularrei; izan ere, enpresa zehatz batek telefono mugikorrek merkaturatzen ditu, eta, gutun horietan, sailak publizitatea eman zuen, telefono horiek erosteak zituen abantailei buruz</i>	171
C) Kultur ondarea	
⇒ <i>Ondasun zehatz bat kultur intereseko ondasuna zela adierazi zen; eta informazioa eskatu zen adierazpen horri buruzko espedienteaz</i>	174

4. HEZKUNTZA	176
4.1. Sarrera	176
4.2. Aukeratutako kexak	179
A) Eskubideak eta betebeharrak	
⇒ <i>Doktorego-egitarauak. Ikaslerik ez izateagatik, matrikulak deuseztatzea</i>	179
⇒ <i>Ebaluazioa. Goi zikloetara igotzea</i>	180
B) Irakaskuntza artistikoak	
⇒ <i>Donostiako Musika Kontserbatorioa. Irakasleak aldatzea</i> ...	181
⇒ <i>Eskaria egin zen, musikaren irakaskuntza dohainekoa izan zedin</i>	182
⇒ <i>Musika-irakastegiei diru-laguntzak ukatzea</i>	184
C) Unibertsitateko irakaskuntza	
⇒ <i>Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean ikasleak onartzea</i>	185
D) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Irakastegi publikoetan, dokumentu-mota zehatz batzuk banatzea, eta eskubide eta eginbeharren multzoari begirunea izatea</i>	188
E) Bestelakoak	
⇒ <i>Eskolako instalazioak erabiltzea</i>	190
⇒ <i>20 urtetik gorako ikasleek irteerak egitea, ikasle horiek eskolatuta daudenean, Bizkaiko zentroetan eta, zehatzago, zereginak ikasteko geletan</i>	191
5. FUNTZIO PUBLIKOA	193
5.1. Sarrera	193
5.2. Aukeratutako kexak	201
A) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Destinoak elkarrekin trukitzea, foru-funtzionarioen artean</i>	201
B) Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa	
⇒ <i>Irakaskuntzako ordezkapenak. Lanpostu hutsak esleitzean egindako akatsetan, zerbitzuak aitortzea</i>	205
⇒ <i>Haur-eskoletako hezitzaile-lanpostuetara iristea</i>	206
⇒ <i>Irakaskuntzako bitarteko funtzionarioak. Zerbitzuak aitortzea amatasunezko ordezkapen-zerrenden ondorioetarako</i>	208
C) Funtzio publiko orokorra	
⇒ <i>Hizkuntzen ezaguera egiaztatzea. Salbuespena</i>	209
⇒ <i>Funtzionarioen kidego bati baino gehiagori irekita dauden lanpostuetan egindako zerbitzuak balioestea, funtzio publikoan sartzeko</i>	210
⇒ <i>Garuneko odol-jarioa. Hori ezinbesteko kasutzat jotzea, deialdia berriz egin dadin, oposizio-fasearen ariketa kanporatzaile baterako</i>	216
⇒ <i>Amatasun-kasuetan, hautaketa-probak egitea</i>	217

6. OGASUNA	218
6.1. Sarrera	218
6.2. Aukeratutako kexak	220
A) Foru zergak - PFEZ ⇒ <i>Etxebizitza-kontuaren bidez eraikitzen ari den etxebizitza baten erosketa eta lanen geldiera, eraikitzaileak porrot egin duelako: epeen funtzionamendu askea</i>	220
B) Udal zergak ⇒ <i>Ondasun higiezin bati katastroan alta eman zaiola ez jakinaraztea</i>	221
⇒ <i>Zergaren lehenengo kitapena ez jakinaraztea</i>	223
⇒ <i>TMIZ kobratzen jarraitu, automobila deseginda egonda ere</i>	225
C) Udal prezio publikoak ⇒ <i>Bizilagunei ur kontsumoa gaizki kobratu</i>	226
D) Udal tributuak – Tasak ⇒ <i>Obraren jabea EOIZen</i>	227
7. HERRIZAINGOA	230
7.1. Sarrera	230
7.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak	233
A) Eskubideak eta askatasunak ⇒ <i>Udalerriko hondartzetan biluzik egoteagatik isun hertsatzai- leak jartzen dituen Getxoko udalaren dekretuaz</i>	233
B) Jolasak eta ikuskizunak ⇒ <i>Ohiturazko txerri-zozketak eta animaliak babesteko legeria</i>	236
C) Hiritarren segurtasuna ⇒ <i>Poliziek daukaten identifikazio profesionala eman beharra</i>	238
⇒ <i>Polizien esku-hartzea: Etxebizitza batean sartzea eta hura miatzea bertan bizi direnak bat etorrita</i>	240
D) Trafikoa ⇒ <i>Donostian bizi ez, baina ibilgailua pertsona minusbaliatuen- tzat erreserbatu- rik aparkalekuetan uzteko txartela duen herritar batek aparkaleku araupeturiko alderdian pertsona horientzat erreserbatu- rik tokietan aparkatzerik izatea</i>	241
⇒ <i>Partidak dauden egunetan, Bilboko San Mames futbol zelaia- ren inguruetan ibilgailuak aparkatzeko erregimen berezia</i>	243
⇒ <i>Itxuraz bertan behera utzia zegoelako, bide publikotik kendu zuten behar bezala aparkaturik zegoen ibilgailu bat</i>	244
⇒ <i>Enpresa pribatu batek egiten dituen jakinarazpenei buruz</i>	245
⇒ <i>Agentearen adierazpenaren egitasun balizkoaren aurrean, aurkako froga</i>	246
⇒ <i>Aparkatzeko toki libreak zeuden egun batean, TAO alder- dian gaikuntza-titulurik gabe aparkaturiko ibilgailua zegoen tokitik kentzea</i>	246

8. JUSTIZIA	248
8.1. Sarrera	248
8.2. Aukeratutako kexak	255
A) Abokatu eta prokuradoreen elkarteak ⇒ <i>Atzerapena Prokuradoreen Elkargoan aurkeztutako kexa baten ebazpenean</i>	255
B) Justizia administrazioaren funtzionamendua ⇒ <i>Atzerapena alderdiek doako artapen juridikoa daukaten prozedura zibil batean peritua izendatzeko</i>	256
9. INGURUMENA	258
9.1. Sarrera	258
9.2. Aukeratutako kexak	261
A) Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak ⇒ <i>Irregularitasunak ezkutuko taberna-jatetxe baten jardunbidean</i>	261
⇒ <i>Terraza bat herri-bidean zegoen, eta horren jardunbideak zaratak eta eragozpenak sortzen zituen</i>	263
⇒ <i>Udalaren lokal batean jarduera zinematografikoa burutzen zen, eta horrek zaratak eta eragozpenak sortzen zituen</i>	264
⇒ <i>Gaztetxe baten jarduerak zaratak sortzen zituen</i>	265
⇒ <i>Turismoko tren baten multzo elektrogenoak gauez zarata sortzen zuen</i>	266
10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	267
10.1. Sarrera	267
10.2. Aukeratutako kexak	269
A) Irisgarritasuna ⇒ <i>Oztoporik gabeko garraio baterako urratsak egiten</i>	269
B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Herri bidean zaborra uzteko ezarri den ordutegia ez bete-tzeagatik, administrazioaren zigor jardunbidea</i>	270
⇒ <i>Kaleak oinezkoentzat egitea eta pasabideak</i>	271
C) Tokiko zerbitzu publikoak ⇒ <i>Ur-bide baten zortasuna aldarazteko gastuak zortasun-onibarrean</i>	273
⇒ <i>Euri-uren bilketa</i>	274
11. OSASUNA	275
11.1. Sarrera	275
11.2. Aukeratutako kexak	277
A) Erabiltzaileen eskubideak ⇒ <i>Osasun-laguntza: gastuak Europako Batasuneko beste Estatu batean</i>	277
⇒ <i>Osasun-zerbitzuei buruzko informazioa</i>	279

⇒ <i>Ematen diren osasun-zerbitzuei tratamendu berriak eranstea</i>	280
⇒ <i>Zerbitzu farmazeutiko eta osasun-zerbitzuaren arteko lotura</i>	281
⇒ <i>Zerbitzu ortoprotesikoak jasotzeko aukera: arazo formalak</i>	282
<i>alde batera utzita, edukia birbaloratzeko aukera</i>	282
B) <i>Osasun publikoa</i>	
⇒ <i>Administrazio publikoaren bulegoetan erretzeko debekua</i>	282
12. <i>LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA</i>	284
12.1. Sarrera	284
12.2. Aukeratutako keiak	284
⇒ <i>Alegatzen dena frogatu beharraz</i>	284
13. <i>HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA</i>	286
13.1. Sarrera	286
13.2. Aukeratutako keiak	289
A) <i>Hirigintza arauen betearazpena eta aurria</i>	
⇒ <i>Udalen esku-hartzea norbanakoek egindako lanak hirigintza</i>	
<i>legezkotasunari egokitzen zaizkionentz egiaztatzeko</i>	289
B) <i>Hirigintza kudeaketa</i>	
⇒ <i>Administrazioaren aukeramenaz hirigintza arloan</i>	291
C) <i>Hiri antolamendua</i>	
⇒ <i>Administrazioaren aukeramena lurzorua urbanizaezintzat</i>	
<i>sailkatzeko</i>	292
D) <i>Bestelakoak</i>	
⇒ <i>Tokiko administrazioak inposaturiko obrak egiteko agin-</i>	
<i>duen proportzionaltasuna, beharrezkoak baitira eraikuntzen</i>	
<i>segurtasun baldintza egokiak bermatzeko</i>	293
E) <i>Etxebizitza</i>	
⇒ <i>Pertsona ezgaituentzat garaieetan gordetako aparkalekuek</i>	
<i>gutxienez izan behar duten tamainaz</i>	295
⇒ <i>Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzean egin diren erreserbei</i>	
<i>buruz</i>	296
⇒ <i>Desadostasuna etxebizitza baten eskabidea erreserba jakin</i>	
<i>batean sartzean, ez baitzitzaion egokitzen egiaztatuko famili</i>	
<i>egoerari</i>	297
⇒ <i>Babes ofizialeko etxebizitzak prezio tasatuan saltzeari buruz</i>	298
⇒ <i>Birgaitzen ari diren hiriko alde ezberdinak banatzen dituen</i>	
<i>ezponda bat</i>	299
⇒ <i>Etxebizitzen esleipenean parte hartzeko onartuen zerren-</i>	
<i>datik kanporatzea, etxebizitza baten jabea izateagatik eta</i>	
<i>etxebizitza horrek ez duelako salbuespen bat izateko tasa-</i>	
<i>zioaren araua betetzen</i>	300
14. <i>ZENBAIT KUDEAKETA</i>	304
14.1. Sarrera	304

14.2. Aukeratutako kexak	304
⇒ <i>Urpekari profesionala izateko titulua ematea</i>	304
B) TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	306
1. EMAKUMEZKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	306
2. ADINEKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	318
3. ADIN TXIKIKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	319
4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	325
5. EZGAITUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA	328
III. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN	335
1. OHAR ETA DATU OROKORRAK	337
2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR	340
3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ESTATISTIKA	344
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak	344
B) Foru administrazioen kontra aurkeztutako kexak	346
C) Toki administrazioaren kontra aurkeztutako kexak	347
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazioen aurka aurkeztutako kexak	350
E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio-zerbitzuen kontra aurkeztutako kexak	351
4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)	352
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA)	355
6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMA- TZEKO MODUA)	364
7. ARRETA ZUZENENKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)	365
A) Gasteizko arreta zuzeneko bulegoa	368
B) Donostiako arreta zuzeneko bulegoa	369
C) Bilboko arreta zuzeneko bulegoa	371
8. OFIZIOZKO JARDUERAK	373
9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)	374
IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA	377
1. SARRERA ETA OHARRAK	379

2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2001. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA	388
A) Eusko Jaurlaritza	388
B) Foru aldundiak	389
C) Udalak	390
D) Beste erakunde publiko batzuk	392
3. ARARTEKOAK 2001. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA	393
A) Eusko Jaurlaritza	393
B) Foru aldundiak	394
C) Udalak	396
D) Beste erakunde publiko batzuk	400

V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK	406
A) Eusko Jaurlaritza	406
B) Foru administrazioa	407
C) Toki administrazioa	407
2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK	412
A) Eusko Jaurlaritza	412
B) Foru administrazioa	413
C) Toki administrazioa	413
3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK	416
A) Eusko Jaurlaritza	416
B) Foru administrazioa	417
C) Toki administrazioa	417
4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO	420
A) Toki administrazioa	420

VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK

1. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN INMIGRAZIOARI BURUZKO PLAN OSO BAT ONETSI BEHAR DA	423
2. MIAKETA PERTSONALAREN DILIJENTZIA POLIZIAREN BULEGOETAN	426
3. IKASTETXEETAN DAUDEN KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO HARTU BEHARREKO GUTXIENENKO SEGURTASUN NEURRIAK ARAUTU BEHAR DIRA	436

4. BERDINTASUN-BALDINTZETAN, FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO ESKUBIDEA: ADINAREN ARABERA MUGAK JARTZEKO AUKERA	442
5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ARAUTEGI ZEHATZA BEHAR DA TELEFONIA MUGIKORREKO GUNEA INSTALATZEKO ORDUAN, HORRETARAKO BAIMENAK ARAUTZEKO	449
6. ERAKUNDEEN BURUZAGITZA, AHULTASUN HANDIKO TALDEENTZAT ZERBITZUAK SORTU BEHAR DIRENEAN	461
7. UDAL ORDENANTZEK ZEHAPENAK EZARTZEKO LEGEZ GAITUTA EGON BEHAR DUTE. PERTSONEN ZEHAPEN-LEGEZKOTASUNERAKO ESKUBIDEA	466
VII. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK	477
1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA	480
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK	481
2.1. Bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea	481
2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak	482
2.3. Intimitaterako eskubidea	483
2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa	484
2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa	485
2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak	486
2.7. Hezkuntzarako eskubidea	486
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	488
3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezkoatasun printzipioak	488
3.2. Jabetza pribaturako eskubidea	489
4. GIZARTE ESKUBIDEAK	490
4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa	490
4.2. Osasunerako eskubidea	491
4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea	492
4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea	493
4.5. Minusbaliatu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak)	494
4.6. Adinekoen eskubideak	494
5. LABURBILKETA	495

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: “Emakume espetxeratuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeok seme-alabak dituztenean” izenburuko ponentzia	490
(Herri Defendatzaileen arteko Koordinaziorako XVI. Jardunaldiak)	
- II. ERANSKINA: “Ararteko erakundea gizarte-eskubideen garapenean” izenburuko ponentzia	505
(Iberoamerikako Ombudsman Federazioaren VI. Biltzarra)	
- III. ERANSKINA: GRAFIKOAK	515
- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregulartasuna administrazioaren jokoaren 2001ean bukatutako kexetan	517
- 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra	517
- 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2001)	518
- 4. Diagrama: 2001ean jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren	518
- 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera	519
- 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera	519
- 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera	520
- 8. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera	520
- 9. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera	521
- 10. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ..	521
- 11. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2001) ...	522
- 12. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2001)	522
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erreklamatzailerik ezaugarrien arabera .	523
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera	523
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera	523
- 16-17. Diagramak: 2001ean arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak)	524
- 18. Diagrama: Banaketa adin taldeen arabera	524
- 19. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak	525
- 20. Diagrama: Herrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa	525
- 21. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2001). Banaketa alorrez alor	526
- 22. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2001). Eragindako administrazioen araberako banaketa	526
- 23-28. Diagramak: Erreklamatzailerik Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak)	227

- 29-30. Diagramak: Arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” dioten erreklamatazaileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa	530
GAIEN AURKIBIDEA	531

AURKEZPENA

Eusko Legebiltzarrari aurkezten diodan txosten honetan, Ararteko erakundeak 2001. urtean izan duen jarduera dago islatuta.

Urteko txostenaren aurkezpenak aukera ematen dio legebiltzarkide ordezkari honi 2001. urtean herritarren eskubideak botere publikoen aurrean bermatze aldera egin diren jarduera nagusiak Legebiltzarrari jakinarazteko. Baina Legearen mandatu betetzea baino gehiago da hau, ez baitaio Legebiltzarrari bakarrik zuzentzen; administrazio publikoei –lankidetzak eskatu baitaie– eta herritarrei ere –haien partaidetzak sistema demokratikoa indartzen da-eta– zuzentzen zaie.

Txosten hau web orrira sartzen denean (www.ararteko.net), interesa duten lagunek eta taldeek errazago irakurri ahal izango dute, eta, halaber, lagungarria izango da erakunde herritarrengana hurbiltzeko.

Txostenaren egiturak Legeak agindutakoa betetzen du –bestela ezin baitzen egin–; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko eskubideen babesaren egoerari buruzko balioespen orokorra; jasotako kexen eta egindako jardueren datu kuantitatiboak, administrazioen lankidetzak zenbaterainokoa izan den; kexarik nabarmenenak; eta, orobat, administrazio-hobekuntzak egiteko aukera emango duten gomendioak eta iradokizunak.

Erakundearen funtzionamendua normala izan da ekitaldiaren urte honetan; eta, erakunde hau egotea desiragarria ez bada ere, erakunde guztiek dute irauteko nahia, eta, beraz, egunero jarraitzen dugu gure jarduerak egiten.

2001. urtean, 1.513 kexa jaso dira, eta, hortaz, % 22,9ko hazkundera izan da. Datu kuantitatibo hori, ondo balioesten dugun arren, ez da, haatik, interesgarriena; izan ere, dagoeneko finkatuta dagoen erakunde batean –hala nola, Ararteko–, aurkeztutako kexak gora nahiz behera joatearen arrazoia, maiz, kanpoko eragileen baitan dago; esate baterako, funtzionario izaera lortzeko hautatze-prozedura masiboak, desjabetzeko prozedurak, hirigintzako planak, zerga-aldaketak edo hainbat lagunek edo taldek kexa aurkezteko izan ditzaketen beste edozein arrazoi.

Badira datu bi, nire iritziz, guztiz interesgarriak, eta, hortaz, nabarmenduko ditut hemen. Lehenengoz, azpimarratu gura dut administrazioaren jarduera bidegabetzat hartu duten espedienteetan, horietatik % 90etan ia, administrazioak bere jarduera zuzendu duela, gehienetan berariazko gomendiorik eman beharrik gabe.

Administrazioaren erantzun positiboaren indize horiek oso zuzenak dira, agerian uzten dutelako eraginkortasun-maila handia dagoela administrazioaren jardueraren ondorioz zapalduta izan diren lagunen eskubideak bermatzeko eta aldeztzeko.

Poza ematen duen beste alderdi bat da kexa aurkeztu duten lagunek Arartekoaren esku-hartzeaz egin duten balioespena; izan ere, datu horietatik abiatuta inkesta bat egin

da. Jasotako iritziak eta balioespenak “kanpoko auditoretza” oso bat izan dira, gure esku-hartzeek kaltetu dituzten lagunek berek egin dutena.

% 81,61en iritziak, jasotako informazioa oso ona edo ona izan da, eta, % 83,91en ustez, Arartekoaren esku-hartzea oso onuragarria edo nahikoa onuragarria izan da oro har. Indize altu horiek oso onak dira euren arazoa argitu ez dela uste duten lagunen artean, eta euren arazoa nahiko txarto konpondu dela uste dutenen artean ere bai.

2001. urtean, Eusko Legebiltzarrean ohiz kanpoko txosten bat amaitu eta aurkeztu da, EAEn hezkuntzako premia bereziei emandako erantzunari buruzkoa. Ez dut errepikatu nahi txosten horretan eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskubideen Batzordeak esku hartzean esandakoa –horietara jo dut-eta-, baina agerian utzi gura dut premia handiz erantzun behar zaiela bereizkeriak, baztertzekak edo gizarteko egoera ahulak sortu dituzten hezkuntzako beharrei; horiek, gainera, alde eta zentro jakin batzuetan batzen dira bereziki. Era berean, azpimarratu behar da Bigarren Hezkuntzako zentro askok euren ikasleen aniztasunari eman dioten erantzuna ez dela nahikoa izan.

Ildo berean, gizarte-egoera ahuleko taldeak babesteko asmoz, 2001. urtean ohiz kanpoko hiru txosten hasi dira, 2002.ean amaitu, eta Legebiltzarrean aurkeztuko direnak.

Minusbaliatuen arazoei bi ikuspegitatik ekin zaie, eta ikuspegi horiek txosten bitan islatuko dira. Alde batetik, erabilera publikoko zentro, zerbitzu eta instalazioetara sartzeko arazoak, eta, bestetik, minusbaliatuek lan-merkatuan txertatzeko dituzten aukerak.

Ohiz kanpoko hirugarren txostenean –bera ere 2001. urtean hasi zen– giza eskubideen errespetuaren ikuspegitik une honetan gertatzen ari den arau-hausterik handienetako bat aztertuko da: genero-indarkeria. Txostenak botere publikoek arazo larri horri eman dioten erantzuna azalduko du.

2001. urtea, zoritxarrez, saminez betetako urtea izan da, ETAk 15 lagun hil ditu-eta. Bihotz-bihotzez, elkartasunezko eta maitasunezko eskumuinak eman nahi dizkiet fanatismoaren eta zorrozkeriaren biktima izan diren lagun guztien senideei edo maiteei.

Bizitzeko, osotasun fisikorako, askatasunerako, segurtasun pertsonalerako eta adierazpen-askatasunerako eskubideak behin eta berriz urratu dira. Eta tragedia hori denoi dagokigu.

Bakearen kulturaren balio unibertsalek ez dute fruiturik eman Euskadin. Denon artean, balio horiek aldarrikatu behar ditugu, inork ez ditzan berrito urratu inoren eskubide oinarritzkoak.

Txosten honetan erakundearen talde osoak jardun du buru-belarri; bertan aurkituko dituzun jarduera batzuek ekarpena egin nahi izan dute, apal bada ere, eskubide batzuekiko errespetua eta bermea lortzeko. Zeregin zoragarri horretan, gogo biziz arituko naiz eta ziur nago zuen lankidetzak baliagarria izango dudala.

2002ko martxoa
JARDUNEKO ARARTEKOA
Mercedes Agúndez Basterra

I. ATALA
**ARARTEKOAREN JARDUERA
NAGUSIAK**

1. 2001 URTEAN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK

1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EMAN ZIREN AHOLKUAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

1.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESPETXEEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA DELA-ETA HASITAKO JARDUEREN JARRAIPENA

Arartekoak txosten berezia prestatu zuen, Euskadiko espetxeen egoerari buruz, eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion txosten hori, 1996. urtean. Txosten horrek banan-banan deskribatu zituen gure autonomia-erkidegoko hiru espetxeen arazoak. Horrekin batera, txostenak zenbait gomendio egin zituen, espetxeratuen egoera hobetzeko. Geroago, urte bereko txosten arruntean, Arartekoak informazio zabala jaso zuen, berak administrazio batzuetan eta besteetan egindako pausoei buruz, bai eta eremu zehatz batzuetan txostenak eragin zuen eztabaidari buruz ere (ikus 1996. urteko txostenaren I. kapituluko 2.1.2. atala).

Harrezkero, hurrengo urteetako txosten arrunt guztietan, Arartekoak jarraipenari buruzko atal bat jaso du; bertan, kezkek, jarduerak eta balorazioak islatu dira, kasuan-kasuan eskura izan dugun informazioaren arabera. Halako informazioa eman digute, besteak beste, espetxeetako zuzendariak, espetxeetan esku hartzen duten elkarteetako zuzendariak, batzorde jakin batzuetako zuzendariak, Osasun Saileko edo Justizia Saileko arduradunek, Estatuko Arartekoak... Sarritan, jarraipenak arreta berezia jarri du, batik bat, osasun-eskubidearekin eta osasun-laguntzarekin zerikusia duten arazoetan. Arazo horien artean aipa daitezke, besteak beste, hurrengoak: xiringak trukatzeko egitaraua zabaltzea; espetxeratuei laguntza psikiatrikoa ematea; Txagorritxu eta Basurton, zaintza bereziko ospitale-unitateek zer-nolakako baldintzak dituzten aztertzea... Bistan denez, espetxeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren esparruan sar daitezke arazo horiek guztiak. Ezaugarri horrek ahalbidetzen du Arartekoak zuzen-zuzeneko esku-hartzea izatea; beste gai garrantzitsu batzuetan, ordea, esku-hartze hori ezinezkoa izaten da.

Gai horretan, gogorarazi behar da espetxeen arloko eskumenak ez zaizkiola eskualdatu gure autonomia-erkidegoari; hori dela eta, gure autonomia-erkidegoko hiru espetxeak, oraindik, Barne Arazoetarako Ministerioaren menpe daude. Dena den, ministerio horrek eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzarako hitzarmen-markoa sinatu dute; horrez gain, beste hitzarmen berezi bat sinatu dute, osasunaren arloan. Hitzarmen horiei esker, Arartekoak gai horietan esku hartu ahal izan du, esku-hartzea lankidetzapeko arazoetara mugatzen bada ere. Egoera horrek zeharo baldintzatzen ditu jarraipena egiteko egiazko baldintzak, eta berak azaltzen ditu, neurri handi batean, bai landutako gaiak, bai erabilitako metodologia. Zinez, azken urte hauetan, jarraipena egin ahal izan dugu, harreman onak ditugulako espetxeetako zuzendaritzekin eta espetxeratuen laguntzarako elkarteekin; horiekin, aldian-aldian, trukatzeko-bilerak egin ditugu. Gainera, Arartekoak

lankidetzarako foroetatik batean parte hartzen du; izan ere, xiringak trukatzeko egitarauetan, jarraipen-batzordeak eratu dira, eta horietan parte hartzen du Arartekoak. Edozein kasutan ere, Arartekoaren esku-hartzea zeharkakoa da beti, gaietan mugatuta dago, eta, informazioa biltzeko orduan, ez du tresna egokirik; informazioa biltzeko tresna egokiak dira, esate baterako, zuzen-zuzenean espetxeetara bisita egitea, eta espetxeratuekin edo espetxeetako langileekin elkarrizketak izatea. Jarduera-esparrua hori izanik, aitortu behar dugu erakunde honentzat oso zaila dela landutako gaiak gehiago sakontzea edo kontrol handiagoa eta hobea egitea. Gauzak horrela, azken urte honetan, aipatutako jarduera-lerroak edo harreman-lerroak irekita egon dira (elkarteekin bilerak egitea; zuzendariekin elkarrizketak izatea; ospitaleetako unitateetara bisitak egitea...). Eta, arazo jakin batzuetarako, beste informazio-iturri batzuk bilatu izan dira, bilaketa hori beti arrakastatsua izan ez den arren.

Jarraipen-txosten hau prestatzeko orduan, hurrengo iturriak izan dira kontuan:

- Urtean zehar jasotako kexak.
- Kezkak eta datuak; horiek jasotzeko, apirilean eta maiatzean, bilerak egin dira 21 elkartetako kideekin, elkarte horiek laguntza ematen dietelako espetxeratuei.
- Espetxeetako zuzendaritzek azaldutako arazoak.
- Txagorritxu eta Basurtoko ospitale-unitateetara egindako bisitak, eta Donostiako Ospitaleko instalazioetara egindako bisitak.
- Espetxeetako Osasunaren Zuzendariorde Nagusiak egindako txostena; txosten hori 2000. urtekoa da, eta droga-menpekoekin izandako esku-hartzeari buruzko egitarauak aztertzen ditu.
- Eskatu eta bildutako informazioa; horretarako, ofizioz, espedienteak bidali zaizkie Osasun Sailari, Herrizaingo Sailari, Gizartekintza Sailari eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari.
- Ametzagañako menpeko unitatera egindako bisita.
- Egindako esku-hartzeak; halako esku-hartzeak burutu dira, talde desberdinek (funtzionarioek, IRSE Gipuzkoak, Ametzagaña Fundazioak...) azaldutako arazoan ondorioz.

Jarraian, labur-labur bada ere, arazorik aipagarrienak azalduko ditugu, landutako gaiak buruz, eta iturri batetik eta bestetik lortutako informazioari buruz.

• **Eskumenak eta lankidetzak-hitzarmenak, espetxeen arloan**

Esan bezala, espetxeen arloko eskumenak oraindik eskualdatzeko daude; alabaina, lankidetzak-hitzarmenak sinatu dituzte Barne Arazoetarako Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak (hitzarmen-markoa eta osasunaren arloko hitzarmen berezia). Gai horietan, ez da aurrerakada esanguratsurik gertatu; are gehiago, dirudenez, harremanak ez dira oso egokiak, eta aurreikusitako lankidetzak-bideak ez dira erabiltzen. Azken urte honetan, batzorde bereziak bildu ere ez dira egin; adibidez, Basauri eta Martuteneko espetxeetan, xiringak trukatzeko egitarauak ezartzeaz batera, jarraipen-batzordeak eratu ziren, eta, aurreko urteetan, horiek jardunean ibili badira ere, aurtun ez da halakorik gertatu. Ildo horretatik, azken bilerak lehenengo sei hilabeteetan egin ziren, Langraiz Okako espetxean egitaraua prestatu eta abian jartzeko.

Osasun sailburuari osasun-prestazioen inguruko azken txostena bidali genionean, bertan informazioa eskatu genion, gai horretako lankidetzak-hitzarmenaren egungo

egoerari buruz, bai eta, azken bi urteotan, aurreikusitako mekanismoek (jarraipen-batzordeek...) izan duten jardunbideari buruz ere.

Sailburuak erantzuna bidali zigun, 2002ko otsailaren 6an, baina bertan ez du inolako aipamenik egiten, gai horri buruz. Zernahi gisaz, sailburuak bi txosten luze eskaini dizkigu, 1999, 2000 eta 2001. urteetan egindako osasun-prestazioen datuei buruz.

• **Jasotako kexak**

Aurton, zenbait kexa jaso dira, eta bertan azaldutako gaiak aurreko urteetako gaien antzekoak izan dira; hori berori adierazi dugu, Justiziaren arloari egindako sarreran. Oraindik, preso batzuk euren ingurunetik urrun daude, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu, euren familientzat. Egoera horiei buruz, erakunde honek, eta beste ordezkari eta gizarte-agente batzuek ere, behin eta berriz egin dituzte adierazpen berberak. Aurton ere, erakunde honek harremanak izan ditu, ordezkari edo agente horietatik batzuekin.

• **Xiringak trukatzeko egitarauak**

Ezagunak denez, gure autonomia-erkidegoko espetxeetan, xiringak trukatzeko egitarauak jarri dira abian. Egitarau horien egungo egoera honetara labur daiteke::

- Basauriko espetxea: bertan, esperimentu moduan hasi zen egitaraua (XTE), 1997ko uztailan. Egitarau horrek ebaluazio positiboa izan du, eta zabaldu egin da, argitalpen erraz baten bitartez, beste proiektu batzuen oinarri izan dadin. Espetxeetako Osasunaren Zuzendariordetzak plazaratutako datuen arabera, 2000. urtean, 1.806 trukatzeko burutu ziren; eta banatzeak, aldiz, 572 izan ziren. Ondorenez, azken urte honetan, 2.378 xiringa eman dira guztira.
- Martuteneko espetxea: espetxe horretan, Xiringak Trukatzeko Egitaraua abian jarri zen, 2000ko otsailan, eta, harrezkero, egitarau horrek aurrera egin du, inolako arazorik gabe. Aipatutako datu-iturriaren arabera, data horretatik urtea bukatu arte, 370 trukatzeko burutu ziren. Banatzeak, berriz, 415 izan ziren.
- Langraiz Okako espetxea: ukitutako alderdiek, denok batera, lehenengo bilera egin zuten, 2001eko otsailaren 15ean, prozesuari hasiera emateko asmoarekin. Batzorde desberdinak jarri ziren abian, eta proiektua bukatutzat eman zen, maiatzean. Alabaina, proiektuaren betearazpena atzeratu egin zen, hilabete batzuetan, eta, zehatzago, uda igaro arte. Azkenean, urriaren 1ean, trukatzeko hasi ziren, eta, gaurdaino, ez daukagu horren inguruan bestelako daturik.

Labur-bilduta, gure autonomia-erkidegoko hiru espetxeek xiringak trukatzeko egitarauak dituzte, urriaz geroztik. Kalteak murrizteko egitarauen barruan sartzen dira, sartu ere, xiringak trukatzeko egitarau horiek. Begi-bistan geratu da halako egitarauak espetheen arloan duten erabilgarritasuna. Esperientzia hori beste autonomia-erkidego batzuetako espetxeetara zabaldu da, baina, gure iritziz, hori geldiroegi gertatu da. Edozein kasutan ere, erakunde honen aburuz, emandako pausoak positiboak izan dira. Era berean, positibotzat jo daiteke arduradunek kanporatu duten borondatea; borondate horren arabera, egitarau hori espetxe guztiei zabalduko zaie. Erakunde honek atsegin handiz hartu du baliabide hori sendotzea, hasieran —hau

da, 1995. urtean, hori ezarri zenean— susmo txarrak eta aurkako jarrerak eragin bazituen ere.

• **Espetxeratuei osasun-laguntza ematea**

Hemen zehatz-mehatz aipatu nahi dugu zein osasun-prestazio betetzen den, gure autonomia-erkidegoko berezko baliabideekin. Ofizios hasitako espedientean, eta 2002ko urtarrilaren 8an bidalitako idazkiaren bitartez, erakunde honek argibideak eskatu zizkion Osasun sailburuari, zenbait gairi buruz. Gaiok, besteak beste, ondokoak izan ziren:

- Basauri, Martutene eta Langraiz Okako zentroetan espetxeratuta daudenei begira, zein osasun-prestazio betetzen den;
- erakundeek zein balorazio egiten duten, emandako laguntzaren inguruan eta behar bezala bete gabe gera daitezkeen beharizanen inguruan;
- hobetzeko zein aukera dagoen eta zein proposamen egiten duten.

Osasun sailburuak erantzuna bidali zigun, 2002ko otsailaren 6an. Erantzun hori osasun-prestazioen gaira mugatzen da. Horretarako, bi txosten sakon eransten zaizkio erantzunari. Txosten horiek azaltzen dute zein zerbitzu eta zein prestazio egin duten sail horrek eta Osakidetzak, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeratuentzat. Txosten horietan, datu osoak jasotzen dira, 1999. urteari buruz (2000ko otsaileko txostena), eta 2000 eta 2001. urteei buruz ere (2002ko urtarrileko txostena).

Bi txosten horiek jarraipen-tresnak izan daitezke, osasunaren arloko lankidetzahitzarmenari begira; hitzarmen hori 1995eko azaroaren 20koa da. Hala izan dadin, txostenok arreta berezia jartzen dute, gure autonomia-erkidegoaren menpeko osasun-zerbitzuek egindako osasun-zerbitzuetan. Zerbitzu horiei begira, esku-hartze eremuak aurreikusita daude, eta eremuok jarraikoak dira: osasunaren gaineko sustapena eta hezkuntza; zaintza epidemiologikoa; ingurumenaren gaineko osasuna; elikagaien garbitasuna; buruko osasuna eta droga-menpekoei eman beharreko laguntza; farmazia-prestazioa; espezialitateetako kontsultak; laguntzak eta ospitaleratzeak; eta, orobat, heziketa. Datuen iturriak, ia kasu guztietan, zerbitzuen burutzak eurak dira, eta datuak espetxez espetxe zehaztuta daude.

Bi txosten horiek egitura desberdina badute ere, bi-biek informazio oparoa eskaintzen dute, batik bat, kopuruaren inguruko informazioa. Hemen, txosten horien datu batzuk baino ez ditugu islatuko, horiek lotura estuak dituztelako, gure aurreko txostenetan azaldu eta errepikatutako gai, arazo eta kezkekin.

a) Basauriko espetxeari dagokionez, eta bertako presoei emandako osasun-laguntzari dagokionez:

- Ebaluazio-datu batzuk jasotzen dira, xiringak trukatzeko egitarauari buruz (esate baterako, 12.500 kit banatu dira, eta 607 lagunek hartu dute parte, egitarauaren aplikazioko lehenengo 22 hilabeteetan).
- Sukalde eta jatokiko instalazioetan, ikuskapenak egin direnez gero, horien inguruko aipamenak egiten dira; era berean, zenbait aldaketa burutu dira, 2000ko martxoaren 3an, baimen egokia lortu ahal izateko.
- Espetxean bertan, espezialistek eman duten laguntzari buruz, honako datu hauek azpimarra daitezke:

• **Psikiatriako kontsultak, asteen behin:**

1999. urtean: 215 kontsulta, guztira, 54 laguni
2000 eta 2001. urteetan: 280 kontsulta (Buru Osasunerako Zentroa)

- Beste taula batean jasotzen dira ospitaleratzeen kopurua (35, 1999. urtean) eta espetxetik kanpoko bestelako laguntzak.
- b) Langraizko espetxeari dagokionez, eta bertako presoei emandako osasun-laguntzari dagokionez:
- Espetxea eta Santiagoko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzua elkarlanean ari dira, espetxeko osasun-zerbitzuen etengabeko heziketa ziurtatzeko.
 - Hutsuneak nabarmentzeaz gain, salatu egin da espetxeko hondakin-urak garbitzeko arautegia ez betetzea; horretarako, egindako analisisen datuak jasotzen dira, eta, haren ordeztu, gaitasun handiagoko bat jartzea proposatzen da.
 - Sukalde-jantokiko instalazioen eta funtzionarioentzako kafetegiaren baldintza higienikoei begira, zenbait jarduera burutu dira (ikuskapenerako bisitak eta zuzenketak egiteko proposamenak), eta horien berri ematen da; jarduera horien bitartez, osasun-baimena lortzeaz gain (1999 eta 2001. urteetan, hurrenez hurren), haien gaineko jarraipena burutu da.
 - Ikuskapenerako beste bisita bat egin da, eta horren inguruko argibideak ematen dira. Espetxeratu batek salaketa aurkeztu zuen, geletan arratoiak eta saguak zeudelako. Salaketa horren inguruko akta egin zen, eta horrek ekarri zuen bisita egitea.
 - Espetxean bertan, espezialistek eman duten laguntzari buruz, honako laburpen hau egin daiteke:
 - Odontologia: hilean, bi aldiz; batez beste, 20 gaixo, egunero.
 - Psikiatria: asteen, egun bat.
Guztira: 387 kontsulta (1999), 465 kontsulta (2000) eta 343 kontsulta (2001).
 - Beste taula batean jasotzen dira ospitaleratzeen kopurua (65, Txagorritxun, eta 18 ospitaleratze psikiatriko, 1999. urtean) eta espetxetik kanpoko bestelako laguntzak.
- c) Martuteneko espetxeari dagokionez, eta bertako presoei emandako osasun-laguntzari dagokionez:
- Xiringak trukatzeko egitarauari begira, urtean-urtean izandako kopuru osoak jasotzen dira: 1.750 xiringa (2000. urtean), 750 xiringa (2001. urtean).
 - Zenbait instalazioen osasun-egoera higienikoa zein den jakiteko, ikuskapen-bisitak egin dira (azkena, 2001eko uztailaren 19an); instalazio horiek izan dira, besteak beste, sukaldea, garbitasun-lokalak, biltegia, ekonomatua, zelularra (dutxa oso-osorik berriztatu da) eta gizonezkoentzako erizaindegia. Alabaina, ez da bisita horien emaitzarik islatu.
 - Espetxean bertan, espezialistek eman duten laguntzari buruz, honako laburpen hau egin daiteke:

- Ginekologia: espetxeko osasun-zerbitzuak hala eskatuta (2000. urtean: 45 kontsulta; 2001. urtean: 34 kontsulta).
 - Odontologia: asteen, behin (2000. urtean: 255 kontsulta; 2001. urtean: 254).
 - Psikiatria: hilean, bi aldiz (2000. urtean: 72 kontsulta; 2001. urtean: 97).
- Hurrengo tauletan laburtzen dira ospitaleratzeen kopuru osoa eta espexetik kanpoko kontsulta edo probak:

OSPITALERATZEAK

Espetxea	Ospitalea	1999. urtea		2000 eta 2001. urteak	
		Ospitaleratuen kopurua	Batez besteko egonaldia	Ospitaleratuen kopurua	Batez besteko egonaldia
Langraiz	Txagorritxu	65	—	208	—
	Santiago Psikiatria	16	—	83	—
Basauri	Basurto	32	18,22 egun	39	7,61 egun
	Galdakao	3	19 egun	—	—
Martutene	Aranzazu Ospitalea	20	—	Donostiako Ospitalea 19 (2000. urtea)	3,52 egun
	Gipuzkoako Ospitalea	20	—	23 (2001. urtea)	5,86 egun

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. "Osasun Sailak eta Osakidetzak egindako osasun-zerbitzu eta prestazioei buruzko txostena; zerbitzu eta prestazio horiek egin zaizkie EAEn espexeratuta daudenei. 1999. urtea". Idem, 2000 eta 2001. urteetan.

EAEn ESPETXERATUTA DAUDENEI ESPETXETIK KANPO EGINDAKO OSASUN-PRESTAZIO BATZUEI BURUZKO LABURPENA

Jarduera	Espetxea LANGRAIZ		Espetxea BASAURI		Espetxea MARTUTENE	
	1999	2000-2001	1999	2000-2001	1999	2000-2001
Espexetik kanpoko kontsultak	688	1.462	49	1.194	351	520 (2000) 523 (2001)
Larrialdietan emandako laguntza	267	532	54	37	78	88 (2000)
Erradiologia	595	1.252	—	—	—	121 (2000) 176 (2001)
Ospitaleratzeak	65	208	27	39	40	19 23
Psikiatrian ospitaleratzeak	16	38 + 45	8	—	—	—

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. "Osasun Sailak eta Osakidetzak egindako osasun-zerbitzu eta prestazioei buruzko txostena; zerbitzu eta prestazio horiek egin zaizkie EAEn espexeratuta daudenei. 1999. urtea". Idem, 2000 eta 2001. urteetan. Erakunde honek egina.

• Zaintza bereziko ospitale-unitateen egoera

Aurreko atalean jadanik aipatu dugu espetxeratuei emandako ospitale-laguntza. Laguntza horri dagokionez, erakunde honek arreta berezia jarri du, zaintza bereziko ospitale-unitateen egoeraren gainean. Aurreko urteetako txostenetan ere, horren berri eman izan dugu.

Azken urte honetan, erakunde honetako langileek bisita egin dute, Txagorritxu eta Basurtoko ospitaleetako zaintza-unitateetara; gainera, langileok ikertu dute zer-nolako laguntza ematen zaien Donostiako Ospitalean sartutako presoek, horiek zaintza berezia dutenean. Zehatz esateko, bisita horiek egin dira, 2001eko urriaren 19an eta azaroaren 8an, eta 2002ko urtarrilaren 22an. Bisita horietan, bilerak edo elkarrizketak egin dira, ospitale bakoitzeko arduradunekin, zaintzako agenteekin, osasun-langileekin eta, bisita egiteko unean, bertan laguntza jasotzen ari ziren espetxeratuekin. Halaber, instalazioak ikuskatu dira, egindako berrikuntzak egiaztatzeko, eta aurretiaz egindako gomendioak zenbateraino bete diren jakiteko. Laburpen gisa, honako elementu hauek azpimarra daitezke:

a) Donostiako Ospitalea: askatasunik ez dutenei emandako laguntza

Araba eta Bizkaiko beste ospitale batzuetan gertatu aldera, Donostiako Ospitalean ez dago zaintza bereziko unitaterik (ZBU), atxilotuak edo presoak bertan ospitalera daitezzen.

Orain dela urte batzuk, gaixotasun kutsagarriek dagokien solairuan, kontrol handiagoko gune bat dago; gune horretan, eta, zehatzago, korridorearen atzeko aldean, bi gela daude, eta bi gela horiek gainerako geletatik bereizteko, burdinlanga bat dago. Gela horietan, hiesa duten gaixo batzuk egon dira; baina, gaur egun, euren buruaz beste egin nahi duten gaixoak edo gaixo oldarkorrak daude bertan, eta, batez ere, alterazio psikikoak dituztenak (askotan, alterazio horiek zerikusia dute, droga-menpekotasunarekin).

Askatasunik ez dutenekin, arau orokorra da horiek zein gaixotasun izan eta gaixotasun horri dagokion solairuan ospitaleratzea. Eskuarki, askatasunik ez dutenei ematen zaizkien gelak korridorearen atzeko aldean izaten dira, poliziaren zaintza ahalik eta zuhurrena izan dadin.

Ospitalearen kudeatzailtzak azaldutako irizpidearen arabera, sistema hori egokiagoa da, osasun-antolakuntzaren ikusmiratik, eta, era berean, sistema horrek bermatu egiten du espetxeratuei eta gainerako gaixoei osasun-laguntza berbera ematea. Edonondik begiratuta ere, arazoak sortzen dira, espetxeratuek zaintzeko orduan: egungo sistema horretan, polizia-baliabide gehiago behar dira; horrez gain, agenteak korridorean egon behar dira, gelaren sarreran, eta, are gehiago, gelaren barruan, leihoa zaintzea beharrezkoa denean. Maiz-sarri, arazoak sortzen dira, deskribatutako baldintza horiek kaltegarriak direlako, bi alderdientzat. Poliziek ordu asko egiten dituzte zutik, edo, kasurik onenean, aulki batean eserita, gelaren atearen ondoan. Bestalde, gaixoak begi-bistako mugak ditu, bere intimitatean, eta, zenbait kasutan, bere erosotasunean ere (adibidez, zaratak edo elkarrizketak, berak lo egin nahi duenean).

Ospitalera bisita egin genuenean, zuzen-zuzenean antzeman genituen arazo horiek. Bisita egiteko une horretan, espetxeratu bat ospitaleratuta zegoen, eta zaintza berezia behar zuen; ondorenez, bost agente zeuden, gelaren atearen ondoan. Eurek

adierazi zigutenez, bi aulki besterik ez zituzten, eta ez kasu guztietan, gainera. Bestalde, leihoa eta patioa maila berean zeuden, eta, beraz, leihoa etengabe zaindu beharra zegoen. Nabari denez, baldintza horiek ez dira egokiak, zaintza gauzatzeko, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu, askatasunik ez duen pertsona horren gainean. Bisitei dagokienez, osasun-zentroko zuzendaritzak adierazi zigun bisitetan ez dutela irizpide berezirik aplikatzen. Are gehiago, gaixo horiek bereziki bakarturik daudenez gero, zuzendaritzakoek ez dute inolako oztoporik jartzen, espetxeratuarekin, eguneko 24 ordutan, norbait egon dadin. Haatik, arazo berberaren aurrean, Ertzaintzak adierazi zuen, eskuarki, espetxeetako irizpideari eusten zaiola; hau da, bi bista onartzen dira, astero. Alabaina, leku gutxi dagoenez gero, bisita bakoitzean, bi lagun bakarrik sar daitezke, ez, ordea, lau, espetxean bezala. Dirudienez, Basurto eta Txagorritxuko ZBUetan gertatu aldera, ez dago arautegi berezirik, espetxeratuak zaintzeko (bisitak, telefono bidezko komunikazioak, baimendutako objektuak etab.), edo, behintzat, lanean ziharduen unitateari ez zitzaion halako arautegirik eskaini, guk bisita egin genuen egun horretan.

Jakina denez, medikuaren kontsultak isilpekoak izan behar dira, eta, jasotako informazioaren arabera, zenbait kasutan, arazoak sortu dira, isil-gordea errespetatzeko. Erakunde honek behin eta berriz adierazi du bere iritzia, gai horren inguruan, eta Herrizaingo Sailak ere onartu du arau orokorra izan behar dela zaintza gelatik kanpo egitea, edo, behintzat, gutxieneko distantzia batera, ertzainarentzat elkarrizketa entzutea ezinezkoa izan dadin. Herrizaingo Sailak hurrengo jakinarazi zion Arartekoari: kasu jakin batzutean, nahitaezkoa bada agentea gaixoaren aldamenean egotea, horrek osasun-laguntza jasotzen duen bitartean, orduan arduradunak txosten bat idatzi beharko du, erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko. Guk egiaztatu dugunaren arabera, osasun-zentro honetan eta beste batzuetan ere, Ertzaintzako agenteei ez zaizkie behar bezala helarazi gai horren inguruko jarraibideak.

Bukatzeko, berriz argitu behar da beste batzuetan ere adierazi izan duguna. Erakunde honen eginkizuna ez da eredurik onena aukeratzea, askatasunik ez dutenei eredu horren barruan ospitale-laguntza eman dakien. Zernahi gisaz, Donostiako Ospitaleak egun dituen baldintzetan, zenbait hobekuntza sar daitezke, eta hobekuntza horiek onuragarriak izango dira, ukitutako alderdi guztientzat. Esate baterako, gela batzuetako leihoak alda daitezke, segurtasun-mekanismoak jartzeko (ospitalean bertan, bazeuden halako mekanismoak, Psikiatriako Unitatean); mekanismo horiek ihes egitea eragotziko dute, eta, horrela, ez da beharrezkoa izango poliziako agenteak gelaren barruan egotea. Ildo beretik ere, beste neurri batzuk asmatu eta antolatu beharko lirarteke, neurri horiekin hobeak izan baitaitezke askatasunik ez duten gaixoen eta gaixo horiek zaintzen dituzten funtzionarioen baldintzak.

b) Txagorritxuko Ospitaleko Zaintza Bereziko Unitatea

Azken urte honetan, ez da aldakuntzarik egin, Txagorritxuko ZBUren egiturari. Horregatik, bisitak helburu hau baino ez du izan: aurreko urtean egindako iradokizunak nola onartu diren eta nola gauzatu diren egiaztatzea.

Guztiontzako gela horretan, telefono publikoa jarri da, eta, zaintzako polizia-unitatearen arduradunak adierazi zigun bezala, telefono bidezko komunikazioen araubidea berbera da, ospitalean eta Langraiz Okako espetxean.

Bisitei dagokienez, hurrengo informazioa jaso genuen: interesdunek hala nahi badute, orduan, aipatutako gela horretan hartzen dituzte bisitak, hori logela baino handiagoa delako. Aurreko aldietan, espetxeratuek adierazi zuten halako bakardade-sentimendu bat izaten dutela, ospitalean dauden bitartean. Hori dela eta, erakunde honek proposatu zuen guztiontzako gela erabiltzea, gaixoak elkarrekin egon daitezten. Agenteei arazo horren gaineko galdera egin genienez, hauxe erantzun ziguten: gaixok ez dute sarritan halakorik eskatzen; baina, arazorik gabe, baimena eman daiteke, gaixoak, gela horretan, aldi baterako elkarrekin egon daitezten. Nolanahi den ere, Arartekoaren aholkulariek elkarrizketa egin zioten espetxeratu bati, hori ospitaleratuta zegoenez, eta espetxeratu horrek adierazi zuen ertzainek debekatu egiten zirela gaixoei, euren artean hitz egitea. ZBUren erizainek baieztatu egin zuten espetxeratuaren adierazpen hori. Hori dela eta, berriz egin behar dugu honako adierazpen hau: komeni da, ospitaleratuta dauden lagunen artean, komunikazioa egotea; horrela, haien bizitza-baldintzak ez dira izango espetxekoak baino murrizgarriagoak. Harreman pertsonal horiek eragozteko, arrazoi oso-oso bereziak izan behar dira (osasun-arrazoiak, segurtasun-arrazoiak etab.).

Era berean, eta aurretiaz erabakitakoaren aurka, hauxe egiaztatu genuen, gaixoaren gelan sartzean: gaixoaren objektu pertsonalak armairuaren barruan zeuden, baina armairuaren giltza agenteen esku zegoen. Poliziako arduradunak adierazi zuen horretan akats bat izan zela, eta armairua irekitzeko agindu zuen. Berak ziurtatu zigun etorkizunean ez dela modu horretan jokatu.

Bestalde, espetxeratuak bere esperientzia edo eskarmentua azaldu zigun; horren arabera, bizitza-baldintzak, orokorrean, egokiak dira, eta berak ez zeukan inolako kexarik, alde horretatik.

Bisiten araubideaz denaz bezainbatean, irizpideak ez dira aldatu, eta ospitaleko irizpideak espetxeko irizpideen antzekoak dra. Agenteei baieztatu zuten ez dutela arazorik izaten. Dena den, noizbait, sarrera ukatu zaio pertsonaren bati. Guk egiaztatu genuen erabaki hori ez zela bisita-liburuan agerrarazi, eta, horregatik, agenteei jakinarazi genien hori egiteko beharria dutela.

ZBUren osasun-langileek, bukatzeko, hauxe azaldu ziguten: behin, arazoak gertatu ziren, gaixo batek xiringak trukatzeko planean parte hartzen zuelako, eta, ospitalean sartzean, aukera hori ukatu zitzaielako. Zinez, arazo hori konpontzea ez da batere erraza; eta, bistan denez, etorkizunean berriz gerta daiteke. Hori dela eta, zenbait irizpide ezarri beharko dira, halakoetan nola jardun behar den jakiteko.

c) Basurtoko Ospitaleko Zaintza Bereziko Unitatea

Basurtoko ZBUra aurreko bisita egin genuenez, egiaztatu genuen bertan ez zirela egin erakunde honek proposatutako aldakuntzak. Nolanahi den ere, oraingo honetan, hobekuntza handiak igarri ditugu.

Leihoak babesteko burdin-sareak aldatu egin dira, eta egungoek itxura hobea dute. Alabaina, zulatutako txapa metalikoak jarri dira, eta horrek berezko argia sartzea oztopatzen du.

Gela batean, ate bat jarri da, eta ate horrek bainu-gelarekin komunikatzen du; horrela, gaixoak bere kabuz erabil dezake bainu-gela, eta ez da beharrezkoa poliziako agenteek gaixoari gela irekitzea eta komunerako sarrera libre uztea. Antzinako sistema erabiltzen da, oraindik, beste bi geletan; Txagorritxuko ZBUen ere, gauza

bera gertatzen da.

Bi bainu-gela badira ere, batean ere ez da ispilurik jarri, nahiz eta gure iradokizuna bide horretatik joan. Ospitaleko arduradunek adierazi zuten kontuan hartuko zutela arazoa. Modu berean ere, guk eskaria egin genien ospitaleko arduradunei, askatasunik ez duten lagunentzat telefono publikoa jar dadin. Ospitaleko arduradunk berriz adierazi zuten kontuan hartuko zutela arazoa; dirudienez, egiazko arazoa da, ospitalearen beste alderdietan ere, halako telefonoak oso ugariak ez izatea.

Telebistaz denaz bezainbatean, tresna pribatuak erabil daitezke, betiere, gaixoaren banakako inguruabarrak gogoan izanik; baina ospitaleak ez du tresnarik eskaintzen, gainerako geletan hori egiten badu ere. Gai horren inguruan, aintzakotzat hartu behar da ZBUen izandako ospitaleratze gehienak arrazoi psikiatrikoen ondorioz gertatzen direla. Horregatik, osasun-arduradunen ustez, ez da komeni telebista ikustea.

Zaintzako agenteen lokalean, nolabaiteko hobekuntzak egin dira. Hobekuntzak izan dira, berebat, ZBUren sarrera-atea zaintzeko sistemetan (bideo-kamera berriak, metalak detektatzeko arkuak...).

Txagorritxun gertatu aldera, ospitale-unitate honetan, gaixoez armairuetan sartzen dituzte euren objektu pertsonalak, baina armairu horiek geletatik kanpo daude. Alde horretatik ere, erabakigarria da ospitaleratuen artean buruko gaixotasunak nagusi izatea.

Lehen esan dugun bezala, osasun-kontsulta isilpekoa izan behar da. Kasu horretan, arau orokorra omen da ertzaina bertan egotea, adituak kontrakoa eskatzen duenean izan ezik. Egiatan, ospitale desberdinek ezaugarri bereziak izan ditzakete, eta ezaugarri horiek kontuan hartzekoak dira. Ezaugarriok gorabehera, bistan da ez dagoela irizpide homogeneorik, argi eta garbi ezarrita. Erakunde honen iritziz, hori hutsune bat da.

• **Ametzagañako zentroaren egoera (Martuteneko espetxearen menpeko unitatea)**

Ametzagañako Pedagogia Zentroa sortu zen, Martuteneko espetxeko menpeko unitate moduan. Zentro hori jardunean dabil, 1994ko irailaz geroztik, Espainiako Gobernuaren (Espetxeak) eta Eusko Jaurlaritzaren (Justizia Saila - Giza Eskubideak) arteko hitzarmenari esker.

Jakina denez, erakunde honek txosten berezia prestatu zuen, espetxeen egoerari buruz. Txosten horretan, zentroaren baldintzak aztertu ziren, eta gomendio berezi bat egin zen, zentro horren inguruan; gomendioaren helburua zen, hain zuzen ere, zentroa hobeto aprobetxatzea eta, ahal izanez gero, zentro hori zabaltzea (ikus 57. gomendia).

Zentroaren oinarritzko helburua da, espetxealdiaren ordean, gazteei beste alternatiba batzuk eskaintzea, gazte horiek berriro ez erortzeko konpromisoa hartu dutenean. Gazte horiei espetxetik askatasun-egoerarako igarobidea erraztu nahi zaie. Horretarako, laguntza pertsonalizatua emateaz gain, egitarau eta jarduera desberdinak antolatzen dira eurentzat (heziketari buruzkoak, lanbideari buruzkoak eta teraupertikoak), testuinguru ireki batean.

Zentroaren erabiltzaileek, gaur egun, honako ezaugarri hauek dituzte, behin erakunde honek egindako gomendia aintzat hartu eta gero: pertsona gaztea (28 urtekoa baino

gazteagoa); kondena betetzen ari dena; gizonetako; eta, espetxeetako arduradunek hala proposatuta, borondatez zentro horretan sartzea onartu duena.

Arartekoak eta erakunde honetako langileek bisita egin zuten zentrori, 2002ko urtarilaren 23an. Bisita hori egin zen, aurretiazko esku-hartze baten ondorioz; izan ere, hitzarmena berrizatzeko orduan, arazoak sortu ziren, eta horiek eragin zuten esku-hartzea. Bisita-egunean, zentroan, 14 gazte bizi ziren. Gazte horiek Basauri, Langraiz Okako eta Martuteneko espetxeetatik zetozen; gehinenak, egia esateko, azken espetxe horretatik.

Bisita egin zen instalazioetara; denbora batez izan ginen bertako gazteekin; bilera egin genuen profesionalen taldearekin; eta, horrela, hainbat datu eta dokumentu bildu genituen. Horiei guztiei esker, zentro horri buruzko informazioa eguneratu genuen.

Labur-labur bada ere, hona hemen zenbait datu eta arazo interesgarri:

- 1994. urtetik gaurdaino, 85 erabiltzaile izan dira; gehienak, Martutene (% 72), Langraiz (% 16) eta Basaurikoak (% 12). Batez besteko egonaldia, berriz, 185 egunekoa da.
- Erakunde honek egindako proposamenaren arabera, erabiltzaileen ezaugarriak zabaldu dira. Zabaltze horren ondorioz, zentroa hobeto aprobetxa daiteke, eta alternatiba hori beste gazte batzuei ere zabaldu ahal zaie, lehen horiek ez baitzituztelako ezaugarriak betetzen. Zentroaren okupazioa, batez beste, 11 lagunekoa da.
- Azken urte honetan (2001eko azaroa arte), zentroan laguntza eman zaie 19 gazteri. Horietatik 12 Martutenetik zetozen.
- Hitzarmena urtero-urtero berriztatu da; diru-laguntzetan, igoera txikiak izan dira, eta zenbait arazo izan direla aipatu beharra dago. Azken hitzarmena 2001. urteari dagokio, eta urte horretako abenduaren 3an sinatu zen, sortutako arazoak gainditu eta gero.
- Gaur egun, Ametzagaña Fundazioaren etxebizitza-moduluetatik bat bakarrik erabiltzen da zerbitzu horretarako. Ekoizpen-tailerrak ez dira erabiltzen. Erabiltzaileak zentrotik kanpo joaten dira, heziketa-jardueretara edo lanbide-jardueretara (azken urte honetan, 11 gaztek ikastaroak egin dituzte, inguruko zentroetan, eta 5 gazte lanean ibili dira, hurbileko enpresetan).
- Zenbait kasutan, zerbitzu berriak eskaintzeko aukera edo beste talde batzuei (adibidez, emakumezko kondentuei, barnerapen-neurriak dituzten adingabeei...) zerbitzu egiteko aukera eztabaidatu da. Badago horretarako egiturarik eta nolabaiteko baliabiderik; baina, gaurdaino, hori ez da proiektuetan islatu.
- Aztertutako behaketa-tresna eta jarraipen-tresnen bitartez, jakin daiteke zeintzuk izan diren gauzatutako egitarau eta jarduerak (lanbide-heziketa, heziketa akademikoa, laguntza terapeutikoa...), bai eta zer-nolako bilakera izan duen gazte bakoitzak. Era berean, zentroaren ebaluazio-dokumentuei esker, datuak, ezaugarriak, baldintzak, prozedurak, erabilitako baliabideak... identifika eta azter daitezke, horietatik zenbait ondorio ateratzeko.

Erakunde honek, hasierako txostenaz gain, jarraipenak egin ditu, urtero-urtero, eta, gomendio orokorretan ere, aipamen zehatzak egin ditu. Horietan guztietan, erakunde honek azpimarratu du beharrezko eta komenigarria dela, espetxealdiaren ordez, beste

egitarau batzuk garatzea. Ametzagañako zentroaren eskarmentua eredu izan daiteke, antzeko jarduerak burutzeko edo, behinik behin, eredu horretatik ikasbideak ateratzeko, etorkizunean beste jarduera edo proiektu batzuk abian jartzen direnerako. Edozein kasutan ere, erakunde honen gomendioa da zentro horrek eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea, espetxeari begira alternatiba bat delako.

• **Elkarteek azaldutako arazo nagusiak eta kezkarako arrazoiak**

Elkarte zehatz batzuek laguntza ematen diete espetxeratuei, edo, bestela, zentroetako egitarauari begira, egitarau osagarriak edo ordezeko egitarauak erabiltzen dituzte. Erakunde honek trukatzeko bilerak egin ditu elkarte horiekin, apirilaren 25ean (Gasteizen), apirilaren 26an (Bilbon) eta maiatzaren 2an (Donostian). Guztira, 21 elkarte desberdinetako kideek parte hartu dute bilera horietan; elkarte gehienek Langraiz eta Basauriko espetxeetan esku hartzen dute. Elkarte horien artean, besteak beste, hurrengoak aipa daitezke: Arabako SOS-Arrazakeria, Arabako Cáritas (PAEX), Arabako “Proyecto Hombre” izenekoa, Arabako Ihesaren aurkako Batzordea, Salhaketa, Arabako Espetxe Laguntzarako Txanda, Arabako Alkoholiko Anonimoak, Arabako Gurutz Gorria, Bizitegi, Bilbo-Etxezabal, Bizkaiko “Proyecto Hombre” izenekoa, Goiztiri, Etorkintza, Salhaketa-Bizkaia, Adsis-Bestalde, Torturaren Aurkako Taldea, Izangai, Gipuzkoako “Proyecto Hombre” izenekoa, Gipuzkoako Alkoholiko Anonimoak.

Jarraian, labor-labor bilduko ditugu bilera horietan azaldutako arazoak edo kezkarako arrazoiak:

- Elkarteek arazoak dituzte, euren zeregina betetzeko, batez ere, Langraiz Okako espetxean, egutegiak murriztuta daudelako eta pertsona berriak egiaztatzeko arazoak daudelako.
- Dirudienez, Langraizko gaixo psikiatrikoentzat, unitate berezi bat sortuko omen da, Santiagoko Ospitalean, baina ez dago horren inguruko informazio zehatzik, eta hainbat zalantza daude.
- Araban, ez dago laguntza espezializatuko txandarik, atzeritarrentzat; Bizkaian, berriz, badago halakorik.
- 92. artikulua aplikatzearen ondorioz, gaixo batzuk espetxetik atera dira; baina zentrori itzuli behar dira berriro, kanpoan ez dutelako erantzunik aurkitzen, gaixo horiek harrera-etxetik bota dituztelako...
- Baldintzapeko askatasuna lortzean, atzerapenak edo ez-betetzeak gertatzen dira, ez dagoelako toki egokirik, sustrairik edo baliabiderik gabeko pertsonak hartzeko.
- Gasteizko Frantzia kalean, gizarte-laguntzarako bulegoa zegoen, baina hori itxi egin da. Egun, hainbat zailtasun daude, zeregin horiek Langraizko espetxean bertan egiteko; eta, horregatik, proposamena egin da, Justizia Jauregian lokal bat atontzeko edo beste zerbitzu bat prestatzeko (proposamena eginda zegoen, eta, geroago, zuzendu egin da).
- Langraizko erizaindegiaren baldintzak urri-urriak dira.
- Buruko patologietan jarritako arreta askieza da.
- Atzeritar espetxeratu batzuek, espetxetik ateratakoan, baldintza tamalgarriak izaten dituzte (bizitzeko baliabiderik gabe; berriztatutako dokumentaziorik gabe; osasun-laguntzarik gabe; espetxetik ateratzearen ondoriozko laguntzarik gabe...).

- Elkarte batek arazoak ditu, espetxean sartzeko; izan ere, elkarteari erantzukizun zibileko aseguruia izatea eskatzen zaio, eta, elkarre horrek, bere estatutuen arabera, ezin du halakorik izan.
- Espetxeratuak euren buruaz beste egin ez dezaten, neurriak askiezek dira, eta kezka handiak daude, azken urte honetan gertatutako heriotzen ondorioz.
- Tratamendurako taldeen eta ordezeko zereginak betetzen dituzten elkartearen artean, harremanak oso desegituratua daude edo desegokiak dira (jarduera-protokoloak edo koordinariorako erakundeak antolatu beharko lirateke).
- Langraizen, garbitasun-baldintzak, elikadura eta buruko osasuna zaindu behar dira.
- Langraizen, errekurtsioen izapidetza egiteko orduan, geldotasuna eta atzerapenak dira nagusi.
- Espetxeratuaren arteko sailkapenari buruz, erabaki eztabaidagarriak hartu dira, eta zalantza jarri dira, orobat, erabakiak hartzeko ezarritako epeak eta ezagutzamaila. Ildo horretatik, nahiz eta elkarteek preso jakin batzuekin lan egin, elkarteek ezin dituzte euren balorazioak edo proposamenak eman, horiek ez baitira kontuan hartzen.
- Gure autonomia-erkidegoan ez dago lehen graduko modulurik, eta horrek ondorio kaltegarriak dakartza (urruntzeek eta lekualdaketez eragotzi egiten dute laguntzari eustea...).
- Zailtasunak daude, elkarre berriak sar daitezten; arduradunen ustez, ez dago ase beharreko demanda edo beharizanik.
- Hirugarren graduko presoekin, arazoak daude, medikazioen gaineko jarraipena egiteko.
- Basaurin, abuztuan, zenbait analitika egin ziren, eta, beharbada, nahasteak izan dira, analitika horietako batzuetan.
- Preso batzuek, espetxetik ateratakoan, ez dute inolako laguntzarik; gainera, atzerapenak gertatzen dira, espetxetik ateratzearen ondoriozko laguntza kobratzeko. Epeak laburtu beharko lirateke, edo, osterantzean, behin-behineko formularen bat bilatu beharko litzateke.
- Atzerritarrei baimenak ukatzen zaizkie, bertan sustrairik ez dutelako.
- Espetxe-aldaketak gertatu dira, aurretiaz abisurik eman gabe, eta horrek ondorio larriak ditu, laguntzari eutsi ahal izateko...

Nabarienez, aurton azaldutako arazorik gehienak eta aurreko urteetakoak antzekoak dira (ikus, hala nola, 1998 eta 1999. urteetako txostenak). Zenbait kasutan, konparazioak egiten dira: espetxe honetan bestean baino hobeto, aurreko urteetan baino okerrago... Arazo batzuk elkartearen lanari buruzkoak dira, zehatz-mehatz. Baina, arazo gehienek kasuan, hobetu beharreko hainbat kontu daude, kontu horiek eragina dutelako, espetxeratuaren bizitza-baldintzen gainean.

Arazo horietako batzuen inguruan, erakunde honek zenbait jarduera burutu ditu, ofizioz, azken urte honetan. Esate baterako,

- Osasun Sailean, osasun-prestazioei dagokiena (aurreko ataletan jadanik azaldu duguna).
- Gizartekintza Sailean, espetxetik ateratzearen ondoriozko laguntzei dagokiena.

Esan bezala, talde eta elkarre batzuek lanean dihardute, espetxearen arloan eta gizarteratzearen arloan. Talde eta elkarre horiekin zenbait bilera egin dira. Azken

bileran, beren beregi aztertu zen honako arazo hau: espetxeratuek, espetxean egon eta gero, askatasuna lortzen dutenean, eskubidea dute, laguntza ekonomikoak eskuratzeko; baina, horretan, atzerapen handiak izaten dira. Egia esan, espetxetik ateratzearen ondorioz, langabezia-laguntza lor daiteke, horren baldintzak betez gero; baina, laguntza horren inguruko izapideak ez dira hasten, harik eta pertsona espetxetik atera arte. Horregatik, denbora batez, pertsona horrek ez dauka inolako laguntza ekonomikorik.

Arazo horretan sakonduz, Goiztiri elkarteak Arartekoarengana jo zuen. Elkarte horrek, bere eskarmentuaren bitartez, hauxe egiaztatu du: *Espetxetik ateratzean, pertsona gehienek ez dute baliabiderik; barruan ezin dute lanik egin, eta ezin dute sortu bizitzeko diru-sarrerarik, harik eta langabezia-laguntza eskuratu arte. Epe hori, gutxi gorabehera, bi hilabetekoa izaten da. Bitarte horretan, eta aurrekoaren ondorioz, pertsona horrek arrisku handia du delitu bat edo gehiago egiteko.*

Bestalde, guk hauxe azpimarratu nahi dugu, beste batzuetan egin dugun bezala: nahitaezkoa da gizarte osoak, eta, bereziki, Euskadiko Herri Administrazioak, parte hartzea eta baliabideak erabiltzea, espetxeratzeak ekar ditzakeen bazterkeria-arriskuak saihesteko. Dena den, jakin badakigu, azaldutako arazoa artikulatzeko, hainbat arazo daudela. Aldi berean ere, bistan dago erakundeen erantzunak ikuspuntu desberdinetatik etor daitezkeela. Adibidez, komenigarri izan daiteke autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuak eta espetxeetako zerbitzuak koordinatzea; horrela, laguntza eta diru-laguntzen izapidetza erraztu egingo da, espetxeratuek benetan askatasuna lortu aurretik ere. Jarduteko beste modu bat izan daiteke beren beregi aitortzea askatasunik eta baliabide ekonomikorik ez dutenen egoera berezia; horrekin batera, neurri egokiak hartu behar dira, espetxetik ateratzean bertan, gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzen dela bermatzeko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila sortzeaz geroztik, eskumenak birbanatu egin dira. Harrezkero, Arartekoak uste izan du egoki dela azken horretara jotzea. Beharbada, eskatutako laguntzen kudeaketa ez dagokio sail horri; baina, gure ustez, horren eskumen-esparruan sartzen da antzemandako beharrianak aztertzea, eta, hala denean, horiek betetzeko beharrezkoak diren baliabideak sustatu eta antolatzea.

Gizarte Ongizate Zuzendaritzak, erantzuna bidali zigunean, adierazi zigun bera ere kezkatuta eta arduratuta zegoela azaldutako arazoarekin, eta arazoaren berri bazuela adierazi zigun. Era berean ere, zuzendaritzak adierazi zigun proposatutako neurriak abiarazteko ahalmenak, batetik, Justizia, Emplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailari, eta, bestetik, tokiko administrazioei dagozkiela. Nolanahi den ere, zuzendaritzak konpromisoa bereganatu zuen, erkidegoko gizarte-zerbitzuen eta espetxeetako zerbitzuen artean, koordinazioa suspertzeko; horrela, antzemandako beharrianek estaldura egokia lortu ahal izango dute.

Erakunde honi dagokionez, Arartekoak erabaki hau hartu du: espetxetik ateratzen direnei laguntza emateko orduan, egun, hutsunea dagoenez gero, erakunde batzuen ardura da hori saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea; horregatik, Arartekoak arazoa helaraziko die erakunde horiei.

Bukatzeko, hemen gogorarazi behar dira, iaz, Estatuaren Arartekoarekin izandako harremanak; izan ere, Langraizko espetxeratuen talde batek zenbait hutsune eta

akats salatu zituen, eta horiek ekarri zuten Estatuaren Arartekoarekin harremanetan jartzea. Iazko txostenean, xehetasunez laburtzen dira harreman horiek.

- **Ertzaintzaren zaintzapeko espetxeratuak espetxetik kanpoko tokietara eramatea**

Gure autonomia-erkidegoaren barruan, Ertzaintzaren eskumena da espetxeratuak espetxetik kanpoko tokietara eramatea. Harrigarria bada ere, lurralde historiko bakoitzean (hots, espetxe bakoitzean), irizpide desberdinak erabiltzen dira, lekualdaketak antolatzeko orduan.

Arazoa gertatzen da, batez ere, Langraizko espetxeratuak Bizkaiko epaitegietara eraman behar direnean; bertara joateagatik, espetxeratu horiek Basauriko espetxean egin behar dituzte egun batzuk. Elkartek eta espetxeetako zuzendariak behin eta berriz salatu dute egoera hori, bai eta berak dakartzan arazoak ere. Ararteko erakundeak, aurretiaz ere, arazo horretan esku hartu behar izan du.

Bildutako informazioaren arabera, eskuarki, Langraiz eta Basauri arteko lekualdaketak, astean zehar, bi egunetan egiten dira. Horrela, Langraizko espetxeratuak zitazio judiziala badute, adibidez, egun zehatz baterako Bilbon, orduan Basauriko espetxean egon behar dira, baita aste osoa ere. Irizpide horrek hainbat eragozpen sorrarazten ditu kasuan-kasuan; baina eragozpenik argienak hurrengoak dira: lana galtzea; senideek nora joan behar duten ez jakitea, osasun-tratamenduekin jarraitzeko arazoak...

Bestalde, irizpide hori kasu zehatz batzuetan bakarrik aplikatzen da. Esate baterako, espetxeratu emakumezkoa edo lehen graduako preso bada, eta horrek jasotzen badu zitazioa, orduan espetxeratu hori zuzen-zuzenean eramaten da epaitegia, eta, egun horretan bertan, espetxe berberera itzultzen da. Jasotako informazioaren arabera, irizpide bera erabiltzen da, Basauriko espetxeratuak Gipuzkoako epaitegietara eraman behar direnean edota Martuteneko espetxeratuak Bizkaiko epaitegietara eraman behar direnean.

Datu horiek kontuan hartuta, Ararteko erakundeak berriz ere jo zuen Herrizaingo Sailera, eta honako proposamen hau egin zion sail horri: Langraizko espetxeratuak Bizkaiko epaitegietara joateko zitazioa jasotzen dutenean, espetxeratu horiek zuzen-zuzenean eraman behar dira beraietara, eta, egun horretan bertan, Langraizera itzuli behar dira, Basaurin egon gabe.

Arartekoak hauxe gaineratu zuen: sailaren ustez, proposamen hori ezinezkoa bada, orduan sailak adierazi behar du zein oztopo edo zailtasun aurkitzen duen, proposamena abian jartzeko.

Herrizaingo Sailak erantzuna bidali zigun. Erantzun horri helduta, gaur egun, proposamena ezinezkoa da, eta arrazoiak hauexek dira: proposamen hori betetzeko, asko gehitu behar dira unitatearen giza baliabideak eta baliabide materialak, unitate horren ardura baita presoak epaitegietara eramatea; baliabideen gehikuntza hori ezinezkoa da, egungo plantila eta zerbitzuaren beharrianak kontuan hartuta.

- **Irakasleen egoera, horiek espetxeetan irakasten dutenean**

Esan bezala, Arartekoak txosten berezia prestatu zuen, espetxeen egoerari buruz. Txosten horretan, orduko, erakunde honek gomendio berezia egin zuen, espetxeetako irakasleen lanbide-egoera hobetzeko beharrianari buruz; gomendioari eutsiz, LOGSE

izenekoaren 10. xedapen gehigarria garatu beharra zegoen. Azken urte honetan jasotako kexaren ondorioz, berriro ere arazoari heldu behar izan diogu.

Emakumezko bi funtzionariok helarazi zioten kexa Arartekoari. Bi funtzionario horiek, lehen, irakasleen kidegoan zeuden, Espetxeetako Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren barruan; baina, uztailearen 9ko 1.203/1999 Errege Dekretuaren ondorioz (uztailearen 21eko EAO), funtzionario horiek egungo maisu-maistren kidegoan geratu dira. Biek euren irakaskuntza-eginkizunak betetzen dituzte, Martuteneko espetxean. Alabaina, egoera berbera dute gure autonomia-erkidegoko beste espetxeetan diharduten irakasleek ere.

Lehenengo eta behin, aztertu egin genuen uztailearen 9ko 1.203/1999 Errege Dekretuan jasotako arauketa. Behin hori egin eta gero, hauxe uste izan genuen: Euskal Hezkuntza Administrazioari dagokio, egitez, hezkuntza-zerbitzua egitea, beraren kudeaketa-esparruko espetxeetan; baina, eginkizun eta zerbitzuen eskualdaketari buruzko hitzarmena egiten ez den bitartean, funtzionario horiek ez daude benetan sartuta Euskal Hezkuntza Administrazioan. Egin-eginean ere, hitzarmen horrek bere barruan hartu behar du langileen transferentzia (ildo horretatik doa Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria). Hala eta guztiz ere, ez geneukan bestelako daturik, gure ustezko esku-hartzea bideratzeko. Horregatik, azaldutako kexari behar den moduko tratamendua emateko, komenigarri iruditu zitzaigun Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioari laguntza eskatzea. Administrazio horri galdetu genion zer-nolako egoera duten, benetan eta zinez, funtzionario horiek, bai legearen ikusmiratik, bai egitezko tratamenduari dagokionez (ordainsariak, eginkizunen araberako mendekotasuna etab.).

Esku-hartze horri erantzunez, erakunde honi txosten bat bidali zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileen Kudeaketarako zuzendariak. Txosten horren arabera, zuzendariak adierazi zigun harremanak izan dituela Autonomien Garapenerako eta Erakundeen arteko Harremanetarako Zuzendaritzarekin. Harreman horietatik honako ondorio hau atera daiteke: Espetxeetako Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren irakasle-taldea Estatuaren Administrazioaren maisu-maistren taldean sartzen da, eta talde horretako langileen transferentzia oraindik ez da gauzatu. Transferentzia ez gauzatzeko arrazoia hurrengoan izan da: *“Estatuaren Administrazioak, gaurdaino, ez du inolako interesik erakutsi, gai hori Transferentzien Batzorde Mistoan eztabaidatzeko. Are gehiago, ikuspuntu tekniko hertsuari helduta, eta oraingo egoera aintzakotzat harturik, ez litzateke inolako arazorik egongo, horretarako”*.

Hortaz, emakumezko funtzionario horien administrazio-egoera eta eginkizunen araberako egoera normalizatzeko, transferentzia egin behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioari. Hori ikusita, erakunde honek kexa helarazi dio Estatuaren Arartekoari, erakunde horrek beharrezkoak diren ekimenak susta ditzan, Estatuaren Administrazioaren organo eskudunetan.

- **Euskal presoak, beste autonomia-erkidego batzuetako espetxeetan**

Espetxeratuentzat eta horien familientzat, arazo ugari izaten dira, haiek askatasunaz gabetzeko zigorra bete behar dutenean, euren bizilekuetatik urrun dauden espetxeetan. Erakunde honentzat ere, arazo hori kezka-iturria da.

Egitan, abiaburua hauxe izan daiteke: zigortuek ez dute eskubide subjektiborik, euren bizilekutik hurbilen dagoen espetxean kondena betetzeko. Hala eta guztiz ere, desiragarria izango litzateke autonomia-erkidego orotan zentro egokiak izatea, espetxeko erregimen guztietako zigorrak bertan bete ahal izateko. Hori lortzen ez den bitartean, espetxeratu batzuk euren familia-egoitzatik urrun dauden espetxeetara eraman behar dira. Horixe gertatzen da, gaur egun, Euskadin; esate baterako, ez dago erregimen itxia betetzeko modulurik, ez dago amen unitatetik, ez dago gelarik adimeneko gaixoentzat...

Bestalde, Arartekoak uste du euskal erakundeek euren berezko erantzukizunak bereganatu behar dituztela, espetxean egon direnak benetan gizarteratzeko; eginkizun hori, egia esan, herri-botere guztiei dagokie. Nabari denez, helburu hori lortzea errazagoa izango litzateke, Euskaditik kanpo kondena betetzen ari direnen kopurua kontuan hartuta.

Erakunde honek, beraz, kezka hori adierazi du. Antzeko kexa du, antza, Andaluziako Arartekoak. Arian ere, Andaluziako Arartekoak gai bakarreko txostena aurkeztu zion bere parlamentuari, 1996ko azaroan. Txosten horren izenburua hauxe izan zen: *Andaluziako preso en egoera, preso horiek Andaluziako espetxeetatik kanpo betetzen dituztenean euren kondenak*. Txosten hori prestatzeko, Andaluziako Arartekoak Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak erabili zituen.

Inguruabar hori ikusita, guk ere erakunde horri datuak eskatu genizkion, gure autonomia-erkidegoan ohiko bizilekua duten espetxeratuei buruz. Alabaina, gaurdaino, ez dugu inolako daturik jaso. Izan ere, aipatutako zuzendaritza nagusiak adierazi zigun, datu horiek lortzeko, Estatuaren Arartekoarengana jo behar genuela. Guk horrela jardun dugu, eta, txosten honen prestaketa ixteko unean, oraindik erantzunaren zain gaude.

- **Zigorra erregimen irekian betetzea**

Espetxeen arloko egungo eskumen-banaketa alde batera utzita, Ararteko erakundeak beti uste izan du beharrezko, premiazko eta ahalezkoa dela, gure autonomia-erkidegoan, erregimen irekiko betepen-aukerak garatzea, bai eta espetxealdiaren ordezkotako zigorrak aplikatzea ere; horiek guztiak legean bertan ezarrita daude. Uste horren eretxean, iaz, gomendio orokorra egin genuen, hurrengo izenburuarekin: "Asteburuko atxilotzeak eta espetxealdi-zigorra betetzearen ordezkotako formak: Euskal Autonomia Erkidegoaren erantzukizuna". Hemen ere, gomendio hori gogorarazi nahi dugu, oso garrantzitsua delako.

- **Droga-menpekoekin izandako esku-hartzeari buruzko egitarauak**

2002ko urtarrilaren 25ean, erakunde honek txosten berezi baten alea jaso zuen; txosten horren izenburua hauxe da: *Espetxeetan, droga-menpekoekin izandako esku-hartzei buruzko egitarauak. Egitarau horiei buruzko 2000ko Txostena*. Txosten hori bidali zigun Espetxeetako Osasunaren zuzendariorde nagusiak. Txostenak gai horretan egindako jarduera nagusiak jasotzen ditu, eta, horrekin batera, oinarritzko datuak biltzen ditu, esku-hartzeen inguruko egitarau bakoitzari buruz.

Hurrengo taulan, zenbait datu ageri dira, gure autonomia-erkidegoko espetxeei buruz. Datu horiek txosten horretatik atera ditugu, eta taularen helburua da oso-osoko eta konparazio bidezko ikusmira eskaintzea.

DROGA-MENPEKOTASUNEN ARLOAN ESKU HARTZEKO EGITARAUAK DATU HAUEK GURE AUTONOMIA-ERKIDEGOKO HIRU ESPETXEEI BURUZKOAK DIRA. DATUON JATORRIA IZAN DA ESPETXEETAKO OSASUNAREN ZUZENDARIODETZA NAGUSIAK 2000. URTEAN PRESTATURIKO TXOSTENA				
	BASAURI	MARTUTENE	LANGRAIZ	GUZTIRA
ARGIBIDEAK / AURRENEURRIAK				
Informazioa/Motibazioa/Harrera	347	-	2.629	2.976
Osasunerako hezkuntza	633	-	2.629	3.262
XIRINGAK TRUKATZEA				
Banatzeak	572	(415)	-	987
Trukatzeak	1.806	(370)	-	2.176
METADONA				
Guztira, urtebeteko tratamenduan	268	142	310	720
Abenduaren 31n, tratamenduan dauden espetxeratuak				
Kopurua	28	44	137	209
Ehunekoak, biztanleria osoari begira	13,08%	16,99%	22,87%	19,50%
DESINTOXIKAZIOA				
Egindako desintoxikazio lerrodunak	338	-	159	497
OHITURA GALTZEA				
Anbulatoria, guztira, urtebetean				
Antagonistekin	37	3	43	83
Antagonistarik gabe	229	112	172	513
Abenduaren 31n, ohitura galtzen ari diren				
Kopurua	45	47	84	176
Ehunekoak, biztanleria osoari begira	21,03%	18,15%	14,02%	16,42%
GIZARTE-BALIABIDEETARA JOTZEA				
Metadona-egitarauetara jotzea	62	45	59	166
Ohitura galtzeko egitarauetara jotzea	354	23	97	474
Zentro ambulatorioak/eguneko zentroak	258	8	65	331
Gizarteratze-pisuak	-	2	8	10
Erkidego terapeutikoak	20	8	14	42
Bestelako baliabideak	76	5	10	91
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK				
	EDEX	AGIPAD	LUR GIZEN	
EUSKO JAURLARITZAREN DROGA MENPEKOTASUNETAKO IDAZKARITZA OSAKIDETZA				

Iturria: Espetxeetako Osasunaren Zuzendariordeztza Nagusia (erabiltzaileen kopurua, 2000. urtea)

1.1.2. SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOEN JARRAIPENA ARABAN

1996az geroztik, erakunde honek urteroko txostenetan sasoikako langileen eta berorien familien egoeraren jarraipenari buruzko kapitulua sartu du. Izan ere, haiek urtero Arabara etortzen dira mahatsa eta patata biltzera. Txosten horiek funtsean lau alderdi izan dituzte ardatz. Alderdi horiek, erakunde honen iritziz, eta bildutako informazioaren arabera, pertsonon eskubideak ukitzen dituzte eta honakoa eskatu: hobetzeko neurriak hartzea eta hainbat erakunderen lankidetzeta eta koordinazioa. Aztertu diren eta jarraitu zaien lau alderdi horiek honakook izan dira:

- Erabiltzen diren kontratazio-sistemak;
- Haien bizilekuen egoera eta ezaugarriak;
- Haien seme-alaben eskolatzeta-baldintzak;
- Haiek bertan gizarteratzea edo gizarartetik baztertzea.

Gainera, 1997ko txosten arruntean gomendatutakoaren arabera, sasoikako langileen eta berorien familien alojamendu-baldintzak araupetu behar dira. Gomendio hori, datu berriekin edo zehaztasu handiagoz, iazko txostenean (gomendio orokorreari buruzko kapitulua) eguneratu zen.

Sasoikako langileen egoeraren jarraipena egin ahal izan da, nekazaritza-kanpainietan egindako bisitei eta gaian sartutako hainbat erakunde, sindikatu, elkarte eta talderekiko harremanei eta lankidetzari esker. Era berean, horretarako lagungarria izan da arartekoaren ordezkari bat Arabako Foru Aldundiak sustatu eta sasoikako langileen problematikarako zehazki sorturiko erakundearteko mahaiaren bileretara noiz edo noiz joatea.

Azken hiru kanpainetan egindako jarraipenak aipatutako alderdietako bi izan ditu ardatz nagusi: sasoikako langileen kokaleku eta bizilekuen baldintzak eta gurasoekin datozen adinez txikien eskolatzeta-baldintzak. Bi gai horiek aztertuko dira kasu honetan, halaber.

A) Bizilekuak

Iazko txostenean orokorrean gomendatu zen «Sasoikako langileentzako alojamenduek bete beharreko baldintzak arautzea». Gomendio horrek hiri zati ezberdin samar zituen:

- Lehenengo zatian, azken urteetan ikusiriko errealitatea deskribatu zen, oinarritzko datuak eman ziren eta estali beharreko beharrezkoak nabarmendu ziren.
- Bigarrenak informazioa zekarren sasoikako langile asko joaten zaizkien beste erkidego batzuetan burututako proiektu eta ekimenei buruz.
- Hirugarrenean eskumenei gaia eta erakundeen inplikazioa jorratu ziren. Horren ondorioz, honakook proposatu ziren bertan: bizilekuak araupetzeko beharrezko tresna juridikoak, gure kasuan.

Gomendio horrekin bat etorririk, bizilekuen baldintzak araupetzeko beharrezkoa da hainbat mailatako erakunde askoren partaidetza: udalena, Arabako Foru Aldundiaren hainbat sailena, Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailena eta abarrena. Gomendioa betetzeak honakook ukituko lituzke bereziki: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Saila, Arabako Foru

Aldundia eta ukituriko zonetako udalerrri guztiak (Errioxa Arabarrekoak, Arabako Lautadakoak eta Arabako Mendialdekoak).

Azken urtean zehar, Ararteko erakundeak urratsak egin ditu aipatutako hiru mailetan, haien arduradunen inplikazioaren bila. Horrela, haiei gomendioaren edukia helarazteaz gain, gai honi buruzko bilera zehatzak egin dira Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren arduradunekin, eta ukituriko udalekin ofiziozko espediente bana tramitatu da, galdera-sortaren bitartez udalerrri bakoitzeko egoera eta bertako arduradunen jarrera hobeto ezagutzeko.

Erakunde-arduradun askok interes handia eta gogo ona agerian jarri badute ere, oraindik ez dago inolako araupeketarik.

Azken kanpainan zehar ikusitako errealitateari dagokionez, mentsa duena eta kezagarria da oraindik. Ziur asko, aurten inoiz baino zehatzago dakigu kokaleku eta bizilekuen segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzen berri. Izan ere, zuzenean bisitak egin dira, udal agintari batzuek gai honi buruzko galdera-sortei erantzun diete eta Arabako Foru Aldundiak zonan gizarte eta hezkuntza arreta egiteko sustaturiko programetako talde arduradunek (Hezilaneko eta Era-Berriko taldeek) bisitaturiko bizilekuak zehatz-mehatz deskribatu dituzte.

- Ararteko erakundeko langileen urriaren 10eko eta 18ko bisiten bitartez, zuzenean ezagutu dira 11 herritako 28 kokalekuren alojamendu-baldintzak. Bisitaturiko kokalekuetako batzuetan familia eta ibilgailu asko ikusi dira, hala nola, Oionen dagoen kokalekuan.
- Udalei egindako galdera-sorten bitartez, 14 udalerritako bizilekuen egoerari buruzko datuak bildu ahal izan dira atal hau idatzi den datara arte..
- Gizarte eta hezkuntza arreta egiteko taldeek honako kokalekuok bisitatu eta honako datuok jaso dituzte:
 - 35 kokaleku, 17 herritan, Arabako Mendialdeko Kanpezuko Koadrilan, non 96 adinez txiki eta 192 heldu bizi izan diren.
 - 25 kokaleku, 15 herritan, Aguraingo Koadrilan. Bertan 30 adinez txiki eta 160 heldu bizi izan dira.
 - 83 kokaleku, Errioxa Arabarreko 14 udalerritan: 1.540 pertsona, 81 familia eta 292 adingabe, Oionen kanpaturiko sasoikako biztanle ugariak kontatu gabe.

Sasoikako langileen bizilekuen errealitateari buruzko ikuspegia osatu ahal dugu, hortxe ditugu Aguraingo aterpetxea (aurten ibili den bakarra) erabiltzeari buruzko datuak, UAGAK jatorrian kontratatzekeo sustaturiko esperientzia (hark partaidetzarako ostatu-beharrizanak behar bezala estali beharra jartzen du baldintza), Lezako talde-bizilekuaren proiektua (egiteke dagoena), enpresa ardogile eta nekazari batzuen ekimenak (lokalak gaitzea) eta aurten pertsona gehienek erabilitako Oiongo kanpalekuko baldintzak (erabateko utzikieriazkoak).

Benetan ikus daitekeenez, baldintza askotarikoak daude eta ez da erraza egoera globalki baloratzea. Hala ere, esan daiteke ezen, oraindik, aurreko txostenetan azaldutako egoera guztiak daudela: kontrolatu gabeko kanpalekuak, dendetan edo furgonetetan bizi izatea, biltegiatan, etxe zaharretan, txaboletan... Gainera, bisitatu diren eta informazioa jaso den kokalekurik gehienetan ez dira gutxieneko bizigarritasun- eta segurtasun-baldintzak betetzen.

Horregatik, Arartekotzak oraindik uste du ezen beharrezkoa dela pertsonon ostatu-baldintzak araupetu eta problematika hau azkar baino azkarrago konpontzea, hura gatazka handiagoen iturri izan arte itxaron gabe. Ildo horretatik, berriro gomendatu du «Sasoikako langileen alojamenduek bete beharreko baldintzak arautze»ari buruzko iazko txostenean gomendaturikoa (2000ko txostenaren 6. kapitulua).

B) Eskolatzeko baldintzak

Sasoikako langileen seme-alaba adinez txikien eskolatzeko beharrezkoak ohitura baten ondoriozkoak dira: haietariko asko aipatutako zonetara familian etorri ohi dira. Nonbait onena izango litzateke adinez txikiak jatorrizko lekuetan zainduta egotea. Alde batzuetan, esate baterako, Andaluzian, badaude horrelako esperientziak, horretarako sorturiko azpiegiturekin, hala nola, sasoikako familia langileen seme-alabentzeko haurzaindegiekin eta barnetegiekin, zeinetan haiek uzta biltzeko epealdietan zehar zaintzen baitira. Hala ere, arrazoi askorengatik, kultur arrazoiarengatik, arlo sakabanatzeagatik, egonaldi laburrengatik, aurretik ikus daiteke ezen urte askotan familia osoak Arabara etorriko direla nekazaritza-lana gehien eskatzen den uneetan, zenbait hamarkadatan urtero egin izan duten bezala.

Azken urteetan urrats esanguratsuak egin dira zonako ikastetxeetan gutxieneko mailan eskolatzeko hori nahi duten eskola-adineko adingabekoei eskaini ahal izateko. Izan ere, gela eta lokal batzuk gaitu dira, beste irakasle batzuk ekarri dira beharrezko kasuetan, jantokirako laguntzak eta bekak kudeatu dira, eskola-garraioa eman da, eskola-erkidegoak jabe arazi dira eta gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programetan elkarrekin lankidetzan eta koordinazioan jardun dute bertan sartutako langileek, gizarte zerbitzuek eta eskola-zerbitzuek. Hori dela eta, neska-mutil asko eskolaratu dira, egun batzuetan behintzat eskolara joan diren hamabina urtetik beharrezkoak bereziki.

Alabaina, oraindik asko dira eskoletara joaten ez diren adinez txikiak. Izan ere, hori egiazta daiteke herrietarako eta kokalekuetarako eskola-ordutako bisitetan, edo hori bilduta geratzen da gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programak egiten dituzten elkarteek urtero egiten dituzten zentsuetan. Azken kasuetan (horiei buruzko datu fidagarriak ditugu) ikusi da ezen oraindik gehienak ez direla hainbat arrazoiarengatik ikastetxetara joaten.

Horrela, esate baterako, azken kanpainan:

- Mahatsa biltzen den zonan (Eltziegon eta Lantziegon, Oion kontuan hartu gabe), Hezilan elkarteak 2001ean 81 familia sartu ditu zentsuan, guztira 1.093 pertsona. 292 adinez txiki sartu dira zentsuan eta beraietarik 118rekin lortu da eskolatzeko mailaren bat (egun batekoa, behintzat).
- Arabako Mendialdean, Era-Berri elkarteak sasoikako 45 familiari jaramon egin zien, eta familia horien baitan 96 adinez txiki kontabilizatu zituen. Berauetarik 38 eskolaratu ziren inoiz.
- Lautada aldean, Hezilan elkarteak sasoikako 10 familien datuak bildu zituen, eta familia horien baitan 30 adinez txiki kontabilizatu zituen. 30 adinez txikiatarik 20k Haur edo Lehen Hezkuntzara joateko moduko adina zuten. Horietarik 5 Aguraingo Marco Sagasti IP-era joan ziren.

Edozein kasutan, datuok elkarteek «zentsuan sartutako» familiei dagozkie, eta ez zonako sasoikako biztanle guztiei. Esate baterako, aipatu den bezala, Oin aldeko datuak falta dira.

Horrela bada, azken kanpainan zehar horrelako haur asko eskolaratu dira, herri batzuetako ikastetxeetan behintzat. Herri horiek honakook dira:

- Eltziego (41 adinez txiki), Lantziego (39), Oion eta Biasteri (34 Lehen Hezkuntzako ikastetxean eta 4 Bigarren Hezkuntzakoan), mahatsa biltzen den zonan.
- Agurain (Marco Sagasti IP), Kanpezu (Kanpezu-Yoar IP eta Institutua) eta Maeztu; 43 adinez txiki eskolatu dira, guztira, patata biltzen den zonan, Trebiñoko IP-ean jaramon egin zaienez gain.

Aurreko kanpainetan bezala, 2001ean arartekotza barruko langileek urriaren 10ean eta 18an ikastetxeetarik asko bisitatu zituzten eta ikastetxe horien, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta zonan gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programak egiten dituzten elkarten arduradunekin harremanetan jarri dira. Hori dela bide, hobeto ezagutzen ditugu egoera, datuak, arazoak, alternatiba posibleak, batzuek eta besteek eskola-erantzunaz egiten duten balorazioa...

Hemen ez gara hasiko gaiotako bakoitza garatzen, baina kontu batzuk hona ditzakegu. Horrela,

- Gehiagoatu egin dira Hezkuntza Administrazioaren eskura jarritako baliabideak (laguntza emateko irakasleak, bekak, garraio- eta jantoki-ahalbideak).
- Eginkizun garrantzitsua izan dute gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko taldeek eta esku hartzen duten eragileen artean (ikastetxeetako irakasleen, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta esku hartzeko taldeen artean) izandako lankidetzaharremanek.
- Zailtasunak egon dira adin-tarte batzuetan (3 urtetik beherakoetan eta 12 urtetik gorakoetan) benetako eskolatzea lortzeko.
- Eragina dute ostatu-baldintzek haurrak eskolaratzeko benetako aukeretan.
- Zailtasunak izan dira beharriaz erantzun egokia emateko: jatorrizko lekuetan eskolatzeko lotura, hizkuntza, taldekapenak, materialak, geletan edo jarduera normalizatuetan integratzea, eskolara joaten jarraitzea...

Haiek gurekin egondako denbora urriarengatik (azken kanpainan, hiru bat astez egon dira gurekin), aurretiko eskolatzearen baldintzengatik eta jaramon egin behar izan zaien biztanleen kultur eta hizkuntz ezaugarri zehatzengatik (gehienak portugaldarrak edo/eta ijitoak dira), zaila da hezkuntza-erantzun egoki eta kalitatezkoa ematea. Horretarako beharrezkoa dateke maila ezberdinetako jarduketak (jatorrizko lekuan eskolatzearikiko koordinazioa, irakasleen prestakuntza, programak eta materialak egokitzea...), arlo honentzako programa zehatzak eta neurri osagarriak.

Zonetan azken urteetan buruturiko programak ebaluatzeko txostenek datu eta proposamen asko ekarri dituzte, datozen kanpainetan eskola-erantzuna planifikatu eta hobetzeko balio izan dezaketenak: familien jatorriari, adinez txikien adinei, aurreko eskolatzeko egoerei, urtero etortzen diren familiei, arreta-eskariei, eskolatu nahi ez izateari, integrazioa erraztu edo oztopatzen duten faktoreei eta abarri buruzko datuak.

Arartekotzaren iritziz, ari garen biztanle taldea bereziki zaurtu ahal dena da, hezkuntzarako eskubidea du eta urtero etortzen da gure lurraldera. Eta gure hezkuntza-sistemak haien eskubidea behar bezala bete eta betearazi behar du, gurean dauden bitartean. Horretarako beharrezkoa da arazoak gainditzen eta hezkuntza-erantzuna apurka-apurka hobetzea ahalbidetzen duten neurriak bultzatzen jarraitzea.

C) Sasoikako langileen egoerari buruz txosten monografikoa egiteko aukera

Azken sei urteetan egindako jarraipena dela eta, urtero izan ahal izan dugu informazio gero eta zabalagoa eta errealitatera doituagoa.

Erakundeen hainbat esku-harmen sendotuz joan dira: eskolatzeko programak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programak, informazio-bulegoak, aterpetxeak... Beharrianetarako erantzun hobea emateko eta errealitateari buruzko datu zehatzagoak biltzeko balio izan dute eta, horrela, gure aurreko txostenetan aipaturiko ohiko arazoetako bat gainditu edota arindu da: arlo honen problematikaren ezagupenik ez globala.

Urte hauetako jarraipena eta jasotako informazioaren ondorioz, arartekotzak Arabako sasoikako langileen problematikari buruzko txosten monografikoa egiteko aukera mahaigaineratu du, sakabanatuta jasotako informazioak biltzen dituen eta haien egoerari buruzko ikusmolde orokorra ematen laguntzen duen txosten monografikoa egiteko aukera alegia.

1.1.3. **ADINEKOEN EGOITZAK KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA**

2001. urtean adineko pertsonentzako egoitza etxeak bisitatzeko jarraitu dugu, helburu bikoitzaz: batetik erakunde honek egoitza etxe horien gainean 1994an egin zuen txostenean jasotako gomendioen jarraipena egiteko eta, bestetik, ondoren onetsitako araudira, hau da, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretura zenbateraino moldatzen den jakiteko.

2000. urteko txostenaren atal honetan azpimarratu genuen, jada, gizarte zerbitzuen alorrean iritsitako lehenengo erakunde mailako erabakiaren garrantzia. 2001ean gai horren garapenean eta gauzatzean aurrera egin da, eta 2001eko otsailaren 8an oinarritzako eta berariazko gizarte zerbitzuak zehazteko Akordio bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta EUDELeke eremu horretako arduradunek. Halaber, Eusko Jaurlaritzak uztailearen 30eko 155/2001 dekretua onetsi du, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteko, non gizarte zerbitzuen alorreko eginkizun edo programa bakoitza zein administraziori –autonomi erkidego, foru edo udal mailakoa– dagoen zehazten baita.

Horren haritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzak alegia, bere gain hartzen ditu Oinarritzako Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen prestazio ekonomikoak, baita familia ugarikoen agiriak ere. Foru aldundiek mendetasuneko pertsonen eta kolektibo berezien (adinekoak, ezgaitazunen bat duten pertsonak, haurrak eta ahulezia egoerako kolektiboak) artapen orokorra hartzen dute (zentroak, programak, laguntza teknikoak eta beren beregiko prestazio ekonomikoak). Azkenik, udalek, oinarritzako gizarte zerbitzuen bidez, gizarte zerbitzu desberdinei eustea koordinatu eta kudeatzeaz arduratuko dira, baita halakoren bat behar baina mendetasuneko legez sailkatuta ez daudenak artatzeaz ere.

Baina zahar etxeei dagokienean, prozesua ez da oraindik amaitu, hainbat egoeraren konplexutasunarengatik, esaterako, Gipuzkoakoa, non Foru Aldundiaren eta kasu askotan halako zahar egoitzen titularrak diren udalerrien arteko itun berriak jorratzen segitzen duten.

Bestalde, akordio horren edukia aplikatzeko, partidak esleitu behar dira, bai foru bai udal erakundeen aurrekontuetan. Hartara, 2002. urtean lortutako akordioen edukia erabat aplikatu ahal izango da, bakoitzaren aurrekontuetan aurreikusita daukatelako..

Nagusientzako egoitzez ari garela, esan behar da gero eta gehiago direla mendetasuneko pertsonak okupatutako lekua. Pertsona horien artatzea, esandako erabakiaren arabera, foru aldundien eskumenekoa denez, foru erakundeak artapen horrek eskatzen dituen beharrianen ardura hartzen hasi dira. Zentroak lehen aipatutako 48/98 Dekretuaren aurreikuspenetara egokitzeaz ari gara.

Horren harira, Gipuzkoako bi egoitzatara egin ditugun bisitetan esan digute lurralde horretako Foru Aldundiak, aipatutako dekretura egokitzeke egin behar zituzten obren kostea finantzatzea aurreikusita zegoela. Obra horiek egoitzak ikustera joandako foru teknikariek seinalatu zituzten. Arestiko ekimenaz gain, aipagarria da foru aldundi hori gizarte zerbitzuen mapa berria prestatzeko egiten ari den ahalegina, zeinen artean, bereziki, pertsona nagusien artapenaren ingurukoak nabarmentzen diren.

Atal honetan Arabako Foru Aldundiak bere menpe dauden Pertsona Nagusientzako Zentroen Oinarritzako Estatutua onetsi dela ere aipa daiteke, otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuaren bidez onartu zena.

Garrantzitsua da azpimarratzea estatutu horrek zentroen erabiltzaileen eskubideak luze eta zabal garatzen dituela, pribatutasunari, duintasunari, autonomiari, hautatzeari, gogobetetzeari eta haien eskubideen defentsari dagokienez. Ditutzen betebeharrak aipatu, eta zehapen prozedura ere ezartzen du. Era berean, zerbitzuetarako irismena ere araupetzen du, eta antolamendu egitura seinalatzen du, baita partaidetza kolektiboko organoak –erabiltzaileen batzordeak eta senideen batzarra, aipagarrienak- eta norbanakoen partaidetzarako bideak ere.

Modu berean, oso ondo irizten diogu Bizkaiko Foru Aldundiak lurralde horretan zahar etxe gehiago eraiki eta martxan jartzeko egingo duen ahalegina. 2001ean foru aldundi hori zenbait zentro eraikitzeke behar diren izapideekin hasi da, eta horrek egoitzetako toki kopuruen ugartze handia ekarriko du. Albiste ona da, lurralde horretan dagoen defizit handia arinduko duelako, egoitza batean toki bat lortzeko itxaroteko zerrenda luzeak izaten dira-eta.

Nagusientzako egoitzei dagokienez, 2001ean sei ikustera joan gara, lurralde bakoitzean bina. Bost egoitza eta giza taldeko etxebizitza bat dira, non erabiltzaileek jasotzen duten artapenaren kalitatean alde nabarmenak aurkitu ditugun. Hara:

Araba

Talde-etxebizitza (Kanpezu)

Etxe hau 1984an ireki zen, eta gure erkidego autonomoan lehena izan zen. Duela zenbait urte, herriko maisuak hartzeko, altxatutako eraikin baten beheko solairuan dago.

Bi egitate hauek azaltzen dute, hein handian, etxebizitzaren egoera, oso duina den arren (garbitasun, ordena, aireztapen, argitasun, eta abar), oraingo dekretu arautzailean esandako egiturazko arazo batzuek dauzka, batez ere sarrerako eskailerak, eta prestazio batzuen falta, geroago zabaldu diren honelako zentroetan ohikoak diren gauzak.

Etxebizitzak zortzi toki eskaintzen du, eta Arabako Mendialdeko Kanpezuko Koadrilaren menpe dago. Gure iritziz, zentroak eginkizun garrantzitsua betetzen du eskualdean, nagusiak ahalin eta luzaroen bere ingurunean mantenduz, ingurunea esatean bi zentzutan adierazi nahi dugularik: batetik, landa ingurunea, bertan izaten diren bizitza erritmoaz eta pertsonen arteko harreman motaz; bestetik, etxeko eta lagunengandik hurbil daude, eta urrutiago baleude baino sarriago ikusi ahal dituzte.

Inguruan ez dago egoitzarik, eta herri egoitzarik gertuenak Aguraingoa, 30 kilometrorra, eta Gasteizkoa, 38 kilometrorra daudela. Gasteiza joan ohi dira halakorik behar duten pertsonak. Horregatik, etxebizitza honetan ondo dauden pertsonen gain mugitzeko nolabaiteko arazoak dauzkaten pertsonak ere hartzen dituzte.

Horregatik, oso ondo ikusten dugu Kanpezuko Koadrilak etxebizitza hau mantentzeko egiten duen ahalegina.

Bisitan zehar, ordea, gelak oso txikiak direla eta komunean eusteko barra gehiago jarri behar direla antzeman genuen. Kontroleko txirrin gehiago ere jarri beharko liriateke, komunean batez ere, korridorean bakarra dago-eta, eta telealarma tresna bat da. Etxebizitzan ez dago suteen aurkako babes sistematik. Lehen aipatu ditugun sarrerako eskailera horiek ere eragozpena dira.

Beste mota bateko kontuei begira, barneko araudia ez da nahikoa, batez ere 41/98 dekretuan ezarrita dauden erabiltzaileen eskubideei dagokienean.

Zentroan gutxienez arduradun bat egoten da, goizeko 9etatik gaueko 10etara. Egoiliar gutxi dagoenez, egoiliarren eta familiako langilearen arteko harremana oso gertukoa da. Era berean, etxea herri gunean dagoenez egoiliarrak herrian oso integratuta daude.

Etxebizitzaren titularrari, ahal duen heinean, esandako alderdi horiek zuzentzea iradoki zaio. Hala ere, bisitan etxebizitza berria hartuko lukeen eraikin berria altxatzeko gogoia eta aukerarik ere badaukatea esan ziguten, baita oraingoen ordezkoko eguneko zentroa egiteko ere, eta horretarako Foru Aldundiarekin gestioak egiten ari ziren. Asmo hori gauzatuko balitz, arkitektura arazo horiek gaindituta geratuko lirateke, eta oso ona izango litzateke Arabako mendialdeko eskualdeko nagusientzat.

Ariznavarra egoitza (Gasteiz)

Egoitza hau Foru Aldundiarena da, baina pribatuki kudeatzen da. 2001eko maiatzean inauguratu zen, horretarako beren beregi altxatutako eraikinean.

Bisita 2001eko azaroaren 22an egin genion –zabaldu eta sei hilabetera- eta ikusi genuen eraikitzean halako zentroen berezko egitura eta arkitektura beharrianak kontuan izan direla; areto zabal eta argitsuak, nahikoa gainazaleko logelak, komun egokituak, instalazio elektrikoa eta suteen aurkako sistema egokiak, eta abar. Altxariak ere berriak dira.

Horregatik, esan daiteke zentroal dekretu arautzailean esaten dena betetzen duela, alderdi material eta fisikoei dagokienez. Erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuarekin zerikusia daukaten beste alderdi batzuek, ordea, hobetu behar direla uste dugu, horiek alderdi materialak bezain garrantzitsuak baitira, nagusien egoitzako egonaldiaren kalitatean eragin zuzena dutelako.

Edozein egoitza martxan jartzeko izaten diren zailtasunez jabetzen gara, are gehiago egoiliarrentzako 140 toki eta bertan dagoen eguneko zentroan beste 60 baldin badauzka. Horrek esfortzu eta ardura izugarria eskatzen du, eta horretarako borondaterik dagoenik ez dugu zalantzarik. Baina horrek ez dut inola ere erabiltzaileek jasotzen duten artapenaren kalitaterik gutxitu behar, ez eta beren eskubideak ezagutu eta gauzatu ahal izatea ere.

Horregatik, zentroaren titularrarengana jo dugu, gure iritziz tratatu beharko liratekeen alderdiak hobetu eta zuzentzen laguntzeko. Gainera, alderdi horiek guztiak lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzako 41/1998 dekretuan, Arabako Foru Aldundiaren menpe dauden Pertsona Nagusientzako Zentroen Oinarrizko Estatutua onetsi zuen otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuan daude. Hona hemen zertaz ari garen:

Gelak lehen esan den bezala, zabalak eta argitsuak dira, eta barruak moldatutako komuna daukate. Baina armairu eta kaxoi bat ere ezin da giltzaz itxi, eta horrek bakoitzaren gauzatxoan pribatutasuna zailtzen du.

Ez dago pribatuan hitz egiteko moduko telefonorik, beheko solairuan bi kabina besterik ez dagoela. Solairu bakoitzeko telefono bana jarri beharko litzateke, pribatutasun hori bermatzeko modukoak.

Egoitzak bi sail dauzka: bata laguntzarako eta psikogeriatrikoa bestea. Erabiltzaileek ez daukate erreferentziako langilerik, zentruarekiko harremana erraztu ohi duen inor, alegia. Era berean, azpimarratu behar da zentroan ez dagoela barne erregimeneko arautegirik. Ez dauka, beraz, erabiltzaileen eskubide eta betebeharren, partaidetzarako bideen eta abarren zerrendarik prestatuta. Pertsona guztiek ulertzeko moduan, arauak eta kontuak erraz idatzita biltzen dituen esku orririk ere ez dago. Izan ere, bertako

egoiliar batzurekin izandako elkarrizketan kontu horien gainean ezer ez zekitela jabetu ahal izan genuen. Baina badago iradokizunetarako postontzi bat, eta erreklamazio orriak ere badaude.

Partaidetza kolektiboko organorik ere ez da sortu, erabiltzaileei eta senideei ukitzen dienean, aipatutako foru dekretuan esaten diren horiek, eta egoiliarrei zentroko bizitzan parte hartzeko bideak eta moduak eskaintzen dizkietenak.

Hedatu behar den alderdi bat, besteak beste, erabiltzaileentzako antolatzen diren jarduera programena da, antza, astelehenetik ostiralera, goizero ordu bete baino izaten ez baitute. Alderdi hau sendotzea komeniko litzateke, egoiliarren jarduera fisiko zein burukoen gabezia saihesteko, bereziki beren kabuz ezer egiteko ekimenik ez dutenei begira. Horretarako, taldeak dinamizatzen eta astialdia betetzen adituak diren pertsona gehiago beharko lirateke.

Honainoko guztiarekin, zentroaren titularrarengana jo dugu, esandakoa zuzentzeko planteatzera.

Bizkaia

Otxandioko Udal Egoitza

Eraikin zahar batean dago, herriaren erdi-erdian, 41/1998 Dekretura egokitzeko zaharberritze eta aldaketa obra handiak behar dituen erakin batean. Izan ere, obrak aurreikusita dauzakte, esan zigutenaren arabera.

Esaterako, komunak oso txikiak dira, gurpildun aulkidunek erabiltzeko. Gainera, kontroleko gune batera konektatutako txirrina eduki beharko lukete, eta segurtasuneko barra gehiago. Logeletan ere obrak egitea pentsatuta daukate, eta abar.

Giroa atsegina eta familiartekoa dela ikusi genuen, baina erabiltzaileak luzaroan egoten dira ezer egin gabe. Horretarako, jarduerak egitea eta okupazio terapia dinamizatuko duen pertsona bat kontratatzea komeniko litzaieke.

Era berean, erabiltzaileek zentroko bizitzan parte hartzeko bideak sendotu beharko lirateke, eta beren eskubideen gaineko eta erreklamazio eta kexak egiteko prozeduraren berri eman beharko litzaieke. Iradokizunetarako postontzia jartzea ere ondo etorriko litzateke.

Esan zigutenarengatik, egoitza hau esku hartzeko plan orokorra idazten ari da.

Sancti Spiritus egoitza (Bermeo)

Udalarena den zentro hau udalerriko toki lasai batean dago, eta egoiliarrek oso eskueran dauzkate denontzako zerbitzuak. Gainera, zentroa egun osoan egoten da zabalik etxeko eta auzotarrentzat, egoiliarrek ikustera edo eguneroko mezetara joaten baitira, eta horrek egoiliarren eta herritarren arteko komunikazioari laguntzen dio. Eraikinean 72 tokiko egoitza dago, 15 tokiko eguneko zentro bat eta 10 pertsonarentzako tutoretzapeko pisuak.

Erlijiosa erkidego batek artatzen du, kontratatutako pertsonekin batera. Esan zigutenarengatik, erkidego hori aurki lan hori uztekotan dago, beraz, langile gehiago kontratatu beharko da, eta erlijiosa horien egoitza den hirugarren solairua zertarako erabili ere definitu beharko da.

Ekipamendu eta zerbitzu onak dauzka, baina zenbait gauza zuzentzea komeniko litzateke. Hartara, zentzurako sartzeko eskailera bat eta malda handiak daude, mugitzeko

arazoak dituzten pertsonentzako oztopo larria direnak eta, ondorioz, pertsona horiek sotoa erabili behar dute eraikin barrura sartzeko.

Logelak txikiak dira, baina zabaltzeko obrak egitea aurreikusita dago, dutxa platerak kenduta eta solairuetan komun geriatriko gehiago jarrita. Obra hori egiten denean, komunena zoru ez-irristakorra jarri beharko litzateke, baita segurtasuneko barrak eta deitzeko txirrinak ere.

Erabiltzaileek eta senideek zentroaren bizitzan parte hartzeko bideak sendotu beharko lirateke, iradokizunetarako postontzi bat jarri eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren eta horiez baliatzeko moduaren berri emateko esku orria argitaratuko beharko lukete.

San Andres egoitza (Eibar)

120 toki eskaintzen dituen eraikina da eta tokirik gehienak mendetasuneko pertsonen hartuta daude. Herri gunean dago, eta lehen zegoenaren ordez altxatu zen oraingo eraikina, hein handi batean, herritarren bidez ordaindu zen. Horren ondorioz, herritarren eta zentroaren artean harreman berezia dago, herritarrak maiz joaten dira bisitan, eta herriko ekitaldi eta jai ospakizun garrantzitsuenetan parte hartzera gonbidatzen dituzte. Garbi dago horrek bertako egoiliarrei on egiten diela, herrian integratuta eta herkidekin harremanetan segitzen dutela sentiarazten dietelako. Titularra udal fundazio bat da.

Zentroa aldaketa prozesuan murgilduta dago, 41/1998 Dekretura moldatzeko. Horren harira, esan zigutenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzeko dituen obra garrantzitsuak egiteko egitasmo bat onetsita daukate jada. Egitasmo horretan erakunde honek ere antzeman zituen gabeziak zuzenduko dira, hala nola, suteen aurkako detektoreak jartzea, logeletan gaueko argiak eta diferentzialak jartzea, solairuetan telefonoak jartzea, kokatzen laguntzen duten erreferentziak paretetan (kolore desberdinak eta abar), igogailuaren botoien altuera jaitea, gurgildun aulkietan dabilzananen eskueran, eta abar.

Era berean, banako logelak ere handiago egingo dira, ez direlako ezarritako gainazalera iristen. Komunak ere aldatu behar dituzten, txikiegiak direlako eta ez dutelako eusteko barra egokirik, eta eraikinera sartzeko aldapa gogorra leunduko da, mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat gehiegizkoa baita.

Zentroak barruko erregimeneko arautegi bat izatea komeniko litzateke, aipatutako dekretuan ezartzen den bezala, non, besteak beste, arau horretan jasotako eskubide eta betebeharren zerrenda sartuko baita. Egun, bizikidetasuneko oinarritzko arau batzuek daude, nahikoa atzean geratu direla irizten diegunak, betebeharrak bai baina eskubiderik aipatzen ez delako. Zentroa kontu hori zuzentzen ari da. Interesgarria litzateke jarduera onerako eskuliburua ere izatea, eta egoki iruditu ez zitzaigun jardueraren bat zuzentzea. Zentrorra sartu ahal izateko sistemari dagokionez, lehentasuna eman izan zaie bertako herritarrei, baina espero liteke, foru aldundiaren menpe egotera aldatzean, sartzeko orduan sartzeko beharrari lehentasuna emango dieten irizpide objektiboak erabiliko direla aurrerantzean.

Iurreamendi egoitza (Tolosa)

1920an altxatutako eraikina da, karratua eta erdiko patio ederra duena. Udaleko herri fundazioa da. Zuzenean kudeatzen da eta egoiliarak Tolosa eta baserri gune ugari dituen bere inguruetatik datoz. 165 toki dauzka, eta sail psikogeriatrico bat.

Eraikina zaharra den arren, nahikoa ondo dago, zeren duela 15 urte zaharbertzeko obra handia egin batzioten. Hala ere, orain obra berriak egitea aurreikusita dago, 41/1998 Dekretura eta irismena sustatzeko legera moldatzeko. Lanak bi fasetan egingo dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu. Esan zigutenez, lehenengo fasearen egitasmoa eginda dago, eta dagozkien aurrekontuan onetsi ondoren foru diruak eskuratu zain daude hasteko.

Obra horietan ikusi genituen gabezia batzuek zuzenduko dira, hala nola, suteen aurkako sistemako detektorerik eza, instalazio elektrikoaren gauzatxo batzuek, korridoreetan bigarren eskudela jartzea, kokapeneko erreferentziak paretetan, eta abar.

Logelei dagokienez, esan behar da banako geletan ez dela arauan esaten den gainazalik errespetatzen, beraz, hori ere zuzenduko da. Era berean, komunetan eusteko barra gehiago eta zoru ez-irristakorra jarriko dira.

Barruko funtzionamenduko arautegiari dagokionez, 1986. urteko bat dago, gure iritziz, gainditu behar dena, erabiltzaileen betebeharrak bai baina eskubiderik, partaidetzarako biderik eta halakorik jasotzen ez duelako. Gure ustez, arautegi berria idatzi beharko litzateke, 41/98 Dekretuan bildutako eskubide eta betebeharren zerrenda sartuta. Modu berean, kontu horien berri emateko esku orriak ere eduki beharko lirateke, egoiliarrek erraz ulertzeko modukoak. Esan zigutenez, zentroa idazketa berria egiteko prozesuan dago.

Bestalde, zentroan jarduera protokolo desberdinak dauzkate, zaintza aringarriena, besteak beste, non heriotza eta bizi bitarteko testamentua idatzeko ahalbidea hartzen dituen.

Horretaz gain, zentro honetan ondo zeudela ikusi genituen zenbait gauza ere aurkitu genuen, esaterako, logela guztietan telebista daukatela. Arreta zuzeneko langile guztiak identifikatuta joaten dira, egoiliarrek hobeto ezagutzeko. Higieneari alorrean egunero dutzatzea sartzen da. Zentroak jostun bat dauka, egoiliarren arropan behar diren konponketak egiteko. Langile guztiek trebatzeko ikastaroak etengabe egiten dituzte. Jardueren egitarauan urtean txango bat edo bi egitea sartzen da, talde txikitan, denon artean adostutako toki batera edo egoiliarren baten udalerrira. Egoiliar bat ospitaleratzen dutenean, ospitaleko egonaldian lagutzeko pertsona bat kontratatzen da, berarekin egon daitekeen seniderik ez badauka. Pertsonaren bati hiltzen denean, egon zeneko gela berriro margotzen da, hurrengo datorrenean giro garbiagoa izan dezan.

1.1.4. **ADINEKOEI EGOITZEZ KANPO EMATEN ZAIEN LAGUNTZA KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA**

Atal honetan, adinekoen egoitzei buruzkoan bezala, esan behar dugu eguneko zentroak bisitatzen jarraitu dela, 1995. urtean, gai honi buruzko gure txostenean egindako gomendioei jarraipena egiteko, eta zentro hauek 2000ko urriaren 17an onartutako arautegira -202/2000 Dekretua- zenbateraino egokitzen diren ezagutzeko. Azken batean, zentro hauetan adinekoei ematen zaien laguntzaren kalitateari buruzko arretari eustea da kontua.

Alor honetan ere, aurreko atalean aipatu ditugun bi alderdik eragin esanguratsua daukate: Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Eudelen artean egindako erakundeen arteko hitzarmena, eta gizarte zerbitzuen gaiko eginkizunak finkatzearen gaineko 155/2001 Dekretua.

Banaketa berri honen arabera, adinekoei dagokienez, eguneko zentroak aldundiaren menpean izango dira, nolabaiteko ezintasun maila daukaten pertsonen arretarako zentro gisa sortuta baitaude. Aldiz, norberaren etxebizitzan ematen den laguntza -etxeko laguntza funtsean- udalen esku egongo da.

Bitarteko biek funtsezko gizarte eginkizuna betetzen dute, adinekoa bere ohiko eta familiako inguruan izatera laguntzen baitute, horrek ongizate emozionalean eta, ondorioz, bizitza kalitatean daukan garrantziarekin.

Halaber, aipatutako dekretu horrek tokiko erakundeei ematen zaien beste eginkizun nabaria ere azpimarratu behar da, gizarte laguntzen beharrak antzematea alegia, bai eta beroriek betetzean izaten diren akatsak ere. Ezinbestekoa da, beraz, adi egotea zentzu honetan, dauden gizarte baliaabideak behartsu guztiengana iritsi daitezen, ahalik eta kalitate handienarekin iritsi ere.

Halaber, ezin ditugu adinekoen eskubideak ahaztu eta eragindako erakunde guztiek daukatela eskubide horiek kolektibo horren barruan zabaltzeko eta beroriek bideratzeko erraztasunak jartzeko beharra. Zentzu honetan, Arabako Foru Aldundiaren menpeko Adinekoen Zentroek Oinarrizko Estatutua aipatzen dugu hemen -2001 urte honetan onartu dena-, aurreko atalean modu zabalago batean aipatu duguna. Eguneko zentroak ere hartzen ditu eta 202/2000 Dekretuan berretsitako eskubideen garapen interesgarria da.

Adinekoen egoitzatik kanpoko arreta jarraitzeko langintzaren barruan hiru eguneko zentro bisitatu dira: bat Araban eta bi Gipuzkoan, ondoko emaitza hauekin:

Araba

Eguneko arretarako Kampezuko landa-zentroa.

Udal jabetzako zentro hau tokiko kiroldogian kokatuta dago, herriko jubilatuekin batera daukan areto batean. Berezko lokala ez edukitzeak eta altzaria guztia mahaia eta aulkiak besterik ez izateak baldintzatzen du -neurri handi batean gure ustez- zentro honen bizitza eta jarduera.

Izatez, zentroa herritar batzuek bazkal orduan elkarrekin izateko gunea besterik ez da. Eguneko batez besteko okupazioa 8 pertsonetako izan ohi da, Koadrilako herrietatik datozenak. Zentroaren jarduera oso txikia da eta, izatez, 13:00tik 17:30rako ordutegian soilik izaten da zabalik.

Pertsona hauek eguerdian jotzen dute bertara eta jarduera labur bat burutzen dute (soinketa eta eguneko prentsa irakurtzea) bazkal aurretik. Gero, zentroan ematen zaien bazkaria hartzen dute elkarrekin. Bertara joaten diren pertsona gehienak bakarrik bizi direnez, jateko zerbitzu hau positiboa da beraientzat. Alde batetik, sukaldeaz arduratu behar ez direlako eta, beste aldetik, lagun artean bazkaldu eta bazkal ondoko berriketa izaten dutelako. Horren ondoren alde egiten dute.

Udalak jakin badaki baliabide hori ez dela behar adina erabiltzen. Horregatik, eguneko arreta zentroa hartuko zukeen eraikin berri bat altxatu nahi du, beharretara egokitua eta jarduera programa batekin, bai eta etxebizitza komunitario batekin ere. Egia esan, horrek eguneko zentroa dinamizatuko luke, sortzerakoan zuen eginkizuna bete dadin, eskualdeko herritarren onurako. Jakinarazi zigutenez, Udala ari da Arabako Foru Aldundiarekin gestioak egiten zentzu honetan.

Gipuzkoa

Oñatiko eguneko zentroa

Udal jabetzako zentroa da, eta adinekoen egoitzaren alboko eraikinaren beheko solairuan kokatuta dago, baina independentea da. 30 plaza dauzka, baina bisita egin zen egunean -2001.12.13- 14 soilik zeuden beteta. 08:30tik 18:00etara egoten da zabalik eta garraio egokitua dauka.

Lokala oso zabala da eta alde bi bereizten dira, nabarmen: jarduerako aldea eta atsedenekoa. Lehenengoan, jarduera programa oso bat egiten da, goizez eta arratsaldez, dela bergaitze fisikoa dela terapia okupazionala. Gainera, jantokia eta bulegoa dauzka. Atsedenekoa aldea butakaz hornitutako salatxo batzuek osatzen dute, non erabiltzaileek atsedena hartu edo bazkal osteko lo kuluxka egiten duten.

Zentroak, gainera, astean behin dutxa bat eskaintzen dizkie erabiltzaile guztiei, modu horretan, bertara joaten direnen higienean gutxieneko aldizkatasun hori bermatzeko. Era berean, zentroak erabiltzaile bakoitzaren arreta pertsonalizatua darama eta, testuinguru honetan, sei hilean behin ebaluazio bat bidaltzen die familiei haren egoera fisiko, funtzional eta kognoszitiboaz.

Aurrekoari oso positiboa irizten diogu. Hala ere, zuzendu beharreko alderdi batzuk direlakoan gaude, hala nola, zentroaren sarbideko arranpan esku banda jartzea, komunetan abisatzeko txirrinak, sute detektagailuak eta su itzalgailuak, bai eta telefono bat erabiltzaileen eskura zuzenean ere. Aipatu behar da zentroak aurreikusita dauzkala kontu hauek.

Zentroak barne erregimeneko arautegia dauka, baina bertan ez daude erabiltzaileen eskubideak eta eginbeharrak sartuta, ez eta esku hartze demokratikoaren bideak ere. Zentroari iradoki zaio arautegia berregin eta pertsona bakoitzari ale bana ematea. Era berean, erreklamazio orriak eta iradokizunetako buzoi bat eduki beharko lituzkete, erabiltzaileen gogoak jasotzeko, nahiz eta, pertsona gutxi direnez, euren eta zaintzaileen arteko harremana oso estua izan, bai eta familiarrekin ere, eta horren ondorioz gaiak zuzenean hartzen diren.

Aita Menni eguneko zentroa (Arrasate)

Zentro hau jabetza pribatukoa da, Hermanas Hospitalarias del Sagrado Corazón de Jesús erlijiosoan Aita Menni erakundearen menpekoa. 35 plazetarako homologatua

dago, horietatik 30 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta 2 Arabakoarekin hitzartuta dauden .Zentroko ia plaza guztiek izaera publikoa edukitzea izan da gure bisitaren arrazoia.

Etxebizitzan eraikin baten beheko solairuan kokatuta dago, hiri gunean. Lokala zabala da eta iristeko erraza. Goizeko 9tatik arratsaldeko 6rak arte hartzen du eta garraio egokitua dauka.

Instalazio guztiak zuzenak eta egokiak dira zentroak dituen eginkizunetarako. Bakarrik aipa zitekeen komunetako deitzeko txirrinak aldatzea komenigarri dela. Bisitaren unean, txirrin hori izan giltza bat zen, argietakoan antzekoa, eta beste batzuen ondoan zegoen. Komeniko litzateke deitzeko giltza sistema erabilerraz batez bereiztea, behar izanez gero erabilera errazteko.

Zentroak jarduera programa oso eta aztertu bat dauka, goizez eta arratsaldez, bergaitze fisikoa eta animazio soziokulturala ere hartzen dituena. Langintza hau hobeto betetzeko, erabiltzaileak hiru taldetan banatuta daude, gaitasun fisikoaren arabera, eta gela bereiztuetan jarduten dute aldi berean. Zentroko jabeen izaera konfesionala izanik, jarduera erlijiosoa ere badago, astean behin, joan nahi duenerako aukeran dagoena. Halaber, badira butakak dituzten gune batzuk ere bazkal osteko atsedenaldirako.

Beste alde batetik, zentroak barne erregimeneko arautegia dauka, 41/98 Dekretuaren jarraibideak jarraitzen dituena. Hala ere, zentrorra sartzeko gutxieneko adina alda daiteke, aipatutako dekretu horretan 60 urtetan jartzen baita eta ez 65ean, arautegian ezarrita bezala. Era berean, komenigarria izango litzateke arautegia zentroan jarrita egotea eta erabiltzaile bakoitzak edo haren senitartekoek ale bat edukitzea, hura ezagutzeko. Dena den, tratu hurbila eta familiarra antzeman dugu erabiltzaileen artean eta hauen eta zentroko arduradunen artean. Edozein arazori zuzenean heltzea dakar horrek.

Gainera, zentroaren eta senitartekoaren artean harreman erraza dago, eta sei hilean behin, erabiltzailearen bilakaerari eta egoera fisiko, funtzional eta kognoszitiboari buruzko txosten bat bidaltzen zaie senitartekoei.

Zentroak arreta integrala eman nahi du. Horregatik, adinekoen arretaz gain, senitartekoaren arretaren programa espezifikoa ere badauka, adinekoa etxean edukitzeko oinarriko elementu garrantzizkotzat hartuz.

1.1.5. HAUR ETA NERABE BABESGABEEI EGITEN ZAIEN ARRETAREN JARRAIPENA

Ararteko erakundeak *Haur eta nerabe babesgabeen artapenaren* gaineko ez-ohiko txostena 1997ko irailean eman zuen argitara. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (50na, lurralde historikoko) eta gure erkidegoan 1995ean zeuden 63 artapen zentroak ikustera joan ginen. Txostena ondorengo gai hauen inguruko 42 gomendio proposatuz amaitzen zen:

- Adin txikikoen babesari buruzko marko juridikoa eta eskumenen banaketa;
- Zerbitzu sarean lanean ari diren profesional desberdinak;
- Norbanakoen beharriaz erantzuteko programa desberdinak;
- Antzeman, erabaki, parte hartu, ikuskatzeko prozedurak...;
- Egoitza zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua;
- Zerbitzu horien kontrola eta ebaluazioa...

Txostenean bertan eta ondorengo jardueretan, argi eta garbi hobe daitezkeen alderdiak edo lehenesten diren beharrak azpimarratzeko orduan, erakunde hau ondoko hauetan bereziki tematu da:

- Araudi erkidearen beharra, arretarik gabeko adin txikikoen artapenaren oinarritzko alderdiak arautzeko, gure erkidegoaren multzoan;
- Litezkeen erantzun ugari desberdinak kontuan eduki beharra (familiatan hartzea, larrialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- Lurralde historiko batzuen eta besteen artean erakunde mailan emandako erantzunetan ikusitako alde handiak;
- Babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetzea;
- Oinarritzko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana;
- Irteera, jatorrizko esparruan txertatzeko edo gizarte autonomiarako egitarauak;
- Haur eta nerabeen eta beren familien partaidetzarako mekanismoak;
- Zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa eta aldioroko kontrola.

Txostena aurkeztu zenetik gaur arte Ararteko erakundeak egoeraren jarraipena egiteko ekimen desberdinez baliatu da: ofiziozko espedienteak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren, hiru foru aldundietako Gizarte Ekintza sailen eta Gasteizko Udalaren aurrean, aldioroko bilerak erakunde eskudunetako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera zentro edo etxeetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostenetan, urtez urte, jarduera horien emaitzen laburpena jaso da.

Ez-ohiko txostena egin zenetik ia bost urte joan dira. Txosten horretan batez ere 1995eko datuak jaso eta aztertzen dira, hau da, duela zazpi urteko datuak. Informazioa eguneratu eta izandako bilakaera eta lortutako aurrerapenak baloratzeko garaia heldu dela pentsa daiteke, eta horixe da, hain zuzen, aurrean egin nahi izan duguna. Horretarako, aurreikusitako eta egindako bisitez gain (bereziki, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako eta jokabide arazo larriak dituzten nerabeentzako zentroetan), eskumeneko administrazio bakoitzera ere jo dugu, eta txostenaren alderdi nagusiekin eta egindako gomendioekin zerikusia zuten eta egin gabe zeuden kontuak eta aurrerapenak baloratzeko informazio eguneratua eskatu diegu. Informazio eskaria, gai

batzuetan, txosteneko datuekin alderatu ahal izateko eta izan duten bilakaera aztertzeo, kopuruzko datu edo adierazleetan zehazten zen.

Kontuan izanik, bada, txostenaren alderdirik esanguratsuenak, bertan egindako gomendioak eta iritsi nahi zen jarraipenaren xedea, hiru foru aldundietako Gizarte Ekintza sailei eta Gasteizko Udalarari egindako informazio eskariak 11 atal zituen:

- 1- Familietan, bitarteko zerbitzuetan, familia banantzeetan eta babes sistemetako irteeran esku hartzeko abian zeuden indarreko urte bat baino gehiagorako plan eta programak.
- 2- Ekipo teknikoetan, arreta zuzeneko profesionalengan, eta ekipoen arteko koordinazioan sartutako aldarazpen garrantzitsuak.
- 3- Erabakiak hartzeko prozeduran sartutako aldarazpen garrantzitsuak (batzorde teknikoak, erabaki gunek...).
- 4- Arrisku eta babesik ezeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak.
- 5- Bizikidetasun arauen eta hartutako adin txikikoen partaidetza eta kexa mekanismoen arautzea.
- 6- 2000 eta 2001. urteetan egindako espedienteen eta artatutako herritarren datuak.
- 7- Familien banantzeen babes neurrien gaineko datuak (egoitzetako harrerak, adopzioak...) 2000 eta 2001. urteetan.
- 8- Nazio eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
- 9- Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak, zentro bakoitzaren tamaina, jabetza edo eginkizunaren arabera.
- 10- Zerbitzu eta egitarauen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak.
- 11- Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren gaineko informazioak eta berariazko datuak.

11 puntuko eskema honi segituko zaio jarraipenaren kapituluaren lehenengo atal honetan, administrazio arduradun desberdinengandik, lurraldez lurralde, jasotako oinarriko datuak agertzean. Geroago, atal batean bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren egoera aztertuko dugu, zentro bateko bisitaren emaitzak agertuko dira eta, amaitzeko, zenbait ondorio edo alderdi nabarmen adieraziko dira.

1º/ **Lurralde bakoitzeko erakunde babesaren ikuspegi orokorra, administrazio arduradun bakoitzak emandako datuen arabera**

A) **Arabako Lurralde Historikoa**

Haurren babeserako eskumenen banaketa eta zerbitzuen sarea aztertzeo, Arabako Lurralde Historikoan, orain arte behintzat, bi informazio iturri bereizi behar izan ditugu: Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala. Horixe da jarraian egingo duguna, bakoitzarengandik jaso dugun informazioa laburbilduz. Hala ere, komeni da zenbait egitarau eta jarduera biek batera egiten dituztela kontuan edukitzea.

A.1) Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiaren datuen eskarien erantzuna 2002ko martxoaren 4an jaso dugu, txosten honen idazlana ia amaituta geneukanean. Hala ere, jasotako informazioa kapitulu honetan sartzen ahalegindu gara, eta atal honetan laburtu dugu.

1. Abian dauden indarreko urte bat baino gehiagorako planak eta egitarauak
 - Familietan esku hartzea:
 - Familientzako gizarte eta hezkuntza sostenguko egitarauak (1992).
 - Nerabeentzako hezkuntza sostengurako egitarauak (1996).
 - Norbanakoen edota familien gaineko esku hartze psikopedagogikoko egitarauak (1991).
 - Emakume haurdunentzako zentroa (1992).
 - Bisita Saila (1993). (Haur eta gurasoak elkartzeko aukera eskaini eta bermatzen duen espazioa, Gasteizko epaitegietatik edo babes egitarauetatik etorritako banantze edo dibortzio zailen kasuetan)
 - Bitarteko zerbitzuak:
 - Eguneko zentro bat Laudion (12 toki 6tik 16 urtera bitarteko adin txikikoentzat).
 - Eguneko zentro bat Agurainen (12 toki 6tik 16 urtera bitarteko adin txikikoentzat).
 - Lau toki, eguneko zentro gisa, Sansoheta Gizarte eta Hezkuntza Zentroan, 12tik 18 urte arteko nerabeentzat).
 - Nazioko edo nazioarteko adopzio egitaraua.
 - Familietan hartzeko egitaraua.
 - Egoitzetan hartzeko egitaraua.
Orain arte Gasteizko Udalarekin lankidetzan egin dena.
Foru erakundeak 2002ko irailerako sareko etxe guztiak bere mende hartzea aurreikusita dago.
 - Jarraipen eta laguntza egitaraua autonomiarako aldaketan (pertsona, gizarte eta diru laguntza 18 urte bete dituzten eta beren familietan integratzeko zailtasunak dauzkaten gazteentzat).
2. Ekipo teknikoetan, profesionalengan eta koordinazioan sartutako aldaketak
 - *Haurrentzako Lurralde Zerbitzua:*
 - Ekipo teknikoan 6 profesional gehiago sartu dira (5 hezitzaile eta 1 gizarte langile).
 - Lege aholkularitzako orduak gehitzea.
 - 1 hezitzaile gehiago Geroa Etxean.
 - *Etorkizun Berria Elkartearekiko Ituna. 2001. urtea:*
 - Koordinatzailearen irudia sartu da.
 - Hezitzaile/haur ratioa gehitu da.

- *Sanshoeta Gizarte eta Hezkuntza Etxea:*
 - Haurren gainean berariazko prestakuntza duten zaintzaileen irudi profesionala eta pertsonen defentsarako teknika homologatuak sartzea, hezkuntza lana gatazka euspen espazioen beharrik gabe kudeatzeko aukera ematen baitute (1999).
 - Gaueko arretarako langile gehiago jartzea (2) (1999).
 - Zentroko bertoko Psikologoaren irudia sartzea (1999).
 - Elkartearekin berarekin batera, etxeko dokumentu guztiak berrikusi eta dokumentu eta jarduera protokolo berriak prestatzea ekarri duen kalitate sistema sartzea (2000).
 - *Laudioko Eguneko Zentroa.* 1997an sortu zen, etxe funtzional bat, eskariaren bilakaera ikusita eta prebentzio ikuspegiak, aldarazi zutelako. Zentroak 2 toki gehiago hartu zituen iaz.
 - *Aguraingo Eguneko Zentroa.* 2000. urtean sortu zen.
 - *Harrera eta Larrialdietarako Bosco Etxea,* 12tik 18 urterako nerabeentzat.
Lehengo Ibaia etxe funtzionalaren espazio fisikoan kokatua eta oraingo beharretara moldatua. 2001eko otsailean zabaldu zen, 7 tokirekin, eta eskariaren bilakaera ikusita, aurki 10 toki izatea aurreikusita dago, horren ondorioz langile gehiago sartuz (2 hezitzaile eta 2 begirale).
Harrera eta Larrialdietarako Hazaldi Zentroa. Urte honetan 2 hezitzaile gehiago sartu dira, nerabeen kolektiboak planteatutako beharrei erantzun ahal izateko.
 - *Nazioko eta nazioarteko adopzio* egitarauaren barruan, 2001eko abenduan kanpoko enpresa bati adopzioa eskatzen zuten pertsonak prestatzeko lanak (prestakuntza tailerrak) eta eskarien balorazioak esleitu zitzaizkion.
Eskatzaileen aurretiazko prestakuntza sartzeko da, balorazioari lotu gabeko berariazko prozesu gisa. 2001ean nazioarteko adopzioa eskatzen duten pertsonentzako gida argitaratu da.
 - 2002rako aurreikuspenak, ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren arabera:
 - harrerarako prestatzeko eta harrera osteko laguntzarako tailerren kontratazioa;
 - nazioko zein nazioarteko haurrak adopzioan hartzen dituzten familientzako laguntza tailerrak;
 - familia bitartekaritza sartzeko Bisiten Unitatearen prestazioen barruan;
 - begiralearen irudia sartzeko, hezitzailearenaren osagarri, familia eta nerabeen hezkuntza egitaratuetan.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketak
Ez da aldaketarik sartu.
4. Arriskuak eta babesik eza antzemateko sartutako hobekuntzak
- 2001ean, halakoak antzeman eta baloratzen prestatzeko berariazko ikastaro bat egin da, oinarrizko gizarte zerbitzuei zuzendua.

- Adin txikikoei egindako sexu gehiegikeriei aurrea hartzeko hiru ekinaldi garatu dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Gasteizko Udalarekin lankidetzan.
- Lankidetzeta guraso eskolekin (erkidegoaren esparruan), adin txikikoen sexu gehiegikeriei aurrea hartzeko alorrean.
- Hautzaroaren Behatokiaren haurren tratu txarren gaineko lan taldean parte hartzea (adierazleak, ebaluaziorako bitartekoak...).
- Balorazioko talde baten berehalako kontratazioaren aurreikuspena, dauden baliabideen gehigarri.

5. Bizikidetasunerako eta partaidetza eta kexa mekanismoen arauak zehaztea

- Harrera etxe guztietako bizikidetasun gidak eguneratu dira (Geroa etxea, 2002an amaitua), erreklamaziorako mekanismoak sartu dira.
- Iradokizunetarako postontzia jarri da Harrera eta Larrialdietarako Hazaldi zentroan.

6. Espedienteen eta artatutako herritarren gaineko datuak

2001ean irekitako espediente kopurua	149
Irekitako espedienteetan inplikaturako adin txikikoen kopurua	180

7. Familia banantzeetako babes neurrien gaineko datuak

	00.12.31n	01.12.31n
Familia nukleotik banantzeak	139	129
Egoitzetako harrerak	102	126
Familietan hartzeak	67	62
Familietan hartzearen antzeko egoerak	15	8
Urtean izandako nazioko adopzioak	5	6

8. Adopzioen gaineko datuak

	Naziokoak	Nazioartekoak
01.01.01en erantzuteko dauden eskariak	95	16
2001ean aurkeztutako eskari berriak	6	77
2001ean gauzatutako adopzioak	6	32
01.12.31n erantzuteko dauden eskariak	95	44

9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak

	1-10 toki	11-20 toki	21-30 toki
Herri titulartasuna.	1 (Geroa)	4 (Udalak)	
Kudeaketa zuzena Titulartasun pribatua	—	—	—
Herri titulartasuna. Zeharkako kudeaketa	3 +1 (haurdun)	—	—
CAU. Herrikoa, kudeaketa zeharkakoa	1		1 (7 p. (0-3)) (15 p. (3-18))

Ezaugarri jakin batzuetako adin txikientzako berariazko zentroi dagokienez, egoera ondoko termino hauetan islatzen da:

ZENTROA	TOKIAK	KOLEKTIBOAREN EZAUGARRIAK
CAU Hazaldi	22 toki	7 sehaska toki. 15 toki (3-18 urte).Baloratzeko edota larrialdiko harrerako kasuak.
CAU Bosco Etxea	7 toki	12-18 urteko nerabeak. Baloratzeko edota larrialdiko harrerako kasuak.
Sansoheta gizarte eta hezkuntza zentroa	8 egoitza 4 eguneko zentro	12-18 urteko nerabeak, gizartean bizitzeko arazoez, jokabide zailez ...
Emakume haurdunentzako zentroa	6 emakume 1 ama-eme/ alabarentzako apartamentu (gehienez 2)	Emakume haurdunak laguntza psikosozialaren premian.

10. Zerbitzuen eta egitarauen funtzionamendua ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeari dagokienez sartutako hobekuntzak
Lehendik dauden prozedurekin jarraitzen da.

11. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren gaineko informazioak eta berariazko datuak
Atal hau aparte garatzen da. Edonola ere, kolektibo hau txikia da edo gutxi artatzen da, oraindik ere, Arabako Lurralde Historikoan, beste lurralde historikoen aldean: 11 adin txikiko 2001. urte osoan.

A.2) **Gasteizko Udala**

1. Indarreko urte bat baino gehiagorako planak eta abian dauden egitarauak

1.1. Esku hartzea familiekin:

- Familia bitartekaritzako egitaraua, 2001eko maiatzetik aurrera.
- Pixkana Lagundu eta Garatzeko Egitaraua (ADA), arriskuan dauden familiei eta 7tik 14 urtera arteko haurrei begira (nazioarteko “Baliabideak beharretara egokitzen” egitarauari lotuta, lehiaketa irekiaz esleitu aurreko fasean).
- “Espazioa eta bizitza” egitaraua, 1994tik funtzionatzen (2000. urtean: guraso bakarreko 6 familia 8 urtetik beherako seme-alabekin).
- Familia Terapiako Egitaraua (1987tik).

1.2. Bitarteko zerbitzuak:

- Hiru eguneko zentro (30 toki), 3 urtetik 16rako adin txikikoentzako Alde Zaharrea (2) eta Sansomendin (1).
- Lanean hasi aurreko eguneko zentro bat (10 toki 16 urtetik 18ra arteko gazteentzat), 2000ko irailetik, Sansomendin.
- Eguneko bi zentro berriren aurreikuspena (20 toki) Pablo Nerudan, 2002ko amaierarako.

1.3. Familien banantzeak:

- Etxe funtzionalak: dauden lau etxeek jarraitzen dute, eta 2002rako Arabako Foru Aldundiaren eskuetara igaroko direla aurreikusten da.
- Familietan hartzeko egitaraua: hau ere Arabako Foru Aldundiaren eskuetara igarotzea espero da.

1.4. Babes sistematik irteeta:

- 18 urtetik 23ra arteko bi sexuetako gazteentzako Valeo egitaraua.

2. Talde teknikoetan, profesionalengan eta koordinaketan sartutako aldaketak

- Haur eta Familientzako Zerbitzuaren Ekipo Teknikoan:
 - 4 langile gehiago sartu dira, guztira 17 direlarik.
 - Barruko berrantolaketa ekipo berriak sartuz (“Egitarauak” ekipo berria) eta irudi berriak (esaterako, kasuen koordinatzailea).
 - Etengabeko prestakuntza oinarritzko lanabesetan (programen erabilpena), bitartekaritzako tekniketari, gaitasunen garapenean...
 - Ekipo guztiak kalitateko prozesu batean parte hartzea, 2001eko maiatzean.
- Beste zerbitzu batzuetan:
 - Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan 26tik 31ra gehitu gizarte langileak, eta familia gaietan esku hartzeko 7 psikologo toki sortzea.
 - Etxe funtzionaleko tokien kopurua gutxitzea (14 edo 12 tokira murriztea, etxeen arabera, 2002ko urtariletik: 54 toki 60ren ordez).
 - Hezitzaile guztiak gorabehera bortitzen ebazpenean trebatu.
 - Urteko funtzionamendurako irizpideak prestatzea, etxe eta zentroetarako.
 - Aukera Berri Elkartearekin Espazioa eta Bizitza Egitaraurako itunean aurrekontua gehitzea.

- Modulu ekonomikoak finkatzea eta esleitzea zerbitzu eta eginkizun jakin batzuek lehiaketa irekiaren bidez esleitzu (bisiten zerbitzua, familia terapia, familia bitartekaritza...).

3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketak

- Kasuak Udal Batzorde Teknikora bidaltzeko araudia berritzea.
- Partaide Egitarauaren ebaluazioa (“Arriskuan dauden Familia eta Adin Txikikoak Identifikatzea”): ebaluatzen ari da, behar diren aldarazpenak sartzera begira.

4. Arrisku eta babesik ezeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak

4.1. Sexu gehiegikeriei Aurrea Hartzeko Ekinaldia egitea:

- Ikasketa buruei, Arabako ikastetxe pribatu eta publikoetako koordinatzaile pedagogikoei, bai eta PATeko langileei ere informazioa ematea.
- Lehen Hezkuntzako ikastegietako irakasleak haurren aurkako tratu txar eta sexu gehiegikerien gainean prestatzea (4 ikastegitako 67 irakasle).
- Haurren prestakuntza (6tik 12 urtera arteko 460 haur, lau ikastegi horietan).
- Parte hartu duten 4 ikastegi horietako 264 gurasori informazioa ematea.
- 8 ikastaro ematea, 8na ordukoa, sexu gehiegikerien jakinarazpenak hartzen dituzten profesionalen kolektibo desberdinei (192 profesional izan dira), ondokoetakoak: Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoak, Herritarren Babeseakoak, Larrialdien Udal Zerbitzukoak, 010/Gizarte Antenakoak, beste udal sail batzuetako profesionalak, Haur eta Familien Zerbitzukoak, haur eskoletako hezitzaileak, etxe eta eguneko zentroetako hezitzaileak.

4.2. Eskola gaietan koordinazio protokoloak egitea

- Otik 3 urterako haur hezkuntza (koordinaketa protokoloak berrikusi Hezkuntza Sailarekin)
- Lehen Hezkuntza (koordinaketa bilerak Arabako Aldundiarekin eta Hezkuntza Ordezkaritzarekin, eskola absentismoko kasuak antzemateko).

4.3. Haurraren eskubideak ezagutzea sustatzen duten egitarauak

- Haurren Gutunontzia (2000ko abenduan sortua, hiriko 6tik 16 urtera arteko haurren gutunak jasotzeko asmoz; bertan hurrek beren kezka, kexa eta arazoak adieraz ditzakete. Beren hirian eta udalean parte hartu eta inplika daitezten sustatu nahi da).
- Haurren aldeko Bandoa (01-09-19an egingo zen Nazio Batuen ez-ohiko bilera zela-eta, Gasteizko Udalak Haurren aldeko Bandoa sinatu zuen, Unicef-ek eta FEMPEk haurren eskubideak ezagutu eta horien kontzientzia zabaltzeko sustatutako ekimenari erantzunez. Bandoa poster tamainak editatu zuten eta erakunde, elkarte eta antolakundeetara banatu zuten).

- Haurren Eskubideen Konbentzioaren XII. Urteurrena ospatzea (2001eko azaroaren 24an, Foruen Plazan).

5. Bizikidetasuneko eta parte hartu eta kexatzeko mekanismoen arauak zehaztea

- 1999an etxe eta eguneko zentroen arautegia prestatzeko udal batzordea sortu zen. Arautegi zirriborro bat prestatu zen, azkenean geldituta geratu zena, besteak beste, eskumenen argitasunik ezaren ondorioz sortutako oztopoengatik.
- Etxe eta eguneko zentroetan iradokizunen ontziak jarri dira.

6. Espedienteen eta artatutako herritarren gaineko datuak

	2000.12.31	2001.12.31
Irekitako espedienteak	342	352
Adin txikiko inplikatuak	557	593

7. Familien banantzeko babes neurrien gaineko datuak

	2000.12.31	2001.12.31
Familia nukleotik banantzea	140	141
Egoitzetako harrera	79	86
Familietako harrera	60	53
Harrereren antzekoak	1	2

8. Adopzioen gaineko datuak

Aldundiak egindako egitaraua (ikus A.1 atala).

9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak

	1etik 10era		10etik 20ra		GUZTIRA Zentroak/ tokiak
	ZENBAT ZENTRO	TOKIAK	ZENBAT ZENTRO	TOKIAK	
HERRI TITU-LARTASUNA Egoitzetako harrera	5	18	4	56	9/74
HERRI TITU-LARTASUNA Eguneko zentroak	4	40	4/40		
Espazioa eta bizitza	2	6			2/6

10. Zerbitzu eta egitarauen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak
- Etxe eta Zentroetako ekipoek etxe eta eguneko zentroetan kontratutako ekipoen ebaluaziorako galdera sortak prestatu eta aplikatzea.
 - Etxeetan eta eguneko zentroetan hartutako adin txikikoen ebaluaziorako sistema informatizatua martxan jartzea.
 - GESISen I Fasea martxan jartzea (Gizarte Interbentzioko Zerbitzuen Espedienteen Informazioaren Kudeaketa).
 - 2001eko maiatzetik, kalitate prozesu batean integratzea, lehenengo fasean zerbitzuetako gutun bat onetsita amaituko dena.
11. Etxeetan eta eguneko zentroetan artatutako kolektibo edo arazo jakinei dagokienez, esaten da ez dagoela berriazko kolektiboetarako zerbitzuen espezializatorik. Hala ere, etxe eta eguneko zentroetan hartzen diren ezaugarri jakin batzuetako adin txikikoen gaineko datu hauek ematen dira, 2001eko abenduaren 31ko datuak:

	% Nerabeak	% Adin txikiko atzerritarrak	% Adin txikiko gehiegizko kontsumitzaileak	% Tratamendu psikiatrikoan dauden adin txikikoak
ETXEAK	% 42	% 13	% 9	% 24
EGUNEKOAK	% 42	% 3	% 4	% 17
GUZTIRA	% 84	% 16	% 13	% 41

12. Beste kontu batzuek

Amaierako laburpen gisa, Udaletik jasotako txostenean 2002. urterako aurreikusitako zenbait hobekuntza zehazten dira:

- Bitartekaritzako plegu berri bat martxan jartzea, artatuko diren egoeren tipologia hedatuz.
- ADA egitaraua martxan jartzea.
- Bisita zerbitzuko plegu berria onestea, zerbitzua nabarmen hobetuz.
- Babes bereziko kasuen baloraziorako baldintzen plegu berria prestatzea.
- PAIDE sistemaren formazio berria.
- Haurren partaidetzako egitaraua hedatzea, 2000ra arte "Haurren Gutunontzia" egitarauaren bidez egiten baitzen.
- Sexu gehiegikerien prebentziorako ekinaldiaren beste fase bat.
- Partikularren etxeetako gizarte eta hezkuntza interbentzioko marko teoriko bat prestatzea.
- Eguneko bi zentro zabaltzea – 3tik 16 urtera bitartean- 10na tokikoak.

B) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren erantzunak planteatutako gai bakoitzaren gaineko datuak ematen ditu eta, zenbait puntutan, eranstean dituzten bi dokumentutara joarazten digu: "Haurren babesik ezeko egoerak

artatzeko Haurrentzako Plana”, eta “Adin txikikoen egoitza zentroen erabiltzaileen gogobetetzearen ikerketa”, 2001eko irailekoak.

1. Indarreko urte bat baino gehiagorako planak eta abian dauden egitarauak

- Haurren babesik ezeko egoerak artatzeko Haurrentzako Plana, 1999ko urrian onetsia eta lau urterako aurreikusia.

Xedeak nabarmentzen dira, eta antolaketan sartutako aldaketa esanguratsuak (sailaren egitura organiko berria eta langile gehiago), edo egitarau berriak martxan jartzea.

- Familietan esku hartzeko egitaraua, Haurrentzako Zerbitzuan babes espediente bat irekita daukan seme-alabarik dagoen familientzat, bai familiaren etxean bizi diren bai aldi batez jatorrizko familietatik banandu diren haurren kasuetan, zenbait baldintza edo irizpide betetzekotan.
- SAIO egitaraua (Harrera, Informazio eta Orientazio Zerbitzua): babes espedientea daukaten edo eduki duten eta baliabiderik eta familia euskarririk edo kolektibo integratzailearik gabe dauden 16tik 21 urtera arteko gazteak gizarteratu eta lan merkatuan sartzea erraztu nahi du.
- Familietan hartzea sustatzeko egitaraua.
- Lankidetzeta Ituna Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Iniciativa Gitana elkartearen artean, ijitoen erkidegoko adin txikikoekin eta familiekin esku hartzeko.
- Artapen psikologikoko egitarau espezializatua familia barruko sexu gehiegikerien kasuetan.
- Haurrentzako zerbitzuko jakinarazpen, hitzordu eta lekualdaketen zerbitzua.
- Eguneko zentroei edo gizarte eta hezkuntza interbentzioko egitarauak dagokienez, gogorarazten da, gizarte zerbitzu eta egitarauen gaineko eskumenen banaketarako erabakiaren arabera, udal esparrukoak direla.

2. Ekipo teknikoetan, profesionalengan eta koordinaketan sartutako aldaketak

- Larritasun arineko eta tarteko babesik ezeko haurren egoerak larriagotzea saihesteko, gizarte eta hezkuntza interbentzioaren, eta lehenengo eta bigarren mailako prebentzioko eta familiako interbentzioko jardueren gaineko eskumenak ematea.
- Gizarte Ekintzako Sailaren arautegi organiko berria onestea (otsailaren 6ko 17/2001 Foru Dekretua), Haurrentzako Zerbitzuaren egitura aldarazten duena, hiru atal sortuz:
 - Harrera, Balorazio eta Orientazio Zerbitzua
 - Familietan Hartze eta Adopzioen Zerbitzua
 - Egoitzetako Harrera Zerbitzua
- “Kasuaren koordinatzailearen” irudia sartzea, adin txikiko bakoitzarekin edo bere familiarekin egingo den lan plana definitu, koordinatu eta ikuskatzeaz arduratuko dena.
- Haurrentzako Zerbitzuko teknikarien kopurua gehitzea, egitarau desberdinetan eta egoitza zentroetan.

3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketak

- Haurren babesik ezeko egoeretan esku hartzeko eskuliburua prestatzea, behin amaituta ezarri nahi dena.
 - Haurrentzako Planean erabakiak hartzeko bi organotan aurreikusitako aldarazpenak gauzatzeko daude oraindik: Balorazioko Batzorde Teknikoan eta Harrera eta Adopzioen Batzarrean.
4. Arrisku eta babesik ezeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak
- Eskumenen banaketarako erabakiaren ondoren, arrisku egoerak udalen ardura izatera igaro dira.
 - Babesik ezeko egoerei dagokienez, lehen aipatutako “interbentzioko eskuliburuan” esandako hobekuntzetara joarazten dute.
5. Bizikidetasuneko eta parte hartu eta kexatzeko mekanismoen arauak zehaztea.
- Litezkeen bizikidetasuneko kexa edo gatazkak antzeman eta aurre egiteko orduan, kasuaren koordinatzailea sartu izanak ekarritako hobekuntza azpimarratzen da.
 - Kexa prozedurak eta bizikidetasuneko araudiak estandarizatu eta hedatzea egiteko dago (aipatutako interbentzioko eskuliburua onesteko eta zentroak kudeatzen dituzten erakundeekiko itunak berrikusi eta eguneratzeko zain).
 - Partaidetzako mekanismoei dagokienez, zentroetan hartutako 179 adin txikiori banatutako gogobetetzearen gaineko inkesta aipatzen da, eta ateratako emaitzen txostena eransten da. Inkestaren aplikazioa 2001eko ekainean egin zen, bi bertsiotan (13 urtetik gorakoei eta 8tik 13 urtera arteko adin txikikoei), hartutako kolektiboaren lagin handia hartuta, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak kanpoan utziz. Zazpi eremu hartzen ditu: zentroaren ezaugarri fisiko eta arkitekturezkoak; pertsonen arteko harremanak; antolakuntza eta informazioa; partaidetza; ostatu artapena; gizarte eta hezkuntza artapena; eta intimitatea eta segurtasuna. Datuak sakon aztertuz, eremu bakoitzeko, zentro bakoitzeko, zentro multzo bakoitzeko (titulartasun edo tamainaren arabera), edo adin txikikoen adinaren arabera multzo bakoitzeko gogobetetzearen indizeak ezagutzen dira. Laginean oro har ateratako gogobetetzearen indizea (batez besteko puntuazioa) 10etik 7,3 puntukoa izan zen. Zenbakizko datuez gain, galdetutako adin txikikoen iruzkin eta ekarpenak ere jaso dira, esaterako, kexa mekanismoen eskariaren gainekoak.
6. Espedienteen eta artatutako herritarren gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)	2000	2001
Irekitako espedienteak	244	359	741*
Itxitako espedienteak	244	151	582
Tutoretzak	66	72	227
Zaintzak		111	86

* 741etatik, 264 bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak dira.
Lurralde honetan, inplikaturako adin txikikoen kopurua espedienteen kopuruaren berdina da.

7. Familien banantzeko babes neurrien gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)	2000	2001
Egoitzetako harrera	631	410	480 ⁽¹⁾
Familietako harrera soila		6 ⁽²⁾	14 ⁽²⁾
Familietako harrera etengabea	56	33 ⁽²⁾	53 ⁽²⁾
Adopzio aurreko familietako harrera		20 ⁽²⁾	32 ⁽²⁾

⁽¹⁾Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak zenbatu gabe.

⁽²⁾Familietan hartutakoen datuak urte horretan erabakitakoei dagozkie.

8. Adopzioen gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)	2000	2001
Nazioko adopzioak - gauzatuta	20	35	18
Nazioko adopzioak - eskariak	133	37	38
Nazioko adopzioak - ebazteko dauden eskariak	—	450	300
Nazioarteko adopzioa - eskariak	54	216	299
Nazioarteko adopzioa - balorazioak	—	—	148
Nazioarteko adopzioa - ebazteko eskariak	—	599	778

9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak

Adin txikikoen zentrozen banaketa, tamainaren eta titulartasunaren arabera

	1etik 10 tokira		11tik 20 tokira		21etik 30 tokira		31tik 40 tokira		40 tokitik gora		GUZTIRA	
	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak
Herri titular- tasunekoak	1	9	9	127	1	30	1	38	1	54	13	258
Titulartasun pribatukoak	10	71	5	82	1	28	0	0	1	45	17	226
											30	484
												400*

* Toki kopurua, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzakoak zenbatu gabe.

Zentro eta etheen ezaugarriei dagokienez, gehienak mistoak dira eta, printzipioz, edozein adinetako txikientzat zabalik daude. Badago baten bat mutil nerabeentzat edo neska nerabeentzat dena. Bi zentro (Dolaretxe eta El Refugio) bereziki txikienak artatzeko direnak (0tik 3 urtera, edo 10 urtera). Beste bi, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat (Zabaloetxe eta Gabriel M^a de Ibarra), eta bat jokabide arazo larriak dauzkaten adin txikikoentzat (Zabaloetxe).

2001eko abenduaren 31n zentroetan hartutako adin txikikoen datuak (bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak kenduta), honelaxe laburbiltzen dira:

- 346 adin txikiko (aurreikusitako tokien % 86ko okupazioa)
- adinen arabera: 0-3 urte: 25 (% 7)
 - 4tik 8 urtera: 41 (% 12)
 - 9tik 12 urtera: 53 (% 15)
 - 13tik 15 urtera: 107 (% 31)
 - 16tik 18 urtera: 101 (% 29)
 - 18 urtetik gorakoak: 19 (% 6)

10. Zerbitzuen eta egitarauen ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak
 - Horretan Haurrentzako Zerbitzua berrantolatzeak, langile tekniko gehiago sartzak, Haurrentzako Plana martxan jartzeak eta aurki ezarriko den Interbentzioko Eskuliburuak izandako edo izango duen eragina aipatzen da.
11. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren gaineko informazioa, lurralde honetan garrantzi handiko kolektiboa izanik, berariazko atal batean aztertuko da geroago.

C) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Zerbitzuen Sailaren erantzuna 2002ko urtarrilaren 15ean jaso genuen. Ondoren, urtarrilaren 31n, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren gaineko datu gehiago jaso genituen, eta datu horiek, halaber, 2002ko martxoaren 4an ere osatu ziren.

Puntu bakoitza garatu baino lehen, txostenak ohar orokorra egiten du: egitarau, baliabide eta jardueren gaineko datuak babesik ezeko egoera larrietara mugatuko dira, zeren –Bizkaian nabarmendu den bezala– eskumenen banaketarako erabakiak arrisku egoeren artapena udalen ardurapean dagoela, zehazten baitu. Komeni da ohar hau gogoan izatea jarraian emango diren informazioak baloratzean.

1. Indarreko plan urteanitzak eta abian dauden egitarauak
 - Gizartean babesik gabe dauden haurrak eta gazteak artatzeko plan integrala, 1998an argitaratua, 1998-2002 tarterako indarrean, epe hori amaitzean berrikusiko dena.

- Familietan esku hartzeko egitaraua: tratu txarreko egoera dauden adin txikikoen familietan esku hartzeko zerbitzu espezializatua, tratu txar eta sexu gehiegikeriako haurren egoeretan espezializatutako zerbitzua, eta babesik gabeko haurren egoerak daudeneko familientzako osagarrien egitaraua.
- Bitarteko zerbitzuak: udalaren ardurakoak, aipatutako erabakiaren arabera (uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua).
- Familien banantzeak:
 - Egoitzako harrera: Egoitzetako Harrerarako Laguntza Teknikoko Zerbitzua, HZ Zerbitzuak-ekin sinatutako lankidetzakontratuaren bidez, 2000eko uztailetik aurrera.
 - Familietan hartzea: Familietan Hartzeari Laguntzeko Zerbitzu Teknikoa, eta Familia Hartzaileak Sentiberatu, Hautatu eta Prestatzeko Zerbitzua.
 - 18 urtetik gorako gazteak babes sistematik irtetea.

2. Ekipo teknikoetan, profesionalengan eta koordinazioan sartutako aldaketak

- Gizarte Ekintzako Sailaren ekipo teknikoa aldarazi da, martxoaren 6ko 16/2001 Foru Dekretuaren bitartez. Hona hemen nola osatzen den Dekretu horren arabera, Haur eta Gazteentzako Atala: 1 atalburu; Balorazio eta Orientazioko 4 teknikari; Egoitzako Harrerako eta Adopzio Saileko 5 teknikari; Administrazio Saileko 4 administrari.
- Harrera zentroak kudeatzen dituzten erakunde desberdinekin itunak eginez, hezkuntzako langileen gaineko zenbait baldintza ezarri: gizarte zientzietako titulazio ertaina; etxe bakoitzeko gutxieneko hezitzaile kopurua (4,5), batek zuzendari lanak egiteko, eta etxeko lanetarako laguntzaile aritzeko besteren bat.
- Lurralde-udal koordinaketa, aholkularitza lanen bitartez, udal teknikarien eskari zehatzei erantzuteko, babesik gabeko egoeretarako aholkularitza eta balorazioko berariazko batzordeetan parte hartzeko, eta prestakuntza ekintzak. Gizarte zerbitzuetako eskualdeko ekipoak ezartzea Oarsoaldea eta Deba Barrera eskualdeetan, besteak beste, aholkularitzako eginkizunetarako eta lurralde mailako eta udaleko zerbitzuen arteko lotura izateko haurren alorreko teknikari bat jarrita.
- Esaten denarengatik, adin txikikoaren eta bere familiaren artean esku hartzen duten profesionalak bakoitza bere aldetik ibil dadin saihesteko, "sareko laneko" sistema koordinatua ezartzen ari da.

3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketak

- Bi batzorde mota bereizten dira:
 - haurren babesik eza baloratzeko batzorde teknikoa, Haur eta Gazteen Ataleko teknikariak daudenekoa;
 - espedienteen jarraipenerako eta azterketarako batzordeak, ataleko unitate bakoitzak sustatuta, non informazioa helarazi duten gizarte langileek, baita erkidegoko esparruko beste gizarte eragile batzuek ere parte har baitezakete.

- 1999ko irailetik Haur eta Gazteen Ataleko lanean prestatu eta ikuskatzeko jarduera bat ezarri da, hilean behin egiten dena, haurren babesean aditua den batek koordinatzen duena, arazoak eta gorabeherak aztertzeko...
- Egoitzetako harrerako antolakundeekin sinatutako itunaren bidez, hezkuntza ikuskaritzako zerbitzua ezarri da.

4. Arrisku eta babesik ezeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak

- Antzeman, jakinarazi, ikertu eta ebaluatzearen gaineko gidaren argitalpena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan haurren artapenean inplikaturik dauden maila guztien arteko koordinaketa egokia errazteko, haurren arrisku edo babesik ezeko egoerei aurre egiteko orduan (profesionalen eginkizun eta lanak argitzea, egoerak identifikatzeko adierazleak, koordinaketa errazten duten protokoloak...).
- Gida hedatzea: prestakuntza jarduerak Gizarte Zerbitzuetako teknikarien eskualdeko bileren bidez.
- Antzemateko sistema hobetzea: berariazko prestakuntza jarduerak edo beste erakunde batzuekin itundutako jardura protokoloak: hezkuntza, osasuna, justizia, polizia. Garatutako ekintzen euskarri gisa, informazioko esku orri batzuek argitaratu dira, bidalitako erantzunarekin batera helarazi zaizkigunak.

5. Bizikidetasuneko arauen eta parte hartu eta kexatzeko mekanismoen arautzea

- Egoitzetako harrera
 - Zentro guztietan bizikidetasuneko arauak, eta hartutako adin txikikoen partaidetza eta kexetarako mekanismoak jasotzen diren proiektuak egitea.
 - Adin txikiko bakoitzak bere artapenez arduratzen den hezitzaile baten erreferentzia dauka, eta esleitu zaion Gizartegintzako teknikari batena, beharrezko irizten dionean harengana jotzeko.
 - Egoitzetako harrerako estatutua prestatzen ari dira, orain ez dute amaitu, babes zentroetan dauden adin txikikoen eta beren hezitzaileen eskubideak eta betebeharrak definitzeko asmoz, baita batzuei eta besteei aplikatzeko falta eta neurri zuzentzaileen erregimena zehazteko ere. Zirriborrea zentroetako zuzendariei helarazi zitzairen, hezitzaileekin batera, testua aztertu eta beren oharrak egin zitzairen. Zirriborrea itzultzeko epea 2002ko urtearen hasiera jarri zitzairen. Ondoren, Gipuzkoako Entzutegi Probintzialeko Adin Txikikoen Fiskaltzara bidaliko da, han aztertu eta ikertzeko.
- Familietan hartzea
 - Familietan hartzeari laguntza teknikoa emateko zerbitzua ezartzea, haurrarengandik gertu dagoen irudi bat sartu ahal izan delarik haurraren, hartu duen familiaren eta Administrazioaren arteko lotura gisa jarduteko. Horrela lortu nahi den helburu bat norbanakoaren gorabeherak ahalik eta lasterren antzematea da, haurrarekiko komunikazio zuzena erraztuz.

6. Espedienteen eta artatutako herritarren gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)	2000	2001
Irekitako espedienteak	133	248	345
Irekitako espedienteetan inplikaturako adin txikikoak	194	298	414
Urtean zehar artatutako adin txikikoak		542	552

7. Familien banantzeen babes neurrien gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)	2000.12.31n	2001.12.31n
Familia nukleotik banantzea	278	388	372
Egoitzetako harrerak	154 (% 55,3)	146	153
Familietan hartzeak	83 (% 29,8)	128	116
Familietan hartzearen antzeko egoerak	33 (% 11,8)	114	103
Urtean gauzatutako nazioko adopzioak	8 (% 2,8)	2	8

8. Adopzioen gaineko datuak

	1995. URTEA (erreferentziakoa)		2000	2001
	Nazioko adopzioak	Nazioarteko adopzioak	Nazioko adopzioak	Nazioarteko adopzioak
2001/01/01ean ebazteko zeuden eskariak	151	1	103	264
2001ean aurkeztutako eskari berriak	60	41	1	151
2001ean gauzatutako adopzioak	—	—	8	70
01/12/31n ebazteke zeuden eskariak	176	18	89	263
Baxak arrazoi desberdinengatik	—	—	7	—

	GAITASUN EGIAZTAGIRIAREN ESKARIAK 2001
2001/01/01ean ebazteke zeuden eskariak	32
2001ean aurkeztutako eskari berriak	151
01/12/31n ebazteke zeuden eskariak	43
2001ean emandako gaitasun egiaztagiria	129
Baxak arrazoi desberdinengatik	11

9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak

	1etik 10 tokira		11tik 20 tokira		21etik 30 tokira		31tik 40 tokira		40 tokitik gora		GUZTIRA	
	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak	Zentroak	Tokiak
Herri titular- tasunekoak					2	49					2	49
Titulartasun pribatukoak	19	150									19	150
											21	199

10. Zerbitzu eta egitarauen ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak

- Egoitzetako harreraren sarearen kanpoko ebaluazio orokorra, eskatuta dagoena eta 2002ko abenduan amaitzea espero dena. Ebaluazioaz gain, sarea berriro definitzea, zentrozen programaketa eta, prestakuntza plan batekin batera, ebaluaziorako eskuliburua egitea ere eskatu da.
- Norbanakoen hezkuntza egitarau bakoitzaren urteko ebaluazioa (PEI), Haurren eta Gazteen Ataleko teknikariek ikuskatuta.
- Lehiaketa irekiaren bidez kontratatutako zerbitzuen urteko memoria.
- Familietan hartzearen gaineko ikerketa, EHUrekin lankidetzan.

11. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektiboaren gaineko informazioa hurrengo atalean aztertzen da.

2/ **Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren berariazko egoera**

Babesik gabeko adin txikiko kolektiboaren barruan, ezaugarri eta beharrian desberdinak dituen talde bat dago, bakarrik dauden eta dokumentaziorik ez duten adin txikiko atzerritarrena, hain zuzen. Azkeneko bi urteetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri du kolektibo horrengan eta, zehazkiago, lurralde historiko bakoitzean kolektibo horretaz beren beregi arduratzen diren zerbitzuetan. Egoera oso desberdina da lurralde batetik bestera, beraz, hemen lurraldez lurralde aztertuko dugu.

A) **Arabako Lurralde Historikoa**

Gaineko lurraldeen aldean, Araban kolektibo honek ez du hazkunde esanguratsurik izan 2001. urtean. Dena dela, eskaeraren jarraipena egiten da, bere hazkundeak beste zentro edo zerbitzu espezifikoak zabaltea gomendatzen duen ikusteko.

2001eko otsailean, 12tik 18ra arteko nerabeentzako Bosco Etxea Larrialdiak eta Harrera Zentroa zabaldu zen, kolektibo honen alderako orientazio espezifikoarekin. 7 plazekin eman zitzaion hasiera, gerora 10 plazetara zabaltzea aurreikusten bada ere, ondorioz langileak ere gehituko direlarik.

Azken urteko datu esanguratsuenen aldetik, ondoko hauetan laburbildu daitezke:

- 11 mutil artatu dira, Magreb (6), Jugoslavia (2), Kroazia (1), Senegal (1) eta jatorri ezezagunetakoak (1).
- Euretako bat bakarrik sartu da berriro.
- Zentroan egin duten denbora honako hau izan da:
 - 8 kasutan, aste bat baino gutxiago;
 - kasu batean, hilabete baino gutxiago;
 - 2 kasutan, hilabete bat baino gehiago.
- Abenduaren 31n, 2 pertsona zeuden bertan.
- Ez da inongo tutoretzarik egin urtean zehar.
- Dokumentazioari dagokionez, 5ek dokumentuak zeuzkaten eta 6k ez zeukaten dokumenturik.

B) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Zalantzarik gabe, 2001. urtean inor gabeko adin txikiko atzerritarren arazoa batez ere Bizkaian bildu da. Hasierako datu bat hori frogatzeko: aurten 349 adin txikiko hartu ziren (370 sarrera), aurreko urteko kopuruak –hazkunde handia ere izan zuelarik- 52 adin txikiko hartu eta 59 sarrera izan zirenean. Beste modu batera esateko, hartzeko beharrak edo eskabideak ia sei aldiz biderkatu dira urte bakar batean.

Datuen bilakaera, urtez urte, ondoko hau izan da:

- 1996: 5 adin txikiko (5 sarrera).
- 1997: 12 adin txikiko (15 sarrera).
- 1998: 23 adin txikiko (23 sarrera).
- 1999: 30 adin txikiko (48 sarrera).
- 2000: 52 adin txikiko (59 sarrera).
- 2001: 349 adin txikiko (370 sarrera).
- Guztira (1996-2001): 471 adin txikiko; 520 sarrera eta batez beste 5,1 hilabeteko egonaldia.

Hazkunde honek gainditu egin ditu erabat aurretiko ikuspenak. Kontutan hartu Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko urterako 18 plaza aurreikusita zituela Loiuko Zabaloetxe egoitzan. Plaza hauei beste plaza batzuk gehitu zitzaizkien beharren arabera, zentroaren okupazio ahalmen guztietara iritsi eta gainditzearaino ere.

Urteko lehen zatian zehar, Zabaloetxe zentroarekin jarraitu zen kolektibo honetarako zegoen baliabide bakar gisa funtzionatzen. Ekainean, zentroak 99 adin txikiko hartzera iritsi zen. Auzokideen kexak izan ziren eta zabalkunde handia izateko moduan planifikatutako atentatu bat jasan zuen ere (erasotzaileek beraiek deitutako telebista kamerak ziren bertan).

Hilabete horretan bertan, behin eskola ikasturtea amaitu ondoren, 30 adin txikikoak, Orduñan dagoen Gabriel M^a De Ibarra zentrorako eraman ziren. Lekuz aldatuta hau

ez zen tentsioz libre izan eta, hasieran behintzat, Loiu zegoen liskar arriskua eta gainezka egiteko egoera arintzea ekarri zuen.

Hala ere, handik gutxira, Zabaloetxen hartzeko eskabideek aurreikuspen guztiak gainditu zituzten. Sarrerak batez beste hileko 40 adin txikiko izatera pasa zen, lehenengo hilabeteetan 20koa izan zenean. Ikus ditzagun joan zen urtean zehar, hilez hile, izandako bilakaeraren datuak:

HILA	SARRERAK	IRTEERAK	HILEAN HARTUTAKOAK	GUZTIRA HILAREN AKENEAN
2000/12/31n				32
URTARRILA	20	6	50	44
OTSAILA	20	10	64	54
MARTZOA	16	9	71	62
APIRILA	25	16	87	71
MAIATZA	22	22	92	70
EKAINA	29	61	99	38
UZTAILA	27	14	65	51
ABUZTUA	44	36	95	59
IRAILA	40	27	99	72
URRIA	52	45	124	79
AZAROA	31	27	110	83
ABENDUA	44	30	127	97
GUZTIRA	370	303	1083	780
HILEAN,	31	25	90	60
BATEZ BESTE				

Zenbatekoak ematen dira, errealitatea islatzeko duten balioagatik ez eze, izatez, eskaini ahal izan den erakundearen arreta urte osoan baldintzatu dutelako.

Erakunde honek egoeraren jarraipen zehatza egin du. Joan zen urtean ere egin zuen, eta zentroetako hainbat alderdi aztertu zituen: zentroetako baldintza fisikoak, hezkuntza proiektuak, jarduerako protokoloak, egoera administratiboak arautzearen aldetik lortutako emaitzak (dokumentazioa), tutoretzaren jarduera, bitarteko komunitarioen aprobetxamendua (hezkuntza, medikoak, kirolak, lanbide hastapenak...), norberaren ezaugarri kulturalen errespetua, emantzipazio eta lanean hasteko aukerak... Horretaz guztiak kontua eman zen joan zen urteko txostenean (zfr. 2000ko Txostenaren "Inor gabeko adin txikiko atzerritarrak. Bizkaia" 1.1.5 atalean).

Azken urtean zehar, Ararteko erakundearen esku hartzea kontu honetan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan puntu hauetan zehaztu da:

- Gizarte Ekintzako Foru Diputatuarekin eta zerbitzuen arduradunekin egindako bilerak.
- Jarduera irizpideei buruzko dokumentu eta proposamen ugariaren azterketa: tutoretzak, dokumentazioa, Ertzaintzaren esku hartzea...
- Loiu eta Orduñako harrera zentroein egindako bisitak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aurrean ofizioz egindako jarduerak.
- Erandio eta Laudioko Ertzaintza etxeein egindako bisitak.
- Fiskal buruekin egindako bilera eta Bizkaiko Adin txikikoen Fiskalarekin informazioa trukatzeko.
- zentroetako zuzendaritzarekin eta atzerriko jatorrizko pertsonak laguntzeko elkarteekin aldizkako harremanak (Harresiak Apurtuz, AZRAF...).

Burututako jarduera eta lortutako informazioetatik ondoko elementu hauek nabarmen daitezke:

- Bizkaiko Foru Aldundiak nabarmen gehitu ditu, euren beharren bilakaeraren arabera, adin txikiko hauei erakundeen erantzuna eskaintzeko baliabideak. Ahalegin hau hainbat jardueratan mamitu da:
 - Terciaris Capuchinos ordenarekin Zabalotxen adin txikikoak hartu, hezi eta integratzeko dagoen hitzarmena 54 zenbatekoraino zabaltzea eta emantzipazio prozesuan daudenak 8raino (salbuespen gisa kopurua 87 plazaraino gehitzeko aukerarekin).
 - Orduñako Gabriel M^a Ibarra zentroa berrantolatzea, ezaugarri hauetako 30 adin txikikoen harrerarako erabiltzeko.
 - Hirugarren harrera zentro bat erosi eta zabaltzeko gestioak.
 - AZRAF Marokoko Etorrinek Elkartearekin elkar lanean jarduteko hitzarmena (2001ko azken aldera egina).
 - 18 urte betetzen dituzten emantzipazio baliabideak potentziatzea (Zabalotxe eta Goiztiriren menpeko etxebizitzak).
- Hartutako adin txikikoen ezaugarriak –adina eta jatorriaren aldetik- ondoko datu hauetan laburbil daitezke:
 - Adin txikikoek beraiek sartzean aitortu duten adinak gora egin du 13,5 urtetik (1996) 16,2 urtetara (2001). 11 eta 17 urte artean ibiltzen da eta 16 edo 17 urte dituztela diotenak dira nagusi.
 - Kasu erdian baino gehiagotan aitortutako adina ez dator bat hezur frogen edo dokumentuen bidez egiaztatzea lortzen direnekin. Adierazitako adina egiaztatutakoa baino urte bat edo bi txikiagoa izan ohi da.
 - 2001. urteko egiaztapenen arabera, hartutako % 43a adinduak ziren (egiaztatutako 272 kasuei buruz lortutako portzentaia).
 - Azken urtean zehar jatorria 15 herri desberdinetan dauzkaten adin txikikoak hartu dira. Gehiengo zabala (349tik 315) Marokotik dator, aurreko urteetan bezala.
 - Jatorrizko herriak honako hauek izan dira: Angola (1), Aljeria (13), Bosnia (1), Ekuador (1), Egipto (1), Etiopia (2), Frantzia (1), Ghana (2), Ginea Bissau (1), Maroko (315), Moldavia (2), Nigeria (1), Palestina (6), Portugal (1), Jugoslavia (1).

- Harrera zentroan izan diren denborari dagokionez –tutoretza, dokumentazioa, heziketa eta lanean hasteari dagokionez lor daitezkeen helburuak baloratzeko ezinbesteko datua-, azken urteko datuek honako hau islatzen dute:
 - 78 adin txikikoak (% 22) 1 eta 6 egun artean izan dira zentroan.
 - 112 adin txikikoak (% 32), 7 egunetik 30era.
 - 98 adin txikikoak (% 28), 31 egunetik 90era.
 - 61 adin txikikoak (% 18), hiru hilabete baino gehiago.
- Bizkaiko zerbitzuetan harrera izan duten kolektiboaren ezaugarrien artean, ondoko ezaugarri hauek nabarmentzen dira:
 - Adin txikiko nerabeak, 11 eta 17 urte artekoak, inor gabeko atzerritarrak, dokumentaziorik eta helbiderik gabe: % 57 .
 - 18 eta 24 urte arteko gazteak, adin txikiko gisa izaten direnak: % 43.
 - Familiako erabateko babes falta.
 - Inguruaren ezagutza ia erabatekoa.
 - Oso jatorri desberdinak (24 herri), baina marokoarren portzentaia handia (10etatik 9) eta afrikarren ia nagusitasun osoa (% 97).
 - Euren herrietatik modu desberdinetara ihes egin dute. Sarrerako unean familiaren eta norberaren eta, askotan, hizkuntzaren ezagutzarik eza.
 - Kultura balio desberdinak eta askotan errealitatetik kanpoko itxaropenak.
 - Dokumentaziorik eza eta, askotan, mesfidantza eta datuak ezkutatzea.
 - Heziketa urria.
 - Kasu batzuetan, jarrera liskartsua eta gizartearen kontrakoak.

Ezaugarri hauek finkatzen dituzte arretaren beharrak: babesaren neurria, heziketa, dokumentazioaren tramitazioa, gizarte trebetasunen garapena, inguruko baliabideen ezagutza, jatorrizko familiarekin kontaktua...

- Datu batzuk hartutako babes neurrien edo adin txikiko hauen integrazioarako lortu diren emaitzen adierazletzat har daitezke. Erakunde honek arreta berezia jarri du horietako batzuetan, egindako tutoretza. edo lortutako dokumentazioetan esaterako. Horrela, azken urte honetan:
 - 113 tutoretza eta 213 zaintza egin dira.
 - 29 gaztek lan baimena tramitatu dute: horietako 13k erregularizazio prozesuaren bidez lortu dute eta 16k errotze prozesuaz.
 - 19 gaztek lana topatu dute (9 lan sektoretan).
 - 98k hainbat kanpoko heziketa jardueratan parte hartu dute (araututako hezkuntza, lanbidekoa...)
 - 20 gazte harrera saretik atera dira, etxebizitza babestuetara (4) zein alokairuko etxebizitzetara (16).
 - Adin txikiko eta gazteen % 77,3k (270) dokumentazioa jaso dute, eta euren egoera erregularizatzeko behar izan diren tramiteak egin dira. % 22,6k ez dituzte lortu pasaporte eskuratzeko eskatzen diren dokumentuak.
 - 2001. urteko dokumentazio datuak honela laburbil daitezke:
 - * Pasaporte, egoitza baimena eta lana: 17
 - * Pasaporte eta egoitza baimena: 29

- * Pasaporte eta egoitza eskabidea: 178
- * Pasaporte eta egoitza eskabideak: 15
- * Bere familiako dokumentuak: 31

- Foru diputatuarekin eta Gizartekintza Saileko beste arduradunekin martxoaren 27an egindako bileran, kolektibo honen egoeraz eta lurraldean diren berehalako proiektuez jarduteaz gainera, dokumentazio ugaria eman ziguten. Dokumentuak (protokoloak, proposamenak, hitzarmenak, egoera azterketak...) etorkizuneko egoerak aurreikusi eta arautzea, eta erakunde eta zerbitzu desberdinen arteko jarduera irizpide bateratuak finkatzeko helburua zeukaten. Erakunde honek oso positibotzat jo zituen erregularizatzeko ahalegina eta sartutako hobekuntzak eta xehetasunaz aztertu zituen proposamen desberdinak. Eskubideen bermeen ikuspegitik, hau da, erakunde honi dagokion ikuspegitik, arazo eta iradokizun sail bat aurkeztu zituen lau gairi buruz:
 1. Erandioko Ertzainetxeko arduradunekin adostutako irizpide batzuek (sarreraren komunikazioak, zerrendak bidaltzea edo argazkiak igortzea).
 2. Tutoretza onartzeko irizpideak eta dokumentazioa lortzeko jarraitu beharreko tramiteak.
 3. Harrera zerbitzuen jarraipena eta balorazioa.
 4. Oraindik egiten ari diren protokoloak.

Foru agintariei jakinarazi zitzaizkien kezka eragiten duten motiboetako batzuk eta Harresiak Apurtuz Koordinadorak planteatutakoak, gaiari buruz horiekin bildu baikinaren aurretik (dokumentazioa, elkarlanerako aukerak, arabiar hizkuntza ezagutzen duten pertsonak kontratatzea...).

- Orduñako Gabriel M^a de Ibarra zentrora irailean egindako bisitak zentroan bertan dauden jarduera mailari buruz erakundearen berehalako jarduera gomendatzen zuten hainbat muga edo akats ezagutzeko bidea eman zuen: inguruaren hezkuntza baliabideen erabilera (lotu gabe, ikasturtea hasita zegoen arren), magrebiarrak ez ziren bi adin txikikoen kontrako jazarpen egoera edo polizia etxetan egindako salaketak. Arazo hauek planteatu ziren ofiziozko espedienteen bidez zein Gizarte Ekintza Saileko arduradun nagusiei zuzenean.
- Poliziaren esku hartzeari buruz aipatutako arazoetako batzuk (elkarrekin jarduteko irizpideak, adin txikikoen kontra ezarritako salaketak, Loiuako ibilgailuaren eraso eta erreketaren gaineko ikerketa) aztertu eta informazio trukatzeko gai izan ziren erakunde honen partaideek Erandio eta Laudioko Ertzaintza Etxetara egindako bisitetan (zfr. txosten honetan bertan 1.1.11 atala).
- Orduñako Gabriel M^a de Ibarra zentroa ekainaren 28tik aurrera adin txikiko hauen harrerarako erabiltzeari dagokionez, egun horretan bertara aldatu baitziren Zabalotxetik 25 adin txikiko, esan daiteke okupazio osoa izan duela (30 plaza) urtearen gainerako denboran, baja (adinez nagusitzeagatik) eta sarrera gutxirekin. Guztira 2001. urtean 35 sarrera izan dira eta 5 baja.
- Zabalotxe Egoitzak egin duen 2001. urteko memoriak kontutan hartzea komeni den konklusio sail bat ateratzen du. Hortaz:

1. Hartutakoen % 43a adin gutxiakoak ez izateak, benetako adina finkatzeko sarrera prozesuan esku hartzen duten erakundeek behar adineko bitartekoak ez dituztela erakusten du. Baita ere, gazte hauek adinez nagusiak direnentzako dauden baliabideak erabili beharra ere. Honek guztiak hartutako adin gutxikoei ematen zaien zerbitzuaren kalitatean eragin negatiboa dauka.
2. Dokumentazioa eskuratzeko garrantzia azpimarratzen da, sarrera kopurua igotzean horrek daukan eragina (euren beharretako bati erantzuten zaiola frogatzean) eta lanean hastea bezalako beste helburu batzuk lortzeko horren behar osoa.
3. Gaztelaniaz ikasteari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen da EPA zentroak erabiltzen jarraitzea (40 adin txikiko joaten dira horietara), bai eta zentroan bertan baliabide gehiago edukitzea ere, ikasketan emandako ordu kopurua handitu ahal izateko.
4. Lanaren aurretiko ikasketari dagokionez (50 inguru adin txikikok parte hartu dute 20 ikastaro desberdinetan; % 80k nekazaritza edo eraikuntza alorretan), ikastaro laburrak edukitzea komeni dela ikusten da, hiru edo lau hilabetekoak, ikastaro trinkoak eta lan irteera argikoak –nekazaritza eta eraikuntza alorrekoak izan daitezkeen bezala-, non laneko praktikak enpresetan egitea aurreikusten den eta laneko eskaintzak eman zaizkien (aurre kontratuak), horrela dagokien lan baimena eskatu ahal izateko.
5. Zentrotik etxebizitza batera igarotzeari dagokionez, gazte hauen emantzipazio bidean, inmobiliaria eta etxe jabeen aldetik arazo ugari topatu dira alokairua lortzeko orduan; etxebizitza tutoretza pekoak eta alokairukoak edukitzearen beharra ikusten da, holakorik ez egotearen arriskuak markatzen dira (kriminalitatearen igoera), eta ezinbestekotzat jotzen da integrazio politika bat erakundeen aldetik.
6. Instituzio, erakunde eta inguruarekiko harremanei dagokienez, ezinbestekotzat jotzen da harreman onak eta koordinatuak edukitzea Herrizaingo, Justizia, Osasuna, Hezkuntza, Gizarte eta Enplegu sailekin, bai eta etorkinekin lanean diharduten erakunde desberdinekin ere. Halaber, ezinbestekoa da Udalarekiko harremanak hobetzea eta inguru gertuenean hezkuntzaren presentzia indartzea ere, auzokideen onarpen egokia eta elkarren arteko kolaborazio ona lortzeko.
Erakunde honen iritziz, aipatutako proposamen edo jarduera ildoak erabakigarriak dira adin txikiko hauen arreta hobetzeko orduan, eta behin eta berriro jardun beharko da puntu hauetaz.

C) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Lurralde honetan ere, 2001ean sarrerak eta adin txikiko atzerritarrak gehiago izan dira, Bizkaian baino askoz ere gutxiago izan badira ere. Hona hemen bilakaerako datuak, laburbilduta:

- 1996: 2 adin txikiko (2 sarrera)
- 1997: 28 adin txikiko (29 sarrera)

- 1998: 82 adin txikiko (97 sarrera)
- 1999: 103 adin txikiko (268 sarrera)
- 2000: 85 adin txikiko (148 sarrera)
- 2001: 159 adin txikiko (182 sarrera)
- Guztira (1996-2001): 459 adin txikiko (726 sarrera)

lazko harrera sarea mantendu da, Irunen pisu bat eta Martuteneko egoitza dituen, biak Gurutze Gorriak kudeatuta. Lehenengo kasuan, bidean dauden adin txikiko atzerritarrak artatzen dira, bigarrenean, kolektibo egonkorragoa edo gelditzea aukeratzen duena hartzen dute. Errealitate bikoitz hau zentro bietako bakoitzean azkeneko urtean artatutako adin txikikoen kopuruan ikusten da, baita bakoitzean izandako batez besteko egonaldian ere:

- Irun: 114 adin txikiko artatu dira; batez besteko egonaldia: 7 egun.
- Martutene: 16 adin txikiko artatu dira; batez besteko egonaldia: 126 egun.

Aurreko urtean erakunde honen txostenean islatu zen egoeraren jarraipena egin zuen (zfr. atala. "Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak. Gipuzkoa", 2000ko txosteneko 1.1.5). Honako alderdietan tematzen ginen:

- Irungo pisuak egitura eta jardueretan zeuzkan mugetan;
- langileen artera atzerritarren hizkuntza eta kultura ezagutzen zituzten hezitzaileak sartzea komeni zela;
- ikuskatu, kontrolatu eta bermatzeko mekanismoak hobetzea;
- kalean bizi diren babesik gabeko adin txikiko atzerritarren kolektiboaren arazoei aurre egin beharrean (sarrera eta irteeren datuek bazirela erakusten baitzuten)...

Azkeneko urtean, erakunde honetako langileak Irun eta Martuteneko zentroak ikustera joan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari informazioa eskatu zioten eta zentroetako zuzendariei datuak eskatu zizkieten. Orain arte oso informazio gutxi jaso dugu. Edonola ere, bisitetatik eta lortutako informaziotik ondoko elementu hauek azpimarra daitezke:

- Martuteneko instalazioen baldintzak hobetu dira, bereziki inguruan izandako atentatu baten ondorioz apurtutakoak konpontzeko lanak eginez.
- Irungo instalazioek jada iaz esandako mugak dauzkate oraindik ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2002ko urtarrilaren 11ko bere idatzian, jakinarazi zuen *"aurreikusita dagoela bakarrik dauden adin txikikoentzako Larrialdiko Harrera Zentroa beste herri batera eramatea, oraingoaren egitura fisikoak ez baitu egoitza eta hezkuntza jarduera egoki garatzen uzten, eta Irun, muga dagoen herria izanik, ez baitu hartutako gizarte integrazioa errazten.*
- Adin txikiko hauekin jarraitzen zen jarduera protokoloa berrikusten ari da, sartutako arau aldarapenen arabera, eta Atzerritarren Brigadarekin eta Adin Txikikoen Fiskaltzarekin lankidetzan.
- Azkeneko urtean, adin txikiko horietako biren tutoretza soilik egin da.
- Hartutako adin txikiak, abenduaren 31n, 8 ziren.
- Martuteneko zentroan hartutako adin txikikoen kolektiboa egonkor eta ingurunean integratuta mantentzen da (prestakuntza edota lan jarduerak). Hona hemen Gurutze Gorriak emandako 2001eko Memoriako datuak:

	LARRIALDIKO HARRERA (Irun)	EGOITZA (Martutene)
Sarrera/irteerak	187/186 = 1	16/9 = 7
Adin txikikoak	114	16
Batez besteko egonaldia	7,02 egun	126,31 egun
Berresleak	19 adin txikiko = 83 sarrera Batez beste, sarrerak c/m: 4,36 bider	—
Jatorriak	Magreb: 148 (% 79,14) Europa: 13 (% 6,95) África: 21 (% 11,22) Hegoamerika: 2 (% 1,06) Asia: 3 (% 1,60)	16 (% 100)
Adinez nagusiak	11 (% 5,88)	5 (% 2,76)
Egun bateko egonaldia	87 (% 46,52)	—
Dokumentazioaren izapidearen hasiera (egoitza baimena)	0	8
Dokumentazioa lortzea (egoitza baimena)	0	3
Beren kabuz bizi direnak	—	5

3/ Sansoheta Gizarte eta Hezkuntza etxerako bisita

Zentro hau Arabako Foru Aldundiaren menpe dago. 1997ko amaieran sortu zen, etxeen sarea sendotzeko asmoz, eta jokabide arazo bereziak zituzten nerabeei berariazko erantzuna emateko, eta azkeneko hiru urteotan Izan elkarteak kudeatu du. Ararteko erakundeko langileak aurreko urteetan behin baino sarriago joan dira ikustera, eta zentroaren errealitatea hainbat txostenetan agertu izan da (zfr., azkena, 2000ko txostenaren 1.1.5 atalean).

Zentroaren jarraipenerako bisita abenduaren 21erako pentsatu zen, baina urtarrilaren lehenengo egunetarako atzeratu behar izan zen. Aurretiaz ere, berritan gainera, zentroa ezagutzen zenez, bisita lehenago hitz egindako kontu jakin batzuek izan ziren hizpide, horietan aurrera egin zuten ala artean ere kezka iturri izaten jarraitzen zuten jakiteko asmoz. Instalazioak ikusi eta zentroko profesional eta arduradunen iritziak jaso ziren, Aldundiko Haurren Zerbitzuko pertsona batenak barne; baina ez, ordea, hartutako adin txikikoen iritzirik, ordu horietan zentrotik kanpoko jardueretan parte hartzen ari baitziren.

- Bisitaren egunean (2002ko urtarrilaren 10a), zentroak egoitza erregimenean zeuden zazpi nerabe eta eguneko zentrorra joaten zen bat artatzen zituen, denak mutilak, 14tik 17ra urte bitartekoak. Zentrorako hasieran 12 egoitza toki eta

eguneko hiru aurreikusi ziren, baina, gerora, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, egoitzako zortzi eta eguneko laura jaitsi ziren.

- Profesionalen taldean hogeita bat pertsona daude (bost, emakumeak), eta soslai desberdinen artean, eraso egoerak fisikoki kontrolatzeko gai diren zaintzaileak daude. Aldaketak izaten segitzen dute, baxengatik, taldean, baina egitasmoari jarraitasuna ematen dion talde egonkorra mantentzen da.
- Zentroaren ahalmena dauden beharretarako nahikoa eta egokia dela uste da; ez du ematen nerabe batek zentrorra noiz sartu eta noiz irten behar duen erabakitzeke irizpideen gainean desadostasunik dagoenik (erabakia Arabako Foru Aldundiko Balorazio Batzordeak hartzen du). Zentroko egonaldia urte batetik hiru urte arterakoa izaten da, nerabe batek dagoeneko lau urte daraman arren. Bisita egunean hiru zeuden sartzeko, bat ezgaitasun fisikoaren ondoriozko hezkuntza behar bereziak zituen nerabea. Kasu horretan beharrezko irizten zitzaion eta, aurreikusita zegoen, berariazko sostenguren baten laguntza. Sarrera berrien etorrera ere pixkana izatea nahi zen.
- Irteteko edo buru jabetzeko ahalbideak eskasak edo arazotsuak direla pentsatzen jarraitzen dugu; familiekin beste gizarte zerbitzu batzuekin lankidetzan edo erreforma zentroekin koordinatutako lanean egindako urratsak, ordea, ondo ikusten dira.
- Eskolatu edo lan egiteko aukerei buruz, une hartan denek parte hartzen zuten kanpoko jarduera normalizatueta (EPA, institutuak, CIP, lana...). Gainera, zentroak, bere ezaugarri eta inguruneengatik, beste jarduera aukera batzuek ere eskaintzen ditu: lana negutegian, instalazioak mantentzea, egur tailerra, irteera antolatua...
- Zentroaren antolakuntza eta funtzionamendu irizpideak dokumentu batzuetan zehazten dira, hala nola, bizikidetasun gidan, aldioroko programaketa eta txostenetan ... Askok eta askok berriki dira eta baliozko iritzia zaie. Erakunde honi dagokion ikuspegitik, balio berezia ematen zaio bizikidetasunaren gidari, non espazioak erabiltzeko irizpideak, elkarrekin bizitzeko arauak, litezkeen zehapen eta indartzeak, kexa prozedurak ... ezartzen baitira.
- Tutoretza bikoitzeko sistema ezarri da (gizona - emakumea) nerabe bakoitzarentzat.
- Familieko harremana eta bisitak banaka aztertzen dira, irizpide zabalaz, laguntzera begira.
- Egoerarik gatazkatsuenei dagokienez:
 - aurreko urteetan baino ihes gutxiago eta eusteko arazo gutxiago daudela uste da;
 - ez da euspeneko gela erabiltzen (oraindik badago, baina erabilpenetik kanpo);
 - oso ondo ikusten da profesional txanda bakoitzean zaintzaile bat gehitzea;
 - gorabeheren aparteko erregistroa dago, Haurrentzako Zerbitzura bidaltzen dena;
 - krisi egoerarako protokoloa prestatzen ari dira.
- Zentroko obra eta hobekuntzei dagokienez:
 - nerabeak beraiek inplikatzeko dituzte mantentzean (pintura...);
 - tailerrerako espazioa gutxitu egin da, bisita aretoa egokitzeko;

- oraindik ez kortetarako aurreikusitako lokalik altxatu, baina negutegia bai erabiltzen da;
- zenbait gela eta espazio (euspenekoa, esaterako) ez dira erabilpen berrietarako moldatu;
- irismen arazoak, arkitektura oztopoen ondoriozkoak, deigarriak dira oraindik.

Bereziki arazotsu edo hobetu beharreko kontuen artean, bi nabarmentzen dira:

- 1) Hartutako nerabeen artapen psikiatrikoko beharrei erantzutea, osasuneko herri zerbitzuek argi eta garbi gutxiegitzat jotzen dutena.
- 2) Mintzakidetzak hobe eta jarduera protokoloa ezartzea komeni da, Ertzaintzaren esku hartzea exijitzen duten egoera jakin batzuetarako.

Gai hauetako bakoitzari dagokionez, erakunde honek informazio handiagoa jasotzea aurreikusita dauka eta, behar izatekotan, Osasun eta Herrizaingo Sailen aurrean zerbait egiten hasi.

4/ **Zenbait ondorio edo alderdi aipagarri**

Aurreko orrialdeetan lurralde bakoitzean babesik gabeko haurrentzat dagoen erakundeetako arretari buruzko informazioa laburbiltzen saiatu gara. Informazioaren oinarritzko pisua erakunde arduradunek emandako datuetatik dator, kasu honetan, hiru Foru Aldundiek eta Gasteizko udalak. Zenbait zentrotara, bereziki bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zentroetara, egindako bisitetatik ateratako datuak ere sartu dira. Xedea, kapitulu honen aitzinsolasean esan bezala, informazioa eguneratu eta horrela urte hauetan izandako bilakaera eta iritsitako aurrerapenak baloratu ahal izatea zen. Ikuspegi honetatik, ondoko elementu hauek azpimarratuko ditugu hemen:

1. *Jasotako informazioak errealitatearen alderdi bat baino ez du erakusten. Bi arrazoiengatik bereziki:*
 - Informazio iturri nagusia babesaren ardura duten erakundeak berak izan dira; batzuetan, emandako informazioak datu gehiago eta praktikaren gehiago alderatzea exijituko luke.
 - Babesaren alor handi bat – prebentzioa, hasierako artapena, arrisku egoeren erantzuna- udal esparruari dagokio, bereziki gizarte alorreko eskumenen banaketako erabakiaren ostean; alderdi hauek ez dira hemen jaso.
2. Lortutako informazioak erakusten du *alderdi bat sartu direla*, handiago edo txikiagoak, *aurre egindako alderdi edo adierazlerik ia gehienetan*. Esaterako: Abian jarritako artapen egitarauetan, gehitu eta ugaritu dira
 - Profesionalen kopuruan eta ekipo teknikoen barruko antolamenduan.
 - Ikuskatzeko mekanismoetan, gutxienez lurralde batzuetan...
3. Azkeneko bi urteetako zenbakien datuak 1995ekoekin alderatzen baditugu (horiek erabili baitira erreferentzia gisa Arartekoaren txosten monografikoa

egiteko oinarri izanagatik), zenbait joera argi eta garbi antzematen dira. Hartara, ondoko lau joerok nabarmendu ahal ditugu:

- 1^a Izugarri hazi da urtean *irekitako espedienteen kopurua*, baita espedienteotan *inplikaturako adin txikikoen kopurua* ere. 2001eko datuetan, 1.587 espediente eta 1.928 adin txikiko, 1995ean 468 espediente eta 574 adin txikiko izan zirenean. Horrek, oso azaletik esanda, adieraziko luke sei urtean esku hartzeen kopurua hirukoiztu dela. Ona litzateke bereiztea iagoera horretan zenbat izan daitekeen gure Erkidegoko babesik ezeko egoerak benetan gehitzearen ondorioz (oso datu negatiboa litzatekeena), eta zenbat gizarte zerbitzuen antzemateko ahalmena areagotzearen ondorioz (alderdi ona). Edonola ere, datu kezkarria da, gogoeta egitea exijitzen duena.
- 2^a Ez du ematen babesteko esku hartzeen iagoera ikaragarri horrek *familien banantzearen* iagoera proportzionala ekarri duenik. Ez daukagu Bizkaiko datu fidagarririk; Arabako datuek 2000n 279 familia banantze eta 2001ean 270 ematen dituzte (1995ean 242 ziren); Gipuzkoan 2000n 388 adin txikiko banandu dira familietatik, eta 2001ean 372 (1995ean 278 ziren). Edonola ere, gehitu egin dira.
- 3^a Datuek *familietan hartzeak* egoitzetako harreraren aldean indartu direla erakusten dute; bereziki esanguratsua izan da Gipuzkoan: 116 familietan hartuta; 103 familietan hartzeen antzeko egoera; 153 egoitzetan hartuta (2001eko datuetan).

Bizkaiaren kasuan, non familietan hartzeak oso gutxi garatuta baitzeuden (1995ean familietatik banatutako guztien % 7,9), eta non bide hori sustatu baita, jasotako datuek ez dute lortutako aurrerapenen zenbaterainokoa zehatz ezagutzeko aukerarik ematen, baina ildo horretatik doala ematen du. Hartara, 2000 eta 2001. urteetan hartutako neurrien proportzioak alderatu ahal ditugu:

- 2000: 182 egoitzetan hartuta eta 59 familietan hartuta;
- 2001: 285 egoitzetan hartuta eta 99 familietan hartuta.

Azken orduan ahoz jasotako datuak baieztatuko balira (426 familietan hartuta 2002ko otsailean), horrek esan nahiko luke lurralde horretan duela sei urteko egoeraren aldean familietan hartzeak izugarri garatzea lortu dela.

- 4^a Adopzioari dagokionez, ikusgarria da *nazioarteko adopzioek* izandako hazkundera (bai eskarietan bai esleipenetan) eta nazioarteko adopzioak bere horretan gelditu izana. Jasotako datu guztiek ondoko joera hauek erakusten dituzte, hiru lurraldeetan antzekoak direnak:

- Araban: 6 nazioarteko adopzio gauzatu dira eta nazioarteko 32, 2001ean; 6 eskari berri nazioarteko adopzioetarako, eta 77 nazioarteko adopzioetarako urte horretan.

- Bizkaian: 37 eskari berri nazioko adopzioetarako, eta 299 nazioarteko adopzioetarako;
450 eskari nazioko adopzioetarako, eta 778 nazioarteko adopzioetarakoak gauzatzeko urtearen amaieran;
- Gipuzkoan: 8 nazioko adopzio gauzatuta, eta 70 nazioarteko adopzio;
1 eskari berri nazioko adopzioetarako, eta 151 nazioarteko adopzioetarako, 2001ean.

4. Lurralde bakoitzak, funtsean, beren *zentro eta harrera etxeen sarearen* berezitasunak mantentzen ditu, beren ezaugarri propioekin tamainari eta titulartasunari (herrikoa edo pribatua) dagokienean. Ikusitako joerak honelaxe zehatz daitezke:

- zentroetako tokiak gutxitzea, bereziki Bizkaian zeuden zentrorik handienetan;
- zentroak sortzea edo ezaugarri jakinetako kolektiboetara moldatzea: esaterako, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzako zentroak, eta jokabide arazo larriak dituzten nerabeengan espezializatuta daudenak.

Zentroen titulartasunari eta kudeatzeko moduei dagokienean, deigarriak dira lurraldeen artean dauden diferentziak, urte hauetan areagotu direnak:

- Arabak batez ere herri izaerakoa den zentroen sare mantentzen du;
- Bizkaian herri zentro bat gehiago dago, eta pribatuak 2 gutxiago; aldaketa hau askoz ere handiagoa sarean baliagarri dauden tokien kopuruari dagokionean, 694 tokitik 484ra gutxitu baitira, 258 gutxiago herri titulartasuneko 13 zentro edo etxetan, eta 226 toki gutxiago titulartasun pribatuko 17 zentrotan, hain zuzen.
- Gipuzkoan 5 herri zentro gutxiago daude, eta titulartasun pribatukoak 3 gehiago dira; tokien gutxirako kopuruari dagokionez, ia-ia berdin geratu da (199). Egungo sarean herri titulartasuneko 2 zentro besterik ez dago, 49 toki dituztenak, eta titulartasun pribatuko 19, 150 toki dituztenak.

5. Urte hauetako elementurik berriena, zalantzarik gabe, *bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren kolektibo garrantzitsua* agertu dela da, babes beharrean daudenak. Deigarria da hiru lurraldeetan duten presentzia desberdina. Bizkaiko kasuan, bereziki azkeneko urtean, baieztatu daiteke kolektibo horrek izandako hazkunde izugarriak aurreikuspen guztiak gainditu dituela eta, batzuetan, erantzun egokia emateko ahalmena ere bai. Zaila da alor horrek gerora izango duen bilakaera iragartzea, baina edonola ere, bai kopuruarengatik bai ezaugarri bereziengatik, berariazko arreta exijituko du.

6. Araudien edo eskubideen bermeen kontuetan lortutako aurrerapenak oso gutxi direla ematen du. Zerbitzuen oinarritzko ezaugarri jakin batzuek arautuko dituen funtsezko araua oraindik egiteko dago, eta kexatzeko edo parte hartzeko prozedurak oso gutxi garatu dira.

Edonola ere, eta amaitzeko, ondorio, joera eta alderdi hauek lortutako datuen arabera nabarmendu ditugula, eta datu horiek –lehenago esan bezala– zenbait muga dauzkate.

1.1.6. **ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEEKIN EGITEN DEN ESKU-HARTZEAREN JARRAIPENA**

Adingabe lege-hausleekiko esku-hartzeari buruzko txostena 1999ko abenduan jendaurrean aurkeztu eta Legebiltzarreko lehendakariari eman zioten, eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen ekainaren 23ko saioan aurkeztu eta eztabaidatu zen. Beraz, txostenak nahiz hark jasotzen dituen iradokizunek hainbat erakunde ukitzen dituzte, batik bat, horien arteko bi: Botere Judiziala -adingabekoen fiskaltzak eta epaitegiak-, prozedura, neurriak hartze, neurrien artapen eta ebaluazioari dagokienez; eta Eusko Jaurlaritza -batez ere, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila-, neurriak betetze, eta hortaz, bere esku utzitako bitarteko eta tresna guztiei dagokienez. Arartekoren jardunak, legezko aginduz, Eusko Jaurlaritzak bete behar dituen auzi eta proposamenei eutsi die.

1999an, Ararteko erakundearen artapena gauzatu zen gure erkidegoan dauden adingabeko lege-hausleen hiru barneratze-egoitza edo etxeetarako bisitaldia eginda; halaber, informazioa eskatu genion, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari. Egindako bisiten eta sailaren erantzunaren berri xehea jaso zen urte horretako txosten arruntean (1999ko txostenaren 1.1.6 atala). Bertan, iradokizunak betetzeari dagokionez antzeman ziren alderdi on eta txar batzuk nabarmendu ziren; horra eta halako neurrien bilakaeraren inguruko datuak eskaini ziren; eta askatasuna hein handi batean murrizten duten zerbitzuen eragingarritasunari buruzko lau alderdi garrantzitsuri berariazko arreta egin zitzaion:

- Barneratze-egoitzen sarearen egitura.
- Bertan aritzen diren profesionalen lan-egoera.
- Zerbitzuek beste arreta-sare batzuekin duten harremana.
- Adingabeak bertatik atera eta emantzipatzeko aukerak.

Alderdi horiek guztiak lehenetsi ziren iaz egindako artapenean. Ararteko erakundearen langileek beste bisitaldi batzuk egin zituzten Andoio, Urtuella eta Aramaioko heziketa ikastegietan, eta gero, Arartekok, ofiziozko bi espediente helarazita, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera jo zuen. Bi espediente horietako batek jorratzen zituen adingabeko lege-hausleen eskolatzeko baldintzak egoitzan dauden bitartean; besteak, ordea, goian aipaturiko lau alderdi horiei buruzko argibide zehatzak eskatzen zituen, bai eta azken bi urteotan gauzaturiko neurrien bilakaerari eta zerbitzuen arauari buruzko argibideak galdatu ere. Horrezaz gain, 2001eko urtarrilean indarrean hasi eta adingabekoen zigor erantzukizuna arautzen duen 5/2000 Lege Organikoaren gaineko iruzkin soila egin eta lege horrek arautzen dituen neurri guztiak abian jartzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide material guztiak baliatzeko beharra azpimarratu zen.

Iazko txosten arruntean ordura arte gauzaturiko neurrien, jorratutako alderdien eta jasotako erantzunen laburpena jaso zen. Bestalde, gure iritzia araberako auzi jakingarrienak nabarmendu ziren (2000ko txostenaren 1.1.6 atala).

Aurtengo artapenari dagokionez, berriro ere bisitaldiak egin ziren hiru egoitzetan, eta ofiziozko espediente bat dela bide, argibide ugari eskatu genizkion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari. Argibide horiek guztiek hamar atal jorratzen dituzte:

1. Barneratze-egoitzetan ezarritako aldaketak, Zumarragan diseinatu den egoitza zabaltzeko aurreikuspena, eta oraingo sareak azken urteotako (2000 eta 2001 urteak) beharrezanean behar bezala noraino heldu dien azaltzen duen idazkia.
2. Egoitzetan aritzen diren profesionalen lan-egoera eta lan-baldintzek izan dituzten hobekuntzak (hitzarmenen ezaugarriak, prestakuntza, artapena, kudeatzeko sistemak...).
3. Beste zerbitzu batzuekiko hitzarmen, koordinatzeko bide eta lankidetzak moduak, beharrezanean erantzuteko (batez ere, egoitzetan dauden adingabeak eskolatu edo heziketa eskaintzeko, eta osasun laguntza emateko).
4. Hezkuntzari dagokionez, 2001eko azaroaren 7ko agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren mendeko egoitzetan hartu eta barneraturiko adingabekoen hezkuntza eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dituen, ezartzeko egin edo aurreikusi diren ekintzak.
5. Barneratze-aldia amaitutakoan, adingabeak egoitzetatik irteteko helburuz abian jarri diren berariazko programak edo zerbitzuak; helburu hori berori lortzeko, gainerako biztanleekin erabiltzen diren sistema, programa eta zerbitzuak baliatzeko aukerak eta zailtasunak; eta babes-egoitzekiko koordinazioa, adingabeak bertatik etorri edo bertara itzuli behar izanez gero.
6. Zerbitzu horiek araupetzen dituen araudiaren oraingo egoera. Erakunde honek askotan eskatu du horren berri, bai aparteko txostenean bertan, bai gerora egindako jardute guztietan.
Sailak emandako azken erantzunak (2000ko azaroaren 20koa) honela zioen, hitzez hitz: “Aipaturiko dekretua taxutu da, eta 5/2000 Legeak izango duen azken testuaren arabera egokitu, eta Gobernu Zentralak estatu osorako Araubide Orokorra argitaratuko duenentz noiz argituko duen zain dago. Edonola ere, litekeena da 2001eko lehen hiruhilekoan argitaratzea.”
7. Azken urteotan gauzaturiko neurrien bilakaera.
Iazko artapen txostenean, ondoko lanetik hautaturiko datu asko eta asko txertatu ziren: Gazteentzako Justizia Zerbitzuaren egitekoaren oroitza-txostena: adingabekoen epaitegiek EAEn ezarritako neurriak 1999 urtean noraino bete ziren. *Azterlan horrek 2000ko maiatzeko data zeukan, eta gure artapenerako biziki lagungarri gertatu zitzaizkigun argibide ugari jasotzen zituen. Hori dela eta, oroitza-txosten berria edo 2000. urteko datuak eta 2001. urteari buruz balia zitezkeenak eskatu genituen.*
8. Iazko urtarrilean, Adingabekoen Zigor Erantzukizunaren Legea indarrean hasteak ekarri dituen aldarazpenak, demanda, helegite eta erantzuteko ahalmenari dagokienez.
9. Azken urteotan, beste lurralde batzuetako egoitzetan sartu diren gure erkidegoko adingabekoei buruzko datuak, eta egoera horren arrazoiak.
10. Kalteak jasotako edo adingabekoen urratzeak jasandako pertsonen egin zaien arreta.

Ikus daitekeen moduan, eskaturiko informazioak berriro ere heltzen die aurrekoan aztergai erabili ditugun auziei, baina, halaber, gai berriak jorratzen ditu, eta azken urteotan zerbitzuari zuzenean eragin dioten alderdi batzuk aintzat hartzen ditu. Hala, honakoei erreparatu zaie :

- 2001eko urtarrilean, 5/2000 Lege Organikoa, adingabekoen zigor erantzukizuna arautzen duena, indarrean hastea. Lege horrek, besteak beste,

zigor adina eta adin zibila parekatzen ditu, eta, segurutik, neurrien pean jarriko beharko diren adingabekoen kopurua areagotuko du, eta, beste alde batetik, egoitzetara sartzen diren adingabekoen nolakotasun eta ezaugarriak bestelakoak izango dira;

- Barneratze-egoitza izatekoa zen Zumarragako eraikina leherrarazi zuen ETAk, eta, horregatik, behar baino geroago zabaldu da etxea.
- 2001eko abenduaren 14ko EHAAAn, azaroaren 7ko Agindua argitaratu zen. Agindu horrek Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren mendeko egoitzetan sartzen eta barneratzen diren adingabeko lege-hausleen hezkuntza eskubidea bermatzeko neurriak arautzen ditu.

Lehen adierazitako hamar gai horiek ardatz gisa baliatu ziren Urtuella (2002-01-22), Andoiu (2002-01-25) eta Aramaio (2002-01-28) herrietako egoitzetara egindako bisitaldietan. Irizpide horrek helburu zuen informazioa eta ikusmoldeak erkatzea.

Horrela, bada, artapen txosten hau egiteko garaian, kontuan hartu ditugu ondoko alderdi edo informazio-etorbideak:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak hamar auzi horiei erantzuteko eman dizkigun argibideak.
- Urtuella, Andoiu eta Aramaioko egoitzetan bertan, behaketa eta elkarrizketen bitartez, jasotako informazioa.
- Arlo honetan aurten izandako legezko edo araudiko aldarazpenak.
- Justizia Sailburuordetzako arduradunekin izandako bilera, urtarrilaren 31n.

Azalpena erraztearren, aurreko atalean erabili dugun hamar gaiko eskemari jarraituko gataizkio, eta horren arabera aletuko ditugu edozein bidetatik jasotako datu eta argibideak.

1. Barneratze-egoitzen sarea: aldaketak, aurreikuspenak eta balorazioak

Gure erkidegoan, adingabeko lege hausleak barneratzeko beren beregi erabiltzen diren egoitzen sarea, azken urteotan, Andoiu (hasieran, neskak sartzeko asmoz), Aramaio eta Urtuella (mutilentzat) herrietan dauden etxeek osatzen dute. Plangintzaren arabera, 2001. urtean, Zumarragako egoitza berria ere sare horretan txertatu behar zen.

Aurreko txosten batzuetan agerian jarri dira egoitzek dituzten muga batzuk, hala nola, haien kokaleku, jabetza edo egiturak sorrarazitakoak: ingurunekeo gizarte ekipamenduak baliatzeko zailtasunak; adingabekoek edo familiakoek joan-etorriak egiteko dituzten zailtasunak; eginkizun horietarako diseinatu ez diren, baina, era berean, aldi baterako laga diren eraikinetan inbertitzeko beharra... Gainera, gure aburuz, Zumarragako egoitza berria sarean sartzeko unea oso une egokia zen egoitzen egitura aztertu eta horien etorkizunaren gaineko plangintza egiteko.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren erantzunak adierazten duen bezala, ETako talde batek Zumarragako instalazioen aurkako atentatua egin zuen, otsailaren 22tik 23rako gauean, egoitza jasota, altzariak jarrita eta ekipamenduak abiarazteko moduan zeudela. Atentatuak zeharo suntsitu zuen plangintza, adingabekoentzako tokien erabilgarritasunari dagokionez, eta kalte larriak eragin zituen: lan berriak esleitu behar izan ziren, 600 milioi pezetako balioan, eta lehendik zeuden

hiru egoitzen antolaeran aldaketa handiak egin behar izan ziren urte horretan izandako eskaera guztiei aurre egin ahal izateko.

Horrela, 2001. urtean, hiru egoitzak segitu dute lanean: Aramaioko Mendixola ikastetxea (12 plazakoa), Urtuellako Miguel Ángel Remírez ikastetxea (8 plazakoa), Gasteizko Andoiu ikastetxea (7 plazakoa), eta arazoan nahasitako ahalegin biziari esker, 2000. urtean bezalaxe, lortu da azkenean EAEko adingabekoen epaitegiek ezarritako barneratze-neurria zeukan adinez txikiko inork kanpora joan beharrik ez izatea neurria betetzera.

Erakunde honek, egoitzetara egindako bisitaldietan eta haietan aritzen diren profesionalekin izandako bileretan, eragingarriro egiaztatu du zailtasuna handiak daudela eta sekulako ahalegina egin behar dela barneratzeko beharriaz erantzuteko. Erratzeko beldurrik gabe esan dezakegu hiru eragile horiek batera gertatzeak -5/2000 Legea indarrean hastea; Zumarragako instalazioak aurreikusitako epean ezin baliatu izana; eta gaur egun erabiltzen diren egoitzen berezko ezaugarriak- urte osoan baldintzatu ditu erakundeen erantzun-ahalmena eta esku-hartzea, eta batzuetan muturreko egoerak ekarri ditu, ezin konponduzkoak tartean sartuta dauden alde guztien ahalegina eta borondate onagatik izan ez balitz. Seguru asko, egoera hori ez da aldatuko harik eta Zumarragako egoitza berria zabaltzen den arte. Aurreikuspenen arabera, bertako lanak 2003ko udaberrian amaituko dira.

Urtuellako egoitzari dagokionez (etxe horrek dituen muga eta baldintzak ageri-agerian utzi dira aurreko txostenetan), saileko arduradunek instalazio berriak lortu eta zaharrak hobetzeko gestioen berri eman zituzten.

2. Egoitzetan aritzen diren profesionalen egoera

Gaur egun, *Gaztaroan Ekin* hezkuntza elkarteak kudeatzen du Andoiuko ikastetxea. Aramaio eta Urtuellakoak, berriz, *Berriztu* hezkuntza elkarteak kudeatzen ditu. Eusko Jaurlearitzak zerbitzuen kudeaketa laga ohi die elkarte horiei lehiaketa publiko edo urteko hitzarmen-kontratuen bitartez, iraupena luzatzeko aukeraz.

Aurreko txostenetan, agerian utzi genituen arlo honetan atzemandako arazo batzuk. Arazo horiek guztiak egun indarrean dauden hitzarmen edo kontratuen baldintzek sorrarazten dituzte: plantillak osatzen dituzten kideak lekualdatzea, langileen antzinatasunak ekartzen dituen kargak aintzat hartzeko zailtasunak... Zerbitzuen kudeaketa esleitzeko modurik onena zein izan behar den edo egoitzetan aritzen diren profesionalen lan-baldintzak zeintzuk izan behar diren balioztatu barik, erakunde honek kezka agertu zuen, behaturiko alderdi batzuek ematen den zerbitzuaren kalitatean eta iraupenean daukaten eragina dela eta.

Sailak auzi horiei emandako erantzuna kontuan hartuta, honako alderdi hauek nabarmendu ahal dira:

- 2001. urtean, hiru egoitzetako plantilla handitu da:
 - Andoiu: hiru hezitzailea eta sukaldari bat (16 langileraino).
 - Urtuella: segurtasun zaindaria (16 langileraino).
 - Aramaio: hezitzaile bat eta segurtasun zaindaria bat (18 langileraino).

- Hiru egoitzetarako aurrekontu-sailak handitu dira, hitzarmenen bitartez:
 - M.A. Remirez ikastetxea (Urtuella): 71.396.550 pta.tik (1999) 89.000.000 pta.ra (2002).
 - Mendixola ikastetxea (Aramaiio): 86.250.000 pta.tik (1999) 104.779.500 pta.ra (2002).
 - Andoiu ikastetxea: 56.500.000 pta.tik (1999) 68.899.777 pta.ra (2002).

Aurrekontu handipenei esker, profesionalen baldintza ekonomikoak hobetu dira, sailak langileen ordainsariak hiru urteko epean % 30 igotzeko konpromisoarekin bat.

- Kontratuen iraupen eta izaerari dagokienez, egoitzak kudeatzeko hurrengo lehiaketa publikoetako lanpostuen egonkortasuna bermatzeko xedez, administrazio kontratu bereziak ezarri nahi dituzte, luzapen eta guzti, 10 urteko iraupena finkatzeko. Gaur egun, Andoiu eta Aramaioko egoitzak kontratuaren azken luzapenean daude langileak, eta Urtuellakoei oraindik ere bost urte falta zaizkie.
- Prestakuntzari dagokionez, egoitzek urteko prestakuntza eta ikuskapen programa berariazkoak dituztela adierazi digute. Halaber, esan digute sailak bi jardunaldi antolatuta zituela 2001. urtean, bakoitza bi egunekoa. Lehen jardunaldiak lege berria jorratu zuen, eta bigarrenak lege hori indarrean hastea.

Egoitzetako profesional eta arduradunekin egindako bileretan, erakunde honek antzeman du aldeko iritzia dagoela azken urteotan gauzatu diren hobekuntza neurrien gainean. Hala ere, zalantzak eta kontraesanak aurkitzen ditu etxe horietako langileentzat zein lan-esparru erabili behar den aztertzean. Hitzarmen edo kontratuen ezaugarriez den bezainbatean, erakunde honek pentsatzen du horiek biek berariaz adierazi behar dituztela arreta egiten zaien adingabekoen eskubideak bermatzeko funtsezko alderditzat jotzen diren edukiak; izan ere, ez dirudi nahikoa denik guztizko sail bat ezartzea zerbitzu osoarentzat.

3. Beste zerbitzu batzuekiko (hezkuntza, osasun zerbitzuak...) koordinazioa eta lankidetzak

Atal honen izenburuan azaldutako gai hau (komunitate-ekipoen aprobetxamenduak, zerbitzu espezializatu hauek beste zerbitzu batzuekin (gizarte, osasun edo hezkuntza zerbitzuekin) dituzten harremanek eta beste auzi batzuek hizpide eman zuten berariazko gomendioak emateko Arartekoren aparteko txostenean. Artapena egin denean ere, berebiziko arretaz begiratu da alderdi hau. Horrela, aurreko txosten batzuetan behin eta berriro adierazi dugu zailtasun handiak daudela nerabe horiek behar bezala eskolatzeko. Hain zuzen ere, Arartekok berak lehentasunezkoztat jo du auzi hori eta ofizios jardun du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailen aurrean. Iazko txostenean, egindako jarduketan eta izandako erantzunen berri zehatza eman genuen. Aurrerapenak, ordea, hurrengo atalean laburtuko dira (4. atala: Hezkuntza laguntza).

Beste zerbitzu batzuen koordinazioa eta aprobetxamendua direla eta, egoitzetara egindako bisitaldietan hainbat arazo antzeman dira, eta, funtsean, honako kezka bide hauek jaso dira:

- Osasun laguntzari dagokionez:
 - Oinarrizko osasun laguntzako arazoak sumatu dira; hala ere, aurre egin zaie guztiei, bi aldeen prestutasuna dela eta;
 - profesionalek arazo etikoak izan dituzte beharrezko diren azterri edo azterketa medikoak egiteko, adingabeak hala onartu ez duenetan;
 - sare publikoan ematen den psikiatri laguntza ez zaie nahikorik gertatu, eta beste baliabide batzuetara jo behar izan dute (Andoiu ikastetxeak, esaterako, laguntza mota horretarako hitzarmena eginda dauka Aita-Mennirekin).
- Ertzaintzarekiko harremanari dagokionez, honako kezkabide hauek jaso dira: laguntza urria daukate adingabeak batzuk lekualdatzeko; lekualdaketa bilurrak ipinita egiten dira; atzerriko adingabeak ezagutze-saioak eskatzen dituzte; agenteek ez dute berariazko prestakuntzarik; ardura handirik ez dute agertzen ihesaldiren bat egonez gero; ezkutuko informazioa iristen da prentsara... Hezitzaileak eta egoitzak ez dira ados jartzen Ertzaintzarekin batera jarduteko protokolorik ezarri behar ote den; hala ere, guztiek beharrezkotzat jotzen dute solaskideak egon eta hainbat hobekuntza egitea.
- Beste alde batetik, babes sareko harrera-etxeekin koordinatzeko arazo batzuk sumatu dira. Gogoratu dezagun adingabeak harrera-etxeetatik datozela batzuetan.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren erantzunak kontuan hartzen ditu osasun laguntzaren atalean adierazitako arazo batzuk. Horrela, zerbitzu anbulatorietako oinarrizko laguntza dela eta, sailak azaldu digu harremanetan hasi direla Osasun Sailarekin, gaur egun gertatzen diren arazo batzuei (ordutegi mugatuak, aurretiazko hitzordua, kautelazko neurriak, laguntza jasotzeko beharra egoitzetan bertan...) bi sailen artean konponbide emateko asmoz.

Erakunde honen iritziz, atal honetan aipatu ditugun arazoak eraz konponduko badira, parte hartzen duten administrazio eta zerbitzu guztiek elkarlanean aritu behar dute, eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eragingarriro bultzatu behar du elkarlan hori, barneratze-egoitzen titularrak den aldetik.

4. Hezkuntza laguntza

Aurreko ataletan esan dugunez, ofiziozko jarduketa batzuk bideratu dira auzi honen gainean. Gure aburuz, funtsezko bi arazo zeuden arlo honetan, biak ere presaz konpondu beharrekoak:

- Eskolatzeko arautu ahalbidetzea, ahal den guztietan.
- Betiere, barneratze-egoitzan bertan egindako ikasketen hezkuntza baliotasuna bermatzea.

Hezkuntza Sailak, 2000ko abenduaren 28ko erantzuna dela bide, adierazi zigon egoera erregularizatzeko asmoa zuela, eta, bien bitartean, behin-behineko neurri batzuk ezarri zituen. Azkenik, iragarritako erregularizazio hori 2001eko abenduaren 14ko EHAA argitaratu zen: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuen azaroaren 7ko Agindua da. Agindu horrek Justizia, Lan eta

Gizarte Segurantza Sailaren mendeko egoitzetan sartu eta barneratutako adingabeko lege-hausleen hezkuntza eskubideak bermatzeko neurriak arautzen ditu.

Egoitzetara egindako bisitaldietan nahiz Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eskatutako informazio-eskaeran, goiko agindua ezartzeko ordura arte egindako neurriez edo egingo zirenez galdetu genuen.

Kontuan hartu behar da, edonola ere, arau hori oso berria dela. Nolanahi ere, egindako bisitaldietan funtsaturik, honako adierazpen hauek mahairatu ditzakegu:

- egoitzetako profesionalen iritzia ez da kontuan hartu agindua taxutzeko, eta ez da gaurdaino kontuan hartu agindua ezartzeko;
- eguneroko jardueran, ez da aldaketa esanguratsurik antzematen;
- agindu horren 5. artikulua arautzen duen artapen-bidea oraindik ere ez da abian jarri;
- egoitzetako instalazio eta baliabideei dagokienez, (ikasgela, lantegi-gela) behinik behin, ez da zehaztapen handirik egin gutxieneko baldintzetan, eta zalantza handiak sortu dira haien egokitzapenari buruz.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak erantzun zigun beharrezko urrats guztiak egiten ari direla agindua behar bezala garatzeko, eta kasuan-kasuan, banakako hezkuntza-proiektua taxutzen ari direla. Halaber, erantzunak hainbat zailtasun eta irizpide (hezkuntza irtenbide egokia emateko xedez) aipatzen ditu, eta horiek guztiak aintzat hartu behar ditugu. Honako hauek dira:

- *“egiten diren guztizko barneratzeen % 40 baino gehiago laguntzarik gabeko atzerriko adingabekoak dira; horrek badakar, berez, oinarri-oinarrizko prozesuak baliatzea: alfabetatzea, ohiturak irakastea...*
- *batez besteko adina lar handitu da (18 urte) eta taldearen interesa lanbide arloan finkatzen da;*
- *lehenestekoa da komunitateko sare orokorrari atxikitako egoitza eta prestakuntza programetan parte-hartzea;*
- *Kautelazko neurriek epe ertain edo luzearako eskolatzeko-programak erabiltzea eragozten dute, harik eta ebazpena irmoa den arte, bederen.”.*

Zinez diogu, baldintzapen horiek guztiak aurrean edukita, ez da batere samurra hezkuntza-irtenbide egokirik eskaintzea. Gainera, 5/2000 Legea indarrean hasi denetik, barneraturiko adingabekoen aldaketa izugarria (adin, ezaugarrietan...) gertatu da, eta aldaketak biziki oztopatzen du sailaren zeregina. Alabaina, zeregina oztopatzen duen modu berean, behar-beharrezko bihurtzen du lortu gura diren gizarteratze-helburuei taxuz heltzeko.

5. **Irteteko eta emantzipatzeko aukerak**

Aurreko txostenetan Erakunde honek agerian utzi du, sarritan, zailtasunak agertzen direla barneratze-denbora amaitu eta adingabekoa bere ohiko ingurunera bertakotu behar denean eta/edo beste zerbitzu batzuen arreta hartu behar duenean. Zalantza barik, arazorik larrietakoa eta konpontzen zailenetako bat da hori, eta ez ditu soilik

eraginak barneratze-zentroetatik irteteko unean, bestelako neurriak amaitzean eta babes-sistemetatik irteeran ere baditu.

Zentroetara egindako bisitetan eta adituekin izandako bileretan, euren kezkak jaso ahal izan dira, eta berretsi ahal izan da irteteko arazoek eta beharrek bere horretan dirautela, esparru hauetan behintzat:

- babesteko sistemekin koordinatzeko;
- baliabide berezi jakin batzuk ez daude, esate baterako, pisu babesturik edo gainbegiraturik ez dago;
- oztopoak daude hasitako hezkuntza-prozedurei jarraipena emateko, eta lan hori erraz dezaketen erreferente heldurik ez dago;
- lan munduan sartzeko bideak indartu behar dira;
- lagunduta ez dauden adingabeko atzerritarren arazo bereziak (erakundeek agiriak izapidetzeko dituzten erantzukizunak zehaztu barik daude, abegi-zentroak bete-bete eginda daude...).

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, bere erantzunean, familiara itzultzeko edota abegi-zentroetara itzultzeko kasuetan izaten diren esku-hartzeen irizpideak gogorarazteaz gainera, aditzera ematen du aurrera egin dela emantzipazio-zerbitzua diseinatzeko eta bultzatzeko, gizarte-babeseko oinarrizko zerbitzuengandik behar besteko laguntza jasotzen ez duten kasuei dagokienez. Era berean, gomutatu du, lege berriak xedatzen duenaren arabera, bertakotzeko prozesuek aldi bi izan behar dituztela, bata zentroan, eta, bestea, askatasun zainduaren araubidean; eta, horrenbestez, zentrotik irteteko prozesuei jarraipen luzeagoa egiten zaiela eta laguntza gehiago ematen zaiela. Hortaz, dioenez, hori da aurten egiten hasi diren lanaren ildo nagusietako bat.

Goian adierazitako arazo batzuei dagokienez, gaur egun arazo hauek larritu edo azaldu direla onartu da:

- *“Babesteko egoitza-zerbitzu batera joateko irteten badira, eta mutilak edo neskek ez badu nahi, ez dago tresnarik horietan egonazteko, eta, hala, bada, handik egun edo ordu gutxitara uzten dituzte.*
- *Babesteko zentroen saretik datozen neska-mutilak badira, eta horietan bizikidetzako arazo larriak izan badira, neurri judizialak betetzeko zentro batera sartu aurretik, pronostikoa oso txarra da.*
- *Lagunduta ez dauden adingabeko atzerritarrek irteten dira abegi-zentroak bete-bete eginda daudelako, eta horri lotutako arazoak (euren eskaerei ez zaie erantzunik ematen, deserrotzea, kanpoan erreferentzia-taldeak egotea, e.a.).”*

Hauxe adierazten da: *“gertaera horiek konponbidean jartzeko, hainbat topaketa izan dira, deribazio-tresnak ezarri dira, e.a., baina oso zaila da konpontzea, lagun horien adinagatik –adin-nagusiak izateko gutxi falta zaie– eta euren historia pertsonalagatik”. Eta ondokoa baieztatzen da: “aparteko aipamena eta azterketa egin behar zaie lagunduta ez dauden atzerritarrei; horien arazoa bestelako parametroetan kokatu behar dugu, gazteen justiziaren parametroak ez bezalakoak baitira.”*

6. Zerbitzuen arauzko erregulazioa

Txosten monografikoan, Arartekoak nabarmendu zuen araudi berezi batek arautu behar zituela zerbitzuen jardunbiderako oinarrizkoak ziren gai batzuk. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak jarraian eman zituen erantzunak, gomendioak betetzen ez zirela-eta, eta behin eta berriro jotzen zuen dekretuaren zirriborro batera; baina, denborak aurrera egin duen arren, hori ez da behin ere argitaratu. Atzerapena zela-eta, batzuetan, lege-esparru orokorrik ez zegoela adierazten zen (5/2000 Legea argitaratu aurretik, edo araudi orokor bat Estatu osorako).

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren azken erantzuna hitzez hitz hauxe dio horri dagokionez: *“Legeria organikoa garatzeko, arauzko maila duten arau bi izapidetzen ari dira, bata Estatu mailakoa, eta, bestea, autonomia-erkidegoaren mailakoa. Arau biak egiten ari dira une honetan:*

- a) Autonomia arteko Batzordearen proposamena, adingabekoen gaietan eskumena duten zuzendari nagusiena, 2001eko ekainaren 28koa: ‘proiektuaren zirriborroa, urtarillaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudiarena –adingabekoen erantzukizun penala arautzen duen Legea–’.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, egoitza-zentroei buruzko dekretu bat egiten ari da, adingabekoen erantzukizun penala arautzen duen legeriaren esparruan; horren azken zirriborroa 2001eko otsailaren 20koa da. Estatuko proposamenak barne hartzen ditu bide judizialeetatik ezar daitezkeen neurri guztiak; eta Autonomia Erkidegoko proposamena, aitzitik, barneratze-neurriak bete behar diren zentroyen funtzionamenduari eta arautzeari buruzko gaiak garatzeari baino ez du barne hartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, halaber, “haurrei eta nerabeei –euren eskubideak betetzea bermatze aldera– laguntza eta babesa emateko Legea” egiten ari da. Eta, azken lege-proiektu horri dagokionez, gogorarazi da adingabekoen eta gazteen erantzukizun penalari lotutako gaiak arautu gura dituela, eta Eusko Jaurlaritzaren oraingo sailen egituraren arabera, bere izapidetak sustatzea Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailari dagokiola.

Arauei lotutako gai horiei dagokienez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko arduradunek hauxe jakinarazi dute: *“5/2000 Lege Organikoan garatu beharreko gaien artean, gure ustez, badira arlo batzuk arauz jantzi behar direnak, lege formalaren mailarekin (adibidez, diziplina-prozeduraren tipifikazioa eta legeari lotuta egon daitezkeen beste gai batzuk). Beraz, komenigarria izan daiteke lege-proposamen hau baliatzea aipatutako bermea betetzeko.”*

Erakunde honek uneoro adierazi du –eta orain ere halaxe egiten du– beharrezkoa eta premiazkoa dela arauetan orain dagoen hutsunea betetzea. Zentroetara bisitak egiteak aukera ematen du oraingo egoerak eguneroko lanean dituen ondorio txarrak ikusteko: segurtasunik eza zehapen larriak ezartzerakoan, erregistro-sistema tipifikaturik ez egotea, zalantzak zehapenak ezartzeko legitimitatearen gainean... Hala, bada, berriro esan behar dugu arau-proiektuak premia handiz bihurtu behar direla arau, arau horiek ahalik eta berme juridikorik gehien eman diezaieten alde guztiei: neurrien helburu diren adingabekoei, horiek aplikatzen parte hartzen duten profesionaleri eta erakunde arduradunei eta kontrolerako erakundeei ere bai.

7. Azken urteetan bete diren neurrien bilakabidea

Arartekoak adingabeko arau-hausleen gainean egin duen txostenak sustatu gura duen jarduera-ildo nagusietako bat da aurreikusi diren neurri-multzoiari dagokionez legeak izan ditzakeen ahalmen guztiak garatzea, batez ere askatasuna gutxien murrizten dituztenak, hezkuntza-ahalmenik handiena dutenak eta barneratzea eskatzen ez dutenak. Baliabide gehiago edo gutxiago izatea eragile erabakigarria izaten da neurriak era eraginkorrean ezartzeko; eta erakunde honek arreta berezia egin dio horri, neurriak betearaztea euskal Administrazioaren eskumena delako.

Iazko urteko txostenean arreta berezia egin zitzaion gai horri, datu ugari eskaini, eta balioespenak egin ziren, eta alde txarrak eta onak nabarmendu ziren. Hori dena, neurri batean, honek lortutako informazio zehatzari esker egin ahal izan zen: *Gazte Justiziaren Zerbitzuaren Lan Memoria: 1999. urtean adingabekoen epaitegiek EAEn ezarri dituzten neurrien betearazpenaren azterketa, 2000ko maiatzekoa.*

Memoria horretako datuak baliatuz, bilakabide orokorra eta zenbakizkoa ezagutu ahal izateaz gain, zehatzago aztertu ahal izan zen informazioa, erakunde honen iritziz guztiz interesgarriak diren irizpideen arabera. Esate baterako:

- adingabekoen epaitegi bakoitzak erabakitako neurriak euren artean erkatzea;
- hainbat neurri betearazteko izan den atzerapen-denbora, edota gertaera edo arau-haustea izan denetik neurria betearazi den arte iragan den denbora;
- neurriak aplikatzean dauden aldeak, adingabekoak neskak edo mutilak diren aintzat hartuta;
- neurririk gogorrenen edo murriztaileenen (barneratzea) eta ahuldadearen edo zenbait taldeen ezaugarrien arteko korrelazioa: gutxiengo etnikoak, eskolatik kanpoko adingabekoak, babespean dauden adingabeak, berrerorleak...

Zoritxarrez, ezin izan da lortu azken urte bietako datuak jasotzen dituen antzeko memoriarik. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren erantzuna bilakabidearen datu orokorrak eskaintzera mugatu da, eta horiek hemen jaso ditugu:

AZKEN BOST URTEETAN HARTUTAKO NEURRIAK

	1997		1998		1999		2000		2001
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA
Bitartekotza/Konpontzea	94	26.8	158	39.9	247	46.9	234	43.2	—
Ohartarazpena	120	34.2	97	24.5	72	13.7	72	13.3	—
Askatasun zaindua	53	15.1	60	15.2	56	10.6	65	12	135
Zerbitzuak egitea									
erkidegoaren onurarako	53	15.1	39	9.8	77	14.6	83	15.3	123
Anbulatorioko tratamendua	4	1.1	3	0.8	9	1.7	7	1.3	26
Gizarte-hezkuntzako lanak	—	—	—	—	—	—	—	—	20
Abegia	—	—	—	—	—	—	—	—	2
Asteburuan barneratzea	5	1.4	8	2	15	2.8	16	2.9	42
Zentroan barneratzea	22 ⁽¹⁾	6.3	31 ⁽¹⁾	7.8	51 ⁽¹⁾	9.7	64 ⁽¹⁾	11.8	63
GUZTIRA	351	100	396	100	527	100	541	100	

(Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila)

⁽¹⁾ Zentroetan izandako barneratzeak zenbatzeko irizpideak aldatu dira: horrela, 22 eta 31 adingabeko dira (97 eta 98 urteetakoak) eta 51 neurri; eta horiei 37 adingabeko (99. urtea) eta 64 neurri dagozkie, eta eragina dute azken urteko 33 adingabekorengan (2000. urtea) eta 63 neurritan.

Sailak berak nabarmendu ditu eskainitako datuetatik eta besteetatik atera daitezkeen ondorio batzuk. Adibidez, hauxe dio:

“1.- EAEko adingabekoen epaitegiek onartutako neurriek gora egin dute azken urteetan, eta jauzi nabarmena izan da aurtan, lege berria indarrean hastearekin batera. 2000. eta 2001. urteen artean izan den hazkundera % 75ekoa izan da.

2.- Hazkunde hori, batez ere, ingurune irekiko neurrien ondorioa izan da; izan ere, barneratzeari dagozkion neurriek, hazkundera izan duten arren, bere horretan iraun dute.

3.- Erkidegoaren onurarako egindako prestazioek gora egin dute, % 50 ia.

- Askatasun zainduak % 92 igo dira (25 kasutan barneratze-neurrien bigarren aldiak izan dira).

- Asteburuko barneratzeak edo egonaldiak biderkatu egin dira; hain zuzen, bider 2,6.

- Anbulatorioko tratamenduak biderkatu dira, hain zuzen, bider 3,7.

- 20 ebazpen berri eman dira, eta gizarte eta hezkuntzako zereginen neurria ezarri da.

- Lehen aldiz, hezkuntza-taldera sartzeko 2 kasu izan dira.

4.- Hazteko joerari eutsi zaio, iraila eta abendu bitartean eman baita ebazpen gehien.

5.- Neurrien batez besteko iraupenak nabarmen egin du gora, haietako askotan bikoiztu egin da-eta.”

Beharbada, datu horiek argien erakusten dutena da gora egin dutela 5/2000 Legea –Adingabekoaren erantzukizun penalarena– aplikatzearen ondorioz sortutako neurriek, eta, horrenbestez, hazi direla horiek aplikatzeko behar diren baliabideak. Gai hori zehatz-mehatz aztertuko da hurrengo atalean.

Alabaina, datu orokorrek ez dute ia balio errealitatera gehiago hurbiltzeko. Erakunde honek jarraituko du esaten azterketa edo jarraipen zehatzagoak egin behar direla, esate baterako, Gazte Justiziaren zerbitzuaren memorian jasotakoan antzekoak egin behar direla, neurrien egiatzko aplikazioaz informazio gehiago eskaintzeko.

Datu gaurkoturik ez dugunez, pentsatu behar dugu iaz sumatutako arazo batzuk edo horietako asko (epaitegiek ezberdintasun handiak dituzte euren artean irizpideei dagokienez, gertaerak izan direnetik neurriak ezarri diren arte urtebeteko aldiak izan dira batez beste, korrelazioa izan da zenbait neurri eta talde ahulen ezaugarrien artean... 63-68 orr., Txostena, 2000) aurten ere gertatuko direla, eta, ondorioz, arreta egin behar zaie. Jasotako informazio batzuek horrela baieztatzen dute, egoera horien igoerak ere bai. Adibide gisa, lagunduta ez dauden adingabeko atzerritarren taldeko askoz ere lagun gehiagori ezarri zaizkie barneratzeko neurriak (2001eko neurri horien guztien % 40, adierazten denez).

8. Adingabekoaren Erantzukizun Penalaren Legea indarrean sartzearekin zerikusia duten aldaketak

Lehen adierazi bezala, Adingabekoaren Erantzukizun Penalaren Legea 2001eko urtarrilean hasi zen indarrean, eta horrek aldaketa larriak eragin ditu eta lanaren eragile erabakigarrietako bat izan da azken urte honetan gazterien justiziaren gaian. Honezkerok, ondorioetako batzuk aipatu ditugu: gora egin du adingabekoen adinak, hazi eta aldatu dira arretaren beharrak... Puntu horretan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari eskatu zitzaion adieraz zezan zeintzuk ziren eskaeretan eta baliabideetan izandako aldaketa nagusiak.

Eskaerei dagokienez, hauek aipatu zituen:

- Eskaerak gora egin zuen (Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzaren Zuzendaritzak bete beharreko neurrietan, % 75).
- Lagundutako pertsonen batez besteko adinak gora egin du, 18 urtetik hurbil dago-eta.
- Neurriek gehiago irauten dute, gertaerak larriagoak dira-eta.
- Lagunduta ez dauden atzerritarrak gehiago dira.
- Hondatze pertsonala erakusten duten kasuak gehiago izan dira: droga-kontsumoa, osasuna hondatzea, patologia psikologiko gehiago, oso zailak diren bitzita-ibildak, e.a.

Eta, baliabideei dagokienez, jarduera hauek nabarmendu ditu:

- Ekipo teknikoak indartu dira hiru lurralde historikoetan (21 profesional).
- Neurriak betearazteko beste talde bi sortu dira ingurune irekian, Bizkaian eta Gipuzkoan, 4 eta 3 aditurekin, hurrenez hurren.
- Jurista lanpostua sortu da Gazterien Justiziako Zerbitzuan.

- Mendixolako eta Andoiuko langile-plantilla indartu da, eta, orobat, Mendixolako eta CEMAReko segurtasuneko langileak indartu dira.
- Zumarraga berregin da, eta Bizkaian beste zentro bat abian jartzeko tokia bilatu, eta baimena eskatu da, orain Urtuellan dagoena ordezkatzeko.

9. **Beste lurraldeetako zentroetan barneratuta dauden gure Erkidegoko gazteak**

Lehen esan dugunez, azken urteetan, “*gure Erkidegoko adingabekoen epaitegiek neska edo mutilen bati barneratzeko neurria ezarri badiote, haietako inor ez da kanpora irten neurri hori betetze aldera.*”

Bestalde, 7/2000 Legea indarrean hasi zenetik, Audientzia Nazionalak esku hartu du terrorismo delitu gisa sailkatutako gertaeretan. Kasu horietan, barneratzeko neurria agindu denean, Administrazio Zentralak betearazi du neurri hori, aipatu dugun Legeak ezarritakoaren arabera.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak emandako erantzunak ez du zehaztu zenbat adingabeko izan diren egoera horretan azken urte honetan.

Datu hori ez dakigun arren, badugu informazioa Audientzia Nazionalaren esku hartzeen gainean, eta horietan azalduta dago lagun horiek izan dituzten atxilotze-baldintzak; izan ere, ez dago zentro berezirik egoera horietarako (txosten honetan bertan, Justizia arloaren sarrera).

10. **Adingabekoen arau-hausteak nozitu dituzten lagunei eman zaien laguntza**

Biktimei laguntza ematea gure epaileen parte-hartzeetan gutxien garatuta dagoen osagaietako bat da. Bestalde, aintzat hartu behar da, sarritan, adingabekoeen arau-hausteen biktimak adingabekoak izaten direla. Hortik, interes bizia dago horiei ematen zaien laguntza zelakoa den jakiteko. Horren gaineko informazio zehatza eskatu genion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari, eta erantzun zigunez, hiru bide erabili dira horretarako:

- Biktimak parte hartzea bitartekotza-programetan.
- Laguntza-zerbitzuak delituen biktimei arreta egitea.
- Talde psikosozialetako profesionalek laguntza ematea fiskaltzei, adingabekoen epaitegiei eta familia-epaitegiei.

* * *

Batutako datuek eta informazioek argi erakusten dutenez, adingabeko arau-hausleekin izandako esku-hartzearen arloan urte honetan izan diren aldaketa askok joera jakin batzuk izan dituzte, eta aurreikuspen batzuk baieztatzen edo ezeztatzen dute; hortaz, erreferentziatza hartu behar dira geroko jarduera eta jarraipenarako.

1.1.7. **SAN FRANTZISKO ALDEAN POLIZIAK ATZERRITARREKIN IZANDAKO ZENBAIT JOKAERA DIRELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA**

San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziaren jarduerekin lotuta Arartekoak izan duen esku hartzea 1997 urtean hasi zen. Harrez gero eta 1998 urte osoan burututako egintzak urte hartako Arartekoaren urteko txostenean jaso ziren laburki (1998ko Txostena, 75-118 orr.). Gainera, 1999ko ekainaren 17an, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordearen aurrean urteko txostena aurkezteko izan zenean, gai honi buruzko dossier osoa eman eta aurkeztu zitzaizen parlamentuko taldeei.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak, 1999ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, Bilboko San Frantzisko auzoko egoera liskartsuari buruzko legez kanpoko proposamen bat eztabaidatu eta onartu zuen, eta, besteren artean, ondoko akordio hau hartu zuen: *“3.- Legebiltzarrak eskatzen du Arartekoak Bilboko San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziaren jardueren gaineko txostenean azaldutako gomendioak aplikatzea eta inplikaturako Administrazioek gomendio horiek betetzeko konpromisoa hartzea. Puntu hau kontrastatzeko, Arartekoari eskatzen zaio sei hilabete barru jakinarazi ditzala egindako gomendioak zenbateraino betetzen diren eta horren gainean egiten duen balorazioa.”*

Legebiltzarraren akordio hori betetzeko, Arartekoak 2000ko otsailaren 29an Eusko Legebiltzarreko buruari txosten mardula eman zion: *San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziaren jarduerekin lotuta Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari egindako gomendioak betetzearen jarraipena*. Txosten honetan jasotako datu guztiak bildu eta baloratzen diren. Txosten honen laburpen bat, balorazio aldeetan edo, zehazkiago, Arartekoaren gomendio eta proposamenak zenbateraino betetzen ziren aldean zentratuta, 1999ko txosten arruntean sartu zen (1.1.8. atala).

Aipatutako jarraipen txosten hori osatzeko datu bilketan ahalegin garrantzitsua egin behar izan zuen Ararteko erakundeak eta bost informazio iturri, osagarriak eta oso balio desberdinekoak, erabili zituen: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arduradunen datu eta balorazioak; elkarteen datuak eta balorazioak; erakundean jasotako kexak; epaitegietako ebazpenak; prentsan agertutako albisteak. Informazioa eskuratzeko eta sistematizatzeko ahalegin handia egin eta Legebiltzarrak berak eskatutako txostena izan arren, ez dakigu erabili ere egin den, horretaz, gaur arte behintzat, ez baita inolako parlamentuko ekimen edo eztabaidarik izan.

Horregatik, eta Arartekoak dituen ezaugarrietako erakunde batentzat gaiak dauzkan zailtasunak kontutan hartuta, azken urte honetan ez da jarraipen sistematiko eta espezifikorik egin, baizik eta jarraipen mugatua eta zeharkako bat egin da jasotako kexa, prentsan agertutako albiste, alde horretako elkarteekin egindako bilera eta kontaktu, Hontza gaueko zentroa zabaltzarekin edo HIESaren Kontrako Batzordearen eguneko arreta zentroarekin lotutako esku hartze eta polizia etxe batzuetan egindako bisitak baliatuz.

- Poliziaren jarduera berriei buruzko kexei dagokienez, urtean kexa berri bat soilik jaso da, aurreko batzuk erabakitzeke dauden arren.

- Alde horrekin lotutako albisteen tratamendu informatiboari dagokionez, aurreko txostenetan azaldutako arazoak antzematen dira oraindik ere, nahiz eta, hobekuntza proiektuaz zabaltzeko une zehatz batzuetan, ikuspegi positiboagoak ere eman diren.
- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundearekin izandako harremana, azken urte honetan, polizia kontuetan izan ezik, hiri izaera edo auzoko zerbitzu azpiegitura eragiten dituzte beste kontu batzuetan zentratu da (ikastetxe berria, aldatsa, eta aisialdiko gune berrietako sarbidea...)
- Hontza gaueko arreta zentroa (Zamakolan) zabaltzearen eta Bailen kaleko HIESaren Aurkako Batzordeak kudeatzen duen eguneko arreta zentroaren birmoldaketaren inguruko esku hartzeek erakutsi dituzte auzokideen kolektiboen artean dauden jarrera eta sentsibilitate desberdinak eta hainbat interes eta eskubide desberdin bateratzeko zailtasunak.
- Azkenik, Ertzaintzaren etxe batzuetara egindako bisiten eta hainbat kexen bidez, frogatu egin da, gomendatutakoaren kontra, biluzetako gorputzaren miaketa ohiko jarduera dela oraindik ere (txosten honen VI. kapituluan dago gai honi buruzko gomendio orokorra).

Erakunde honen iritziz, alde horretan aurreikusitako jarduera eta esku hartze proiektu garrantzitsuek bere egunean aurkeztutako arazo askotan izango dute eragina (izaera orokorreko gomendioetan zein jarduera polizialei buruzko gomendio espezifikoetan), bidea ematen dute alde horretako gizarte eragile eta elkarteekin elkar lanean jarduteko eta, azken batean, eragina izan behar dute auzoan bizi edo lan egiten duten pertsonen, eta horien artean atzerriko jatorria duten pertsonen kolektibo zabalaren bizitzeko baldintzetan

1.1.8. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERARI BURUZKO JARRAIPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz Arartekoak egindako ez-ohiko txostena 1999ko abenduaren 22an ezagutarazi zen eta Eusko Legebiltzarreko buruari eman zitzaion. Horren ostean,, 2000ko otsailaren 2an, Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen. Beste alde batetik, 1999ko urteko txostenean egindako azterlanaren laburpen bat sartu zen; laburpen hori, eskubideen ikuspuntu garantistatik, erakunde horren iritiz kezkarrienak diren zazpi gaietan zentratzen da.

2000. urtean lan-batzarrak egin ziren oinarrizko unitateen profesionalekin eta udal eta foru aldundietan zerbitzu horien arduradunekin eta txostenaren edukiak aztertu ziren. Arlo horretako profesionalen parte hartzea handia izan zen kasu guztietan (300 lagun inguru batu ziren lau batzarretan); Gizarte Ongizateko foru diputatuak ere parte hartu zuten batzarretan eta gainera aktiboki lagundu zuten. Batzarrek kontaktuak egiteko aukera eta zerbitzuaren atentzioa euren ardurapean dauden pertsonen txostenaren edukien eta gomendioen berri emateko balio izan zuten eta horrek azken baten, praktikan hobetzeko aukera eman zuen. Euren arazo eta eskakizunen berri jakiteko aukera ere izan zen: lanez gainezka egotearen sentazioa; baserri gune edo gune sakabanatueta gizarte lanak dituen zailtasun bereziak; lurraldearen eta udalerriaren araberako ordainsari eta status profesional desberdintasun handiak; interinitate egoerak proportzio handietan; inserzio hitzarmenak aurrera eramateko mugak; beste zerbitzu batzuekin dauden koordinazio arazoak; lagun edo programa batzuentzat kudeaketa formula egokiena (udalenak edo zentralizatua) zein diren erabakitzeko zalantzak

Txostenean jasotzen den iritzi bat azaldu zen batzarretan ere: oinarrizko gizarte zerbitzuek lortutako garapen maila eta gizarte zerbitzu horiek etorkizunean gizarte ongizate politiken funtsezko tresna bihurtzeari buruzko hausnarketa estrategiko bat behar da.

Gizarte Ongizateko hiru foru diputatuekin izandako batzarretan arazoak aztertu ziren eta hobekuntza aurreikuspenak eta aurrekontu eta konpetentzien aldetik dauden muga nagusienetako batzuk azaldu ziren.

Azken horiei dagokienez, 2000ko abenduan akordio garrantzitsuak sinatu ziren lurralde historikoetako Gizarte Ongizate sailen eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkarien artean; zera bilatu nahi zen, ardurak eta konpetentziak argitzea gizarte zerbitzu eta programei dagokienez –horien artean oinarrizko gizarte zerbitzuak-.

Lurralde akordioen ondorioz, Erakundearteko Mahaiaren gizarte zerbitzuen 5/1996 Legea garatzeko 2000ko azaroaren 9ko proposamena zehaztu zen; erakundearteko mahai hori EUDELe, hiru lurraldeetako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatu zuten. Proposamen horretan abiaburu batzuk zehaztu ziren: zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakar baten ardura izango da; foru aldundiak udalen esku utz ditzake konpetentziak eta alderantziz; baliodun pertsonen laguntza ematea udalei dagokie eta dependentziadunei laguntza ematea foru aldundiari dagokio.

Oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikorako 2000ko abenduaren 18ko Akordio-Esparruak behar beste egitura ez dagoela aitortzen du; zera dio *“udalari dagokio herritarren euren eskubide eta dauden gizarte baliabideei buruz informatzea, baloratzea eta orientatzea”*; honela definitu ditu

“edozein gizarte zerbitzutan sartzeko atea”; eta bete beharreko konpromisoa jaso du *“Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Mapa, non lurralde, eskualde, azpi-eskualde edo udal mailako gizarte zerbitzuek eskaini beharreko zerbitzugintza maila finkatzen da.”*

Bizkaiko oinarriko gizarte zerbitzuen egoerari dagokionez, lurralde horretako 2000ko abenduaren 29ko akordioak zera dio *“Zerbitzu horiek mantentzea eta bertako langileen kostua udalei dagokie.”* Eta zera gehitzen du *“Baina Foru Aldundiaren laguntza jasoko du prestakuntza, informatika aplikazio eta gurutzeetan eta Bizkaian aplikatuko diren programak ezartzeko koordinazioan.”*

Lortutako akordioek aipatu arazoak konpontzeko eta Arartekoak txosten monografiko desberdinetan (ez bakarrik oinarriko gizarte zerbitzuei buruz hitz egiten duen txosten zehatzean) bildutako gomendioak aplikatzeko borondatea erakutsi dute. Erakunde horren iritziz, oso urrats garrantzitsua eman da betebeharrak argitzeko orduan, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko balio behar dute eta etorkizunean jarraipenak egiteko abiapuntu tresna dira.

1.1.9. **BURU-GAIXOENTZAT EAEn DAGOEN ERKIDEGO-LAGUNTZAREN JARRAIPENA**

Ararteko erakundeak buruko gaixotasunak zituzten pertsonen erkidego mailako artapenari buruz egindako ez-ohiko txostena 2000ko ekainaren 19an atera zen jendaurrera eta eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko buruari eta Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordean aurtengo urriaren 26an eztabaidatu zen. Berak eskatuta, Osasun Sailburua ere Legebiltzarreko Osasun Batzordearen aurrera agertu zen, azaroaren 16an.

Nahikoa txosten berria da, beraz, erakunde honen txosten guztiek bezala, eskumeneko administrazioei zuzendutako gomendio batzuek eginez amaitzen dena, antzemandako arazoak konpondu edo erakundeen aldetiko erantzunak hobetzera begira. Eskuartean dugunak, zehazki, administrazio desberdinei ukitzen dieten 18 gomendio egiten ditu, besteak beste, Osasun Sailari. Izan ere, buruko gaixo kronikoen beharren erantzunean administrazio eta zerbitzu desberdinak inplikaturik egotea izan zen gaiari aurre egiteko eta erantzukizunak mugatzeko orduan aurkitu genuen oztopoetako bat, eta egindako aurrerapenak baloratzeko orduan aurkitzen dugun oztopoa ere bada.

Gomendioen betetzearen gaineko jarraipena, lehenengo urte honetan, bi bide osagarri erabiltzera mugatu da: FEDEAPESen integratutako buruko gaixoen senideen elkarteekin informazioa trukatzeko, eta Osasun sailburuari datuak eskatzeko. Osasun sailburuari egindako datuen eskaria termino zabal samarretan planteatu zen, beraiei dagozkien eta txostena eginarazi zuen ondorengo lanean burututako jardueren gainean beharrezko irizten zion informazioa helarazteko eskatu baikenion. Bere eskuetan uzten zuen, halaber, gure jarraipenerako interesgarrien irizten zion informazioa helarazteko egokien ikusten zuen formula edo metodoa erabakitzea: datu esanguratsuak ematea, beren eskumen hutsekoak edo besterekin baterakoak diren gomendioen inguruan egindako jarduerak, txostenen beren beregi aztertutako kolektibo jakin batzuentzako zerbitzuen inguruko ekimenak, hala nola, adin txikikoentzakoak.

Datu eta informazio orokorrak alde batera utzita, buruko gaixoen senideen elkarteekin izandako azkeneko bilera helarazi zitzaizkigun kezka nagusiei erantzuteko, ondoko gaien gaineko informazio zehatua ere eskatu genuen:

1. Arabako Ospitale Psikiatrikoko psikosi errefraktarioko unitateari dagokionez:
 - Erabilpen datuak, itzaroteko zerrendak, eta Erkidego osoaren beharrei erantzuteko nahikoa den ala ez baloratzea.
 - Senideen elkarteekin funtzionamenduan partaidetza handiagoa izan dezaten ahalbideak.
 - Unitate hori delituak egin dituzten gaixo kronikoen espetxeko tratamendurako erabiltzeko ahalbideak, orain arte Foncalent (Alacant) Espetxeko Ospitale Psikiatrikora bildatzen baitituzte.
 - Gure Erkidegoan arestian esandako pertsona horiek artatzeko zentro bat egitea komeni den eta egiteko dauden ahalbideen balorazioa.
2. Beren borondatez ez doazenak sartzeko protokolei dagokienez:
 - Irizpideak bateratzerik dagoen eta komeni den, eta lurralde guztietarako protokolo bakarra izatea.

3. Patologia dualeko kasuen jarraipena hobetzeko ahalbideak, eta orokorrago, buruko osasun zentroetako profesionalen arteko koordinazioa hobetzeko.
4. Buruko osasun zentroetan litekeen gehiegizko zamaren, eta kasu larriak behar bezala artatzeko orduan horren dauzkan ondorioen balorazioa, edo familia terapia edo etxeko laguntzako programei lotutako eginkizunak egitea.

Horrekin Osasun saileko arduradunen balorazioa jaso nahi genuen, elkarteek planteatutako oinarritzko lau arazoek gainean:

- Psikosi errefraktarioko unitatearen mugak.
- Beren borondatez ez doazenak sartzeko lurraldeen arabera zeuden diferentziak.
- Kasuen jarraipena egiteko eta profesionalak koordinatzeko arazoak.
- Buruko osasun zentroetako gehiegizko zama eta horren ondorioak.

Osasun Sailaren erantzuna 2002ko urtarrilaren 31n jaso genuen. Osakidetzako Laguntza Psikiatriko eta Buru Osasuneko Buruak prestatutako dokumentua zen, eta dokumentuarekin batera Arabako Ospitale Psikiatrikoko Psikosi Errefraktarioko Sailaren funtzionamenduaren lehen urtearen balorazioa zetorren.

Datuen eskariarekin ildotik, dokumentu horrek, lehenengo atalean, txostenaren bost gomendioekin zerikusia zuten gaiak aztertzen zituen, eta bigarrenean, planteatutako lau gai zehatzak. Jarraian, Osasun saileko arduradunek eskainitako oinarritzko datu eta informazioak daude, laburbilduta:

1. Txostenaren 5. gomendioaz, “Bitarteko baliabideen sarea sendotu”, hara zer dioen, hitzez hitz, erantzunak : *“Bitarteko baliabideen sareak pisu desberdina zuen 3 Lurraldeetan, beraz, bakoitzeko jarduerak ere desberdinak dira.*
 - *Paziente psikiatriko helduen esparruan, gabeziarik handienak Gipuzkoan zeuden; Lurralde horretan, gizarte eta osasuneko baterako interbentzioari esker, Eguneko Zentro berria daukagu Azpeituan, Donostiako beste bateko obrak ia amaituta daude, eta Osasun Sailaren eta Aldundiaren artean itundutako “mapa” diseinatu da, zentro horiek (10 guztira) lurraldean zehar banatzeko. Zumarragan beste pisu bat zabaldu da, paziente psikotikoentzat, 6 hartzeko bestekoa. Bizkaian Aldundiarekin baterako itunean aurrera egin da, paziente psikotikoentzako piseen kontuan (50 toki).*
 - *Haur eta gazteen mailan, egoera antzekoa zen 3 lurraldeetan, duela urtebetera arte. Duela urtebete Bizkaian Hezkuntza eta Terapiako Eguneko Zentroa ireki zen, BBK-Hezkuntza Saila-Osasun Saila/Osakidetzara hiruko itunaren ondorioz. Zentro horren atzetik etorriko dira, 2002 urtean ziurrenik, Donostian eta Gasteizen irekiko direnak (egitasmoak eta erabakiak amaituta daude).”*
2. Txosteneko 6. gomendioaren gainean, “Beren beregi adin txikoentzat diren zerbitzuak gehitzea”, hauxe aitortzen da: *“Haur eta gazteak ospitale psikiatrikoetan sartzeari gure Erkidegoko laguntza psikiatrikoaren gabezia historikoa zen”, eta esaten da: “Bi urteko lanaren eta kokapen egokiak bilatzearen ondoren, hiriburu bakoitzean Sarrera Unitate bat zabalduko da*

(Donostia, Basurtu eta Santiago ospitaletan), lehenengoa (Donostia ospitala) 2002ko lehenengo hiru hilekoan zabaltzea espero delarik.

3. Txostenaren 10. gomendioari dagokionez, “Birgaitzeko aukera bermatzea”, hauxe esaten da: *“Birgaitzea esaten zaion esparruaren gehiena hartzen duten bitarteko egituren gehitzeak herritar guztien eskuera egon daitezten laguntzen du, zalantzarik gabe.”*
4. Zerbitzuen kontrolaren eta kalitatearen ebaluazioaren inguruan (txostenaren 12. gomendia), kontratu-egitarauak ezarri eta pixkana hobetu direla aipatzen da, eta barruko kontroleko eta kalitateko adierazleak ere sartu direla. *“Hala ere -gehitzen da- oraindik ikertu ez den aurrerapen ahalmeneko eremu bat ere badago.”* Zehazki, jakinarazten da: *“lan talde bat eratu zen, 2000 urten amaitu zen laguntza psikiatrikoaren adierazleen panela ezartzeko. 2001ean erabali eta balizko disfuntzioak zuzendu zaizkio, eta gaur egun informazio sistemak Laguntza Psikiatrikoko Antolakunde guztien (ospitale barruko eta kanpokoak) hiru hileko jardueraren informazio alderatua ematen du.”*
5. Txostenaren 15. gomendioari dagokionez, “Tutoretzako fundazioak sortzea sustatzea”, hauxe esaten da: *“Bizkaia zen kontu honetan lurralderik arazotsuena. 2001ean lan bileran antolatu ziren, gizarte eta osasun espazioaren arduradunaren bitartez, eta ondorioz tutoretza behar duten paziente psikiatrikoak pixkana Bizkaiko Tutoretza Fundaziora lekualdatzeko protokoloa zehaztu da. Arabak eta Gipuzkoak bazeuzkaten tutoretza sistemak ezarrita, laguntza sistemarekiko loturarik gabe”.*

Hartara, erantzuna bost gomendio horretaz ari da (txostenean 18 egin ziren, baina askok osasunaren esparru estua gainditzen zuten), eta gabezia jakin batzuek daudela aitotzen du, zerbitzu berri batzuek sortu edo erabaki jakin batzuek hartu direla jakinarazten du, eta etorkizunerako hobetzeko jardura batzuek aipatzen ditu, zehaztasun handiago edo gutxiagoz.

Dokumentuaren bigarren zatia, lehen esan dugun bezala, senideen elkarteek bereziki kezkarriak direlako planteatutako lau gaietaz ari da.

1. Arabako Ospitale Psikiatrikoan sortutako Psikosi Errefraktarioko Unitateari dagokionez, hauxe esaten da:
 - oraingoan dauden beharrei erantzuteko nahikoa dela irizten zaio (ez dago itxaroteko zerrendarik);
 - senideen elkartearen partaidetzarako mekanismoek ospitaleko beste ataletan erabiltzen diren berberak izan behar dute;
 - ezin da espetxe unitate gisa erabili;
 - espetxe unitateak sortzea Osasun Sailaren eskumenen alorretik kanpo dago. Gainera, unitate horren funtzionamenduaren lehenengo urteko balorazioa sartu da, 2002ko urtarrilean egin. Balorazio horretatik senideen elkarteek adierazitako kezka arrazoekin zerikusia daukaten datu batzuek atera ditugu, hara:

- Sarrera eskarien kopurua (inauguratu zenetik 2002-01-07ra): 41.
 - Eskarien jatorria: 14 Arabatik, 18 Bizkaitik, 9 Gipuzkoatik.
 - Ukatutako sarrera proposamenak: 4.
 - Araututako sarrera prozedura (EHAO, 2000ko irailaren 28koa).
 - Behin sarrera onartuta, pazientea berehala sartzan da unitatean, eskueran dauden oheen arabera.
 - Sartzeko eskariaren dataren eta sartzeko dataren arteko batez besteko tartea lau egunekoa izan da.
 - Bertan dauden pertsonen kopurua: 32.
 - Kasu guztiak borondatearen aurkako baimen judizialaren ondorioz sartu dira, eta % 41ek aurrekari judizialak dauzka.
 - Unitateko batez besteko egonaldia ia 90 egunekoa izan da.
 - Sarrera eta Jarraipeneko Batzordea medikoa da, eta Osakidetzako Laguntza Psikiatriko eta Buruko Osasuneko Burua (batzorde buru), Arabako Ospitale Psikiatrikoko Zuzendari Medikoa, Arabako Ospitale Psikiatrikoko Zerbitzu Burua, Psikosi Errefraktarioko Unitateko Burua eta Gasteizko Entzutegiko mediku forentse bat daude.
- Balorazioak, gainera, sartutako pertsonen soslaiaren eta ezaugarrien datu ugari ematen ditu, baita zentroaren ezaugarrien eta profesionalen, jarduera eta egitarau terapeutikoen, eusteko eta banaka erantzuteko ahalbideen eta abarren datuak ere

2. Beren borondatez sartzan ez direnen eta dauden protokoloen gainean, uste da laguntza zerbitzuen jarrera garbia eta bakarra dela, eta arazoak eta diferentziak botere judizialaren eta segurtasun indarren interbentzio modu desberdinengatik izaten direla.

Gai horrekin lotuta, beste bat ere planteatzen da: anbulatorioaren judizializazioa. Alegia, paziente bat, anbulatorioz eta epaileen interbentzioaz, bere gogoaren aurkako sarrera ekidin dezakeen tratamendua hartzera behartzen dute. Horren ildotik planteatzen da, jarraibide gisa, Gipuzkoan segitutako eredu, eta eredu hori beste epaitegi eta lurraldeetara hedatzeko aukera, eta horretarako Arartekoari laguntzeko eskatu zaio.

3. Kasuen jarraipena eta profesionalen koordinazioa hobetzeari dagokionez, esaten da *“gure zerbitzu antolakundeen etengabeko ahalegina da, neurri horrek kasuen bilakaeran daukan garrantziaz jabetuta”*. Informazio zehatzagoa emateko, esaten da duela gutxi *“Hasierako Arretako Zuzendariordetzarekin harremanetan jarri direla, koordinazioari dagokionean, hiru lurraldeetara zabaltzeko moduko funtzionamendu protokoloa ezartzen saiatzeko.”*

4. Buruko osasun zentroetako gehiegizko zamaren eta horren ondorioen gainean, gehiegizko zama badela aitortzen da, eta zenbait arrazoi, eta litezkeen konponbideak aipatzen dira, honelaxe:

“Egia da jarduera biziko egoeran gaudela, eta askotan laguntza “arruntaz” bestelako jarduera osagarririk garatzea ezinezkoa egiten dela (lan taldeak, irakaskuntza, ikerketa, jarraipen zorrotzak, eta abar). Sarean artatutako kasu “ez hain larrien” portzentaje handia (jardueraren % 40), nolabait,

arazo edo desorekarik larrienetan esku hartzeko gure ahalbideak blokeatzen ari da

Horregatik, besteak beste, da hain beharrezkoa Hasierako Artapeneko sailarekin harremanetan egoteko lana, maila bakoitzean artatu beharreko egoerak hobeto definitzeko ahaleginean (honetan nabarmen hobetu dugu). Edonola ere, ematen du garbi dagoela giza baliabideen zuzkidura handiagoak izango bagenitu gure jarduerak hedatu eta buruko desorekari larrienenen artapena sustatu ahal izango genukeela; Psikosi Errefraktarioen Unitatearekin gertatu den bezala”.

Esan bezala, Osasun Sailaren erantzuna 2002ko urtarrilaren 31n jaso genuen, eta ondoren, erakunde honek sail horrekin eta senideen elkarteekin jarduten segitu du, ondorengo urteko txostenetan berri emango dizuegarik.

1.1.10. **TXOSTEN BEREZIA, EAeko HEZKUNTZA BEHARRIZAN BEREZIEI EMATEN ZAIEN ERANTZUNARI BURUZ**

2001. urtean bukatu zen gure hezkuntza sistemak behar bereziak dituen ikasleriari ematen dion erantzunaren gaineko ikerlana; aurreko urteko txostenean aurreratu ziren ikuspegi eta xedeak (1.5 atala).

Ararteko erakundeak egindako aparteko txosten hori ekainaren 22an argitaratu zen eta Legebiltzarreko buruari eman zitzaion. Giza Eskubide eta Hiritarren Eskakizunetarako-Batzordean eztabaidatu zuten iragan abenduaren 12an.

Jadanik argitaraturiko txostena denez gero, honako hau testuinguruan sartu besterik ez dugu egingo, garrantzitsuenak iruditzen zaizkigun alderdi kezagarriak azpimarratu eta txostenean egiten diren gomendioak aurkeztu edo gogoratuko ditugu, alegia.

A. Testuinguruan sartzea eta txostenaren ezaugarriak

Txosten monografiko berri honek aurreko beste txostenen ildo beretik hartu behar da kontuan. Talde ahulenen problematika jaso eta horretan sakontzen zuen aurrekoak ere: adineko jendea, pertsona gaixoak, atxilotu edo espetxeratuak, adin txikikoak... Adin txikikoen berariazko arazoan gainean, izan ere, beste bi txosten monografiko aurkeztuak zituen Ararteko erakundeak: bata babesik gabeko haur eta nerabeen zainketari buruz eta bestea adin txikiko lege-hausleekin egiten den lanari buruz. Oraingoan heziketa sisteman eta, bertan eskolatuta, behar bereziak dituen ikaslerian jarri dugu arreta. Jende talde honek, bere berezko ezaugarriak direla-eta, heziketaren eskubideaz egoera egokian gozatzeko arazo bereziak izan ditzake; beste modu batean esanda: kalitatezko heziketa bat lortzeko.

Azkeneko hogeitau urteotan, Euskadin zein inguruko beste leku batzuetan, aldaketa garrantzitsuak gauzatu dira heziketaren arloan eta, hain zuzen ere, "heziketa berezia" izenaz ezagutzen zen horretan. Hezkuntza behar bereziak dauzkan ikasleria ohiko ikastegietan bertakotzeko apustua argia eta orokortua izan da. 1999-2000 ikasturtean behar berezidunentzat hartutako ikasleen % 92,2a ohiko ikastegietan eskolatuta egoteak egiaztatzen du hori. Kontzeptuak, arauak eta antolamendua aldatu dira urte hauetan zehar; ikastegien sarea berregituratu da; lanbide mota eta laguntza-zerbitzu berriak sortu dira...

Eskola ulerkor eta integratzaile baten testuinguruan, heziketaren kontu garrantzitsu bat ikusten dugu, borondate politiko argiaz lan egiten ari da horretan, batzuetan neurri aitzindariak hartuz, arautegi garatu batez, arautegi honi baliabide asko ematen baitzaizkio, erabakitasunez egin dira urratsak... Pertsona hauen zainketa aztertzeke une egokia ematen zuen, ikuspegi kualitatibo hutsetik, eta hori zen txostenaren helburua.

2000-2001 ikasturtean zehar jaso zen informazioa, aztertutako datu estatistiko gehienak aurreko ikasturtekoak izanda ere. Ikasturte horretan, 5.958 ikaslek behar bereziak zituztela pentsatu da; Eskolaurrea, Lehen Mailako Heziketa eta Bigarren Mailako Heziketako ikasleen % 1,9a.

Eusko Jaurlaritzaren 1998ko ekainaren 23ko Dekretuak (uztailaren 13ko EHAA) jasotzen dituen heziketa-behar berezien definizioa eta tipologia hartu dira erreferentzia

nagusitzat lan hau egiteko, heziketa-behar bereziak dituen irakasleriari ematen zaion erantzunaren ordenamendukoa. Honako hau erabakitzen da bertan: *“...eskolatzeko garai batean, edo eskolatzeko guztian zehar berariazko laguntza eta zainketa batzuk behar dituzten ikasleek dituzten beharrak lirateke heziketa-behar bereziak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak izateagatik, portaera-asaldura larriak izateagatik edo egoera sozial edo kultural larri batean izateagatik, adimen-gaitasun handiarekin lotutako egoera pertsonal baten ondorioz berariazko zainketa behar duten ikasleak ere egongo lirateke kasu honetan.”*

Beraz, edozein ezgaitasunarekin (fisiko edo mentala) lotutako heziketa-behar berezietaz gain, testuinguru sozialarekin eta ikaskuntza prozesu berarekin lotuta dauden heziketa-behar bereziak aintzakotzat hartzen ditu duela gutxiko gure arautegiak, gure inguruko herrialde askotan egiten den legez. Eta hori testuinguru handiago batean sartzen da, non ikasleriaren aniztasunari -gure gizartean hazten ari den aniztasuna- ematen zaion erantzuna erronka bat, ezaugarri bat eta heziketa sistemaren xede nagusi bat da, aldi berean.

Erabilitako ikuspegi metodologikoari dagokionez, zeharo kualitatiboa den ikuspegi bat aukeratu da: Europako EFQM kalitate eredua, etengabeko hobekuntza antolamenduen bikaintasuna bultzatu nahi duena. Ereduekin bat etorrita, iturri oso ezberdinak erabili ziren informazio esanguratsua lortzeko, baita elkarrekiko osagarriak ziren teknika ezberdinak ere. Horregatik:

- Gure Autonomia Erkidegoko arautegien testuingurua aztertzen du.
- Pertsona adituek egindako ekarpenak jasotzen ditu, pertsona horiei elkarrizketa pertsonalak egin dizkiegu.
- Hezkuntza Sailaren zerbitzu ezberdinek emandako datu kuantitatiboak ikusteko aukera ematen du.
- Heziketa-behar berezi ezberdinak dituzten pertsonak esandakoa (eskolatzeko bideak) jasotzen du, non eurek bizitzeko prozesuak aztertzen dituzten.
- Galdeketa (Delphi galdeketa) baten bidez lortutako iritzi eta kontsensuak azaltzen ditu, 60 aditu baino gehiagoren laguntzaz.
- Hiru Lurralde Historikoetako eztabaida-talde bakoitzean kezkatzeko arrazoiak eta hobetzeko proposamenak jasotzen ditu, heziketa sisteman duten lanaren funtzioa edo ardurarengatik 28 pertsona bildu genituen horretarako.

Txostenak batzuetan talde jakin baten ikuspuntua edo teknika jakin baten bidez jasotako informazioa azaltzen badu ere, batzuetan erakunde beraren iritzia ere bai (gehigarri, atal edo datu-taula batean), ikuspegi, datu eta ekarpen guztiak jaso nahi ditu, eta kontsensu handiagoa osatzen duten alderdi nagusiak azpimarratzen dituen balorapen orokor bat eginez.

B. Alderdi kezkarriak eta hobe daitezkeenak

Hasierako azalpen hauen ostean, eskubideen ikuspegi bermatzaile batetik, Ararteko erakundeari dagokiona baita, txosteneko alderdirik kezkarrienak azpimarratzen dira, hau da, gure ustez lehentasuna izan behar duten alderdiak.

1. ***Eskolako arautegia eta errealitatearen arteko alde***

Gure Autonomia Erkidegoan ezartzeko arautegiak eskola ulerkor eta integratzaile bat proposatzen du. Hau da, ikasleen aniztasunari erantzuteko eta heziketa-behar bereziak dituen ikasleriaren integrazioa lortzeko gai diren erakundeak. Heziketa-behar bereziak sor ditzaketen egoera ezberdin asko hartzen ditu kontuan, sasoi baterako edo eskolatze guztirako beharrak izan daitezke. Irizpideak, prozedurak, baliabide materialak, profesionalak, laguntza-zerbitzuak eta abar ere ezartzen ditu.

Egindako gauzak eta lortutako aurrerapenak kontuan hartuta ere, errealitatea aztertuz gero, integrazioa eta normalizazioa ez direla beti lortzen ikus daiteke, eta heziketa-behar berezien ardatza osatzen dute bi hastapen horiek. Txostenean agertzen dira eragina duten faktore asko:

- Heziketa-behar bereziak dituzten pertsonak ikastegi jakin batzuetan pilatzen dira, eta honek integrazioa galaraz dezake.
- Behar jakin batzuek jasotzen duten garapen edo ardua eskasa, gaitzespen sozialak eraginda batik bat.
- Heziketa sistema sakabanatu eta konplexu batean, buruzagitza ezartzeko zailtasuna, ikastegiak ehunaka eta ikasgelak eta gizarte eragileak milaka izanez.
- Irakasleria eta baliabide tekniko eta material zehatzen bitartez bat ez datozen erantzunak sortzen dira, eta batzuetan ez da heziketaren munduko jende guztiaren konpromisoa lortzen.
- Joera historikoa -eta gizartearen pentsaera- diskriminatzailea...

2. ***Gaitzespen soziala ez da behar den bezala kontuan hartzen***

Ararteko erakundeak dituen xedeen arteko bat ikerlanari ekitean gure heziketa sistemak marjinaltasunak edo gaitzespen sozialak eragindako heziketa-beharrak zein heinean hartzen dituen kontuan aztertzea zen.

Eusko Jaurlaritzaren 1998ko ekainaren 23ko Dekretu berak jasotzen du, lehen aldiz, kategoria hori heziketa-behar bereziak eragiten dituen arrazoen artean, eta apur bat geroago, 1998ko uztailaren 30eko Aginduan garatzen du: “*egoera sozial edo kultural gaitzetsi batean dagoen ikasleriarentzako jarduera hezitzailea erregulatzen da, baita moldatzeko arazoak azaltzen dituen ikasleriarekin lan egiteko neurriak ere*”. Arauan duela ez asko sartu den azalpen batez ari gara (1998). Talde hori zehazteko zailagoa da beharbada, eta erantzun espezifikoa eska ditzake (indibidualak bakarrik ez, taldekoak ere bai; hauek ez dute beti laguntza edo material espezializaturik eskatzen...).

Talde honi, Hezkuntza Saileko zerbitzu ezberdinei hartutako datuen arabera, heziketa-behar bereziak dituzten beste talde batzuei ematen zaien garrantzia ez zaiola ematen ikus daiteke. Badirudi arautegiaren aurreikuspenak oraindik ez direla nahikoa erabili.

Bistakoa da, gainera, gaitzespen sozialeko egoerak batez ere alde eta ikastegi jakin batzuetan pilatzen direla. Erakunde honen ustez, egoera horren aurrean lehentasunezko arreta orekatzailea eskatzen du horrek.

3. ***Eskolen Sarean arteko ezberdintasunak heziketa-behar bereziak erantzuteko***

Heziketa-behar bereziak dituen ikasleriaren eskolatze datuak zein emaitzen datuak -kalifikazioenak, hobeto esanda- errealitate oso kezkarria adierazten dute: ez dago bidezko

banaketarik ikastegi eta sare ezberdinen artean; ikasle hauek ikastegi jakin batzuetan pilotzeko joera argia dago, batez ere alde eta hizkuntza eredu jakin batzuetako herri-ikastetxeetan; banaketa desorekatu hau ikastegiaren arteko noten ezberdintasunean ere islatzen da; zenbait ikastegi “guetto” bihurtzeko arriskua dago, non integrazioa ezinezkoa izango den...

Sare publiko eta pribatuaren arteko desoreka nabaria da heziketa-behar bereziei dagokionez, eta lurralde, heziketa maila eta hizkuntza eredu guztiak ukitzen ditu. Heziketa-behar bereziak dituen ikaslearen integrazioaren pisua batez ere herri-ikastetxeetan ematen dela frogatzen dute datuek. Eta desoreka askoz ere handiagoa litzateke datuek gaitzespen sozialeko egoerekin lotutako beharrak jasoko balituzte (jatorri atzerritarreko ikasleria edo gutxiengo etniko batena).

Egoera hau zuzentzeko neurriak hartzea premiazkoa dela dirudi. Ikastegi edo ikasgela batean heziketa-behar bereziak dituzten ikasleriaren eskolatze ratio batzuk ez gainditzeko adostasun orokorra dago, eskolako integrazioa posible eta onuragarria izan dadin guztientzako. Aipatutako dekretu berak arrisku hau ukitzen du honako hau esaten duenean: *“Hezkuntza Administrazioak inguru gaitzetsietako ikastegiak leku diskriminatuak ez bihurtzeko kontu handia hartuko du, integrazio eta normalizazioaren hastapenaren kontra doalako”*. Beraz, hezkuntza Administrazioari dagokio baliobideak ekartzea eta horrela izango dela ziurtatzea.

Txostenean egindako zenbait gomendiok hori lortzeko neurriak proposatzen dituzte, eta matrikulatzeko irizpideak zein ikasle jakin batzuen ikastegi aldatetako edo “kanporatzeak” -gutxi gora behera ezkutuan egindakoak- ukitzen ditu. Hezkuntza Administrazioak neurri hauek hartzeko gaitasuna dauka, erakunde honen ustez, diru publikoak ordaintzen baitu sistema ia osoa, publikoa nahiz pribatua izanda, eta guztiek daukate antzeko arau eta hastapenak.

4. Lurraldeen arteko ezberdintasunak heziketa-behar bereziekiko arretan

Jasotako datuek ezberdintasun garrantzitsuak erakusten dituzte heziketa-behar bereziekiko arretari dagokionez. Historiak batzuk azal ditzake (lurralde bakoitzeko zerbitzu, ikastegi edo heziketa-behar bereziekin lotutako elkarleen aurreko bilakaerarengatik, adibidez). Beste ezberdintasun batzuk behar bat berariazko laguntza behar duen heziketa-behar berezi bezala sailkatzeko, edo mota batekoa edo besteko dela erabakitzeko irizpide ezberdintasunengatik izan daitezke. Kasuren batean, ikus daitezkeen baliabideen ezberdintasunak Hezkuntza Sailean dena zenbartzeko orduan, datu-iturri ezberdinetan artean irizpide ezberdinak erabiltzen direlako izan daiteke.

Ulertzeko oso zailak diren ezberdintasunak daude, ordea. Batez ere partehartze tasetan ikusten direnak: biztanleria edo sozio-ekonomiarekin lotutako datuek ezin dute honako hau justifikatu, Araban heziketa-behar bereziak behar dituzten ikasleek ikasleriaren 2,6a osatzen dute, Bizkaian, % 1,6a eta Gipuzkoan % 2,1a. Ikastegi guztien burujabetasunak ere ezin du horrelako ezberdintasunik azaldu. Kasuak detektatzeko ahalmenari egokitu behar zaiola ematen du, baita beharrei erantzuteko eta baliabideak banatzeko irizpide zehatzik ez dagoelako.

5. Erantzuteko gaitasun urria eta eskolako emaitza desegokiak dituzten ikastegiak

Lehenago esan den bezala, kasu askotan gaitzespen egoerak eta heziketa-behar bereziak ikastegi jakin batzuetan pilotzen dira. txostenak xehetasunez aztertzen ditu

eskolako emaitzak -eskolako kalifikazioak, hobeto esanda- ikastegiaren arteko 84 hartuta, eta ikastegiaren guztien batezbestekoarekin konparatzen ditu (lurraldea, titulartasuna edo hizkuntza ereduaren moduko alderdiak kontuan hartuta).

Konparaketak irakasleriak erabakitako kalifikazioetan oinarrituta egiten direla gogoratzea komeni da. Beraz ez dira proba estandar batzuen bidez lortutako emaitzak, ikastegi guztiei irizpide berdinez egokitzeko. Hala ere, ateratako ezberdintasunak esanguratsuak dira, argi eta garbi erabilitako adierazle guztiei dagokienez:

- “nahikoa” kalifikazioaren tasak (kasu batzuetan 20 puntu baino batezbesteko ezberdintasun handiagoa izanik);
- Adin-tasa ez-egokiak (errepikapenek eragindako atzerapena, ikastegi motaren batean % 80ra iristen dena);
- errepikapen tasak (Bigarren Hezkuntzako ikastegietan % 20a baino handiagoa).

Datu hauen arabera, eskola sistemaren gaitasun eta eraginak jatorrizko ezberdintasunak eta defizitak ezin dituztela konpondu argi dirudi. Arrazoiak oso ezberdinak dira, segur aski, eta ezin dira sinplifikatu ikastegiaren baliabideak urriak direla esanez, besterik gabe. Baina badirudi jasotako zenbait datuen arabera, ikastegi hauetarako baliabideen esleipenek (batez ere giza baliabideak) ez dutela kontuan hartzen egoera hori, batez ere maila batzuetan.

Txostenak egoera honen lehen hurbilketa bat eskaintzen du aukeratutako 84 ikastegietako datuak erabilia, eta ikastegi hauei “kritiko” izena eman diezaiekegu. Erakunde honen ustez, ikerketa zehaztuak egin beharko lirateke gero, talde jakin batzuk (etorkinak edo ijitoak, adibidez) ikastegi jakin batzuetan pilatzen direla kontuan hartuta, eta ikastegi horiek segimendu handiago bat eta zuzentzeko neurriak hartzea eskatzen dute segur aski.

6. Hezkuntzaren arloko erkidegoaren konpromisoa lortzeko zailtasunak, heziketa-behar bereziei erantzuteko

Heziketa-behar berezien zainketak ohiko ikastegiei erantzen zaizkien baliabide espezifikokoak eskatzen dituzte maiz. Izan ere, azken hogeitun urteotan baliabide berriak sortzen joan dira, baita lanbide mota berriak ere, laguntza-zerbitzuak egiteko nahiz ikastegi beretan lan egiteko, baliabide mugikorrek ere sortu dira: itsuentzako ikastegiko irakasleria; .Eta hau dena heziketa sisteman sartzen joan da, lanbide askoko eskualdeko lantaldeak; irakasleri aholkularia, orientatzailea, egitekoak irakasteko, pedagogia terapeutikokoa, logopedak, laguntzaileak, fisioterapeutak...

Profesional hauen arteko batzuk eskolako bilakaeran modu egokian sartu direla zalantzan jartzen duten balorazioak ere badaude, balorazio hauek, aldi berean, heziketa mundua osatzen duten guztiek heziketa-behar bereziei erantzutea bere gain hartzearen zailtasuna ere adierazten dute, dena langile espezifikoko edo espezializatuen eskuetan utzi barik.

7. Bigarren Mailako Hezkuntzan aniztasunaz eta heziketa-behar bereziei erantzuteko egoera

Txostenak ez du hezkuntzaren maila edo etapa guztien egoera sakon aztertu nahi. Txosten orokor bat izan nahi du. Hala ere, informazio-iturri guztiek adierazi dute Bigarren

Hezkuntzaren berriazko problematikaren garrantzia eta kezka. Honako hau pentsatzen dugu:

- Bigarren Hezkuntzako ikastegi askok nahikoa ez den erantzun bat ematen ari diote ikasleriaren aniztasunari;
- Heziketa-behar berezien ardura, izan ere, ez dagoela aurreko etapetako antzeko modu eta baliabideez asimilatuta;
- Ikasleri mota jakin batez libratzeko joera dagoela, heziketa ez arautuen baliabideetara bidaltzeko;
- Ikastegiko antolamenduak eta irakasleen ordutegiek ez dutela beti koordinazio pedagogikoak eskatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen;
- Bigarren mailako irakasleria hobeto trebatzea behar dela, aniztasunari begira...

Eskolako emaitzen (eskolako kalifikazioak, mailen errepikapenak, adin ez egokien tasak) datuek iritzi hauek sendotzen dituzte.

Ararteko erakundeari dagokion ikuspegitik, arazo hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan batez ere dira kezagarriak, etapa honek eskolatzeko adinean dagoen jende guztia hartu behar duelako, derrigorrezkoa izateagatik.

8. Heziketa-behar berezien prebentzio eta berehalako zainketaren hutsuneak

Heziketa-behar bereziak dituzten umeak ahalik eta azkarren prebenitu, detektatu, diagnostikatu eta zaintzeko adostasun profesionala dago. Inork ez du zalantzan jartzen detekzio eta zainketa baten garrantzia. Gure Autonomia Erkidegoko arautegi berak lehentasun hau jasotzen du, baita osasun eta gizartearen esparruan komunikazioa bultzatzeko beharrarena ere: *“heziketa-behar bereziak dituzten ikasleen zainketa, identifikazioa eta balorazioa ahalik eta azkarren egiten saiatuko da hezkuntza Administrazioak. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunen zerbitzuen bitartez, foru aldundietako Gizarte Ongizate sailekin eta Osasun Sailarekin harremanetan jarriko da.”* (aipatutako dekretuaren 4.2. artikulua).

Egia da diagnostiko goiztiar eta oker batek arazoak ekar ditzakeela. Hala ere, ia beti izaten da zainketa antolatu edo baliabide jakin batzuk jasotzeko bide bakarra. Txosten berean azaltzen diren bizitzek horrela esaten dute, elkarriketatutako pertsonak zuzenean esandakoaren bitartez, bizitzan eta eskolatzeko prozesuan diagnostikoak eta berekin datorren zainketa izan duten garrantzia erakusten digute.

Gure Autonomia Erkidegoan, izan ere, egoera kontraesankor bat daukagu lehen urteetako eskolatzearen gainean: alde batetik, ez da 0-3 urteetako etapa arautu oraindik; bestetik, ume geroz eta txikiagoak (hiru urte, bi urte, urte bat) sartzen dira hasten dira eskolan.

Eskolatzeko gero eta goiztiarragoa egokitutasunaren irizpideari dagokio lehentasun objektibo bati baino. Ikasgela horiek matrikulazio gutxi, lekua, beste eskari batzuekin hitzarmenak zeuzkaten ikastegietan zabaltzen joan dira, baita langile gehiago behar ez zituzten ikastegietan ere. Gorabehera horiek, jakina, ez datoz beti bat gutxiespen sozialean bizi direnetaz arduratzen diren ikastegiekin, jende honek zainketa goiztiarra gehiago behar badu ere. Txostenak egoera hori berrikusteko beharra gogorarazten du berriz ere.

Ararteko erakundeak lehenago ere adierazi du eskolaurreko lehen zikloa erregulatu eta ezartzeko beharra, baita erakundeen ardura argitzeko beharra ere, “Haurren hezkuntzaren Zabalkuntza bere lehen zikloan Autonomia Erkidegoan” gomendioaren bitartez, Eusko Legebiltzarrerako egindako 1999ko txostenean sartuta dagoena. Ohizkanpoko txosten honetan berriz ere gogoratzen du, heziketa-behar berezientzako lehentasuneko tratamendua gaur egun ez baitago bermatuta.

9. **Zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa eta heziketa sistemaren eta familia eta elkartearen arteko harremana**

Zerbitzu eta profesionalen arteko koordinazioa zein familiarren edo legezko ordezkarien konpromisoa emaitzaren kalitatean eragina duten faktoreak dira, seme-alabak edo ordezkatuak hezkuntzaren prozesuan. Hau, kasu gehienentzat baliaigarria izanik, heziketa-behar bereziak dituzten ikasleentzako askoz ere garrantzitsuagoa da.

Horri buruzko urritasunak jasotzen ditu txostenak informe, hezkuntzako profesionalen eskutik zein famili eta familiarren elkartearen ikuspuntutik. Azken urteotan familien partehartzearen esparruan lortutako aurrerapenei buruzko balorazio baikorrak ere jasotzen ditu.

10. **Jarduera onen balorazioa eta elkartrukea**

Jadanik azaldu den bezala, txostena egitean hartu den ikuspuntu metodologikoa kalitatean oinarritzen da. Atal honetan alderdi txar, kezkarri edo hobe daitezkeenak ukitzen ditugu, behin eta berriz. Eta orokorrean egiten ari gara, derrigor. Hala ere, euskal heziketa sistema ehunaka ikastegik eta milaka ikasgela eta profesionalak osatzen dutela ez da ahaztu behar. Bistakoa da jarduera txarrak dauden moduan, jarduera onak eta jokaera eredugarriak ere daudela aipatutako edozein alderdiei dagokienez: integrazioa, aniztasunari erantzuna, koordinazioa, hezkuntza munduko jendearen konpromisoa, gehien behar dutenentzako lehentasuna, antolakuntza eraginkorra, baliabideen erabilpena... Txostenean, berezko ezaugarri eta xedearengatik, falta dena eta hobe daitekeena gogoratzen da, behin eta berriz. Baina ez dauka zertan beti horrela izan behar.

Gure sisteman gehien kritika daitekeen alderdien arteko bat jarduera onak ez dituela baloratzen ezta zabaltzen ere da, hain zuzen ere. Kasu honetan, adibidez, heziketa-behar berezietan erantzuteko eskolako antolamenduko eredu onak. Jarduera onak edo txarrak, sarriegi, ez dute inolako kanpoko ondorioarik (ez txarrik eta ez onik) jarduera egiten dutenentzat. Hau ez da profesional eta elkarte hoberenen motibazio edo laguntzarako lagungarria izaten eta ez du uzten beste batzuek horretaz ikastea.

C. **Gomendioak**

Txostena, beti bezala, gomendio mordo bat eginda bukatzen da. Kasu honetan hezkuntza Administrazioari zuzendutako 21 gomendio egiten dira, eta bost mailetan sailka daitezke.

- Lehenengo gomendioek, eta segur aski garrantzitsuenak, gure hezkuntza sistemaren antolamendua eta bere lehentasunak ukitzen ditu. Bost proposatzen dira, hain zuzen ere:

- Ikasle gutxietsiaren heziketa goiztiarrari lehentasuna eman, eta ondorioz, Haur Hezkuntzaren 0-3 urteko etaparen erregulazio beharrezko eta larriaren lehentasuna kontuan hartu. (1)
- Diskriminazio positibo argia egon behar da, gaitzespena jasaten duten ikasleriaz arduratzen diren ikastegiei baliabideak esleitzeko. (2)
- 1998ko dekretuaren aurreikuspenek ahalik eta gehien garatu behar dute, baita bere potentzialtasunek ere talde horri erantzun bat emateko. (3)
- Lanbide-hastapeneko ikastegien (HPI) egoerak argitu behar du, baita hezkuntza arautu eta ez arautuaren arteko loturek ere. (4)
- Heziketa-behar bereziak dituen ikasleria orekaz banatzeko neurriak hartu behar dira, “eskolako guettoen” sorkuntza kostatzen ahal kostatzen saiatzeko. (5)

Azken gomendio hau oso garrantzitsua eta konplexua iruditzen zaigu, egungo egoera txarrak berrikusteko zein aurrea hartzeko eta etorkizuneko arazoak prebenitzeko. Hezkuntza Administrazioari dagokio, jakina, beharrezkotzat hartzen dituen neurriak hartzea. Hala ere, gomendioan posible eta egokitzat hartzen ditugun zenbait neurri adierazten ditugu. adibidez:

- ikastegi guztientzat gehieneko eta gutxieneko ratio batzuk ezarri, heziketa-behar bereziak dituen ikasleriari dagokionez;
 - matrikulatzeko arautegiaren berrikuspena, behar diren kasuetan ikasleri honen birbanatze egokiagoa egiteko mekanismo edo tresnak ezartzeko;
 - ikasleria honen ikastegi aldaketan segimendua, kanporatze ezkutua (familien borondatea alde batera utzita) detektatu ahal izateko, eta beharrezko neurri administratiboak hartu...
- Bost gomendio horiez gain, sistemaren antolamendua ukitzen dutena, beste gomendio askok ikastegiak, profesional taldeak, lan prozedurak, integrazioa lortzeko baliabideak, beste gizarte eragileak eta abar ukitzen dituzte. Hemen zerrendatu eta aipatu besterik ez dugu egingo:
- Ikastegien ebaluazioari eta integrazte jarduera onen sustapenari buruz:
 - * Ikastegiek heziketa-behar berezietaz arduratzeko eskaintzen duten zainketa ebaluatu. (6)
 - * Integrazteko jarduera onen onarpena eta zabalkuntza. (7)
 - * Ohiko ikasgelan parte hartu eta elkarlaneko dinamikak. (8)
 - Langile mota jakin baten ahalegin, koordinazio eta berrantolaketari buruz:
 - * Integrazioaren alde egiteko buruzagitza erabiltzeko zuzendaritza-taldee lagundu. (9)
 - * Profesionalen aukeraketa eta trebakuntza espezifikoa, aniztasunari eta heziketa-behar bereziei erantzuteko. (10)
 - * Lanbide “berrien” integrazio hobea eskolaren dinamikan. (11)
 - * Zerbitzuen arteko koordinatzailea. (12)
 - * Bigarren Hezkuntzako ordutegien antolamendua berrikusi. (13)
 - Prozedura eta baliabideen hobekuntzari buruz:
 - * Heziketa-behar berezien detekzioa eta balorazioa. (14)

- * Heziketa-behar bereziak identifikatu eta erregistratzeko irizpideak bateratu. (15)
- * Ekiteko protokoloak eta konfidentziasuna izateko bermea. (16)
- * Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako igarobidea zaindu. (17)
- * Ikastegietako arkitektura-oztopoak kendu. (18)
- * Teknologia berrien erabilpena. (19)
- Gizartearen sentsibilizazioari eta eragileen konpromisoari buruz:
 - * Gizartearen sentsibilizazioa eta heziketaren munduko jende guztiaren konpromisoa. (20)
 - * Familia eta elkarrekin harremana. (21)

1.1.11. **ERTZAINTZAREN ZIEGEN ETA UDAL ATXILOGUNEEN EGOERAREN JARRAIPENA**

1990ean Ararteko erakundeak *Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloguneei* buruzko txosten juridikoa egin zuen. Eusko Legebiltzarrari eta, orokorrean, iritzi publikoari ziega horien egoera eta baldintzak jakinarazi behar zitzaizkion. Izan ere, pertsona atxilotuek hainbat ordu eta, are, egunetan egon behar dute, epai-agintaritzaren eskuetan jartzen diren arte.

Harrezkero, Ararteko erakundeko langileek atxiloguneak bisitatu dituzte, zertarako-eta, orokorrean, aipatutako txostenari jarraipena emateko. Zuzenean egiaztatu dute bertan dauden gomendioen jarraipen maila. Horren ondorioz, arau orokor bezala, bisitetan egiten zena, bereziki, æbakarrik ez bainaæ ziegetarako bulegoei begiratzea zen. 2001ean praktika hori apur batez aldatu da.

1999an azken udal gordetegiak ikuskatu ziren: atxiloketak burutzen ziren eta udaltzaingoei kudeatzen zituzten zentroak bisitatuak zituzten, behin gutxienez, Ararteko erakundearen ordezkariak. Bulegoei buruzko iritzia azaldu genuen æhorren laburpena arartekoaren urteko beharrezko txostenean sartuta zegoenæ, eta orokorrean ondorioztatu genuen ezen euskal udalak ez zirela beren udalerrietan asteburuko atzipen -zigorra betetzea ahalbidetzeko beharrezko aldarazpenak egiten ari. Askatasunez gabetzen duen zigor hori, tradizioko presondegirapen-zigorra ez bezala modu etenean gauzatzen dena, 1995eko Zigor Kodeak sartutako berritasuna da, eta, lege horren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, udal gordetegietan bete daiteke zigortutako pertsonak egoitza duen epai-barrutian presolekurik ez badago. Azpiegitura-gabetasun horretatik zetozen arazoak horri buruzko gomendio orokorrean aztertu ziren. Gomendio hori arartekotza honen Eusko Legebiltzarrarentzako 2000ko txostenean sartu zen.

Ertzaintzaren atxiloguneei dagokienez, egindako bisiten bitartez bertatik jarraitu ahal izan diogu ziegak birmoldatu eta hobetzeko planaren garapenari. Plan hori Herrizaingo Sailak abiarazi zuen gure txostena eta Tortura Prebenitzeko Europako Batzordeak horri buruz ateratako ondorioak ikusita. Ia bulego guztiak berritu dira sail bermatzaile bion irizpide eta gomendioei jarraiki. Hori dela eta, Ararteko erakundeak 2001ean zehar buruturiko esku-harmenek ez dituzte ziegen ezaugarri fisikoak izan ardatz berezi, atxiloketarekin lotuta dauden polizi praktikak baizik. Jarraian laburbilduko ditugu bisita horien ondorioz lorturiko ondorioak.

a) **Erandioko Ertzainetxea**

Ararteko erakundeko bi aholkulari 2001eko irailaren 18an ertzainetxe horretara agertu ziren eta egiaztatu zuten ezen, orokorrean, ziegetarako zonak atxilotutako pertsonak hartzeko baldintza egokiak beterik zituela.

Burdinsarezko atea duen zigor-gela kolektiboaz gain, banakako sei zigor-gela daude, 7na m² inguruko azalera dutenak. Ertz biribileko mentsula dute, hormari altzari bakar gisa datxekiona. Gela guztiek, batek izan ezik, argi naturala jasotzen dute, sabaian aireztapen-sistema dute eta argien bizitasuna erregula daiteke. Atxilotuei burusiak ematen zaizkie. Jakinarazi zigutenaren arabera, burusiok garbitu eta desinfektatzen dira erabili ostean.

Ziegen zonan, zigor-gelez gain, badaude beste bulego batzuk, zehazki, langela bezala hornitutako bi gela (deklarazioa hartzeko, atxilotutako pertsonak eta abokatuak

elkarrekin hitz egiteko eta abartzeko erabiliak), argazki- eta hatz-aipamenak egiteko beste bat eta, azkenik, lekukoaurrekoak egiteko prestaturiko lokal bat. Gure galderei erantzutean, Ertzaintzaren ordezkariak esan zigun ezen adinez txikia atxilotzen dutenean ez dutela zigor-geletan giltzaperatzen: hura zaintzeko leku zehatzik ez dagoela eta, lehenik aipatutako bi geletako batean sartu eta begiratzen dute. Legea urratzen duten adinez txikientzat gela zehatzik ez egotea oso ohiko gabetasuna da EAEko atxiloguneetan, eta hori konpondu behar da.

Elikapenari dagokionean, polizi arduradunak jakinarazi zigun ezen gosaria hurbileko taberna batetik ekartzen dutela eta gainerako janariak otartekoak eta fruta-pieza edo jogurt batek osatuta daudela. Baina askatasunez gabetzea 24 orduetan baino gehiagotan luzatzen denean,. Pertsona atxilotuari janari oso eta beroa ematen zaio plastikozko platerekin batera.

Atxiloketan zeharkako polizi praktikei zegokienean, atxilotua polizi sailetan sartzen den unean miatzeari buruz dauden irizpideen gaineko informazioa eskatu genuen. Azaldu zigutenaren arabera, gorputza zigor-gelan miatzen da, intimitatea errespetatzeko; orokorrean, pertsona atxilotuak erantera behartzen dituzte, baina, inoiz, «*pertsona eta delitu mota*»ren araberrako irizpideari jarraiki, jantziaren gainean miatzen dituzte. Nolanahi ere den, gure solaskideak azaldu du ezen, batez ere, arropa aztertu behar dutela eta pertsona ia ez dutela ukitzen.

Txosten honen VI. kapituluan sartutako gomendio orokorrean azaltzen den bezala, gorputza miatzea erakunde hau kezkatzen duen gaia da. Arartekoaren iritziz, gorputza miatzeko eginbide horrek norberaren intimitaterako eskubideari kalte egitea dakar eta, hortaz, ezin modu ohi eta arauzkoan egin daiteke. Aitzitik, gorputza miatzea bateratzen diren inguruabarren arabera proportziozko eta beharrezko neurria denean bakarrik dago justifikatuta.

Datuak erregistratzeko eta atestatuak egiteko sistemari begira, erakunde honen ordezkariak espediente batzuk berrikusi zituzten ausaz. Haietako bat gazte magrebtar baten atxiloketaren gainekoa zen eta bertan egiaztatu genuen ofiziozko abokatuari egindako deia nabarmen atzeratua zela. Egin-eginean ere, mutila 13 bateko 21:27an atxilotu zen eta gaztigua 14ko 23:00etan egin zen eta deklarazioa 15eko 14:00etan hartu zitzaion. Eman zitzaigun azalpen bakarria interpretariaren bertako laguntzari buruzkoa izan zen. Hura bertara agertzeko eskaera ere 14an egin zen, 12:30ean, hau da, gaztea atxilotu eta 15 ordu geroago.

Ararteko erakundearen ikuspuntutik, aurreko kasuak 103/1999 gomendia behar bezala betetzearen gaineko zalantza sortzen du, Arartekoak Herrizaingo Sailari zuzendu ziona. Orduko hartan erakunde honek Judiziamendu Kriminalari buruzko Legearen 520.1 artikulua eredu gogoratzeaz gain azaldu zuenez, atxiloketaren iraupena laburtu eta behar-beharrezkoa den denborara mugatzea lortzeko, «*argiketa bideratzen duen agenteak hasiera-hasieratik gaztigatu behar dio atxilotutako pertsonari lagunduko dion abokatuari, legelari horrek ofizioz jardungo duen ala hark izendatu duen berdin delarik*». Sailak adierazi zuen gomendia praktikan jartzeko neurriak hartzeko asmoa zuela. Hala ere, ausaz detektaturiko balizkoa ikusita, dirudienez, esan dezakegu ezen oraindik ez dela lortu nahi den helburua lortu, atzerritar pertsonak atxilotzeari dagokionean behintzat.

Horri buruz uste dugu, eta halaxe baieztatu digute polizi agintariek, ezen batzuetan æherriaren arabera beharbadaæ, atxiloketetako interpretarien laguntzak arazoak sortzen jarraitzen duela.

Erandioko Ertzainetxea bisitatzera eraman gintuen gai zehatz bat poliziak adinez txikiak babesteko lanean esku hartzeari buruzkoa zen. Kapitulu honen 1.1.5 atalean azaldu den bezala, Loiuko Zabalotxeko zentrorra lagundu gabeko atzerritar adinez txiki gehiago zihoazela eta, 2001eko une batzuetan zerbitzu horrek gainez egin zuen zelanbait. Horrek zonan elkarrekin bizitzeko arazo batzuk sorrarazi ditu, eta, tamalez, erantzun xenofoboak. Beraien artean bere arriskugarritasunarengatik nabarmendu zen zentrokoak ez ziren pertsonen zentroaren furgoneta bat erretzea. Testuinguru horretan, arartekoak informazio bat jaso zuen, zeinen arabera ertzain batzuek zentro horretan hartutako adinez txikien argazkiak erakutsiko baitzituzten. Eta hori, egia bada, adinez txiki horien osotasunerako arrisku argia ekar dezake.

Ertzainetxera egindako bisitan arazoa azaldu genuen eta gure solaskideak baieztatu zuen ezen patruilei harrera zentroak emandako argazkiak emanak zitzaizkiela, handik ihes egin zuten adinez txikiak aurkitzen saiatzeko bakar-bakarrak baina. Berak ziurtatu zuenez, Ertzaintzak oso argi zuen argazkiek adinez txikiak babestea zutela xede, eta inoiz ez zirela erabili haien kontrako salaketa-balizkoetan. Polizi arduradunak ezin berma zezakeen ezein agentek argazkiak txarto erabili ez zituenik, baina, edozein kasutan, banakako okerreko jokaera izango zen horrelako erabilera. Izan ere, berak detektatuz gero, agenteari zigorra ezarriko zitzaion. Polizi arduradunak, helburu horrekin, konpromezua hartu zuen barneko ikerketa egiteko. Halaber, adierazi zuen ezen zentroak ez ziela argazkirik bidaltzen. Horrek, alde batetik, erakunde honek salaturiko arazoa saihesten zuen; baina, beste alde batetik, ihes egin zuten adinez txikiak aurkitzeko polizi lana oztopatzen zuen. Azken alderdi hori txartzat hartu zuen Ertzaintzaren arduradunak. Ildo horretatik, berak azaldu zuen ezen komenigarria zela zentroak eta poliziak iheskasuetako jarduketara araupetzeko protokolo bat ezartzea.

Ararteko erakundeak interesa agertu zuen, halaber, furgoneta hondatzeari eta Zabalotxeko zentroan eragindako ondoriozko suteari buruzko ikerketa nola zihoan jakiteko. Jakinarazi zitzaigunez, instrukzioak bere bideari jarraitzen zion eta, aurrera astiro zihoan arren, poliziak uste zuen ezen kasua argitzeko zenbait pista sendo zituela. Gure iritziz, dauden erantzukizunak argitzea ezinbestekoa da, egileen zigorgabetasun-sentsazioak beste jokaera xenofobo batzuk agertzea erraz baitezake.

b) **Laudioko Ertzainetxea**

Bisita 2001eko irailaren 20an egin genuen eta bertan egiaztatu genuen ezen pertsona atxilotuentzako gelen baldintzak bat zetozela Herrizaingo Sailak ezarriko ereduarekin eta horren xedearekin.

Kasu honetan, ertzainetxeak banakako lau zigor-gela eta kolektibo bat ditu. Zigor-gela kolektiboan arreta jarrazten du atxilotuak etzan ahal izan daitezen balio duen ohiko mentsula ez egoteak. Ziegen zonak ez du eguzki-argirik jasotzen.

Aurreko kasuari buruz aipatu dugun bezala, Laudioko Ertzainetxeak ere ez du adinez txikiak biltzeko prestatuturiko lekurik. Arau orokorra pertsona horiek ziegetan sartzea izan arren, polizi arduradunak baieztatu zuen ezen zigor-gelak erabiltzen zirela adinez txikiok biziki arriskutsuak zirenean. Iritzi horren subjektibotasun saihestezina dela eta, praktika eztabaidagarria izan daiteke eta erakusten du ezen beharrezkoa dela Ertzaintzak adinez txikiak atxilotzearen gainean irizpide finko eta objektiboak ezartzea.

Norbera biluzik miatzeko erabilitako irizpideei buruz, gure solaskideak ziurtatu zuen ezen ez zela hori kasu guztietan egiten: egozten zen delituaren arabera zela argitu

zuen. Horrela, esate baterako, delitu hori lapurreta bada, pertsona atxilotua arroparen gainetik miatuko dute eta, droga-trafikoaz akusatzen badute, erantzera behartuko dute gorputza miatzeko.

Ararteko erakundearen aholkulariek agiritegietan egin zuten laginketa azkarrean ez zuten legelaria edo interpretariak bertaratzeko eskabidean atzerapenik ikusten zen atestaturik aurkitu. Horri buruz Ertzainetxeko arduradunak esan zuen ez zutela arazorik izan, baina egia zela atxilotuak ziren pertsona etorkinen kopurua oso txikia zela. Bizkaiko Foru Aldundiak Orduñako zentrorra lekualdaturiko atzerritar adinez txiki lagundugabeei zegokienean, esan zigun ezen gaztelaniaz ez zekitenen kasuak arabieraz zekien zentro horretako hezitzaileetakoren batek lagunduta konpondu eta ebatzi zirela.

Beste alde batetik, berriz ikusi genituen adinez txikien talde hori sartuta zegoen atestatu guztiak. Laudioko Ertzaintzaren ustez, haiek etortzeak herrira gatazken halako gehikuntza bat ekarri zuen, baina ertzainek ez zekiten Orduñako biztanle batzuen gaitzespen-jarreraren berririk. Arartekoak, aldiz, jarrera horien berri izan zuen. Adinez txikiak ziren etorkinen aurkako salaketarik gehienak zentroko hezitzaileengandik eurengandik eta beren ikaskide magrehtarrengandik zenbait eraso jasan zituzten bi adinez txiki ghanatarrengandik zetozen. Kapitulu honen 1.1.5 atalean agerrarazi den bezala, arartekoak esku hartu zuen bi adinez txiki horiek bizi ziren egoera kezagarria konpontzen saiatzeko.

Ertzainetxe honetan ere, babes-zentroan harturiko adinez txikiek ihes eginez gero jarduteko era araupetuko zuen protokolo baten hutsunea sentitzen zen.

Polizi argiketak egiteari buruzko gaira itzulita, ikusi dugu, Ertzaintzaren bulegoetan aurreko batzuetan ikusi dugun bezala, ezen atxiloketaren zioei buruz eskubideak eskaintzeko aktan geratzen den isla oso urria dela. Aipatutako Judiziamendu Kriminalari buruzko Legearen 520. artikularekin bat etorririk, ukitutako pertsonari jakinarazi behar zaizkio «*egozten zaizkion **egitateak** eta bera askatasunez gabetzearen **arrazoia***». Hala ere, argiketaren agirietan, hura akusatzen duten delituaren izena bakarrik aipatzen da. Baliteke atxilotuari ematen zaizkion ahozko azalpenetan informazio hori zabalduta egotea, baina, legeriarekin bat etorririk, bermatu behar da ezen pertsonak egitateak ezagutzen dituela, ez horiek legean duten kalifikazioa. Egitateak egozten zaizkionari eman zaizkion datuak aktaren lehenengo ahapaldian idatziz agerraraziz berme hori indartzea lortuko litzateke.

c) **Donostiako Ertzainetxea**

Arartekoaren bi aholkularik Ondarretako Ertzainetxea bisitatu zuten 2001eko urriaren 3an. Aurreko kasuetan bezala, ziega-zonaren diseinua haren helbururako egokia da.

Zigor-gelek, bigarren sotoan daudenek, neurri zuzena dute. Banako sei zigor-gela eta taldekako bat daude. Taldekakoa, esan zigutenaren arabera, oso gutxitan erabiltzen da. Alderdirik deigarriena, beharbada, instalazioen artapen-egoera txarra zatekeen. Hormen pintura leku batzuetan zipriztindurik zegoen eta ugari ziren orbanak, bai harresietan bai lurrean. Itxuraz, ez zuten hura behar bestetan garbitzen.

Atxilotua polizi sailetan sartzten den unean miatzearen gainean dauden irizpideei buruz, gure solaskideak ziurtatu du ezen inoiz ez zaiola pertsona atxilotuari bere barruko jantzia erazten eta inoiz ez dela haren gorputz-barrunberik ikuskatzen, eta ez dutela hura iraingarriak izan daitezkeen egoeren pean jartzten. Alabaina, ari garen bisitaren

ondoren lorturiko informazioen arabera, bi ertzain kondenatu zituzten atxilotu bat era degradatzailean tratatzeko delituaren egile gisa, ertzainok hura eranztera eta flexioak egitera behartu baitzuten (Zigor Kodearen 173. artikulua). Hori dela bide, pentsa daiteke ezen eremu horretan jarduteko arauak ez direla behar bezain irmoak (txosten honen VI. kapituluan sartutako gomendio orokorra).

Datuak erregistratzeko eta atestatuak egiteko sistema berrikustean, Arartekotzaren aholkulariek berriro interesa agertu zuten ukitutako pertsonari atxiloketaren zergatiaz ematen zitzaion informazioa jasotzeko. Egiaztatu zutenez, *Eskubideak irakurri eta erabiltzearen gaineko aktan*, Ertzaintzako talde guztientzako amankomunekoa den aktan, delituaren lege-kalifikazioa bakarrik ageri da. Bertan azaletik ageri denez, atxilotuak «*eskubidea du: 1.- atxiloketaren karien gaineko informazioa jasotzeko*». Hala ere, erabilitako ereduak egotziari bere eskubideak erabiltzeko egiten dituen adierazpenak agerrarazten uzten dion beste atal batzuetan gertatzen ez den bezala, aktaren lehenengo puntuan ezin da azalpenik sartu hura kautelaz askatasunez gabetzea ekarri duten egitateei buruz. Seguraski, lehenengo atal horren eremua zabaltzea ez da zaila ikuspuntu informatikotik, eta, eremu hori zabaldua, pertsona atxilotuak jasotzen duen informazioaren gaineko berme handiagoa lortuko litzateke.

Polizi zerbitzua hobetzeko proposamen hori eta beste batzuek aztertzeko, Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailaren arduradunekin biltzea eskatu du, baina orrialdeok idatzi ordurako ez da erantzunik jaso.

1.2. GURE ERKIDEGOKO EZGAITUEK GIZARTERATZEKO DITUZTEN AUKEREN GAI NEAN EGINO DIREN HURRENGO AZTERLAN MONOGRAFIKOAK

Iazko txostenean aurreratu zenez, minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko lan monografikoa egiteko asmoa zegoen, ahulak diren gizar-teko taldeen egoera sakon aztertze-ko eta hobetze-ko lehentasunezko ildoarekin bat etorrita; izan ere, horretan oinarritu dira erakunde honek egin dituen azken ohiz kanpoko txosten gehienak.

Arartekoari hainbat bidetatik azaldu zaizkio minusbaliatuen arazo bereziak –aldian behin edo sarritan–:

- Norbanakoek edo elkarteek hainbat gairen gainean jarritako kexen bidez, adibidez, honako hauetaz: hirigintzako arkitektura-oztopoak, balizko batzuei emandako zerga-tratamendua, lanera edo etxebizitzara sarbidea izateko aukerak, minusbaliotasunak balioesteko sistemak edo irizpideak...
- Azken urteotan kaltetutako elkarteekin, familiekin eta laguntzako taldeekin izandako bileretan.
- Aurreko txostenetan, zenbait gai aztertzean: irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak oinarritzko unitateetan –oinarritzko unitateen gaineko txostena–, lanean hasteko aukerak –buruko gaitzak erkidegoan duen arretari buruzko txostena–, eskoletan txertatzeko aukerak –hezkuntzako premia berezien gaineko txostena–.

Orain arte, arazo horiei eman zaizkien erantzunak, oro har, zati batekoak izan dira: kexa jakin batzuk izapidetzea, elkartei laguntza eta lankidetzat ematea, ofizio-ko jarduerak hirigintzako arkitektura-oztopoen gainean, minusbaliatuei zuzendutako zerga-politikari buruzko gomendio orokorra... Alderdi horietako batzuetan –esate baterako eraikin publikoen irisgarritasunari lotutako alderdietan–, agerian geratu da oztopoak ditugula errealitatearen jarraipena egiteko eta ebaluatze-ko, eta, halaber, komenigarria dela irizpideak edo tresnak eskuragarri izatea lana errazte aldera.

Txosten monografikoak sakon eta ikuspegi orokorrako batetik heldu nahi zien gai horietako batzuei, eta, orobat, beharrak, aukerak eta hobetu beharreko alderdiak azpimarratu nahi zituen. Alabaina, arazo argia zegoen ikertze-ko eremua mugatzeko, iazko txostenak zioenez.

Honezkerok, azaldu dira zeintzuk diren minusbaliatuek Arartekoari maizen azaldu dizkioten arazoak: oztopoak, zerga-arloa, lanerako sarbidea, etxebizitzarako sarbidea, minubaliotasunaren balioespina. Horrez gainera, badira beste arazo batzuk, horiek bezain garrantzitsuak direnak: errehabilitazio fisiologikoa, arreta goiztiarra, egoitzetan ostatu hartzea, laguntza teknikoa, arreta informala eta zainzaileen arazoak... Ematen zuen ezinezkoa izango zela guztiei heltzea, edo, behintzat, guztietan sakontzea. Horrela, bada, erakunde honek hasieran azaldu zituen oinarrietan, ahalegina egin zen azterlanak sektoreak dituen arazo-ko ikuspegi orokorra eskaini zezan eta bereziki lehentasunezko-ko jotako arazo zehatz batzuetan edota gehien azpimarra ditzakegun arazoetan sakontzea. Adibidez, arazo hauetan:

- irisgarritasuna hiriko ingurunean eta, batez ere, zerbitzu publikoak dituzten erakinetan;

- zerga-arloa: tratamendua, zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta (zergakoak eta ez zergakoak ez direnak);
- lan-merkatu iristea (lanbide-heziketa, lanpostuen erreserba, kontratazioa sustatzea, autonomo bihurtzeko laguntzak, zentro bereziak...);
- etxebizitza: etxebizitza erostea eta egokitzea.

Eta, aurretiazko oinarri horietatik abiatuta aurkeztuko ziren lan-proposamenetan, lan-eremua ahalik eta gehien zehazteko eskatu zen.

Lortutako erantzunak eta hainbat ikerketa-talderekin izandako harremanek zalantzan jarri zuten lanaren bideragarritasuna, asmo handikoa delako; eta komenigarritzat jo zen berriro antolatzea, aztertzeke eremuak mugatuz, eta gaiak ezberdinduz. Hala, beraz, lana gai bitan oinarritzea eta helburuak hobeto mugatzea erabaki da.

Horrela, bada, lehenengo ikerketa-eremua **eraikin publikoetako irisgarritasuna** izango da. Eta, azterlanaren helburuei dagokienez, honako hauek lortu gura dira:

- EAEko udalerrietan eraikin publikoetatik arkitektura-oztopoak kentzeko zer motatako plangintza eta proiektu dagoen jakitea.
- Eraikin publikoen irisgarritasun-maila ebaluatzeke tresna egitea, indarreko legeriarekin bat etorrita (Irisgarritasuna Sustatzeko Legea eta eraikin publikoen irisgarritasunaren gaineko arau teknikoak garatzen dituen Dekretua).
- Irisgarritasun-maila ebaluatzea gehien erabiltzen diren eraikin publikoen lagin batean.

Ikerketa-lana egiteke ardua, kasu honetan, Dokumentazio eta Azterlanen SIIS Zentroari esleitu zaio, eta 2002. urtean txostena amaitu ahal izango dela uste da.

Bigarren ikerketa-eremua gure Erkidegoko **minusbaliatuek lan-munduan txertatzeko dituzten aukerak** izango dira. Hauxe lortu gura da:

- Gure hirian lana sustatzeko neurriak noraino aplikatzen diren jakitea eta beste testuinguruetakoe neurriekin erkatzea.
- Minusbaliatuen lanaren kalitatea aztertzea.
- Gizarteratzeko neurriei heldu dieten kontratatuen eta enpresa kontratatzaileen ezaugarriak aztertzea, lan-munduan txertatzea errazten edo zailtzen dituzten eragileak ikertzeke .

Ikerketa-lana orain dela gutxi esleitu zaio Datlan S.L.ri, eta, seguru asko, 2002. urtearen zati handi bat beharko da hori prestatzeko. Litekeena da azken txostena Eusko Legebiltzarrari aurkeztu ahal izatea urte honen amaieran edo datorren urtearen lehen hiletan.

1.3. GENERO INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEI ERAKUNDEEK EMAN BEHARREKO LAGUNTZARI BURUZKO HURRENGO TXOSTEN BEREZIA

Emakumeen aurkako indarkeria –horixe baita emakumeek jasaten duten diskriminazio egoeraren adierazpen deigarriena- gizarte arazo larria da. Behin arazoa pribazitatetik ateratzen denean (tradizioz pribazitatean mantendu izan baita), agintari publikoak buru-belarri inplikatu behar dira indarkeria desager dadin edo, bestela esanda, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lor dadin. Era berean, Arartekoak, legeak eman dion betebeharra betetzeko, beharrezkotzat jotzen du administrazio publikoen inplikazioa gainbegiratzea eta prebentzio zein indarkeria jasan duten emakumeei eskaini beharreko laguntza bultzatzea, hala behar izanez gero.

Beste ikuspuntu batetik argi eta garbi dago sexu indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumeek bulnerabilitate egoera berezian dagoen kolektibo bat osatzen dutela. Arrazoi horregatik, erakunde garantista horrek arreta berezia eskaini behar die beharrian gehien duten gizarte taldeei.

Bi alderdi horiek bat egin dute txosten monografiko bat egin beharra erabakitzerakoan: *Genero indarkeria jasan duten emakumeei Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeek aldetik eman beharreko laguntza.*

Aspaldion, erakundeek –Estatu eta Autonomietakoak- oso nortasun desberdineko erantzun neurriak antolatu dituzte genero indarkeriaren aurrean: lege aldarazpenak, berdintasunerako planen onespena edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeei laguntza eskaintzen dien zerbitzu bereziak martxan jartzea. Beste alde batetik, EAEn, erantzunak ez dira berdinak izan udalerrri edo lurralde guztietan, ez denboran, ez intentsitatean ez deseinuan.

EAEn aurrera eraman diren ekimenak zein desberdinak izan diren ikusita, komenigarria iruditzen zaigu indarkeria jasaten duten emakumeei administrazio desberdinek eskaintzen dieten zerbitzuei (laguntza juridikoa, psikologikoa, harrera etxeak, eta abar) buruzko informazio guztia sistematizatzea, zerbitzu horien kalitatea eta emakumezkoen beharrianei egokitzen diren baloratzeko. Memoria hau idatzi den unean, proiektatutako txostenaren egoera hau da: oinarriak idazten ari dira, gero kontratazioa adjudikatzeko.

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATU ETA GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANAK SENDOTUKO DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK

2.1. LANKIDETZA-HARREMANAK TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN

Gure Erkidegoko gizarte taldeekiko lankidetzarako gogoia 2001.ean ere azaldu da, gizarte eragileekiko harreman sistematikoei eutsi egin baitzaie ordua ere. Bereziki, egoera latzean dauden pertsonen laguntzen edo era askotako gizarte-arazoei irtenbideak ematen diharduten elkarteekin, antolakuntzekin eta taldeekin: giza eskubideen defentsarako taldeak, atzerrian sortutako pertsonen laguntzekoak, askatasunaz gabetuta daudenei edota bazterketa-arazoak dauzkatenen laguntzekoak, burutik gaixorik daudenen senideak...

Aurreragoko txostenetan behin eta berriro esan dugun bezala, Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batentzat, benetako gizarte-antena gisa jardun dezakete horrelako elkarteek: beste era batera, inork igarri gabe iragan litezkeen arazoak eta egoeran antzemateko eta jendaurrera azaltzeko bide ematen duten sentsoreak. Izan ere, sarri askotan, defentsa edo babes beharrik handiena daukaten pertsonak izaten baitira erakundeetara gutxienetan jotzen dutenak: dela halakorik dagoenik edota zer eskubide daukaten jakin ere ez dakitelako, dela oinarritzko gizarte-gaitasunik ez daukatelako, edota alde aurretik izaniko esperientzia negatiboen ondorio den uzurtasunarengatik, erakundeenganako, edo arazoei irtenbidea emateko euron borondatearen edo gaitasunaren inguruko konfiantzarik ezarengatik... Kontua da pertsona horietako askok ez dituztela beren kezak aurkezten hala egin dezaketela ez dakitelako, edo nola egin ez dakitelako.

Urteotako eskarmentuak erakutsi digunez, gure gizartean marjinalak diren edo bereziki erraz eraso dakiekeen sektoreen eta Ararteko erakundearen modukoaren arteko bitartekaritzan gako gerta daitekeen zeregina gara dezakete hainbat elkarte eta taldek, eta biztanle horiengan dauzkaten eskubideen eta istiluak konpontzeko bideen kontzientzia areagotu egingo dute beraiengan, beraien errebindikazioak adierazteko tenorean laguntza emanez, administrazioek hiritarrei zor dieten zerbitzu arduratsua exijituz eta, horrela, erakundeekiko konfiantza handiagoa eta gizarte-kohesio handiagoaren alde eginez.

Gure Erkidegoan dauden elkarteak, taldeak eta antolakuntzak hainbeste izanik, gizartearen bizitasuna agerian geratzen da eta, horrekin batera, erronka piztuta dago lankidetzarako nolabaiteko harreman egonkorra izan nahi izanez gero beroriekin. Gure kasuan, eta mugak kontuan hartuta, lankidetzarako gure gogoia errealitate bihurtarazteko ahaleginetan iraun dugu, erabili ohi ditugun bide osagarrien bidez:

- Baiezko erantzuna eman diegu haien arazoen eta proposamenen berri eman nahi izan diguten elkarte eta talde guztiei;
- Urteak joan urteak etorri, nolabaiteko harremanak mantendu izan ditugu alde aurretik gurekiko harremanetan zeuden taldeetariko asko eta askorekin, hori egiterik izan dugun guztietan;
- Haien lana, bereziki arazotsuak diren edota une horretan gure lanaren xede diren sektoreekin garatzen dituzten talde jakin batzuekiko harremanetan hasteko ekimena hartu dugu;

- Antzeko interesak edo jarduketa-esparruak dauzkaten elkarteen arteko koordinaziorako plataformak izan direnetan, aprobeixatu egin dugu.

Horrela, 2001.ean zehar, bizitasun maila ezberdineko lankidetzaharremanak eduki ditu Ararteko erakundeak gizarte-ekintza ondoren zerrendatuta datozen eremuetan garatzen duteneko elkarrekin:

- Hezkuntza behar bereziei erantzunak ematen;
- Burutik gaixorik dauden pertsoneri eta beraien senideei laguntza ematen;
- Babesik gabeko adin txikikoei eta adin txikiko lege-hausleei laguntza emateko diren zerbitzuen kudeaketan;
- Espetxeratuak kartzelatik ateratzeko edota espetxeratuak hurbilago ekar ditzaten lortzeko ahaleginetan;
- Burutik gaixorik dauden pertsonen tutoretzan;
- HIESa duten pertsoneri laguntzen eta harrera ematen;
- Babesik gabe dauden umeak eta nerabeak familietan hartzen;
- Giza eskubideen defentsan eta berorien urratzearen salaketetan beste herri batzuetan;
- Hezkuntzarako eskubidearen defentsan;
- Hizkuntza-eskubideen eta euskararen erabilpenaren defentsan;
- Sorlekua atzerrian duten etorkinen gizarteratzean;
- Drogamenpekotasun-arazoak dauzkaten pertsoneri laguntzen;
- Hirugarren munduko herrien garapenaren alde eta beraiekiko solidaritatean;
- Eskubideen defentsan eta gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsoneri laguntzeko egitarauen garapenean;
- Ijitoen taldearenak diren beharrianen planteamenduan eta berorientzako erantzunean;
- Sasoikako langileei eta beraien senideei laguntzen;
- Hurbiltasun fisikotik edo norberaren ezaugarrietatik eratortzen diren beharrian komunentzako erantzunean;
- Gutxiengo etnikoen edo talde marjinalen gizarteratzean;
- Gizartearen kohesioan eta errehabilitazioan, bereziki deprimituak diren alderdietan;
- Elkarrizketarako formulen bidezko bakezaletasunean eta istiluentzako irtenbideetan;
- Emakumeen eskubideen defentsan;
- Terrorismoaren biktimeentzako laguntzan edo beraien eskubideen defentsan;
- Minusbaliotasun ezberdinei eman beharreko gizarte-erantzunean;
- Tratu txarren prebentzioan eta tortura egoeren salaketan;
- Pertsona marjinaletan eta familiarren aldetik laguntzarik gabekoen gizarte eta osasun-urgazpenean;
- Lanbide-talde ezberdinen defentsan.

Kasu askotan (elkarrekin eskaerei emaniko erantzuna, talde batekiko harremanen hasiera edota koordinaziorako foroetan izatea) zuzenak izan dira harremanak eta horrek topaketaren edo bileraren bat egitea ekarri du berekin. Beste batzuetan, berriz, aurreko urteetan edota keza zehatz baten kudeaketaren eraginez, hasiera emaniko harreman

batzuei eman zaie jarraipena eta euste horrek ez du beti bilerarik egin beharrik eragin eta batzuetan nahikoa gertatu da informazioa, ahoz zein idatziz, elkartrukatzea edota ekitaldiren batean parte hartzea, materialak edo agiriak bidaltzea...

Batera edo bestera, bide batzuk edo beste batzuk erabili direla, eta jadanik adierazita dauden mugak izan direnak izanik ere, azken urte honetan zehar, ondoren zerrendatuta datozen taldeekin, elkarteekin eta antolakuntzekin behinik behin, izan dira bilerak, edota informazioen, materialen eta lankidetzarako formulen trukea gauzatu izan da:

- ACABE
- ACNUR
- ADSIS-Fundazioa
- Afrika Etxea
- Agintzari
- Alaiki
- Aldaika
- Aldarriketa
- Alind
- Amnistía Internacional – Nazioarteko Amnistia
- APNABI (Ume Autisten Gurasoen Bizkaiko Elkarte)
- Aransgui
- Arnasa
- Ascate
- Aldapa – Aldapa Elkarte
- Asociación de amigos del Sáhara - Saharako lagunen elkarte
- ASUPE Elkarte
- Bizilan Elkarte
- Asociación de Bizkaia de Padres y Madres Separados (ABIPASE) Guraso Bananduen Bizkaiko Elkarte
- Asociación de Chinos en Euskadi –Txinatarren Euskadiko Elkarte
- Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana – Giza Duintasunaren Defentsarako Elkarte
- Denon Artean Elkarte
- Asociación de familiares de usuarios del centro de día Bizia – Bizia eguneko zentroaren erabiltzaileen elkarte
- Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas (AGIPAD) - Drogen Abusuaren Ikerketarako eta Prebentziorako Gipuzkoar Elkarte
- Asociación Guipuzcoana de Partos Múltiples (AGIPAMU) – Erditze Anitzen Gipuzkoar Elkarte
- Igon Elkarte
- Juana Mugarrieta Elkarte
- Asociación de Mujeres de Romo – Erromoko Emakumeen Elkarte
- Asociación de padres-madres separados de Gipuzkoa – Guraso bananduen Gipuzkoako Elkarte
- Asociación Pro Derechos Humanos - Giza Eskubideen aldeko Elkarte
- Asociación para la defensa de la dignidad humana – Giza Duintasunaren defentsarako elkarte

- Roteta Elkartea
- Asociación Secretariado General Gitano – Ijitoen Idazkaritza Nagusiaren Elkartea
- Asociación de Servicios de Iniciativa Social Adsis-Bestalde – Adsis-Bestalde Gizarte Ekimenerako Zerbitzuen Elkartea
- Asociación vasca de salud mental – Buru-osasunaren euskal elkartea
- San Frantzisko, Zabala eta Bilbao La Vieja auzoetako elkarteak eta laguntza-taldeak.
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Beste herri batzuetako giza eskubideen defentsarako elkarteak
- Torturaren aurkako elkarteak edo taldeak
- HIESaren aurka borrokatzeko elkarteak: HIESaren aurkako Gipuzkoako Hiritarren Elkartea. HIESaren aurkako Bizkaiko Batzordea, Errotatxo, GHAT, Harri-Beltza, Hies-Ekimena, Txo-Hiesa, T-4, HIESaren aurkako Arabako Batzordea
- Minusbaliatu fisikoen elkarteak
- Hainbat ikastetxetako ikasleen gurasoen elkarteak eta federazioak
- Hirigintza egitarauak, ingurugiroarekin loturiko arazoek, zerbitzu-sarearen akatsek eragindako auzokideen elkarteak (Aldapa, Errota, Zaharra, Abanto eta Zierbena, Uliá, Zuatzaurre, Iturrialde Elkartea, La Salleko auzokideak, Telefonía mugikorretarako antenak urruntzearen aldeko Durangoko, Iurretako taldea, Bidebietako auzokideen etxebizitzaren aldeko batzordea, Azkorrigena Plataforma...)
- ASPACE
- Aspanovas
- ATEA
- Atzegi
- Bakeaz
- Berriztu
- Besarka, harrera eta adopzioetarako Arabako elkartea
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidegintza
- BIGE
- Bilbo-Etxezabal
- Bitarte
- Lurralde ezberdinetako Caritas
- CEAR (Comisión de Ayuda al Refugiado) – CEAR (Errefuxiatuei laguntzeko batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Era Berri taldea
- Adarra Pedagogia-Taldea
- Colectivo de Víctimas del Terrorismo del País Vasco – Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Taldea
- Comisión de enseñanzas especiales de BIGE – BIGEko irakaskuntza berezien batzordea
- Hiru lurraldeetako HIESaren aurkako batzordeak
- Toki ezberdinetako jabeen eta auzokideen komunitateak (Getxo, Bilbo, Durango, Iurreta...)

- Hainbat ikastetxetako eskola-kontseiluak
- Consejo de la Juventud de Euskadi – Gazteriaren Euskadiko Kontseilua
- Bilbao La Vieja, San Frantzisko eta Zabalako errehabilitazioaren aldeko taldeen koordinadora
- Etorkinei laguntzeko Harresiak Apurtuz GKEen koordinadora (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Cruz Roja, Hegoa, UGT, SOS-Racismo, Asociación de Chinos en Euskadi, Asociación de Senegaleses, Etorkinekin Bat...)
- Garapenerako GKEen koordinadora
- Gurutz Gorria
- Denon Artean
- Hainbat sindikatu, lanbide talde eta elkarte
- EDEX
- Egailan
- Eguzki
- Ehlabe-Lantegi Batuak
- EKI
- Ekimen
- Ekintza
- Elkarri
- Emankor
- Equipo de Comunicación Educativa – Hezkuntza Komunikaziorako Taldea
- Escuela Diocesana de Educadores de T.L. Atsedeen – T.L. Atsedeneko Hezitzaileen Elizbarrutiko Eskola
- Euskal Naturista Elkartea
- Toki ezberdinetan atxiloturik edo espetxeraturik dauden pertsonen senideak
- Ume onkologikoen elkarteen federazioa
- FEDEAFES (Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares de Enfermos Psíquicos – Gaixo Psikikoen Senideen Elkertaeen Euskadiko Federazioa) eta federazio horretan sartuta dauden elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Ikasleen gurasoen elkarteen federazioa
- Minusbaliatu fisikoen Bizkaiko federazioa
- Sartu federazioa
- Federación vasca de asociaciones de sordos-Euskal Gorrak
- Foronda
- Ametzagaña Fundazioa
- Eragintza Fundazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Haurralde Fundazioa
- Kutxa Fundazioa
- Novia Salcedo Fundazioa
- Peñascal Fundazioa
- Saiatu Fundazioa
- Síndrome de Down-Federación Vasca Fundazioa
- Fundación tutelar de enfermos mentales de Álava – Burutik gaixo daudenen tutoretzarako Arabako Fundazioa

- Gorabide Tutoretza- Fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gautena
- Gaztaroan Ekin
- Gazte Leku
- Gernika Gogoratzuz
- Gesto por la Paz
- Gizaberi (Gizarte-Hezitzaileen Euskadiko Lanbide-Elkartea)
- Gizalan
- Goiztiri
- Gorabide
- Greenpeace
- Oposizioegileen, bitartekoen, funtzionarioen eta abarren taldeak
- Hainbat arazo daudeneko ikastetxeetako ikasleen gurasoen taldeak
- Lankidetzaren egitarauen zioz edo haien arazoak hedatzeko, beste herri batzuetatik gurrera datozen pertsonen taldeak
- Gurasoak
- Hegoa
- Hezikintza
- Hezilan
- Hezkide Eskola
- Hirugarren Mundua eta Bakea
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia
- Hontza (drogaren menpekoei laguntzeko zentroa)
- Iniziativa Gitana
- Institutos de Reintegración Social de los distintos territorios (IRSE) – Bergizarteratzeko lurraldeetako Institutuak
- Intermon
- Iturralde
- Izan
- Izangai
- Kabia Elkartea
- Kalé dor Kayikó
- Komite Internazionalistak
- La Madrasa
- La Salle
- Lahar Elkartea
- Lorratz Giza Elkartea
- Haur Hezkuntzaren defentsarako mahaia (hainbat elkartek eta sindikatuk osatua)
- Intolerantziaren aurkako mugimendua
- Nuevo Futuro
- ONCE
- Oinarrian
- Orereta Bake Taldea
- Ortzadar
- Pastoral Penitenciarria

- Zorroaga Patronatua
- Espetxeratuaren aldeko Telefónica plataforma
- Bakea Orain bakearen aldeko hiritarren plataforma
- Txagorritxuko zaintze bereziko unitatearen aurkako taldeen plataforma
- Gasteizera Plataforma
- Martutene Plataforma
- Toki ezberdinetako oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak
- Hainbat ikastetxetako irakasleak eta gurasoak
- Proyecto Hombre – Gizakia Proiektu
- Saharako Errepublikako Ordezkariek
- Salesiarrak
- Salhaketa
- Santurtzirantz ekimena
- Senideak
- Hezkuntza zerbitzuak (PAT, hezkuntza bereziko zerbitzuak, IDC, udal zerbitzuak...)
- Sindikatuak edo sindikatu-atalak (ELA, STEE-EILAS, UGT, UAGA...)
- Sortarazi
- SOS-Racismo lurralde ezberdinetan
- SOS-Víctimas
- Suspergintza
- Susterra
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Terciarios Capuchinos
- Turnos de asistencia penitenciaria de los colegios de abogados (TAP) Abokatuen elkargoetako presondegi-urgazpenerako txandak
- Unesco Etxea
- UNICEF
- Uribe-Kosta
- Xera
- Zabalik

Ararteko erakundeak berak eginiko lan monografikoaren esparruan eman zaio hasiera, edo eman zitzaion bere egunean, elkarteekiko lankidetzari, kasu batzuetan. Horrelako lankidetzari, sarritan, informazioa eskuratzeko edo Arartekoak bereziki aurre egin dion gai baten segimendurako izaten dena, alor ezberdinetan eman da urtean zehar: adin txikiko lege-hausleekiko esku-hartzeetan (Berriztu eta Gaztaroan Ekin hezkuntza-elkarteak); sasoikako langileen alorrean (Era Berri, Hezilan, UAGA, Cáritas...); burutik gaixorik dauden pertsonentzako laguntzan (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...); lagunarterik gabeko adin txikiko atzeritarrekiko esku-hartzeetan (Harresiak Apurtuz Koordinadora, Gipuzkoako Gurutz Gorria, Terciarios Capuchinos...); hezkuntza behar berezientzako erantzunean (APNABI, ASPACE, Gautena, Uribe-Kosta, ONCE...); espetxeratuta daude pertsonentzako laguntzan (ADSIS-Bestalde, Goiztiri, Izangai, Proyecto Hombre, Bilbo-Etxezabal, Pastoral Penitenciarria...). Beste kasu batzuetan, elkarteekiko harremanei eutsi izan bazaie, beraiek antolatutako foro berezietan edo ekitaldietan batera parte hartu izanari, edota kexa jakin batzuen

izapideei edo arazoren bati irtenbidea emateko jarduketei, edo agirien eta materialen elkartrukeari esker eutsi zaie.

Egia esan behar badugu, lankidetzaren guztietatik edo informazio-truke guztietatik ez dira jarduketak eratoritzen erakunde honen aldetik, eta are gutxiago berehalako jarduketak. Halatan ere, askotan, izaten diren bileren ondorio moduan eta, alderdi guztien artean, euretariko bakoitzaren jarduteko askatasunarekiko errespeturik handienarekin, buruturiko lankidetzaren emaitza gisa, ondorengo lerroetara bil daitezkeen jarduketak sustatu izan dira:

- Kexen izapideak (hala taldeenak nola gizabanakoenak) elkarrekin eurek aurkezturikoak;
- Arartekoaren ofiziotik jarduketak azalarazi egin diren arazoei irtenbidea emateko, Administrazioak eginiko eskarien aurrean;
- Elkarrekin euren eta erakunde publikoen arteko bitartekaritzak;
- Giza-eskubideen gaineko sentsibilizaziorako edo prestakuntzarako egitarauetako partaidetza;
- Erakundearen laguntza talde ezberdinek eragindako solidaritate kanpainari edo ekitaldiari;
- Proposamen bereziak Administrazioaren eta elkarrekin arteko lankidetzaren harremanak hobetzeko;
- Arauak aldarazteko proposamenen aurkezpena;
- Lanerako erabilgarriak diren informazioa eta agiriak elkartrukitzea;
- Ikerketa sakona alor jakin bati dagokionean (lan monografikoak);
- Premiazko kudeaketak agintarien aurrean, zerbitzu jakin bat hobetzeko edota azaltzear dagoen arazoren bat ekiditeko;
- Bitartekaritzarako esku-hartzeak...

Adibide moduan, Ararteko erakundeak 2001. urtean zehar lankidetzaren eremu honen barruan burututiko jarduketa esanguratsu batzuk adieraz ditzakegu laburkiro. Esate baterako:

- Hainbat elkarrekin hezkuntza behar berezietan eman beharreko erantzunei buruzko ikerketari dagokienez tartean ari izanari esker, beraien proposamenak eta ikuspegiak bildu ahal izan dira, eta haien testigantza –beraien bizitzaren istorioa- eskaini diguten elkarrekin iristea izan dugu. Hori balio handikoa gertatu zaigu errealitatearen ezagutzarako eta arazoak eta hutsak atzemateko, eta hala geratu da erasota eta hezkuntza beharizan berezietan eman beharreko erantzunei buruzko ez-ohiko txostenetan bertan ere hala hauteman daiteke.
- Espetxeratuta dauden pertsonen laguntzeko elkarrekin anitzekiko aldizkako harremanak, zati batean, espetxeetarako sarbide zuzenaren ordezkari balioa izan dute eta datuen elkartrukea eta nolabaiteko segimendua gauzatzeko bidea eman digute, bai eta, ofiziotik zenbait jarduketa abian jartzeko ere (Txosten honetako 1.1.1 atala).
- Atxilotuta egonik, tratatu txarrak edo torturak eragin dizkietela salatu dituzten pertsonen senideekiko elkarrekin edo batzarrek bide eman digute horrelakoen prebentzioa eta desagerpenaren bila doazen gomendioak egiteko, edota, epaibideetatik ate, bermatzeko edo ikertzeko elkarrekin informazioa eta proposamenak elkartrukatzeko.

- Haur Hezkuntzarako Plataformarekin izaniko bilerak beste bultzada bat eman die erakunde honek, behin eta berriro, 0 eta 3 urte bitarteko adin-tarte hori araupetu beharra adieraziz eginiko gomendioei.
- Erasotzen bereziki errazak diren taldeei (drogazaleak, lagunarterik gabeko adin txikiko atzerritarrak, ijitoen elkarteak...) zuzenduta dauden zerbitzuak abian jartzearekin lotuta dauden gatazka-egoeretan esku hartu beharra kezka-iturri gertatu zaigu, eta txosten honetara bilduta dagoen gomendio orokorra aurkeztarazi digu.
- Sasoikako langileen arazoen munduan sartuta dabilzan elkarteekin izaniko harremanei esker, segimendu hobea egin ahal izan da, datu gehiago eskuratu ahal izan ditugu eta, ondorioz, errealitateari lotuago egon diren esku-hartzeak, proposamenak eta gomendioak egin ahal izan ditugu (Txosten honetako 1.1.2 atala). Gai horri buruzko monografikoa egiteko aukera aztertzeko bidea ere eman digute.
- Zerbitzu jakin batzuk bisitatu izana eta bertan lanean diharduten profesionalekiko elkarrizketek eta bilerek elkarteen eta administrazioen arteko hitzarmen zenbaiten eta beroriek lanaren baldintzetan edo ematen den zerbitzuak bere horretan irauteko dauden bermeen analisia egiteko balio izan digute eta horrek guztiak, zenbaitetan, erantzule diren erakundeen aurrean ofiziozko jarduketak gauzatzera, eta beraien egoeraren segimendua egitera eramán gaitu.
- Minusbaliatu fisikoen federazioek gauzatu zuten beren arazoen aurkezpenak, esate baterako, balio izan zuen ofiziozko zenbait jarduketa bultzatzeko, beraien kezken eta lehentasunen ezagutza hobetarako eta beraien eskariak aintzat hartzeko, izan ere, gai horri buruzko bi lan monografiko egitea erabaki baita, eraikinetarako eta zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna edota lan batean hasteko dauzkaten aukerak gaitzat harturik (Txosten honetako 1.2atala).
- Hirigintza egitasmoekin edo jarduketekin, edota ingurugiroan eragiten dituzten ondorioekin zerikusia duten kexetako zati on bat, plataformetara, auzokideen elkarteetara, jabeen komunitateetara, talde ekologistetara eta abarretara bilduta dauden pertsonen taldeek sustatu dute.
- Bakezaleen taldeekin, gatazketan bitartekaritza lanetan diharduten elkarteekin eta ikastetxeekin izaniko harremanek adorea eman zioten erakunde honi, bere egunean, bakerako hezkuntzari buruzko proposamen globala aurkezteko Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuari eta, proposamenaren garapenerako ekarpen eta bultzada gisa, giza eskubideetan hezteko eta eskolan erabiltzeko izango ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzak-bekaren deialdia egiteko. Ekimen horiek eman dute beren fruitua, azken urte honetan bereziki (Txosten honetako 2.3 atala). Argitaratu diren materialak ikastetxe guztietara ez ezik, giza eskubideetan hezteko interesa edo konpromisoa daukaten elkarte eta talde guztietara ere igorri dira.
- Burutik gaixorik dauden pertsonen senideekin izan ditugun harremanak faktore erabakitzailea eta laguntza handikoak izan dira pertsona horien arazoen azterketa sakonari ekiteko, gure Erkidegoak ematen dizkien laguntzei buruzko lan monografikoa egin dugularik gai horretaz eta betetzeko dauden gaietako batzuen segimendua burutu delarik (Kapitulu honexetako 1.1.9 atala).
- Laguntzarako zenbait elkartek, sorlekua atzerrian duten pertsonen atxilotetak edota botatzeko aginduak direla kausa aurkeztu dituzten salaketei esker, era

ezberdinetako jarduketak burutu dira: eskuduntza zeukan agintaritzaren aurreko bitartekaritza eta kudeaketa lanak, kexen izapideak, ofiziozko jarduketak...

- Hainbat herritako espetxeratuak kartzelatik ateratzearen aldeko plataformekin izaniko bilerek bide eman dute maila ezberdinetan (Estatuko Arartekoa edo Tortura Prebenitzeko Europar Komitea) beraien egoera zein den azaltzeko, eta talde horietara, espetxeratuak hurbiltzeari, espetxeetako egoerari edota zio ezberdinengatik espetxetik ateratzeari buruz Arartekoaren jarrera zein den helarazteko.

Zenbaitetan, elkarteekin izaniko harremanek, beraien jarduera-arazoak biltzeko ere balio izan dute: zein zailtasun aurkitzen duten beren lana burutzeko, koordinaziorako edota beraien arteko lankidetzaz egonkorrerako mekanismoak ezartzeko, beren egitarauari jarraikortasuna emateko, erakundeekiko topaguneak edukitzeko, erakundeen egitasmoetan edo zerbitzuetan parte hartzeko, eta abarrerako... Lehenago eginiko txostenetan, gai horiei buruz jardun izan du Arartekoak eta proposamenak egin ditu, edota ekimen batzuk azpimarratu: urteroko esparruaz haratago joatea dirulaguntzei dagokienean, erakundeen eta elkarten arteko eztabaida-leku batuak ezartzea, etorkinak gizarteratzeko Foroarekin edota sasoikako langileen aldeko mahaiarekin egin den bezala, Boluntarioei buruzko Legea, lankidetzaz-hitzarmenetan alderdi bakoitzak dauzkan erantzukizunak direla-eta, gauzaturiko argitze-lanak...

Erakunde honen aburuz, administrazioen eta zerbitzuen eta antolatuta dagoen gizarte zibilaren arteko lankidetzaz sustatu eta lagundu beharra dago dauden baliabideak al bait ondoren aprobetxatuko badira. Gizarte-eragileen partaidetza eraginkorrak ez du, hala ere, berekin ekarri behar hiritarrei zerbitzuak ematean erakundeek dauzkaten erantzukizunak diluituta geratzerik, edota erakundeek, sarri askotan dagokien buruzagitzari eusteari uzterik. Gai hau dela-eta, txosten honetara bertara (VI. kapitulua) dago bilduta erasotzen bereziki errazak diren taldeei zuzenduta dauden zerbitzuen sorkuntzaren alorrean, nahiz eta sarritan elkarteek kudeaturik izan, erakundeei dagokien buruzagitzari buruzko gomendio orokorra.

2.2. ARARTEKO ERAKUNDEAK DEITU DITUEN IKERKETA BEKAK

2001. urtean aurreko urtean adjudikatutako eta laster bukatuko den ikerketa lana garatu da. Lan horrek ingurumen arazoan ebazpen alternatiboei buruzko gaiak aztertzen ditu eta bitartekaritza tresna desberdinak eta herritarren parte hartzea analizatzen ditu.

Ararteko erakundeak beste ikerketa beka bat deitu du 2001eko urriaren 9ko Ebazpenaren bitartez (urriaren 19ko EHAA); beka hori Gorka Moreno Márquezi adjudikatu zaio. Bere lanean gizarte bazterketa eta oinarritzko errentaren aplikazioa aztertuko ditu.

Azken lau urteotan, beka deitu ditugu giza eskubideen heziketari buruzko eskola materiala egiteko eta zabaltzeko. Azken lanaren helburua multimedia erako material didaktikoa lortzea zen. Material horiekin, Ararteko erakundeak giza eskubideen eta bakea eta tolerantziaren aldeko heziketa bultzatu nahi izan du.

Arartekoarentzat material horiekin eta beste erakunde eta elkarte batzuek egindakoekin, eskola-umeek badaukate hain lan garrantzitsu horri ekiteko material nahikoa. Horregatik, 2001. urtean ez da material didaktikoak egiteko beste bekarik deitu, aplikazio ikerketa beka baizik.

Izan ere, Arartekoaren 2001eko urriaren 9ko Ebazpenaren bitartez (urriaren 19ko EHAA) aplikazio ikerketa beka bat deitu zen lehenengoz.

Esperientzia horren balorazioa oso positiboa izan da, proposatutako ikerketa proiektu gehienek interes handia sortu zuten eta. Aurkeztutako 28 proiektuetatik, 7 aukeratu ziren. 7 proiektuen aztergaiak deialdiaren helburuarekin bat egiten zuten zalantzarik gabe. Hauek izan ziren gaiak:

- Alzheimerraren arazoa EAEn.
- Oinarritzko eskubideen eta ordezkari publikoen askatasun publikoen urraketa Euskadin.
- Giza baliabideak nagusientzako laguntza-zerbitzuetan.
- EAEko magrebtarren artean dauden gutxiengoek euren bizitza kultural propioa izateko, euren erlijioa praktikatzeko eta profesatzeko eta euren hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea.
- Presoen birgizarteratzea.
- Fase terminalean dauden gaixoen egungo egoera Euskal Herrian.
- Giza eskubideen egoera bereziki vulnerablea den talde batean: adin txikiko etorkin magrebiak, dokumentaziorik eta pertsona nagusiren baten laguntzarik gabe.

Aukeraketa prozesuan aplikazio ikerka beka IRSE/EBI-ri adjudikatu zaio eta "EAEko magrebtarren artean dauden gutxiengoek euren bizitza kultural propioa izateko, euren erlijioa praktikatzeko eta profesatzeko eta euren hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea" izango du aztergai.

2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLAN ERABILTZEKO MATERIALA EGITEKO BEKAK

Lau urtetan, jarraian, Ararteko erakundeak deitutako bi beketako batek izaera espezifikoa eta helburu zehatza izan ditu: Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea. Deialdi hauek erakunde honen kezka eta konpromiso iraunkor bati erantzun diote: belaunaldi berriak demokrazia bereizten duten balioetan gizarteratzea giza eskubideen aldeko hezkuntzan du bere oinarrietako bat, bake eta tolerantziarentzako hezkuntza; eta balio horiek haurtzaroan eta gaztaroan ikasi eta finkatzen lagundu ahal eta behar duten tresnetako bat eskola sistema da, bakarra ez den arren.

Gure gizarteko bake etorkizunerako funtsezkoa den auzi honi buruz, hainbat ekimen eta proposamen aurkeztu ditugu, hala nola, “Bakerako hezkuntza” goiburuan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuari bere egunean aurkeztu zitzaiona, baita zentzu berean koordinazio jardunaldietan gainerako defendatzaileen aurrean egin ziren proposamenak ere. Proposamen hauetako batzuk aurreko txostenetan batu dira (esate baterako 1996ko Txostenaren I. Kap. 1.3.1.2 atala).

Hainbat beka deialditan jasotako erantzuna –guztira ia 100 proiektu aurkeztu dira deialdi horietara– pertsona ugarik giza eskubideen hezkuntzarekin duten interes eta konpromisoaren frogarria izan da, eta bekak, batzuetan, eskola alorrean balio hauek garatzearekin konprometitutako pertsona edo talde hauetako batzuentzat balorazio edo motibazioa gehigarria izan ahal dira.

Deialdi desberdinek fruituak ematen joan dira, batez ere azken urtean. 2000 urtean bertan, deitutako lehen bekari dagokionez, behin eskola dinamikan integratzeko jarduera eta proposamenen prestaketa amaituta, eta berrikusi eta espermentatu ondoren, karpeta lodi bat argitaratu zen, euskaraz eta erdaraz, *Materiales para la educación en derechos humanos. Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. Karpeta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietara banatu zen (DBH eta Batxilergoa) bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza laguntzeko erakunde eta zerbitzu desberdinetara ere.

Azken urte honetan giza eskubideen aldeko hezkuntzako material didaktikoen karpeta berri bat argitaratu da, *Nuestros derechos. Gure eskubideak* izenburuarekin, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako.

Kasu honetan, materialak haurtzaroak berezkoak dituen eskubideetan zentratzen dira, 1989 urteko Haurraren Eskubideei Buruzko Batzarrean finkatutakoak alegia. Hezkuntza alorreko profesional talde batek prestatu ditu, egitura bereko 30 unitatetan antolatu dira lan sistematikoa errazteko, gelan bertan zuzenean aplikatzeko diseinatu dira (jarduera laburra, material osoak eta fotokopiatzeko modukoak...) eta familien inplikazioa bilatzen dute eta irakasleei laguntza praktikoa eskaini nahi diete. Karpetan ikasturte honen hasieran banatu dira Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara eta hezkuntza zerbitzu desberdinetara.

Azken urte honetan amaitu, argitara eman eta zabaldu den baliabide didaktikoetako bat giza eskubideen aldeko hezkuntzarako materialen kutxa izan da, *Los derechos en juego. Eskubideak jokoan* izenburuarekin, bereziki DBHrako prestatu dena.

Kutxa honek karta joko sail bat eskaintzen du, hainbat eskubideei buruzko irudiekin, hainbat jokoetan jarduteko arauak dituzten hedagarriak, gida didaktiko bat...: 27 giza eskubideekin lotutako edukiak lantzeko behar diren elementuak, jokia eta hausnarketa

bateratuz eta hainbat talde dinamikak erabiliz. Gelako benetako egoeretan probatu ziren, berrikusi egin ziren, argitara eman eta, azkenik, ikasturte honen hasieran, geure Erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza zerbitzuetara bidali ziren.

Egin den azken deialdiak multimedia euskarrian materialak lortzeko helburu espezifikoa dauka, aurreko deialdien aldean berrikuntza bat dena eta gehitutako zailtasun bat dakarrena. Material mota hau prestatzen aurretik eskarmentua daukan Mugarik Gabeko talde bati esleitu zaio beka. Aurten hasi dira sorkuntza lanetan, emakumezkoen eskubideetan zentratuta.

Deitutako beka guztiek xede soil eta bakar bat daukate: eskola komunitateari heziketa langintza garatzeko erabilgarriak izan daitezkeen materialak eskaintzea. Aldi berean, erakunde honek jarraitu nahi du kontu honen inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion erantzukizuna azpimarratzen, eta, ahal duen neurrian, giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin konprometituta dauden –eskolaren eremuan edo bertatik kanpo-pertsonen eta kolektiboen arteko kontaktuak eta kolaborazioa bultzatuko du. Ildo honetan, ikastetxeen artean argitaratutako materialen erabilpenari, aukerei eta mugei buruzko inkesta bat egiteko aukera aztertzen ari da, jarduera berrietarako orientazio gisa baliatu dadin.

2.4. “ADIN TXIKIKOEN ERANTZUKIZUN PENALA: GIZA ESKUBIDEEN ALDETIK EMANDAKO ERANTZUNA” GAIARI BURUZKO JARDUNALDIA, EHUk ANTOLATURIKO UDAKO IKASTAROETAN

1997. urteaz geroztik, Arartekoak giza eskubideak aztertu eta eztabaidatzeko jardunaldiak egiten ditu, eta EHUko udako ikastaroetan antolatzen ditu.

Beste urte batzuetan egin dugun moduan, aurten ere gaurko ikuspegitik heldu nahi izan diogu giza eskubideen alor zabal horri. Horrela, 2001eko urtarrilean, adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean, gogoeta egiteko parada izan genuen “gazteen delinkuentzia” deritzanari gure gizartea ematen ari zaion erantzunaz.

Ararteko erakundeak lehen ere agertu zuen adin txikiko lege-hausleei emandako tratuak sortzen dion kezka, 1998an gai horretaz argitaratu zuen txosten berezian. Une hartatik aurrera, erakunde honek etengabe aztertu du ikusitako arazo nagusien bilakaera, eta zera egiaztatu ahal izan du: alderdi batzuei dagokienez, nolabaiteko eboluzioa gertatu dela, eta oraindik indarrean jarraitzen dutela txosten monografiko hartatik ateratako ondorio eta gomendio askok. Jardunaldiaren aurkezpenean, Ararteko andreak, iritzi horiek azaltzeaz gain, lege berriaren lehen balorazioa egiten du, eta agerian jartzen du tirabiran daudela lege horren hezteko xedea eta bere izaera penala.

Gai garrantzitsu hori atzera hartu eta bikain garatzen da jardunaldiko bi txosten nagusietan. Esther Giménez-Salinas irakasleak, zeina Aginte Judizialaren Kontseilu Goreneko kide eta adin txikikoei buruzko Zuzenbide penalean aditua baita, 5/2000 Lege Organikoaren ezaugarri orokorrak aztertzen ditu, oinarrizko printzipioak batez ere. Esku-hartzearen helburua adin txikikoa heztea dela eta irizpide nagusia haren interresa babestea dela azpimarratu ondoren, guztiz on deritzo hainbat printzipio erabiltzeari, adibidez, justizia konpontzailearen printzipioa, gutxieneko esku-hartzearena edo neurriak finkatu eta gauzatzeko malgutasunarena, eta gogoan hartzen du zenbateraino murriztu diren legezko joera horiek 7/2000 Legean egindako berrikuntzen ondorioz. Txostengileak zalantzan jartzen du lege-aldaketa hori egokia izan ote den, eta, batik bat, beharrezkoa ote zen. Aldaketa, jakina denez, adin txikikoen erantzukizun penala arautzeko legea indarrean jarri aurretik onartu zen.

José Luis Segovia irakasleak, bere aldetik, ikuspuntu erabat kritikotik aztertzen du lege berria, eta horretarako baliagarri zaizkio, batetik, gatazka-egoeran dauden nerabeekin bizitzeak eman dion eskarmentua, eta bestetik, abokatu, kriminologo eta unibertsitateko irakasle gisa egiten duen lana, eskarmentu horren aberasgarri. Gizarteak haur horietaz duen iritzia izugarri aldatu dela dio: arriskuan zeuden gizakitzat hartzen bazituen lehen, gizaki arriskutsutzat jotzen ditu orain. Beraz, egian esan, lege berriak alor penala zabaltzen du, eta bere xedea adin txikiko lege-hausleen berme juridikoak sendotzea den arren, gaizkile helduek prozesu penalean dituzten eskubideak adin txikikoei bermatuz lortu nahi du xede hori.

Kritika horiek eginagatik, txostengileak, paradoxa bada ere, lege berria defendatu behar du “bigunegi”tzat jotzen dutenen kontra, edo, areago, lege horren eraginez, adin txikikoek burututako delitu larriak ia ez direla zigortzen diotenen kontra.

Jardunaldiaren bigarren zatiaren ardatza hauxe da: Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan lege hori nola erabiltzen ari den aztertzea. Helburu horrekin, mahainguru

bat egin da, adin txikiko lege-hausleekin gehien jarduten duten sektoreetako hiru ordezkari hizlari hartuta.

Luis Delgado Gasteizko adin txikikoen epaitegiko fiskala da, eta kargu horrek legea nola erabiltzen den ikusteko aukera ematen dio. Ikuspegi horrexetatik hausnartzen du arau berriak Herri Ministerioari ematen dion zeregin nagusia. Arretaz aztertzen ditu lege hori abiaraztean pixkanaka agertzen ari diren arazoak. Bata bestearen atzetik aipatzen ditu zenbait gai, adibidez, lege horren hezteko helburuaren eta babesteko eskubidearen artean sor daitezkeen kontraesanak, edo adin txikiko bat atxilotzean kontuan hartu behar diren alderdi espezifikoak.

Serafín Martín Corralek, autonomia erkidegoan adin txikikoen epailei aholku ematen dien talde psikosozialeko koordinatzaile denez, oso zehatz azaltzen du zein eginkizun ematen dizkion lege berriak diziplina anitzeko organo horri. Eginkizunok -ez ahaztu- erabakigarriak dira adin txikiko lege-hauslearen ezaugarrietara ongien egokitzen diren neurriak ezartzerakoan. Era askotako proposamenak egin dira, betiere adin txikikoa hezi eta gizarteratzeko asmoz. Proposamen horiekin batera, talde teknikoaren ordezkariari oso garrantzitsuak iruditzen zaizkio artekaritza-lanak, bai adiskidetzeko, bai legez kontrako portaerak eragindako kaltea konpontzeko.

Zigor lege berria erabiltzeari buruzko azterketa honetan, ezinbestekoa zen epaile-erabakiak aplikatzen ari diren pertsonen ekarpena, harreman zuzena baitute adin txikikoekin. Javier Iturrospek Andoiu heziketa zentroan egiten du lan, eta zentroa kudeatzen duen elkarteak onartutako aukerak eta jarraibide pedagogikoak azaltzen ditu. Zentro horren asmoa adin txikikoak hezkuntza-prozesu baten subjektutzat hartzea da, eta horietako bakoitzari arreta osoa eskaintzea. Halaber, familiak ere dagokion erantzukizuna bereganatzea lortu nahi du, eta erkidegoko baliabideekin koordinatzea.

Bukatzeko, jardunaldiko txosten guztietan agertu den ideia hau aipatzen du: adin txikikoen erantzukizun penalarri buruzko legea egokia eta zuzena izan dadin, behar-beharrezkoa da administrazioak lege hori gauzatzeko baliabide onak eta nahikoak ematea -pertsonazkoak nahiz materialak-.

Nerabezaroko portaera lege-hausleek nolabaiteko kezka sortzen dute jendearengan, nahiz eta halako portaerak garai eta gizarte-sistema orotan agertu izan diren. Horregatik, pentsa daiteke gizakiaren heldutasun prozesuko aldi zehatz bati atxikita daudela. Alabaina, erakunde eskubide-bermatzaile honen iritziz, gazteen delinkuentziak gizartean kezka sortzen badu, ez dira hartu behar huts-hutsik errepresiozkoak diren neurriak, sarritan ez baitira eraginkorrak izaten. Aldiz, kezka horrek patxadaz pentsarazi behar digu zeintzuk diren arazo hori konpontzeko modurik bidezkoenak, gizarteko desberdintasunak orekatzeko baliagarriak eta, gerora begira, eraginkorrenak. Dударik gabe, aipatu gaiek eragin handia dute gizartean, eta horien gaineko eztabaida publikoa pizten lagundu nahi dugu jardunaldiok burutuz.

3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIOARI BURUZKO XVI. JARDUNALDIAK

Arartekoaren eta autonomietako mandatarien arteko hartu-emanak koordinazio eta kooperazio abiaburuetan oinarritzen dira. Urtean zehar, erakunde horiek hartu-eman estuak mantentzen dituzte euren eguneroko ekimenetan. Koordinazioari buruzko jardunaldiak eztabaidarako foro bat izan dira eta komunean dituzten arazoak elkartrukatzeko antolatu dira.

XVI. Koordinazio Jardunaldiak Madrilen egin ziren, Senatuaren Jauregian, 20001eko azaroaren 12 eta 13an. Arartekoak antolatu zituen.

Aragoiko Justiziak “Babes figurak arautzen dituzten nazioz gaindiko tresnak” (EB, Europako Kontseilua, institutu espezialduak) izenburua zeraman ponentzia aurkeztu zuen.

Erakunde horien funtzionamenduari eragiten dieten arazoei buruzko bi mahai inguru egin ziren. Lehenengoan, “Urteko derrigorrezko txostenen egitura, edukia eta zabalkundea” eztabaidatu zen. Bigarrenean, “Arartekoek kudeatutako espedienteen konfidentziasunari buruzko Irizpideak” eztabaidatu ziren. Bigarren honetan, jarduneko Ararteko Mercedes Agúndezek parte hartu zuen.

Beste gai hau, “Internet eta teknologien zeregina arartekoen zerbitzuen hobekuntzan” ere aztertu zen. Saio horretan arartekoen web orriak aurkeztu ziren.

Ararteko erakundeak ponentzia hau aurkeztu zuen: “Elkarlan koordinatua atzerriartasan, konpetentzia eta horien aplikazioari dagokienez, inmigrazio prozesuetatik sortzen diren kasu ohikoenetan”.

Azkenik, bertan zeuden erakundeek hurrengo komunikazioak aurkeztu zituzten:

- “Indarkeria komunikabideetan”.
- “Txabolismoaren arazoa”.
- “Gazteak eta genero indarkeria”.
- “Adingabeko seme-alabak dituzten emakume presoen egoera”.

Azken komunikazio hori -“Adin txikiko seme-alabak dituzten emakume presoen egoera”- Ararteko Mercedes Agúndezek aurkeztu zuen (1.eranskina).

3.2. EUROPAKO ERREGIOETAKO DEFENDATZAILEEN MINTEGIA. OMBUDSMANAK BEREIZKERIAREN AURKA. BRUSELA, 2001eko IRAILAREN 19tik 21era

Waloniako (Belgika) “Médiateur” delakoak mintegi bat antolatu zuen 2001eko irailaren 19tik 21era arte Europako ararteko nazional eta erregionalentzat, “Arartekoak diskriminazioaren aurka” izenburupean.

Mintegi horretan “Oinarrizko Eskubideen Gutuna” aztertu zen eta “ez diskriminatzekeo abiaburua” eta “ez diskriminatzekeo buruzko erkidego zuzentarauak eztabaidatu ziren.

Ararteko erregionalek “Elkarteko Zuzenbidearen eta erregioetako Zuzenbidearen arteko erlazioak”, “giza eskubideak, diskriminazio eza eta bitartekaria” eta “eskubide ekonomikoak eta sozialak eta bitartekaria” gaiak aztertu zituzten.

Ararteko nazionalek “bitartekaria eta presondegiak”, “bitartekaria eta atzerritarren eskubideak” eta “datuen gardentasuna eta babesa” aztertu zuten.

Mintegia bukatu zenean, Europako ararteko nazionalen eta erregionalen asanbladak eta Europako Batasunaren antzerako erakundeek honako ebazpena hartu zuten:

“Nazio mailan Estrasburgon (1996) eta Parisen (1999) eta erregio mailan Bartzelona (1997) eta Florentzian (1999) egindako batzarren jarraipen gisa, Europako Ararteko nazional eta erregionalek eta Europako Batasuneko antzerako erakundeek honako ebazpena hartu dute Bruselan:

2000. urtetik hona, berdintasun eta diskriminazio ezaren abiaburuak Europako Batasuneko kide diren herrien gizarte antolamenduaren oinarriak dira. Horregatik, abiaburu horiek herri horien abiapuntu dira eta Europako hainbat tresna juridikoren funtsean daude; izan ere, legalitate eta Zuzenbide Estatuaren nozioaren alderdi bat dira.

Arartekoa edo antzerako erakundea zerbitzu publikoen kontrol organoa eta horien eta herritarren arteko bitartekaritza organoa da, maila europarrean, nazio zein erregio mailan; berdintasun eta diskriminazio ezaren eskubideen babeserako erakunde alternatibo eragingarria da, ohiko barne erakunde edo nazioarteko erakunde klasikoaren osagarri.

Bitartekaria edo antzerako erakundea eskubideen babes eta sustapenaren eta oinarrizko askatasunen (eskubide ekonomiko, kultural eta sozialak barne) katalizatzailea da.

Horri dagokionez, zerbitzu publikoek atzerritarren, emakumeen, gazteen, gutxiengo etnikoen, nagusien, atxilotuen, gai-gabeziadunen eta langileen berdintasun eta diskriminazio ezaren abiaburuak errespetatzen diren kontrolatzen dute.

Europako ararteko nazionalek eta erregionalek eta antzerako erakundeek jaso dituzten kexak aztertzerakoan zera ikusi da, zerbitzu publikoek zuzen interpretatzen dituztela eta zuzen aplikatzen dituztela eskubide eta askatasunak eta barne arau juridikoek eta konbentzioek, adierazpenek eta nazioarteko gutunek eskubide eta askatasun horiek bermatzen dituztela.

Berdintasun eta ez diskriminatzearen eskubideen babes gauzatzea administrazio egokia, gobernu egokia eta ekitate abiaburuetan oinarritzen da.

Europako ararteko nazional eta erregionalek eta antzerako erakundeek aurrerapen handiak egin direla aitortu dute; esaterako, Luxemburgun ararteko bat martxan jarri da eta figura hori ez duten beste Europako Estatuak horrelako organoak sortzera animatzen dituzte.

Azkenik, Europar Batasuneko eta bertako Estatuetakoko agintari publikoei desberdintasun eta diskriminazio era guztien kontra egiteko laguntza eskaini die eta arartekoek eta antzerako erakundeek gai horren inguruan eta euren dagokien betebeharren barruan ematen dituzten gomendioei bide ematea zein garrantzitsua den azpimarratu dute.”

3.3. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO MANDATARI ETA LEHENDAKARIEN FEDERAZIOAREN SEIGARREN BILTZARRA

2001eko abenduaren 5etik 7ra arteko egunetan Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren VI. Batzarra egin zen San Juan hirian (Puerto Rico).

Jardunaldi hauek eztabaida foro bat osatzen dute eta gainera ombudsmanen figura herri iberoamerikarretan ezartzea lagundu nahi dute.

Batzar horretan giza eskubide eta komunitate iberoamerikarrarekin lotutako hainbat lan gai eztabaidatu ziren. Lehenik, “Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak ombudsmanaren ikuspegitik” gaiari buruz jardun zen.

Batzarra hainbat multzo eta lan taldetan banatu zen. Lehen multzo batek “Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen edukia eta zabalera” gaia hartzen zuen.

Bi lan talde osatu ziren. Batzuek “Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak: indarrean jartzeko eta euren garapena neurtzeko baliabideak” gaiari heldu zioten. Besteek “Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen gaian ombudsmanek bideratutako kasu esanguratsuen konponbidetako esperientzen trukaketa” aztertu zuten.

Beste saio batean multzo bat planteatu zen “Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen justizaibilitatea barruko eta nazioarteko esparruetan” gaiari buruz, eta beste bat “Vieques komunitatean (Puerto Rico) izandako giza eskubideen defentsako kasu esanguratsua”ren gainean.

Jarduneko Ararteko Mertxe Agúndezek komunikazio bat aurkeztu zuen ondoko izenpean: “Ararteko erakundea gizarte eskubideen garapenean”, txosten honetan eranskin gisa sartuta dagoena.

Jardunaldi hauetan OFIren batzar nagusia egin zen.

VI. Batzar honekin amaitzeko, ondoren idatziz datorren “San Juango adierazpena” onartu zen:

“SAN JUANGO ADIERAZPENA

Herri desberdinetako arartekoek, giza eskubideen aldeko herri batzordeen prokuradore, hornitzale eta buruek, Puerto Ricon, 2001eko abenduaren 5etik 8ra bitartean San Juan hirian Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren IV Urteko Biltzarrean bilduta, ondoko ADIERAZPEN hau onetsi dute:

1. BERRIRO DIOTE: Arartekoa edo Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradorea, batik bat Estatuaren organoen funtzionamendua zuzenbideari uztartuta eta Estatuak izenpetu eta berretsitako giza eskubideen Nazioarteko Lanabesetan finkatutako konpromisoekin batean joatea begiratu behar duen erakunde demokratikoa da, herri zehatz bateko herritar guztien oinarriko eskubideak sustatu eta bermatzeko xedea duena
2. PENTSATZEN DUTE: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zeneko 53. urteurrenaren bezperan, lanabes garrantzitsu honek munduan giza eskubideak erabat indarrean egotearen alde borrokatzeko deialdia planteatzen

du, OFIren VI. Kongresu honen lanen gai nagusia izan den ekonomia, gizarte eta kultura eskubideei dagokiena ere sartuta.

3. **BERRESTEN DITUZTE:** Durbanen (Hegoafrika), joan zen irailean, Arrazakeriaren, Arraza Diskriminazioaren, Xenofobiaren eta Intolerantziari Lotutako Kontuen kontra egin zen Munduko Konferentzia zela-eta hartu ziren konpromezuak, horrelako konferentzia batean ombudsmanek lehen aldiz beren izenean esku hartu zutelarik,
4. **ERABAT GAITZESTEN DUTE:** Eraso terrorista oro, zergatiak direnak direlarik, eta elkartasuna erakusten diete eraso horiek jasan dituzten biktima eta herriekin. Halaber, **ADIERAZTEN DUTE:** Ekintza horiek delitutzat jotzea ezinbestekoa da, eta konbentzio unibertsalen bidez ezarritako nazioarteko zigor epaitegiek epai ditzakete, egilearen jatorria eta krimen horiek non egin diren kontuan hartu gabe.
5. **BABESTEN DITUZTE:** Gatazken konponbide baketsuen aldeko ahaleginak, garapenaren eta gizarte justiziaren sustapena, bai eta ordezkarietazko demokraziaren sendotzea ere, horiexek baitira giza eskubideak erabat indarrean izatearen aldeko inguru ezartzeko behar diren baldintzak.
6. **ADIERAZTEN DUTE:** Eskualdeko Estatu guztietan, lege antolamenduen barruan, ombudsman erakundea sustatu eta errotzea ezinbestekoa da, erakunde horren erabateko autonomia eta funtzionamendu, administrazio eta aurrekontu mendetasunik eza bermatuz.
7. **ERREGU EGITEN DIETE:** Ameriketako Estatu Batuetako agintariei Vieques Udalerrri Ugartean tiro praktiak egiteari uzteko, urtetan zehar praktika horien ondorioz kutsatutako lurra eta itsas eremuak lehengoratu eta itzultzeko. Horretarako, FIOko buruak eta Puerto Ricoko Ombudsmanak ahalik eta mailarik gorenetara joko dute, agintari arduradunengana.
8. **ESKATZEN DIOTE:** Mexikoko Gobernu Federalari, dagokion lege esparruan, Mexikoko Oaxaca Estatuko Loxichatarren eskualdeko preso indigenak askatzeko ahalbidea.
9. **BABESA EMATEN DIOTE:** Kolonbiako Ararteko Erakundeari, herri hori heriotzez janzen duten gatazka armatuaren bakezko konponbidea bilatzeko egiten duen borroka nekaezinean eta ekarpenean, eta gatazkaren iturri den gizarteko krisiaren sakoneko arrazoiak konpontzen laguntzeko ahaleginetan.
10. **ZORIONAK EMATEN DIZKIOTE:** Paraguayo Legebiltzarrari, lehenengo Arartekoa eta Arartekoaren Ondokoa izendatu dituelako, eta **ERREGUTZEN DIOTE:** Konstituzioaren eta legearen ildotik, behar duten aurrekontuaz hornitu, eta kudeaketarako autonomia aitortzea, beren “kontzientziako magistratura” lana inoren mendetasunik gabe egin ahal izateko.
11. **ESKATZEN DIOTE:** Errepublika Dominikarreko Senatuari, bertako Ombudsmana ezartzen duen legearen arabera, nazio horretako lehenengo arartekoa izendatzeko prozesua burutzeko.

12. EZAGUMENDUA ADIERAZTEN DIOTE: Txileko Presidenteak Pertsonen Eskubideak Babesteko Presidentziaren Batzorde Aholkularia soartzeko ahaleginari, herri horretan ombudsmana ezartzeko erakundeen aldetiko aurrekaria delakoan. Halaber, dei egiten diete Txileko agintariei FIOren Estatutuaren 2. artikuluan ezarritako kontzepzioari doi dakion erakunde bat jartzeko baldintzak ezartzeko aukera eman dezaten neurriak hartuz ahalegin horretan jarraitzeko..
13. BERRIRO ESATEN DIETE: Brasilgo Federazio Errepublikako eta Uruguayko Ekialdeko Errepublikako agintariei, ombudsmanaren korrante iberoamerikarrarekin bat egin dezaten, eskualdeko pertsona guztien nahi zilegia eta demokraziaren eta giza eskubideen kultura baten garapenaren funtsezko elementua delakoan.
14. ERREGUTZEN DIETE: Nikaraguako agintariei herri horretako Giza Eskubideen Prokuradoregoari bere lana ondo egin ahal izateko behar duen aurrekontu laguntza ematea
15. BERRESTEN DUTE: Herritarren segurtasunik ezak, zigorgabetasunak, gizarte ahuleziak eta bizi kalitatearen hondamenak herritar guztien eskubide zibilei eta gizarte eta ekonomia eskubideei eragin dieten tokiko errealitate berrien aurrean, ombudsman erakunde guztiek lana modu arin eta eraingarrion egiteko behar dituzten baliabideak eduki behar dituzte, proposamen eta ekintzazko izaeraz, herritar guztien giza eskubide arazoez arduratu eta konpontzeko benetako alternatibak eskaini ahal izan ditzaten.
16. BERRESTEN DUTE: Gizarte, ekonomia edo kultura eskubide bat eskubide izateko, Estatuak daukan jokabideak ez eze, jendeari betebeharrekoa bete ez delako erreklamaziorik egiteko aukera eskaintzen dion botere juridikoren bat ere egon behar da.
17. BERRESTEN DUTE: gizartearen garapen integrala oztokatzen duten eta herriei bizitza duina, pobreziarik, bazterkeriarik, ustelkeriarik, zigorgabetasunik, segurtasunik ezik, justizia ukatzerik eta bereizkeriarik gabe, izateko duten eskubidea eragozten duten arazo kronikoez sortzen dieten kezka.
18. KONPROMISOA HARTZEN DUTE: Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidea eta Gizadiaren Nazioarteko Eskubidea aztertu eta hedatzea sendotzeko, eta ERREGUTZEN DIETE: estatuei nazioarteko zein eskualdeetako gai horietarako bitartekoetara atxiki edo berresteko. ADIERAZTEN DUTE ombudsmanen oinarritzko eginkizuna dela herrialdeen barruan eragitea, xede horiek lortzeko.
19. BERRESTEN DITUZTE: Toledon 1997an, Liman 1998an, Hondurasen 1999an eta Mexikon 2000n hartutako konpromisoak, alegia, ombudsman erakunde guztietan emakumeen eskubideak babestu, defendatu, sustatu eta gaitzeko gune aditua egotea. Emakumeen eskubideen urratze eta murrizte etengabeak emakumeen aurkako bereizkeria eta indarkeria modu oro errotik eraizteko erakunde mekanismoak sortzera edo, izatekotan, sendotzera behartzen du.

20. ERREGUTZEN DIETE: Oraindik Emakumearen aurkako bereizkeria modu guztien gaineko Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboa (CEDAW) berretsi ez duten Iberoameriketako gobernuak, berrets dezaten, emakumeen oinarritzko eskubideen aurrerapenari laguntzeko nazioarteko baliabide juridikoa baita.
21. GOMENDATZEN DUTE: FIOren kongresu guztietan gaiak genero ikuspegia sartuz aztertzea.
22. AITORTZEN DUTE: giza eskubideen defentsa eta sustapenerako gobernu kanpoko erakunde lan eskerga eta baliozkoa. GAITZESTEN DUTE: giza eskubideen defendatzaileen lanaren edo integritate fisiko eta mentalaren aurkako eraso oso. KONPROMISOA HARTZEN DUTE: giza eskubideen defendatzaile horiekin batera eginkizun hori bete dadin lanean jarraitzeko.
23. AGURTZEN DUTE, oniritzita, Limako Adierazpena, 2001eko azaroaren 26an Liman izandako Iberoamerikako Estatu eta Gobernu Buruen XI. Gailurrean egina, non giza eskubideen eta demokrazioaren errespetuarekiko eta sustapenarekiko konpromisoa berretsi baitzuten, erabateko indarra izateko Zuzenbide Estatu beharrezkoa dela aitortuz, baita erabat gauzatzeko eta gozatzeko baldintzak sortu eta hobetzeko konpromisoa ere. ERREGUTZEN DIETE: Federazioko kideei hartutako konpromiso horiei jarraipena emateko.
24. EZAGUMENDUA ADIERAZTEN DUTE: Iberoamerikan Ararteko erakundeen sostengurako Herrialde Plana sinatu eta abiarazi izanagatik. Plana Europar Batzordeak Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziek finantzatuta dago, Alcaláko Unibertsitateak bideratzen du, eta xede nagusia demokrazia finkatzea da, arartekoei babesa emanez.
25. EZAGUMENDUA ADIERAZTEN DIOTE Giza Eskubideen Amerikarren arteko Institutuak, FIOren Idazkaritza Teknikoak egiten duten lanari, herrian ombudsmana sustatu eta errotzeko, eta ESKERTZEN DIETE VI. Urteko Kongresua egiteko laguntza.
26. ZORIONAK EMATEN DIZKIOTE Leo Valladares Lanza Doktorea buru duen Zuzendaritza Batzordeari, Ombudsmanen Federazio Iberoamerikararen kudeatzaile izan den bitartean bikain aritu delako.
27. ESKERTZEN DIOTE, Puerto Ricoko Herriarraren Prokuradore den Carlos López Nieves doktoareari, FIOren VI. Urteko Kongresuaren antolaketa arrakastatsua, baita Antolaketa Batzordeari eta Puerto Ricoko herriari ere, ekitaldi honetako partaideenganako arreta eta abegitasuna. ERABAKI HAUEK SAN JUANEKO ADIERAZPENA izenez hedatzeagatik pozik daudela diote.”

3.4. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO HERRI DEFENDATZAILEEK AUTONOMI ERKIDEGOEI ETA INMIGRAZIOARI BURUZ EGINDAKO BILERA

2001eko otsailaren 16an, Kanaria Handiko Las Palmasen bildu ziren autonomi erkidegoetako arartekoak, inmigrazioaren, herri administrazioen eta atzerritarren beharriaz erantzuna emateko modua aztertzeko, beti ere beren esparruen barnean.

Bilera hartan inmigrazioari buruzko zenbait gai eztabaidatu ziren eta autonomia erkidegoetan izandako esperientziak azaldu zituzten. Ondorio gisa, ondoren azalduko den testua idatzi zen; testua ukitutako administrazioei ere eman zitzaien.

“ONDORIOAK

Atzerritarren integrazio sozialak, langile etorkinenak bereziki, eragin handia du gaur egunean, are gehiago Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa onetsi zenetik, baita berau berritzeko abenduaren 22an egindako 8/2000 Lege Organikoa ere.

Testuinguru horretan, Andaluzia, Aragoi, Kanariar Uharte, Katalunia, Galizia, EAE eta Valentziako ararteko erakundeak Kanaria Handiko Las Palmasen bildu gara, lan esperientzien, ikuspuntuen eta proiektuen berri emateko erkidegoaren mailako parlamentuko erakundeen artean, pertsonen oinarrizko eskubideen defentsaren eta bermearren esparruan. Gaztela-Leongo Procurador del Común erakundea bat dator agiriaren ondorioekin.

Gure helburua ez da 4/2000 Legearen erreforma giza eskubide unibertsalen inguruko konstituzio printzipioetara egokitzeari buruzko gure iritzia ematea, ezta erreforma hori errealitatearen printzipio horiekin bat etorri arautzeko egokia den ala ez esatea ere. Arau egokia den ala ez juzgatzea, hizkera soziopolitikoaren arabera, estatuko administrazioaren departamentuei, tokiko edo erkidegoko administrazio bakoitzari, gobernuz kanpoko erakunde bakoitzari eta gizarte eragile bakoitzari dagokie eguneroko aplikazioan, eta, azken batean, arauak berak ukitzen dituen pertsona bakoitzari.

Indarreko Legeari buruzko eztabaida sakontzeko edo urrunago joateko, hemen bildu garen herriaren defendatzaileok uste dugu atzerritarrak gizartean integratzeak etorkinen eta horiek hartzen dituen gizartearen kultur aniztasuna errespetatu behar dituela. Integraziorako funtsezko faktorea etorkinei dagozkien eskubide eta betebeharren multzoa ezagutzea da erkidegoko herritar berriak diren aldetik, herritartasunaren kontzepturik zabalena hartuta.

Jardunaldi hauetan parte hartzen ari garen herriaren defendatzaileok, giza eskubideen alde egiteko ditugun eginkizunak betetzeko eta inmigrazioan gure erakundeek duten eguneroko lanaren esperientzia ikusita, honako ondorio hauek azpimarratu nahi ditugu:

1. Estatuaren Segurtasun Indarren lehentasuna herritarren segurtasuna zaintzea eta delituaren kontrako borroka dira. Ildo horretan, indar horiek gure ustez ez dute Espainian egoera irregularrean dauden pertsonak jasani behar, beti ere deliturik egiten

ez badute eta zigor prozesuren batean ez badaude erregularizazio jardunbidean amaitzen ez duten bitartean.

Halaber, gure ustez erregularizazio eskabidearekin loturiko dokumentuak faltsifikatzeagatiko zigor jardunbidean dauden atzerritarrak ez dira kanpora bota behar, harik eta epaile eskudunak zigor-epai irmoa ematen ez duen artean.

2. Atzerritarrak erregularizatzeko jardunbidea amaituta, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehen xedapen iragankorraren ondorioz emandako agindua betetzeko egindako jardunbidea hain zuzen, pertsona askok oraindik ere egoera erregularizatzeko du.

Arazoari irtenbidea aurkitzeko, ahalik eta modu zabalenean interpretatu behar da urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan eta garapenerako araudian ezarritako marko juridikoa (Lege Organikoa abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldarazi zuen hori), zertarako eta Espainian dauden etorkinen egoera erregularizatzeko, indarreko araudian ezarritako formulekin bat etorritz.

3. Etorkinak integartzeko prozesua harmonizatzeko xedez, beharrezkoa da autonomia erkidegoen parte-hartzea, eta horretarako Estatuko Administrazioari egin behar dizkiote proposamenak egon dauden lan eskaintzen arabera eta etorkinak ingurune sozial eta ekonomikoan integartzeko prozesua betetzeko autonomia erkidego bakoitzak erabakitzen duen politikaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldarazi zuen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 39. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

4. Estatuaren Administrazioak bizitzeko eta lan egiteko baimenari buruzko ebazpenaren berariazko jardunbide bat ezarri behar du, zertarako eta etorkinak ez daitezen haien jatorriko herrira itzul sarrera-bisatu baten bila. Izan ere, Espainiako administrazioak berak ematen du bisatu hori. Gainera, bidaia ezin izaten du erregularizazio eskaera egin duen etorkinak bere gain hartu kasurik gehienetan.

Era berean, beharrezkoa da bizitzeko eta lan egiteko baimenak lortzeko tramiteen epeak bizkortzea, gaur egunean gehiegi luzatzen baitira. Hartara, baliabide pertsonal eta material egokiak emango dira.

5. Atzerritarren Lege berriaren 6 eta 12. artikuluetan, atzerritarrak erroldan sartzea ezarri du, Espainian bizi ohi diren kanpotarrek zenbait eskubide izan dezaten, bizitzeko legezko tokirik ez badute ere.

Legeak dakarren borondate hori udalen berariazko politikan islatu behar da, administrazioaren erregistro horretan, erroldan, herrian bizi diren pertsonen helbidea sartzeko ohiko bizilekua dela frogatzeko.

Baina erroldan sartze hori ezta izango, inola ere, herrian bizi diren legezko egoeraz jabetu diren atzerritarrentzat bakarrik, aldi baterakoak zein iraunkorrak izan; ez da ahaztu behar Espainian bizi arren bizitzeko legezko egoera hori oraindik lortu ez duen talde handia.

Arau guztietatik eta Lehendakaritza Ministerioak emandako instrukzioetatik argi ondoriozta daitekeenez, udalerrri batean bizi ohi diren pertsonak erroldan sar daitezke hala, bizitzeko legezko titulurik ez badute ere.

6. Adin txikiko etorkinek berariazko trataera izan behar dute, haurrak sentiberagoak direla eta gizartean integratzeko aukera hobekak dituztela aintzat hartuta, egoera berean edozein atzerritarri onartzen zaizkion eskubideez gain. Horretarako, adin txikiko etorkinek Espainiako haurrek dituzten baldintza beretan honako zerbitzuak izateko oztopo guztiak kendu behar dituzte herri administrazioek: osasuna, hezkuntza, lanean sartzeko orientabideak, e.a.

Era berean, zenbait autonomia erkidegotan egiaztatu izan denez, adin txikikoek, iristen direnean eta ondorengo egonaldian, ez dute zentrorik izaten eta egon dauden baliabideen falta dute. Horrexegatik, berariazko zentro batzuk sortu eta funtzionatzen dutenak egokitu behar dira, baliabide egokiak emanda, Estatuko zein autonomia erkidegotan adin txikikoei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

7. Etxeko indarkeria jasan duten emakumeak hartzeko etxebizitzak kudeatzen dituzten herri erakundeei dagokienez, gure ustez administrazioak laguntza berezia eman behar die bikotearen erasoetatik alde egiteko Espainiara alde egin duten emakume etorkinei, eta horretarako pisu egokietan hartuko dira seme-alabekin batera. Giza eskubideen aldeko lanaren ikuspegitik, laguntza hori gainerako herritarrei ematen zaienean izaten diren baldintza bertsuetan emango da, atzerriko emakumeek Espainian bizitzeko duten administrazio baimena kontuan izan gabe.

Erroldan sartua ez izatea ezin daiteke oztopo izan etxeko indarkeriaren kasuetan, eta zehazkiago, ez du galaraziko emakumeak hartzeko pisuetan sartzea. Kasu horietan, oinarritzko zerbitzu sozialek beharizanaren ezaugarriak baloratu behar dituzte, eta emakumearen bizia eta segurtasuna babesteari emango zaio lehentasuna eta, aldi baterako, haren karguan dauden adin txikikoenari.

Azkenik, dei egin nahi diogu gizarteari inmigrazioa arazo legez ez baizik eta errealitate aberasgarri gisa hartzeko, eta xenofobia edo diskriminazio era guztiak saihesteko.”

II. ATALA

ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO ARRETA BEREZIA

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkieten kekek ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarritzko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.513 kekek eta 2001 urtean hasi ditugun ofiziozko 46 jarduerak askotariko arazoen erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal hiritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena sailhesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe -ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa bidez-. Hala ere, ofiziozko espedienteak "OF" erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, "erreklamazioa" atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedienteaz aztertzea eta ebatzea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Bestalde, nabarmendu behar da gaikako banaketa baten arabera egiten dela alorren ohiko egituraketa. Arartekoaren jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoaren berariazko tratamendu batek osatu behar du banaketa material hori.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoaren berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira Arartekoaren jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakinen alde burutu diren jarduerak:

- Berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:
- emakumeak
 - zaharrak
 - adin txikikoak
 - atzerritarrak
 - elbarriak

A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

1.1. SARRERA

Iaz, hau da, 2001. urtean, erakunde honek 17 kexa-espedienteren izapidetza egin zuen. Espediente horietan, gatazka desberdinak azaltzen ziren, eta gatazka horiek arazo zehatzak islatzen zituzten. Arazo horiek lehen sektoreari, hots, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektoreari, bigarren sektoreari edo industriaren sektoreari eta hirugarren sektoreari edo zerbitzuen sektoreari zegozkion. 2001. urtean zehar erakunde honek burutu zuen jardunari begira, erreklamazio horiek % 1,40 ordezkatzzen zuten.

Kexak sailkatzekotan, kontuan hartzen badugu kexa horiek zein euskal administrazio publiko ukitzen zuten, orduan kexen sailkapena honetara geratzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	10
- Foru administrazioa	3
- Tokiko administrazioa	5

Kexak sailkatzekotan, kontuan hartzen badugu zein zen erreklamazioaren gaia, orduan hurrengo azpiarloak bereiz daitezke, aurkeztu zitzaizkigun arazo horien arabera:

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	7
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ..	3
Industria	3
Merkataritza	2
Kontsumoa	2

Esan bezala, zenbait erreklamazio egin ziren, lehen sektoreok jardueri buruz, hau da, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruz. Erreklamazio horien artean, hainbat kexa jarri ziren, sor-markek ezarritako murrizketen ondorioz. Zehatzago esateko, kexak aurkeztu ziren, Arabako Errioxan mahastiak landatzeko eskubideei buruz, eta Getariako txakolina ekoizten zuen upelategia lekuz aldatzeari buruz. Bi kasu horien inguruko azalpen laburra irakur daiteke, kexak aukeratzeari buruzko atalean. Bestalde, azpiarlo horren barruan, beste salaketa batzuk aipatu nahi ditugu, nahiz eta salaketa horiek lehen sektoreko arazoa zuzenean ukitu ez. Kexa horien eretzean, animaliak babesteko elkarte batek erreklamazioa aurkeztu zion Arartekoari, zirkuetan animaliak erabiltzen zirelako.

Gure autonomia-erkidegoan industria-jarduera burutzeari dagokionez, arazoak oso heterogeneoak izan ziren. Argiago esateko, oso gai desberdinak jorratu ziren, bestak beste, azpigune batetik enpresa batera linea elektrikoa jartzea; automobilaren bigarren azterketa osoa egiteagatik, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako zerbitzuak ordaindu beharra

izatea, bigarren azterketa garaiz kanpo egin zelako, lehenengoa kontrakoa izanik; edota, etxebizitza bati gas naturalaren hornidura egiteko, ezintasun materiala izatea, tarte handia zegoelako, eraikinaren eta gasaren banaketarako sarearen artean. Kasu horiek guztiak, kapitulu honen bigarren atalean laburbilduko ditugu.

2001. urtean ere, zenbait herritarrek kontsumoari buruzko erreklamazioak egin zizkieten Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, eta herritar horietako batzuk ez ziren ados geratu, sail horrek hartutako ebazpenarekin. Horregatik, herritar horiek kexak aurkeztu zizkieten Arartekoari. Alabaina, 2001. urtean, kexa horien kopurua txikitu egin zen. Kexak gutxitzeko arrazoia izan daiteke, beharbada, sail horrek ahalegin bereziak egin izana, herritarrentzat ulergarriagoa izan dadin, halako ebazpenetan berak erabiltzen duen terminologikoa tekniko-juridikoa.

Foru aldundiek zenbait betekizun ezartzen dituzte, beren ehiza-barrutiak erabili ahal izateko. Bada, betekizun horien inguruko zalantzak ere erakunde honi helarazi zitzaizkion iaz. Zehatzago esateko, Gipuzkoako herritar batek uste zuen gehiegizkoa zela Bizkaiko Foru Aldundiak bizkaitartasuna eskatzea, bere ehiza-barrutiak erabili ahal izateko. Lurralde historiko horretan, arau berezi batek arautzen zuen ehizan aritzea eta, azkenean, arau horretatik kendu zen aipatu berri dugun betekizuna.

Bukatzeko, beste kexa batzuek eragina zuten, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren jardunbide eta prozeduran, eta erakunde honek horiek ere aztertu zituen. Jarraian, kexa horietatik bi laburtuko ditugu. Lehenengoari dagokionez, sail horrek Interneteko ikastaroak finantzatzen ditu, eta horiei nahitaez uko egin beharra aztertuko dugu. Bigarrenari dagokionez, saltoki batetik ijitoak bota ziren, eta horren inguruko kexa ere jorratuko dugu.

1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

⇒ *Upelategia lekuz aldatu nahi zen, eta lekualdaketa horri ezezkoa eman zitzaion. Ezetz esateko arrazoiak aztertu behar dira (621/1999)*

- Erreklamazioa

Zarautzko herriaren barruan, txakolina egiteko upelategi bat lekuz aldatu nahi zen, eta "Getariako Txakolina" Jatorri-izenaren Kontseilu Arau-emaileak ez zuen lekualdaketa hori onartu. Kontseiluak bi arrazoi hauek izan zituen, ezetz esateko: lehenengo eta behin, egungo upelategia mahasti-gune batean kokatzen zen, eta gune hori jatorri-izenaren barruan inskribatuta zegoen; eta, bigarrenik, lekualdaketa gertatuz gero, horrek nahastea sorraraz ziezaiokeen kontsumitzaileari, inskribatutako mahastien lur-zati batean, mahai-ardoa egiteko upelategia geratzen zelako. Kontseilu Arau-emaileak uste zuen, upelategiren bat lekuz aldatzekotan, hori mahai-ardoa egitekoa izan behar zela. Kontseiluak bere erabakia jakinarazi zion interesdunari, baina ez zion adierazi ebazpenaren aurka errekurtsua jartzeko aukera zuenik. Horregatik, herritarrek Arartekoarengana jo zuen, erabaki hori Zuzenbidearekin bat datorren ala ez jakiteko.

- Azterketa

Labur-zurrean, lekualdaketari ezetz esateko arrazoiak hurrengoak izan ziren:

a) Jatorri-izenaren Kontseilu Arau-emailearen erregistroetan, hiru hektarea mahasti inskribatuta zeuden, eta hektarea horiek eta upelategia lur-zati berean zeuden.

b) Ez zen arrazoirik atzematen, kokaleku berrira lekualdaketa egiteko.

c) Lekualdaketa horrek nahastea sorraraz ziezaiokeen kontsumitzaileari, inskribatutako mahastiak inskribatu gabeko upelategi baten ondoan geratzen zirelako.

“Getariako Txakolina” Jatorri-izenaren Kontseilu Arau-emaileak arrazoi horiek erabili zituen, lekualdaketari ezetz esateko. Erakunde honen iritziz, arrazoi horiek desegokiak dira, antolamendu juridikoaren arabera; izan ere, ez da halako arrazoirik jasotzen, izaera horretako administrazio-jarduera justifika dezaketen arrazoiaren artean.

- Emaidza

Hori dela eta, erakunde honek gomendioa bidali zion “Getariako Txakolina” Jatorri-izenaren Kontseilu Arau-emaileari. Gomendio horren arabera, kontseiluak Prozedura administratiboaren izapidetza egin behar zuen eta, ondoren, aurretiaz hartutako erabakia ezeztatu behar zuen; esan bezala, erabaki horretan, txakolina egiteko upelategiari ukatu egin zion erregistro eskudunean inskripzioa egiteko aukera. Horrekin batera, Arartekoak gomendatu zuen, Kontseilu Arau-emailearen Osoko Bilkurak erabakia har zezan, interesdunak egindako eskariari buruz. Erabaki horretan, kontuan hartu behar zen, zehatz-mehatz, zeintzuk diren erregistro eskudunean upelategia inskribatzeko betekizunak. Betekizun horiek “Getariako Txakolina” Jatorri-izenaren Erregelamenduko 17.1, 18.1 eta 19. artikuluetan ezarritakoak besterik ez dira; nekazaritzako sailburuak erregelamendu hori onetsi zuen, 1989ko irailaren 21eko Aginduaren bitartez (EHAO, 201. zk., urriaren 25ekoa). Erabaki hori zioduna izan behar zen, eta labur-labur aipatu behar zituen, bai egitateak, bai Zuzenbideko oinarriak. Azkenik, Arartekoak Kontseilu Arau-emaileari gogorarazi zion, erabakia jakinarazi behar zuela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikulua ezarritakoaren arabera, lege horrek arautzen baititu herri administrazioen araubidea eta Prozedura administratiboa erkidea.

Administrazioak gomendioa onartu zuen.

⇒ *Mahasti berriak landatzeko eskubideak aitortzea (646/2001)*

- Erreklamazioa

Nekazari gazte batek kexa azaldu zion Arartekoari, ez zegoelako ados Arabako Foru Aldundi Txit Goreneko Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren jardunarekin. Izan ere, sailak eskubidea aitortu zion nekazariari, mahasti berriak bi hektareako azaleraren gainean bakarrik landatzeko; nekazariak, aldiz, hiru hektarearen gaineko onura eskatu zion aldundiari.

171/1999 Foru Dekretuak arautzen du zein prozedura bete behar den, Arabako Errioxan landatze-eskubide berriak eskuratzeko. Erreklamaziotzileak alegatu zuen, foru-dekretu horren arabera, berak 3 hektarearen gaineko onura eskuratu ahal zuela, bera nekazari gaztea zelako eta, eskubide berriak emateko orduan, inguruabar hori izango zelako gehien balioetsiko zenetarikoa.

- Azterketa

Arartekoak txostenaren eskaria egin zuen, interesdunak errekurtsoa aurkeztu zuenetik denbora gehiegi igaro zelako. Arartekoak Administrazioari helarazi zizkion interesdunak berak erabili zituen argudio berberak.

- Eraitza

Nekazaritza eta Ingurumen Sailak Arartekoari jakinarazi zion bere erabakia. Sailaren erabakiz, oniritzia emango zitzaion erreklamazioak jarritako birjarpen-errekurtsoari. Ondorenez, sailak eskubidea aitortuko zion nekazariari, hiru hektareako azaleraren gainean, mahastiak landatzeko. Izan ere, sailak adierazi zuen bezala, erreklamazioak nekazari gaitzea zen, nekazaritzako ustiategi baten titularrak zelako.

B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa

⇒ *Interesdunei egotzi ezin zaien preskripzio-kasu bat (154/2000)*

- Erreklamazioa

Elkarte batek kexa adierazi zion Arartekoari, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulego batek, espedientearen izapidetza egin eta gero, espediente hori artxibatu zuelako. Merkataritzako establezimendu edo saltoki batek bereizkeriako jarduera burutu omen zuen, eta horregatik ireki zen espediente.

Interesdunaren hitzetan, saltoki horretan jarduera arrazistak burutzen ziren, hala nola, interesduna barrura sar zedin eragozteko edota eskaintako produktuak berari ez saltzea. Interesdunaren ustez, saltokiak jarduera hori burutzen zuen beraren aurka, interesduna ijitoa zelako.

- Azterketa

Behin arazoa aztertu eta gero, eta bildutako datuak ikusitakoan, Arartekoak lehen aipatutako sail horretara jo zuen. Arartekoak gogorarazi zuenez, sailak salaketa artxibatzeko erabakia hartu zuen, saltokiari egotzitako egitateak ez zirelako egiaztatu. Alabaina, Arartekoaren iritziz, erabaki horrek ez zuen oinarri materialik, eta sailak nahitaezkoak diren frogabide guztiak erabili behar zituen, behintzat, zantzurik zegoen ala ez zehazteko. Zantzuak izatekotan, sailak espediente zehatzailea ireki behar zuen; eta, zantzurik izan ezean, salaketari ezezkoa eman behar zion, horretarako arrazoiak azalduz.

Gure esku-hartzearen ostean, Administrazioak frogabide-eginbideak burutu zituen. Eta, erantzuna emateko orduan, Administrazioak, eginbide horiez gain, beste erabaki bat gaineratu zuen. Erabaki horretan, Administrazioak jarduna artxibatzeko erabakia hartu zuen, egitateak preskribaturik zeudelako.

Sailak burututako azken jarduera horren ondorioz, Arartekoak beste komunikazio bat bidali zion sail horri. Komunikazio horren alderik garrantzitsuenak jarraian irakur daitezke:

“...Kexa-espedientearen izapidetza egin eta gero, espediente hori oso-osorik aztertu dugu, betiere, bildutako dokumentazioa kontuan hartuta eta arautegi aplikagarria gogoan izanik. Egiatan, gure ondorioa Administrazioaren iritziarekin bat dator: egitate horiek preskribaturik daude. Hori atera daiteke, hain justu ere, maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 48. artikuluko aginduak, 5.2, 38.1 a) eta 40 b) artikuluekin batera, aintzat hartuz gero. Manu horiek guztiak Merkataritzako Jarduerari buruzko Legean daude jasota (EHAO, ekainaren 13koa).

Ikuspuntu horretatik, beraz, Administrazioak lortu duen emaitza ezin da inola ere kolokan jarri. Hala eta guztiz ere, ezin dugu emaitza horrekin bat egin, espedientearen zehar Administrazioak izan duen jarrera kontuan hartuta.

Sail horrek ezin du alde batera utzi zein den Arartekoaren gida-lerrorik garrantzitsuenetarikoa, erakunde honek bere eginkizunak betetzen dituenean. Gida-lerro horren eretzean, Arartekoak herritarren eskubideak materializa daitezela bilatu behar du eta, hala denean, lortu ere, lortu behar du.

Ikuspuntu horretatik, aztergai dugun espedientearen, hauxe atzeman daiteke: ezinezkoa izan da Administrazioak bere irizpena ematea, gaiaren edukiari buruz, denbora igaro delako. Hau da, legeak alde aurretik finkatutako epea agortu egin da. Baina agortze hori ezin zaio erreklamaziogilearen jarduerari egotzi, erreklamaziogileak garaiz egikaritu baitzuen bere eskubidea. Agortze hori ezin zaio egotzi, halaber, erreklamaziopeko alderdiari, hau da, salatutako saltokiaren titularrari, horren jokabideak ere ez duelako bidegabeko eteterik edo geldiarazpenik eragin. Aztertutako aurrekarien arabera, preskripzioaren arrazoia Administrazioaren beraren eremuan kokatu behar da, Administrazioaren zeregina baitzen Zuzenbidearen arabera eztabaida konpontzea.

Aztergai dugun kasuan, sailak hartu zuen ikuspuntuaren ondorioz, preskripzioaren erakundea sartu da tartean, eta erakunde horrek bere ondorio guztiak sorrarazi ditu, espedientearen gainean. Horregatik, esangura hertsian, ezin dugu jakin erreklamaziogilearen eskariak zein erantzun izango zuen, edukiari buruzko erabakia ematea posible izanez gero.

Edozein modutan ere, hitz horiekin ez dugu aurreiritzirik islatu nahi, arazoaren edukiari buruz. Besterik gabe, hurrengo adierazi nahi dugu —eta hori nahikoa da—: arazoari heltzeko modua kritikatzeko modukoa izan da, eta modu horrek ekarri du, gorago azaldu dugun bezala, 1999ko azaroaren 11ko Ebazpena ematea. Arartekoak nahi duena, beraz, hauxe besterik ez da: aurrerantzean, mekanismo egokiak abian jarri behar dira, kritikaturako hori berriz errepika ez dadin.

Berba horien ondorioz, nahitaezkoa den guztia egin behar da, Administrazioak erreklamazioen edukiari buruz irizpena eman dezan, hori Administrazio jardulearen esku dagoen heinean. Horrela, edukiari buruzko irizpenak emango dira, merkataritzako jardueren arloan jartzen diren erreklamazioetan. Eta, horrekin, egia izango da —ez, ordea, amets hutsa— interesdunek Prozedura administratiboan duten eskubidea; eskubide hori dela eta, interesdunek jakin dezakete herri administrazioek zein iritzi duten, euren eskariei buruz, administrazioek eskari horiei oniritzia edo gaitziritzia ematen diotelako...”.

- Emaidza

Aipatu berri ditugun ohar guztiak kontuan hartuta, eta ohar horiek erreklamaziogileei bidali eta gero, guk uste genuen aukera guztiak agortu zitzaizkigula, gai horretan esku hartzeko. Horregatik, gure jardunari bukaera eman genion.

⇒ *Internet erabiltzeko sustapen publikoa (693/2001)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen, Langai-ren jarduera bat salatzeko.

Herritar horrek aurkeztutako keaxaren arabera, 2001eko otsailean, herritar horrek izena eman zuen, Interneteko ikastaro bat egiteko; ikastaro hori *Konekta zaitetz* kanpainaren egitarauan sartzen zen. Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza ematen zuen ikastaro horretarako, eta, beraz, dohainekoa zen. Edonola ere, ikastaroa egin aurretik, 5.000 pezeta ordaindu behar ziren; behin ikastaroa bukatutakoan, zenbatekoa hori itzuliko zitzaien parte-hartzaileei.

Erreklamaziogileak apirileko ikastaroan parte hartu behar zuen, Bilboko informatika-zentro batean. Alabaina, erreklamaziogilea, martxoan, lanean hasi zen, aldi baterako lan-enpresa batean. Horregatik, erreklamaziogileak ezin zuen apirileko ikastaroan parterik hartu, eta, ondorenez, horren berri eman zion, bai informatika-zentroari, bai Langai-ri. Azken bulego horretan, erreklamaziogileari adierazi zioten, egoera horretan, erreklamaziogileak bi aukera hauek zituela: 2005. urtean kanpaina bukatu baino lehen, beste data batzuetan, ikastaro horretarako izena ematea; edo, bestela, egitarauan parte hartzeari borondatez uko egitea, eta horren inguruko gutuna bidaltzea, fidantza berreskuratu ahal izateko.

Erreklamaziogileak ezin zuen data berririk zehaztu, ikastaroa egin ahal izateko; eta, horregatik, azkenean, ikastaroari uko egin zion, eta fidantza berreskuratu zuen. Hala eta guztiz ere, erreklamaziogileak uste zuen berari ezarritako ondorioa gehiegizkoa zela; esan bezala, ondorio hori izan zen, hain justu ere, kanpaina osoan zehar, ikastaroan parte hartu ezin izatea.

- Azterketa

Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari txostenaren eskaria egin genion. Arartekoak jakin nahi zuen zein arrazoi zegoen, hartutako neurria justifikatzeko.

- Emaidza

Heziketa eta Enpleguaren Sustapenerako Sozietate Publikoak (Egailan-ek) txostena prestatu zuen. Txosten horren arabera, neurriak helburu bikoitza zuen: alde batetik, parte-hartzaileak hezteko helburua behar bezala betetzea; eta, beste alde batetik, parte-hartzaileen jarduera maltzurren ondorioz, zorduntze eta itzulketen kudeaketa desegokia izan zedin saihestea. Beste hitz batzuekin esateko, helburua zen herritarrak kanpaina parte hartzea, eta, ondorenez, Internet erabiltzen ikastea. Horregatik, ikastaroa bukatzean, herritarrak ez bazuen erreminta menderatzen, orduan herritar horrek beste ikastaro bat egin zezakeen, inolako gordailurik egin gabe.

Hori kontuan hartuta, gordailuak ikastaroa egiteko eskubidea ematen zuen, probetxua lortuz, kanpainak zirauen bitartean, edozein unetan. Esan bezala, kanpaina hori 2005. urte arte luzatzen da. Ikastaroa bukatu bada, horretatik probetxua atera eta gero, orduan gordailuaren zenbatekoa itzultzen zaio parte-hartzaileari.

Edozein modutan ere, Egailan prest agertu zen, 2002ko urtarriletik aurrera, neurri hau hartzeko: ikastaroetan sartzea, aldi baterako, etenda utziko zuen, eta, zehatzago, urtebeterako etenda utziko zuen. Aukera berri hori herritarrei eskainiko zitzaien, baldin eta herritarrok, kanpainaren hasieratik, ezin izan bazuten ikastaroa egin, nahiz eta horretan izena eman, eta, egitarauak dirauen bitartean –lehen esan dugun bezala, 2005. urte arte–, beste data batean ikastaroa egiteko aukera hartu ez bazuten.

C) **Industria**

⇒ *Ibilgailuen Azterketa Teknikoan, automobila oso-osorik bigarrenez aztertu zen, lehenengo azterketa kontrakoa izan zelako. Eta, bigarren azterketa hori garaiz kanpo egiteagatik, tarifa kobratu zen (32/2001)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoari kexa helarazi zion. Kexa horren arabera, zerbitzu berezi batzuk daude, ibilgailuen azterketa teknikoak egiteko. Zerbitzu horiek herritarrari tarifa kobratu nahi zioten, haren ibilgailua bigarrenez eta oso-osorik aztertzeagatik. Izan ere, ibilgailuari bigarren azterketa egin zitzaion, lehenengoaren emaitza kontrakoa izan zelako. Bigarren azterketarako finkatutako epea ez errespetatzeagatik, tarifa ordaindu behar zuen herritarrak.

- Azterketa

Kexa aurkeztu zuenak zerbitzu egokietara eraman zuen bere ibilgailua, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko. Ibilgailuak ez zuen azterketa hori gainditu, eta zerbitzu eskudunek interesdunari epe bat eman zioten, lehenengo azterketan atzemandako akatsak zuzendu eta beste azterketa bat egiteko. Erreklamaziogilea bigarren azterketa horretara joan zen, baina epea agortu eta gero. Dena den, erreklamaziogile horrek Arartekoari adierazi zionaren arabera, akatsak bai zuzendu zituen, epe barruan.

Arartekoak aztertu egin zuen arazo horri aplikatu beharreko arautegia. Eta, ondoren, hurrengo ondorioa atera zuen: administrazio-jarduerak kexa eragin zuen arren, jarduera hori bat zetorren arautegiarekin. Izan ere, arautegiaren arabera, lehenengo azterketan akatsak atzeman badira, akatsok zuzentzeko epe bat eman bada, eta, epe hori igaro eta gero, ibilgailua bigarren azterketara aurkeztu bada, orduan beste azterketa bat egin behar da oso-osorik (urriaren 14ko 2.042/1994 Errege Dekretuaren 11. art.), eta zerbitzuaren tarifak bere barnean hartuko du bigarren azterketa, baldin eta hori egiten bada, berori egiteko finkatutako epearen barruan (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2000ko uztailaren 19an emandako Aginduaren 5. art.).

- Emaitza

Ez zen irregulartasunik atzeman eta, beraz, izapide gehiago egin gabe, espedientea itxi zen.

2. GIZARTE ONGIZATEA

2.1. SARRERA

Esparru honetan 2001ean azpimarratu beharreko gauzen artean otsailaren 8an sinaturiko Erakundeen arteko Hitzarmena azpimarratu beharra dago, Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak eta Eudel-en artean, gizarte zerbitzuen eskuduntzaren banaketari buruz. Pertsona autonomoen zainketa udalen eskuetan eta mendeko pertsonena Aldundien eskuetan izango dela adierazten da bertan.

Aurrekoarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua onartu zuen, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalei dagozkien gizarte zerbitzuen funtzioak erabakitzen duena. Gizarte zerbitzuen 5/1995 Legea garatzen du, alor honetako eskuduntzen egoera argituz, gure Autonomia Erkidegoan.

Neurri horiek poztu egiten gaituzte, 1998 urteari zegokion txostenean sartutako gomendio orokor batean aztertutako kontu batekin daukan loturarengatik. Adineko jendearentzako egoitza-zerbitzuetako erabiltzaileen partehartzeri buruz ari zen gomendia, eta Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Legea arau guztiak betetzen garatzeko duen beharraz hitz egiten zuen, nahastuta dauden erakunde bakoitzaren ardura mugatuz, beste gauza batzuen artean. Erakunde horien ahalegina ere eskatzen zen, esandako zerbitzuak ordaintzeko bakoitzaren partehartzeari buruz adostasuna lortzeko, hortaz, baita erabiltzaileen partehartzeari buruz ere, hauen artean gertatzen ari diren desberdintasun egoeran saihesteko.

Jende nagusia egoitzetara sartzeko kontuari lotuta, kexak jaso ditugu berriz ere, Bizkaian dauden itzaroteko zerrendengatik, eta zerrenda horietan sartzeko behar den denboragatik ere bai, behin eskatzaileen egoera mediko, sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta. Egoera ekonomikoa baloratzeko atzerapenak zeuden, eta honek laguntza ekonomiko indibiduala eskatzeko espedienteak gauzatzean eragina zuen. Gure informazio-eskakizunari erantzuteko, atal hori berrantolatzen ari zela jakinarazi zigun Aldundiak, 2002ko urtarrilean indarra izango duten neurriak hartuz.

Beste gauza batzuei buruz, batzuetan, orokorrean ezartzeko administrazio-xedapen bat zuzenbidearekin bat dator, baina xedapen hori burutzeak sozialki bidezkoak ez diren egoerak ekar ditzake berekin, talde edo kolektibo ezberdinen baitan ondorio ezberdinak eragin baititzake, egoera sozial edo ekonomikoaren arabera. 160/2001 kexaren laburpenean agertzen den kasuaz ari gara.

Zenbait kexek, etxerik gabekoei aterpea emateko etxe baten arautegiaren gauzatzearen kontrakoa, adibidez, etxe hauek barne arautegi argi bat izateko beharra nabarmendu dute, etxea darabiltenen eskubide eta betebeharrak, arauen erabilpen subjektiboa saihesteko, ahulagoak diren kalterako.

Gurasoen kexak jasotzen jarraitu dugu, organo foralek hartutako erabakiekin pozik ez zeudelako, seme-alaben tutoretza kentzeari, bisiten erregimenari eta erabakitako beste baldintza batzuei dagokienez.

Adin-txikiko minusbaliatu fisikoak dauzkaten eta igogailurik gabeko etxeetan bizi diren familiek pairatzen duten eragozpen arkitektonikoen arazoa ere landu dugu.

Azkenik, emakume batzuek erasoak jasotzen dituzte nortasun-asaldura edo beste buruko gaitzen bat duten semeen eskutik. Jadanik etxean bizi ez diren gizon helduak

dira –bertara joatea ere debekatuta dute, epaileak erabakita–, baina beste inon lortzen ez duten laguntza eta zainketa eske joaten dira, egoera zailak sortuz.

Aurreko urteotan bezala, egoitza eta egunean joateko etxeak bisitatu dira 2001ean, aurreko urteotan egindako gomendio orokorren segimendua egiteko, baita geroago onartutako arautegiaren egokitzearena ere (txosten honetako I. atala begiratu).

2.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) **Zainketa berezia behar duten taldeentzako laguntza**

⇒ *GIBaren (Giza Inmuno-eskasiaren Birusa) gaixotasuna duen pertsona baten zainketa zentro espezializatu batean (909/2001)*

- Erreklamazioa

GKE bateko boluntario batek GIBaren gaixotasuna oso aurreratu zuen pertsona baten kasua jakinarazi zigun. Ostatu batean bizi zen, baina abuztuan itxi egin behar zuen, oporrengatik. Gaixoa egoitza espezializatu batean sartzeko eskakizuna egin zitzaion Aldundiari, eta irailera arte ezinezkoa zela erantzun zuen honek. ez zen alternatibarik proposatzen.

Beraz, erakunde honetara etorri zen boluntarioa, abuztuan pertsona horrek jasoko zuen zainketak arduratuta. Bere ustez ostatua gaixoaren egoerarako egokiena ez zelako ere arduratu zen.

- Azterketa

Talde behartsuentzako zainketa programa bat dauka Aldundiak, GIBa duten gaixoak barne. Egoitza ere bai sartzan da programa horren barruan.

Erakunde honetan azaldutako arazoa programa horretan sartzan zelakoan geunden, eta horri buruzko erantzun bat eskatu zitzaion Foru Aldundiari.

- Emaidza

Egoitzan toki bat eman zitzaion interesdunari, abuztuaren 1tik aurrera, eta arazoa ondo konpondu zen.

⇒ *Hontza zentroa: Drogaren menpeko eta etxerik gabeko pertsonen arretarako gaueko zentroa sortzea (925/2001)*

- Erreklamazioa

Zamakola kalean prestatutako lokal batean (Urazurrutiako kaitik sartuta), Cáritas-Bizkaiak kudeatutako Hontza gaueko harrera zentroa martxan jartzean gorabehera eta arazo ugari sortu dira. Obrak amaitu ondoren, uztailearen 4an ekin zion zerbitzuari. Handik egun batzuetara, uztailearen 18an, auzotarrek protestak kontuan izanda, ixtea erabaki zen, elkarren aurkako jarrera desberdinak hurbiltzeko modua bilatzeko. Ondoren, alderdietako batzuen arteko adostasunaren ostean (gotzaintza eta alkatetza) eta auzotar

multzo handi bat aurka zegoela, abenduan berriro zabaldu zituen ateak, eta horrela jarraitzen du laburpen hau idazten ari garen uean, poliziaren babespean.

Ararteko erakundearen esku hartzea Zamakola 9ko jabeen erkidegoak aurkeztutako kexarengatik etorri zen. Auzotarren ehunka sinaduraz lagundutako kexa idatzia aurkeztu zuten, eta Cáritas-Bizkaiaren esku hartzeko eskaria egin zigun eta Bilbo Zaharra eta San Frantzisko eta Zabala kaleen Biziberritzearen aldeko Taldeen Koordinakundeak bere kezka helarazi zigun. Lehenengo kasuan, zentroa irekitzeak, beraien iritziz, auzoari ekarriko lizkioken arazo eta kalteak aipatzen ziren eta ixteko eskatzen zen; besteen kasuan, erakunde honek zentroak bere eginkizuna baldintza egokietan garatu ahal izateko esku hartu edo bitartekari aritzeko eskatzen zuten.

- Azterketa

Kexaren ondoriozko jarduera 2001eko uztailen hasi zen arren, izan ere Ararteko erakundeak askoz ere lehenago sartua zen zerbitzu honen beharraren inguruko gaien. Berezi, etxerik gabeko eta droga kontsumoko arazoak zituzten pertsona ugari bizi eta gaua ematen zuteneko La Najako kaitik bota zituztenean, 1999an. Inguru horretan inplikaturako elkarte desberdinekin, gizarte zerbitzuekin eta udaleko arduradunekin bileraz eginez, beraz, antzemandako beharren eta bai gaueko bai eguneko arretarako prestatutako egitasmoen berri bagenuen, lehenagotik. Erakundearen jarrera aktiboa, beti, zerbitzu horien beharra defendatu eta sortzea bultzatzea izan zen. Ildo horretako lege ez izateko proposamena ere bazegoen, Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onetsia.

Gaueko zerbitzua martxan jartzearen inguruan jasotako kexei eta sortutako arazoei dagokienez, oso garbi bereizten ziren bi plano zeuden, gutxienez: hirigintzako eta gizarteko.

Hirigintzako kontuei dagokienez, eta zehazki udalak irekitzeko lizentzia emateari, erakunde honek jarraitutako prozedura berrikusi zuen, auzotarrei jakinarazi beharra (ez baitzen halakorik egin) eta, behin haien alegazioak jaso eta aztertuta, lizentzia arauetan oinarrituz ematea defendatu zuen.

Gizartearen inguruko alderdiei begiratuz, aldeak hurbiltzeko bideak bultzatu dira, bai egitasmoaren eztabaida faseetan bai garapenean, behin zerbitzuari berrekin zaionean.

Esku hartzeak udaleko arduradunekin izandako bileretan, auzotarrei, Cáritasi eta Bilbo Zaharra eta San Frantzisko eta Zabala kaleen Biziberritzearen aldeko Taldeen Koordinakundeari emandako informazio idatzietan, zentroaren instalazioetara egindako bi bisitatan, jarrerak hurbiltzeko bileraren batera bertaratu, polizien jardueraren inguruko gestioetan ... gauzatu ditugu.

Irekitzeko lizentziak emateko eskumena duen Bilboko Udalari urriaren 15ean egin zitzaion gomendio formala: Hauxe gomendatu zitzaion:

- Udalak formalki eta premiaz Hontza zerbitzua zabaltzeko baimena ematea.
- Jarduerari ondo aritzeko bermerik handienez berrekiteko behar ziren urratsak egitea, bai zerbitzuaren erabiltzaileentzat bai inguruko auzotarrentzat.
- Zerbitzuaren jarraipena egitea, antzeko beste batzuek sortzeko oinarri gisa erabiltzeko.

Gomendioaren edukia alderdi guztiei jakinarazi zitzaion eta, auzotarren ordezkarien kasuan, argitzeko idazkiak eman genizkion elkarri, gerora.

- Emaidza

Bilboko Udalak zerbitzua irekitzeko baimena eman zuen, azaroaren 19ko ebazpenaren bidez.

Alderdien arteko hurbilketa ahaleginen eta bileren ondorioz, hasierako egitasmoari aldarazpen handiak egin zitzaizkion, arau exijentzia gutxiko Hontza zentroa irekitzeko baimenerako azaroaren 28ko dokumentuan jaso zirenak, eta zerbitzua beste instalazio batzuetara eramateko denbora muga bat ezarri zen (2002ko abenduaren 31).

Zentroak abenduaren 10ean zabaldu zituen ateak berriro, eta zerbitzua eskaintzen ari da orain arte, poliziaren begiradapean eta auzotar talde baten eguneroko protesta ekintzak daudelarik.

Batez beste 20 pertsonak erabili du gauero zentroa. Auzotar eta polizien jarduera batzuei dagokienez, jada 2002an, ofiziozko espedientea abiarazi da Herrizaingo Sailaren aurrean. Espediente horren berri gerora egingo ditugun txostenetan emango dugu.

B) **Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa**

⇒ *Telealarma aparatua ezartzeko atzerapena, izakinak bukatu zirelako (244/2000)*

- Erreklamazioa

Bakarrik bizi ziren adin handiko bere gurasoen etxean, udal batek telealarma aparatua bat ezartzeko itxaroten zeraman denborarengatik kexatu zen pertsona bat.

- Azterketa

Udal horrekin harremanetan jarrita, aparatua ezartzeko atzerapena egiaztatu eta izakinak pentsatu baino askoz ere lehenago agortu zirela adierazi ziguten. Eskakizunak, ezustean, asko areagotu zirelako gertatu zela erantsi zuten, 2000 urtean % 50a hazi baitziren jadanik ezarritako aparatua kopuruari dagokionez. Aurreikuspenak gainditu zituen egoera horrek, eta eskakizun gehienei erantzun bazitzairen ere, batzuk erantzun izan ziren erantzun.

Egoera horren aurrean, telealarmako ekipo berrien hornidura kontratatzeko espediente bat hasi zuen, larrialdiko prozeduraren bitartez, erantzun barik geratu diren eskakizunei kasu egiteko.

- Emaidza

Aparatu berriekin eta berreskuratzen ari zirenekin erantzun barik geratu ziren eskakizunei kasu egin zitzairen, kexa hura eragin zuenari barne.

C) **Bestelakoak**

⇒ *Ez zioten ohean lo egiten uzten, gauez jendea hartzeko egoitza batean (536/2001)*

- Erreklamazioa

Etxebizitzarik ez daukaten pertsoneri ostatu emateko udal zentro baten erabiltzaile batek aulki baten egiten zuela lo esan zigun, ez ziotelako ohe bat erabiltzen utzi, ohe libreak egonda ere. Zangoetan zirkulazio-arazoak zituen gainera, eta sendagileak etzanda lo egin zezan gomendatu zion.

- Azterketa

Etxe honen ardura duen udalari kasua jakinarazita, txosten bat bidali zigun udalak, erreklamaziogileari baldintza batzuk ezarri zitzaizkiola adierazten zuen baita ohe bat ematearen arazoa honek baldintzak betetzen zituen heinean bideratuko zela ere.

Espedientean aintzat hartu beharreko dokumentu guztiak aztertu ziren, etxe horren gaineko dokumentua barne, onartu berria zena. Zentro horren esparruan gutxieneko gauza batzuk eskatzen zirela esaten zuen dokumentuak, ostatu ematen zaion jende taldea kontuan hartuta, eta funtzionatzeko oinarrizko arauak ere agertzen ziren bertan.

Alderdi jakin batzuk hartu ziren kontuan: alde batetik, txostenean agertzen zire funtzionatzeko edo elkarrekin bizitzeko arauak ez zeukaten erreklamaziogileari adierazi zitzaizkion baldintzekin zerikusirik. Arau horietan, gainera, ez da adierazten zer gerta daitekeen baldintzak ez badira betetzen, ezta baloratze irizpideak eta arauak betetzeko prozedurak eta abar zeintzuk diren ere. Edozein modutan, erreklamaziogileari zigorra ezarri ondoren onartu zen dokumentua.

Bestalde, zentroak ez zien sendagilearen txostenei eta atsedean egoki baten egokitasunari jaramonik egin, eta ez zuen hori ez egiteko arrazoirik azaldu.

Hortaz, ohea ez erabiltzea galarazteko eta uko horri eusteko erabakiak oinarririk ez zuela pentsatu genuen. Horregatik, azaldutako egoeraren aurrean, osasun-arazoaren zainketak izan behar zuen nagusi.

- Emaiza

Gomendio bat bidali genion Gasteizko Udalari, egoera hori berriki zezan, interesdunaren osasun egoera kontuan hartzeko eta etorkizunean horrelako kasurik ez jazotzeko.

⇒ *Minusbaliotasun mailaren -foru aldundiek neurtua- eta lanerako ezintasunaren -GSINek neurtua- arteko ezberdintasuna: neurketa horiek guztiak egiteko alderdiak (783/2001)*

- Erreklamazioa

Ikusteko arazo bat zuen pertsona batek Foru Aldundiak onartu zion -% 14ko minusbaliotasun mailarekin ados ez zegoela adierazi zuen. Gizarte-Segurantzako Institutu

Nazionalak arazo beragatik Erabateko Ezintasun Iraunkorra onartu ziola argudiatu zuen horretarako. “Begi baten ikusmenaren galera” diagnostikoa okerra zela esan zuen ere bai, Aldundiaren organoak maila hori onartu ziolako.

- Azterketa

Alderdi ezberdinak neurtzen dira kasu bietan, eta konparazioa ez zen bidezkoa: arazoak pertsonaren eguneroko jardueren garapenean zein eragin duen baloratu nahi du minusbaliotasun mailak, ezintasunak arazo horrek lanean duen eragina baloratzen du, ordea.

Minusbaliotasun mailari dagokionez –kexaren arrazoia–, ikusteko aparatuen arazoekin lotuta egotean, baloratzea erregulatzen duen arau legalak zera erabakitzen du: ikusmenaren gaixotasun eta gaixotasun neuroftalmologikoen ondorio diren ikusmen-urritasunak besterik ez dira kontuan hartuko, behar den zuzenketa optikoa egin ondoren. Ikusmen-urritasuna mugatzeko arauak ezarri, diagnostikoa, baloratzea eta mailaketa egiteko irizpideak mugatu eta, azkenik, minusbaliotasun mailaren portzentajeei dagokionez, ikusmen-urritasunen bihurtze-taulak ere erabakitzen ditu.

Kexa testuinguru horretan sartuta, baloratze tekniko-medikuari dagokionez desadostasun batez ari zen pertsona interesduna..

- Emaiza

Oinarri bat izanik, baloratze egokia egin ez ziotela, diagnostiko okerra egin ziotela –berak nahikoa egiaztatzen zuen hori– pentsatzen badu eta behar diren txosten-medikuak aurkezten baditu, bere kasua berriz berrikustea eska zezakeela jakinarazi zitzaion interesdunari, berrikuspen horiek egiteko orokorrean ezarrita dagoen bi urteko epea itxaron gabe. Mailaren onarpena eragin zuten gorabeherak benetan aldatuz gero ere saihestez dezake epe hori.

⇒ *Baztertuta dauden pertsona batzuk bizi ziren txabola batzuen eraketak berekin zekarren arazo soziala (820/2001)*

- Erreklamazioa

Errautsi behar ziren txabola batzuetan bizi ziren etnia ijitoko bi familien arazoa adierazi zuen GKE batek. Familia horiek duela hamar urtetik bizi ziren bertan, baita erroldan sartuta egon ere.

Etxebizitzak egiteko enpresa bati saldutako lur pribatu batean kokatuta zeuden txabolak. Horregatik eskatu zuen jabeak okupatzaileek txaboletatik berehala alde egiteko. Okupatzaileek beste etxebizitzarik ez zutelako jarraitzen zuten bertan.

- Azterketa

Arazoak, hasiera batean, kutsu pribatua baldin bazeukan, txabolen jabea eta bertan bizi ziren familien artekoa, bistakoa zen bere alderdi soziala, sozialki baztertuta dauden pertsona talde bati buruz zela kontuan hartuta. Botere publikoen partehartzea eskatzen zuen alderdi horrek.

Udal horrengana jo zuen erakunde horrek, udal zerbitzu sozialen eskutik kasuaren baloratzearen gaineko informazioa eskatzeko. Udala familia horiek nonbait kokatzeko gestioak egiten ari zela erantzun ziguten, lanen hasiera eta, beraz, txabolen eraisketa, atzeratu nahi zen.

- Emaidza

Arazoaren segimendua eginez, bi famili kaltetuak beste bi etxebizitzetan kokatuak izan zirela jakinarazi zigun udalak, udalaren laguntzaz. Laguntza sozialeko plan batean sartuta zeuden gainera, birgizarteratzeari begira, eta hau gauza ona da, pertsona horien problematika orokorra kontuan hartuta –izaera sozial eta ekonomikoa.

Arazoa ondo konponduta geratzean, espedientea itxi egin zen.

D) Adineko pertsonak

⇒ *Jende nagusiarentzako egoitza batean sartzeko diru-laguntza eskatzearen arazoa konpontzeko epea (147/2001)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek bere ahizpak, 2000ko irailean, jende nagusiarentzako egoitza batean sartzeko laguntza indibidual bat eskatu zuela, baina urte horren bukaeran, espediente konpondu barik hila zela adierazi zuen. Atzerapen horren ondorioz, ahizparen egoitza pribatua ordaindu behar izan zuen pertsona horrek. Horregatik egiten zion erreklamazio bat Foru Aldundiari.

- Azterketa

Laguntza hori erregulatzen zuen arautegiak sei hilabeteko gehienezko epea ematen zuen eskakizuna erabakitzeko. Egoitzako tokiaren gastua ordaintzeko beharra, Erakundeei dagokienez –udala eta Foru Aldundia–, ebazpenean esandako datan hasiko zela esaten zuen, gainera, eskatzailea jadanik egoitzan sartuta egonez gero, kasu honetan bezala.

Kexaren aurretikoak aztertuta, laguntzaren eskatzailea hil zenean, eskakizuna egin zenetik hiru hilabete igaro zirela ikusi genuen, beraz, Administrazioa espediente konpontzeko arauak ezarritako epearen barruan zegoen.

Hori kontuan hartuta, ezin da Administrazioari betebehar bat egoztearen proposamena egin.

- Emaidza

Ez zen legezko irregulartasunik ikusi Administrazioaren jokaeran, hortaz, espediente artxibatu zen.

E) **Eduki ekonomikoko gizarte sariak**

⇒ *Orokorrean erabiltzeko Ebazpen bat legearekin bat dator, baina errealitatean ezartzeak materialki bidezkoak ez diren egoerak ekar ditzake berekin (160/2001)*

- Erreklamazioa

Oinarrizko Errenta jasotzen zuen pertsona bat Gipuzkoako Foru Aldundiak hilero atxikitzen zion kopuruaz kexatzen zen, kopuru batzuk jaso behar ez zituela erabaki baitzen eta hori bueltatzeko txikitzen zitzaion dirua.

Sei kideko famili baten parte zen eta 105.175 pezetako Oinarrizko Errenta zegokion hilero, baina 18.932 pezeta deskontatzean 86.243 pezeta jasotzen zituen. Eskatzaileak bere familiari jaten eta oinarrizko beharrak emateko kopuru hori ez zela nahikoa adierazi zuen. Horregatik nahi zuen hileroko atxikimendua txikiagoa izan zedin.

- Azterketa

Behin kasua aztertuta, kenketa orokorrean ezartzeko ebazpen batek esaten zuenari zegokiola ikusi zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Komunitatearen Gizarte Zuzendari Nagusiak 2001eko urtarrilaren 29an ezarritako ebazpenari, alegia, IMIa (Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera) jasotzen dutenei egokitu behar zaien deskontuen esparruan jaso behar ez zituen kopuruak bueltatu arte.

Hiritarrek jaso behar ez zuten dirua bueltatzeko betebeharrean zegoen oinarrituta ebazpen hori, eta Administrazioak zeukan diru hori bueltarazteko eskuduntza. IMIa erregulatzen duen arautegiak ezarritako gehieneko kopurua errespetatzen zuen, gainera (bazterte sozialaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeko 19 eta 36 artikulua, eta apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuko 49 eta 50 artikulua, IMIaren erregulatzailerak.

Hala ere, ebazpen horren edukia aztertu zen erakunde honetan, zorraren une ezberdinetarako ezarritako deskontuaren portzentajei dagokienez, eta ebazpenak errealitatean ezartzean berekin zekartzan ondorioak ikusi ziren. zorra eta familia handiak zirenean, zordunei eskatzen zitzairen ahalegin ekonomikoa are handiagoa zela esaten zuen azterketak. Pertsona bakar batek bi baldintza horiek betez gero sekulakoak ziren presioa eta ahalegina, batez ere familiak bost kide baino gehiago zituenean.

Ondorioz, aztertutako ebazpena legearekin bat bazetorren ere, errealitatean erabiltzeak materialki bidezkoak ez ziren egoerak eragiten zituela pentsatu zen, eta hobetu egin behar zela iruditzen zitzaigun, pertsona interesdunen errealitateari eta euren benetako ahalbide ekonomikoei egokitzuz.

- Emaita

Gizartekintzari bidaltzen dizkiogu azterketa hau baita dagozkion azalpenak ere, berak balora ditzan eta bere iritzia bueltan bidaltzeko, baita egin ditzakeen ekarpenekin batera.

Sail horrek iritzi hauen gaineko baloratze edo kontrako arrazoirik adierazi. Aipatutakoari buruzko iritzi eskatzeko beste idatzi bat bidali zion erakunde honek, epe jakin batean erantzunik ez bazuen jasotzen, ados ez zegoela irudituko zitzaioela esanez.

Behin behar den denbora tartea igarota, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezio azken idatzi honi erantzun, eta partehartzeko gure ahalmena agortuta, espedientea artxibatu zen.

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

3.1. SARRERA

2001. urtean, guztira, 15 kexa aurkeztu ziren, arlo horretan. Kexok honetara bana daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz)	5
- Foru administrazioa	1
- Tokiko administrazioa	8
Elebitasuna	9
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ..	3
Kirolak	2
Kontratazio araubidea eta administrazioaren Erantzukizuna	1

Kulturari dagokion atalean, kexak jartzen dira, kulturarako eskubidearen egikaritzari buruz. 2001. urtean, kexa gehienek zerikusia izan zuten, arazo instrumentalekin, kultur arazo hertsiekin baino gehiago. Arazoak sortu ziren, esate baterako, espedientea eskuratzeko; eta, era berean, herritarrek administrazio publikoei idazkiak aurkeztu eta gero, administrazio horiek ez zuten idazki horien gaineko erantzunik eman, eta horrek ere arazoak sorrarazi zituen.

Kirolari dagokion azpiarloan, arazo berezia sortu zen, adingabe batekin. Adingabe hori aldi baterako harrera-araubidean zegoen eta, kirolari buruzko arautegiak bigarren mailako betekizun gisa, egoitzaren eskakizuna ezartzen zuen. Arartekoak informazio-eskaria egin zuen eta, eskari horren erantzunean, Administrazioak adierazi zigun ez zegoela inolako eskaririk, adingabea federatzeko. Hala ere, kexa ikusita, bazirudien nolabaiteko oztopoak izan zitezkeela, adingabearen administrazio-egoera ezohikoa zelako. Behin eskaria formalizatu eta gero, adingabea federatu zen.

Elebitasunaren inguruan, egoera bereziak sortu ziren. Egoera horietan, planteamendua ez zen juridikoa izan behar, esangura hertsian; baina, azterketa guztietan, kontuan hartu behar zen euskara ere ofiziala zela.

Jakina denez, herritarren eskubidea da euren administrazio-harremanetan euskara erabiltzea. Sarritan, Administrazioak baliabiderik eza alegatzen du, herritarren eskubide hori mugatzeko. Alegazio hori ezin da orokorrean azaldu; aitzitik, kasuan-kasuan zehaztu behar da, eta benetan saihestezinak diren kasuetara mugatu behar da.

Ohar hori aintzakotzat hartu behar da, bereziki, administrazio-eremu jakin batzuetan, eremu horietan oraindik urria delako enplegatu publikoen euskalduntze-maila. Ildo horretatik, Administrazioak formula egokiak bilatu beharko lituzke, funtzionarioek, euren jardunean, euskararik ez jakitea eragozteko, batik bat, funtzionario horiek herritarrekin harremanak dituztenean eta herritar horiek euskara erabili nahi dutenean.

Planteamendu horretan, esan gabe doa hurrengo betebeharra: Administrazioari dagokio bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea bermatzea; eta hori ez da bakarrik enplegatuen kasuan, banan-banan, bermatu behar. Aurreko txostenetan eta, zehatzago, 1998 eta 1999ko txostenetan, egoera horien adibideak jaso ziren. Adibideotan, ukitutako

administrazioek –Gasteizko Udalak eta Herrizaingo Sailak– behar bezala egiaztatu behar zuten, ezintasun materiala zutela, euskararen erabilera bermatzeko. Horretarako, agente batek ez badaki euskararik, eta egoerak hori ahalbidetzen badu, orduan egiaztatu behar da ea aukerarik dagoen, une horretan eskura dauden eragileetatik beste edozeinetara jotzeko.

Herritar batek kexa aurkeztu zuen 2001. urtean. Kexa horren izapidetza egiteke dago. Dirudienez, ukitutako administrazioek neurriak hartu dituzte –hartu dituztenetan, bederen–, baina neurriok askiek izan dira edo ez dituzte ondorio desiragarriak izan.

3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Elebitasuna

⇒ *Udal aldizkari batean euskara erabiltzea (601/2001)*

- Erreklamazioa

Elkarte batek kexa helarazi zion Arartekoari. Elkartearen iritziz, udal aldizkarian, ez zen euskara erabiltzen, nahitaezko den neurrian. Balorazio hori egitean, elkarteak abiapuntu gisa hartu zituen Eusko Legebiltzarreko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8. artikuluko aginduak.

Udalak idatzizko erantzuna eman zuen. Erantzun horretan, udalak interesdunei adierazi zien bere ustez aldizkariak ez zuela legea hausten, eta aurrerantzean euskara gehiago erabiltzeko itxaropena zuela. Udalak gaineratu zuenez, bi hizkuntzen erabilera bat zetorren, udal horretako biztanleriaren ehunekoekin.

- Azterketa

Euskara gaztelania baino askoz gutxiago erabiltzen zen aldizkari horretan, eta udalak ez zuen hori zalantzan jartzen. Baina udalak azpimarratzen zuen aldizkarian euskara ez zegoela baztertuta.

Arartekoak kexa aztertu zuen, 10/1982 Legearen 8. artikulua ikusmiratik. Arartekoaren iritziz, manu horrek zenbait betebeharrak ezartzen dizkio udalari, eta udalak ez zituen betebeharrak horiek hautsi, eztabaidatutako aldizkarian. Aipatutako 8. artikulua horren bigarren paragrafoaren arabera, aurretiazko aukera izan behar da; eta, jorragai dugun kasuan, ez zen halakorik izan, xedapen arau-emaile batean, administrazio-egintza batean, ezta herritarrek Administrazioarekin banan-banan izandako harremanetan ere. Balorazio juridiko horren eretxean, kexa ez zen kokatu behar eskubide subjektiboen esparruan; eskubide subjektiboen kasuan, horien titularrak beste alderdiari eska diezaioke, horrek berehala bete dezan, haren eskubideen ondoriozko betebeharra.

Argudioak errepikatze arriskua badago ere, berriz adierazi behar da gai horri heltzeko abiapuntua izan behar zela, hain justu ere, mailakatzeko printzipioa; argi esateko, euskararen erabilera normalizatzeko orduan, mailaz maila jardun behar da, eta udalak berak neurtu behar du mailakako egokitzapen hori.

Arartekoak, kexa aztertu zuenean, ez zuen behar besteko daturik izan, udal aldizkari hori antzeko udaletako aldizkariekin konparatzeko. Baina, konparazioak alde batera

utzita, Arartekoak jarraikoa uste zuen: udalak, abiapuntu moduan, bi hizkuntzen izaera ofiziala aitortu behar zuen; eta, hortik abiatuta, udalak erabaki egokia hartzeko eskumena zuen, betiere, egokitasun-irizpideak oinarri moduan hartuta.

Hortaz, arazoa aukeramenaren esparruan kokatu behar zen eta, gauzak horrela, Ararteko erakundeak hauxe ulertu zuen: udal aldizkariak euskararen erabilera zenbatekoa izan behar zen balioesteko, ez zen besterik gabe aldizkari horretara alderatu behar biztanleria euskaldunaren ehunekoak, zergatik eta euskararen ofizialtasuna ez delako hori dakien biztanleriaren ehunekoaren arabera.

- Emaiza

Barakaldoko alkateak adierazi zigun ados zegoela Arartekoaren balorazioarekin. Eta alkateak beren beregi adierazi zuen bere konpromisoa zela, udal aldizkariaren gerogarreneko aleetan, euskara gehiago erabiltzea, betiere, egokitasun-irizpideak aintzat hartuta eta eskura dauden baliabideetatik abiatuta.

B) **Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa**

⇒ *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gutunak bidali zizkien “Gazte Txartela”ren titularrei; izan ere, enpresa zehatz batek telefono mugikorrek merkaturatzen ditu, eta, gutun horietan, sailak publizitatea eman zuen, telefono horiek erosteak zituen abantailei buruz (665/2001)*

- Erreklamazioa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, kanpaina berezia sustatu zuen, eta, kanpaina horren aurka, kexa helarazi zitzaion Arartekoari.

Laburbilduta, zuzendaritza horrek gutunak bidali zizkien “Gazte-Txartela”ren titularrei. Gutun horien arabera, 2001. urteko apirilaren 6tik 29 arte, titularrok “... eurek nahi zuten telefono mugikorra, ia musu-truk” eskura zezaketen; baina telefono hori “Euskaltel”-ekoa izan behar zen, Eusko Jaurlaritzak enpresa horrekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz.

- Azterketa

Abiapuntuko datuak horiek izanik, Arartekoak hasiera eman zion espedienteari. Arartekoaren iritziz, hiru hauek ziren arazorik interesgarrienak: kanpaina sailaren zereginekin bat etortzea; sailak berak zuzenean kanpaina egitea; eta, orobat, kanpainaren eskaintza beste enpresa batzuei ez egitea.

Arartekoak hiru arazo horien berri eman zion sailari, horrek informazio egokia bidal zezan. Gainera, Arartekoak aukera eman zion sailari, horren ustez egokia zena adierazteko. Horren ondorioz, erakundeek elkarri gutunak bidali zizkioten. Izapidetza osoa aztertutakoan, Arartekoak zenbait ohar plazaratu zituen, eta, jarraian, ohar horien laburpena alderatuko dugu hona.

Gaiari lehen hurbilketa egitean, Arartekoak harridura izan zuen, egia esan behar bada. Arartekoaren aburuz, gertatutakoa nekez sar zitekeen, kultur arloko arduradunaren zereginen artean, eta ardura hori du, hain zuzen ere, euskal organo erkide horrek. Bide

horretatik, oso-oso zabal interpretatu behar ziren sailaren helburuak, horren ardurapeko ondasunen artean, telefono mugikorrek eta horien sustapena sartzeko.

Kanpainaren helburua zen kontsumorako artikulua bat eskaintzea, alegia, telefono mugikorrek eskaintzea. Eskaintza horren jasotzaileak biztanle gazteak bakarrik ziren; eta, dakigunez, gazteak oso sentiberak izaten dira, kontsumorako ondasunen publizitate-iragarkiei begira. Babestu edo bilatu beharreko interesa guztiona edo publikoa izanik, administrazio-jarduera hori nekez justifika zitekeen, horretarako arrazoiak bilatzea oso zaila baitzen.

Aurreko oharrak guztiz baztertu gabe, arazoaren gaineko azterketa egiteko, ikuspuntu juridiko hertsia erabili genuen. Lehenengo eta behin, Administrazioak zuzen-zuzenean kanpaina burutu izana aztertu genuen, maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren ikusmiratik (EHAO, hilaren 19koa); dekretu horrek finkatu ditu Euskadiko "Gazte-Txartela" ren sorrera eta arauketa. Ikusmira horretatik, Arartekoarentzat harrigarria izan zen jarraikoa: telefono mugikorrek ezaugarri bereziak izan ez arren, Administrazioak banakako informazio-bidea erabili zuen. Bide hori ez zegoen arauan ezarrita eta, horregatik, tentu eta arreta handiarekin erabili behar zen, beste enpresa edo establezimenduei begira tratu desberdina barneratzen zuelako.

Hortaz, publizitate-kanpaina egiteko modua aztertu zuen Arartekoak. Administrazioak berak, zuzen-zuzenean eta banakako gutunak bidaliz, enpresa batek merkaturatutako produktua eskaini zuen. Arazo horri konponbidea bilatzeko, maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretura jo behar zen, lehen aipatu bezala. Dekretu horren 6. artikulua jarraikoa ezartzen du:

"Gazte-Txartela zerbitzuaren itzalpean, erakunde publiko nahiz pribatuek abantaila orokorrek eskaini ahal dituzte, baldin eta erakundeok euren jarduerak burutzen badituzte, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta atxikimendurako dokumentu egokia sinatzen badute, Kultura Sailarekin; dokumentu horretan zehaztuko da zein ondasun eta zerbitzu eskainiko den eta gazteek beharpenetan zein baldintza izango duten. Erakunde horiek identifikatzeko, Kultura Sailak horretarako ezartzen duen ikurra erabiliko da".

Kexak zalantzan jarri zuen Administrazioaren jardura, eta ez genuen uste keza horretan azaldutako arrazoiak konbentzigarriak zirenik: txartelaren titularrei buruzko datu pertsonalak babestuta zeuden, eta datu horiek ez zitzaizkien beste batzuei laga; orokorrean, gida argitaratu eta titular horien artean banatu zen (bertan zetozen eskainitako abantailak, beharpenak, zerbitzuak...), aldian-aldian bakarrik; jorragai dugun kanpaina kasu berezia baino ez zen.

Kasu horietan guztietan, jokoan dauden interesak babesteko, nahikoa da, berriz diogu, lehen aipatutako dekretu horretara jotzea. Horri kalterik egin gabe, jardura osagarriak burutu ahal dira: eranskinak argitaratzea edota gida eguneratzea... Bide horiek informazio orokor eta objektiboa emateko erremintak izan daitezke, eta ez dute lehentasuneko traturik ematen, atxikitako enpresa eta establezimendu desberdinei begira.

Hirugarrenik, hurrengo arazoa aztertu zen: beste enpresa batzuek ere sektore horretan interesa zuten, baina ez zuten aukerarik izan, baldintza berdinetan, kanpainan parte hartu nahi zuten ala ez esateko. Beste modu batera esanda, ez zen mekanismo egokirik erabili, interesdun desberdinen parte-hartzea bermatzeko.

Lehenengo iritzi horiek baieztatu egin ziren, eta argudio gisa erabil zitezkeen, telefoniako beste eragileei eskaintzarik ez egitea defendatzeko. Izan ere, garatu beharreko kanpaina enpresaren eta Administrazioaren arteko harremanen ondorioa zen, eta harreman horiek Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginetik kanpo geratzen ziren; arau horren arabera, ordea, guztion parte-hartzea ezinbestekoa da, berak arautzen dituen kasuetatik bat gertatuz gero.

Arazo horri dagokionez, hurrengo aldarrikatu zen: jorragai dugun kasua aipatutako legearen d) lerrokadako 3.1 artikuluaen salbuespenen artean sartzen zen. Gure aburuz, ez zen nahitaez argitu behar zein izaera juridiko zuten atxikitako erakundearen eta administrazio-sailaren arteko harremanek; are gutxiago, horrekin baztertu nahi baziren aztergai dugun kasuak Zuzenbidearen munduarekin zituen lotura guztiak. Interpretazio hori onartuz gero, manuak berak aipatzen du egindako hitzarmenen arau bereziak bete behar direla. Jarraian, sail horren eta “Euskaltel”en arteko hitzarmenaren punturik interesgarrienak alderatuko ditugu hona:

“Aipatutako erakundeak (“Euskaltel”ek) Gazte-Txartelaren ekimenean parte hartuko du, eta abantailak eskainiko ditu; Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak Gazte-Txartelaren Gidan sartuko ditu abantaila horiek...”

(...)

“Eskaintza zehatza Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzarekin itunduko da; eta, horretarako, hitzarmen hau sinatuko da. Hitzarmen honetan zehaztuko dira, besteak beste, eskaintako produktu edo zerbitzuak, kopurua, mota, abantailen baldintzak eta zein tokitan eskaintzen diren abantaila horiek. Gazte-eskatzaileei, txartelarekin batera, gida emango zaie, eta bertan argitaratuko da informazio hori.”

(...)

“Eusko Jaurlaritzak, urtero-urtero, beharrezkoa den aurrekontua erabiliko du, ekimen hori garatzeko, bereziki, Gazte-Txartelak eskaintzen dituen abantailen informazioari dagokionez. Bestalde, laguntzaileek, ahal duten neurrian behintzat, euren publizitate-kanpinetan zehaztuko dituzte Gazte-Txartelaren titularrei eskaintzen dizkieten abantailak.”

Hori guztia bat dator –ezin da bestela izan–, maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoarekin. Ez da hain egokia, ordea, erakunde horrek jardunikoarekin konparatzen badugu, lehen adierazi izan dugun bezala.

Edozein kasutan ere, ezin ukatuzkoa da ondokoa: bestelako erakundeei, aldi berean, ez zitzaien inolako aukerarik eman, ekimenari atxikimendua adieraz ziezaioten. Eta, gauzak horrela, gertaerak jazo ahala, Administrazioak zenbait erabaki hartu behar izan zituen: enpresa batekin eta ez gehiagorekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzea; sektore osoaren barruan, enpresa zehatz batekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzea... Hitzarmen horien oinarria ez dugu ondo ulertzen, batez ere, kontuan hartzen baditugu sustatutako tresnen merkatuan gerta daitezkeen ondorioak. Ondorio horiek sailhestea oso erraza zen, nahiko baitzen mekanismoren bat ezartzea, beste interesdunen parte-hartzea bermatzeko.

Aurreko guztia aintzakotzat hartuta, hurrengo ondorioak atera genituen: hasieran pentsatu genuen gomendio bat bidali behar geniola sail horri; zentzuzkoa denez, gomendio horren arabera, sailak bere jarduna egokitu behar zuen, jorragai dugun

zerbitzuaren dekretu arau-emaile horretara. Nolanahi den ere, azaldutakoa oinarri gisa hartuta, ez genuen uste ahalmen hori erabiltzea komenigarri zenik, Administrazioaren jarduerak ez zielako kalterik egin Gazte-Txartelaren titularrei; aitzitik, onurak ekarri zizkien.

Kontua argi gera dadin: abantailak aipatzen ditugunean, ikuspuntu material hutsa erabiltzen dugu. Izan ere, Gazte-Txartelaren titularrak telefonoa erosi badu, orduan ziur aski, hasieran behintzat, onura ekonomikoa lortu du, eskaintzaren aholkuari kasu egiteagatik. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste telefono mugikor batzuk eskuratzeagatik, bestelako abantailak lortu ezin direnik.

Era berean ere, eta hasieran esandakoari berriro helduta, hurrengo ideia errepikatu nahi dugu: etorkizunean, aztergai dugun jardueraren antzekoak burutu nahi badira, orduan, kanpaina berezia kontuan hartuta eta eskainitako ondasun-mota gogoan izanik, zorroztasunez eta alde aurretik aztertu beharko da kanpaina horren oinarria, betiere, Kultura Sailak zerbitzu publikoa egin behar duela ahantzi gabe. Era berean ere, baliabideen erabilera justifikatu beharko da eta, orokorrean, zeregin horiei lotutako multzo burokratikoa ere.

Bukatzeko, beste erakunde batzuen interesak alde batera utzi gabe, Arartekoak hauxe adierazi nahi dio Administrazioari: Administrazioak, etorkizunean, irizpide hedatzaileari eusten badio, aipatutako dekretuaren aginduak aplikatzeko orduan, eta sinatutako hitzarmenen baldintzak hobetzen baditu, horiei atxikitzen denaren ikusmiratik, orduan administrazio horrek formula egokia bilatu behar du, interesdunek ere, aldi berean, borondate horren berri izan dezaten; izan ere, interesdunek borondate horren berri baldin badute, orduan, sartutako aldarazpenen baldintza izan daiteke, izan ere, haiek kanpainen parte hartzeko erabakia edo parterik ez hartzeko erabakia.

- Emaizta

Laburpen hau prestatu eta gero, Kultura Sailari adierazi genion zein zen gure balorazioa, aztertutako kasuari buruz. Horrekin batera, aurretiaz azaldutako ondorioak helarazi genizkion Kultura Sailari, eta bukaera eman genion gure esku-hartzeari, aztertutako arazo horietan berrikuntzarik gertatzen ez zen bitartean.

C) **Kultur ondarea**

⇒ *Ondasun zehatz bat kultur intereseko ondasuna zela adierazi zen; eta informazioa eskatu zen, adierazpen horri buruzko espedienteaz (447/2000)*

- Erreklamazioa

Debako Kultur Elkarteak informazio-eskaria egin zion Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzari, eta zuzendaritza horrek ez zion erantzunik eman eskari horri. Horregatik, elkarteak kexa helarazi zion Arartekoari. Arealan ere, Zumaiako hirigunearen eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugaren artean, Donejakuerako Bidearen zati bat dago; eta, eskariaren arabera, elkarteak bide-zati horren planoak eskuratu nahi zituen.

- Azterketa

Lehenengo eta behin, Arartekoak hauxe adierazi zion elkarteari: azaroaren 26ko 30/92 Legeak herri administrazioen araubidea eta administrazio-prozedura erkidea arautu ditu; lege horren 42. artikularen arabera, administrazioek, gehienez jota, hiru hilabeteko epea dute, herritarrek egindako eskariei erantzuteko.

Oraindik ez zegoen agortuta legeak erantzuna emateko ezartzen duen epea. Hori dela eta, Arartekoak Kultura Sailari eskatu zion, egoeraren berri eman ziezaion; berri horiek jasotzean, Arartekoak jakin zezakeen eskariaren izapidetza zein egoeratan zegoen.

Kultura Sailak hauxe adierazi zion Arartekoari: elkartearen eskariari zegokionez, planoak argitaratuta zeuden, kultur intereseko ondasun gisa, Donejakuerako Bideak Euskaditik egiten duen ibilbideari begira; eta ez zegoen beste planorik. Plano horiek jasota zeuden, egindako espediente horretan.

Kultura Sailak adierazi zuen, halaber, elkarteari informazioa eman ziola, espedientea eskuratzeko aukerari buruz.

- Eraitza

Aurreko ohar guztiak kontuan hartuta, eta behin administrazio horren erantzuna egiaztatu eta gero, gure esku-hartzeari bukaera eman genion, gai horretan.

4. HEZKUNTZA

4.1. SARRERA

2001 urtean 61 kexa aurkeztu dira Hezkuntza alorrean. Beraz, kexa-kopurua zertxobait jaitsi da (13 kexa gutxiago) 2000 urtekoaren aldean. Hala ere, bideratu diren kexen kopuru osoa igo egin denez gero, nabarmenkiago jaitsi da alor honek erakundearen jarduera osoan duen pisu erlatiboa, orain % 5,03koa baita.

Kontuan hartzen badugu kexak zein administrazio ukitzen zuen, orduan, jasotako kexen banaketa honetara geratzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .	45
- Foru administrazioa	1
- Tokiko administrazioa	8

Aitzitik, kexak sailkatzeko, kontuan hartzen badugu zein den gaien edukia, orduan kexen banaketa edo sailkapena hurrengoa izango da, azpiarloak bereiziz:

Unibertsitateko irakaskuntza	16
Eskubideak eta betebeharrak	11
Ikastetxeak	8
Heziketa artistikoak	7
Bestelakoak	7
Heziketa berezia	3
Lehen hezkuntza	3
Haur hezkuntza	2
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ..	2
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	1
Lanbide heziketa..	1

Aurkeztutako arazoen azterketari ekinez, lehenengo eta behin, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana aipatu behar dugu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak, plan hori onetsi zuten, 2001eko apirilean. Hezkuntzako talde batzuk plan horren aurka jarri ziren, besteak beste, 0-3 Haur Hezkuntzaren Defentsarako Mahaian barneratutakoak. Talde horiek erakunde honen bitartekaritza eskatu zuten. Eskari horren azken helburua zen, hain justu ere, autonomia-erkidegoko botere betearazleak prestatutako proiektua berrikustea. Talde haien iritziz, proiektu horrek laguntza-izaera baino ez zion ematen 0 eta 2 urte arteko haurren eskolatzeari.

Arartekoak bilera egin zuen, mahai horren ordezkariekin. Bilera horretan, Arartekoak gogorarazi zuen behin eta berriz esku hartu behar izan duela, hezkuntzako lehenengo etapa horren inguruan. Esku-hartze horiek, argi eta garbi, hauxe erakutsi dute: hezkuntzako agintariei dagokie Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa ezarri eta egokitzeko prozesua. Zehatzago esateko, hezkuntzako agintariak prozesu horren buruzagiak izan behar dira, eurei aplikatzen baitzaie Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen agindua; agindu horren arabera, hezkuntzako agintariak, mailaz maila, eskolatzeko eskariari egin behar diote aurre, 0 urtetik aurrera.

Horretarako, legeak berak ezartzen du nola jardun behar duten: hezkuntzako agintariak elkarlanean aritu behar dira, gainerako administrazioekin eta hezkuntzako agenteekin, horiek ere etapa horretan parte hartzen duten heinean. (Ildo horretatik, azpimarratzekoak dira honako gomendio orokor hauek: “Haur Hezkuntza, eta familiako nahiz lanbideko erantzukizunak bateratzea” eta “Euskal Autonomia Erkidegoan, Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa hedatzea”; bi gomendio horiek 1996 eta 1999. urteko txostenetan jaso ziren, hurrenez hurren.)

Zorionez, txosten honen prestaketa ixteko unean, prentsak informazio berriak argitaratu ditu. Informazio horiek aurreratzen dutenez, erakundeen arteko batzorde bat sortuko da, eta batzorde horretan parte hartuko dute Administrazio Orokorren, foru aldundien eta UEMArek ordezkariek. Batzorde horri eratziki zaizkion zereginen artean, nagusia da hezkuntzako etapa horren arauketa aztertzea. Hori dela eta, guk uste dugu, epe laburrera, hezkuntzako zerbitzu hori ezarri eta orokortuko dela, hori nahitaezkoa da eta. Edonola ere, erakunde honen asmoa da, prozesu hasi berri horren gainean, jarraipen egokia burutzea.

Hortaz, komenigarri gertatzen da hezkuntzaren lehendabiziko etapa hori arautzea. Komenigarritasun hori atzeman daiteke, orobat, ikaslerik ahulenei edota hezkuntzako beharrian bereziak dituztenei laguntza goiztiarra emateko orduan. Egin-eginean ere, Arartekoak Hezkuntzako Administrazioari bidali dizkion gomendioen artean, horixe izan da bat. Hala egin zuen, 2001eko txosten berezia aurkeztean; jakina denez, txosten horren izenburua hurrengoaren: Hezkuntzako beharrian bereziei emandako erantzuna, EAE-n. Txosten honen I. kapituluak, horren berri jaso dugu, eta kapitulu horretara jo behar da, hezkuntzako beharrian bereziei buruzko ikuspuntu osoagoa eta zehatzagoa izateko. Erakunde honen proposamena hauxe izan zen: haurtxoak eskolatzean, erabateko lehentasuna eman behar zaie ikaslerik ahulenen gaineko irizpideei, egokitasun-irizpideen kalterako, nahiz eta praktikan azken horiek gailendu. Erakunde honek zenbait kexaren izapidetza egin du, eta kexa horiek aipatutakoa erakusten dute, hala nola, ingurune zehatz batean, eskolako guneak edo gizarte-ekimenak izatea ala ez izatea.

Ondorenez, ikasleek Hezkuntzako beharrian bereziak badituzte, orduan ikasle horiengan arreta berezia jarri behar da. Ildo bertsutik, eta aurretiaz aipatutako ideia bati berriro ekinez, kontuan hartu behar da erakundeen arteko lankidetzaren handiagoa izan behar dela, gizarte-osasuneko guneari begira, erantzukizunak argi gera daitezen, eta garapena eta koordinazioa errazagoak izan daitezen.

Gure iritziz, erakunde honek zenbait kexaren izapidetza egin duenez gero, kexa horiek kontrolerako elementuak izan daitezke. (Izan ere, fiskalizazioko alde hori beti agertuko da, hezkuntzako zerbitzu publikoa ondo edo okerretara egiten den aztertu behar delako). Horrela, kexa horiek beharrian berriak atzemateko bideak izan daitezke; eta, euren bitartez, EAEko hezkuntza-zerbitzuaren izaera oro-hartzaile eta bateratzailea sakondu ahal izango da. Esangura horretan, hurrengoaren azpimarratu behar da: 2001. urtean jasotako kexetan, hainbat arazo azaldu ziren, besteak beste, adimeneko gainzuzkidura duten ikasleengan arreta jartzea eta, behin hogeitau urte bete eta gero ere, adimeneko atzerapen larria duten ikasleei jarraipena egitea.

2000. urtean gertatu aldera, 2001. ekitaldian, ez zen banakako kexarik jaso, ikasleak onartzeari buruz. Nolanahi den ere, erakunde honek jarduera berezia izan zuen, hezkuntzako beharrian bereziei erantzuteko; eta, jarduera horretan, honako gomendio hau egin zuen: neurri egokiak hartu behar ziren, hezkuntzako beharrian bereziak dituzten

ikasleak modu orekatuan banatzeko eta “eskolako guettoak” saihesteko. Neurri horien artean, besteak beste, hurrengoa aipa daiteke: matrikulazioari buruzko arautegia berrikusi behar da eta, arautegi horretan, mekanismo edo tresna egokiak barneratu behar dira, ikasle horiek ekitatez birbanatzeko, hori beharrezkoa baldin bada.

Haatik, bai jaso ziren zenbait kexa, hezkuntzako plangintzaren neurri batzuei begira, ikasle ahul izateak zer-nolako eragina zuen ikusita. Kexa horiek zalantzan jarri zuten Administrazioaren erabaki batzuk egokiak izatea, hala nola, ikastetxeak batu (Ramón Bajo IP eta Gasteizko Santa Maria IP) eta, horren ondorioz, ikasleak lekuz aldatu behar izatea, edota talde berriak baimentzeari ezezkoa ematea (Portugaletoko Angela Figuera BHI). Aztertutako kasuetan, erakunde honek ez zuen arrazoirik atzeman, hartutako erabakiak berrikusi behar zirenik esateko –nahiz eta ikastetxe horietako ikasleen ezaugarri bereziak aintzakotzat hartu–.

Gure iritziz, aipatzekoa da, orobat, Getxoko Udalak izan zuen jarduna, alkatetzak izandako ekimen baten ondorioz. Alkatetzak hala erabakita, herritarrei gutuna bidali zitzaientzen, B eta D hezkuntza-ereduetako matrikulazioari buruz. Dirudienez, jarduteko modu horrek norberaren eta familiaren intimitaterako eskubide hauts zezakeen; eta, gainera, jarduera horrek udalaren eskumenak gainditzen zituen. Gure ikusmiratik, Udal Administrazioak ez zuen eskumenik, hezkuntzako eredu jakin batzuetan matrikulazioa sustatzeko, beste eredu batzuen kalterako. Gure iritziz, udalaren eskumena hauxe besterik ez da: udalak parte har dezake, udalaren eremuan hezkuntzaren programazioa zuzena izan dadin, hizkuntz eredu guztien eskaintza ziurta dadin, eta ikastetxea eta hezkuntzako eredia aukeratzeko askatasuna berma dadin.

Ikastetxeei dagokienez, Arartekoak zenbait kexaren izapidetza egin zuen. Kexa batzuen ondorioz, Arartekoak hausnarketa egin zuen, hezkuntzako instalazioen eta espazio publikoen gizarte-erabilerari buruz; beharbada, komenigarri izan daiteke gai horretan gutxieneko arauketa edo Administrazioaren esku-hartzea izatea. Esku-hartze horren helburua izan behar da, gune horietan eskolatik kanpoko jarduerak antolatzen direnean, jarduera horiek, lehentasunez behintzat, irabazteko asmorik ez izatea. Era berean ere, esku-hartze horren bitartez ziurta daiteke jarduerotan interesa duten guztiek (erakundeek, pertsona juridikoen, pertsona fisikoen) horietan parte hartzeko aukera izatea (1.149/2000 kexaren laburpena).

Bekei eta ikasteko laguntzei dagokienez, gure aburuz, Hezkuntzako Administrazioak kontraesaneko jarduna burutu zuen, eta hori ozenki esan beharra dago. Alde batetik, Hezkuntzako Administrazioak uste zuen eskabideen izapidetza eta kudeaketa ziurtatu behar zirela. Eta, horretarako, oinarri gisa, dokumentazio frogatzaile zalantzaezina erabiltzen zuen. Eskuarki, zergen inguruko dokumentazioa izaten da hori –horixe ikus daiteke, maiz-sarri, laguntza horiek eskuratzeko deialdien oinarrietan–. Esate baterako, 2001. urtean, kexa zehatz baten izapidetza egin zuen Arartekoak. Kexa horren bitartez, hauxe egiaztatu zen: hiri finketako ondare-osagaiak kalkulatzeko (egitezko inguruabarrak edozein izanik ere), oinarrien egungo idazkerak igorpena egiten zuen, ondasun horien katastro-balioen batuketara. Horrela, Hezkuntzako Administrazioak, berezko irizpidea erabili beharrean, zergen ondorioetarako ezarri diren balioak onartzen zituen, eta ez zuen zalantzan jartzten, egiazko errentagarritasun-irizpideen arabera, irizpide horiek zuzenagoak ala okerragoak ziren.

Beste batzuetan, aldiz (adibidez, profesionalen edo langile autonomoen diru-sarrerak kalkulatu behar zirenean, horiek zenbatespen objektiboko zerga-araubideen menpe

daudela kontuan hartuta), Hezkuntzako Administrazioak ez zuen kontuan hartzen diru-sarrera horiek zein zerga-tratamendu zuten. Paradoxa badirudi ere, Hezkuntzako Administrazioak adierazi zuen diru-sarrerak egiazko errentagarritasun-irizpideekin zenbatetsi behar zirela.

Jarduteko modu horrek bazuen oinarri formalik, deialdietako oinarriek hori ematen ziotelako. Baina, Hezkuntzako Administrazioarentzat, nahierara jokatzeko arrisku nabaria zekarren. Nekez justifika zitekeen, kasu horretan, diru-sarrerak egiazko errentagarritasun-irizpideekin kalkulatzea. Bestalde, oso zaila zen herritarrei hurrengo azaltzea: ekimen publiko batzuetan (etxebizitzaren arlokoetan...), diru-sarrerak kalkulatzeko, zerga-irizpideak ziren baliozko irizpideak; baina, beste arlo batzuetan (hezkuntzaren arloko laguntzetan, esaterako), diru-sarrera horiek baztertu egiten ziren, eta beste batzuk erabiltzen ziren, haien orde. Hori egiteko arrazoia bidezkoa zen, hain justu ere, egiazko errentagarritasun-irizpideei erreparatzea; baina nahierakeriaren susmoa begi-bistakoa zen.

Unibertsitateko hezkuntzaz denaz bezainbatean, 2001. urtean, eta berrikuntza gisa, kexa anitz jaso ziren, Euskal Herriko Unibertsitateak ikasleak onartu eta matrikula egiteko erabiltzen zuen prozesuari buruz. Salaketa horiek, batik bat, Arte Ederretako Fakultateak etorri ziren.

Arartekoak zenbait jarduera burutu zituen, eta jarduera horiek erakutsi zuten disfunczio larriak zeudela; disfunczio horien eretzean, prozesu horrek arauketa berria izan behar zuen. Akademia Antolakuntzarako Errektoreordetzak adierazi zuen, 2002–2003 ikasturterako, eraldaketa hori burutuko zuela. Hala ere, erakunde honek zenbait gomendio luzatu zituen, egungo ikasturtean igarritako disfunczioei aurre egiteko; eta gomendio horiek ez zuten harrera onik izan (1.073/2001 kexaren laburpena).

4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Doktorego-egitarauak. Ikaslerik ez izateagatik, matrikulak deuseztatzea (199/2001)*

- Erreklamazioa

Euskal Herriko Unibertsitateko Doktorego Bulegoak ebazpena eman zuen, eta ebazpen horren gaineko kexa helarazi zitzaion Arartekoari. Ebazpen horren ondorioz, hirugarren zikloko ikasleentzat, doktorego-egitarautik ezabatu egin zen “Administrazio eta Konstituzio zuzenbidearen egungo arazoak” izenekoan egindako matrikula. Konstituzio eta Administrazio Zuzenbideko Departamentuak proposatu zuen egitarau hori, eta Doktorego Batzordeak onetsi egin zuen, 2000ko maiatzaren 29ko bileran.

- Azterketa

Euskal Herriko Unibertsitatean, Hirugarren Zikloaren Kudeaketarako Arautegiak (EHAO, 55. zk., martxoaren 20koa) zenbait betekizun xedatzen ditu, doktorego-egitarauak eskaintzeko. Betekizun horien artean, bat da egitarau horretako ikasle-kopurua

hamarrekoa baino txikiagoa ez izatea. Horixe ezartzen du, ezarri ere, arategi horren 7.1 artikulua.

Hala eta guztiz ere, arategi berberak aitortzen duenez, Doktorego Batzordeak, salbuespenez, egitaraua baimendu dezake, nahiz eta egitarau horrek ikasle-kopuru txikiagoa izan.

Jakin bagenekien azken arau hori salbuespenekoa zela. Baina, kexaren lehenengo balorazioa egin eta gero, Ararteko honek Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkaritza Nagusira jo zuen. Arartekoak galdetu nahi zuen ea aukerarik zegoen, "Administrazio eta Konstituzio zuzenbidearen egungo arazoak" izeneko doktorego-egitarauari, ezezkoa eman beharrean, baimena emateko.

Esku-hartze horri erantzunez, Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiak Akademia Antolakuntzarako errektoreordearen txostena helarazi zion erakunde honi. Txosten horrek beren beregi aipatzen zuen apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuan jasotako arauketa. Errege dekretu horrek arautzen ditu, besteak beste, unibertsitateko ikasketen hirugarren zikloa, doktore-titulua lortu eta luzatzea, bai eta graduondoko beste ikasketa batzuk ere (EAO, 107. zk., maiatzaren 5ekoa). Errege dekretu hori oinarri moduan hartuta, justifikatuta dago, gutxienez, hamar ikasle izatea. Aldi berean ere, errektoreordeak adierazi zuen ez zegoela aukerarik, edozein salbuespen kontuan hartzeko. Salbuespenak aintzat hartzekotan, horiek erraztu egin behar dituzte jakintza-gai, departamentu edota unibertsitate desberdinen arteko egitarauak, eta hori ez zen gertatzen, "Administrazio eta Konstituzio zuzenbidearen egungo arazoak" izeneko egitarauarekin.

- Emaidza

Akademia Antolakuntzarako errektoreordeak emandako azalpenak aintzakotzat hartuta, erakunde honek ez zuen irregulartasun-arrazoirik atzeman, Euskal Herriko Unibertsitatearen jardunbidean; eta, horregatik, ez zuen bestelako esku-hartzerik burutu.

⇒ *Ebaluazioa. Goi zikloetara igotzea (873/2001)*

- Erreklamazioa

Haur batek Lehen Hezkuntzako etaparen ikasketak egin zituen. Eta haurraren amak erakunde honetara jo zuen, haurraren tutoreak erabaki zuelako haur hori DBH mailara ez igotzea. Amak, bere kexaren oinarri gisa, adierazi zuen aurretiaz ez zela entzunaldirik izan, tutorearen eta gurasoen artean.

- Azterketa

Lehen Hezkuntzako etapan, ikasleen ikaskuntza nola ebaluatu behar den jakiteko, 1993ko maiatzaren 5eko Agindura jo behar da, horrexek arautzen baitu kontua (EHAO, 101. zk., ekainaren 1ekoa). Ebaluazio horrek zenbait ezaugarri izan behar ditu, eta horietako bat da, hain zuzen ere, oso-osokoa izatea. Horrek esan nahi du, haurren ikaskuntza-prozesuan pertsona desberdinek parte hartzen dutenez gero, horien guztien ikuspuntuak aintzat hartu behar direla. Hori dela eta, zenbait agindu ematen dira, ikasleen

ebaluazio-prozesuan, gurasoek ere parte har dezaten. Parte-hartze horren helburua da tutoreek eta gainerako irakasleek dituzten datuak osatzea.

Jakina denez, Lehen Hezkuntzako etapa horretan, ikasleak etengabeko ebaluazio-prozesuaren menpe daude. Familiak, aldian-aldian, prozesu horretan parte hartzen dute; eta, aldizkako partaidetza horretaz gain, kasuan kasuko parte-hartze zehatzak izan ditzakete, adibidez, ikasleek ez direnean igoko, goiko ziklo edo etapetara. Arian ere, 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren 17.2 artikulua ezarri duenez, ikasle batek ez baditu gainditzen ezarritako helburuak, eta tutoreak erabakitzen badu ikasle hori ego ez dadin, orduan, erabaki hori hartu aurretik, entzunaldi egokia egin behar zaie ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari.

Edozein modutan ere, argi geratu behar da zein den entzunaldi horren helburua. Izan ere, entzunaldiaren bitartez, ikaslearen inguruko datu osagarriak bildu nahi dira; datu horiek ezezagunak izan daitezke eskolaren esparruan, baina esanguratsuak izan daitezke, familiaren ingurunean. Beste modu batera esanda, tutoreak egin du ebaluazioa, eta kontua ez da ebaluazio hori zalantzan jartzea edo, horren ordeztu, beste bat egitea. Aitzitik, gurasoei entzunaldia egiten zaienean, helburua da ebaluazioa oso-osokoa izatea. Horretarako, bestelako datuak bildu behar dira; horiek ere esanguratsu eta garrantzitsuak izan daitezke, ebaluazio-prozesu horretan, baina, beharbada, eskolako esparruan, ez dira oso ezagunak.

Abiapuntuak horiek izanik, Arartekoak, kezaz gain, berak jasotako dokumentazioa aztertu zuen. Hori egin eta gero, hurrengo ondorioa atera genuen: amak beste entzunaldi bat eskatu bazuen ere, entzunaldi horren helburua zen, bakar-bakarrik, tutoreak egindako ebaluazioa zalantzan jartzea. Hori argi geratu zen, amak, bere asmoa justifikatzeko, hurrengo azalpena eman zuelako: "... entzute handiko bi akademiatarara eta bi psikologorengana jo genuen. Euren iritziz, gai akademikoetan, haurrak lor ditzake eskatutako maila akademikoak; eta, beste alde batetik, eurek uste dute, haurren heldutasunerako, ez dela komeni haurrak ikasturtea errepikatzea."

Arartekoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo eta gero, Ikuskapen Zerbitzuaren txostena jaso zuen. Txosten horrek baieztatu egin zuen, haurra goiko ziklora ez igotzeko erabakia behin betiko hartu aurretik, bilera izan zela, tutorearen eta ikaslearen gurasoen artean.

- Emaizta

Erakunde honek ez zuen arrazoirik atzeman, kezaren eragileak nahi zuen bezala, bestelako jarduerak justifikatzeko.

B) **Irakaskuntza artistikoak**

⇒ *Donostiako Musika Kontserbatorioa. Irakasleak aldatzea (102/2001)*

- Erreklamazioa

Donostiako Musika Kontserbatorioko ikasleen guraso-talde batek erakunde honetara jo zuen, oso kezkatuta zegoelako seme-alaben egoerarekin. Izan ere, seme-alabak euren musika-ikasketen azken ikasturtean zeuden eta, ikasturtea bukatu baino lau hilabete lehenago, musika-tresnaren irakaslea aldatu zuten.

- Azterketa

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzibideetarako Gelak, epai batean, adierazi zuen ezin direla irakasleak gaitu, irakasgai zehatz batzuk emateko, baldin eta irakasleok ez badira irakasgai horietako titularrak. Epai hori betearaztearen ondorioz, egoera berezia gertatu zen, eta horrek ekarri zuen kexa jartzea. Izan ere, ordu arte, irakasleak musika-tresna erakutsi zien ikasle horiei, baina bere lanpostua utzi beharra izan zuen.

Horregatik, Arartekoak kasua aztertu zuenean, kontu handiarekin jokatu zuen, betiere, otsailaren 27ko 3/85 Legearen 13.1 artikulua aintzat hartuta. Jakina denez, lege horrek Ararteko erakundea sortu eta arautu du. Lege horren arabera, Arartekoak ezin ditu banan-banan aztertu zenbait kexa, baldin eta kexa horiei buruz epai-ebazpena emateke badago edo jadanik eman bada.

Edozein modutan ere, Arartekoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo zuen, kasu horretan esku hartzeko aukerarik zuen ala ez jakiteko. Arartekoak jakin nahi zituen epai hori betearazteko xehetasun guztiak.

Esku-hartze horri erantzunez, Ikastetxeetako zuzendariak auziaren aurrekariak azaldu zizkigun eta, horrez gain, Hezkuntzako Administrazioak adiskidetzehalekin egin zituela azaldu zigun. Ildo horretatik, hauxe adierazi zuen Ikastetxeetako zuzendariak: ... Zuzendaritza honek, gaia aztertu eta gero, aitortu egin behar du, kasu horretan, eskubideek elkar jotzen dutela. Alde batetik, XXX jaunak eskubidea du, espezialitateari dagozkion irakaskuntzak garatzeko, bera espezialitate horretako titularra baita, oposizioak gainditu eta gero. Zuzendaritzako taldeak ere eskubidea du, irakaskuntzen barne antolaketa xedatzeko. Eta, era berean, ikasleek eskubidea dute, kalitatezko eta oso-osoko hezkuntza jasotzeko; halako hezkuntzaren barruan sartzen da, behin ikasturtea hasi eta gero, irakaslea ez aldatzea. Baina horixe zen, hain justu ere, eztabaidan edo auzian zegoena. Arazo horretan, bitartekari jardun dute Gipuzkoako lurralde ordezkariak eta, zehatzago, bertako eskuordeak, Saiaren barruan Araubide Berezia duten Hezkuntzen teknikariak, bai eta ikuskatzaile teknikoak ere. Hainbat bilera egin eta gero, horiek ez dute lortu inolako arrakastarik...".

Erakunde honek bat egin zuen Ikastetxeetako zuzendariaren hitzekin. Haren ustez, arazoaren gakoa hauxe zen: epaiak mesede egin zion irakasleari eta, ondorenez, irakasle horren borondatea zen ahalik arinen epai hori betearaztea edo, hala denean, betearazpen hori atzeratzea; izan ere, auzia konpontzeko, interesdun horren eskubideari lehentasuna eman zitzaion, oposizio bidez lortutako irakaskuntzak garatzeko.

- Emaitza

Ondorenez, erakunde honen bitartekaritza-ahalekin alferrekoak izan ziren, eta, horren ondorioz, nahitaez aplikatu behar zen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 13.1 artikuluan agindutakoa.

⇒ *Eskaria egin zen, musikaren irakaskuntza dohainekoa izan zedin (396/2001)*

- Erreklamazioa

Ikasle batzuek gradu ertaineko musika-ikasketak egiten zituzten, Leioako Kontserbatorioan; eta, aldi berean, batxilergo-ikasketak egiten zituzten, herri horretan

bertan, José Miguel de Barandiaran BHI horretan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ahalbidetu zuen ikasle horiek bi ikasketak batera egin zitzaten, lekuz aldatu barik; izan ere, institutuko irakasleak eurak joaten ziren musika-zentro horretara, eskolak ematen.

Ikasketak antolatzeko modu berezi horri Musika Batxilergo izena eman zitzaion. Horren eretzean, ikasle horietako baten gurasoak eskatu zuen ikasketa horiek guztiak dohainekoak izan zitezten. Gurasoaren ustez, batxilergoko beste modalitate batzuei begira, musika-batxilergoak tratu desberdina jasotzen zuen.

- Azterketa

Kexa onartu eta gero, erakunde honek informazio-eskaria egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Jarraian, Ikastetxeetako zuzendariak emandako erantzuna oso-osorik alderatu da hona, oso interesgarria delako:

LOGSE izenekoaren (hau da, Hezkuntzako Sistema Orokorrean Antolatzeko Lege Organikoaren) 41. artikulua aginduta, hezkuntzako administrazioek ikasleei aukera eman behar diete, aldi berean, musika-ikasketak edo dantza-ikasketak eta araubide orokorreko ikasketak egiteko. Horretarako, hezkuntzako administrazioek koordinaziorako beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bi ikasketen antolaketa edo antolamendu akademikoari dagokionez.

Helburua hori izanik, 2000–2001 ikasturtean, esperientzia pilotua hasi da, batxilergo 1. mailako eta gradu ertaineko 5. mailako ikasleekin; ikasleok ikasketa horiek egiten dituzte, José Miguel Barandiarán BHI horretan eta Kontserbatorioan, Leioan (Bizkaia). Ikasleek bi ikasketa horien irakaskuntzak jasotzen dituzte, Leioako Kontserbatorioan, bertara baitoaz Institutuko irakasleak. Egoeraren antolaketa eta ikasle-kopurua aintzat hartuta, egoera hori salbuespenekoa dela aitortu behar da. Izan ere, bost ikasle daude, eta bostok batxilergo 1. mailako taldea osatzen dute, nahiz eta kopuru urri-urria izan. Zehatz esateko, ikasle horiek irakasgai hauek egin behar dituzte: batxilergo gai erkideak, modalitate horretako ikasgaiak (horien bitartez, selektibitatea egin dezakete eta unibertsitateko ikasketa desberdinetara joan daitezke) eta musikako gradu ertainaren 5. mailari dagozkionak.

Hortaz, ikasle horiek, aldi berean, batxilergoko ikasketak eta musikako ikasketak egiten dituzte. Beste ikasle batzuek ere batxilergoko eskolak hartzen dituzte, kasuan kasuko BHI horretan eta, gainera, edozein kontserbatoriotan edo zentro baimendutan, musikako gradu ertaina egiten dute; ikasle horiek ere, orduan, bi ikasketak egiten dituzte, nahiz eta abantaila berberak izan ez. Horregatik, kexa-idazkian dohaineko ikaskuntza eskatzen denean, dohaineko ikaskuntza hori **ikasle guztiei hedatu beharko litzaieke, baldin eta ikasleok, aldi berean, batxilergoko ikasketak eta gradu ertainekoak egiten badituzte; ez litzaieke bakarrik aplikatu behar Leioako ikasle horiei, alegia, antolaketa eta kopuruaren aldetik salbuespena osatzen dutenei.**

Bestalde, kexa-idazkiak gaineratzen du ez dela ulertzen “Musika Batxilergoa” dohainekoa ez izatea, gainerako batxilergoak dohainekoak direnean. Kexak, beraz, dohainekotasun-eskaria egiten du eta, horretarako, oinarri gisa hartzen du Musika Batxilergoa batxilergoaren modalitate bat izatea. Hori okerreko abiapuntua da. Izan ere, azaroaren 29ko 1.700/1991 Errege Dekretuak ezartzen du zeintzuk diren batxilergoaren modalitateak (3.1 art.). Horren arabera, modalitateak jarraikoak dira: arteak, natur zientziak eta osasun-zientziak, humanitateak eta gizarte-zientziak, eta teknologia. LOGSE deiturikoaren 41.2 artikulua, egiatan, hauxe baieztatzen du: “ikasleek gradu ertaineko hirugarren zikloa bukatzen badute, orduan batxilergo-titulua eskura dezakete, baldin eta batxilergoko gai erkideak gainditzen badituzte”. **Baina horrek ez du esan nahi gradu ertaineko ikasketak batxilergoaren modalitateak direnik.**

Laburbilduta, kexa-idazkiak denaz bezainbatean, erantzun hirukoitza eman daiteke:

1. **Leioako ikasleen egoera akademikoa eta zentro desberdinetan bi ikasketak egiten dituztena berbera da.** Desberdintasun bakarra, izatez, hauxe da: Leioako ikasleek baldintza hobekak dituzte, ikasle-kopuruari eta antolaketari dagokienez.

2. Musika Batxilergo izenekoak **ez da batxilergoaren modalitate bat.** Nahastea sortu da, batxilergo-titulua eskura daitekeelako, LOGSE izenekoaren 41.2 artikulua arabera. Gaur egun, horrek bakarrik ahalbidetzen du Goi Gradura heltzea, behin proba egokia gainditu eta gero.

3. Musika-ikasketak **ez dira araubide orokorreko ikasketak, baizik eta araubide bereziko ikasketak.** Horregatik, ez dute tratamendu bera izan behar, dohainekotasunari dagokionez.

- Emaidza

Nabari denez, txosten horrek laburtu egin zuen lehen aipatutako esperientzia pilotua, eta horri emandako tratamendu berezia azaldu zuen. Izan ere, egoera berezi horretan zeuden ikasle batzuk, araubide orokorreko ikasketak Leioako José Miguel de Barandiarán BHI horretan egitearekin batera, musikako gradu ertainaren ikasketak egiten zituztelako, Leioako Kontserbatorioan. Txosten horrek argi eta garbi utzi zuen ikasle horiek, aldi berean, araubide orokorreko ikasketak eta araubide bereziko ikasketak egiten zituztela. Eta, azken finean, txostenak justifikatu egiten zuen horrek esparru ekonomikoan zuen eragina, jasotako ikaskuntzen kostuari zegokionez.

Horren guztiaren ondorioz, erakunde honek kexa egin zuenari adierazi zion berak ez zuela irregulartasun-arrazoirik edo nahierakeriarik atzeman, Hezkuntzako Administrazioaren jardunbidean.

⇒ *Musika-irakastegiei diru-laguntzak ukatzea (443/2001)*

- Erreklamazioa

Bilboko Juan de Antxieta musika-zentroko ordezkariak erakunde honen bitartekaritza eskatu zuen, euren egoera larria zelako, batik bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hartutako erabaki baten ondorioz. Sailak deialdia egin zuen, musika-zentroeiei diru-laguntzak emateko. Eta, deialdi horren esparruan, sailak laguntza ekonomikoa ukatu zion Bilboko zentro horri.

- Azterketa

Esan bezala, sailak deialdia egin zuen, musika-zentroeiei diru-laguntzak emateko; horretarako, baldintza zen, zentro horren finantzaketan, tokiko administrazio publikoek parterik ez hartzea. Deialdi hori 2000ko urriaren 17ko Aginduaren bitartez iragarri zen (EHAO, 212. zk., azaroaren 6koa).

Deialdiaren oinarriari helduta, eta, zehatzago, hirugarren oinarriari helduta, zenbait betekizun ezarri ziren, eskaria egin eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko. Betekizun horien artean, hirugarren oinarriak beren beregi ezarri zuen hurrengoa: zentroak egunean izan behar du zerga-betebeharren betepena, eta nahitaez aurkeztu behar ditu hori egiaztatzen duten agiri edo dokumentuak.

Eskariak aurkezteko epea bukatu eta gero, musika-zentro horretako ordezkariak ordainketa atzeratzeko hitzarmena aurkeztu zuten, zentroak hori sinatu baitzuen, Bizkaiko Foru Ogasunarekin. Hala eta guztiz ere, arazo juridiko formal hutsak kontuan hartuta, Hezkuntzako Administrazioaren jardunari ezin zitzaion inolako kritikarik egin; are gehiago, ordezkariak eurek onartzen zuten ez zutela garaiz aurkeztu deialdiaren hirugarren oinarrian ezarritako dokumentazioa.

Bestalde, ordezkari horiek eskaria egin zioten erakunde honi, Gizarte Segurantzako Nazio Institutuan (GSNI horretan) bitartekari jarduteko. Horren inguruan, erakunde honek azpimarratu zuen halako zeregina betetzeak beraren eskumenak gainditzen dituela. Izan ere, Arartekoaren jardute-ahalmenak euskal administrazio publikoen esparrura mugatzen dira. Nolanahi den ere, modu informalean, interesa jarri genuen, GSNI horretako arduradunek musika-zentro horri begira zein jarrerari eutsiko zioten jakiteko. Arduradun

horiek baieztatu ziguten orduko bidean zeudela enbargo-prozedura eta jendaurreko enkantea, eta ez zegoela modurik, horiek gerarazteko.

Bukatzeko, kexak kezka azaldu zuen, finantza-egoera larri horrek eragina izan zezakeelako, musika-zentro horretako musika-ikasleengan. Horren eretzean, erakunde honek azken kudeaketa burutu zuen, Hezkuntzako Administrazioako arduradunek beharrezkoak ziren neurri guztiak har zituzten, ikasleei ustezko kalteak saihesteko.

- Emaiza

Azaldutako jarduera horiek burutu eta gero, erakunde honek bukaera eman zion gai horretan izandako esku-hartzeari, ez baitzuen arrazoirik bilatu, bestelako jarduerak gauzatzeko.

C) Unibertsitateko irakaskuntza

⇒ *Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean ikasleak onartzea (1073/2001)*

- Erreklamazioa

Zenbait pertsonak interesa zuten, arte ederretako ikasketak egiteko. Horiek konturatu ziren, behin matrikulazio-garaia bukatu eta gero, 50 plaza hutsik geratu zirela. Hori dela eta, pertsona horiek erakunde honetara jo zuten. Euren kexetan, hauxe onartu zuten: aurreinskripzio-epeetan, eurei jakinarazi zitzaiezen bazirela beste hautagai interesdun batzuk, eskubide hobea zutenak, eta, ondorenez, ezinezkoa izango zela eurentzat arte ederretako ikasketak egitea; hori jakitean, ez zuten inolako eragozpenik jarri. Alabaina, eskubide hobea zuten hautagai horiek uko egin zioten euren matrikulak formalizatzeari. Horregatik, kanpoan geratu zirenek azpimarratu zuten unibertsitateak bide egokiak jarri behar zituela, eurek eta eskubide bereko edo hobeko beste interesdun batzuek ere aukera izan zezaten, arte ederretako ikasketak egiteko. Izan ere, eskari hori bat zetorren Euskal Herriko Unibertsitateak bereganatutako aurreikuspenekin eta, zehatzago, 2001–2002 ikasturteko hasierako irakaskuntza-plangintzarekin.

- Azterketa

Kexa horretan, ikasleak onartu eta matrikula egiteko prozesua aztertu behar zen. Horretarako, bi arau hartu behar ziren, abiapuntu moduan. Alde batetik, kontuan hartu behar zen urtarrilaren 21eko 69/2000 Errege Dekretua; horrek hautaketa-prozedurak arautzen ditu, ikasleak unibertsitateko zentroetan sar daitezzen, baldin eta ikasle horiek unibertsitatean sartzeko nahitaezkoak diren lege-betekizunak badituzte. Eta, beste alde batetik, gogoan izan behar zen 2000ko uztailaren 26ko Agindua, horrek aurrekoa garatzen baitu.

Hasteko, bi horietatik lehenengoa, hau da, 69/2000 Errege Dekretua, aipatu beharra dago, horrek honako agindu hau ezarri duelako: unibertsitate batek ere ezin izango ditu plazak hutsik utzi, baldin eta plaza horiek aurretiaz eskaini baditu eta horietarako eskariak jaso baditu (1.4 art.). Horrekin batera, kontuan hartu behar dira beste agindu batzuk ere, horiek definitzen baitute zein irizpide erabiliko den, plazak

adjudikatu eta lehentasunak ezartzeko (10. art. eta ondorengoak), eta zein irizpide erabiliko den, berriz, plazak erreserbatzeko (13. art. eta ondorengoak). Bestalde, 2000ko uztailaren 6ko Aginduak (eta, hala denean, urteko agindu bakoitzak) muga-datak ezartzen ditu, aurreinskripzioa egiteko, onartuen zerrendak argitaratzeko eta matrikulazio-eparen hasiera finkatzeko.

Arau horiek guztiak abiapuntu moduan hartuz, Euskal Herriko Unibertsitateak bere kudeaketa-arauegia ezarri du. Gobernu Batzordeak arautegi hori onetsi zuen, 2000ko maiatzaren 22an egindako bileran.

Arte Ederretako Fakultatearen kasu bereziari dagokionez, plaza-kopurua mugatuta zegoen (338), eta horrek ekarri zuen eskainitako plaza guztiak aurreinskripzioko lehenengo epean adjudikatzea; epe hori 2001eko uztailaren 13an itxi zen. Gainera, selektibitatea deialdi arruntean gainditu zuten ikasleentzat, ebakidura-nota ezarri zen, eta ez zegoen plaza erreserbatzeko eskubiderik.

Akademia Antolakuntzarako Errektoreordetzak uste zuen, horrela egoki bete zirela 69/2000 Errege Dekretuan ezarritako aginduak. Izan ere, 2001eko uztailaren 13an, eskainitako plaza guztiak adjudikatuta zeuden eta, horretarako, errege dekretu horretan ezarritako lehentasunak edo antolaketa-irizpideak aplikatu ziren. Edozein modutan ere, behin aurreinskripzio hori egin eta gero, ikasle batzuek uko egin zioten euren matrikulak formalizatzeari, nahiz eta euren onarpena baieztatuta egon. Horrela, guztira, 50 plaza geratu ziren berriro hutsik. Euskal Herriko Unibertsitateak, ikasleak onartu eta matrikula egiteko, prozesu berezia bete zuen, eta prozesu horren ondorioa izan zen, hain justu ere, azken egoera hori. Prozesu horretan, aurreinskripzioa eta matrikula bereizten dira, eta bakoitzarentzat epe bat ezartzen da. Horregatik, behin matrikula-prozesuak bukatu eta gero, gerta daiteke plazak hutsik geratzea, aurreinskripzioa egin zutenetarik batzuek uko egin dutelako.

Akademia Antolakuntzarako Errektoreordetzak jakin bazekien horrek disfunczioa zekarrela; eta, horregatik, egoera hobetzeko asmoa erakutsi zuen, eta ahaleginak egingo ditu, etorkizuneko ikasturteetan, ikasleak deitzeko sistema berria ezar dadin. Erakunde honek animuak eman nahi zizkion errektoreordetza horri –ezin da bestela izan–, proposatutako konponbideak aurki ditzan.

Hala eta guztiz ere, unibertsitateak berak adierazi zuen hainbat zailtasun zeudela, 2001–2002 ikasturtean atzemandako disfunczioa konpontzeko. Hori dela eta, erakunde honen ustez, aurkeztutako kexei tratamendu egokia emateko, kontuan izan behar zen 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluan agindutakoa. Horren arabera, “unibertsitate batek ere ezin izango ditu plazak hutsik utzi, baldin eta plaza horiek aurretiaz eskaini baditu eta horietarako eskariak jaso baditu”. Manu horrek agintzen du aurretiaz eskainitako plaza huts guztiak adjudikatzeko. Manu horren norainokoa zein den jakiteko, eta manua behar bezala interpretatzeko, alde aurretik kontzeptu zehaztugabe bat argitu behar da: zer da “plazak hutsik geratzea”?

Unibertsitatearen iritziz, aurreinskripzio-epea bukatzean, eskainitako plaza guztiak adjudikatu badira, orduan 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikulua beteta dago, horrek agintzen baitu eskainitako plaza guztiak adjudikatzeko. Horregatik, matrikula-epean zehar, beste gorabehera batzuk gertatzen badira eta, gorabehera horien ondorioz, hasierako adjudikaziodunek atzera egiten badute eta, ondorenez, plazak hutsik geratzen badira, horrek ez du esan nahi ikasleak onartzeko prozesua berriro egin behar denik; hala izanez gero, prozesua kudeatzea ezinezkoa izango litzateke.

Zernahi gisaz, gure iritzia ez zetorren bat unibertsitatearen iritziarekin. Gure aburuz, aurretiaz eskainitako plaza guztiak adjudikatu behar ziren, eta eskakizun hori, aurreinskripzio-prozesuan aplikatzeaz gain, matrikula-prozesuan ere aplikatu behar zen. Egin-eginean ere, matrikula-prozesuan bakarrik jakin daiteke ikasleen onarpena behin betiko gertatu den ala ez.

Bestalde, plaza huts guztiak adjudikatu behar direnez gero, betebeharrak loturak ditu, bakar-bakarrik, ikasleak onartu eta matrikula egiteko prozesuarekin, betiere, ikasturtea hasi aurretik.

Ñabardura horiek aintzakotzat hartuta, kontuan hartu behar da, bakar-bakarrik, ikasleak onartu eta matrikula egiteko sasoia, betiere, ikasturtea hasi aurretik. Hala eginez gero, nahitaez aitortu behar da hurrengoak: adjudikazio-prozesu horietan eta, batez ere, jende askok prozesu horietan parte hartzen duenean, nekez saihestu ahal da plazak hutsik geratzea; ikasleak deitzeko sistema berrian ere, orain aztergai diren hobekuntzak abian jartzen direnean, halako zailtasunak izango dira. Adibide moduan, nahiko da ezinbesteko kasuak aipatzea, hala nola, gaixotasuna edo istripua. Adibide moduan aipa daiteke, orobat, jadanik matrikulatuta dauden ikasleek uko egitea edo borondatez atera egitea.

Errealitate hori, esan bezala, saihestezina da. Hori dela eta, balioetsi behar da ea komenigarri ote den lortutako plaza horiek plaza hutsen izaera teknikoa edukitzea, eta, ondorenez, horiek berriro adjudikatu beharra izatea, 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindua betetzeko.

Begi-bistakoa denez, puntu honetara helduta, kudeaketa-beharrizanez egundoko garrantzia izan dezakete eta, egitez, badute izan, plaza horiek plaza hutsen izaera teknikoa eduki dezaten eta horiek berriro adjudika daitezten. Ildo horretatik, ukalezina da honako egitate hau: ikasleak onartzeko prozesuaren kudeaketa ezinezkoa izango litzateke, baldin eta ondoz ondo hutsik geratu diren plaza guzti-guztiak adjudikatu beharko balira eta, beraz, aurreko adjudikazioak etenik gabe berrikusi beharko balira. Horrela, prozesuaren kudeaketa oso-oso zaila izango litzateke, ezinezkoa izango zela ez esatearren.

Inork ezin ditu zalantzan jarri, beraz, kudeaketarako dauden zailtasun horiek. Edonondik begira dakiela ere, nekez onar daiteke 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindua (plaza huts guztiak adjudikatzeko agindua, alegia) betetzen denik, baldin eta, ikasleak onartzeko prozesuaren ostean, eta muturreko adibide bat erabiliz, eskainitako plaza guztietatik ehuneko handi bat hutsik geratzen bada, ondorio gisa.

Hori adieraztean, hauxe azpimarratu nahi dugu: ez da zentzuzkoa aipatu berri dugun emaitza hori onartzea, hau da, eskainitako plaza guztietatik % 30, 40 edo 50 hutsik geratzea, prozesua kudeatzeko zailtasunak daudela aitzakia moduan hartuta. Hortaz, kudeaketarako zailtasun horien alegazio formala gaintuz, beste printzipio eratzaille batzuetara jo behar da. Printzipio horien artean, aipa daiteke, bereziki, proportziotasun-printzipioa. Printzipio hori lagungarri izan daiteke, "plazak hutsik geratzea" izeneko kontzeptu zehaztugabea argitzeko eta, horrela, 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindu bete den -ala ez- ulertzeko.

Azken buruan, azaldutako hausnarketak laburbilduz, erakunde honek uste zuen tratamendu egokia eman behar zitzaioala 2001-2002 ikasturtean izandako arazoari; arazoa Arte Ederretako Fakultatean gertatu zen, ikasleak onartu eta matrikula egiteko prozesuaren ondorioz. Tratamendu egoki hori emateko, aintzakotzat hartu behar ziren jarraian hona alderatuko diren hausnarketak. Hausnarketa hauen bitartez, argitu nahi

da zein plazak eduki behar duen plaza hutsaren izaera teknikoa, 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindua betetzeko, eta, ondorenez, eskainitako plaza guztiak adjudikatzen:

- Plaza hutsik dagoen ala ez balioetsi eta aztertzen, ez da nahiko aurreinskripzio-epea bukatzea; hori matrikula-epea bukatzean egin behar da.
- Plaza hutsik dagoen ala ez jakiteko, kontuan hartu behar da ikasleak onartu eta matrikula egiteko prozesua, betiere, ikasturtea hasi aurretik. Hortaz, ez dira plaza hutsak, behin jarduera akademikoa hasi eta gero, gertatzen diren baxak.
- Plazak hutsik geratu direla baieztatzen denean, orduan balioetsi behar da ea 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindua betetzen den ala ez, plaza hutsak izateak eragina izan baitezake horretan. Balorazioa egiteko orduan, prozesua kudeatzeko zailtasunak izan behar dira kontuan. Baina, horiekin batera, aintzakotzat hartu behar dira beste printzipio eratzailere batzuk ere, esate baterako, proportzionaltasun-printzipioa eta eragingarritasun-printzipioa. Horrela, oreka izan behar da, zailtasunak gainditzeko ahaleginen eta ahalegin horiek eragingarritasun-printzipioaren gainean izan ditzaketen ondorioen artean.

- Emaidza

Erakunde honek gomendioa egin zion Euskal Herriko Unibertsitateari. Gomendio horren arabera, unibertsitateak, aldez aurretik, aztertu behar zuen ea benetan kudeaketarako zailtasunak eragina izan zezaketen, unibertsitateko zerbitzu publikoaren jardunbide eragingarrian. Hori egin eta gero, unibertsitateak neurri egokiak hartu behar zituen, 2001-2002 ikasturtean bertan, Arte Ederretako Fakultatean eskainitako plaza guztiak adjudikatzen eta, horrela, 69/2000 Errege Dekretuaren 1.4 artikuluko agindua betetzeko. Izan ere, errege dekretu horrek hautaketa-prozedurak arautzen ditu, ikasleak unibertsitateko zentroetan sar daitezzen, baldin eta ikasle horiek unibertsitatean sartzeko nahitaezkoak diren lege-betekizunak badituzte.

Unibertsitateak ez zuen onartu Arartekoak luzatutako gomendioa.

D) **Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa**

⇒ *Irakastegi publikoetan, dokumentu-mota zehatz batzuk banatzea, eta eskubide eta eginbeharren multzoari begirunea izatea (25/2001)*

- Erreklamazioa

Bi adingabe irakastegi publiko bateko ikasleak ziren, eta euren aitak kexa helarazi zion Arartekoari. Kexa horren arabera, aita ez zegoen ados, eskolako irakasleek banatutako dokumentu batzuekin; irakasleek dokumentu horien banatu zituzten, ikasleen artean, ikasleok euren familiei eman ziezazkieten.

Dokumentazio eztabaidagarria hiru foliotakoa zen eta, bertan, beste datu batzuen artean, iritzi eta uste politikoak jasotzen ziren, alderdi politiko zehatz bati buruz.

- Azterketa

Erreklamaziogileak hainbat alegazio egin zituen. Horiek laburbiltzeko, hauxe adieraz daiteke: haren ustez, Administrazioaren jarduna guztiz kritikagarria zen. Abiapuntuko datuak ikusita, erakunde honek datu horiek bidali zizkion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Arartekoak informazio egokia jaso nahi zuen eta, aldi berean, sailari aukera eman nahi zion, beraren ustez egokia zena adieraz zezan.

Azpitarratu behar da dokumentu horiek loturak zituztela, ikasleen gurasoak elkartzeko mugimenduarekin. Egin-eginean ere, dokumentuok ikasleen artean banatu ziren, gurasoen elkarteak hala eskatuta, ikasleok euren familiei eman ziezazkieten.

Arartekoak, Hezkuntza Sailera jo zuenean, kontuan hartu zituen —eta hala adierazi zion sailari— jarraian azalduko diren arazo batzuk. Lehenengo eta behin, gurasoen elkarte oro pribatua da eta, izaera juridiko hori duenez gero, —esangura hertsian— Arartekoak ezin du eskurik hartu, haren jardunean. Horrez gain, ezin da ahortzi, ikastetxeen barruan, lankidetzat gertatzen dela, ikastetxe horien eta guraso-elkarteen artean. Bestalde, zentro publikoek unibertsitate kanpoko irakaskuntzak ematen dituztenean, zentro horiek autonomiarekin dihardute, eta autonomia-printzipio horrek hainbat proiektio izan ditzake. Hortaz, kexaren izapidetzat onartu arren, ez genituen arazo horiek guztiak alde batera utzi.

Arartekoak Hezkuntza Sailari informazio-eskaria egitearen ondorioz, bi erakundeok elkarri gutunak bidali zizkieten, eta, gutunotan, arazo berberak agertu ziren. Sailak bidalitako erantzunetan, honako berrikuntza hau atzeman zitekeen: zentroko Eskola Kontseiluak bilera egin behar zuen eta, bilera horretan, aztertu behar zen ea zentroak nola jardun zuen, ordu arte, aztergai dugun kasuan eta antzekoetan.

Arartekoa guztiz ados zegoen Hezkuntza Sailaren ekimen horrekin; edozein kasutan ere, bi-biok zain geratzen ginen, ikastetxeak zein erabaki hartzen zuen jakin arte.

Hori egiteaz gain, Arartekoak berriz gogorarazi zuen, kexaren ardura bereganatu zuenean, jakin bazekiela halako egitateak beste zentro batzuetan ere gertatzen zirela. Era berean, Arartekoak bazekien, ziur aski, gertatutakoaren antzeko beste egitate batzuk ere gertatuak zirela aurretiaz.

Gure esku-hartzearen arazoia gehiago zehazteko, horri hurrengoa gaineratu behar zaio: aztergai dugun kasu berezi horretan, banatutako dokumentazioak balorazioak eta iritziak jasotzen zituen, alderdi politiko zehatz bati buruz. Egiatan, jarduera hori sar daiteke, beste talde batzuekin gertatzen den bezala, ideiak adierazteko eskubidearen barruan. Baina ezin dira ahortzi lekua (irakastegi publikoa), modua (enplegatu publikoen bitartez) eta tresna (ikasle Adin txikikoak), horiek guztiak erabili baitira, iritziak zabaltzeko.

Inguruabar horiek guztiak kontuan hartuta, adierazpen-askatasuna eta hedatze-askatasuna, bi-biok, babestu beharreko eskubideak dira. Horiekin batera, ordea, beste balio eta eskubide batzuk ere babestu beharrekoak dira, konparazio baterako, aniztasun politikoa eta askatasun ideologikoa. Azken horiek zentroetako autonomia-printzipioa gainditzen dute, eta printzipio hori ezin da izan sortutako gatazka guztiak konpontzeko bidea.

Ohar horien guztien ondorioz, gatazka zentro zehatz batean sortu zenez gero, zentro horretako Eskola Kontseiluak bere iritzia eman behar zuen. Iritzi horri kalterik egin gabe, erakunde honek Hezkuntza Sailera jotzea erabaki zuen, eta horri honako gomendio hau egin genion: sail horrek Hezkuntzako Administrazioaren gaineko ardura duenez gero, berak kudeatzen dituen zentro guztiei adierazi behar die euren jarduna bat

etorri behar dela eskubide eta askatasun guztiekin, horiei guztiei begirunea zor zaielako. Horrela, zentroen jarduera, aztergai dugun kasuan eta antzekoetan, homogenea izango da.

- Emaidza

Hezkuntza Sailari jakinarazi genion zein den, gure ustez, aztergai dugun kasuaren gaineko balorazioa. Laburpen hau egiteko orduan, sailaren erantzunaren zain gaude.

E) **Bestelakoak**

⇒ *Eskolako instalazioak erabiltzea (1149/2000)*

- Erreklamazioa

Gimnasio pribatu baten jabeak erakunde honetara jo zuen. Izan ere, Zorrozako BHIko instalazioak erabiltzen ziren, borroka-arteetako eskolak emateko, eta herritarra ez zegoen horrekin ados.

- Azterketa

Hezkuntza Sailaren iritziz, halako kasuetan, interes pribatuen arteko gatazka gertatzen da, batik bat; eta, horregatik, ez da beharrezkoa, ezta komenigarria ere, Hezkuntzako Administrazioak arazo horietan esku hartzea. Nolanahi den ere, Arartekoaren ustez, kexa honetan eta antzekoetan, barne-barnetiko arazoa hauxe da: instalazio publikoak eta hezkuntza-gune publikoak gizartearentzat erabiltzen dira; hots, halako kasuetan, haien gizarte-erabileraz hitz egin daiteke.

Egiatan, gai horretan jarduteko modu bat izan daiteke Administrazioak gutxieneko esku-hartzea izatea. Gutxieneko horretan, Administrazioari komunikatu behar zaio zertarako erabiltzen diren instalazio horiek; baina ez da kontrol edo fiskalizazio erantsirik jasan behar, salbu eta eskolatik kanpoko jarduerak burutu behar direnean eta, jarduera horietan, batera edo bestera, eskolako erkidegoaren sektorearen batek parte hartzen duenean.

Gure aburuz, ordea, ziurtatu behar da gizarte-ekipamendu horiek, hau da, eskolako instalazioak, egoki erabiltzea. Horregatik, Hezkuntzako Administrazioak kontrol handiagoa izan behar du. Kontrol horren bitartez, administrazioak ahaleginak egin behar ditu, jarduera horien lehentasuneko helburua irabaziak lortzea izan ez dadin. Ahaleginak egin behar ditu, berebat, jarduerotan interesa duten guztiek (erakundeek, pertsona juridikoek, pertsona fisikoek) horietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Hezkuntzako Administrazioak ez zuen inolako eragozpenik jartzen, aipatutako lehenengo kontrolari begira; horren eretzean, eskolatik kanpoko jarduerak, lehentasunez behintzat, ez dute irabaziak lortzeko asmorik izan behar. Aitzitik, Hezkuntzako Administrazioak zailtasunak alegatzen zituen, bigarren kontrola gauzatzeko; horren bitartez, bide egokiak jarri behar dira, jarduerak antolatzeke interesa duten erakunde eta pertsona guztiek horietan parte har dezaten.

Jakin bagenekien jarduteko modu horrek halako zailtasunak zekartzala. Zernahi gisaz, ahaleginak egin nahi genituen, Hezkuntzako Administrazioak erakunde honen

kezka berezia beregana zezan. Izan ere, administrazioak bide egokiak eskaini behar ditu, eskolatik kanpoko jarduerak antolatzeko interesa duten erakunde eta pertsona guztiek horietan parte har dezaten. Gure aburuz, hezkuntzako gune publikoen aprobetxamendua adjudikatu behar denean, horretarako erabaki ziodunak hartu behar dira; erabakiok ezin dira nahierara hartu, eta eurekin ezin da bereizkeriarik egin. Inguruabar edo datu horiek guztiak ziurtatzeko, nahitaezkoa da gutxieneko pilaketa eta parte-hartzea ziurtatzea. Interesdunen pilaketa eta parte-hartzea ahalbidetuz gero, hezkuntzako gune publikoen aprobetxamendua adjudikatzen denean, adjudikazio hori objektiboa, justifikatua eta arrazoitua izango da.

- Emaidza

Kexa eragin zuenak judizio bidezko akzioak erabili zituen eta, ondorenez, erakunde honek kontuan hartu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 13.1 artikuluan ezarritakoa; lege horrek, jakina denez, Ararteko erakundea sortu eta arautu du. Hori aintzat hartuta, Arartekoak bere esku-hartzea eten zuen. Edonola ere, Arartekoak bere hausnarketak bidali zizkion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

⇒ 20 urtetik gorako ikasleek irteerak egitea, ikasle horiek eskolatuta daudenean, Bizkaiko zentroetan eta, zehatzago, zereginak ikasteko geletan (738/2001)

- Erreklamazioa

2001eko ekainaren 5ean, Bizkaiko Gurasoen Elkarteko (BIGEko) Irakaskuntza Bereziatiko Batzordeak bilera egin zuen Arartekoarekin. Bilera horretan esandakoaren arabera, Bizkaian, ikasleek adimeneko atzerapen larria badute, orduan, 20 urte betetakoan, ikasketekin jarraitzeko arazoak dituzte; izan ere, adin horrekin, ikasleak zereginak ikasteko geletara joan behar dira. Zehatz esateko, arazoak jarraikoak dira:

- 20 urte betetakoan, gela horietan heziketari eustea ezinezkoa da, indarreko arautegiaren arabera.
- Ez dago egiazko irteerarik edo, egotekotan, irteerak urriak dira, bai bitarteko baliabideei dagokienez (esate baterako, eguneko zentroei edo zereginetarako zentroei dagokienez), bai lan-munduan sartzeko aukerei dagokienez (lan babestuari eta lan normalizatuari dagokienez).
- Aukera bakarra bada etxean geratzea, gizarte-jarduerarik burutu gabe, orduan bistan dago atzera egiteko arriskua.
- Erakunde arduradun guztiek erantzunak antolatu behar dituztenean, ez dute koordinaziorik izaten, eta ez dute buruzagitarik bereganatzen.

- Azterketa

Gurasoen taldeak Arartekoarengana jo zuenean, jakin bazekien bere eskari eta proposamenek erakunde desberdinak ukitzen zituztela. Hau da, sail desberdinek zatikako eskumenak dituzte gai horretan, eta, horregatik, erakundeen arteko plana onetsi behar da eta, orobat, guztiak barneratzen dituen buruzagitza gauzatu behar da.

Gure ustez, gai horretan, zuzeneko parte-hartzea izan behar dute hiru sail hauek: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Sailak. Hori dela eta, Arartekoak

informazio-eskaria bidali zien hiru sail horiei, eta bakoitzari adierazi genion zeintzuk ziren, zuzen-zuzenean, beraren ardurapeko arazoak:

- Hezkuntzako sistemaren eta lan-sistemaren artean, lotura estuagoak izan behar dira, talde horrentzat praktikak antolatzen direnean eta talde hori lan-munduan sar dadin bultzatu behar denean.
- Gehitu egin behar dira talde horrek lan-munduan sartzeko benetan dituen aukerak, hala lan babestuari dagokionez, nola lan normalizatuari dagokionez. Gainera, jarraipen zorrotzagoa egin behar da, enpresek legea betetzen dutela ziurtatzeko (adibidez, enpresek lanpostuen % 2 erreserbatu behar dute, gai ez direnentzat).
- Talde horretako kideek aukera izan behar dute, 20 urte bete eta gero ere hezkuntzako erantzuna jasotzeko.
- Talde horrentzat, bitarteko baliabideak gehitu behar dira, konparazio baterako, eguneko zentroak. Halaber, sektore ahulenen enplegua sustatu behar da...

Gainera, hiru sail horiei adierazi genien gai horretan beharrezkoa dela erakundeen buruzagitza.

- Emaiza

Laburpen hau idazteko unean, bi erantzun jaso dira: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarena, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Sailarena. Oraindik ez da jaso Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzunik, eta, horregatik, erantzun hori eskatu zaio.

Jasotako bi erantzunetan, sail bakoitzak azaltzen du zeintzuk diren abian jarritako edo aurreikusitako laguntza-bideak (gai ez diren pertsonak kontratatuz gero, diru-laguntzak ematea; enpleguaren inguruko orientazio-zerbitzuak; SAIO egitaraua; ezgaitasun psikikoa dutenentzat, 250 zeregin-plaza sortzeko aurreikuspena...). Sailek adierazi dute, orobat, prest daudela, prozesuaren buruzagitza bereganatzen duenarekin elkarlanean aritzeko.

ortaz, Arartekoak ahaleginak egingo ditu, alderdi ukitu guztien erantzuna jasotzeko, eta erakundeen artean beharrezkoa den koordinazioa sustatzeko.

5. FUNTZIO PUBLIKOA

5.1. SARRERA

Funtzio publikoaren arloan, 2001. urtean zehar, 366 kexa aurkeztu dira, guztira. Beraz, erakunde honek, 2001. urtean zehar, zenbat kexaren izapidetza egin duen kontuan hartuta, funtzio publikoaren arloko horiek % 30,20 ordezkutzen dute.

2000. urteko datuekin konparazioa eginez gero, guztira, 245 kexa gehiago egin dira. Hala eta guztiz ere, gehikuntza horren arrazoi nagusia hauxe izan da: osasun arloko enplegatu bitartekoek kexa gehiago aurkeztu dituzte (119 kexa); horien bitartez, enplegatuek eskatzen dute, EA Eren eremuan, azaroaren 21eko 16/2001 Legea aplikatzeko. Estatuak arestian onetsi du lege hori, eta, beraren bitartez, prozedura berezia arautu da, estatutu-langileen plazak sendotu eta betetzeko. Halaber, IRALE programan sartutako irakasleen kexek ere (145 kexa) izan dute zerikusia kopuru-gehitze horretan, izan ere, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan emaitza txarrak lortu zituzten, eta egiaztatzeko sistemari egozten zizkioten emaitza txar horiek.

Kexek zein administrazio ukitu duten kontuan hartuta, kexok honetara bana daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) .	62
- Foru administrazioa	5
- Tokiko administrazioa	24

Aitzitik, izapidetza zein gairi buruz egin den kontuan hartuta, orduan banaketa azpiarloka egin daiteke. Banaketa hori honetara geratzen da:

Irakaskuntzako funtzio publikoa	170
Osasun arloko funtzio publikoa	132
Funtzio publiko orokorra	53
Poliziaren alorreko funtzio publikoa	5
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	5
Eskubideak eta askatasunak	1

Funtzio publiko orokorra

EA Eren Administrazio Orokorrek, 2000. urtean, zenbait hautaketa-proba iragarri zituen, Enplegurako Eskaintza Publikoaren eremuan. Proba horiek hainbat eta hainbat kexa eragin dituzte. Zentzuzkoa denez, kexa horietatik batzuek salatu egin dute nola balioesten diren aurretiazko administrazio-esperientzia edo aurretiaz egindako zerbitzuak. Ildo horretatik, zenbait frogak egin dira, administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko. Proba horietan, ez dira kontuan hartu, kategoria horretan bertan, Osakidetza eremuan egindako zerbitzuak, eta hori eztabaidagaia izan da. Horren inguruan, eta orokorrako jokatzeko asmoarekin, ukitutako kidego guztien aurka egin da kritika berbera. Horren inguruan, erakunde honek honako interpretazio hau defendatu du, nahiz eta horretan arrakasta handirik izan ez: oinarriek beren beregi aipatzen badituzte EA Eren Administrazio Orokorrean, Foru Administrazioan eta Tokiko Administrazioan egindako zerbitzuak, eta zerbitzu horiek beste administrazio batzuetan egindako zerbitzuetatik bereizten

badituzte, orduan haien artean sartu behar dira, orobat, harako administrazioen menpeko korporazio eta erakundeetan egindako zerbitzuak. Salbuespenez, tratu desberdina justifikatuta egon daiteke, eginkizunak huts-hutsean hartuta, horretarako pisuzko arrazoiak daudenean; halakoetan, ez da hausten Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikuluan ezarritako printzipioa, hain zuzen ere, funtzio publikoan sartzeko berdintasun-printzipioa.

Oposizioegileen artean, beste talde batek zalantzan jarri du Enplegurako Eskaintza Publiko horren oinarri orokorretan jasotako agindu bat. Agindu horren arabera, hautagai batek kidego batean baino gehiagotan nahi badu oposizioa egin, orduan, egindako zerbitzuen denbora behingoz bakarrik baloratuko da, eta ezin da aldi berean bikoiztu. Oposiziogile-talde horren iritziz, oinarri orokor horrek tratu desberdina ezartzen du, hautagaien artean, horien merituak aintzat hartu eta balioesteari dagokionez. Oposiziogile-taldearen aburuz, tratu desberdin horrek ez du behar besteko zio edo justifikaziorik, eta, horregatik, bistan dago bereizkeria dakarrela. Nolanahi den ere, erakunde honek ez du bat egiten iritzi horrekin, eta hori azalduta dator, jarraian erantsiko den kexaren laburpenean (650/2001/20 erref.).

Beste oposiziogile batzuek, aldiz, zalantzan jarri dute zenbait hautaketa-probaren egitura edo itxuraketa. Zehatzago hitz egiteko, administrazio-kidegoan sartzeko, hautaketa-probak egin behar dira, eta, oposizio-fasean zehar, ariketa edo proba praktikoa egin beharra dago. Horixe izan da, hain zuzen ere, zalantzan jarri dena. Erakunde honen ustez, auzitegi kalifikatzaileak zenbait kasu praktikoa proposatzen ditu, baina, kasu praktikoa horien edukia huts-hutsean eta bakarturik aintzat hartuz gero, ezin da ondorio erabateko eta biribilik atera. Oposiziogile haiek, ordea, halako ondorioak ateratzen dituzte, euren kexetan. Kexa horiei helduta, kasu praktikoeekin, urratu egiten dira zenbait printzipio, besteak beste, segurtasun-printzipioa, proportzionaltasun-printzipioa eta nahierakeria saihesteko printzipioa. Gure ustez, oposiziogileek kritikatu egiten dute proposatutako proben egokitasuna, eta, kritika horrek aurrera egin dezan, proben edukia aztertzeaz gain, egiaztatu behar da auzitegi kalifikatzaileak ez dituela zentzuzko irizpideak aplikatzen, zuzenketa edo ebaluazioa egiteko orduan; frogatu behar da irizpide horiek ez direla batere egokiak, ezta proportziozkoak ere, azken helburua kontuan hartuta. Azken helburua izan behar da, hain zuzen ere, hautagaiak trebeenak aukeratzea, horiek gerogarrenean zein eginkizun beteko duten kontuan hartuta. Ildo horretatik, erakunde honek uste du oposiziogileek arrazoi dutela, azaldutako kasuen konplexutasuna eta iluntasuna salatzen dutenean. Baina erakunde honek ez du bat egiten haiek egindako beste kritika horiekin. Kritiken arabera, kasu praktikoa horiek ez dira egokiak, azken helburua lortzeko, betiere, aukeramen teknikoak auzitegiari ematen dizkion aukera desberdinak aintzakotzat hartuta; esan bezala, azken helburu hori da meriturik handiena duten hautagaiak aukeratzea. Erakunde honen iritziz, ez dago inolako zantzurik, halako baieztapenak egiteko.

Kexa gehiago eragin ditu, oraindik, auzitegi kalifikatzaileak hartutako beste erabaki batek. Erabaki hori hartu zen, hartu ere, administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko hautaketa-probetan. Erabakiaren arabera, ariketa praktikoa baten inguruan, kodeketa-okor bat gertatu zen, eta, ondorenez, oposiziogile kaltetun guztiei dei egin zitzaion, beste proba bat egin zezaten. Gure aburuz, arazoi heldu aurretik, nahitaezkoa da hurrengo oharra egitea: aztergai dugun kasuan, kodeketa-okerra gertatu zen, eta, horren ondorioz, zenbait neurri hartu behar dira, okor hori zuzendu ahal izateko. Behin ohar hori onartu eta gero, eztabaidatu egin behar da zein den metodo edo biderik egokiena,

kodeketa-okor hori zuzentzeko; okor horren ondorioz, oposizio-gile kaltetunak identifikatzea ezinezkoa den, ez baitzegoen horretarako inpartzialtasun-bermerik, ezta objektibotasun-bermerik ere. Horri aurre egiteko, honako metodo hau aukeratu zen: oposizio-gile kaltetunek, berriz ere, proba egitea. Erreklamazio-gileen iritziz, metodo horrek tratu desberdina dakar edo, bestela esanda, bereizkeria dakar; eta, gainera, betebeharrak ezartzen du, eta, erreklamazio-gileen ustez, oposizio-gileek ez dute inolako eginbehar juridikorik, betebeharrak hori jasateko. Edozein kasutan ere, erreklamazio-gileek hurrengo proposatu zuten: oposizio-gile batzuen kodeak antzekoak direnean, egokiagoa da oposizio-gile horiei zitazio pertsonala egitea, bakoitzak zein azterketa egin duen jakiteko. Guk interesa jarri genuen arazo horretan, eta, horregatik, auzitegi kalifikatzailearengana jo genuen. Auzitegiak adierazi zigun bide hori betetzea ezinezkoa zela, ezinezkoa zelako, orobat, oposizio-gile kaltetun guztiak erabateko bermeekin identifikatzea. Hori dela eta, auzitegiak, zioak azalduz eta interes orokorra kontuan hartuz, honako erabaki hau hartu zuen: hautaketa-prozesua zuzena izan dadin, okorra zuzentzeko konponbide bakarra da oposizio-gile kaltetun guztiak berriz ere proba egitea.

Kexa zehatzagoak ere jaso dira; kexa horiek kasuan kasukoak badira ere, oso interesgarriak dira. Kexa horietan zalantza jarri da, batetik, deialde errepikatzeak aukera eta, bestetik, meritu jakin batzuk egiaztatzeak modua. Jarraian, kexa horien laburpena egingo dugu, eta bertan azalduko da, zehatz-mehatz, kexa horien edukia. Lehendabiziko kexaren arabera, garuneko odol-jarioa ezinbesteko kasutzat hartzen da, oposizio-fasearen barruan, ariketa baztertzailerako beste deialdi bat egiteko (667/2001). Bigarren kexaren eretzean, hizkuntzak jakin eta hori egiaztatzeak betebeharrak dagoenean, hautagaiak Filologiako titulu egokia badu, orduan harako betebeharrak askatuta geratu beharko litzateke (16/2001).

EAren Administrazio Orokorra hainbat prozedura egin ditu, langileak hautatzeko. Baina, eginkizun horretan, ez da bera bakarrik aritu. Aitzitik, tokiko administrazio batzuek ere enplegurako eskaintza publikoak egin dituzte, eta, horien ondorioz, deialdi egokiak antolatu dituzte. Hori gertatu da, besteak beste, Gasteizko Udalaren kasuan.

Beste deialdi horiei begira, erakunde honek esku hartu behar izan du, egindako zerbitzuak nola balioesten diren aztertzeko, horrek kexak eragin baititu. Berriz ere, gure gomendioa hau da: lehiaketaren fasean, egindako zerbitzu guztiak balioetsi behar dira, baldin eta horietan bete diren eginkizunek eta deialdiko lanpostuari dagozkionek zuzen-zuzeneko loturak badituzte. Ez da kontuan hartu behar, ordea, zein administrazioan edo zein erakunde publikotan egin diren zerbitzu horiek. Erakunde honek informazio-eskaria egin zion Gasteizko Udalari, eta, eskari horri erantzutean, udalak zenbait arrazoi azaldu zituen. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartzen dute, bakar-bakarrik, hur-hurreko jakiteak izatea, tokiko administrazioen eta foru-administrazioen egitura eta antolaketari buruz. Hortaz, arrazoi horietatik batek ere ez du kontuan hartzen eginkizunen araberrako irizpiderik. Guk behin eta berriz errepikatu dugu azken urteotan orain berriz ere adieraziko duguna: egindako zerbitzuen artean, balorazio desberdinak egiteko, eginkizunen araberrako irizpideak bakarrik erabil daitezke; horrela, ez dira urratuko berdintasun-printzipioa, merituen printzipioa, ezta gaitasunaren printzipioa ere, horiek guztiak aplikatu behar baitira, enplegu publikoak eskuratzeko.

Kexak izan dira, halaber, auzitegi kalifikatzailearen jardunari buruz. Zehatz esateko, zerbitzari-garbitzaileen postuak betetzeko probetan, zalantza jarri dira balorazioa egiteko irizpideak. Horren inguruan, jakinekoez denez, auzitegi edo organo teknikoek ebaluazio-

eginkizuna burutzen dute, eta, eginkizun hori kontrolatzeko, aukera hau besterik ez dago: eginkizun hori ezin da nahierarakoa izan, eta, era berean, ezin du botere-desbideraketarik eragin; azken finean, behar beste justifikatuta egon behar da auzitegi edo organo tekniko horien jarduna. Erakunde honek hala eskatuta, auzitegi kalifikatzaileak txostena igorri zuen. Txosten horretan, banan-banan azaldu ziren aurkaratzea eragin zuen arazoak edo galderak. Auzitegiak, orobat, hainbat arrazoi eman zituen, hartutako erabakia justifikatzeko, bai hori balio gabetzeko aukerari buruz, bai baliozkotzat hartzen zen erantzun-aukerari buruz. Gure uste apalean, horrekin lortu da justifikazio egoki eta nahikoa, laburra bada ere. Horregatik, behin fiskalizaziorako edo kontrolerako aukera agortu eta gero, guk ulertu dugu errespetatu egin behar dela auzitegiak emandako irizpen teknikoa, ez baitago, jadanik, beste aukerarik.

Kexa berezi bat azpimarratu nahi dugu, kexa horrek erakusten baitu administrazioek hainbat ahalegin egin behar dituztela, hautaketa-probak egokiak izan daitezten. Izan ere, oposizio gileen inguruan inguruabar bereziak gertatzen direnean, moldatu egin behar dira hautaketa-probak egiteko baldintzak, eta administrazioek bide horri heldu diote; inguruabar berezi horien artean aipa daiteke, konparazio baterako, hautagaia osasun-etxe batean ospitaleratzea. Hautagai hori haurdun zegoen, eta, epe labur-laburrean familia izan behar zuenez gero, aurreikuspenen arabera, ospitalean egongo zen, probak egiteko egun horretan. Horregatik, hautagaiak eskatu zuen proba egiteko modua moldatu edo egokitzeko (ikus 733/2001 kexaren laburpena).

Gasteizko Udalak, esan bezala, Enplegurako Eskaintza Publiko hori egin du. Eskaintza horren eremuan, bukatzeko, haurren hezitzaile-postuak iragarri dira. Iragarki horrek ageri-agerian utzi du honako beharrian hau: udaleko postuen zerrendak, egun, eduki zehatza du, eta eduki hori egokitu beharra dago; eduki horren arabera, udaleko haur-eskoletan hezitzaile-postuak betetzeko, zenbait titulazio-betekizun izan behar dira, eta betekizun horiek aldatu egin behar dira, hezkuntzaren antolamendu berriak eskakizun berriak ezarri dituelako. Zehatzago esateko, ekainaren 14ko 1.004/1991 Errege Dekretuak gutxieneko betekizunak ezarri ditu irakastegientzat, irakastegi horietan unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko ikasgaiak ematen direnean. Horren ondorioz, udaleko arduradunek eten egin dituzte proba horiek, beharrezkoak diren neurriak hartu arte.

Tokiko Administrazioaz den bezainbatean, baina enplegurako eskaintza publikoen prozesuak alde batera utzita, beste kasu batzuetan, erakunde honek esku hartu behar izan du, lanpostu jakin batzuk nola betetzen diren aztertzeko. Horixe da, besteak beste, Getxoko Udalaren kasua. Udal horretako Langileen Batzak zenbait kide ditu, eta kide horietatik batzuek kexa helarazi diote Arartekoari. Arartekoak zenbait kudeaketa burutu ditu, eta kudeaketa horiek erakutsi dute postu jakin batzuk betetzeko sistema erregularizatu eta normalizatu behar dela; izan ere, zenbait kasutan, postu horiek betetzeko orduan, ez dira errespetatu funtzio publikoaren oinarrizko arauak edo gida-lerroak. Arartekoak, bide horretatik, zenbait gomendio egin baditu ere, Getxoko Alkatetzak ez du erantzunik luzatu, eta, beraz, ez du gomendio bat bera ere onartu.

Bestalde, tokiko administrazioen menpe, zenbait sozietate publiko daude, eta, sozietate horietako lanpostu batzuk betetzeko orduan, arazoak izan dira, eta arazo horiek kexa sorrarazi dute. Sozietate publiko horien jardunbideak araubide berezia du, Zuzenbide pribatuaren menpekota baita araubide hori. Araubide horren itzalpean, sozietateok itzuri egin nahi izaten diete Konstituzioak ezarritako printzipio batzuei, alegia, berdintasun-printzipioari, merituen

printzipioari eta gaitasun-printzipioari. Horixe gertatu da, esate baterako, «Ensanche 21 Zabalgunea» sozietatearekin: hirigintzako sozietate hori Gasteizko Udalak sortu du, eta zenbait arazo izan dira, abokatu/ekonomistaren postua betetzeko orduan.

Udalen eremuan ere, ohikoa izaten da aldi baterako kontratazioak egitea, egitarau bereziak aurrera ateratzeko. Hori berori egin du, adibidez, aurton, Barakaldoko Udalak. Izan ere, udal horrek plan berezia onetsi du, aukera-berdintasuna bermatzeko, eta garapenerako lankidetzaz-egitarauak burutzeko. Halako kasuetan, egitarau horietan sartzeko, titulazio zehatza eskatzen da, eta horrek, sarritan, kexa sorrarazten du. Titulazioaren eskakizuna justifikatu behar denean, eskuarki, hauxe adierazten da: horixe da titulaziorik egokiena, egitarauaren eginkizun zehatzak bete ahal izateko. Horren inguruan, erakunde honek honako ohar hau egiten du: aipatutako justifikazio hori, zinez, nahiko izan daiteke, hautagai interesdunen defentsarik eza saihesteko, horiek egitarauaren barruan sartzeko asmoa dutenean; baina justifikazio horrek ez ditu zenbait eskakizun betetzen, eta halako eskakizunak ezinbestekoak dira, nahierarako ahalak behar bezala egikaritzeko. Gure iritziz, justifikazioa beste modu batera egin behar da. Xehetasun handiagoarekin azaldu behar da zergatik ematen zaien lehentasuna titulazio jakin batzuei; horretarako, kontuan hartu behar da zeintzuk diren egitarauarekin burutu nahi diren eginkizunak. Hala eginez gero, ez da inolako zalantzarik izango, ustezko nahierakeriaren inguruan.

Ezin dugu ahortzi, bestalde, kexa eragin duen arrazoi berezi bat. Kexa hori, egiatan, Tokiko Administrazioaren funtzionarioek helarazi digute; baina beste administrazioetako funtzionarioei ere beste horrenbeste gerta dakieke. Gure ustez, harako funtzionarioen eskaria guztiz bidezkoa da. Haien ustez, funtzionarioen esparruan ere aplikatu behar dira enplegua sustatzeko neurriak, eta, horien artean, adibidez, zati bateko erretiroa hartu ahal izatea; neurri horiek arazorik gabe aplikatzen zaizkie, ordea, enplegatu publikoei, horiek, funtzionario izan beharrean, langile direnean. Erakunde zehatz batzuk (besteak beste, UEMA) eskari hori gauzatzeko aukerak aztertzen ari dira. Alabaina, eskaria gauzatu ahal izateko, nahitaezkoak dira legegintzazko ekimenak, eta ekimen horiek gainditu egiten dute erakunde honen jarduera-esparrua. Hori dela eta, erakunde honek Estatuko Arartekoari helaraziko dio eskaria.

Bukatzeko, foru-administrazioetako funtzionario batzuek kexa igorri digute, eta kexa hori ere hemen aipatu nahi dugu, arazo berbera izan dezaketelako EA Eren gainerako administrazioetako funtzionarioek ere. Administrazio desberdinetako funtzionarioek trukaketa egin ahal duten ala ez galdegiten da kexa horretan. Erakunde honek zenbait ondorio atera ditu horren inguruan, eta guztiak ere 863/2000 kexaren laburpenean ageri dira.

Osasun alorreko funtzio publikoa

Estatistikako datuei buruz iruzkina egin dugunean, jadanik aipatu dugu osasun arloko langile bitartekoek kexa ugari aurkeztu dituztela. Gorago adierazi dugun bezala, langile horien helburu nagusia da Euskal Osasun Administrazioak bereganatzea azaroaren 21eko 16/2001 Legeak arestian onetsitako prozesua; prozesu berezi horren bitartez, estatutu-langileen postuak sendotu eta bete behar dira.

Lege horren zioen azalpenak adierazten du zein den legearen beraren helburua. Horri helduta, Gizarte Segurantzaren osasun-zerbitzuetako eta osasun-erakundeetako

estatutu-langileek ez dute batere finkotasunik lanean; haien egoera behin-behinekoa da oso. Eta hori saihestea da, hain zuzen ere, legearen helburua. Lege hori, beraz, salbuespenekoa da, eta, beraren beharrezana justifikatzeko, hainbat arrazoi azaltzen dira. Arrazoi horien artean, besteak beste, hurrengoak aipa daitezke: osasun-etxeetako langileen artean, aldi baterako langileen proportzioa oso-oso handia da, eta, zailtasun ugari daude, proportzio handi horri aurre egiteko, batik bat, sistema arruntak erabiltzen badira, postuak eskuratu eta betetzeko. Lege horren lehenengo xedapen gehigarriari helduta, legea indarrean jarri aurretik, autonomia-erkidego batzuei transferitu bazaizkie Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza kudeatzeko eskumenak, orduan autonomia-erkidego horiek lege horretan ezarritakoa beregana dezakete, euren beharrezanentzat komenigarri dela uste badute.

Urteko txosten honen prestaketa ixteko unean, oraindik Osakidetzaren erantzunaren zain gaude. Osakidetzako arduradunek adierazi behar digute zergatik erakunde horrek ez duen prozesu berezi hori aplikatzen, EA Eren esparruan. Gainera, arduradun horiek azaldu behar dute, orobat, ordezko zein neurri hartuko duten, enplegatuen behin-behineko egoerari aurre egiteko, halako egoera baitute, esate baterako, kexa aurkeztu digutenek.

Lurraldean arteko desberdintasunak igarri dira, halaber, lekualdatze-lehiaketetan, mugikortasunari dagokionez. Osasunbideko, hau da, Nafarroako Osasun Zerbitzuko enplegatu batek zalantzan jarri ditu EA Eko lekualdatze-lehiaketen deialdietan ezarritako baldintzak. Izan ere, baldintza horien arabera, enplegatuak ezin du deialdian parterik hartu, estatutu-langilea izan beharrean, funtzionarioa delako. Horren inguruan, kontuan izan behar da, batetik, urriaren 5eko 30/1999 Legea, horrek arautzen baitu nola hautatu eta betetzen diren osasun-zerbitzuetako estatutu-langileen plazak; eta, bestetik, ekainaren 26ko 8/1997 Legea, hori baita Euskadiko Osasunaren Antolakuntza ezarri duena. Biak batera aintzat hartuz gero, ondorio hau atera daiteke: Osakidetzaren eremuan, lekualdaketa-lehiaketak iragartzeko, deialdiak egin dira, eta zenbait baldintza ezarri dira, deialdi horietan parte hartzeko; bada, Zuzenbidearen ikuspuntutik, baldintza horiek bidezkoak dira, errepikatu besterik ez dituztelako egiten oinarri moduan aurretiaz araututako mugikortasun-baldintzak. Egjatan, langileek euren eginkizunak betetzen badituzte Osasunbiden, hau da, Nafarroako Osasun Zerbitzuan, orduan ezaugarri bereziak dituzte, eta ezaugarri horiei begirunea eta errespetua zor zaie. Alabaina, borondatezko mugikortasuna funtzionarioei (hots, estatutu-langile ez direnei) aitortzeko, eta horren inguruan edozein ekimen aurrera eramateko, euren irizpena eman behar dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunek.

Osasunaren arloan ere, zerbitzu zehatz batzuk Zuzenbide pribatuko formulekin kudeatzen dira. Horixe da, barbarako, Osatek-en kasua; enpresa horren zeregina da osasun arloko diagnostikoa eta tratamendua kudeatu, administratu eta ustiatzea, betiere, gorengo teknologia erabiliz. Zuzenbide pribatuko formulak erabiltzeak, zenbait kasutan, okerreko jokabideak sorrarazten ditu. Horregatik, Arartekoaren berezko eginkizuna da honako ohar hau egitea: Zuzenbide pribatuko antolakuntza-modua erabiltzen denean, hori tresna edo baliabide bat besterik ez da; ondorenez, langileen kudeaketa ez da bete-betea bat etorri behar funtzionarioen kudeaketarekin, baina ezin da inola ere ahantzi indarrean dirautela Konstituzioan ezarritako printzipioek, alegia, berdintasun-printzipioak, merituen printzipioak eta gaitasunaren printzipioak ere. Halako printzipioak gogoan izan behar dira, nahitaez, zerbitzu horietako enplegu publikoetan sartzeko orduan.

Aldi baterako kontratazioari buruzko zerrenden sistemari dagokionez, komenigarri gertatzen da arrisku jakin batzuk azpimarratzea. Arriskua dakar, esate baterako, ordezpene eta behin-behineko egoeren zerrenda behar bezala ez erabiltzeak, zerbitzuen antolakunde bakoitzak halako zerrendak kudeatzen dituzenean. Zerrenda horiek okerretara erabiltzen dira, baldin eta aldi baterako beharizanak sei hilabetetik gorakoak badira; halako beharizanak, bistakoa denez, lanpostu hutsen eta erreserbatutako postuen zerrendekin bete behar dira. Hala egiten ez bada, orduan kalte egin ahal zaie eskubide hobeko hautagaien igurikimenei, horiek lanpostu hutsen eta erreserbatutako postuen zerrendetan daudenean. Ildo horretatik, Ararteko erakundeak honako iradokizun hau egin dio Osakidetzari: EA Eren osasun-sareko ospitaletan, langileak kontratatzen direnean, Osakidetzak ahalik eta gehien kontrolatu behar ditu kontratazio horiek. Horrela, bitarteko beharizanek arreta iraunkorra behar badute, argiro-argiro, sei hilabetetik gorako epean, orduan horiek eskubide hobeko hautagaiei eskaini behar zaizkie, hautagai horiek lanpostu hutsen eta erreserbatutako postuen zerrendan dauden heinean.

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa

2001. urteko ekitaldia igarobideko ekitaldia izan dela adieraz dezakegu. Iazko txostenean, birbanaketarako neurriak aipatu genituen, eta, behin neurri horiek agortutakoan, beste neurri batzuen zain geratu gara. Antza denez, Enplegurako Eskaintza Publikoa egingo da epe laburrean, eta, horrekin batera, egonkortasun-itunean hartutako konpromisoa berrikusiko da. Horrek guztiak berarekin ekarriko du neurri berriak hartu behar izatea.

Hori gorabehera, erakunde honi zenbait arazo helarazi zaizkio. Horien artean, zenbait proposamen aipa daitezke. Halako proposamenen bitartez, lanbidea eta familiako bizimodua uztartu nahi dira, hori lagungarri izan baitaiteke amatasunarentzat ere. Hori dela eta, erakunde honek jarraiko gomendioa egin du: emakumezko bitarteko funtzionarioek, amatasuna dela eta, uko-egite justifikatuaren aukera egin badute, eta, horrela, eskolako ikasturtean zehar, zerbitzuko 165 egun egiaztatzen badituzte guztira, orduan, haiei udako hilabeteak ere aitortuko zaizkie, antzinasunaren ondorioetarako eta zerrenden antolakuntzari buruzko ondorioetarako. 165 egun horien artean sartzen dira, orobat, beste uko-egite batzuen ondorioz aitortutakoak; halako uko-egiteak babesturik gera daitezke, ordezpene zerrendak kudeatzeari buruzko arautegiaren ondorioz. Kasu horren inguruan, argibide gehiago izateko, 828/2001 kexaren laburpena jo daiteke.

Aitzitik, beste kasu batean, bidezkoa izan da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduna. Sail horren iritziz, emakumezko bitarteko funtzionarioek egonkortasunik ez badute, orduan ezin dute inolako kasutan edoskitze-baimena lortu eta, horrekin batera, haurdunaldi-baimena eta erditze-baimena; irakaskuntzako gainerako emakume funtzionarioek, ordea, horretarako aukera dute. Jarduteko modu horrek ez du inola ere ukatzen baimena bera. Aitzitik, baimen hori lortzeko baldintza bat besterik ez du ezartzen. Areal ere, Hezkuntza Sailak onartzen du edoskitze-baimena, zati batez, haurdunaldi-baimenarekin eta erditze-baimenarekin batera izatea (hain zuzen ere, abuztuaren 31 arte luzatzen den zati horretan). Geroago, emakumezkoak zerbitzuak egiteari ekiten badio, eta semeak edo alabak oraindik 10 hilabete bete ez baditu, orduan emakumezkoak baimen horren erabilerari euts diezaioke, baita besteekin batera ere.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasle batzuek kexa egin dute hizkuntza-prestakuntzaren beharrekin zerikusia duten gaiez: besteak beste, hizkuntza-eskakizunak

egiaztatzeko probez. Ikaskuntza-prozesuan lortutako kalifikazioak ez zetozen bat, neurri handi batean, egiaztatzeko probetan lortutako emaitzekin, eta hori deigarri gertatzen zen. Aztertutako datuen arabera, ezin esan zitekeen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben sistema zenik ikaskuntza-prozesuan lortutako balorazioak sortutako itxaropenak ez betetzearen arrazoa. Hala ere, IRALE programan sartutako irakasleak zirenez gero, Hezkuntza Sailari helarazi genion gure iritzia, ikaskuntza-prozesuarekin izan dezakeen loturagatik.

Ordainsariei dagokienez, emakumezko irakasle funtzionario batek zerbitzuak egin zituen, Euskal Hezkuntza Administrazioaren esparruan, eta, orain, berriz, atzerriko hezkuntza-sistema batean (Marokon) ari da. Emakumezko horrek eskatu du Administrazioak berari seiurtekoak aitortzeko. Erakunde honek zenbait kudeaketa burutu ditu, eta kudeaketa horiek erakutsi dute Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari dagokiola, hala denean, seiurtekoak aitortu eta horiek ordaintzea. Izan ere, EA Eren ordainketa-sistemak ez du halako aukerarik jasotzen. Horretarako, Hezkuntza Administrazioak zerbitzuei buruzko aitortpen egokia egin du.

Ordezpenei edo bitartezko beharrianak betetzeari dagokionez, aurreko urteko kexak errepikatu dira. Kexa horietan, adjudikazio-akatsak antzeman eta salatu dira, ikasturtearen hasierako prozesuetan. Kasu horietan ohikoa denez, erakunde honen esku-hartzeak hurrengo helburua izan du: kalte dunen interesak oso-osorik berrezartzea (ikus 828/2001 kexaren laburpena).

Unibertsitatearen eremu edo esparruan, funtzionario-talde batek Arartekoarengana jo du, Euskal Herriko Unibertsitateak erabiltzen duen prozedura bat zalantzan jarriz. EHUK prozedura hori erabiltzen du, banakako ordainketa-osagarri bereziak eskatzen direnean, horien inguruko izapideak egiteko eta eurok ebaluatzeko. Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak prozedura hori onetsi zuen, 1999ko otsailaren 18an egindako bileran. Prozedura hori bat dator Unibertsitatearen Antolakuntzari buruzko Legearen 16. artikulurekin. Artikulu horrek agindutakoaren arabera, unibertsitateko irakasleei ordainketa-osagarriak esleituko zaizkie, baldin eta kalitatezko jarduera burutzen badute, euren unibertsitate-eginkizunak betetzean. Arartekoak hasiera eman zion ikerketazereginari. Hori egin eta gero, unibertsitateko Idazkaritza Nagusiak adierazi zigun ELA/STV sindikatu-konfederazioak administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri duela. Hori ikusita, erakunde honek gogoan hartu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua, lege horrek arautzen baitu erakunde hau. Artikulu horrek ezarri duenez, *Ararteko bere jarduna etengo du, baldin eta, hori hasi eta gero, interesdunak de-manda edo errekurtsioa jartzen badu, auzitegi arruntetan edo Konstituzio Auzitegian.*

Nabarmentzekoa da, halaber, beste kexa bat, unibertsitateko katedra bat betetzeari buruz. Horren inguruan, Ararteko erakundeak uste du hautaketa-organoen aukeramenak ez duela biderik ematen, horiek hartutako erabaki teknikoaren ordez, beste bat hartzeko. Alabaina, horrek ez du esan nahi kontrol negatiboa saihestu daitekeenik. Kontrol horren bitartez, egiazta daiteke ea organo horiek, euren jardunean, baldintzen berdintasuna errespetatu duten, hautagaien artean; egiazta daiteke, orobat, ea organo horiek irizpide berberak erabili dituzten, meritua eta gaitasuna balioesteko. Kontuan hartzekoa da interesdunak prozedurari hasiera eman diola, erabakiaren gaineko administrazio-kontrola gauzatzeko, interesdun hori ez dagoelako erabaki horrekin ados. Hori dela eta, erakunde honek uste du erreklamazioen batzordeak balioetsi beharko duela nolakoa izan den batzordearen jarduna, katedra hori betetzeko deialdiaren gainean erabakia hartu duenean. Bien bitartean, gure esku-hartzea eten egin dugu.

Poliziaren alorreko funtzio publikoa

EAEren polizia-kidego desberdinetan sartzeko, deialdiak egin dira, eta, deialdi horietan, berriz ere, adin-muga ezarri denez gero, kexak aurkeztu dira. Kexa horiek ikusita, azkenik, gomendio orokorra egiteko erabakia hartu dugu. Hortaz, erakunde honek gomendio orokorra luzatuko du, poliziako funtzio publikoan sartzeko ezarritako betekizun horri buruz.

Arlo horretan ere, nahitaezkoa da aldi baterako beharrianak betetzea; are gehiago, batzuetan, halako beharrianak presazkoak izaten dira. Zenbait kasutan, akatsak edo hutsuneak igarri dira (Ondarroako Udala), eta, horregatik, gomendioa egin da, neurri egokiak har daitezten. Neurri horien bitartez, sistema objektiboa ezarriko da, udal poliziaren laguntzaileak behar direnean, bitartezko beharrian horiek betetzeko. Sistema horrek berdintasun-printzipioa, merituen printzipioa eta gaitasun-printzipioa errespetatu behar ditu, bai eta publikitate-printzipioa ere. Eta, eremu horren barruan, ustezko interesdun guztiek behar bezala parte hartuko dute.

5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa

⇒ *Destinoak elkarrekin trukatzea, foru-funtzionarioen artean (863 eta 894/2000)*

- Erreklamazioa

Euren lanpostuak trukatu nahi zituzten foru-funtzionarioen kexa bana jaso zen. Arabako Foru Aldundiak ezetz esan zion irudi hori onartzeari eta, horren ondorioz, erakunde honen bitartekotza eskatu behar izan zuten.

- Azterketa

1. Lehenengo aldi, erakunde honen jardueraren helburu nagusia izan zen trukatzearen ohiz kanpoko irudia bidezkoa zen edo ez zehaztea. Izan ere, kexak ukitzen zituen foru-aldundiei hausnarketa hauek jakinarazi genizkien:

Jakina denez, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak (aurrerantzean EFPL), 46. artikuluan, hauxe xedatu du: «funtzionarioentzat gorde diren lanpostuak beteko dira lanpostuen zerrendetan ezarrita dagoenari jarraituta, lehiaketa eta izendapen askearen sistemen bidez.»

Horrenbestez, esparru autonomikoan abuztuaren 2ko 30/84 Legeak, Funtzio Publikoa Aldatzeko Neurriei buruzkoak (aurrerantzean, FPANL), 20. artikuluan xedatutakoa onartzen da, EBren 149.1.18 artikulua babespean emandako eta funtzionario publikoen estatutuko araubidearenak diren oinarrien izaeraz, eta, hortaz, administrazio publiko guztien langileei aplikatzekoak dira.

Interesgarria da ohartzea Estatuko arau horrek -FPANL- ez duela bere artikuluetan jasotzen trukatzearen irudia. Lanpostuak betetzeari dagokionez, ohizko prozedurak baino ez ditu aipatzen, lehiaketa eta izendapen askea, baita berriagoa den efektiboak esleitzearena ere.

Trukatzearen irudiaren arautze urria Estatuko Funtzionario Zibilen Legeak jasotzen du 62. artikuluan (otsailaren 7ko 315/1964 Dekretuaren bidez onartutako testu artikulatua), eta artikulua horren indarraldia berariaz salbuesten du FPANLren xedapen indargabetzaileak.

Horregatik, Estatuaren esparruan, bidezkoa da ohiz kanpoko irudia den trukatzearen bideragarritasuna edo jatorria. Eztabaida pizten da eztabaidatzen denean Estatuko arautze hori bera autonomiaren esparruan aplikatzekoa ote den, izaera osagarriaz.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago Estatuko zuzenbidearen osagarritasunaren balio orokorrak ez duela ahaztu behar zuzenbide autonomikoa ez dela berez iturrien sistema bat, berezko oinarriak eta legeak dituen bere zuzenbide positiboan dauden hutsuneak betetzeko.

Hala, bada, ohar hori aintzat hartuta, egia da trukatzeari buruzko Estatuko ordenamenduaren aplikatze osagarria onartzea ez dela oztopo ordenamendu autonomikorako -ordenamendua arauen multzo legeaz hartuta-, eta horrek ez duela eraginik EAEko funtzio publikoaren sistemaren koherentzian. Ildo horretan, EFPL-k ez du inoiz berariaz irudi horren aurkako punturik jasotzen.

2. Lehen aldi hori, hau da, irudi horren bideragarritasuna gaindituta eta onartuta, eztabaida lerratu zen funtzionarioek egindako trukatzeko eskabideak baimentzeko bete behar diren baldintzak edo eskakizunak aztertzeraz. Jarraian, horri dagokionez aurkeztu diren baldintzak jasota daude:

Estatuko Funtzionario Zibilen Legeak 62. artikuluan jasotako arautzeari jarraituta, honako baldintza hauek bete behar dira baimen hori emateko:

- a) Lanpostuek izaera berekoak izan behar dute, eta betetzeko modu bera eduki.
- b) Funtzionarioek dituzten zerbitzuko urteek, hurrenez hurren, ez dute euren artean bost urte baino gehiagoko aldea izango.

Era berean, ezingo da baimendu funtzionarioen arteko trukatzetik, haietako bati hamar urte baino gutxiago falta bazaio erretiratzeko adina betetzeko. Ildo berean, 1952ko maiatzaren 30eko Tokiko Administrazioako Funtzionarioen Araudiak -oraindik indarrean dirauenak (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuak onartu zuen Testu Bateginak ez baitu indargabetzen ez berariaz ez isilbidez)- 98. artikuluan xedatzen du funtzionarioek jabetzan betetzen dituzten karguak trukatu ahal izango dituztela, baldin eta 60 urte bete ez badituzte, talde eta kategoria berekoak badira, eta lanpostuak mota berekoak badira.

Azaldu diren baldintza edo eskakizun guztietatik, ulertzeko ahaleginik handiena eskatzen duena da trukatu nahi diren lanpostuak «izaera berekoak» izatea dioena.

Horri dagokionez, Langileriako Batzorde Gorenak adierazi du «izaera berekoak» terminoa -30/84 Legearen ostean- lanpostu-zerrendetan jasota dauden puntuen arteko berdintasunari dagokiola, eta ondorio horretarako edukia nahitaezkoa izango dela (Lanpostuen zerrendak, LPZ). Horrela, bada, oro har, «funtzio berberak izango dira, baita betetzeko modua, tituluak -

eskatzen badira-, izendatuta dituzten ordainsari osagarriak eta lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak ere». Erakunde honek bat egiten du Langileriako Batzorde Gorenak esandakoarekin: trukatu nahi diren lanpostuek elkarrekikotasuna izan behar dute, LPZan ezarritako eskakizunen arabera.

3. Foru-langile horien trukatzeko eskabideari eman zaien tratamenduari dagokionez, nabarmendu behar da Arabako Foru Aldundiak oztupoak jarri zituela trukatu nahi ziren lanpostuak erkatzean hauxe aurkitu zuelako:

«...Lanpostuen zerrendak ikusita, Arabako Foru Aldundiaren Finantza Aurrekontuko Kontabilitateko laguntzailearen lanpostua C/D taldeei irekita dago, eta, ostera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Espedienteak Izapidetzeko Laguntzako administrari laguntzailearen lanpostua D taldekoa da. Ezberdintasun horren ondorioz, ordainsaria handiagoa da eta, ordainketa osagarrian dagoen aldea aintzat hartuta, 399.878 pta.koa da.»

Egia esan, indarrean dauden lanpostuen zerrendak ikusita, ezin dira ukatu Arabako Foru Aldundiak aipatu dituen ezberdintasunak. Alabaina, gure iritziz, ezin da eskatu baldintza hori horrela ulertzea -trukatu nahi diren lanpostuak izaera berekoak izatearen baldintza-, irudiari birtualitate osoa kenduko baitio eta praktikan ez baita bideragarria izango.

Ildo horretan, azaldu dugun lehen ezberdintasunari dagokionez -hau da, trukatu nahi diren lanpostuetako bat berdin bete dezaketela C nahiz D taldeetako funtzionarioek, baina beste lanpostua D taldeko funtzionarioentzat gorde dela- Ararteko erakundeak bidezkoztat jo zuen hizpidera ekartzea Langileriako Batzorde Gorenak adierazitakoa; izan ere, titulazioko talde ezberdineko kidegoetako funtzionarioen artean trukatzeko aukeraz egin zuen kontsultan (90-07-16ko txosten/erabakia), hauxe adierazi zuen hitzez hitz:

«Titulazioko talde ezberdineko kidegoetako funtzionarioen artean trukatzeko baimendu ahal izango dira, baldin eta lanpostu horiek «izaera berekoak» badira, (...) eta dagozkien taldeetako kidegoetakoak diren funtzionarioek berdin bete ahal badituzte.»

Era horretan, titulazio-maila ezberdineko kidegoetako funtzionarioen artean trukatzeko baimenduta daudenez, erakunde honen iritziz, nekez jar daiteke oztoporik, bereizi gabe betetzekoak diren lanpostuak badira, eta lanpostu horiek trukatu nahi dituzten funtzionarioek titulazio-maila bereko kidegokoak badira.

Arabako Foru Aldundiak adierazi dituen ezberdintasunei dagokienez, ordainketa osagarriak direla-eta, erakunde honek egokitzen hartu zuen, era berean, Langileriako Batzorde Gorenaren adierazpenetara jotzea; horrek, lerro batzuk aurrerago aipatu dugun txostenean, 1986ko uztailean egindako kontsultaz ari zela, hauxe zehaztu zuen:

«Era berean, ondorio horietarako kontuan hartu behar da ordainketen araubidearen arautze berria, eta, batez ere, gradu pertsonalari eta lanpostuen mailari dagokiena, zeren, 30/84 Legeak 21.2 artikuluan ezarri duenaren arabera, ez da funtzionariorik izendatu behar goiko edo beheko lanpostu baterako, maila bi baino gehiagotan, berari dagokion gradu pertsonalarekiko (Jakina denez, 23/88 Legeak artikulua horri eman dion idazkerak azken puntu hori aldatu du)».

Frogatu ahal denez, kontuz ibili da ordainsari osagarrien eragina dela-eta, trukatu nahi diren lanpostuak izaera berekoak diren edo ez zehazterakoan, eta horrek zerikusia du gradu pertsonal jakin baten onarpenari dagozkion bermeekin. Ildo beretik doa Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1999-03-24 epaia - RJCA 1999\717.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, erakunde honek ulertu zuen, ordainsarien araubidean eta gradu pertsonala finkatzean eta onartzean egindako aldaketan, onartu behar zela trukatzeko aukera berariazko osagarri ezberdina edota lanpostu-osagarri ezberdina esleitura zuten lanpostuetako funtzionarioen artean, baldin eta katalogazioko ezberdintasun horrek garrantzirik ez bazuen gradu pertsonala finkatzeko eta onartzeko.

- Emaidza

Erakunde honek Arabako Foru Aldundiari gomendatu zion egokiak ziren neurriak hartzeko, funtzionarioen trukatzeko-erabakidurak baimentzeko, baldin eta funtzionario horiek, indarreko araudiak ezarritako eskakizun guztiak betetzen bazituzten eta, gainera, izaera bereko lanpostuetako titularrak izatea egiaztatzen bazuten, bereziki:

- a) Lanpostuak titulazio-talde ezberdineko kidegoetakoak diren funtzionarioek bereizi gabe betetzeko badira.
- b) Berariazko osagarri ezberdina edota lanpostuko osagarri ezberdina duten lanpostuak badira, baina horrek eraginik ez badu gradu pertsonala finkatzeko eta onartzeko.

Arabako Foru Aldundiak gomendioaren lehen atala onartu zuen. Bigarren atalari dagokionez, hauxe adierazi zuen: «ez dira onartuko ezberdintasun garrantzitsuak sortzen dituzten trukatzeko, lanpostuaren ordainsari guztien eta gainerako ezaugarrien azterketa orokor baten arabera.»

Gure ustez, ordainsarien arloan dagoen arautze berriak -nola Estatukoak diren oinarrietan, hala autonomia-erkidegokoak diren eta foru-administrazioan ere aplikatzen diren legeetan(eskubide subjektiboa aitortzen dio gradu pertsonal jakin bat lortzeari, eta, horrenbestez, betetzen den lanpostua edozein izanda ere, funtzionarioak bere gradu pertsonalari dagozkion mailako postuen lanpostu-mailako osagarria jasoko du gutxienez. Alabaina, ordainsariaren gainerako kontzeptuek edo osagarriek ez dute erreferentzia subjektiborik eta ezin dira hartu egoera pertsonalaren baldintzat; ostera, lanpostuak era eraginkorrean betetzeari lotuta daude edo, hobeto esanda, horren ondorioa dira. Hori dela-eta, ordainsaria banatzearen ondorioetarako, ez du garrantzirik trukatzeko-erabakidurak ukitzen dituen beste administrazioek zein eredurik jarraitzen dioten (hau da, berariazko osagarria edo lanpostu-mailako osagarria handiagoa edo txikiagoa izatea), zeren osagarri horiek ez baitute jarduten trukatu nahi diren lanpostuen ordainsarien berdintasuna bultzatzen duten eskakizun gisa. Aitzitik, ordainsari osagarri horiek ondorio ekonomikoa dira, eta lanpostuak era eraginkorrean betetzearen emaitza dira. Horrenbestez, trukatzeko erabakidura duten funtzionarioen ordainsari-aurrekariak ez dute garrantzirik; salbuespen bakarra dira gradu pertsonal jakin baten onarpenak sortzen dituen ezberdintasun ekonomikoa.

Hortaz, gure iritziz, Arabako Foru Aldundiak azaldu dituen argudioek ez zituzten aldatzen gure gomendioaren arrazoi izan ziren puntuak, eta, hala, bada, erakunde honek onartu ez zen gomendiotzat hartzea ebatzi zuen.

B) Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa

⇒ *Irakaskuntzako ordezkapenak. Lanpostu hutsak esleitzean egindako akatsetan, zerbitzuak aitortzea (988/2000)*

- Erreklamazioa

Irakaskuntzako bitarteko funtzionario batek -ordezkapenetan lanpostugaia, sukaldaritza eta gozogintzako espezialitatean eta sukaldaritzako zerbitzuetakoa- erakunde honi salatu zion akats bat zegoela Leioako Ostalaritza Eskolako lanpostu huts batzuen esleipenean, 2000-2001 ikasturtearen hasiera ezartzeko prozeduran; salaketaren bidez, lortu nahi zuen Hezkuntzako Administrazioak akats horren ondorioz egin ez zituen zerbitzuak onartzea, geroko ordezkapenen ondorioetarako.

- Azterketa

Erakunde honek kezka honetan azaldu den gaietan eta antzekoetan esku hartzen duenean duen asmoa da zehaztea eta finkatzea ea Hezkuntzako Administrazioaren prozeduran akatsik dagoen, eta, gero, kalteak izan direla egiaztatuz gero, kalte horiek zuzen konpontzea.

Era horretan, asmo horri jarraituz, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen argitzea, lehenik, ea sukaldaritzako eta gozogintzako espezialitatean ba ote zegoen interesdunak baino eskubide gehiago zuen lanpostugairik, Leioako Ostalaritza Eskolako lanpostu hutsetara lehentasunezko sarbidea zuen lanpostugairik. Ildo horretan, eskubide gehiagoko lanpostugairik egonez gero, eta horiei kalte eginez gero, interesdunak egin dituen birjartzeko eskakizunak gain behera etorriko lirateke, zeren esleipeneko jardueren berrikustea tartean dauden lanpostugai guztiengana iritsi beharko bailitzateke. Osterantzean, eskubide gehiagoko beste lanpostugairik egon ezean, eztabaidaren helburua izango litzateke Hezkuntzako Administrazioaren prozedura balioestea, Leioako Ostalaritza Eskolako lanpostu hutsen konfigurazioan espezialitate-aldaketa baimendu eta onartu zuenean izandako prozedura.

Argitu behar da erakunde honek ez duela asmorik zalantzan jartzeko Hezkuntza Administrazioak planifikatzeko eta antolatzeke dituen ahalmenak; ahalmen horiek lanpostu hutsen konfigurazioko aldaketak justifikatzen eta bermatzen dituzte. Alabaina, Leioako Ostalaritza Eskolako lanpostu hutsei dagokienez, ohartarazi genuen lanpostu huts horien konfigurazio-aldaketa prozesu bakar baten esparruan izan zela, hain zuzen, ikasturte hasiera ezartzean. Horrenbestez, gure ustez, era objektiboan eta bestelako ohartarazpenik egin barik, esan zitekeen Hezkuntzako Administrazioaren funtzionamendua ez zela ohikoa, eta hori ahalegindu behar zela egiatan eragindako kalteak konpontzen. Behintzat, interesdunak egin ez zituen zerbitzuak onartu behar zituen, geroko ordezkapenen ondorioetarako.

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion, Leioako Ostalaritza eskolako lanpostu hutsen aldaketak ukitutako lagun gehiagorik ez zela egon berretsiz gero, neurri egokiak har zitzaion interesdunari egindako kalteak konpontzeko eta, geroko ordezkapenen ondorioetarako, 2000-2001 ikasturtean egin ez zituen zerbitzuak onartzea.

Gomendio hori onartu zen.

⇒ *Haur-eskoletako hezitzaile-lanpostuetara iristea (150/2001)*

- Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko haur-eskoletako hezitzaile-lanpostuetara iristeko interesa duen lagun-talde batek erakunde honi galdetu zion ea zein titulu eskatzen zuten plaza horiek betetzeko, indarreko lanpostuen zerrendaren arabera.

- Azterketa

Erakunde honek egindako azterketak arau aurrekari hauek hartu zituen aintzat:

1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrena (LOGSE)

10. art.: «Haur-hezkuntza dagokion espezializazioa duten maisu-maistrek irakatsiko dute. Lehen zikloan, ikastetxeetan bestelako langileak ere egongo dira, hain zuzen, adin horretako haurrei laguntza egokia emateko behar den kualifikazioa dutenak.»

Lehen xedapen gehigarria: «Gobernuak, autonomia-erkidegoek txostena egin ostean, aplikatuko den egutegia onartuko du, hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrarena; hamabi urteko denboraldirako izango da, lege hau argitaratzen denetik hasita.» (idazkera berria, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte Ordenako Neurriei buruzkoak, hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrira).

Lehen xedapen iragankorra: «1. Gaur egun sei urtetik beherako umeei laguntza ematen dieten ikastetxeek, eskolaurreko ikastetxe gisa baimenik ez badute, epe bat izango dute haur-hezkuntzako zentroentzat ezarritako gutxieneko eskakizunei egokitzeko, hain zuzen, horietan finkatuta dagoena.»

1004/1991 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, unibertsitatekoak ez diren araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten zentroek bete beharreko gutxieneko eskakizunak ezartzen dituena.

14. art.: «Dagokion espezializazioa duten maisu-maistrek irakatsiko dute haur-hezkuntza. Lehen zikloan, ikastetxeetan bestelako langileak ere egongo dira, hain zuzen, adin horretako haurrei laguntza egokia emateko behar den kualifikazioa dutenak.»

15. art.: «1. Lehen zikloa baino irakasten ez duten haur-hezkuntzako zentroek langile kualifikatuak eduki beharko dituzte, hain zuzen, jarduneko unitateen kopuru berbera eta bat gehiago.

Sei unitate edo frakzio bakoitzeko, gutxienez, haur-hezkuntzan aditua den maisu-maistra bat edo eskolaurrean espezializatuta dagoen Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle bat egongo da.

2. Aurreko atalean aipatu ditugun langile adituak haur-hezkuntzan espezializatuta dauden maisu-maistrek edo eskolaurrean espezializatuta dauden Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleek eta haur-

hezkuntzako goi-teknikariek edo hartzaindegiko teknikari adituek osatuko dute.

3. Artikulu honetan aipatu ditugun langile adituek laguntza emango diete haurrei une oro.»

Bosgarren xedapen iragankorra: «Sei urtetik beherako umeei laguntza ematen dieten ikastetxeek, eskolaurreko ikastetxe gisa baimenik ez badute, baina jarduteko baimena edo lizentzia eskuratu badute urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren -Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren Legearen- aurrekoa den legeriaren arabera, Errege Dekretu horretan finkatuta dagoen epea izango dute hezkuntza-sistema berria osoki ezartzeko, hain zuzen, aipatu dugun legea -ekainaren 14ko 1.004/1991 Errege Dekretuak haur-hezkuntzako zentroentzat ezarritako gutxieneko eskakizunei egokitzea- indarrean jartzen denetik hasita.» (idazkera berria, otsailaren 16ko 173/1998 EDk -horren bidez, ekainaren 14ko 173/1998 EDa, hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren egutegia onartzen duena, aldatzen eta osatzen da- 4. xedapen iragankorrean egin duen aldaketari jarraituta).

Erakunde honen iritziz, orain aipatutako araudien ezarpenak batera aintzat hartuz gero, hezkuntzako antolamendu berriak haur-hezkuntzako zatian edo aldian irakasteko xedatu dituen titulu-eskakizunak eskatu ahal izango dira behin hezkuntza-sistema berria erabat ezartzeko dagoen epea amaitu ondoren. Epe hori, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak egindako aldaketaren arabera, hamabi urte igarotakoan amaituko da, LOGSE argitaratzen denetik hasita, hau da, 2002.eko urrian.

Bitartean, udal-izaerako haur-eskolak direnez, erakunde honen ustez, hezitzaile-lanpostua betetzeko eskakizunei dagokienez, lanpostuen zerrendan xedatutakoa bete beharko da; horrek aukeran izango du LOGSEn eta garapenezko araudian dagoeneko ezarrita dauden oinarriak jasotzea, edota horiek eskatzeko epea atzeratzea harik eta finkatutako gehienezko epea agortu arte.

Alabaina, gure ustez, Konstituzioak berariaz agintzen duenez, administrazio publikoen jarduna arautu behar duen eraginkortasunaren printzipioak gomendatzen du titulazio-eskakizunen ezarpena aurreratzeko aukera balioestea -berriro diogu, nahitaezkoak izango dira 2002ko urritik aurrera-, eta, gisa horretan, lortu nahi da kudeaketa-arazorik ez egotea, eskakizun horiek nahitaezko bihurtzen diren unean, udaleko haur-eskoletan zerbitzu egiten duten langileek ez ba dituzte (izan litezkeen mugiarazteak, e.a.).

- Emaizta

Vitoria-Gasteizko Udalarari gomendatu zitzaion neurri egokiak har zitzan, udaleko haur-eskoletako hezitzaile-lanpostuetara iristeko eta lanpostu horiek betetzeko ezarri diren titulazio-eskakizunak egokitu ahal izateko hezkuntzako antolamendu berritik sortutako betebeharrei, era horretan, dagozkion lanpostuen zerrendan jasota egonda, tankera horretako lanpostuetarako iragarritako deialdietan sartzeko baldintza gisa eskatu ahal izan zitezten.

Esku hartze horri erantzunez, alkateak osoko bilkuraren erabakia jakinarazi zuen: lanpostuen zerrenda proposatutako ildoan aldatuko zen.

⇒ *Irakaskuntzako bitarteko funtzionarioak. Zerbitzuak aitortzea amatasunezko ordezkapen-zerrenden ondorioetarako (828/2001)*

- Erreklamazioa

Irakaskuntzako bitarteko funtzionario bik, amatasuna dela-eta, aldi baterako hainbat zerbitzuri uko egiteko erabakia hartua zuten, eta horiek, egiatan egindakoekin batera, guztira, 165 egun baino gehiago ziren. Irakasle horiek erakunde honi salatu zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak uko egin ziola udako hileak ere onartzeari antzinatasunaren ondorioetarako.

- Azterketa

Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak hainbat neurri ditu onartuta bitarteko langileei dagokienez, besteak beste: uda garaian ordainsariak kobratzea, uko egiteko aukera eta, ondorioz, zerbitzuak zenbatzea amatasunezko irakaskuntza-ordezkapenen ondorioetarako.

Egia esan, neurri horiekin erdietsi nahi dituzten helburuak oso ezberdinak dira. Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren hitzetan: *«uda kobratzearen helburua da lortzea era jarraituan zerbitzuak egin dituen irakaslea, «enpresa ixtearen» ondorioz, langabeziara ez joatea eta, hortaz, bere bizitza-kalitatea ez okertzea; ostera, amatasuna dela-eta ordezkapenak egiteari uko egitearen helburua da ama babestea».*

Kexa sustatu duten irakasleen nahia ez zen, inola ere, aldarrikapen ekonomikoa egitea udako hilabeteak kobratzeko. Aitzitik, euren interes bakarra zen udako hiletara zabaltzea (antzinatasunaren ondorioetarako baino ez) ordezkapenen zerrendak kudeatzeko araudiak xedatzen duen zerbitzuen aitortpena, baldin eta ikasturtean egindako ordezkapenekin betetzen bada 165 egunen gutxieneko kopurua -ordezkapen horien artean sartuta daude amatasuna dela-eta uko egindako ordezkapenak-.

Euren eskabidea bultzatzeko, kexaren sustatzaileek erkatu egiten zuten eurek jasotako trataera ordezkari irakasle batzuek -ikasturte beraren barruan 165 zerbitzuegunen gutxieneko kopurua bete ostean amatasun-egoerara igaro direnean- jaso dutenarekin. Alabaina, gure iritziz, azken egoera hori ez da aldentzen 165 eguneko gutxieneko kopuru hori beteta udako hileak onartzen zaizkiela ikusten duten gainerako bitarteko irakasleen egoeratik.

Hori dela-eta, kexa aztertu ostean, erakunde honek hausnartu zuen ordezkapenen zerrenda kudeatzeari buruzko araudiaren hitzez hitzeko testuak ematen zuela interesdun horien nahia aintzat hartzea eramango gintuen argudioa. Izan ere, amatasun-egoera bidezko ukoa egiteko arrazoitzat hartzen bada, eta, jarraian, erabakitzen bada uko egindako ordezkari-denbora egindako zerbitzuen denboratzat jotzea zerrenda horien baremorako, onartu besterik ezin da egin, era horretan onartutako zerbitzuen denbora 165 egunetara iristen denean, onarpen hori zabaltzea behar dela udako gainerako hiletara, antzinatasunaren ondorioetarako baino ez, noski, eta ordainsarian inolako ondorioz izan gabe, ez baita modu eraginkorrean zerbitzurik egin.

Bestela, adierazitako prozedurari jarraitu ezean, ordezkapenen araudiak ezarri duen zerbitzu-aitortpenak bere birtualitatearen zati bat galtzen du amatasun-egoeran dauden irakasleei dagokienez, bidezko ukoa egin den beste egoeretan bezalaxe.

- Emaidza

Erakunde honek hauxe gomendatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari: amatasuna dela-eta bidezko ukoaren egoerari eusten dioten bitarteko irakasleei, era horretan guztira 165 zerbitzu-egun egiaztatzea iritsi badira ikasturte batean (ordezkapenen zerrendak kudeatzeari buruzko araudiak babestutako ukoen ondorioz onartutakoak barne), onartu egingo zaizkie udako hileak, antzinasun ondorioetarako eta zerrendetan ordenatzeko.

Hezkuntza Administrazioak uko egin dio emandako gomendioari.

C) Funtzio publiko orokorra

⇒ *Hizkuntzen ezaguera egiaztatzea. Salbuespena (16/2001)*

- Erreklamazioa

Ingeles Filologian lizentziaduna den oposiziogile batek erakunde honi azaldu zion Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) uko egin ziola hizkuntzen ezaguera egiaztatzeko proba egiteko salbuespena, nahiz eta deialdiaren oinarrietan Hizkuntza Eskola Ofizialeko egiaztariak zituzten lanpostugaientzat salbuesteko aukera hori jasota egon.

- Azterketa

Funtzio publikoan sartzeko aintzat hartu behar diren eskakizunak eta merituen finkatzeko erreferente egokia lanpostuen zerrenda edo katalogoa da (aurrerantzean, LPZ), bera baita lanpostuak betetzeko baldintzak zehazten dituen tresna.

Hori dela-eta, sarrera-deialdietan, EAEan ofizialak ez diren hizkuntzen ezaguera balioesteko, dagozkion LPZek lanpostu jakin batzuk betetzeko ezaguera bereziko eskakizun gisa eskatutako mailak hartzen dira aintzat. Hain zuzen, EAEko Administrazio Orokorri dagokionez, Hizkuntza Eskola Ofizialaren 3. eta 4a., gehienbat.

Alabaina, kontuan hartu behar da LPZ -esan dugunez, saihestu ezin den erreferentea dena edozein sarrera-deialditan (lanpostu jakin batzuk betetzeko eska daitekeen ezaguera-mailarik txikiena finkatzera murrizten da; eta, horretarako, aintzat hartzen du unibertsitateaz kanpoko hizkuntzen irakaskuntza ofizialaren gainean dagoen antolamendua, baina ez du bestelako erreferentziarik aipatzen edo ezartzen, nahikoa izan daitezkeen beste ezaguera-mailei dagokienez.

Era horretan, sartzeko baldintzak eurak dira, behin meritutzat hartuko den ezaguera-maila finkatu ondoren, euren oinarrietan ezartzen dituztenak ezaguera-maila hori egiaztatzeko ildoak. Horrela, bada, ohikoa da oinarriek ezartzea egiaztatze-proba bereziak egiteko baldintza, eta, aldi berean, proba horren azterketa egitea hizkuntza horren nahikoa ezaguera izatearen egiaztariak edo tituluak dituzten lanpostugaiei.

Kexa hau eragin zuen kasuari dagokionez, deialdiaren oinarriek xedatu zuten, halaber, hizkuntzaren ezaguera egiaztatzeko proba berezi batzuk egitea, eta proba horietatik Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiria edukitzea egiaztatzen zuten lanpostugaiek baino ez zituen salbuetsi, eta, nahi gabe, ez zuen aipatu salbuespena lortzeko beste bide batzuk.

Hortaz, erakunde honek ulertu zuen oinarri horiek batu eta osatu behar zirela, antolamendu juridikoak ezarritako beste puntu batzuekin, hain zuzen, Ingeles Filologian lizentziadun titulua unibertsitateko goi mailako titulazio akademiko ofizialtzat hartzearekin (1442/1990 ED, urriaren 26koa), eta, orobat, EAeko beste hizkuntza ofizialen araudiarekin (euskara), horiei dagokienez, tratamendu konparatua egiteko aukera aztertu baitzen.

HAEek hasieran uko egin dio deialdiaren oinarrien edukia -kexaren arrazoi izan zena- erakunde honek proposatutako ildotik bideratzeari -litekeena da uko horrekin bat ez etortzea, baina ez da inola ere arbitrarioa, nahikoa euskarri juridikoa baitzuen oinarriak zintzo-zintzo betetzen baitzuen(, eta, horren ondorioz, erakunde honen jarduera etorkizunari begira zuzendu zen.

- Emaita

HAEeri gomendatu zitzaion, edozein euskal administrazio publikotara sartzeko etorkizunean egingo dituen deialdietan, kontu handiz ibil zedin oinarri arautzaileekin, eta hizkuntzak jakitea egiaztatzeko proba berezietatik salbuesteko egoerak zabal zitzen, goi mailako unibertsitateko ikasketen tituluak (filologiak) dituzten lanpostugaiak ere hartuz.

Zorionez, institutu horrek jakinarazi zuen gomendioa onartzeko prest zegoela.

⇒ *Funtzionarioen kidego bati baino gehiagori irekita dauden lanpostuetan egindako zerbitzuak balioestea, funtzio publikoan sartzeko (650/2001)*

- Erreklamazioa

EAeko Administrazio Orokorren 2000ko LEParen esparruan iragarritako deialdien oinarri orokorrek eta bereziek xedatu dute aurretiazko administrazio-eskarmentua meritutzat hartzea, baldin eta egindako zerbitzuak hautatutako kidegoei irekita dauden lanpostuetan egin badira. Alabaina, oinarri horiek ere hauxe ezarri dute: *«lanpostugaia kidego batean baino gehiagotan aurkezten bada, egindako zerbitzuen denbora behin bakarrik balioetsiko da, eta ezingo da aldi berean gertatu. Hori horrela izanez gero, lanpostugaiak, meritua adierazteko unean, zehaztu beharko du zein kidegori lotu nahi dion egindako zerbitzuen denbora».*

Xedapen horrek ukitzen dituen lanpostugaien talde batek erakunde honetara jo zuen eta lanpostugaien artean tratua ezberdina zela salatu zuen, batzuen meritua aintzat hartu eta balioetsi egiten baitzituzten. Era berean, beste kexa bat jarri zuten, lehiaketaren aldi aintzat hartu behar diren meritua -besteak beste, aurretiaz eskarmentua izatea- aurkezteko eta egiaztatzeko ezarri den prozedura-uneari buruzkoa.

- Azterketa

Interesgarri iruditu zaigu jarraian jartzea erakunde honek kexa hau bultzatu zuten oposizogileei egindako azterlanaren ondorio gisa bidali zizkien ohartarazpenak:

Lehen hausnarketa gisa, eta kontu jakina izan daitekeen arren, hauxe nabarmendu gura dut, Auzitegi Konstituzionalak berak adierazi duenarekin bat etorrira: *«eskarmentua izatea, zalantza barik, meritu bat da, eta meritu horren erabilera gailentzea ez doa berdintasunaren kontra; aitzitik, tratua ezberdintasuna justifikatzeko gaitasuna duen kalitatearen denez, guztiz bat dator Konstituzioaren 14. artikularekin, eta gailendu*

beharreko baldintza da, zenbait irizpideri begira, hala nola Administrazio Publikoak zerbitzuak eraginkortasunez egiteari begira». Horrenbestez, bidezkoa da aurretiazko eskarmentuaren balioespena Konstituzioak ezarritakoari egokitzea, funtzio publikoan sartzearen ondorioetarako. Eztabaidatzeko arrazoiak, alabaina, sortzen dira, eta, izatez, horrela da dagokigun kasuan, irizpide zehatzak -aurretiazko administrazio-eskarmentua balioesteko erabiliko direnak- finkatzeko garaian.

Hori esanda eta gure ondorioen azalpena ahalik eta modurik argienean egiteko asmoarekin, komenigarria begitandu zait lehenik eta behin aipatzea, nire ustez, zer den bitarteko langileen beharrezan kudeaketa normalizatua edozein administrazio publikotan; izan ere, nire iritziz, hori lagungarria izan daiteke guk aurretiazko eskarmentua balioesteko moduari buruz egin dugun analisia ulertzeko.

Kontu jakina da kudeatzeko eta, zehatzago, karrerako funtzionarioek ezin bete ditzaketen aldi baterako beharrezan hornidura egiteko, interesa duten lanpostugaiak erabiltzen direla, eta horiek, behin euren lanpostuaz jabetu ondoren, kidego jakin bateko bitarteko funtzionario bihurtzen direla: bidezkoa denez, haiek betetzen duten lanpostuari dagokion kidegoko funtzionario.

Normalean, era horretan betetako lanpostuen eta lanpostu horiek betetzen dituzten bitarteko langileek sartuta dauden kidegoen artean harreman itxia dago, zeren, arau orokor gisa, lanpostu horiek betetzea kidego bakar bateko funtzionarioentzat gordeta egoten baita.

Batzuetan, hala ere, bitartekoen bidez betetako lanpostuen eta lanpostu horiek betetzen dituzten langileek duten kidegoen arteko harremana ez dago itxita, baizik eta irekita, kidego batekoak baino gehiagokoak diren funtzionarioek bereizi gabe lanpostu jakin bat betetzea onartzen baita.

Horiek horrela, eta funtzio publikora sartzeko, egindako zerbitzuen balioespena aintzat hartzeari dagokionez, kontuan hartu behar da lehen motatako lanpostuak direnengan, hau da, funtzionarioen kidego bakar bati itxita daudenak direnean, berdin diola aurretiazko administrazio-eskarmentua ikuspegi subjektibotik balioestea (bitarteko funtzionarioari dagokionez) kidego jakin batekoa ote den planteatuz, edota ikuspegi objektibotik balioestea (lanpostuari dagokionez) funtzionarioen kidego jakin bati irekita dauden lanpostuak aldi baterako betetzea planteatuz; zeren eta, funtzionarioen kidego bakar batentzat gordeta daudenez, lanpostu horiek aldi baterako bete dituzten langileek kidego jakin bateko bitarteko funtzionarioen izaerarekin baino ezin izan baitute egin.

Nolanahi ere, lanpostu irekiak badira, aurretiazko administrazio-eskarmentuaren gaiari zein ikuspegitatik begiratzen zaion -hain zuzen, dagozkion deialdietan horren garrantzia islatzeko- badu interesik. Horrela, ikuspegi subjektibotik, (funtzionarioari dagokionez), kidego batekoa izatea planteatuz gero, plaza irekiak betetzeak ez du ondoriorik izango, baina, ikuspegi objektibotik (lanpostuaren konfigurazioari dagokionez) izaera irekiaren ondorioz, litekeena da lanpostua betetzen egiaztatutako eskarmentua balioestea, kidego batekoa zein bestekoa den bitarteko funtzionarioaren izaera alde batera utzita. Era horretan, irizpide horri jarraituz gero, aukera izan daiteke aurretiazko eskarmentua balioesteko hainbat kidegotara sartzeko, hain zuzen, tankera horretako lanpostuak betetzea irekita duten kidego guztietara, eta biderkatuko dira lanpostugaiak sartzeko aukerak, albora utzita bitarteko funtzionario baten adskripzioa ez dela izaera orokorrekoa, hau da, ez diola berdin kidego bat zein bestea, baizik eta funtzionarioen kidego bakar bati dagokiola.

Gure iritziz, azken ikuspegi hori ez dator bat langileen beharren kudeaketa normalizatuarekin, hor langile bakoitzak lotura bakarra eduki behar baitu funtzionarioen kidego jakin batekin, albo batera utzita betetzen dituen lanpostuak izaera irekikoak edo itxikoak diren. Azpimarratu gura dut balioespen hori egin dugula ezaguna den legegilearen aukera batean oinarrituta, eta funtzio publikoko edota administrazio-karrerako beste sistema batzuen ontasuna balioesten hasi gabe.

Horrenbestez, erakunde honen iritziz, aurretiazko administrazio-eskarmentua aintzat hartzea funtzio publikoan sartzeko, bakarrik azter daiteke ikuspegi guztiz subjektibo batetik, zeren, berriro diot, ezin da ahaztu bitarteko funtzionario batek funtzionario-kidego bati baino gehiagori irekita dagoen lanpostu edo plaza bat betetzen duenean, kidego jakin bati atxikita dagoen bitarteko funtzionario gisa egiten duela, eta berdin diola -bere eskarmentua finkatzeko- eskarmentua egiaztatzea kidego bakar batentzat itxitako lanpostuetan edota bati baino gehiagori irekita dauden lanpostuetan. Axola duena eta azpimarratu gura duguna hau da: eskarmentu hori bat etorriko da funtzionarioen kidego jakin baten zereginekin, kidego horretara sartu nahi baita gero, behin betiko izaeraz. Hori da, eta ez besterik, aurretiazko administrazio-eskarmentuari dagokionez eska daitekeen funtzio-egokitzapena, funtzio publikoan sartzearen ondorioetarako.

Gure ustez -eta zuhurtzia handiz esaten dugu, susmo hutsezkoa den eremu batetik baikabiltza-, aurretiazko administrazio-eskarmentuari ikuspegi objektibotik begiratzeak -dagozkigun deialdietan gertatzen den legez-, balioespen berdina egiteko aukera ematen du, bitarteko langileek betetzen dituzten lanpostuak betetzea irekita duen edozein kidegotara sartzeko; eta litekeena da horrek zentzua izatea ohiz kanpoko sarrera-deialdietan, horiek sortzen ari diren administrazio publikoen jarduerekin amaitu nahi badute, bitarteko funtzionarioen hasierako izendapenak egin behar izan zituztelako egiazko langileen beharrak zehaztuta izan barik, baina ez du inolako zentzurik funtzio publiko normalizatu batean.

Bestela, balioesteko ikuspegi objektibo hori muturretara eramaten badugu, gerta liteke azaltzea -tratu ezberdinaren mehatxu garbi pean- kidego jakin bateko bitarteko funtzionario batek edo beste funtzionarioek egiaztatu duten esperientzia berdina jotzea -alde batera utzita, eskarmentua lanpostu irekietan edo itxietan izan den-, baldin eta administrazio publiko horren antolatze-egituran kidego horietara irekita dauden lanpostuak badaude.

Adibidez: administrazio jakin batek bere lanpostu-zerrendan (LPZ) A eta B taldeetako funtzionarioei irekitako lanpostuak baditu, eta hasieratik onartzen bada lanpostu ireki batean (A/B) zerbitzuak egin dituen bitarteko funtzionario batek bere aurretiazko eskarmentua baliatu ahal izatea, hala A taldera nola B taldera behin betiko sartzeko, zergatik ukatu gainerako lanpostugaiei A nahiz B taldeetako lanpostu itxietan egiaztatutako eskarmentua aintzat hartzea aurkako taldeetara behin betiko sartzeko? Hau da, zergatik ukatu eskarmentua aintzat hartzea A taldeko lanpostuetan B taldera sartzeko, edo, alderantziz, zergatik ukatu eskarmentua B taldeko lanpostuetan A taldera sartzeko?. Guk uste dugu ez dagoela arrazoirik horretarako.

Edozelan ere, aurreko iritzietara itzuliz eta orain arte azaldutakoaren laburpen gisa, berriro esan behar dut, erakunde honen iritziz, aurretiazko eskarmentua balioestea funtzio publikoan sartzeko, ikuspegi subjektibotik baino ezin daitekeela aztertu, eta guztiz erabakigarria dela funtzionarioen kidego jakin bateko bitarteko langilea izatea edota izendapen hori izatea.

EAEko Administrazio Orokorraren 2000ko LEParen esparruan iragarritako deialdien oinarri orokorrak eta bereziak hitzez hitz aztertzen baditugu, ikusiko dugu oinarri horiek aukera ematen dutela aurretiazko administrazio-eskarmentua balioesteko ikuspegi objektibotik, aukeratu diren funtzionario-kidegoetako lanpostu irekietan egin diren zerbitzuei dagozkielako.

Era horretan, oinarriek salbuetsi dute -egindako zerbitzuak balioesteko- bitarteko funtzionario bat kidego jakin batean adskribatzea, eta, aitzitik, berdin hartu dute aurretiazko eskarmentua sarreraren ondorioetarako, hain zuzen, eskarmentua bete duen lanpostua edo lanpostuak irekita duten kidego guztietarako.

Lehen esan dugunez, EAEko Administrazio Orokorraren 2000ko LEPeko deialdien oinarriek ezarritako puntu hori, gure ustez, bakarrik etor daiteke deialdi horiek koka ditzakegun eta guztiz ohiz kanpokoak diren inguruabarretatik. Alabaina, ohiz kanpoko izaera hori azaldu ostean, eta, beraz, aurretiazko eskarmentu objektiboa aintzat hartuta, jarraian, berariazko aukera bat behar da itxuraz ezberdina den eskarmentu hori lotzeko, funtzionarioen kidego jakin batean sartze aldera, eta horixe da bere kexaren arrazoi nagusia.

Izan ere, 7.4. oinarriak -EAEko Administrazio Orokorraren zerbitzuko karrerako funtzionario gisa sartzeko onartu diren oinarri orokorretatik bat denak- hauxe dio berariaz:

«Lanpostugaiak kidego bat baino gehiago aukeratu badu, egindako zerbitzudenbora bera behin bakarrik balioetsiko da, eta ezingo da aldi berean gertatu. Horrela izanez gero, lanpostugaiak zehaztu beharko du, bere merituen aurkezten dituen unean zein kidegotan lotu nahi duen egindako zerbitzudenbora.»

Bere ustez, izaera orokorreko oinarri horrek, bidezkoa denez 2000ko LEParen esparruan iragarri diren deialdi berezi guztietara sartu denak, tratamendu ezberdina du lanpostugaien artean, merituen aintzat hartzean eta erabiltzean, eta hori, behar bezala arrazoituta edo justifikatuta ez dagoenez, bereizkeriazkoa da erabat.

Egia esan, 2000ko LEParen oinarrietan ezarritako aukera horren eskakizuna bakarka aintzat hartzeak horrelako ondorio batera eramanez gaitzake, kexa eragin duen ondorioa. Ildo horretan, aurretiazko eskarmentuaren eskakizuna ikuspegi objektibotik onartu da, eta, horrela, lanpostu irekiak betetzea irekita duten funtzionarioen edozein kidegotara sartzeko aintzat hartu ahal da bera, hortaz, zergatik mugatu gero eskarmentuaren eskakizuna kidego bakar batean sartzera? Itxuraz, ez dago arrazoirik horretarako.

Hala ere, gure ustez, aukeratzeko eskakizun horrek gure jarrera zuzena dela berretsi baino ez du egiten, zeren aurretiazko administrazio-eskarmentua balioesterakoan, guztiz erabakigarria baita, eta, beraz, ezin baita aldera utzi funtzionarioen kidego bakar eta jakin batean jardunean dagoen bitarteko funtzionarioaren izaera.

Dena dela, ohartu beharra dago, sarrera-deialdiek xedatu dutela aurretiazko administrazio-eskarmentua balioestea, eta hori -interesa duten bitarteko lanpostugaien izendapen zehatzak jakin barik-, aldiz, lanpostuen izaera irekiari dagokio; hortaz, aukeratzeko eskakizun horrek -zeinaren bidez berariazko adierazpena behar baita aurretiazko administrazio-eskarmentua lotzeko, dauden kidego guztietatik kidego jakin batera sartze aldera- zentzu osoa hartzen du, lanpostugai batzuek funtzio publikora sartzeko dituzten aukerak biderkatu ez daitezkeen -hain zuzen, bitartekoek betetzen dituzten lanpostuak irekita dituzten kidego guztietara-, beste lanpostugai batzuek, ausaz, euren

zerbitzuak egin behar izan dituztelako lanpostu itxietan edota funtzionarioen kidego bakar batentzat gordetako lanpostuetan.

Puntu horretan, ez da gaizki etorriko gogoraztea aurreko paragrafoetan ekarri dugun ideia bat, gure ustez, aukeratzeko eskakizun hau ezartzeko beharra hor oinarritzen delako. Izan ere, lehen esan dugunez, eskarmentua balioesteko ikuspegi objektiboa muturreraino eramanez gero (zuk salaketan defendatzen duzunez), eta, hortaz, lanpostu irekietan egindako zerbitzuak balioesten badira aukeratutako kidegoak balioesten diren beste aldiz, orduan, planteatzen liteke -tratu ezberdinaren mehatxuarekin ere- berdintzea funtzionario-kidego bateko nahiz beste bitarteko funtzionario gisa egiaztatutako eskarmentua -alde batera utzita, eskarmentu hori lanpostu irekietan edo itxietan egin den-, baldin eta Administrazio Publikoaren antolatze-egituraren kidego horiei irekita dauden lanpostuak badaude.

Hona beste adibide bat: administrazio batek bere lanpostuen zerrendan (LZ) baditu A1 eta A2 kidegoetako funtzionarioentzako plaza irekiak. Administrazio horrek hasieratik onartzen baldin badu plaza irekietan (A1/A2) zerbitzuan aritutako bitarteko funtzionarioek euren esperientzia baliatzen bai hala A1 kidegoan nola A2 kidegoan behin betiko sartzeko, zer dela-eta ukatu behar die gainerako hautagaiei A1 eta A2 kidegoetako plaza itxietan frogatuta daukaten esperientziaren aintzatespena, kidego horietariko edozeinetan (A1 edo A2) behin betiko sartzeko, bietarako lehiatzen badira? Gure iritziz, erantzuna garbi dago: ez dago inongo arrazoirik.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan izanik idazki honen hasieran ahalik argien azaldu nahi izan diren nabardurak, jakinarazi behar dizut erakunde honek zure kexaren arrazoi nagusiari buruz, azken batean, hauxe erabaki duela: beharrezkoa eta, beraz, bidezkoa dela EAeko Administrazio Orokorren 2000ko Enplegu Eskaintza Publikoaren deialdiaren oinarrietan agindutako aukera nahitaez egitea, zeren eta, oinarri horietan ezarrita dagoenez, lehiatzaileek administrazio lanetan duten esperientzia ikuspegi objektibotik baloratu behar baita, aurretiazko zerbitzu horiek zein motatako plazetan egin dituzten bereziki kontuan hartuz, hau da, zerbitzuak plaza irekietan egin dituzten edo ez.

* * *

Zure kexaren arrazoi nagusia aztertu ondoren, zure bigarren salaketari helduko diogu. Salaketa horren zioa EAeko Administrazio Orokorreko 2000ko Enplegu Eskaintza Publikoaren deialdiaren oinarrietan bertan ezarritako epe bat, da, hain zuzen ere, lehiaketa fasean merezimenduak (aurretiazko esperientzia, besteak beste) alegatu eta egiaztatzeke epea. Epe hori 10 laneguneko izan zen eta saio praktikoaren behin-behineko emaitzak argitaratutakoan hasi zen.

Zure iritziz, *«lehiatzaileek nahitaez lotu behar izan diote euren antzinatasuna kidego jakin bati, aukeraketa-prosesuaren erdian, saio praktikoaren behin betiko emaitzak argitaratu gabe zeudela, euskara saioak eta beste hizkuntza batzuenak ere egin aurretik. Horrela, segurtasun juridikorik ezaren elementua sortarazi da, zoriak zentzuzkoa den baino eragin handiagoa izan duelako»*. Areago, *«saio guztiak amaitu eta emaitza guztiak argitaratu ondoren antzinatasuna alegatzeko aukerak inori ez dio kalterik egiten. Gainontzeko inori ez dio kalterik egiten eta lehiatzaileari, aldiz, erraztu egiten dio bere etorkizunean hainbesteko garrantzia izango duen aukera egiterakoan erabakia zuzena hartzea»*.

Bada, alegazio horiek kontuan izanik, hain zuzen ere, eta EAeko Administrazio Orokorren iritzia jakin nahirik zure kexan agertu duzun asmoa dela-eta, Ararteko erakundeak Ogasun eta Herri Administrazio Sailarengana jotzea erabaki du eta honako txosten hau jaso du erantzunez:

«...norberak egindako zerbitzuak kidego jakin baterako alegatu eta gero, bidea zabalik dago epaimahai kalifikatzaile eskudunak zerbitzuok balora ditzan. Eta behin baloratu gero, hautagaiak ezingo ditu berriro alegatu beste kidego batera sartzeko eta beste inongo epaimahai kalifikatzailek ezingo ditu berriro baloratu. Alde batetik, aukera-saioak aldi berean egiten dituzten hainbat kidegotara sartzeko lehiatzen diren hautagaiek irizpide gehiago izaten dituzte aurretik egindak dituzten zerbitzuak kidego bati edo besteari esleitzeko, lortutako emaitzen arabera. Egia da, bestetik, inguruabar hori ez dela erabakigarria aukera zuzena egiteko, zeren eta haren oinarri diren emaitzak behin-behinekoak baitira. Nolanahi ere, hainbat kidegotara sartzeko lehiaketak aldi berean egiten direnean, egindako zerbitzuak zein kidegori esleituko zaizkion erabakitze orduan, gainerako lehiatzaileen aukerei erreparatu behar zaie funtsean, eta lehiakideen merezimenduei ere bai.

Egindako zerbitzuak kidego bati edo besteari aurkezteko aukera epe jakinean egin behar da, prozesua behar den garaian burutu ahal izan dadin, eta lehiatzaileak ez du aukera horren berririk izango harik eta epaimahai kalifikatzaileak hura aditzera eman arte. Beraz, beti egongo da zalantza-portzentaje bat norberaren merezimenduak kidego bati edo besteari esleitzeko orduan. Aurretik egindako aukera bertan behera utzi eta beste bat egiteko bidea emango balitz, berriro ere jasan beharko genuke lehiakideen aukerari buruzko zalantza; izan ere, beraiek euren aukerak berriro aldatzeko eta gure itxaropenak zapuzteko bidea izango lukete.

Azkenik, ez da egia merezimenduak aukeraketa prozesuaren amaieran lotzeko ahalbideak inori kalterik egiten ez diola. Lehia anitzeko prozesu batean, horrelakoxea baita funtzio publikora sartzeko oposizio-lehiaketa, batzuei mesede egiten dienak besteei kalte egiten die. Hala, kidego bakar baterako lehiatzen dena, edo kidego bakarrean aintzat hartzen diren zerbitzuak egin dituenak, kalteturik gertatuko da, aukera bat baino gehiago izan eta gainerako lehiatzaileen ahalbideei buruz ahalik daturik gehien bildutakoan bere aukera egin dezakeenaren aldean.»

Egia esan, erantzun-txosten horrek dioen legez, ezin zaie lehiatzaileei erabateko ziurtasunik eskaini, aukeraketa prozesuaren azken emaitzei dagokienez, euren esperientzia dela-eta dauzkaten merezimenduak zein kidegotan sartzeko alegatuko dituzten erabakitze derrigortu baino lehen. Izan ere, azken emaitza horiek gainerako lehiatzaileek egin ditzaketan aukera zehatzen pentzutari daude, eta horiek ere nahitaez erabaki beharko dute zein kidegotarako alegatuko dituzten euren merezimenduak.

Horregatik, hain zuzen, txostenean ohartarazi bezala, aukera hori epe jakinean egin behar da, horrela egingo ez balitz nekez kudeatu litekeelako aukeraketa-prozesua.

Epe hori ezartzeko orduan, jakina, hainbat hautabide daude, denak ere zuzenak: eskabideak aurkezteko epea, oposizio faseko saioen amaierak etab. Epe horien arteko aukerak prozesua kudeatu eta tramitatzeko ahalbideak soilik baldintzatuko ditu.

Aztergai dugun kasuan, edonola ere, ezin dugu aipatu gabe utzi ezen ezbaian jarri den epea (hamar lanegun, saio praktikoaren behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren), oinarri sendo eta onartuaren gainean finkatu zela eta ez dela bidezkoa dagoeneko oinarriok berrikustea.

Horregatik, eta, esan beharrik ez dago, zure kexan azaldu dituzun desadostasun zilegizkoak salbu direla, egia da ezin dela legezketasunari buruzko inolako eskakizunik aintzat hartu, antzinatasunaren ziozko merezimenduak kidego batean edo bestean alegatu eta egiaztatzeko ezarri zen epeari dagokionez.

- Emaitza

Aurrean azaldu diren ondorioak kontuan izanik, erakunde honek iritzi dio ez dagoela ziorik lehiatzaile talde horrek aurkeztutako asmoen alde berak esku hartzeko. Horrenbestez, hasitako espedienteak itxi eta artxibatzea erabaki du.

⇒ *Garuneko odol-jarioa. Hori ezinbesteko kasutzat jotzea, deialdia berriz egin dadin, oposizio-fasearen ariketa kanporatzaile baterako (667/2001)*

- Erreklamazioa

2000ko EEPren barruan EAeko administrazio orokorrak iragarri zituen hautatze-frogetan parte hartzen zuen pertsona batek buruko odoljarioa izan zuen oposizioaren faseko bigarren ariketa egiten ari zenean. Bada, gertaera horregatik ezin izan zuen froga bukatu eta nahitaez mediku-tratamendua bete behar izan zuen: ospitalean ingresatzea, berriz gaitzeko egitaraua, etab.

Bada, oposiziogile bezala zituen asmo horiek berriz erabiltzeko, epaimahaiarengana jo zuen froga praktiko berria egiteko eskatuz, ezinbesteko arrazoiak izan zirela esanez. Aldi berean, erakunde honen artekaritza eskatu zuen.

- Azterketa

Kexaren idazkiarekin batera aurkeztu zen dokumentazioan argi eta garbi azaltzen ziren gertaera horren garrantzia eta larritasuna eta, gure ustez, hori ezinbesteko arrazoitzat jo behar da. Horregatik, epaimahaiak prozesuaren inpartzialtasun eta objektibitatea lortzeko duen interes horrekin bat eginik eta, aldi berean, deitu ziren plaza horietara iristeko interesa zuten lanpostugaiantzat konpon ezinak izango ziren ustezko kalteak ekiditeko, erakunde honek uste izan zuen egokiena kexa horren bidezketasunaren aldeko gure iritzia jakinaraztea zela.

Ildo horretatik, Ararteko erakundeak Epaimahaiari esan zion ezinbesteko zioa onartu ondoren, hau da, epaimahai kalifikatzailearen lehen deialdian interesatuari froga osorik egitea ekidin ziona, froga hori errepikatzeari edo ez errepikatzeari buruzko edozein erabaki hartzerakoan kontuan hartu beharreko gauza bakarra hautatze-prozesuaren kudeaketa eragingarri, objektibo eta inpartziala bermatzerakoan epaimahaiak duen berriarazko erantzukizuna dela.

Horregatik, eta kontuan hartuta oraindik ere hautatze-prozesua tramitatzen ari zela, erakunde honek adierazi zuen beharrezkoa zela argudioak ematerakoan ahalegina egitea, horrela hautatze-prozesuaren kudeaketaren beharrian objektiboak eta ez beste ezer kontuan hartuta froga errepikatzea ezinezkoa zela bidezketzeko, beste hautagai

batzuekin erkatuta gertatzen zen berdintasunaren ustezko galera hori, dirudienez, gaintituta zegoelako interesatuak ospitaleko alta jaso ondoren, behin eta berriz azaldu zuelako froga hori gainerako oposiziogileek egindako baldintza berberetan egin nahi zuela, antzeko egitura zuen idatzizko beste froga bat egitea onartuz, alegia.

- Emaidza

Ahalegin ugari egin ondoren, Funtzio Publikoko Zuzendariak erakunde honi jakinarazi zion planteatu zen eskabide horri gaitziritzen zitzaiola.

⇒ *Amatasun-kasuetan, hautaketa-probak egitea (733/2001)*

- Erreklamazioa

2000/2001eko enplegu eskaintza publikoaren esparruan Vitoria-Gasteizko Udalak iragarri zituen hautatze-froga batzuetan parte hartzen zuen pertsona batek erakunde honen esku hartzea eskatu zuen, bera laster umea erditzeko zegoelako eta itxura guztien arabera erditze hori eta, jakina, beharrezko ospitaleratzea, eta oposizioaren faseko jendea baztertzeko frogak egiteko data berberetan gertatuko zirelako. Bada, hori kontuan hartuta aurrez Epaimahai Kalifikatzaileari bidezko neurriak hartzeko eskatu zion, hau da, inguruabar hori gertatu arren aukeraketarako froga horiek egiteko neurriak hartzea eskatuz.

- Azterketa

Erakunde honek jakin daki kexa honetan planteatu den moduko eskabideei jaramon egiteak antolakuntzako ahalegin izugarria eskatzen duela. Dena dela, ezin ditugu bazter utzi enplegu publikoetara iritsi nahi duten lanpostugai guztien esku hartzea ahalik eta gehien errazteko aukerak ematen dituzten hautatze-frogen kudeaketa-eginerak sustatzea eta, horregatik, berehala jo genuen Vitoria-Gasteizko Udalarengana eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (EAAA) kexa honetan planteatu den eskabide horren antzekoetan frogatzen ari den aldeko jarreraren berri eman zitzaion, hau da, denbora nahikoa dagoela eta medikuaren bidezko ziurtagiria aurkeztuz hautatze-froga horiek medikuek aginduta dauden ospitale horretan egitea eskatzen duten oposiziogileen aldekoa.

Gai horri dagokionez, hurbilen ditugun aurrekariak aipatzearren, oraindik ere tramitazio fasean zegoen EAeko administrazio orokorreko 2000ko EEPan antzeko kasuetan hartu ziren neurriak aipa ditzakegu.

- Emaidza

Hautatze-froga horien epaimahai kalifikatzaileak formulatu zen egokitzapenerako eskabide horri oniritzi zion. Ildo horretatik, interesatuari ondokoa jakinarazi zitzaion: «baldin eta froga egiteko eguna eta ospitalean ingresatzea batera suertatzen badira, Epaimahaiko kide batzuk ospitalera joango dira eta bertan egingo dute...»

Horrela, azken erabaki horrekin kexaren xedea desagertzen zela uste genuela, erakunde honek bukatutzat jo zuen bere esku hartzea.

6 OGASUNA

6.1. SARRERA

2001 urtean zehar, 146 kexa jaso dira Ogasunaren esparruan, bideratutako kexen % 12,05a izanik.

Hauxe izan da administrazio nahastuen banaketa:

- EAeko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	2
- Foru Administrazioa	39
- Tokiko Administrazioa	52

Arlo honetako kexak, edukiaren arabera, horrela sailka ditzakegu:

Foru aldundiek tokiko tributuoak kudeatzea	67
Udal zergak	20
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ..	18
Foru zergak, PFEZ	17
Udal tasak	12
Udaleko prezio publikoak	6
Foru zergak, OEZ	2
Bestelakoak	2
Prezio publikoak EAE	1
Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio-erantzukizuna ...	1

Aldundietako zergei dagokienez, urtean zehar aurkeztutako kexa gehienak, normala denez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak izan dira (PFEZ). Aurreko urteko ildo beretik jarraituz, 2001eko lehenengo hilabeteetan, lanen etekinertarako ordaintzaile bat baino gehiago izategatik Errentaren gaineko zerga aitortzeko beharra izan da gehien agertu den gaia.

Zorionez, arazo hau gairatua izan da hiru lurralde historikoetan, zerga erregulatzeko arauetan bi neurri zuzentzaile osagarri erantsiz.

Alde batetik, 1.200.000 pezeta (7.212,15 euro) baino gutxiagoko lan etekinak besterik jasotzen ez dutenak deklaratzetik salbuetsi dituzte, ordaintzaile bat baino gehiago izanda ere. Bestalde, zerga-ordainketa modu berri bat ezarri da, 200.000 pezeta (7.212,15 euro) eta 3.000.000 pezetaren (18.030,36 euro) arteko etekinak dutenentzat, hautazkoa da eta atxikipen-taula berean oinarrituta, kasu horietan gertatzen zen zerga-ordainketa handia alde batera uzten du.

Aitorpena aurkezteko muga berri hori ezarrita, ordaintzaile ezberdinetako lanen diru-sarrera txikiak dituzten seme-alabak dituzten gurasoen aitorpenetatik inkoherentzia desagertzen da, seme-alabek aitorpena egin behar zuten gurasoek ezin baitzuten seme-alabak izategatik kenkaria aurkeztu euren aitorpenean, seme-alaben diru-sarrerak kenkaria bera baino txikiagoak izanda ere.

Aldundien beste zergek ez dute arazo esanguratsurik eragin. Salbuespen gisa, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziak (ezagunagoa da matrikulazio zergaren izena) kexa batzuk eragin dituela azpimarra daiteke, ugarizat hartzen diren familiek eskusiboki darabiltzaten ibilgailuentzako zerga-oinarriaren % 50eko beherapena ez delako ezarri.

Beharpen hori, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko 14/2000 Legeak erabaki zuen 2001eko urtarriletik aurrera erabiltzeko, eta bere onarpena zergen administrazioaren eskuetan dago, ibilgailua matrikulatu aurretik. Horrela, beharpen hau izateko interesdunaren nahia zergen inprimakietan ez bada jakinarazten (05 eta 565 ereduak), ez dago hori eskatzeko aukerarik behin ibilgailua matrikulatuta. Berdin gertatzen da pertsona minusbaliatuei egokitu ahal zaien salbuespenarekin.

Horrelako egoerak saihesteko, onura fiskalak daudela ez jakitearren –Kontzesionario saltzaileen eta erosleen aldetik–, aurrera egiteko gomendioa ematen diegu EAEko Foru Ogasunei, zerga hori ordaintzeko erabiltzen diren inprimakien argibideak hobetzeko, argibide-atal bat erantsiz, zerga hori ez dela ordaindu behar, salbuespena edota beharpena azaltzeko. Neurri osagarri gisa, bideratze hauek askotan ibilgailu-saltzaileak egiten dituzenez, bistakoa da zergetako administrazioak kontzesionarioetara informazio zehatza bidaltzea komeni dela bezeroei eragin diezaioketen aldaketak gertatzen direnean.

Tokiko zergen esparruan sartuta, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari (TMIZ) dagokionez, pertsona minusbaliatuentzat salbuespenaren erregulazio ezberdina eta normalean minusbaliatuentzako salbuespena, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokionez (matrikulazio zerga) izendatzen denak, hankasartzeak eta nahastea eragiten dute salbuespen horietan interesa daukaten pertsona taldearen baitan, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokionez, minusbaliatutzat onartuta dauden guztiei ematen baitzaie salbuespena, eta zirkulazio zergari dagokionez hiru baldintza bete behar dira gainera:

- Ibilgailua gidariak pairatzen duen minusbaliotasun fisiko zehatzari egokituta izatea, hau da, ibilgailuak autoaren jabeak minusbaliotasuna gainditzeko zuzenketa eta moldaera beharrezkoak dituela egiaztatu ahal izatea. Zuzenketa beharrezko horiek gidatzeko baimenean agertzen direnak dira, baldintza murriztaileen atalaren azpian.
- Ibilgailuaren potentzia fiskala ez izatea 17 zaldi fiskal baino handiagoa, pertsonak % 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duenean. Hala ere, ibilgailuaren jabearen minusbaliotasun mailak lehen aipatutako portzentajera ez bada iristen, autoaren potentzia fiskalak ezin ditu 14 zaldi fiskalak gainditu.
- Pertsona minusbaliatuak ibilgailuaren helburua justifikatu behar du.

Erakunde honek jadanik eman du bere iritzia pertsona minusbaliatuei salbuespena lortzeko eskatzen zaizkien baldintzak alderatzeko bi zergei dagokienez. 1999ko erakunde honen txostenak honen aldeko gomendioa jasotzen zuen.

Beste gauza batzuei dagokienez, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak tasen gisa ematen dituen zerbitzuen eraketak kezka piztu dute etxe alokatuen jabeen artean, kalifikazio juridiko horrek uraren horniketa eta saneamendu zerbitzua jasotzen duten higiezin jabeak tasaren subjektu pasibo bihurtzen baititu, zergadunaren kontzeptuaren ordez.

Azkenik, El Limitadoreen zehaztugabetasun administratiboarentzako behin-betiko konponbide baten faltak hiritarren kezak berriz ere agertzea eragin dute, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kobratzeari dagokionez enklabe horretan. Pertsona kaltetuek Araban zerga-ordainketa bikoitza egiteko arazoarekin nahastuta daudela diote behin eta berriz, euren eskuetan ez dagon arrazoi batengatik, Aramaioko Udalaren aurrean, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan Otxandioko Udalaren aurrean, ondasun higiezin bakar baten jabeak izateagatik, El Limitado inguruan.

Erakunde honek 1999an aurkeztutako banaketa egiteko proposamenerako erantzun administratiboa oso ezberdina izatean, Ararteko erakundeak bultzatutako ekimenei berrekiteko eskaini zuen bere burua, aldean arteko akordioan oinarritutako behin-betiko konponbide bat bilatzeko.

Erakunde kaltetuak, euren aldetik, bildu egin dira gatazkaren konponbidea bideratzeko. 2001eko urriaren 20an Aramaio eta Otxandioko Udalak eta Araba eta Bizkaiko foru aldundiak bildu eta honako hau erabaki zuten:

“Lehenik.- Ekimenen proposamen bat aurkeztuko du Otxandioko Udalak, Arartekoan 1999an bidalitako proposamena onartzeko bideratuta dagoen egutegi baten bidez.

Bigarren.- El Limitado lurraldean gertatzen diren arazo administratiboak konpontzeko hitzarmen baten idazketan lan egin.

Hirugarren.- Bide betearazlearen bitartez martxan dituen prozedura guztiak etengo ditu Aramaio Udalak, prozedura hauek ezarpen bikoitza dute, baina Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriak egiten jarraitzeko eskubidea gordetzen du...”.

6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Foru zergak – PFEZ

⇒ *Etxebizitza-kontuaren bidez eraikitzen ari den etxebizitza baten erosketa eta lanen geldiera, eraikitzaileak porrot egin duelako: epeen funtzionamendu askea (269/2000)*

• Erreklamazioa

Orioko bizilagun batek kexa idatzi bat aurkeztu zion erakunde honi, Gipuzkoako Foru Ogasunak bidali zion kitapenaren ondorioz, etxebizitza-kontua zabaldu zuenetik ohizko etxebizitza bat erosi arte bost urteko epea baitzuen.

Interesdunak 1992an zabaldu zuen etxebizitza-kontu bat. Eraikitzen ari zen etxebizitza bat erosteko kontratu pribatu bat sinatu zuen 1994ko urrian, honako hau zen ordaintzeko modua: 500.000 pezeta hasiera batean eta gainontzekoa eskriturak sinatzean. 1995ean, enpresa eraikitzaileak porrot egin zuela adierazi zuen eta lanak eten ziren kreditu-erakunde batek lan horiek bere gain hartu artean. Azkenik, 1999ko martxoan egin zen etxebizitzaren erosketaren eskritura publikoa.

Gipuzkoako Foru Ogasunak PFEZren arautegiak etxebizitza-kontura egindako ekarpenen kenkariak mantentzeko eskatzen dituen baldintzak ez zirela bete pentsatu zuen, kontua zabaldu zenetik etxebizitzaren erosketara arteko epea gaintutua zelako. Ondorioz, behin-behineko kitapen bat egin zuen 1992, 1993, 1994 eta 1995eko ekitaldietako kenkariak kenduz, zergadunak etxebizitzari egin zizkion ekarpen guztiei zegozkielako.

Birjartzea lortzeko errekurtsioa aurkeztu zuen interesdunak kitapen horren kontra, inbertsioa, berandu bazen ere, egina zela alegatuz, baita atzerapena lanak luzaroan geldirik egon zirelako izan zela ere, enpresa eraikitzailearen porrotaren ondorioz.

Errekurtsoaren gaitzespenaren ostean, orain iruzkinduko dugun kexa idatzia aurkeztu zuen kaltetuak.

- Azterketa

Jakina denez, PFEZren arautegiak etxebizitza-kontuei egiten zaizkien ekarpenak ohizko etxebizitza batean egiten diren inbertsioetat hartzen ditu, baina, beste baldintza bazuen artean, kenkariak izateko eskubidea sortu duten diru kopuru horiek ohizko etxebizitza bat konpondu edo erosteko 5 urte igaro aurretik erabiltzea eskatzen du.

Bestalde, eraikitzen ari diren etxebizitzetarako ohizko etxebizitzaren erosketaren onurak ematen zaizkie, inbertsioaren hasieratik 4 urteko epea ez bada igarotzen. Gainera, eraikitzen ari diren etxebizitza hauen kasuan, PFEZri buruzko Arautegiak epea beste lau urtetan luzatzea aurreikusten du, porrota edo ordainketa-etenduraren ondorioz etxebizitzaren lanen bukaera atzeratuz gero. Epearen luzatze hau gauzatzeko, zergadunak hasierako epea urratu den ezarpen-aldiko deklarazioarekin batera egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du.

Epe hauen luzatzeak ez dira zalantzan jartzen banan-banan hartuta, baina, horrelako asko gertatzen direnean, hau da, kontuan sartutako kopuruak eraikitzen ari diren etxebizitza batean inbertitzen direnean, promotorearen porrotaren ondorioz, etxebizitza beranduago ematen dute.

Kasu jakin honi dagokionez araua isildu egiten da, Gipuzkoako Foru Ogasunak, araua hitzez hitz interpretatuz, eraikitzeko epearen luzatzeak etxebizitza horren erosketak, PFEZri dagokionez, ohizko etxebizitzat hartzen jarraitzea errazten du, eta beraz zerga horri dagokionez zerga-aringarria izango da eraikitzeko 4 urteko epea gaindituta ere. Baina honek ez dio inola ere eraginik egiten etxebizitza-kontuaren 5 urteko epeari, hori ezin baita luzatu.

- Emaizta

Arrazoiketa honetan oinarrituta, etxebizitza-kontuarekin lotutako kenkari guztiak ezabatu zituen kitapenen bulegoak. 1994an emandako 500.000 pezetengatik kenkaririk ez izatean, ordea, eraikitzeko epearen luzatzea aintzakotzat ez zuela hartu ikusi zen.

Erakunde honek enpresa eraikitzailearen porrota kontuan hartu behar zela adierazi bazuen ere, Foru Ogasunak bere ezezko irizpidea mantendu zuen, etxebizitza-kontuaren luzatzeari zein eraikitzeko epearen luzatzeari dagokionez, azken alderdi honek, gutxienez, hasiera batean emandako 500.000 pezetan kenkaria ahalbideratuko luke.

B) Udal zergak

⇒ *Ondasun higiezin bati katastroan alta eman zaiola ez jakinaraztea (544/2000)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Santurtziko udalerrian kokatutako garaje plaza baten Katastro eta Balorazio Zerbitzuan alta ematearen abisua falta zelako desadostasuna adierazi zion Arartekoari.

Kaltetuak 1999ko bukaeran Ogasun eta Finantza Foru Sailaren Katastro eta Balorazio Zerbitzuak ondasun higiezin horri alta ofizioz eman ziola adieraz zuen,

Santurtziko Udalak OHZren ordainketa bi ondasunengatik egiteko eskatu baitzion urte horretan: etxebizitza eta aparlekua.

- Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailarengana jo genuen hasiera batean, eskatzaileari 1999an bidalitako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak (OHZ), garaje tokiari dagokionez, ez zuela balio esateko, aurretik ez zitzaiolako jakinarazi ondasun higiezinaren alta Katastro et Balorazio Zerbitzuan.

Erakunde kaltetuaren defentsaren jarduera zuzen zela ikusita, ordea, erakunde honek ondasun higiezinaren balore katastralaren jakinarazpena OHZk indarra hartu aurretik egitea oso garrantzitsua dela esatera behartuta ikusi zuen bere burua. Auzitegi Gorenak eta beste auzitegi garrantzitsuek ordainarazpen-kitapenak hiritarrari ondasun higiezinaren baloratze katastrala jakinarazi aurretik indarririk ez dutela onartzen dutela gogoratu behar dugu eta, ondorioz, bertan behera utziko dira..

Behin Foru Sailak egindako jarduerak atzera eraman nahi zituela ikusita, garajearen alta behar den moduan jakinaraziz, Santurtziko Udalarekin jarri ginen harremanetan, erakunde honek kontzesio administratiboko erregimena zuten lurrazpiko aparkalekuei dagokionez Ondasun Higiezinaren Hiri Katastroaren datuak aldatzeko eskatu baitzion Katastroaren Zerbitzuari, eta jabea Udala zela egon behar baitzen jasota.

Modu honetan, Santurtziko Udalak Auzitegi Gorenaren Epaiaren doktrina jasotzen zuen, kasaziozko errekurtsio baten bidez emandakoa, 2000ko irailaren 25eko legean.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatzat ordaindutako eta egin behar ez ziren diru-sarreraren itzulpenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak hori Santurtziko Udalak egin behar zuela adierazi zion erakunde honi, 1997an hitzarmenaren salaketaren ondorioz, ordutik aurrera tokiko erakunde horrek gestionatzen baitzuen zerga.

Esan dugun bezala, Santurtziko Udalarengana jo genuen, kaltetuari 1999ko ekitaldiko OHZ itzuli zitzaion jakin behar genuelako.

Erakunde honen Ogasun Sailak udal horren Gobernu Batzordeak hartutako akordioaren kopia bat eman zigun, 2001eko urtarrilaren 5eko 1/2000 ohizkanpoko ekitaldian, *“aparkaleku publikoetako partzela eta trasteleku batzuen jabeen eskakizuna Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga itzultzeko (CG 1/01-III-12 esp.)”*.

Akordio horren bidez, *“zerrenda agertzen diren zergadunen 2000ko ekitaldiko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergen ordainagiriak indargabetzeko” erabaki hartu zen, “2000ko ekitaldiaren aurreko ordainagirien zenbatekoen itzulpena gaitzetsiz”*.

Santurtziko Udalaren Gobernu Batzordearen akordio horren edukari buruz, erakunde honek honako hau jakinarazi zuen: berrikusteko prozedurei buruz, abenduaren 4ko 145/1990 Foru Dekretuak lehen xedapen erantsian jasotzen dituen aurreikuspenak, dekretu horrek zergaren izaerako egin behar ez ziren diru-sarreraren itzulpenak egiteko prozedura erregulatzen baitu.

Ildo horretan, eskatzaileari bidalitako 1999ko ekitaldiari dagokion aparkalekuaren OHZk ez zuela balio azaldu genuen, alta ez baitzitzaion jakinarazi Katastro eta Balorazio Zerbitzuan, ezta alta horretan agertzen diren datuak ere: ondasun higiezinaren baloratze katastrala...

Hiritarrari katastroko balorazioaren jakinarazpena OHZaren kitapenak indarra hartu aurretik bidaltzea oso garrantzitsua da, abisu hori ez egiteak ez baita ez-egite formal bat

bakarrik, hiritar-zergaduna babesik gabe uzten du, ordea, ondasun higiezinari dagokion baloratzeari kontra egiteko aukera mugatzen dio. Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak, 1997ko azaroaren 19an emandako Epaiaren bidez (RJ 1997\9263) zergadunari ondasun higiezinaren baloratze katastrala OHZaren kitapena bidali aurretik jakinarazi behar zaiola adierazten du, eta bide batez ordainarazpen-kitapenek hiritarrari ondasun higiezinaren baloratze katastrala jakinarazi gabe baliori ez dutela onartzen du, eta horrela gestionaturiko kitapenak bertan behera utzi behar dira.

- Emaizta

Udalerrri horretan kontzesio administratiboa zuten aparkaleku publiko guztiei dagokienez, ordaindu behar ez ziren diru kopuruak itzuliko zituela erabaki zuen Santurtziko Udalak. Itzulpen horretan 2000 urteko zerga ere sartzen da, baita preskribitu ez duten lehenagoko ekitaldiak ere.

⇒ *Zergaren lehenengo kitapena ez jakinaraztea (1169/2000)*

- Erreklamazioa

Ibilgailu baten jabeak Gernika-Lumoko Udalaren jarreraren kontrako kexa aurkeztu zuen.

2000ko maiatzaren hasieran bere etxean premiamendu-probidentzia baten jakinarazpena jaso zuela adierazi zuen, horren bitartez 1999ko ekitaldiko bere ibilgailuko TMIZ ordaintzeko eskatzen zion tokiko erakunde horrek.

Kaltetuak 1998an erosi zuen automobila, eta derrigorrezko transferentzia egin zuen horretarako Trafiko Buruzagitza Probintzian. Premiamenduzko dilijentzia jaso aurretik, ordea, Udalak ez zion pertsonalki eta indibidualki jakinarazi lehen kitapena, hau da, ibilgailuen udal erroldako altari zegokion kitapena, nahiz eta jakinarazpen hori bidaltzea nahitaezkoa izan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 3/1986 Foru Arau Orokorren 124. artikulua arabera (ZFAO), martxoaren 26koa.

Egoera horren aurrean, eskatzaileak zergaren eta errekarquaren zenbatekoa ordaindu eta errekurso bat aurkeztu zuen errekarqua indargabetzeko. Errekursoa, ordea, ez zen onartua izan.

- Azterketa

Gernika-Lumoko Udalari TMIZren lehenengo kitapenaren jakinarazpena egiteko erabili zuen prozeduraren gainean bi aldiz galdetuta, honako hau adierazi zuen erakunde horrek: “...TMIZ ordaintzeko epea noiz hasi eta noiz bukatzen den jakin beharko luke aipatutako zergadun horrek. Ordainagiria jasotzeari buruz, ezin dugu ziur jaso zuenik egiaztatu”.

Izan ere, bidalitako dokumentazioan, 1999ko TMIZren errolda eta ordaintzeko egutegia publikoari erakutsiko zizkiola jakinarazi zuen, 1999ko martxoaren 25eko 57. zenbakiko BOBean argitaratu zuen iragarkia, baita Bizkaiko Lurralde Historikoan tirada gehienetarikoa duten bi egunkarietan ere. Ibilgailuen alten listatu batetik ateratako zerrenda bat ere zegoen eta interesdunaren turismoa zegoen horien artean.

ZFAOko 124.1 artikulua zergen kitapenak interesdunei pertsonalki eta indibidualki eta eurek aukeratutako lekuan jakinarazi behar zaiela esaten zuen arau orokorra jasotzen

zuen. Baina ordainagiriaren bitartez aldizka kobratzen diren zergei dagokienez, nahikoa da Zerga Administrazioak behar den errola, matrikula edo erregistroko lehenengo altaren kitapena zuzenean eta pertsonalki jakinaraztearekin nahikoa da, eta hurrengoak modu kolektiboan egingo dira, ediktuen bitartez.

ZFAOren 106.8 artikulua jakinarazpenak nola egin behar diren zehazten du. Honako hau esaten du: *“zerga ezberdinen gestio, kitapen, egiaztapen, ikerketa eta bilketa prozesuetan, baita zigorrezkoan ere, jasotzen direla frogatzeko balio duten edozein baliabidearen bitartez egingo dira jakinarazpenak, data, jakinarazpena jasotzen duenaren nortasuna eta jakinarazitakoaren edukiak ere idatziz jasota egon beharko dute. Egindako jakinarazpenaren kreditatzea espedienteari erantsiko zaio”*.

Hau da, gure ordenamenduak ekintza administratiboetarako izaera erabakigarria ematen dio jakinarazpenari, eta horrela onartu du Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak: *“...bere izaera adierazten duen hitzarmen edo erabakiek ezin dute eraginik edo beste bati kalterik egin, jakinarazpenaren prozedura modu zuzenean egiten ez bada, hau da, Legeak eskatutako baldintza guztiak bilduta eta beteta”* (1989-04-25 STSa, Aranzadi 1989\3472).

Beste modu batean esanda, gure ordenamenduak ez du jakinarazpena formaltasun hustzat hartzen, bere mekanismo eta garantia guztiak babes judizial eraginkorreko eta segurtasun juridikoko hastapen konstituzionalerako baliagarriak dira, kitapena jasotzeak bere edukia jakiten uzten baitu eta aldi berean, ordaindu edo kontra egiteko aukera ematen du, ados ez egonez gero.

Beraz, ezin da ordainagiria jaso zela besterik gabe pentsatu, are gehiago TMIZren lehen kitapena modu zuzen eta pertsonalean jakinarazteko betebeharra dutelako tokiko administrazio guztiek, horrela aurreikusten baitute, zergadunaren onerako, Zergei buruzko Lege Orokorrak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko ZFAOk ere bai.

Ordainagiriaren bitartez aldizka kobratzeko zergei dagokienez, lehenengo jakinarazpena pertsonalki eta indibidualki egiteko beharra Auzitegi Konstituzional berak ere babesten du, 1996ko apirilaren 30eko (AGE 1996\73) sententziaren bitartez, Auzitegi Goreneko jurisprudentzia askok ere babesten dute, ediktuaren bidez egindako jakinarazpena debekatzeko horiek hasierako kitapenean edozein asaldura gertatzen denean, derrigorrezko ordainketaren kalterako [1988ko irailaren 26ko AGE (RJ 1988\7338) beste batzuen artean, 1987ko apirilaren 30 (RJ 1987\2666)].

Auzitegi Gorenaren ustez, jakinarazpena ediktuaren bidez egiteko prozeduraren euskarri inplizitua aurrekarizat duen kitapenaren identitatea da, aurreko kitapena ondo ezagutzen baitugu, eta aztertzen ari ginen kasuan, ibilgailuarekin lotutako 1998 eta 1999ko ekitaldiei dagozkien kitapenen artean ezin genuen ekintzen hasierako eta geroko identitateaz hitz egin, kitapen bietan subjektu pasiboa pertsona ezberdinak zirelako.

Horregatik bidali zion gomendio bat Ararteko erakundeak Gernika-Lumoko Udalari, kaltetuari kobratutako errekaruaren zenbatekoa itzul ziezaion, ez ziolako pertsonalki eta indibidualki jakinarazi TMIZren udal erroldan emandako altari dagokion kitapena. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorren 124.3 artikulua ezartzen duen legeaz.

- Emaizta

Gernika-Lumoko Udalak gure gomendioari kasu egin eta, ondorioz, pertsona eskatzaileari errekaru gisa kobratutako zenbatekoa itzultzea erabaki zuela.

⇒ *TMIZ kobratzen jarraitu, automobila deseginda egonda ere (1225/2000)*

- Erreklamazioa

Eibarko Udalaren jardueraren kontrako kexa bat aurkeztu zuen hiritar batek, tokiko erakunde horrek hiritarraren auto bat erretiratu eta desegin zuelako, aurretik ezer jakinarazi gabe.

Eskatzaileak, horrezaz gain, autoa 1998ko otsailean desegin bazuten ere, Udalak berak aginduta, tokiko erakunde horrek Zirkulazio Zergaren (TMIZ) zenbatekoa kobratzen jarraitu ziola adierazi zuen eskatzaileak, ez zuelako behin-betiko baja hartu Gipuzkoako Trafiko Buruzagitza Probintzialean.

- Azterketa

Kasu honi buruzko txosten bat eskatuta Eibarko Udalari, Udaltzaingoak autoa pasabide batean zegoelako erretiratu zutela esan zigun.

Arau-hauste horrek 918/96 zigor-espeditentearen bideratzea eragin zuela ere esan zigun, honen bitartez arau-haustearen ediktua zabaldu zela, eta gero ez zela beste ekintza egin, eta horregatik une hartan ez zegoen preskribituta arau-haustea.

Horri dagokionez, ibilgailu erretiratu 1998ko otsailera arte udal gordailuan egon zela eta egun hartan desegitera bidali zela adierazi zuen.

Udaltzaingoak onartzen duen egoera horren aurrean, Eibarko Udalak, automobila suntsitua izan ondoren, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) kobratzearen egokitasun jartzen dugu zalantzan. Une hartatik, 1998ko otsailean, ibilgailua ez bazen hiriko bideetatik zirkulatzeko gauza. Udalak, gainera, gorabehera hori ezagutzen zuen, eta datua bere sail ezberdinen eskuetan zegoen.

Tokiko erakunde berak halaber ibilgailua desegitea erabaki zuela kontuan hartu behar zen, Trafiko Buruzagitza Probintzialari behin-betiko baja jakinarazi barik, gainera. 1974ko otsailaren 14ko Aginduak autoak erretiratu eta gordetzeko ezartzen duenaren (48. EBO, 1974-2-25) kontra doa hori. Agindu horren 7. artikulua honako hau esaten zuen, hain zuzen ere: *“Gordetako ibilgailua zirkulatzeko gauza ez dela egiaztatuz gero, dagokion Industria Ordezkaritzaren aurretik egindako txostenaren arabera, desegiteko hondakintzat hartu behar da, eta ezin izango da egiaztatzea luzatu ibilgailuen transferentziari dagokionez.*

Alkatetzak, ordea, Trafiko Buruzagitza Probintzialari bidaliko dio aipatutako txostenaren egiaztatzea, ibilgailua zirkulaziotik behin-betiko erretiratu ahal izateko...”

Honegatik guztiagatik, udalaren jarduera eta TMIZ 1998ko otsailetik aurrera kobratzea zalantzan jartzen ditugu.

- Emaiza

Eskatzaileari 1998ko otsailetik aurreko ibilgailu horren TMIZren ordainketaren kopurua itzultzea erabaki zuen Gobernu Batzordeak.

Arazoa konponduta zegoela pentsatuz, parte hartzeari utzi genion, interesdunari lortutako emaitzak jakinarazi eta gero.

C) Udal prezio publikoak

⇒ *Bizilagunei ur kontsumoa gaizki kobratu (900/1999)*

- Erreklamazioa

Arabako Agurain udalerriko bizilagun batek erakundearen eskuetan utzi zuen Udalak hartutako erabakia, uraren ordainagiriei dagokienez.

14 urte lehenagotik etxebizitza berean bizi zela eta 1998ko lehen hiruhilekoan udaletxeko bulegoetan bere etxean jarritako ur-kontagailua berrikusteko eskatu zuela adierazi zuen eskatzaileak, ur kontsumoarengatik kopuru nahiko handiak ordaintzen zituelako, aipatutako etxebizitzan bi pertsona besterik ez zirela bizi kontuan hartuta.

Behin Udal honetako zerbitzu teknikoek kontagailua berrikusita, ur kontsumoak egoztean errore bat egon zela egiaztatu zen, etxebizitza hari zegokion kontagailuak bere auzokoen kontsumoa jasotzen baitzuen, famili ugari batena, alegia, eta famili horren kontagailuak, aldiz, eskatzailearen etxebizitzako kontsumoa jasotzen zuen.

Bere etxebizitzakoak ez ziren ur kontsumoaren ordainagiriak ordaindu zituela ikusi zuenez, 1998ko hirugarren hiruhilekora arte urarengatik ordaindu zuenaren eta berak benetan kontsumitutako ur kantitatearen arteko kitapena egiteko eskatu zion Aguraingo Udalari, alboko pisuan bizi den familiak ordaindutako agiritan ikusten baitzen bere benetako kontsumoa.

Tokiko erakunde horrek diru hori itzultze ez zela egokia pentsatzen zuen, harpidedunak ez zuelako behar den moduan identifikatu bere kontagailua.

- Azterketa

Kontagailuen identifikazio etiketei buruz, kontagailuari dagokion etxebizitza eta harpideduna agertzen da normalean, eta ez harpideduna bakarrik. Ez zaigu iruditzen harpidedunei kontagailuen identifikazio etiketetan ezer egiteko eskatu ahal zaienik, etiketak uraz hornitzen duen zerbitzuak ezarri eta zigilatzen baititu.

Kontagailuen identifikazioari dagokionez, kontagailuek zintzilik daukaten etiketaz gain -denboraren indarrez jausi edo honda daitezkeenak-, kontagailu guztiek daukate bere zenbakia eta zenbaki hori da benetan fidagarria dena.

Ura etxebizitza bakoitzean egindako kontsumoaren eta kontagailuan neurtutakoaren arabera ordaintzen da beti.

Behin kontagailuen irakurketaren egozpenean errore bat egon zela egiaztatuta, preskribitu gabeko aurreko urteetako ordainagiriak berrikustea zen egokiena, ondorioz, sasoi horretako benetako ur kontsumoen kitapena egiteko.

Aguraingo Udalak ez zuen hori egin, eta erreklamazio bat jasotzeko beharra izan zuen kaltetuak.

Ur horniketaren prezio publikoak eta tasak zergen ordenamenduaren mende daudela ere ezin da ahaztu. Beraz, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 64.d) artikulua arabera -1998an eskatzaileak erreklamazioa aurkeztu zuen unean indarrean zegoena-, egin behar ez diren ordainketen itzulpena eskatzeko eskubideak bost urtetan preskribitzen du. Hau da, kaltetuak erreklamazio egin zuenean 1993ko lehen hiruhilekoa eta 1998ko lehen hiruhilekoaren artean ordaindutako kitapenak ez zeuden preskribituta.

Aurreko guztia dela-eta, gomendio bat bidali zion Arartekoak Aguraingo Udalari, eskatzaileari 1993ko lehen hiruhilekoa eta 1998ko lehen hiruhilekoaren artean ordaindutakoaren diferentzia itzul ziezaion, tarte horretan kobratutako ur kontsumoa ez baitzeturten bat kontsumitutako urarekin, aldameneko etxebizitzaren kontsumoarekin baino.

- Emaizta

Aipatutako tokiko erakundeak gure gomendioen edukia onartu zuela jakinarazi zigun.

D) **Udal tributua - Tasak**

⇒ *Obraren jabea EOIZen (205/1998)*

- Erreklamazioa

Abanto-Zierbena udalerrian kokatutako merkataritza-lokal bateko errentariak Arartekoarengana jo zuen, Udal horrek eskatzen zion Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergak establezimendu horretan egin ez dituen lanak jasotzen zituelako, eta horiek ez zituen ordaindu behar.

Honi dagokionez, 1996ko azaroan lokala alokatu zuenean, lurzorua eta hormak txukuntzeko obra txiki bat egiteko baimena eskatu zuela eta geroago oniritzia jasotako obra bat egiteko proiektu bat aurkeztu zuela adierazi zuen, berritze handiago bat egiteko.

Egun gutxi geroago, 1996ko abenduan, Udalbatzaren mezu bat jaso zuela adierazi zuen halaber, lokal horretan ordura arte egindako obra guztien proiektu tekniko bat aurkezteko eskatzen zitzaion, obra horiek ez baitziren legezkoak izan. 1997ko apirila eta irailean errepikatu zen mezu hori. Azken mezu horri eskatzaileak merkataritza-lokaleko jabeekin kontratua sinatu aurretik egindako obren baloratzearen kalkulu bat erantsi zitzaion. 950.000 pezetakoa izan zen baloratze hori.

Interesdunak esaten duen arabera, obrak egiteko baimena aurreratzeko asmo bakarrarekin eta udal aparejadoreak agindutako urratsak eginez, proiektuaren aldaketa bat aurkeztu zuen, bertan establezimenduko aurreko arduradunek egindako obrak agertzen ziren. Une hartan (1997ko azaroaren 10ean), Abanto-Zierbenako udalak EIOZa kitatu zuen, 1.969.080 pezetako zerga-oinarri bat ezarriz, 68.620 pezetako zorra ordaindu behar zen horren ondorioz eta behar zuen baimena eman zion interesdunari.

Kaltetuak alokairu kontratua sinatu aurretik egindako obrak (950.000 pezetako baloratzea zutenak) bere gain ez zituela hartu behar pentsatu zuenez -berak ez baitzituen egin-, eskatutako kitapena berrikusteko eskatu zion Abanto-Zierbenako Udalari. Erreklamazio horretan, egindako obren BEZa kitapenaren zerga-oinarrian sartzea ez zela egokia ere esan zuen, honek ezarpen bikoitza eragiten duelako. Hala ere, 1998ko urtarrilaren 8an, eskatutako berrikuspena ez onartzea erabaki zuen Abanto-Zierbenako Udalak.

- Azterketa

Abanto-Zierbenako Udalak erakunde honi bidalitako txosten bakarrean honako hau adierazten zen: 1996ko azaroaren 25ean lokaleko lurzorua eta hormak txukuntzeko

obra txiki bat egiteko baimena eman zitzaion interesdunari. Eta “1996ko abenduaren 2an proiektu teknikoa aurkez zezan eskatu zion Udalak interesdunari, ordura arte lokal horretan egindako obra guztiak barne, baimenik ez zutenak, baita obraren Zuzendari Teknikoaren izendapena ere”.

Udalaren jarduera behar den bezala aztertzeko, bi arazo hartu behar ziren kontuan: lehenik, Administrazioaren zergaren zorraren kitapena ezartzeko eskubideak preskribitu zuenentz, eta bigarren, EIOZ kobratu ahal zaion lokaleko errentariari.

Lehen kontuari dagokionez, tokiko erakundeak Arartekoari erakutsitako datu urriek ez zuten baimenik gabeko egindako obrak eskatzaileak egin zituela egiaztatzen.

Abanto-Zierbenako EIOZi buruzko udal ordenantzaren 11. artikulua arabera: “eraikuntza, instalazioa edo obra hastean ezarri behar da zerga, nahiz eta baimena lortu barik egon.”

Zerga kitatu zen unean 5 urtetan zehar indarra zuen agindua ofizioz ezarri behar da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorren 64. artikulua arabera, subjektu pasiboak eskatu salbuesteko beharra izan barik (aipatutako foru arauaren 67. artikulua).

Bi arau hauen betearazpenak Administrazioaren aurretiko jarduera eskatzen zuen, obrak noiz hasi ziren egiaztatzeko, eta zergen zorra kitatzeko Administrazioaren eskubidea preskribitu zuen ala ez ikusteko. Kontu honi dagokionez, ordea, erakunde honek ez du Udalaren jardueraren berri.

Bigarren, EIOZek “eraikuntza, instalazio edo obra bat egiteko zergak ezartzeko gaitasuna” kargatzen du (1994ko urriaren 31ko eta urtarrilaren 28ko STSak). Zergak ezartzeko gaitasun hori obra egitea bera gain hartu zuenak bakarrik adieraziko du.

Abanto-Zierbenako Udalaren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Ordenantza fiskalaren 7. artikulua arabera: “zergaduna, Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorreko 33. artikulua ukitzen dituen eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten diren ondasun higiezin jabeak diren pertsona fisiko, juridiko edo erakundeak izango dira, obren jabeak izanez gero beti; beste kasuetan **obraren jabea** dena izango da zergaduna”. Beraz, hemen azaltzen direnak izango dira subjektu pasiboak, EIOZi dagokionez.

Jurisprudentziak argitzen duen legez, obraren gastuak bere gain hartzen dituen da obraren jabea.

Itxura denaz, ez zen eskatzailearen kasua, 1996ko azaroaren aurretik lokalean baimenik gabe egindako obrei dagokienez, une horretan sinatu baitzuen alokairu kontratua lokaleko jabeekin.

Aurrekoaren ildotik jarraituz, eskatzaileak errentaria izan aurretik obra horiek agintzea ez zen oso sinesgarria, baita berak ordaindu izatea ere lan horien gastuak.

Abanto-Zierbenako udal ordenantzaren aurreikuspenak ere aipatu behar genituen, 7. artikuluko 2. paragrafoan honako hau esaten du: “Obraren jabea lokaleko jabea ez den beste pertsona edo erakunde bat dela behar den bezala ez bada egiaztatzen zergen udal Administrazioaren aurrean, lokalaren jabea obraren jabea dela pentsatuko da”. Behin eta berriz esan den bezala, Udalak merkataritza-lokalaren jabea sekula izan ez den pertsona bati eskatu zion EIOZen ordainketa.

Bestalde, ez zuen ematen errentaria zergadunaren ordezkotik subjektu pasiboa zenik, ordenantza horren arabera, zergadun bera izan ezean, baimena eskatzen edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena baita subjektu pasiboa.

Egin ziren unean Udalarai baimenik eskatu gabe egin ziren obrak. Hortaz, interesduna ezin da izan zergadunaren ordezkoa. Udalak ezin izan zuen eskatzaileak lokalean eraikuntza, instalazio edo obrarik egin zuela egiaztatu.

Kasu oso antzeko bati dagokionez, Valentziako Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Gorenak EIOZi dagokionez zergadunaren ordezkoaren figura zehaztu zuen. Honako hau zioen:

“Tokiko Ogasunei buruzko Legearen 12.2 artikulua ondo irakurrita, ordezkoak obrak eskatzen dutenak besterik ez direla ulertzen da, aurreko obren kasuan, eta eraikuntza egiten dutenak izan dira baimenik ez bada eskatu” Valentziako Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegi Gorenaren Epaia (Administrazio prozesuen Areta, 1994ko azaroaren 12a, (RJCA, 1994\1345)).

Azaldutako gutzia kontuan hartuta, Arartekoak eskatzaileari eskatutako EIOZen likidazioa ofizioz indargabetzeko gomendioa eman zion Abanto-Zierbenako Udalarai, lokaleko errentaria izan aurretik baimenik gabe egindako obren zerga-oinarria ezartzen baitzuen. Behin likidazioa indargabetuta, tokiko erakunde horrek EIOZen likidazio berri bat bidali beharko lioke, lokalean berak egindako obraren kostuaren zerga-oinarria hartuta.

- Emaidza

Erakunde honek gomendioa onartua izateko gestioak egin baditu ere, ez genuen lortu Abanto-Zierbenako Udalak edukia onartzea, ezta eskatutako likidazioa indargabetzea ere.

7. HERRIZAINGOA

7.1. SARRERA

2001. urtean Ararteko erakundeak 77 kexa jaso ditu Herrizaingoari dagokionez, epealdi horretan jasotako kexa guztien % 6,35 alegia. Sail honetan 2000.ean jasotako kexekin erkatuta, % 4,9ko beherakada gertatu da.

Kexon xehatuz gero, eragin dieten herri administrazioen arabera, honako hau izan da:

- Euskadiko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	23
- Tokiko Administrazioa	49

Kexen gaia kontuan hartuta, berriz, honako hau izan da banaketa:

Trafikoa	41
Eskubideak eta askatasunak	10
Adm.ren funtzionamendua eta adm.-jardunbidea.	10
Hiritarren segurtasuna	9
Jolasak eta ikuskizunak	5
Bestelakoak	1
Kontrat.-erregimena, ondarea eta adm.aren erantzukizuna	1

Esandakoez gain, jolas eta ikuskizunen arloarekiko zerikusia zeukan ofiziozko espediente bat izapidetu da.

Aurreko urteetan bezala, aurren ere, **trafiko** gaiak direla-eta, jaso diren kexetako asko, zehapen-erregimenari dagozkio, eta batez ere, zehapenak ezartzeko eta premiamendu bidez derrigorrezko betearazpena burutzeko erabili izan diren prozedurei dagokienean. Prozedura horien izapidean egiaztatu ditugun akatsak, jakinarazpenen praktikarekin daude lotuta ia beren osotasunean. Horregatik, kexen sorta bat dakarkigun hurrengo epigrafean, gai hau dela-eta izapidetu diren kexetariko baten laburpena gauzatu dugu (1125/2000 espediente).

2001.enea, berriro ere azaldu da Donostian araupetutako aparkalekuak (TAO) daudeneko alderdietako egoiliarrentzako bereizgarriaren berriztapenarekin lotutako kontua. Gai hau udalerrri horretan bizi diren zenbait lagunek irazekia izan zen jadanik 1999. Urtean zehar, gaia araupetzen duen Ordenantzaren edukietako batzuen gaineko kexak azaldu baitzituzten; urte hartako ohiko txostenari erantsi zitzaion gomendioa eragin zuen beraien analisiak (1972/1997 espediente). Oraingo honetan, erreklamazioa egin zutenek, herriko bizilagunak beraiek ere, aipaturiko txartela berriztatzeko zeuzkaten zailtasunen berri eman ziguten izan ere, beraien esanetan, egoitza egiaztatzearekin lotuta dagoen Ordenantzaren manua dela-eta, Udalak egiten duen aplikazioan baita horren zergatia –erakunde honek eman zuen puntu horri buruzko bere iritzia aipaturiko gomendioan, eta ezabatzea izan zen beraren iradokizuna-. Dirudienez, Udalak, eragindako autoa alderdian egunez baino ez zela aparkatzen, eta gauez ez, ordez, egiaztaturik zeukaneko kasuetan ari ziren sortzen arazoak. Udalean informazioa eskatutakoan, guk aztertzen geniharduen kasuetako batzuetan txartela emateko asmoa zeukatela jakinarazi

ziguten. Gainontzeko kexen izapidea konpontzeko dago oraindik, ebazpenerako begira gauden informazioa noiz jasoko zain gaudelarik.

Eurentzat erreserbaturik eduki arren, minusbaliatuek praktikan, aparkalekuetara iristeko izateen dituzten eragozpenek kexak sortarazten jarraitzen dute. Kexen aukeran aipatu dugun kasuan (1969/1998 espedientea) bezala, udalerriko egoiliar ez direnei, aparkalekuetara iristeko ezarri zaizkien murrizketetatik eratorritakoak dira kasu batzuetan zailtasunok; eta beste batzuetan, berriz, erreserbarako eskubiderik izan ez arren, beste pertsona batzuek aparkaleku horiek erabiltzetik eta, erreklamazioa aurkeztu dutenek diotenez, gertaera horren aurrean udalek erakusten duten pasibotasunetik.

Bilboko Alde Zaharreko oinezkoentzako eremuaren erregimena ere izan da aurten kexetarako zio. Izaera horren ez-betetzea eta Udalak, erregimen hori bermatzeko jarririko neurrien gutxiegitasuna salatu ditu oinezkoentzako eremuan bizi den auzotar batek. Erreklamazioa aurkeztu duenak erakunde honetara igorri duen bideo-grabazioari esker, salatu den errealitatea egiaztatu ahal izan dugu.

Aurreko urteetan bezala, hainbat kexa eragin ditu ibilgailuak -behar bezala aparkaturik zeudenak-, bertan behera utzita zeudelako sintomak zeuzkatelako, bide publikotik kendu izanak. Kexa horietako bat laburtu dugu (1089/2000 espedientea) hurrengo epigrafean ageri den sortan, eta erakunde honen aburuz, gai honetako udal-jarduketaren jarraibide izan beharko luketen irizpideak gogoraraztea da gure asmoa -halaxe bildu baikenituen 1998 urteari zegokion ohiko txostenean sartu genuen gomendio orokorrean-, horrelako kasuak ugalduz doazela ikusi dugulako.

Hiritarren segurtasunaren alorrean, nabarmendu behar dugu agintaritzaren agenteei ez obeditzeagatik edo erresistentzia gauzateagatik salaketetan datzan polizien praktikak bere horretan dirauela; salaketa horiek beraiek formulatuak izaten dira, beren esku-hartzeak, bere aldetik, polizia-jarduketan tartean dagoen pertsonaren aldetikoa kexa edo salaketa jaso dezakeela edo pertsona horrek polizien jarduketa zalantzan jarri edo kritikatzeko duela ohartzen direnean. Erakunde honek arreta deitu du, lehenago ere, hainbatetan, praktika hori dela-eta, eta xeheago aztertuko da hurrengo epigrafean, aurten, gai horrek eragin dituen kexetariko betan laburpenean (1206/1999 espedientea).

Alor berean azpimarratu behar da Bizkaiko Feministen Antolakuntzen eta Emakumeen Taldeen Koordinadorak, martxoaren 8a gogoratzeko koordinadora horrek deitutako ekitaldietako batean, Ertzaintzak, bere esku-hartzean gauzaturiko jarduketaren proportzio eza salatzeko, eginiko kexa. Espedientearen izapideei behin hasiera emanda, Barne Saitetik jakinarazi ziguten gertaera horien ziozko jardunbide penala ari zela gauzatzen baina, jardunbide horren emaitza zena zela ere, ez zetozeela bat kexaren sustatzaileek poliziaren jarduketaz egiten zuten kalifikazioarekin izan ere, beraien aburuz, jarduketa hura nagusitu behar duten egokitze, bidezkotasun eta proportzionaltasun-irizpideei egokituta baitzegoen. Epai-prozesua gauzatu izanak derrigortu egin du erakunde hau kexaren izapideak etetera.

Vitoria-Gasteizeko udaltzainek, gazte magrebiar baten atxiloketan era irregularrean jardun zutela zioela hiritar batek prentsan argitaratu zuen oharra irakurrita, ofiziozko jarduketa bati hasiera eman genion 2000. urtean. Udalak eman zuen gertaeren bertsioa nabarmen aldentzen zenez egunkarietako oharrean emanikotik, eta azken hori, jarduketaren eragina jasan zuenak ez, baizik eta hirugarren batek emana zenez, aurten erabaki genuen gure ikuskapen-lana bukatutzat ematea eta espedientea ixtea. Hala ere, eta atzeritik datozen pertsonen aurka, polizien hainbat jarduketetan ustez diskriminazioz

jokatu izanari buruz erakundeetan jasotzen ditugun kekek hainbeste direnez, egoki iritzi genion 1998ko ohiko txostenera bilduta dagoen eta, erakunde honen aburuz, polizien esku-hartzea gai hauetan bideratu beharko luketen irizpideak dauzkan “*Poliziaren jarduketak atzeritarrekin San Frantzisko aldean (Bilbo)* esku-hartzeari buruzko laburpena Udaltzaingora igortzeari.

Eskubideei eta askatasunei eragiten dieten polizien jarduketaren aurkako zenbait kekek izapideak direla-eta, aurrerapenak egiaztatu ahal izan ditugu, atxilotuta dauden pertsonen eskubideei zaien errespetuaren ikuspegitik begiratuta, erabat biluzik dagoen bati gorputz-miaketaren neurria gauzatzeko eran. Zentzu honetan, laudagarriak dira zenbait poliziak, erakunde honek zuzendu dizkien gomendioak praktikara eramatearren, funtzionamendurako barne-zirkularrez hornitzeko egiten ari diren ahaleginak. Hori bai, aurtengo keken analisia eginda, egiaztatu ahal izan dugu badaudela oraindik gure gomendioak betetzen ez direneko kasuak eta beste batzuetan, era materialean baino, era formalean betetzen direla. Horregatik, komenigarri iritzi izan diogu gai honetan sakontzeari eta, helburu horrekin, txosten honetara bildu dugu, honelako diligentzia bat egiten dutenean, polizia-zerbitzuek, gure aburuz, jarraitu behar duten jarduketarako pausoei buruzko izaera orokorreko gomendioa.

Bestalde, erakunde honek Ertzaintzaren komisarietara aldizka egiten dituen ikustaldietako batean, zera jakin dugu: aurtengoa, Herrizaingo Sailak zenbait jardueren burutu dituela komisarietako ziegen aldean bideo-grabaketaren sistema bat jartzeko asmoz; izan ere, horixe gomendatu genion 1999ko txostenean (1974/1988 esp. zk.).

Administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, berriz, jakinarazpena gutunazal baten barruan jaso bazuen ere, jakinarazten zitzaion egintzaren edukia gutunazalaren kanpoko aldean kalkaturik zekarren jakinarazpena jaso zuen hiritar baten kexa aipatu beharra dago. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailatik zetorren jakinarazpen hori eta, aipaturiko sail horren arabera, jakinarazten diren agiriak inprimatzeko erabilitako mekanismo teknikoan zegoen akatsaren zergatia. Arazoaren kontzientzia hartuta, irtenbidea emateko konpromisoa hartu du Herrizaingo Sailak, eta inprimatzeko orain arte erabili izan dituzten baliabide tekniko horien ordean, eskutitzen isilpekotasuna bermatu ahal izango duten beste batzuk erabiliko dituzte.

Udalek, udal barrutian bizi diren pertsonak erroldaratzeko daukan legezko betebeharra bete gabe utzi izana atzera azaldu da aurtengoa, hiritar batek, gai hau zela-eta, Arrigorriagako Udalaren aurka formulatu zuen kekatik abiatuak. Jasotako kexa hori, dena den, ebazteko dago oraindik, eskatu genion informazioa bidaltzen atzeratu egin delako udala.

Hainbat izan dira, azkenik, atxilotuta dauden pertsonen egoeraren zioz kezka erakusten zuten eta Arartekoaren kontrolpean dauden Estatuko Administrazioeko organo ezberdinek ustez gauzaturiko abusuak eta irregulartasunak salatu zituzten kekek. Erakunde horretara helarazi ditugu kexa horiek eta, aldi berean, Torturaren Prebentziorako Batzordeari jakinarazi dizkiogu erreklamazioak aurkeztu dituzten pertsonen bildutako testigantzak. Horrezaz gain, polizia-atxiloketan zehar gerta daitezkeen tartek eta aldi opakoak desagerrarazteko dagoen beharrari eutsi diogu berriz ere, eta inkomunikazioa dagoeneko kasuena batik bat.

7.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Udalerriko hondartzetan biluzik egoteagatik isun hertsatzaileak jartzen dituen Getxoko udalaren dekretuaz (937/2001)*

- Erreklamazioa

Euskal Naturista Elkarteak (ENE) adierazi zuenez, Getxoko Udalak onartu zuen dekretu baten arabera, alkateak xedatu zuen Udaltzainek Areetako, Ereagako, Arrigunagako eta Azkorriko hondartzetan biluzik zeudenei ohartarazi egingo zirela, biluzik ibil ez zitezen eta, hala egin ezik, 25.000 pezetako isun hertsatzailea jarriko zitzaie, agindutakoa betetzen zela bermatzeko xedearekin.

ENE elkarteak, beste ohar batzuekin batera, salatu zuen dekretuak, erabiltzaileek inolako janzkirik ez eramatea oinarri bakartzat hartuta, hiritarrek hondartzetan egiten dituzten ohiko erabilerak, hau da, bainua hartu, paseoak egin edo eguzkia hartu murriztu egiten zituela.

- Azterketa

Kexa behin izapidera onartuta, Arartekoak eskatu zion Udal horri alderdi batzuei buruzko informazioa helaraz ziezagun: udalerriko hondartzetan eta landetan biluzik egoteko dekretuak gauzatzen zituen murrizketen lege-oinarriari buruzkoa; murrizketa horiek betearazteko, dekretuak proposatu dituen neurrien lege-oinarriari buruzkoa; eta, hala denetan, isun hertsatzaileak baimentzen dituen eta Herri-Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko Legearen 99. Artikuluaren arabera, berorien era eta zenbatekoa zehazten dituen legeari buruzkoa.

Gure eskariari erantzuteko, Getxoko Udalak gaiaren funtsari buruzko ohar batzuk bidali zituen, Idazkaritza Nagusiko txosten batekin, Udaleko zerbitzu juridikoen hiru txostenekin eta Gorrondatxe (Azkorri) eta Barinatxeko hondartzak arropekin zein arroparik gabe erabiltzeko aukera askerako mozioa atzera bota zeneko Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiaren egiaztatziarekin batera. Udaleko Idazkaritza Nagusiaren aburuz, esku hartzeko gaikuntza Tokiko Erregimenaren Oinarriak (TEOL) araupetu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84.2 artikuluan eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudia (TKZA) onartu zuen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 1.1 artikulua zuen aurki zitekeen. Artikulu horien bidez, Udalek hiritarren jarduketan esku hartzeko gaikuntza daukate, eta hiritarren moralitasuna larri asaldatzen denean, edo asaldatzeko arriskua dagoenean, ordenantzak eta bandoak emango dituzte. Halaber, Auzitegi Goreneko zigor epaimahaian emaniko epai bati egozten diote aztergai den dekretua araupetzeko gaikuntza, izan ere, udal-eremukotzat hartzen baitu biluzik ibiltzeko erreserbatu ez dauden hondartzetan esku-hartzea. Isun hertsatzaileak direla-eta, HAEJ-AJari buruzko 30/1992 Legearen 99. Artikuluaren arabera eskatzen den legezko gaikuntza TEOLaren 21.1.n artikuluan aurkitu zituen, alkatearen esku jartzen baitu lege-testu horrek beraren agintaritzari desobeditzeagatik edota udal ordenantzak hausteagatik hutsen balizkoei dagokin zehapen-boterea. Azkenik, Udaleko zerbitzu juridikoek luzatutako zenbait txostenetan adierazten denez, ezinezkoa zen bando baten

bidez zehapenen edo isun hertsatzaileen ezarpena gauzatzea, legezkotasun-printzipioa kontuan hartuta, eta azalarazi egiten zen ezegoki gertatzen direla isun hertsatzaileak, izan ere ez baita gaikuntza ematen duen legerik. Udal zerbitzuek ondorioztatu zuten ezaugarri horiek zituen bando baten bidez, xedapen orokor debeku-emailea estali eta, legezko gaikuntzarik ezean, agintaritzari desobeditzeagatik, zuzenbideari egokitzen ez zaizkion zehapenak ezarri nahi zirela.

Informazio hori guztia ikusita, Arartekoak egiaztatu egin zuen dekretu hori egokitu egiten zitzaiola antolamendu juridikoari. Horretarako, analizatu egin genuen udal agintariak gai hori araupetzeko eskuduntza zeukanentz, erabilitako erazko tresna juridikoa –alkatetzako dekretua- esku hartzeko egokia zenentz eta, azkenik, dekretuan aurreikusten zen helburua betetzen zela bermatzeko behartze-neurri moduan, isun hertsatzaileak erabiltzea baliagarria zenentz.

Lehenengo eta behin, *hiritarren moraltasunaren edozein asaldatze larri* ekiditeko, tokiko Administrazioaren esku-hartze horrek muga batzuk dauzka: legezkotasun, berdintasun, proportzionaltasun, uste on eta interes publikoaren printzipioak. Muga hori islatuta dago tokiko eremuan, Tokiko Erregimenaren Oinarriei buruzko Legearen 84.2 artikulua bidez izan ere, Udalak ondo adierazi duen bezala, hauxe hartu behar baita kontuan: *“esku hartzeko jarduerak, edozein modutan ere, trataeraren berdintasunerako printzipioei, zioekiko eta justifika daitezkeen xedeekiko kongruentziari eta gizabanakoaren askatasunarekiko errespetuari doituko zaizkio”*. Udalaren iritziz, esku hartzeko aukera Tokiko Erregimenaren Oinarriak araupetu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (hemendik aurrera TEOL) 84. Artikuluan eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren (TKZA) 1.1 artikuluan aurki daiteke. Hala ere, zehaztu egin beharko litzateke izan ere, esku hartzeko eskuduntzak orokorrean emate horrek ez du esan nahi tokiko administrazio horrek ez dituenik Konstituzioak berak ezarrita dauden mugak errespetatu behar, eta era berezi batean, esku hartzeko legezko gaikuntzaren beharizana. *“Moraltasunaren polizia”* ren eskumena, lege batekiko beraren lotura justifikatu gabe, ezin da baliagarritzat hartu gure antolamendu juridikoan. Getxoko Udalak esku hartzeko eta udalerriko zenbait hondartzatan janzkiren bat jantzita egon beharra ezartzeko lege-oinarria behar bezala justifikatu ez zuela ondorioztatzeko balio izan zuten arrazoi horiek.

Hondartzen erregimen juridikoa dela-eta, jabego publikoko ondasun hauen erabilera Kosta-alde buruzko uztailaren 22ko 22/1988 Legera dago bilduta eta, berorren arabera, librea, publikoa eta dohainekoa izan behar dute euren izaerarekin bat datozen erabilera arruntei dagokienean, hau da, paseatzeko, bertan egoteko, bainua hartzeko eta abarrerako. Esparru horretan, udal administrazioek hondartzak eta bainatzeko leku publikoak garbitasun, higiene eta osasun-baldintza egokietan mantentzeko eskuduntzak daukate, autonomia-erkidegoetako legerietan ezarrita dagoenaren arabera. Kosta-aldeei buruzko 1969ko Legeak, *“moraltasun polizia”* emanaz, eta higiene eta osasunaren alorreko eskuduntzekin batera, etika eta gizarte alorreko edukia zeukaten eskuduntzei lehenago egin zien aipamena desagertu egin da. Hori oinarritzat hartuta, hondartzen gaineko udal eskuduntzek ez dute Udala osasun publikoaz eta mantenuaz haratago doazen bestelako kontuei buruzko arauak emateko gaitzen.

Legearen arabera, udalak gai hauei dagokienean arauak emateko gaitasunik ez daukatela alde batera utzita, Arartekoak beste balioespen bat gauzatu zuen tokiko administrazioek erabil zezaketen tresna juridikoaren gainean, ordenantzaren edo

bandoaren gainean alegia. Alkatetzako dekretuak edo bandoak indarrean dagoen zuzenbidea gogorarazteko, udal ordenantzen bidez sortzen diren betebeharrak iragartzeko edota alde aurretik ordenantzaren batera bilduta dagoen burutzapenezko edozein jarduera garatzeko izaten dira. Doktrina gisa, onartu egiten da alkateek "beharrezko arautzeak" eman ditzaten premiazko kasuetan, jarrerak berrizatzeko edo derrigor ezartzeko helburuarekin. Hala ere, beharrezkoa gertatzen da, araudi horiek onartu ahal izateko, salbuespenezko kariak izatea eta beharrezana bat-batean gertatu izana, berehala emango zaiolarik horren kontu Osoko Bilkurari. Oraingo honetan aztertzen dihardugun balizkoan ez dago, ordenantzaren bidezko onespenezko ordez -eta horrek osoko bilkuraren onespena eskatuko zuen-, bando bidezko onespena justifikatzen duen salbuespenezko edo premiatasunaren edota TEOLaren 49. Artikuluan aurreikusita dauden izapideen inolako aipamenik.

Azkenik eta isun hertsatzaileak jartzeko aukerari dagokionez, administrazio egintzak balioarazteko eta partikularrek eurok betetzeko erakusten duten erresistentzia gainditzeko, administrazioak -administrazio-egintzen auto-babesean dihardutela- gaitzen dituen tresna juridikoa da isun hertsatzailea. Zentzu honetan, tresna juridiko horrek ez du balio agintariei desobeditzeagatik edo ordenantzen (edo bandoen) behialako urrapenen aurrean zehapenak ezartzeko, eta bere asmoa ez da administrazioaren ustez legez kanpokoak diren jarrerak zigortzeko, izan ere, xede horretarako baitauka zigortzeko boterearen erabilpena. Halaber, isun hertsatzaile batek eragina izan dezan, beharrezkoak gertatzen dira, 30/1992 Legearen 99. Artikuluaren arabera, zenbait betekizun, lege-aurreikuspen berariazkoa eta partikularrari jakinarazi zaion eta betearazteko dagoelarik, ezarriko den zenbatekoa, eta isunak lortu nahi duen xedea betetzeko ezarrita dagoen era eta epea bere baitan dauzkan administrazio-egintza izatea direlarik betekizunok. Aztertu dugun balizkoan, udalerriko hondartzetan eta landetan janzkiren bat jantzita egotera derrigorren duen betebeharraren betearazteko gaitasuna bermatzeko, isun hertsatzaileak erabiltzea baimentzen duen legerik ez dagoela ikus dezakegu.

Horregatik guztiagatik, aipaturiko Alkatetzako dekretua balio gabetzeko gomendioa eman zion Arartekoak Getxoko Udalarari izan ere, aurreko oharra oinarritzat hartuta, antolamendu juridikoaren aurkakoa baitzen.

Era berean, erakunde honek adierazi zuen egina zegoela, beste komunitate batzuetan, nudisten eta beste erabiltzaile-talde batzuen arteko horrelako tirabiren analisia, elkarren arteko errespetuaren eta tolerantziaren ikuspuntutik. Horrela, gogorazi egin genuen Kataluniako Legebiltzarrean 1997ko otsailaren 13an, nudismoa eragozten duten arauzko traben ezabapenari buruz onartu zuten ez-lege proposamenaren bidez honen aldeko apustua egin zela: *"onartu behar da hiritar guztiek dauzkatela eskubide eta askatasun berberak, baina pertsona bakoitzak, gainontzekoen eskubideekin eta askatasunekin talika egiten ez duten bitartean erabil ditzake, eta horrek, elkarren arteko tolerantziaren eta errespetuaren mende jartzen du eskubideon eta askatasunon erabilpena"*. Horregatik, beti ere antolamendu juridikoak araupetuta dauzkan printzipioen barruan, Azkorriko hondartzak erabiltzen dituzten bi taldeen elkarbizitzaren alde egingo luketen eta pertsonen eskubideen eta askatasunen erabilpen tolerantzia bermatuko luketen neurriak ezarri behar diren alde egiten beharko litzateke apustu.

- Emaidza

Udalak behin eta berriro dio 7/1985 Legearen 84.1 artikulura bilduta dagoen arau orokorra dela gaikuntza ematen duena. Horrela, eta Kosta-aldeei buruzko 22/1988 Legean xedatuta dagoena alde batera utzita, uste du Udalak esku har dezakeela era “konkurrente” batean, ordena publikoarekin lotuta dauden kontuetan. Zentzu honetan, zalantzan jartzen du Estatuaren eskuduntzek –jabego publikoaren titularra-tokiko administrazioek xedatzen dituzten ordena publikorako polizia orokorraren jarduerak eragotz dezaketenik. Dekretua dela-eta, ez du uste xedapen orokorra denik, baizik era administrazio-egintza. Dioenez, dekretuaren asmoa ez da zehapenak jartzea, eta bete beharreko betebeharra eta, hala egin ezean, isun hertsatzailearen ezarpena biltzen dituen administrazio-jarduketara besterik ez da. Halaber, Alkateak, bere agintearen aurkako faltak, 781/1986 LEGaren 59. Artikuluaren arabera, zigortzeko 7/1985 Legea, 21 n) artikulua arabera daukan eskuduntzan aurkitu du legezko isun hertsatzaileak jartzeko gaikuntza.

Erakunde honek eutsi egin dio gomendioa betetzeko komenigarritasunari, izan ere Udalak ez baitu erantzunik ematen esku hartzeko eta hondartzetan janzkiren bat jantzita egon beharra agintzeko gaitasuna bere esku jartzen duen arauari dagokionez, kontuan hartuta, ez Kosta-aldeei buruzko Legeak, ezta Hiritarren Segurtasunari buruzko Legeak ere, ez dutela balizko hori aurreikusten. Beste alde batetik, kontua ez da dekretua betetzen ez dutenei, 30/1992 Legearen 99. Artikulura bilduta dauden zehaztapenen arabera jardun gabe, isunak jartzea; horregatik, administrazio-egintzak betearazteko neurri honen bidez kotasuna ez da egiaztaturik geratu.

B) Jolasak eta ikuskizunak

⇒ *Ohiturazko txerri-zozketak eta animaliak babesteko legeria (40/2000)*

- Erreklamazioa

Animaliekin Tratu Etikoa izateko Elkarrekin (ATEEk) kexa helarazi zion Arartekoari. Arian ere, Gasteizen, San Prudentzio Egoitzak, urtero-urtero, San Antongo zozketa antolatzen zuen; jakina denez, egoitza hori Gizarte Ongizatearen Udal Erakundearen (GOUEn) barruan dago. Zozketa horretan, animalia bat erabiltzen zen, publizitatea egin eta jendea erakartzeko. Zozketa-egunean, Udaleko Kultura Sailak ikuskizuna antolatzen zuen eta, bertan ere, animalia jartzen zen guztion bistara. Lehen aipatutako elkartearen iritziz, jarrera hori ez zettorren bat, animaliak babesteko legeriarekin.

- Azterketa

Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen, txerriaren urteko zozketa nola egiten zen jakiteko; esan bezala, ohiturazko zozketa horretan, San Antongo txerria jartzen zen ikusgai. Arartekoak jakin nahi zuen ea jendaurreko ekitaldirik egiten zen, zozketaren aurretik edo zozketan zehar, animalia batek ekitaldi horretan parte har zezan. Gainera, Arartekoak informazioa bildu nahi zuen, agintaritzaren eskudunak ikuskizunaren gainean ematen zuen baimenari buruz. Gure eskariari erantzunez, Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak informazio anitz bidali zigun, San Antongo zozketari buruz. Sailaren hitzetan, zozketaren titularra zen, hain zuzen ere, San Prudentzioko Egoitza, gaur egun GOUeri

atxikita dagoena. Ikuskizun hori antolatzeko baimena ematen zuen, berriz, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak. Zozketa horretan, lehendabiziko eta gorengo saria txerri bat zen, eta txerri horren balioa 75.000 pezetakoa zen. Horrez gain, Kultura Sailak zenbait jai-ekitaldi antolatzen zituen; horien artean, erlijio-ekitaldi bat antolatzen zuen, San Pedroko Elizaren atarian, eta, ekitaldi horretan, zozketatu beharreko txerriak parte hartzen zuen.

Txosten hori aintzat hartzeaz gain, Arartekoak kontuan hartu zituen kexa eragin zuen elkarteak gaineratutako inguruabarrak. Hori guztia gogoan izanik, erakunde honek hurrengo ondorioa atera zuen: Gasteizko Udalak zenbait kultur ekintza eta jai-ekintza burutzen zituen, San Antongo txerriaren ohiturazko zozketa zela eta; ekintza horien helburu nagusia zen, hain zuzen ere, animalia bat eta, zehatzago, txerri bat, zozketatzea.

Ildo horretatik, Eusko Legebiltzarrak Animaliak Babesteko 6/1993 Legea eman zuen, urriaren 29an. Lege horren 5 d) artikulua beren beregi ezarri du hurrengo debekua: *“Publizitatea egin eta jendea erakartzeko, sari edo donari gisa, (animaliak) dohaintzan ematea, salbu eta negozio juridikoak egiten direnean, animalien kostu bidezko transakzioetan”*.

Arau juridiko berberari helduta, ondokoa gaineratu behar da: edozein kasutan ere, aurretiazko administrazio-baimena izan behar da, herriko ikuskizunetan eta agerraldietan, animaliek parte har dezaten.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko 4/1995 Legea eman zuen, azaroaren 10ean. Lege horren 18 b) artikulua debekatu egin du ikuskizunak edo jolas-jarduerak egitea, baldin eta horietan 6/1993 Legean xedatutakoa hausten bada.

Bide bertsutik, Udal Ordenantzak animalien edukitza eta babesa arautzen ditu, Gasteizko Udalak ordenantza hori onetsi baitu, 6/1993 Legeak berari eman dizkion eskumenak erabiliz. Ordenantza horren arabera, animalien babesa eragingarria izan dadin, debekaturik dago *“animaliak dohaintzan ematea, sari, donari edo konpentsaziozko opari gisa, edozein eskuraketatan, animalien kostu bidezko transakzioetan izan ezik”*.

- Emaidza

Animaliak babesteko legeriari begirunea zor zaio. Baina begirune hori ezin da oztupo izan, aztergai dugun zozketa egiteko. Aitzitik, babes hori eragingarria izan dadin, eta animaliak benetan babestuta gera daitezen, ikuskizunaren antolatzaileek formula egokiak bilatu behar dituzte, etorkizunean ere tradizio horri eutsi ahal izateko, betiere, antolamendu juridikoa hautsi edo urratu gabe. Horretarako, bereziki, antolatzaileek ezin dute animalia erabili, zozketaren aurretik, ezta zozketan zehar ere, jendea erakarri edota ikuskizuna iragartzeko.

Ildo horretatik, Arartekoak gomendioa bidali zion Gasteizko Udalari. Gomendio horren eretxean, Gasteizko udalak neurri egokiak hartu behar zituen, San Antongo zozketak, animaliak publizitatea egiteko eta jendea erakartzeko erabil ez zitezen, bai eta, baimenik gabe, animalio herriko edozein ekitaldi edo agerralditan parte har ez zezaten ere. Horrela, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4.6 eta 5 d) artikulua errespetatuko ziren eta, orobat, Udal Ordenantzaren 9. artikulua ere, ordenantza horrek arautzen baititu animalien edukitza eta babesa.

2002 urteko San Antongo zozketan neurri hori gauzatu dela egiaztatu ondoren, Arartekoak bukatutzat jo du gai honetan izan duen esku-hartzea.

C) Hiritarren segurtasuna

⇒ *Poliziek daukaten identifikazio profesionala eman beharra (1206/1999)*

- Erreklamazioa

Hies-aren aurkako Bilboko Hiritarren Batzordearen arduradun bat erakunde honetara zuzendu zen, Ertzaintzako bi agenteren jarduketarekin lotutako kexa aurkezteko. Erreklamazioa aurkeztu zuenak adierazi zuenaren arabera, 1999ko azaroaren 29an, goizeko 10.45 aldera, Ertzaintzako agente batek txirrina jo zuen elkarteak gizarte eta osasun-artapenak gauzatzen ditueneko lokalean eta, atea irekitakoan, inolako azalpenik eman gabe, era zakarrean sartu, artatzen zeuden gazte bati heldu eta kaleraino atera zuen. Han, atxikita eduki zuten mutila, lapurtu ziona bera zenentz esan zezan, pertsona bat (delitu baten biktima nonbait) ekarri zuten arte. Lapurra hura ez zela esan zuenean, askatu egin zuten.

Kontatu zuenez, Batzordearen arduradunak esku-hartzeari buruzko azalpenak eskatu zituen eta agenteei adierazi zien jokabide hark larri oztopatu zituela bere lana. Halaber, agenteei identifikatzeko ere eskatu zien: aurrea hartu zuen ertzainak uko egin zion identifikatzeari eta beste agenteak ez zuen ezer erantzun. Gehitu zuenez, tonu larderiatazale samarra erabilia, gainera, polizia-funtzionarioak mehatxu egin zion erreklamazioa aurkeztu zuenari, esanez une hartantxe identifikatu ezean, komisariara eramango zuela. Horrelako mehatxuak entzunda, eta tarte batez eztabaidatzen aritu ostean, erreklamazio-egileak bere ENA eman zien, kalte handiagoak eragozte aldera. Ondoren, berriro eskatu zien identifikazioa ertzainei, baina ez zuen eman ziezaioten lortu.

- Azterketa

Erreklamazioa aurkeztu zuenak baieztatu zuenez, bere kexaren zergati nagusia, deskribatu berri dugun polizien jarduketan modukoek beren elkarteak garatzen duen lanean eragiten dituzten ondorio negatiboekin dago lotuta. Hies-aren aurkako Batzordeak ematen dituen zerbitzuen erabiltzaile gehienak talde marjinal bateko kide direla gauza jakina da, eta lokalera joateari utziko liokete bertan poliziaren presioa nabaritzuz gero.

Dena den, erreklamazioa aurkeztu zuenak alegatu zuen kexaren zergatiak daukan garrantzia berretsita, Arartekoak uste izan zuen irregulartasuna adierazten zuten beste aztarrena batzuk ere bazeudela polizien jarduketa garatzeko moduan eta, gauzak horrela, egoki iritzi zion Eusko Jaurlaritzako Barne Sailera informazioa eskatzeari, gertaerak argitzeko barne-ikerketa gauzatzea komenigarri gertatuko zela ere adierazirik.

- Emaita

Erantzunean, kexa sortarazi zuten gertaeretan zerikusia izan zuten Ertzaintzako agenteei alde aurretiko informazioen ziozko espedientea irekiko zitzaielako erabakiaren berri eman zion erakunde honi.

Beste alde batetik, erreklamazio-egileak jakinarazi zigunez, bere harridurarako, aipaturiko agenteek salaketa jarri zioten erresistentziaren ziozko falta argudiatu.

Geroago jakinarazi zigun instrukzioeko epaileak, falta-epaiketan, *in voce* eman zuela absoluzio-epaia, ertzainak erori zireneko kontraesanak eta Ministerio Publikoaren salaketarik eza ikusita –zihokionak esandakoaren arabera.

Espedienteari hasiera eman eta urtebete geroago, gutxi gora behera, Barne Sailetik hura artxibatzea erabaki zuen ebazpena helarazi ziguten. Erakunde honek, arazoan nahastuta suertatu ziren agenteek erantzukizunik ez zeukatela adierazteko oinarri gisa erabilitako zergatiak zehatz-mehatz azaldu zituelarik, hartutako erabakiaren oinarri juridikoa sendoa zela egiaztatu ahal izan zuen. Halatan ere, Arartekoak beharrezko iritzizion espedientearen gauzaturiko instrukzioa osorik ezagutzeari, kasu zehatz honi argudio juridikoak aplikagarriak zirenentz balioetsi ahal izateko xedearekin.

Espedientearen kopia osoa hartutakoan, artxibatzeko ebazpenean erabilitako argudio juridiko gehienekin ados zegoela berretsi zuen erakunde honek, baina besteak beste direla, sail horri ondorengo oharrak egitea egokitzat jo zuen:

1. Erreklamazioa aurkeztu zuen pertsona, polizien jarduketa behar bezalakoa izan ez zela pentsatzera eraman zuten zioetako bat, salaketa egin zuen pertsona, ezagutu zezan, heldu bitartean Ertzaintzako agenteek susmagarria atxikita mantendu izanarekin zegoen lotuta. Polizien jarduketaren alderdi honi ez zaio aurre egin espedientearen eta hori, erakunde honen aburuz, pasa den denbora kontuan hartuta zuzendu ezinezko akats gertatzen da instrukzioan.

2. Gertaeren alderdi batzuk direla-eta, elkarren aurkako bertsioak daudelarik ere, nabarmen gertatzen da Administrazioak sinesgarriagotzat hartu dituela tartean izan ziren funtzionarioen adierazpenak erreklamazio-egilearena baino. Horixe gertatu da, esate baterako, Ertzainak Hiesa-aren aurkako Batzordearen lokaletara sartzeko moduari dagokionez, bai eta ertzainek, erreklamazio-egileari beren identifikazio profesionalaren zenbakia eman ziotenentz argitu nahi izatean ere.

Azken puntu horri dagokionez, deigarria gertatzen da gertaera hori dela-eta, galdeketa egin ez izana bertan izan ziren lekukoei. Beste alde batetik, ez gatzat bat ebazpenean azaldutako oharrekin izan ere, beraien arabera, identifikatu ez egiteagatik falta –hala gertatu zelako hipotesian-, falta arintzat hartu beharko bailitzateke. Hori bai, positibotzat jo dugu Ertzaintzako agenteek, hiritarrek hala eskatzen badiete, kasu honetan gertaturiko inguruabarren modukoak jazoz gero, behinik behin, identifikatzeko duten beharra dela-eta, ebazpen horretan ezarritako “doktrina”.

Dena den, aztertzen dihardugun gertaeraren gainean guk egiten dugun interpretazioa, zati batean, ezberdina da sail horrek eginiko irakurketarekiko. Agenteen aldetik jarduketa irregularra egin ote zela-eta, Ertzaintzaren arduradunek duten zalantzak, hain zuzen ere, honetan dauka bere jatorria, erasota dagoenaren arabera: izan ere, ez baitago “*arrazoizko inolako motiborik identifikazio profesionalari balizko ezetza ematea justifikatuko lukeenik*”. Ezetza hor, beraien aditzen dutenez, ez dator bat erreklamazioa aurkeztu zuenaren aurka, “*jardun zuen patruilak argiketa gisa polizia-diligentziak instruitzeko erabakia hartua zuela dioskun datuarekin*”.

Erakunde honen ikuspuntutik, premisa hori –hau da, salaketa jartzeko alde aurretiko erabakia- ez dago egiaztatutik. Agenteen asmoa, jakina, beraien baitan dago eta, horrela, ez dago erabat errefusatzetik hala egiteko erabakia. Halatan ere, jakina dugu kanporako adierazpenetan, bat datorrela ertzainen jarrera erakunde honek, zenbaitetan, “kontra-salaketa” izendapenez adierazi duen eta behar bezalakoa ez den jokaera batekin. Poliziak,

San Frantzisko (Bilbo) inguruetan, atzerriko pertsonekin buruturiko jarduketei buruzko Arartekoaren txostenean, azalarazi egiten zen nola, agenteek, beren jarduketak, kritikatu zituen edo desadostasuna adierazi zuen pertsonaren baten aldetiko kexa sortaraz zezakeela pentsatzen zutenean, aurrea hartzen zuten, agintaritzako agenteei desobeditzeagatiko edo erresistentzia izateagatiko argiketa-agiria idatziaz. Sarri askotan, hasiera horrela ematen zaien zigor-jardunbideen amaiera absoluzio-epaia izaten da, baina polizien jarduketarekiko desadostasuna adierazten ausartu den hiritarrak pairatua du bere burua salatuta ikustean datzan zehapena, defentsarako abokatua kontratatu behar izan du, lanera joan gabe epaiketara bertaratu behar izan du, eta abar.

Badakigu ez dela erraza praktika horien aurka joatea izan ere, hala gertatzen denean polizien funtzioen abusua baitago eta, horrela izanik, beroriek legearen arabera burutzen direlako itxuraren ostean ostentzen dira. Halatan ere, halakoak egiteko aukera prebenitzeko, aipaturiko txostenaren 8. gomendioaren –hiritarren eskubideen aurka doazen polizien egintzak saihestera zuzendua- baitara sartu genuen hitzez hitz honela zioen atal berariazkoa:

e) Polizien jarduketa batek eragiten dion pertsonak informazioa eskatzea eta, areago, pertsona horrek jarduketa hori zalantzan jartzea edo kritikatzeta, ezin da interpretatu, besterik gabe, agintaritzaren agenteekiko errespetu falta edo desobedientzia balitz bezala.

Argi dago ezin ziurta dezakegula hori izan denik aztertzen ari garen kasuan gertaturikoa baina badakigu, ordea, lehenengo momentutik, erreklamazioa aurkeztu duenak kontatu duenaren arabera, bera izan zela ertzainei identifika zitezten eskatu ziena, behar bezala ez zihardutela uste zuelako. Beraren bertsioari jarraiki, agenteak modu txarrean erantzun zion ez zeukala horrelakorik egin beharrik eta, erreklamazio-egileak eutsi egiten ziola ikusita, orduan eskatu zion bere ENA eta orduan mehatxatu zuen atxilotuko zuela esanez. Hau da, sinesgarria, bederen bada, ordena kronologiko batean, identifikatzeko ezetza, tartean zegoen hiritarra salatzeako poliziak hartu zuen erabakia baino lehenago gertatu izana, bai eta, erabaki hori, hiritarrak, polizien jarduketagatiko salaketa aurkeztuko zuela iragarri izanaren eraginez izaniko erreakzioa ere.

Arartekoaren aburuz, Ertzaintzaren arduradunek kontzientzi hartu behar dute, eta jabetu, argiketa-agiri bat egiteko aukera baliaturik gauzatzen den abusua litekeen zerbaite dela eta, badaudela, egon ere, inoiz edo behin botere horretaz baliatu izan diren agenteak. Ondorioz, Herrizaingo Sailak polizien horrelako jokabideak prebenitzeko eta, hala izanez gero, errotoz ateratzeko neurriak artikulatu beharko lituzke.

⇒ *Polizien esku-hartzea: Etxebizitza batean sartzea eta hura miatzea bertan bizi direnak bat etorrira (35/2000 OF)*

- Erreklamazioa

Gara egunkarian argitaratu zen artikulua baten bidez jakin ahal izan genuen Amnistiaren aldeko Gestoreek eta, ETako kide zirela-eta, Bilbon atxilotutako zenbait pertsonaren senideek prentsurrekoa eman zutela. Adierazi zutenaren arabera, atxilotetean parte hartu zuten polizia-agenteek, ustez, irregulartasunak eta tratu txarrak burutu zituzten.

Gaiak ikerketa egitea merezi zuelakoan, ofiziozko espediente bati eman genion hasiera.

- Azterketa

Artikuluaren testutik ezin deduzi zitekeen zeintzuk ziren kasu bakoitzean aritutako polizia-zerbitzua, baina Barne Sailean informazioa eskatzea erabaki genuen, eta hiru galdera zehatz planteatu:

a) I.M. atxilotu ondorengo orduetan -Guardia Zibilak edo Polizia Nazionalak gauzatu zuen atxiloketa -, Ertzaintzako agenteren batek parte hartu zuenentz beraren lankidea den O.P. tartean egon zeneko poliziaren esku-hartzean. Erantzuna baiezkoa izatera, erakunde honek interesa zeukan, esku-hartze horren deskribapen xehea eman zekion.

b) Ertzaintza aritu zenentz Z.M.ren atxiloketan edo, ustez, prentsaurreko horretan aipatu zenaren arabera, beraren gurasoen etxebizitzan sartu zenentz.

c) Euskal Poliziaren funtzionarioek atxilotu zutenentz M.E. eta, erantzuna baiezkoa izatera, sail horretan, atxilotua zeraman polizia-autoak ustez A.G.F. zapaldu zuela dakitenentz.

- Emaiza

Galderetako lehendabizikoari, sailetik erantzun zitzaion baietz, Ertzaintzako agenteek gauzatu zutela O.P.ren identifikazioa, baina doakionak falta-epaiketa sortarazi zuen epai-salaketa aurkeztu zuela. Ondorioz, erakunde honek erabaki zuen gertaeren azterketarik ez egitea, baina sailari eskatu zion zigor-kausaren izapideei buruzko informazioa eman ziezaion.

Z.M.ren etxebizitzan sartu izana zela-eta, Ertzaintzak baieztatu zuen bertan bizi zirenek, “*era berezkoan, barrura sartzera gonbidatu zituztela*”. Elkarren aurkako bi bertsio daudela ikusita, eta kontuan hartuta erakunde honetara jo zutenak ez zirela eragindakoak eurak, ez eta, argitaratutako adierazpenek egin zituztenak, gure aburuz ez zen bidezkoa gertatzen polizien esku-hartzeari buruzko ikerketan aurrera jarraitzea. Edonola ere, gertaerak beraiek kontaktu zuten bezala jazo izan baziren, erakunde honen aburuz irregulartasunik ez zegoela ohartarazi genion Ertzaintzari. Hori bai, ezberdina izango zen balioespena etxera sartzeko baimena eskatzeko ekimena polizia-funtzionarioengandik irten izanez gero izan ere –gure irizpidez-, jarduteko era hori ez da legearen arabera.

Hirugarren galderari erantzuteko, sailak esan zuen M.E. ez zuela Ertzaintzak atxilotu eta, horrela, gure kontrol-eskuduntzetatik ate geratu zen gertaera hori.

Espedientea itxi egin genuen, irregulartasunik ez zela egiaztatu ulertu genuelako.

C) Trafikoa

⇒ *Donostian bizi ez, baina ibilgailua pertsona minusbaliatuentzat erreserbatutako aparkalekuetan uzteko txartela duen herritar batek aparkaleku araupeturiko alderdian pertsona horientzat erreserbatutako tokietan aparkatzerik izatea (1960/1998)*

- Erreklamazioa

Minusbaliatuek ibilgailuak aparkatzeko txartela daukan herritar batek pertsona horientzat erreserbatutako aparkaleku batean aparkatu zuen bere ibilgailua, eta ikusteko

moduko toki batean jarri zuen aipaturiko txartela baina, hala ere, Donostiako udaleko zerbitzuek salaketa jarri zioten, TAO eremuan aparkatu zuelako manuzkoa den gaikuntza-titulurik gabe.

- Azterketa

Kexaren objektu den administrazio-jardueraren analisia egindakoan, Arartekoak egiaztatu ahal izan zuen Donostia-San Sebastiáneko Aparkaleku Araupeturako Udal Zerbitzuari buruzko Ordenantzak, udalerriko egoiliar diren eta mugitzeko gaitasun murriztua duten pertsonentzako aparkaleku-txartela araupetu zuela eta, horrela, pertsona horiek erabiltzeko erreserbatuak dauden alderdietan ibilgailua aparka dezaketela, baina Udalak erreklamazio-egilea txartel hau ematen duen onuretatik ate utzi zuen izan ere, , pertsona minusbaliatuek aparkatzeko txartelaren titularra izan arren (eta kexa sortarazi zuen aparkatzea gauzatzean ikusteko moduko tokian jarri zuen ibilgailuan), ez baitzeukan zegoen udal-txartela, izan ere ez baitzen udalerrian bizi.

Udal administrazioak kexa eragin zuenari emaniko trataerak, Arartekoaren aburuz, orduan indarrean zegoen autonomiako araudia urratu zuen, zeren, erreklamazio-egilea titular daukan txartela daukatenei, udalek euren ordenantzetan, ibilgailuen zirkulazioa antolatzeko gaietan ezarritako onura berberak onartzen baitie (gaur egun baliogabeturik dagoen urriaren 17ko 236/1989 Dekretuaren 3. Artikulua), eta Udalak, pertsona minusbaliatuentzako aparkalekuak erreserbatzera derrigortzen zituen, erreserba horren onuradunari, bizilekuaren arabera, emango zitzaion trataeran ezberdintasuna justifikatuko lukeen inolako ezberdintze-elementurik sartu gabe [Irigarritasunaren Sustapenari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 7.2.a) artikulua].

- Emaidza

Gomendio bat bidali zen Donostia-San Sebastiáneko Udalera eta bertan eskatzen zen, lehenengo eta behin, TAO eremuan, manuzkoa zen gaikuntza-titulurik gabe aparkatu zuelako jarri zitzaion salaketa indargabetzeko ordaindu zuen diru-kopurua itzul zekion interesatuari; bigarrenaz, Aparkaleku Araupetuetarako Udal Zerbitzuari buruzko Ordenantza alda zezaten, pertsona minusbaliatuek aparkatzeko txartela daukatenek erabiltzeko diren ibilgailu guztien egoera berdintzeko eta, horrela, gaur egungo idazkerak sor dezakeen segurtasun eza ekidin liteke; azkenik, parekatze hori egitatez onar zezan araudian gomendaturiko aldarazpena gauzatzen zen bitartean.

Udalak ez zuen onartu gomendioa, jakinarazi zigutenez, kexa eragin zuen salaketa ez zegoelako udal aretoetan; gainera, beraien aburuz, Irigarritasunaren Sustapenari buruzko Legeak ez zuen eragozten pertsona minusbaliatuentzat erreserbatuak dauden aparkalekuen erabilpena diru-kopururen baten ordainketari atxikitzea; eta, azkenik, ulertzen zuten Ordenantza araupetzaileak ez dituela ezberdin tratatzen pertsona minusbaliatuak beren bizilekuaren arabera, baizik eta beren ibilgailuen ohiko gidari izateagatik.

⇒ *Partidak dauden egunetan, Bilboko San Mames futbol zelaiaren inguruetan ibilgailuak aparkatzeko erregimen berezia (406/2000)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek kexa aurkeztu zuen Bilboko Udalaren aurka, dagozkion udal zerbitzuek aparkatuta zegoen tokitik, San Mames futbol zelaitik hur, kendu zutelako, estadio horretan kirol-topaketa ospatzea aurreikusita zegoen egun batean eta, horrela aparkatuta edukitzeagatik, zehapena ezarri ziotelako.

- Azterketa

Kexa aurkeztu duen erreklamazio-egileak behar bezala zeukan aparkatuta ibilgailua Bilboko San Mames futbol zelaitik hur, estadio horretan futbol partida ospatu baino egun batzuk lehenago. Partidaren egunean salaketa jarri zioten ibilgailuari behar ez bezala aparkatuta zegoelako, eta bide publikotik kendu zuten.

Bilboko Udalak helarazi zigun informazioaren arabera, kexaren objektua den udal jarduketaren funtsa, partida egunetan San Mamesen inguruetan aparkatzeko dagoen debekua zen. Era horretako kirol-gertaeraren bat aurreikusita dagoenean, alderdi horretako trafikoa arautzeko Udalak hartu dituen neurrien eremuan dago debeku hori.

Partida-egunetarako aparkaldiaren erregimen berezi honen seinaleztapena, orduan, debekua adierazten zuten bi eratako seinale bertikalek osatzen zuten: batzuk, partida ospatzen deneko data zehatza jakinarazteko panel osagarri batez zeuden horniturik eta besteek, ordea, ez zeukaten horrelako panelik eta bertan era orokorrean adierazten zen debekua partida egunei baino ez zegokiela. Lehenengo seinaleak debekuak eragiten zion alderdirako sarbideetan zeuden kokaturik eta bigarrenak, berriz, alderdi horren barruko aldean.

Kexa eragin duenaren ibilgailua aparkatuta zegoeneko tokirako sarbidean kokatuta zegoen seinalea bigarren motako seinalea zen, hau da, galtzadaren kokatuta daudeneko alderdian gelditzea eta aparkatzea debekatzen duten horietakoa, eta informazio-panel orokorra zeukan, debekua partida-egunei zegokiela adierazten zuena. Ez zen, seinale horretan, debekua indarrean zegoeneko data zehatzei buruzko bestelako informazio gehigarriarik ematen.

Zirkulazioari buruzko Arautegi Orokorrean seinaleen aplikazio-eremuari buruz ezarrita dauden arauetatik abiaturik (150. Art.), Arartekoak ulertu zuen partida-egunetan trafikoaren araupetze bereziak eragiten zion alderdian kokatuta zeudenek ezartzen zuten debekua eurentariko bakoitzaren bertikalean hasten zela eta hurren zegoen bidegurutzean amaitu. Horregatik, ondorioztatu zuen erreklamazio-egileak ibilgailua aparkatu zueneko tokian kokatuta zegoenak ematen zuten informazioa ez zela behar besteko gertatzen bertan aparkatzea debekatzeko, eta partida-egunetan trafikoaren araupetze bereziak eragiten duen alderdiko beste leku batzuetan debeku berbera ezarriaz beste seinale bertikal batzuk egoteak, azken horietan, seinaleetan bertan, xede horretarako egokituriko tokian debekuaren data ageri zelarik, ez zuela gabezia hura betetzen, informazio-panel osagarria ezarriaz ordezkatu beharko bailitzateke huts hori, Zirkulazioari buruzko Arautegi Orokorrean aurreikusita zegoen bezala (137. Art.).

- Emaidza

Bi gomendio egin zitzaizkion Bilboko Udalari. Gomendiotako lehendabizikoan, erreklamazio-egileak ibilgailua udal gordailutik ateratzeko ordaindu behar izan zuen tasa itzul zedin eskatu zen, bai eta behar ez bezala aparkatzeagatik ezarri zitzaion zehapena ezezta zedin. Bigarrenean, berriz, data horietarako trafikoaren antolaketa bereziak eragiten zion alderdian, partida-egunei zegozkielarik, zeuden debeku-seinale guztien informazio-panelean partida ospatzen zeneko data zehatzari buruzko informazioa eransteke eskatu zen.

Udalak ez zituen gomendioak onartu, zeren, ulertu baitzuen futbol-egunetan agintzen duen debekua ezagutzera emateko ezarrita dauden seinaleak behar bestekoak eta egokiak direla izan ere, adierazi ziguten bezala, partidaren data zehatza behar besteko aurretiaz txertatzen baita futbola dagoen egunetarako araupetze bereziak eragiten dion alderdirako sarbideetan ezarrita dauden seinaleen informazio-paneletan, eta, beraren ustez, alderdiaren barruan dauden seinaleen funtzionaltasuna, beste haien informazioa gogoraraztea eta berresatea da eta, hala izanik, beraien tamaina txikia da eta ez daukate informazio hori gehitzen utziko lukeen gailurik.

⇒ *Itxuraz bertan behera utzia zegoelako, bide publikotik kendu zuten behar bezala aparkaturik zegoen ibilgailu bat (1089/2000)*

- Erreklamazioa

Erakunde honek esku har zezan eskatu zuen hiritar batek, Bilboko Udaltzainek berarena zen ibilgailu bat, bertan behera utzita zegoelako sintomak erakuskeagatik, bide publikotik kendu zutelako.

- Azterketa

Kexa aurkeztu zuen erreklamazio-egileak ekarri zituen datuak erkaturik, egiaztatu ahal izan zen interesatuaren ibilgailua lehenago ere kendu zutela Udaltzainek bide publikotik, bertan behera utzita zegoelako sintomak erakusteagatik eta jarduketa hark ere, erakunde honek parte hartzea eragin zuela. Orduko hartan, Bilboko Udalak, autoak zirkulazioan jarduteko administrazio-baimen guztiak eta indarrean dagoen aseguru-agiria zeuzkala, eta ibilgailuen ikuskapen teknikoa ere gaindituta zeukala egiaztatu ondoren, kexaren sorburua ziren administrazio-jarduketak ondorerik gabe uztea erabaki zuen.

Udalak emaniko informazioan egiaztatu ahal izan genuen interesatuaren ibilgailua bide publikotik kentzea eragin zuten zergatiak aurreko aldiko berberak izan zirela, hau da, Udaltzainek antzemandako utzikeria-sintomak, ibilgailuak toki berean aparkaturik iraun zuen denboran hala eraginda.

Kexa irazeki zuen kontuari buruz, 1998ko txostenera bildutako gomendio orokorrak bere baitan dauzkan irizpideak kasu honi aplikaturik, Arartekoak ulertu zuen erreklamazio-egilearen ibilgailua, itxura batean, aparkatuta egon zen denbora epea ezin zela utzikeria-egoera zegoela ondorioztatuzko. Gainera, batera gertaturiko inguruabarren neurritasunak, gomendioaren irizpideei jarraiki, bertan behar utzita ez zegoelako presuntzioa bazela pentsatzera zeraman zeren, interesatuak adierazi zuen bezala, zirkulatzeko administrazio-baimen guztiak eta indarrean dagoen derrigorrezko aseguru zeuzkan, eta gaindituta

zeukan zegokion ibilgailuen ikuskapen teknikoa; eta uste hori ez zen ahuldu Udalaren aurkako frogaren bidez.

- Emaidza

Interesatuak, zirkulatzekeo administrazio-baimen guztiak eta indarrean dagoen aseguruak zeuzkala eta ibilgailuek ikuskapen teknikoa gaudituta zeukala egiaztatuz gero, bide publikotik kendutako ibilgailua beraren esku jartzeko gomendioa zuzendu zen Bilboko Udalera.

Bilboko Udalak onartu egin zuen gomendioa.

⇒ *Enpresa pribatu batek egiten dituen jakinarazpenei buruz (1125/2000)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Santurtziko Udalak, trafikoa araupetzen duten arauak hausteagatik ezarri zion zehapena. Zehazki, salaketa arau-haustea egiaztatu zeneko une berean jakinarazi ez izanaz eta ebazpen zigortzailea, prozedura zigortzailean zehar bere burua defendatzeko aukerarik izan gabe eman izanaz zen kexu.

- Azterketa

Santurtziko Udaletik helarazi zizkiguten datuetatik abiatuta, erreklamazio-egileari salaketa berehala jakinarazi ez arren, baliagarri zela ondorioztatu genuen, izan ere, ibilgailua debekatuta zegoen tokian aparkatzean baitzetzan arau-haustea eta gidaria ez zegoen bertan Udaltzainak salaketa gauzatu zuenean.

Prozedura zigortzailearen analisisa egitean, ikusi ahal izan genuen, egiatan, salaketa ez zela jakinarazi zeren, enpresa pribatu batek, erreklamazio-egilearen helbidean jakinarazteko ahalegina izan arren, eta enpresakoen esanetan, errefusatu egin zuen horrek, hala adierazi zuelarik salaketa zeukan gutunazalaren atzeko aldean, irakurtezina zen izenpe batek berretsirik eta, izenpe horren gainean, enpresa jakinarazlearen zigiluarekin. Igorri zitzaigun administrazio-espeditenteak ez zuen islatzen enpresa jakinarazleak egiaztatu zuen gertaera ziurtatzeko froga osagarririk egin zenik.

Erreklamazio-egileak, aitzitik, berak jakinarazpenik ez zuela errefusatu zioen.

Auzitegi Gorenak (AUE, 1993ko maiatzaren 22koa, -A. 5821) eta justizia-auzitegi goren zenbaitek, Euskadiko Justizia-Auzitegi Gorenak (EJAGE, 1996ko apirilaren 1ekoa -A.416-), besteak beste, ezarritako doktrinan oinarri hartuta, Santurtziko Udalak interesatuak salaketaren jakinarazpena errefusatu zuela era frogagarrian egiaztatu ez zela ondorioztatu genuen, xede horretarako erabili zuten froga-baliabide bakarra, enpresa jakinarazleak, lehenago adierazi dugun eran eginiko egiaztapen hutsa izan baitzen eta horrek, aipatu diren epai-pronuntziamentuekin bat etorriarik, ez dauka baliorik jakinarazpena gauzatzeko ahaleginak egin zirela eta errefusatu izan zela frogatzeko, interesatuak hori hala izan zenik ukatzen duelarik.

Azkenik, salaketaren baliogabetasuna ondorioztatzera eraman gintuen horrek, jakinarazpenaren egiaztapenik ezaren zioz eta, ondorioz, legez kanpoko gertatzen zen kexa eragin zuenari ezarritako zehapena, legez ezarrita dagoen prozedura erabat eta guztiz alde batera utzi zelako [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.e) art.].

- Emaiza

Santurtziko udalari zehapena ondorerik gabe uzteko gomendioa eman zitzaion.

Udalak ez zuen gomendioa onartu izan ere, jakinarazi zigutenez, enpresa pribatuek egiten dituzten jakinarazpenak guztiz aukera baliagarria baitira, eta gure antolamendu juridikoak onartuta daude.

⇒ *Agentearen adierazpenaren egitasun balizkoaren aurrean, aurkako froga (1175/2000)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen beraren ibilgailua bide publikotik kendu izana eta, trafikoa araupetzen duten arauak hausteagatik, zigorra ezarri izana.

- Azterketa

Kexa ikusita, harremanetan jarri ginen Bilboko Udalarekin, hura baitzen eragindako administrazioa. Bi alderdiek helarazi ziguten informazioa oinarritzat hartuta, ondorioztatu genuen ibilgailua bidegurutze batetik hur zegoela aparkaturik. Hori bai, beste kontu bat zen ibilgailu hark, hala aparkatuta, beste ibilgailuei bira ematea eragotzi izanaren beharrezko egiaztapenari zegokiona, eta elementu hori guztiz derrigorrezko gertatzen zen hala zigorra nola ibilgailua bide publikotik kendu izana justifikatzeko.

Agentearen bertsioa ahultzeko xedearekin, eragina zuenak Bilboko Udaleko Zirkulazio eta Garraio-Zuzendaritzak esku har zezan eskatu zuen eta honek, azkenean, onartu zuen espaloia ren konfigurazioa ez zela Elcano eta Rodriguez Arias kaleen arteko bidegurutzeko bideko markekin batera eta, horrela, aparkatzeko leku baten pareko tartea geratu zela, aparkatzeko toki moduan mugatuta ez zegoena, baina aparkatzea debekatzen edo mugatzen zuen marka horirik ez zeukana.

Txosten horrek lagunduta, eragina zuenak ahaleginak egin zituen aipaturiko Udaleko Ogasun Sailean premiamendu bidez izapidetzen ari zen espediente zigortzailea geldiarazten, baina ez zuen arrakastarik izan eta horregatik eskatu genion administrazio horri, berriz ere, kolabora zezan.

- Emaiza

Bilboko Udaletik jakinarazi ziguten espediente zigortzailea baliogabetuko zutela eta ibilgailua herrestan eramatearren ordainduriko tasak itzuliko zirela.

⇒ *Aparkatzeko toki libreak zeuden egun batean, TAO alderdian gaikuntza-titulurik gabe aparkaturiko ibilgailua zegoen tokitik kentzea (1214/2000)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen beraren ibilgailua bide publikotik kendu izana, zegokion txartela izan gabe, TAO alderdia aparkatuta zegoelarik. Zehazki, aipaturiko administrazioaren jarduketara, hori gertatu zen egunean alderdi hartan toki libreak ugari izanagatik ere gauzatu zelako zen kexu.

- Azterketa

Interesatuak berak helarazi zigun informaziotik, ondorioztatu zen bide publikotik kendu zen ibilgailua TAO alderdian zegoela aparkaturik, zegokion gaikuntza-titulurik izan ez arren. Eta honelako balizkoetan, antolamendu juridikoak [martxoaren 2ko Legegintzazko 339/1990 Errege Dekretuak onartu zuen Trafikoari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 71.e) art.] babestuta dago ibilgailua bide publikotik kentzea, eta hori ez dago aparkatzeko leku librerik ezak baldintzatuta.

- Eraitza

Inolako irregulartasunik ikusi ez zenez, itxi egin zen espediente, beste izapiderik gabe.

8. JUSTIZIA

8.1. SARRERA

Sail honen izendapenak, erakunde honek esku hartzen duen beste alorretan ez bezala, ez du esan nahi Arartekoak Justizia Administrazioa ikuskatzen duenik. Jakina denez, epaitegietako eginkizunaren kontrol lana jardun duenaren gaineko organo judizialen esku dago soilik, aginte judizialaren independentzia printzipioaren aplikazioan. Horregatik, tribunalen erabakien eskutan jarri den edozein gai aztertzeko ezintasun horren aurrean, 2001 urtean zehar erakunde honek atzera bota behar izan ditu 39 kexa.

Epaitegietako funtzionamendu administratiboari dagokionez, legeak dio Arartekoak gai horri buruz jasotzen dituen kexak beroriek aztertu edo ebazteko gai den justizia administrazioaren organori jakinaraziko dizkiola. Bidaltze zeregin horrezaz gain, esku artean dugun sail honetan bestelako izaera daukaten beste interbentzio batzuk ere biltzen dira, guztiak, zuzen edo zeharka, justiziaren aplikazioarekin lotuta daudenak. Espediente batez izapidetu diren kexak ondorengo modu honetara sailkatzen dira:

Espetxe alorreko jarduerak	22
Justizia administrazioaren funtzionamendua	5
Abokatu eta prokuradoreen elkargoak	2
Eskubide eta askatasunak	1
Adin txikiko arau-hausleak	1

Ikusten denez, kexa multzo handiena **preso diren pertsonen** egoerari buruzkoa da. Izatez, espetxeetako funtzionamenduaren gaineko kontrola Arartekoari dagokionez, erakunde horretara –edo gure inguruko herrietako zentzu bereko erakundetara- bidaltzen dira presoek edo presoen senitartekoei Espetxe administrazioaren ustezko jarduera irregularrak azaltzen dituzten idazkiak. Antolaketaren aldetik, espediente horiek bidaltze horren arabera sailkatzen dira.

Horrek esan nahi du “espetxe alorreko jarduerak” izenpean sartzen direla, bai EAEko herri erakundeen inplikazio motaren bat antzematen diren kontuak, bai irregularitate zehatzik bat ere salatu gabe gure zeregina informazioa eskaintzea hartzen dutenak.

Azken urtean zehar, atal honetan sartu ditugu espetxe zigorrak betetzeko lekuari buruzko kexak. Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak (ELOO) espetxeratuen erauzketa saihestu beharra finkatzen duen arren, egia da Administrazioak eskumen zabalak dituela espetxeratuen destinoko kartzela zehazteko orduan. Horren ondorioz, normalean, eskubideak bermatzeko dauden instantzien esku hartzea –Espetxeetako Zaintzako Epaitegia edo Arartekoa- ez da bidezkoa izaten espetxe zigorra euren etxetik urrun dauden kartzeletan betetzen duten pertsonen kexen aurrean, espetxe aldatzeak oinarritzko eskubideren bat urratzea eragin duenean izan ezik, jakina.

Horregatik, espetxe zigorra betetzeko lekuari buruzko kexak jasotzen ditugunean, eskatzaileari aurreko gertakariak jakinarazi eta espetxe aldatzea eskatzeko moduari buruzko informazioa eman besterik ez dugu egiten.

Behin eta berriro erakunde honek adierazi du espetxe zigorrak guztiak, arau orokor gisa, presoaren bizilekutik gertu dauden espetxeetan betetzea gomeni dela. Halaber,

–ELOOaren 12.1 artikulua finkatutakoaren aurrean– azpimarratu egin dugu Euskal Autonomia Erkidegoan ez daudela espetxe beharrak betetzeko adina kartzela. Horrela, esate baterako, ez dago espetxe zigorrak erregimen itxian betetzeko modularik, ez ama unitaterik, ez buru gaixoentzako espetxe lekurik... eta honek guztiak behartzen du preso kolektibo zabal batzuek gure lurraldetik kanpora bidaltzera.

Arartekoaren iritziz komenigarria da zehazki egoera horietan zenbat EAEko herritar dauden ezagutzea. Izan ere, espetxe zigorrak berriro gizarteratze aldera bideratzeko eginkizuna oinarritzko eskubideetan biltzen denez (Konstituzioaren 25.2. artikulua) eta, beraz, herri aginte guztiak behartzen dituzenez, euskal erakundeak arduratu behar dira espetxean izan diren pertsonak gizartean baztertuta gelditu ez daitezken, batez ere, diru, gizarite eta kultur baliabiderik ez daukatenean kasuan. Begi bistakoa ematen du beharren eta galdegiten diren baliabideen definizioa asko erraztuko zukeela espetxe zigorra Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo betetzen duten pertsonen kolektiboaren neurria ondo ezagutzeak. Xede honekin Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Orokorriari eskatu dizkiogu gai honi buruz eskura daitezkeen datu guztiak.

Arestian aipatu den emakumezko presoak hiru urtetik beherako seme alabekin bizi ahal izateko modulu berezirik ez izate horren arazoari heldu zitzaion Arartekoak Arartekoen Koordinaziorako XVI. Jardunaldietara aurkeztu zuen komunikazioan. Horren edukia txosten honen I. eraskinean kontsulta daiteke.

Espetxe alorreko gainerako kexak oso gai desberdinei buruzkoak ziren. Horrela, esate baterako, hiru presok espetxe zigorraren likidazioarekin lotutako kontuak planteatu zituzten, zehazkiago, *zigorrak biltzea* delakoarekin, hau da, Kode Penalaren (KP) 76.1 artikulua aplikazioarekin lotutako kontuak. Erakunde honek Arabako Entzutegi Probintzialeko Fiskaltzara bidali zuen kexa horietako bat, interesdunak aplikazio hori eskatu eta, hainbat hilabete pasa ondoren, horren gaineko inolako informaziorik jaso ez zuelako.

Beste urte batzuetan bezala, aurrean ere kexak hartu ditugu kalera irteteko baimenak, espetxe sailkapena, komunikazioak –bereziki aurrez aurreko bisiten gainean (ordutegia, aste eguna edo bisita horiek egiteko erabiltzen diren geletako egoera...)-, bizitzeko erregimena eta baldintza higienikoak Langraitzen (karraskariak daudela), norberaren ordenagailua ezin erabiltzea, drogamenpekotasunaren tratamendua espetxean, bai eta ihesa beste gaixotasun kutsakorren ondoriozko azaroak eta arrazoi horrengatik kaleratzeko aukera izatea ere gaiak buruz.

Halaber, hainbat eskabide jaso ditugu baldintzapeko askatasuna lortzeko gaiarekin lotuta. Terrorismoaz zigortuta dauden Bilboko zazpi herritarren aldeko plataforma batek kaleratzearen aldeko ehunka sinadura helarazi zizkigun, guztiek espetxe zigorraren 3/4ak beteta zeuzkaten eta. Sinadurak Estatuko Arartekoari bidali genizkion arren, arazoa Kode Penalaren 90. artikuluan datzala adierazi genien kexa ezarri zutenei, artikulua horrek, arestian esandako baldintzarekin batean, beste baldintza bi eskatzen baititu: espetxe tratamenduko hirugarren graduaren sailkatuta egotea eta berriro gizarteratzearen aldeko banakako aurreikuspena.

Senideak elkarteak kexa bat aurkeztu zuen ETAko preso batek ustez jaso zituen tratua txarrengatik. Interesdunak gertakariak, kexak esaten zuenez, judizialki salatuak eduki arren, kontua Estatuko Arartekoari jakinaraztea erabaki genuen, zeren eta, balizko zigor bideko prozesua zigorrak gabe bukatzen bazen, eskubideak bermatzeko erakunde horrek bidezkotzat jo baitzezakeen interbentzio bat egitea.

Frantziatik estraditatu izan zen kolektibo bereko beste preso beten familiak erreklamazio bat aurkeztu zuen herri hartatik txosten mediko batzuk bidali ez zirelako, -euren ustez- azkar asko burutu behar zen interbentzio kirurjiko bat egiteko ezinbestekoak zirenak.

Beste aldetik, Frantzian espetxeratuta dauden erakunde terrorista horretako kide biren senitartekoei haien intimitatearen eta giza duintasunaren urraketak salatu zituzten. Azaldu zutenaren arabera, espetxetik epaitegira joateko ateratzen ziren guztietan, modu laido garrian egiten ziren gorputz miaketak jasaten zituzten behin eta berriro. Azaldutako gertakariaren larritasunaren aurrean, kexa horiek *Médiateur de la République* delakoari bidali genizkion. Honek, bere aldetik, espetxeetako funtzionarioek egindako miaketetan legedia bete zen egiaztatzeko jarduerari bati ekiteaz gain, jakinarazi zizun Segurutasunaren Deontologia Batzorde Nazionala dagoela, eta erakunde hau berariaz poliziaren jarduerak kontrolatzeko dagoela. Geroago, gure homologo frantsesak jakinarazi zizun salatutako kasuetan inolako irregulartasunik antzeman ez bazuen ere, Fleury-Mérogis kartzelako espetxe jarduerari -presoa dagoen modulutik irtetea eta ondoren espetxetik irtetea berriro erabat miatea zena- arindu egin zela preso bik egindako erreklamazioen ondorioz, eta harrez gero irteera bakoitzeko miaketa oso bakarra egiten dela.

Beste espetxeko kolektiboek ere berezko arazoak aurkezten dituzte: alde batetik, espetxe prebentiboan dauden pertsonak, eta, beste aldetik, atzeritik etorritakoak. Lehenengoei dagokienez, aurkezten dituzten kexak kautelazko neurria hartzearen beraren ingurukoak izaten dira -kontu horretan ezin gara sartu alor judizialari dagokiolako-, zein neurri horren luzapenaren ingurukoak, epaiketarako egiteko atzerapenak izaten direlako.

Espetxeratuta dauden etorkinei dagokienez, berriro azpimarratu egin behar da etengabe ari dela igotzen euren espetxeratze indizea. Gure ikuspegitik, atzeritarrek bertakoek baino delitu gehiago egiten dutelako ideia aurreiritzia da errealitatea baino gehiago, eta, dela dela, izkutatu egiten dituzten pertsona hauek defentsa eraginkor bat antolatzekeko oztopo handiagoak izatea (kultura, diru eta besteko baliabide falta), edo espetxe prebentiboa aplikatzeko aukera handiagoa izatea bezalako arazoak. Kolektibo honen espetxe arazoaren artean nabarmentzen dira kalera irteteko baimenak lortzeko oztopoak, destinoko espetxea finkatzeko orduan adiskidetasun loturei kasurik ez egitea, erakundearen laguntza falta -eta, baita ere, zailtasunak- euren dokumentazioarekin lotutako kontuetan eta abar. Atzerriko jatorrizko emakumezkoek dagokienez -espetxean gero eta gehiago direlarik-, euren seme alaba txikiekin batera bizitzeko ezintasuna eta espetxean izateagatik haien zaintza betiko galtzeko arriskua arazo larritzat begitantzen da.

Hainbatetan, presoek erakunde honetara jo dute pentsioei buruzko galderak egiteko, Gizarte Segurantzari buruz, zein euskal administrazioek ematen dituzten zergazkoak ez diren pentsioei buruzko galderak alegia. 2001 urtearen amaieran, kexa bat jaso genuen espetxeko "destino" delako langintza batean (sukaldea, ekonomatoa, ile-apaindegia...) lan egin zuen preso bat Gizarte Segurantzaren sartzearren gainean. Espetxeko Arautegiaren (EA) eta 782/2001 Errege Dekretuaren arabera lan postu horiek espetxeko lan harremanetan sartzeko ez bide diren arren eta, horrenbestez, diru soldatarik eta segurantzaren babespenik ez daukaten arren, ELOren 27. artikulua arabera berez ez da konklusio hori ateratzen eta baliteke EKaren 25.2. artikuluan finkatutakoaren kontrakoa izatea. Beraz, komenigarria izango litzateke kontu hau auzitegietara eraman eta beraiek erabakitzea aipatutako xedapenen aldetik dagoen araudietako hierarkiaren printzipioari buruz.

Kontu mota hauekin jarraituz, berriro gizarteratzearen alorrean lanean diharduen elkarte batek bere kezka adierazi zion Arartekoari espetxean izan ondoren kalera ateratzen diren pertsonak diru laguntzak eskuratzeko ikusten diren atzerapenengatik. Espetxetik irteategatik ematen den langabeko diru laguntza –dagokion kasuetan- pertsona hori espetxetik irten arte izapidetzen hasten ez denez, denbora tarte batean –bi hilabete gutxienez- pertsona horrek ez du inongo diru laguntzarik jasotzen. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari planteatu genion arazoa, eta gizarte zerbitzu komunitario eta espetxeko arteko koordinazioa indartzeko konpromisoa hartu badu ere, beharrezko neurriak bideratzeko eskumena Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzari zein tokiko administrazioei dagokielakoan daude, beraz, instantzia bietara joko dugu gure proposamenak aurkezteko (zfr. I. Kap. 1.1.1 atala).

Espetxe zigorren inguruko gaiei buruzko errepasso honekin amaitzeko, suizidioarekin eta espetxeko arreta medikoarekin lotutako kexa bi aipatu behar ditugu. 2000 urteko azaroan, erakunde honek jakin zuen Langraitzeko espetxean preso zegoen emakume bat hil zela. Dirudienez, preso gazte horrek liskar bat izan zuen emakumezko funtzionario batekin eta horren ondorioz bakartze ziega batera eramán zuten, non izaraz urkatu baitzen. Lehenengo unean, Arartekoak Ministerio Fiskalera jo zuen, baina honek instituzioari zigor bideko eginbideak artxibatu zirela jakinarazi zionean, kasua Estatuko Arartekoarengana eramán genuen, presoaren suizidioa aurre ikusi eta, beraz, aurrea hartzeko bidea emango zituzten arazo psikologikoak izan ziren ikertzea bidezkotzat jotzen bazuenerako. Espetxe administrazioak bidali zuen informazioa aztertu ondoren, eskubideak bermatzeko instituzio hori presoak bere buruaren kontra hartu zuen jarrera aurreikusituz ezina zelako konklusiora iritsi da.

Arabako espetxean ere gazte bat hil zen 2001eko apirilean, krisialdi epileptiko larri baten ondorioz. Krisialdi mota hau espetxean sartu aurretik jasaten hasita zegoen preso hori, eta zirkunstantzia hau ezaguna zen kartzelan. Baina, ospitalera sartu zen azken aldian tratamendu bat ezarri eta tratamendu hori benetan segitzen zuen zaintzeko beharra azpimarratu zuten arren, presoaren gurasoek esaten dute zaintze kontrol hori ez zela betetzen. Dirudienez, mutikoak jakinarazi zien espetxeko zerbitzu medikoen aldetik arreta falta jasaten zuela eta ez zegoela etengabe lagunduta, osasun etxeko sendagileek gomendatu ziotenaren kontra. Presoen bizitza eta osasuna jagon beharra ez betetze balizko izatearen aurrean, kasua Estatuko Arartekoari jakinarazi genion eta honek interbentzio bati ekin dio.

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoerari buruzko txostenarekin lotutako jardueren jarraipenaz diharduen atalean azaldu den bezala (I. Kap. 1.1.1 atala), oro har arreta medikoa eta bereziki arreta psikiatrikoa erakunde honen kezka iraunkorra dira.

Aurten kexa gutxi hartu dugu **Justizia Administrazioaren funtzionamendua-rekin** lotuta. Horietako bat istripua izan zuen herritar batek aurkeztu zuen, non larri zaurituta gelditu baitzen, Gasteizko hiri autobus baten barruan bidaiari zihanean. Azaltzen zuen, gertakaria bi urte izan eta gero, ez zuela prozedura judizialaren gaineko inongo albisterik. Behin informazioa eskuratuta, eskatzaileari jakinarazi genion ez zela izapidetan inongo gelditzerik izan, eta prozesu luzea eta konplexua zela bertan izandako inguruabarrengatik. Prozedurara agertu ez zenez, epaitegiak ez zion ezer jakinarazi, baina udal garraio enpresak ere ez zuela egin egiaztatu genuen, eta hau –geure iritziz- ez da zuzen jokatzea.

Beste pertsona batek Arartekoarengana jo zuen bera parte zen auzi zibil batean jasaten ari zen atzerapenengatik kexa jartzeko. Azaltzen zuenaren arabera, arazoak sortu ziren kontuan ofiziozko peritu gisa esku hartuko zuen aparejadore bat izendatzerakoan. Dirudenez, ofiziozko txandan izena emanda zeukatzen hainbat profesionalak eskaerari uko egin zioten astirik ez izateagatik –oso ulergarria ez dena eta azkena Eusko Jaurlaritzaren dagokion zerbitzuak (Kudeaketa Unitate Teknikoa) aurrekontua onartuko zuen zain zegoen. Bidezko izapideak eginda, Unitate horren eta Lehen Instantziako Epaitegiaren arteko komunikazioan akats bat izan zela aurkitu genuen, eta behin hori argituta, arazoa konpondu zen. Dena dela, jakin genuen doaneko asistentzia juridikoaren onuradunek eskatutako peritu lanetan eusko administrazioaren langileen esku hartzeari buruzko hitzarmen bat badagoela, -kasu zehatz honetan- aplikatu ez zena, eta epaile batzuen aldetik horren ezagutzarik ez zutela antzeman zitekeela ematen zuen, beraz erakunde honek ofiziozko jarduera bideratzeko asmoa dauka, arazoaren egoera zehazki ezagutzeko.

Beste kasu nahiko deigarria hiru urte lehenago alokairu kontratu bat bertan behera lagatzea, zein ordaintzeke zeuden alokairu sariak kobratzea lortzeko prozedura hasita zeukan herritar bati zegokion. Maizterra etxetik kaleratzeko epaiketara, berez oso azkarra dena, ia pentsaezineko modu batean luzatu zen, baina, errore batzuk eta epaitegiko langileen aldetik nolabaiteko interes falta egon ziren arren, ez zuen ematen behar ez bezalako luzapenez hitz egin zitekeenik. Atzerapena demandatuen oztopatzeko jarreraren ondorioa zen, zeinek, abokatuak zirela baliatuz, ebazpen judizial guztiak errekurritu baitzituzten. Hala ere, ez Bizkaiko Epaitegi Dekanoak ez Abokatuaren Elkargoak ez zuten inolako irregularitasunik antzeman kasua ezagutu zutenean.

Atal honekin amaitzeko aipatuko dugu erakunde honek elkarlanean jardun zuela Kataluniako Sindic de Greuges delakoarekin. Gasteizko epaitegi batek Kataluniako herritar bat urte bete gidatzeko baimenik barik zigortu zuen, eta kataluniar honek esaten zuen ezin zuela bere gidatzeko baimena berreskuratu, bere udalerriko bake epaitegian jarri zuenetik zigorraren denbora igarota zegoen arren. Arazoa sortu zen epaitegi horretan agiria entregatu zen eguna ez zelako idatziz jarri, eta horregatik Arabako epaitegiak ezin zuen zigorra betetzen hasi zen une zehatza finkatu. Azkenik, hainbat frogara bide desberdinen bidez, eskatzaileak gidatzeko baimena esandako egunetan entregatu zuela frogatu zen eta zigorra betetzat jo zen. Zehapenaren behar ez bezalako luzapenak eragin ahal dizkion kalteak eskabide batez planteatu beharko dira, hala balegokio, justizia administrazioaren ondare erantzukizunagatik.

Hitzaurre honen hasieran idatziz jaso den bezala, **abokatu edo prokuradoreen elkargoen** funtzionamenduaren inguruan euskal herritarrek aurkeztu dituzten erreklamazioak ere ez dira oso ugariak izan. Erabiltzaile batzuek protestak aurkeztu dituzte aipatutako profesional batzuen jarduera ustez okerregatik, baina erakunde hau ezin da sartu partikularren artean sortutako liskarretan, beraz kexa horiek ez dira izapidetzera onartu, baina eskatzaileei jakinarazi zaie dagokien elkargora jotzeko aukera badutela, elkargo horrek lanbidearen jarduera egokia zaindu behar baitu.

Alor honetan, Arartekoari dagokio aipatutako korporazio profesionalen neurri administratiboari begiratzea. Tamalez, beharbada urte honetan zehar gai honen inguruan nabarmenena Bizkaiko Abokatu Elkargoaren kolaborazio falta izan da. Eusko Jaurlaritzari egindako 2000 urteko txostenean idatziz jasotzen genuen hobekuntza nabaritu genuela erakunde horren jarreraren eta gure informazio eskabideak azkar erantzuten zirela, nahiz

eta 1999ko kontu batzuk artean erantzun gabe ere egon. Bada, egoera ez da aldatu eta erantzuna jaso gabe jarraitzen dugu. Oso litekeena da, igaro den denbora igaro ondoren, kontuak nolabait konpondu izatea, baina begi bistakoa da informazio faltak gure esku hartzea modu egoki batean amaitutzat ematea galarazten duela.

Urte honetan zehar berandutzeren bat antzeman da Abokatuen Euskal Kontseiluaren kolaborazioaren aldetik ere. Izan ere, Arabako Abokatuen Elkargoaren Gobernu Batzordeak emandako ebazpen baten aurrean elkarte honetan gorago helegitea jarrita zuen erreklamatu zuen batek kexa bat aurkeztu zuen berrikuspenerako izapidetutako espediente eskuratzeko lagatzen ez ziotelako. Arartekoak ulertu zuen Kontseiluak emandako argudioa, interesdunak auzitegietara jo zezakeela eta, behin bertan izanik, espediente eskuratu zuela alegia, ez zela onargarria. Arrazoi honengatik, erakunde horretara jo zuen ukazioaren arrazoiez galdetzera, printzipioz, Legeak espediente administratiboetako interesdun guztiei ematen dizkien eskubideen kontra zihola ematen baitzuen. Hala ere, txosten hau egiten ari garenean eta gure eskaera egin genuenetik urte bat igaro denean, Abokatuen Euskal Kontseiluak erantzuna eman gabe jarraitzen du.

Jakina denez, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak kudeatzen du **adin txikiko lege hausleei** ezartzen zaizkien neurri judizialak betetzearena. Txosten honen I. Kapituluaren 1.1.6 atalean azaldu dira, adin txikikoen erantzukizun penaleko legea indarrean daraman lehen urte honetan zehar erakunde honek burutu dituen jarduerak Gazte Justizia Zerbitzuaren funtzionamenduaren inguruan. Baina, geure ekimenez burututako begiratze lan horrezaz gain, kexa bat jaso dugu gai horren inguruan. Guardia Zibilak terrorismoaren kontrako arauen aplikazioan atxilotutako adin txikiko biren senitartekoez kontatzen zuten, Entzutegi Nazionalako adin txikikoen fiskalak lehenengo unean Aramaioko (Araba) adin txikikoen zentroan lo egin behar zutela jakinarazi zien arren, azkenean polizia gorputz horrek Legution (Araba) daukan polizia etxera eraman zituztela, non –mutil biek salatu zuten- tratu txarrak jaso zituzten.

Gure informazio eskabideari erantzunez, Justiziako Sailburuordetzak esan zuen, hala zela, ez zuelako iritzi fiskalaren eskaera bete behar zenik, egin zen moduagatik ez eze –dirudenez, sail horrek kexa bat egin du horregatik Estatuaren fiskal nagusiaren aurrean-, EAEko zerbitzuak Entzutegi Nazionalak (EN) erabakitako badaezpadako atxiloteta bat betetzeko eskudunak ez zirela ulertzen zelako ere. Zentzu honetan 7/2000 Lege Organikoak –adin txikikoen lege penala indarrean sartu aurretik hura aldatu eta bere edukiaz konstituzioaren kontrakoa izatearen auzia planteatuta duenak- bere laugarren xedapen gehigarrian dio neurri mota horiek Estatuako Gobernuak finkatutako zentro espezifikoetan burutuko direla eta horien gainean hitzarmenak izenpetu daitezkeela, hala balegokio, autonomia erkidegoekin.

Egia da EAEn ez dagoela halako itunik eta, gainera, zilegia litzatekeela A.N.ri, inplikatuak adin txikiak izatea kontuan izan gabe, ekintza terroristekin zerikusia duen edozein arau hauste epaitzeko eskumena ematearen erabaki politiko-kriminala kritikatzeko. Hala ere, erakunde honek uste du zigor erantzukizuneko lege oren funtsezko ardatza den adin txikikoen interesaren arduraren, adin txikikoak helduak atxilotzeko egoitzetan giltzapetzea ekidin behar diren ondorioz, gomendagarria zatekeela bi nerabe arabar horien atxilotzea gauzatzeko Administrazio autonomikoaren lankidetzara puntuala eduki izana.

Justiziaren eremuan izandako gaien errepasoa amaitzeko, epaitegietara eramandako auzien inguruko gaiak izanik, erakunde honek izapidetzeko onartu ezin izan diren kexak

aipatuko ditugu. Logikoki, **uko egin zaien kexa** askotan, Arartekoari herri administrazioek ustez egindako irregulartasunak planteatzen ziren, aldi berean, administrazioarekiko auzi bideko jurisdikzioaren aurrean ere errekurrituta zeudenak. Herritarrek auzitegiatiko ebazpenez egiten dituzten erreklamaziorik gehienak beste jurisdikzio maila batzuen gainekoak dira.

Esparru zibilean, gaien ugaritasuna amaigabea da, baina asko eta askotan ukitutako en gogoia ez dela ikusten da, zeren prozedura luze eta -maiz- garestietan parte hartu ondoren, ez baitute azpian dagoen auzirako konponbide eragingarririk lortu. Kasurik lazgarrienetako bat, trafikoko istripu batean inplikaturako autoetako batean zihorean lesio larriak jasan zituen emakume batena da. Sendatzeak eta ondorioen zehaztapenak luzaro iraun zuenez, demandaren planteamenduan arazo bat sortu zen eta, hasiera batean berarentzako kalte ordain bat ezarri zen arren, apelazioko errekurtsioan erreklamazioaren preskripzioa ebatzi zen. Interesatuak Bizkaiko Abokatuaren Elkargora jo zuen, zeinek abokatuaren jarrera axolagabea antzemanen abokatuaren erantzukizun zibila zegoela iritzi baitzion. Abokatuaren Elkargoarekin arrisku hori aseguratatu zuten konpainien artean adostasunik lortu ez zenez, demanda berri bat planteatu behar izan zen, non emakumeari berriro ere kalte ordaina onetsi zitzaion, baina epaia errekurritu eta bere garaian preskripzioa ebatzi zuen Bizkaiko Entzutegi Probintzialeko atal berberak, oraingoan abokatuaren aldetik inolako axolagabekeriarik ez zegoela erabaki zuen, zeren abokatuaren erantzukizunaren irudi agokorraren interpretazioa mantentzera mugatu baitzen. Epaia horren ondorioz, herritarra, istripuaren ondorio larrien inolako kalte ordainik gabe geratu ez eze, kostak ordaintzera ere zigortu dute, eta aseguru konpainietako letratuei diru kopuru handiak ordaintzera behartu dute.

Era berean, esparru zibilaren barruan, kolektibo gisa bereziki ukitzen zieten epaiekiko desadostasuna adierazten zuten emakumeen zenbait kexa jaso ditugu erakunde honetan. Batek Genero-indarkeriarekin zerikusia zuen; erreklamatu zuenak zioen, salaketa bat baino gehiago jarri zuen arren, ez zuela erasotzaileari biktimarengana hurbiltzea debekatzen dion kautelazko neurririk hartzerik lortu. Ondorioztatu ahal izan genuenez, arazoia salaketa desberdinek falta epaiketarako eragingo zituztela izango zen, non ez baitago aipaturako neurririk hartzeko aukerarik. Antza, azken garaian ohiko eraso delituarengatik prozedura abiarazia zen (ZK. 153. art.), beraz, kexa jarri zuen emakumeari "urruntzeko agindua" izenekoa berriro eskatzeko gomendatu genion.

Bereziki emakumei ukitzen dieten beste gai batzuek banantzeko eta dibortziazko prozedurei buruzkoak dira eta, zehazki, konpentsazio edo elikagaien pentsioak ordaindu beharrak izatez gauzatzea lortzeko izaten dituzten oztopoez.

Lan arloko jurisdikzioari dagokionez, gai desberdin ugari ikusten den arren, berria delako, jazarpen moraleko egoera (*mobbing*) baten gaineko kexa aipa daiteke. Fenomeno horri merezi duen garrantzia ematen hasi dira, baina epaitegiatiko ikuspegitik hurbilketa, oraindik orain, ez da bat ere erraza.

Partikularrek zigor ebazpenen gainean egiten dituzten kritikak ere ez dira homogeneoak. Lehenago aipatu ditugu badaezpada espetxeratuta dauden pertsonen egindako kexak. Zigor zehapenen aplikazioari dagokionez, gazte batek, kezkatuta, azaldu zigun droga mendetasun arazoak zituen garai batean espetxe zigor bat ezarri ziotela eta, handik luzarora, gizarte eta lan munduan ondo sartuta zegoenean, espetxera joatera behartu nahi zutela.

Aipagarriak dira, halaber, legez kanpoko egitate baten ondorioak jasan dituzten pertsonen planteatutako arazoak. Azken urteotan delituen biktimak hobeto artatzeko egindako ahaleginak hor dauden arren –justizia jauregietan berariazko zerbitzuak sortuz, esaterako- zigor sistemak oraindik oztopoak jartzen dizkie kaltetuek beren interes, beharizan eta eskari zehatzak adierazi ahal izan dituzten.

Arartekoak kezka iraunkorra dauka gai horren inguruan, eta uste du Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak lehentasuna eman behar diola. Baina ulertzen du, era berean, delituen biktimganako interesak ez duela zigortzeko zurruntasuna gehitzea ekarri behar, zigor ikuspegia aldaraztera jo behar duela baizik, egindako kaltea konpontzeko lehentasunezko xedetzat hartuz, eta kalteak konpontzeko delitua jasan duen pertsonaren ikuspegiari eta bizipenari garrantzirik handiena eman behar zaiola.

Norabide berari heldu diogu oso bestelako gai batean, non antolamendu juridiko demokratikoaren aurkako egitate batzuek eragindako ondorioak aitortu eta konpontzea planteatzen baitzen. 1969an polizien tiroen ondorioz hil ziren Erandioko bi herritarren senideek bideratu zuten erreklamazioaz ari gara. Bakearen kultura finkatuko bada, iraganeko akatsak eta bidegabekeriak publikoki aitortu beharko dira, gure ustez. Horregatik, gaia Eusko Legebiltzarreko buruari helaraztea erabaki dugu, zerebm gure ustez, Erandioko bi herritar horien kasua Gasteizen 1976ko martxoaren 3an poliziak hil zituen pertsonen kasuaren antzekoa baita, beraz, Erandiokoei ere Legebiltzararen osoko Bilkurak Gasteizkoei emandako tratamenduaren antzekoa ematea komeniko litzateke.

8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Abokatu eta prokuradoreen elkargoak

⇒ *Atzerapena Prokuradoreen Elkargoan aurkeztutako kexa baten ebazpenean (826/2001)*

- Erreklamazioa

Erreklamatzeko duenak behin baino gehiagotan jo du erakunde honengana arazo berarekin: Auziperatzeetan peritu aritzen da, eta bera proposatu duten alderdiaren prokuradoreek ez dizkiote lan sariak ordaintzen. Horrela planteatutako gaiak partikularren arteko gatazka dagoela erakusten duenez, erakunde hau kexa horiek atzera botatzera behartuta egon da. Erreklamatzeko duenak gure jarduerarekin bat ez zetorrela zioen gutunetako batean, ordea, idatzi bat ere aipatu zuen- kopia erantsi zigun-, Bizkaiko Prokuradoreen Elkargora bere ustez zegokiena bete ez zuten elkargoko kideen aurrean esku hartzeko eskatuz helarazi zuena, eta erantzunik jaso ez zuela gehitzen zuen.

- Azterketa

Erakunde honen iritziz, idatzia aurkeztu zuenetik igarotako denbora gehiegizkoa zen. Gainera, lehendik ere bagenekien, duela urte batzuek izapidetutako espediente batengatik, erreklamatzeko duenak aipatutako elkargoarekin arazoak izan zituela, bere kexei erantzuten ez zitelako. Horregatik, Prokuradoreen Elkargora jo genuen, beren

lanbidearen gaineko kontrol deontologikoan jardun behar zutela gogorarazteko, baita erreklamatzeko duenak esku hartzeko egin zien eskariari erantzun behar ziotela ere, besterik ez bazen planteatutako gaien gaineko azalpen bat emanez.

- Emaizta

Erantzunean, Prokuradoreen Elkargoak jakinarazi zigun erreklamatzeko duenak beraiengana eta zenbait prokuradoreengana idatzi erabat bidegabeen bidez zuzendu dela, eta artxiboetan bere profesionaltasun eskasaren eta modu txarren gaineko prokuradore batzuen keak zeuzkatela. Bestalde, elkargoaren ustez, Auziperatze Zibileko Lege berriaren 26.7 artikulua arabera, prokuradoreak ez du perituen fakturak ordaintzen ibili beharrik, beraz, erreklamatzeko duenak dagokion subjektu pasiboarengana jo beharko lukeela.

Azkeneko kontu honen gainean, komeni da argitzea, perituen jardura eta lan sari asko lege hori indarrean jarri aurrekoak ziren arren, erantzun gabe utzi zioten idatzia legea indarrean jarri ostekoa zela.

Edonola ere, Arartekoak gai honetan esku hartu bazuen, ez zen sakoneko kontuengatik izan –horietan ez baikara sartu-, lanbide elkargoak interesatuaren idatzien aurrean isilik geratu zelako baizik. Horren harira, erakunde hau bat dator elkargoaren ordezkariarekin erreklamazio hauen egileak erabiltzen dituen tonua eta esapideak guztiz bidegabeak eta errespeturik gabekoak direla, baina uste du horrek ez duela Elkargoak hark egindako keza eta eskariei erantzun behar diela kentzen.

Hala ere, kasu honetan uler daiteke betebeharrak hori zeharka bete dela, elkargoak, laburtuta bada ere, erreklamatzeko duenak eskatutako gestioak egitea ez zegozkion argitzeko arrazoiak eta, erakunde honek, azalpen horiek interesatuari helarazi dizkio. Azken finean, uste dugu Prokuradoreen Elkargoaren erantzunik ezaren ondoriozko irregulartasuna konponduta geratu dela.

B) Justizia Administrazioaren funtzionamendua

⇒ *Atzerapena alderdiek doako artapen juridikoa daukaten prozedura zibil batean peritua izendatzeko (336/2001)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen berak zeukan auzi batean erabakitako frogaren batean ofiziozko arkitekto gisa esku hartu behar zuen arkitekto tekniko bat izendatzeko sortzen ari ziren arazoak azaltzeko. Antza, ofiziozko txandak aurretik izendatutako profesional desberdinek lan gehiegi zeukatela joaterik ez zeukatela esana zuten eta, azkenean txosten teknikoak egitea onartu zuen perituen aurretik Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak bere aurrekontua onestea exijitzen zuen. Erreklamatu zuenak zioenaren arabera, Kudeaketako Sail Tekniko honek (EAT izenez ezagutua) egin behar zuen izapidean prozesu judizial guztia geldiarazi zen.

- Azterketa

Erreklamatzeko duenak emandako informazioak ikusita, Bizkaiko EATEko arduradunarengana jo genuen, berandutzearen arrazoiak jakiteko. Horrela jakin ahal izan

genuen zerbitzu horrek bi hilabete zeramala epaitegiari eskatutako peritu lanaren xedearn gaineko xehetasun batzuen zain. Datu berri honekin, epaitegian gestio bat egin genuen, eta erantzun ziguten bazela hilabete EATera faxa bidali zutela, eskatutako informazioaz. EATEk, ordea, fax hori inoiz ez duela jaso berretsi zuen baina, arazoa argitu ondoren, epaitegiak eskatutako argitasunak berriro bidali zizkien.

- Emaidza

Behin perituaren txostenaren xedea xehetasunez ezagututa, EATEk epaitegiari arkitekto teknikoaren aurrekontuaren onespena jakinarazi zionez, azkenean froga hur egin ahal izan zen.

Hala ere, gai hau zela-eta izandako elkarrizketa batean, EATEko arduradun batek erakunde honi azaldu zion, bere iritziz, kasu honetan ofiziozko perituaren izendapena ez zela zuzen egin, ez baitzen Justizia Administrazioaren eta EAEko Administrazioaren arteko koordinazio prozedurarik jarraitu, prozedura horretan, ahal dela, perituen doako asistentzia herri administrazioen menpeko perituek egin dezatela lortu nahi baita. Ñabardura horiei jaramon eginez, Arartekoak egoki iritzi dio ofiziozko jardura bati ekiteari, doako asistentzia juridikoaren onuradunek eskatutako peritu lanak egiteko ezarrita dauden prozeduren aplikazioa ikuskatzeko.

9. INGURUMENA

9.1. SARRERA

2001. urteari dagokion ekitaldian, arlo horretako kexak 80 izan ziren. Hortaz, jasotako kexa guztiei begira, ingurumenaren arlokoek % 6,60 ordezkutzen dute.

Kexek zein administrazio ukitzen zuten kontuan hartuta, kexok honetara sailka daitezke:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	2
- Foru Administrazioa	5
- Tokiko Administrazioa	76

Edukiaren arabera, hurrengoak bereiz daitezke:

Egoitza-lurrean sailkatutako jarduerak	63
Ingurumenean eragina duten beste alderdi batzuk	8
Industria-lurrean sailkatutako jarduerak	6
Lur urbanizaezinean sailkatutako jarduerak	1
Naturaren gune babestuak. Flora eta faunaren babesa	1
Hondakinak eta isuriak	1

Aurreko urteetan bezalaxe, 2001. urtean ere, sailkatutako jarduerak ingurumenean ondorio kaltegarriak izan zituzten eta, ondorenez, hainbat kexa helarazi zitzaizkigun. Kexa horietan, arreta berezia jarri genuen. Ostalaritzako establezimenduak (berbarako, tabernak, pubak, jatetxeak, txokoak edo elkarte gastronomikoak) hiriko egoitza-lurrean daudenez gero, horiek dira biztanleriarengan eragin handiagoa duten instalazioak.

Orokorrean, 2001. urtean, hauxe igarri genuen: auzotarrek euren salaketak helarazi zizkiguten, sailkatutako jardueren aurka, jarduera horiek zaratak eta eragozpenak sorrarazten zituztelako; auzotarrak aspertuta zeuden, epe luzean halako arazoak jasategatik, eta, horrez gain, etsituta ere bazeuden, udaleko agintariak ez zutelako neurri berezi, zehatzaile edo derrigorrezkorik ezartzen, salatutako arazoak konpontzeko.

Erakunde honek kexa-espeditenteen izapidetza egin zuen eta, hori egitean, beste behin ere atzeman zuen udalek gutxietsi egiten zituztela establezimendu publikoen gaineko ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak. Horregatik, berriro ere Arartekoari dagokio tokiko korporazioei hurrengo gogoratzea: ikuskapen-ahalmena erabiltzeak egundoko garrantzia du —batez ere, kontuan hartzen bada instalazio horien jardunbidean irregulartasunak daudela eta irregulartasun horiek herritarrengan eragina dutela—; udalaren aginduzko baimenek neurri zuzentzaileak ezartzen dituztenez gero, tokiko korporazioei dagokie neurri horiek betetzen diren ala ez egiaztatzea.

Argiago esateko, udalek, une oro, zaindu eta bermatu behar dute eurek baimendu dituzten jarduerak bat datozela udal baimenarekin; izan ere, baimen horrek zenbait murrizketa eta neurri zuzentzaile ezartzen ditu, eta horiek betetzen direla ziurtatu behar da. Gainera, baimendutako instalazioak zenbait parametro eta muga bete behar dituzte gero, hori ikuskatzea ere udalei dagokie. Eta, jokabide edo jarrera batzuk deserosoak badira, jendeak atsedena har dezan, edota jokabide edo jarrera horiek oztopatzen badute, herritarrek kalitatezko ingurumena izan dezaten, orduan udalek neurri zehatzaileak hartu

behar dituzte, jokabide edo jarrera horiek bukarazteko. Indarreko antolamendu juridikoak halako bideak eskaintzen dizkie udalei, herritarren interes orokorra babes dezaten.

2001eko ekitaldian, gure udalerrietan, gero eta gehiago gertatu zen honako egitate hau: merkataritzako lonjak erabiltzen ziren, bilerak egiteko toki gisa. Ildo horretatik, jabeen erkidego batzuek salatu zuten, euren etxebizitzan azpiko lonjetan, gazte-taldeak biltzen zirela eta, euren jardunean, gazteok zaratak eta eragozpenak sorrarazten zituztela. Izan ere, gazteok lonja horiek alokatzen zituzten, gero bertan bilerak egiteko, musikatresnak jartzeko, telebista ikusteko..., eta lonja horiek ez zeuden behar bezala atonduta, bertan halako jarduerak egin zitezten.

Erakunde honek kexa-espeditenteen izapidetza egin zuenean, haxe igarri zuen: udal batzuek, arazo horren gaineko ardura izatearen ondorioz, salatutako jarduerak aztertu zituzten, eta aginduzko jarduera-baimenik gabe burutzen zirela egiaztatu zuten –Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 65. artikulua aplikatuz–; ondoren, jarduera horiek bukarazi zituzten, harik eta aipatutako legearen 55. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako prozedura bete eta jarduerok legeztatu arte.

Hala eta guztiz ere, kaltetun batzuek Arartekoarengana jo zuten. Kaltetun horiek adierazi zuten, tokiko beste erakunde batzuek jurisdikzio zibilera eraman arazoa, erakunde horiek uste zutelako bilera-lokalak ez zirela sartzen sailkatutako jardueren artean.

Iritzi hori ez dator bat gure legeriak jasotzen dituen aginduekin.

1961ko abenduaren 30ean, orduko, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua onetsi zen (JGOKAE), 2.414/1961 Dekretuaren bidez. Erregelamendu horrek beren beregi ezarri zuen zein jarduera izango zen gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsu; halako jarduerak Administrazioaren esku-hartzearen menpe geratu ziren. Horren inguruan, 1. artikulua adierazi zuen zein irizpide aplikatu behar zen, kasuan kasuko jarduera sailkatutako jardueretik bat izan zedin. Zehatz-mehatz esateko, 1. artikulua haxe adierazi zuen: *“Erregelamendu hau nahitaez bete behar da estatuaren lurralde osoan. Erregelamendu honen helburua da instalazio, establezimendu, jarduera eta industria ofizial nahiz banakakoei, publiko nahiz pribatuei, bereizketarik egin gabe, ‘jarduerak’ izena ematea, eta, ahal den neurrian, saihestea, horiek eragozpenak eragin ditzaten, ingurumeneko osasungarritasun-baldintzak eta garbitasun-baldintzak alda ditzaten, eta aberastasun publiko nahiz pribatuari kalte egin diezaioten edota pertsonentzat zein ondasunentzat arrisku larriak ekar ditzaten”*.

Era berean ere, JGOKAEn 2. artikulua haxe gaineratu zuen: *“Erregelamendu honen aginduen menpe geratzen dira ‘jarduera’ guztiak, bakoitzak berari dagokion neurrian, baldin eta jarduera horiek, erregelamendu honen ondoretarako, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuen artean sailkatu badira; horretarako, kontuan hartuko dira hurrengo artikuluetan jasotako definizioak, baina ez da erabakigarria izango jarduera horiek izendegi erantsian agertzea, izendegi hori ez baita mugatzailea”*.

Gainera, erregelamenduak identifikatu egin zituen deserosotasun-iturriak eta eragozpen-iturriak. Hori egitean, arauak hurrengo ezarri zuen: *“Kasuan kasuko jarduerak jarduera gogaikarrien artean sailkatuko dira, baldin eta deserosoak badira, zaratak edo dardarak eragiten dituztelako, edo keak, gasak, usainak, lainoak, esekitako hautsak edo gaiak askatzen dituztelako”*.

Ondorenez, jarduera zehatz horiek instalatu eta horietan aritzeko, araubide berezia bete behar da. Arautegi berezia aplikatzeko arrazoia, agidanez, jarraikoa da: jarduera horien funtzionamenduak ondorio kaltegarriak izan ditzake, edo eragozpenak nahiz deserosotasunak eragin ditzake. Horregatik, halako jardueri neurri zorrotzagoak aplikatu behar zaizkie. Horrela, interes orokorra babesturik geratuko da, establezimendu horietatik hurbil bizi direnek eskubidea baitute, kalitatezko ingurumena izateko.

Konstituzioaren 45. artikulua berak ingurumenaren gaineko eskubide hori aitortzen du. Hori dela eta, ingurumena babestea nahitaez bete beharreko eskumena da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.f) artikuluaekin bat eginez; jakinaenez, lege horrek arautu ditu tokiko araubidearen oinarriak.

Bestalde, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak arau tekniko orokorrak onetsi ditu, eta arau horiek aplikatu behar zaizkie jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei, baldin eta jarduera horiek hiriko egoitza-lurrean ezarri behar badira. Dekretu horrek aitortu du arauaren aplikazio-eremuan sartzen direla txokoak, kultur elkarteak eta jolaserako elkarteak, betiere, taberna eta jatetxeei dagokien idazpuruan.

Bukatzeko, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua aipatu behar da (EHAO, 1999ko martxoaren 26koa). Horren bidez, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, Osasun Sailak, bai eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak ere, jarduera zehatz batzuen zerrenda finkatu zuten. Jarduera horiek ingurumenaren gainean eragin txikia dutenez gero, ez dute jarduera-baimenik lortu behar; baimen hori agintzen du, jakinaenez, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak. Zerrenda horren arabera, elkartzetxe-jarduerak ez dute jarduera-baimenik lortu behar, baldin eta jarduera horiek etxebizitzaren beheko solairuan edo salbuetatik eraikinetan badaude, eta, bertan, dantza, kantu edo musikaren inguruko jarduerak burutzen badira (III. eranskina, 3.7).

Udaltzaingoak zenbait ikerketa egin ditu, lonja horietan zein jarduera burutzen den jakiteko. Ikerketa horiek egiaztatu dute lonja horietan telebistak eta musika-tresnak erabiltzen direla.

Horregatik, guk uste dugu argi geratu behar dela ondokoa: instalazio horiei sailkatutako jardueren araubidea aplikatu behar zaie eta, horren ondorioz, administrazio-baimena lortu behar dute, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Legearen 55. artikuluari eta ondorengoei helduta.

Kapitulu honetan ere, esanguratsuak izan ziren Kutsadura akustikoari buruz jasotako kezak. Izan ere, auzotarren erkidegoek hainbat keza helarazi zizkiguten, ibilgailuen trafikoak sortutako zaraten ondorioz. Horien inguruan, Bizkaiko Foru Aldundia plan bat prestatzen hasi da, Bizkaiko errepideetako zarataren aurka borrokatzeko. Plan horri esker, zarata-mapak finkatu ahal izango dira eta, mapa horietatik abiatuta, ekintza-plan egokiak ezarri ahal izango dira, zaratek osasunaren gain dituzten ondorio kaltegarriak saihesteko.

2001eko ekitaldian, halaber, zenbait salaketa jaso ziren, industria-jarduerak sorrarazten zituzten kutsaduren ondorioz. Espediente horien izapidetza egitean, Arartekoak egiaztatu zuen udal txiki batzuek ahalegin handiak egin zituztela, kutsagarri izan zitezkeen jarduerak legezatzeko, eta jarduera horiek indarreko antolamendu juridikoan ezarritako muga-balio kutsagarriei egokitzeko. Kontuan hartu behar da jarduera horietatik gehienak aspalditik dabiltzala jardunean, eta erabakigarriak direla, udalerraren ekonomiarentzat.

Bukatzeko, kexa eta kontsulta anitz egin zizkion erakunde honi, telefonia mugikorreko guneek izan zitzaizketen ondorio kaltegarriei buruz, halako guneak ezarri baitziren gure autonomia-erkidegoko hainbat udalerritan.

Arazo horrek, gizartean, kezka larria eragin du eta, zalantzarik gabe, instalazio horiek ageriko disfuntzioak sorrarazten dituzte, hirigunean eta ingurumenean ere (kexa-espeditteen izapidetza egitean, horiek guztiak igarri ahal izan genituen). Hori dela eta, Arartekoak, ofizioz, espeditzea hasi zuen, instalazio horiek izan ditzaketan ondorio guztiak zehaztu ahal izateko.

Arartekoak, orobat, hainbat kudeaketa egin zituen, erakunde publiko desberdinekin. Eta, gaiaren inguruan gertatzen ziren inguruabarrak ikusita, erakunde honek gomendio orokor batera bildu zituen horretarako beren beregi egindako ikerketaren ondorioak.

Ikerketa hori txosten honen VI. kapituluan jaso da, bertan agertzen baitira iradokizun eta gomendio orokorrak. Ikerketaren izenburua jarraikoa da: *“Euskal Autonomia Erkidegoan, arautegi berezia onetsi behar da, telefonia mugikorreko guneak instalatzeko orduan, horretarako baimenak arautzeko.”*

9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak

⇒ Irregularitasunak taberna-jatetxe baten jardunbidean (1125/1999)

- Erreklamazioa

Beasaingo auzotar batzuek salatu egin zuten, hainbat zarata eta eragozpen jasan behar zituztela, euren etxebizitzan azpiko taberna-jatetxearen ondorioz.

- Azterketa

Horren inguruan, Beasaingo Udalak jakinarazi zigun jarduera horrek ez zituela udalaren aginduzko baimenak lortu, jardunean izateko. Gainera, udalak txosten sonometrikoa bidali zigun; txosten hori enpresa espezializatu batek egin zuen, zarata neurtzen aditua baita enpresa hori. Txostenaren arabera, lokalaren isolatze akustikoa askieza zen, ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak ezarritako parametroen betepena ziurtatzeko. Aurretiaz esan dugun bezala, dekretu horrek arau tekniko orokorrak onetsi ditu, eta arau horiek aplikatu behar zaizkie jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei, baldin eta jarduera horiek hiriko egoitza-lurrean ezarri behar badira. Jarduera horientzat, nahitaezkoa da baimenen araubide berezia betetzea eta, horretarako, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren menpe geratzen dira jarduera horiek.

Jarduerak ez badute lortu udalaren aginduzko baimena, orduan erakunde honen irizpidea da jurisprudentziak behin eta berriz zehaztu duena.

Arean ere, Auzitegi Gorenak ezkutuko jardueratzat hartu ditu baimenik gabe egiten direnak. Kasu horietan, Zuzenbidearekin bat dator, kautelazko neurri gisa, udal agintariek jarduera horiek bukaraztea, harik eta JGOKAE horretan ezarritako prozeduraren arabera egoera legezatu arte.

Adibide gisa, oso argigarria delako, Auzitegi Gorenak 1998ko ekainaren 10ean emandako epaia aipa daiteke (Ar. 4.194). Epaia horrek jarraikoa ezarri du:

“... Merkataritzako edo industriako establezimenduak ezkutuan irekitzen badira, edota, jarduerak 1961ko azaroaren 30eko Erregelamenduaren mendekoak izanik, baimenik gabe burutzen badira, orduan, bete-betean eta berehalako eragingarritasunarekin, kautelazko neurriak hartu behar dira; neurri horien arabera, obrei ekitea eten behar da, establezimendua itxi behar da edo jarduera gerarazi behar da. Izan ere, gizarte-elkarbizitzak zenbait muga ezartzen ditu, eta, jarduera horiek denboran zehar luzatuz gero, muga horiek urratzeko arriskua egon daiteke. Horregatik, ezin zaio jarduerari berriz ekin, harik eta baimen egokia lortu arte; baimenak ziurtatuko du arau-hausterik ez dagoela edo, bestela, horiek zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen direla.”

Irizpide berbera jasotzen da, orobat, Auzitegi Gorenaren beste epai batzuetan, esate baterako, 1988ko otsailaren 1ekoan (Ar.669) eta 1987ko apirilaren 24koan (Ar.3.158)...

Gainera, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, establezimenduak ixteari buruz, bereizi egiten ditu bi kasu hauek: batetik, jarduera bukaraztea, jarduera horrek baimena duenean; eta, bestetik, establezimendu publikoa ixtea, horrek baimenik ez duenean. Adibide moduan, eta hau ere argigarria delako, Auzitegi Gorenak 1986ko urriaren 4an emandako epaia aipatu behar da (Ar. 7402):

“... Jarduerak baimenik gabe burutzen badira, orduan horiek bukarazi behar dira. Horretarako zein prozedura bete behar den jakiteko, kontuan izan behar da ez dela gauza bera jarduera baimenduak bukaraztea eta baimenik ez duten jarduerak bukaraztea. Lehendabiziko kasuan, tartean baimena dagoenez gero, hau da, Administrazioak aurretiaz kontrola egin duenez gero, justifikatuta dago 1961eko azaroaren 30eko Erregelamenduaren 36. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako izapideak egitea. Bigarren kasuan, baimenik ez dagoenez gero, aurretiaz ez da Administrazioaren kontrolik izan; horregatik, itxiera erabakitzeko, nahiko da baimenik ez dagoela egiaztatzea, betiere, interesdunari entzunaldia eginez, entzunaldi hori ezartzen baitute APLren 91. art.ak eta Konstituzioaren 105 c) artikulua ere. Hortaz, entzunaldia ezinbestekoa da, salbu eta arriskua dagoenean etab.”

Irizpide berbera jasotzen da, berebat, Auzitegi Gorenaren beste epai batzuetan, besteak beste, 1990eko otsailaren 21ekoan (Ar. 1507) eta 1988ko otsailaren 1ekoan (Ar. 669).

Ohar horiek guztiak kontuan hartuta, Beasaingo Udalarari urriaren 6ko 36/2000 gomendioa luzatu genion. Jarraian, gomendio horren hitzak alderatuko ditugu hona:

“Alkatetzak Dekretua emango du eta, dekretu horretan, kautelazko neurri gisa, Beasaingo (...) kaleko taberna-jatetxea berehala ixteko aginduko du. Dena den, aldeztu aurretik, interesdunari entzunaldia egingo zaio, hala agintzen baitu Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 65a) artikulua.”

- Emaidza

Udalak jakinarazi zigun jarduera bukarazi zuela, eta titularrek dokumentazio egokia aurkeztu zutela, jarduera hori legeztatzeko. Udalak hori jakinarazi zien auzotarrei, jardueramota horrentzat ezarritako administrazio-prozeduraren arabera.

Hori dela eta, erakunde honek gomendioa onartutakotzat jo zuen, eta espedientea itxi eta artxibatu egin zuen.

⇒ *Terraza bat herri-bidean zegoen, eta horren jardunbideak zaratak eta eragozpenak sortzen zituen (864/2000)*

- Erreklamazioa

Bilboko auzotar batzuek zaratak eta eragozpenak salatu zituzten, euren etxebizitzaren azpian eta, zehatzago, herri-bidean, terraza bat instalatu zelako. Zehatzago esateko, interesdunek udal agintarien kontrola erreklamatzeko zuten, terrazaren jardunbideak ordutegia bete zezan.

Arartekoak Bilboko Udalera jo zuen, gaiaren inguruko informazioa eskatzeko.

- Azterketa

Gure eskariari erantzunez, Bilboko Udalak terrazaren inguruko informazioa eta dokumentazioa eman zigun. Zehatz-mehatz esateko, udalak hauek guztiak bidali zizkigun: 1998, 1999 eta 2000. urteetan, terraza instalatzeko emandako baimenak eta baimen horiei zegozkien udal-espedienteen kopiak; auzotarrek gai horren inguruan egindako salaketak; eta, era berean, Udaltzaingoak egindako ikuskapen-aktak.

Jakina denez, Udal Ordenantzak arautzen du herri bidean terrazak eta beladoreak instalatzea. Aztergai dugun terrazak ez zuen ordenantza hori betetzen. Horregatik, Arartekoak berriz jo zuen Bilboko Udalarengana, erakunde honek jakin nahi zuelako ea udalak espediente zehatzaileen izapidetza egin zuen, terraza horren aurka.

Udalak jakinarazi zigun, 2000. urtean zehar, espediente zehatzaileen izapidetza egin zituela, terraza horren titularraren aurka. Gainera, udalak adierazi zigun Planeamenduko Sailburuordetzak bazuela gure idazkiaren berri, eta, 2001. urtean, beladore horren aurkako diziplina-jarduerak aurreikusita zituela.

Txosten horren edukia ikusita, Arartekoak ondorio hau atera zuen: Udal Ordenantzak arautzen du herri-bidean terrazak eta beladoreak instalatzea eta, Udaltzaingoak egin zituen ikerketen arabera, zenbait jarduera egiaztatu ziren; baina Bilboko Udalak ez zituen administrazio-espediente egokiak ireki, jarduera horiek Udal Ordenantza urratzen zuten ala ez zehazteko.

Zernahi gisaz, udalak erakunde honi bidalitako azken txostenaren arabera, udal agintaritzak konpromisoa hartzen zuen, diziplina-jarduera egokiak burutzeko, instalazioaren jardunbideak eragiten zituen ustezko arau-hausteen aurka.

- Emaidza

Ondorioen txostenean, Arartekoak Bilboko Udaleko Alkatetzari gogorarazi zion, kasu horietarako, arautegi berezia aplikatu behar dela. Arautegi hori bete beharrekoa da, subjektu pribatuentzat ez ezik, Administrazioarentzat berarentzat ere, legezkotasun-printzipioa botere publikoen jardura guztietan gauzatu behar delako.

Bide horretatik, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak tokiko araubidearen oinarriak arautu ditu. Bada, lege horren 21.1k) artikulua ahalmen zehatzailea ematen die udalei. Udalek, ahalmen hori erabiliz, nahitaezkoak diren espediente zehatzaileak ireki behar dituzte, baldin eta udal ordenantzen aurkako arau-hausteak egiaztatzen badituzte. Arauek herri administrazioei ahalmen zehatzailea ematen dietenean, arau horiek ez dira apeta hutsekoak. Aitzitik, arauak sortzen dira, Herri Administrazioaren eskumen-esparruan zenbait arau-hauste gertatzen direlako eta arau-hauste edo jokabide horiek zigortu behar direlako.

⇒ *Udalaren lokal batean jarduera zinematografikoa burutzen zen, eta horrek zaratak eta eragozpenak sortzen zituen (1117/2000)*

- Erreklamazioa

Santurtziko auzotar batzuek kexa helarazi zioten Arartekoari, udalaren titulartasunpeko zinemak zarata handiak egiten zituelako. Hurbileko auzoetakoek salaketak egin zizkieten agintaritzari, jarduera hasi zen unetik beretik; baina udalak ez zuen ezer egin, salaketa horiei begira.

Kexaren izapidetza onartu eta gero, Arartekoak Santurtziko Udalera jo zuen. Erakunde honek informazio-eskaria egin zion udalari, jarduera horren administrazio-egoera eta hirigintzako egoera zehazteko.

- Azterketa

Hasierako unean, Santurtziko Udalak adierazi zigun Gobernu Batzordeak erabaki zuela Serantes Kultur Aretoan jarduera baimentzea.

Era berean, udalak jakinarazi zigunez, Serantes Kultur Aretoa izeneko udal erakunde autonomoak bazekien zinematik hurbil bizi ziren auzotarrek eragozpenak salatu zituztela. Eragozpen horien berri izan eta gero, erakunde autonomo horrek ikerketa akustikoa agindu zuen, eta ikerketak egiaztatu zuen bazirela, izan, zenbait eragozpen.

Ildo horretatik, udalak adierazi zuen zailtasun tekniko handiak zeudela, zarataren transmisioa zergatik gertatzen zen jakiteko. Gainera, erakundeak ez zeukan teknikari kualifikaturik, ikerketa hori egiteko. Horregatik, laguntza tekniko kontratatzeke espediente ireki zuen. Laguntza tekniko horren bitartez, gai horretan aditua den laborategi bat kontratatu behar zen, eta laborategi horrek aholku teknikoak emango zituen; aholku horien arabera, proposamen bat egingo zen, beharrezkoak ziren berrikuntza akustikoen norainokoa eta bideragarritasun teknikoak definitzeko.

Jardueratik hurbil bizi ziren auzotarrek lehenengo salaketa aurkeztu zutenetik, bost urte baino gehiago igaro zirenez gero, Arartekoak egokitzat jo zuen Santurtziko Udalari beste idazki bat bidaltzea, kontratazio-espediente egokia zein datatan hasiko zen jakiteko.

Serantes Kultur Aretoa izeneko erakunde autonomoaren zuzendariak Arartekoari jakinarazi zion erakunde horren asmoa zela azaldutako arazo guztiak konpontzea; zuzendariak esan zuen orduko neurri egokiak hartuak zituela. Bide horretatik, zuzendariak adierazi zigun zein datatan hasi zen aholkularitza eta laguntzarako kontratazio-espediente, eta nori adjudikatu zitzaion aipatutako kontratu hori.

- Emaidza

Udalak, azkenik, hasi zituen, salatutako arazoak konpontzeko beharrezkoak ziren jarduerak. Hori ikusita, Arartekoak bukaera eman zion bere esku-hartzeari.

⇒ *Gaztetxe baten jarduerak zaratak sortzen zituen (136/2001)*

- Erreklamazioa

Udalaren titulartasunpeko gaztetxe bat eraikin bakartu edo isolatu batean zegoen, baina egoitza-auzune batetik hurbil. Gaztetxe horrek zaratak eta eragozpenak sorrarazten zituen, auzune horretako biztanleentzat. Biztanleok salatu zuten udalak ez zuela inola ere kontrolatzen, gaueko orduetan bertan egindako jarduera. Era berean, auzotar horiek Arartekoari jakinarazi zioten, egoera horren ondorioz, auzotarrek hitzezko liskarrak izan zituztela, lokal horren erabiltzaile gazteekin.

- Azterketa

Erakunde honek Errenteriako Udalari informazioa bidali zion, hartu beharreko neurriei buruz; neurri horiek har zitezkeen, erreklamaziogileek azaldutako arazoak behar bezala konpontzeko. Arartekoak adierazi zuen bezala, udal korporazioak gazteentzako kultur ekintzak eta sustapen-ekintzak bultzatu eta suspertu behar ditu. Baina, aldi berean, nahitaezkoa da elementu zuzentzaileak sartzea; elementu horien bitartez, modu baketsuan eta elkarrekin izan daitezke, batetik, kulturarako eskubidea eta aisialdirako eskubidea eta, bestetik, atsedena hartzeko eskubidea eta kalitatezko ingurumena izateko eskubidea. Ildo horretatik, Arartekoak udalari adierazi zion, udal horrek neurri egokiak hartu behar zituela, aldi berean izan daitezen, batetik, gazteentzako kultur ekintzak eta sustapen-ekintzak eta, bestetik, entzumeneko eraso gogaikarririk izan gabe, herritarrek ingurumen egokia izateko duten eskubidea.

- Emaidza

Eskari horri erantzunez, udal agintaritzak jakinarazi zigun zein erabaki hartu zuen udalak. Arean ere, udalak erakunde zehatz bati lagatzen zion lokalaren erabilera, eta erakunde horrekin hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen horretan, beren beregi debekatuta zegoen lokalean taberna bat jartzea. Gainera, hitzarmenari eutsiz, lokalak une orotan bete behar zuen ikuskizunen arloan eta sailkatutako jarduerentzat indarrean dagoen arautegia. Eraikin horrek isolatze akustikorik ez duenez gero, esanbidez ez bada ere, isilbidez bai, debekaturik geratzen ziren auzotarrei enbarazu egiten zieten jarduera guztiak.

Bukatzeko, udal agintaritzak adierazi zigun Udaltzaingoak jarraibide zehatzak jaso zituela, eta Udaltzaingoak orain bazekiela gaztetxeak ez zuela inolako baimenik, bertan halako jarduerak egiteko. Hori jakinda, Udaltzaingoak aurrerantzean jardun egokia burutuko zuen.

⇒ *Turismoko tren baten multzo elektrogenoak gauez zarata sortzen zuen (819/2001)*

- Erreklamazioa

Balmasedako udalerriko auzotar batzuek hauxe salatu zuten: euren etxebizitzetatik hurbil, FEVEko turismo-tren bat (Transcantábrico) zegoen, eta tren horren multzo elektrogenoak zarata handia sortzen zuten.

Kexaren izapidetza onartu eta gero, Arartekoak Balmasedako Udaleko Alkatzari informazio-eskaria bidali zion. Eskari horrekin, erakunde honek jakin nahi zuen zein jarduera burutu zuen udal agintaritzak, azaldutako salaketei aurre egiteko.

- Azterketa

Hasierako unean, korporazio horrek adierazi zigun FEVEri eskaria egin ziola, trenaren aparkalekua beste gune batera eramateko; beste gune batean, aparkaleku horrek traba gutxiago sortuko zituzkeen, eta aurretiaz ere eskari berbera egin zitzaien FEVEri. Eskari hori ikusita, FEVEk erantzun zuen hori ezinezkoa zela, segurtasun-arrazoien ondorioz. Erantzun hori jasotzean, Udalak FEVEri eskatu zion, neurriren bat hartu eta arazoa konpontzeko. Trenak zarata sortzen zuenez gero, aukera bat zen tren horren motorra energia elektrikoko sareari konektatzea; baina FEVEk denbora asko hartzen zuen, neurri hori abian jartzeko. Azkenik, udalak eskari hau egin zion Ertzaintzari: auzotar kaltetunek aurretiaz horretarako adostasuna emanaz gero, euren etxebizitzetan zarata neurtuko zen, trenaren multzo elektrogenoa jardunean zegoen bitartean.

Erakunde honek jakin izan zuenetik, neurketa hori egin zen, eta etxebizitzetan lortutako zarata-mailek gainditu egin zituzten erregelamenduan ezarritako gehieneko mugak. Horregatik, erakunde honen aholkularitza juridikoa harremanetan jarri zen udaleko arduradunekin, hasitako administrazio-prozedura zehazteko.

- Emaiza

Gaiaren inguruan, Balmasedako Udalak jakinarazi zigun, azkenean, udalerritik kanpo eraman zela FEVEko turismo-trena.

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

10.1. SARRERA

Herri lan eta herri zerbitzuen arloak 114 kexen tramitazioa egin du, hots, aurkeztutako erreklamazio guztien % 9,41.

Ukitutako administrazioaren arabera, honelaxe banatu dira:

- EAEko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	14
- Foru Administrazioa	17
- Tokiko Administrazioa	82

Azpi-arloka:

Tokiko zerbitzu publikoak	28
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	26
Kontratak. Ondare eta adm. Erantzuk. araubidea	21
Garraioak	15
Nahitaezko desjabetzapena	8
Landa bideak	6
Lanen betearazpena	4
Lan proiektuak	3
Irisgarritasuna	1
Eskubideak eta askatasunak	1
Bestelakoak	1

Herri lanen betearazpenagatiko kexei buruzkoa izango da arloa, proiektuei zein horien betearazpen materiala eta partikularrak ukitzeari dagokienez. Bestalde, herri zerbitzuak emateko modua ezarri dugu, garraio zerbitzua eta tokiko esparrukoak bereziki, baita herri administrazioek partikularren esparruan duten administrazio kontratazioak eta ondare-erantzukizunak dakartzan berariazko arazoak ere.

Herri lanen proiektuak egiteko eta betearazteko faseetan, Arartekoak esku-hartzeko eska daiteke. Interesatuek funtsean planteatzen dutena hauxe da: kargua duen administrazioak hartu nahi duen erabakia ea egokia den ala ez. Ildo horretatik, udal zerbitzuen jarduketa hirigintza araudiarekin eta sektorekako araudi aplikagarriarekin bat datorren ala ez egiaztatu eta kontrolatu behar dugu gehienbat, baita jardunbidearen fase egokiak jarraitu dituzten ala ez ere. Baina ez dago gure esku proiektua une egokian aurkeztu den ala ez eztabaida aztertzea, Arartekoak ezin baititu bere gain hartu demokratikoki aukeratutako organoei erabakiak hartzeko emandako eskumenak, hain zuzen ere gai publikoei buruzko erabakiak hartzeko.

Nolanahi ere, pertsonengan, herritar legez, eragina duten gaietako buruzko erabakiak hartzeko parte har dezaten erraztu behar du erakunde honek. Hala, erabakiak ahalik eta adostasunik handienarekin hartu behar dira, egon dauden aukera eta posibilitate guztiak entzunda. Alternatiben bilgunearen eta ukitutako gizarte talde guztien borondateak batzearen paradigma izan dira Parte-hartzea Bultzatzeko Guneak. Herritarren parte-

hartzea bultzatzeko mekanismoak dira, Gipuzkoako hainbat herritan erabili dira herri lanei buruzko erabakiak hartzeko, eztabaidei irtenbidea zelanbait bilatu nahian.

Parte-hartze hori berdintasunaren arabera egin behar da eta garraio zerbitzu publikoak aurkezteko zuzentze-printzipioa da. Eta berau aplikatzea mesedagarria da ezintasun fisikoren bat dutenentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere, zeren eta inor ez baitago libre, behin-behineko egoeran bada ere, mugitzeko zailtasunak izateko. Hala eta guztiz ere, garraio-bideetan irisgarritasuna bultzatzeko ezarri diren neurri gehienak eta erakunde honetako hutsune horri buruz bildu diren kexarik gehienak ezinduek aurkeztu dituzte. Kexarik gehienak egokitutako plaza kopuruei eta horiek dituzten ibilgailuetako plataformen erabilerari buruzkoak izan ohi dira.

Hiriko garraioari buruzko erreibindikazio bat, esparru horretan emakumearen berdintasuna sustatzekoa dena, Donostiako eta Gasteizko hiriko garraio publikoaren zerbitzuko arautegietan islatu da 2001. urtean: autobusetara haurren kotxeekin eta aulkiekin sartzea horiek tolestu gabe. Neurri hori Donostiako Udalak ezarri zuen 1999an, nahiz eta lehenago indarrean zegoen arautegia eskari horretara eta gizartearen eboluzioak eragiten dituen bestelako eskarrietara egokitu beharrak arautegi horretan sartzea atzeratu duen. Donostiako Udalak hasitako bideari jarraituta, Gasteizko Udalak erabilerak aldarazi ditu hiriko garraioetan, eta azken batean onartu duenez, gurpildun aulkietan doazenek lehenasuna izango dute autobusean sartzeko. Hori hala ezarri da zeren eta gurpildun aulkiek eta kotxetxoek toki bera konpartitzen baitute autobusen barruan.

Aurreko urteetan moduan, garraioaren deskontuak familiako kideei aplikatzeak eta garraio publikoetan txartelik gabe joateagatiko isunak ezartzeak kexak eragin ditu erakunde honetan.

Azkenik, garraio astuna hiriguneetan urruntzeko beharraz ohartarazi behar zaie herri administrazioei. Hala, Herripe auzokideen elkarteak kezka agertu zuen Arartekoaren aurrean ibilgailu astunen trafikoa igo delako eta igotzen ari delako Herrera, Buenavista eta Pasai Antxoko auzuneetatik: kamioiak, konboi bereziak eta zisterna-kamioak.

Arreta berezia merezi duen beste gai bat ondare-erantzukizuna da, herritarrei zerbitzu publikoen funtzionamenduak eragindako kalteengatiko ordainak jasotzeko eskubidea ematen diena. Atal honetan Arartekoarengana jotzen duten pertsonen kexa ugari tramitatu ziren, erreklamazioen aurrean herri administrazioek erantzunik ematen ez dutelako, nahiz haien eskaera ekonomikoak atzera bota direlako. Kexen laburpenen atalean, kasu bat aztertu da. Kasu horretan Vista Alegreko hilerriko hilobietan egindako kalteen ordaina eskatu zioten herritarrek Bilboko Udalari.

Aurten zerbitzu publiko horiek emateko ardura duten enpresek eragindako kalteen kasuak aztertu ditugu behin eta berriro, Konstituzioaren 106. artikulua eta 30/1992 Legearen 139. artikulua kalte-ordainak jasotzeko ezarritako eskubideak aintzat hartu gabe. Hala, Herri Administrazioen Legearen 2/2000 AT-ren 97. artikuluan kontratariak gainontzekoei kalte-ordainak ordaindu behar diela ezarri da, salbu eta agindu zuzena dagoenean edo lan proiektuaren bizioa denean. Horretarako, kalte-ordaina eskatu dutenek ahalmena dute hauxe eskatzeko kontratazio organoari: kontratariari entzunda, dagokionari beren beregi eskatzeko kalteen erantzukizuna. Dena dela, eragindako kalteen erantzukizunagatik ezarriko den zigorra aintzat hartu gabe, administrazioaren ondare-erantzukizuna objektiboa denez gero –erruduntasunarekin zerikusirik ez du-, zerbitzu bat emateko hirugarren bat kontratatzen duen administrazioak ez du modurik kaltetuaren eskaera kontraturiko enpresari muzin egiteko. Erakunde honek beste behin esan behar

du administrazioak, gutxienez, herri lan bat egiteko kontratatu den enpresak eragindako ondare-erantzukizunaren ordainketaren jarraipena egin behar duela enpresak berak.

Tokiko zerbitzu publikoen artean, aurreko urteetan bezala, hiriko hondakinak gaika hautatzeko sistemak ezartzea nabarmendu behar da, erakunde honetan kexuak aurkeztea eragin dutenak. Kexak, gehienbat, zerbitzua emateko eduki-ontzien kokapenari buruzkoak dira. Zehazkiago, eduki-ontzien inguruko etxeen beheko eta lehen solairuetan bizi direnek aurkezten dituztenak dira. Etxebizitzotan dauden zarata eta usainagatik kexatu dira. Zaborrak jaisteko emandako ordutegiak ez betetzea, jarritako eduki-ontziak ez direla nahikoak.... Horiez gain, eduki-ontziak husteko lanak gaueko orduetan egiten dira. Neurri hori kamioiek ibilgailuen trafikoa ez oztopatzeko ezarri da, baina etxebizitzetako auzokideen bizitza-kalitatetarako kaltegarria da neurri hori, batez ere toki bakarrean eduki-ontzi ugari pilatzen direnean.

.Etxez etxeko ur horniduraren zerbitzuagatik ere kexa ugari aurkeztu dira erakunde honetan, baina ez horrenbeste ematen den zerbitzuaren kalitateagatik, baizik eta abonatu zenbaiti eskatu zaiolako hustubideetako ihesak konpontzeko eta mantentzeko, noiz eta, haren ustez, erakundeari berari dagokionean.

Oro har, konponketak udal zerbitzuen pentzura egin behar direla baieztatu daiteke, bai sare orokorretan, bai hartune partikularretan, baldin eta hartuneak herri bidean badaude. Planteaturiko kasuetan, hustubidea apurtzeak kaltea ekarri zien herri erabilerako lur pribatuaren azpiko hartuen partikularrei. Hortaz, hustubidearen jabeak diren auzokideen elkarteri zegokion hura konpontzea. Hots, udalak banaketa sareen titularrak direnez gero, hustubideak mantentzeko eta konpontzeko gastuen erantzukizuna hartu behar dute. Hala ere, hartunetik eta horren maniobra-giltzetatik tutueria instalazio partikularra da, halako moldez non hura konpontzea eta mantentzea titularren pentzura egin behar diren.

10.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

A) **Irisgarritasuna**

⇒ *Oztoporik gabeko garraio baterako urratsak egiten (840/2001)*

- **Erreklamazioa**

Oinez ibiltzeko makila edo makuluak behar zituen pertsona batek Arartekoarengana jo zuen, Gasteiz eta Gamarra herriak lotzen dituen hiri autobusaren linea erabili behar zuelako udan.

Kaltetuak adierazi zuenez, linea horretako autobusek ez zuten plataforma baxurik, eta hori oztopo handia da hiriko autobusetan sartzeko. Hori dela-eta, arratsaldeko ordutegian behintzat, linea horretan zerbitzua ematen duten autobusek mugitzeko arazoak dituzten pertsonen garraiora egokitu beharra dute.

- **Azterketa**

Kexa hori ikusita, erakunde hau Gasteizen hiri garraioaren zerbitzua ematen duen enpresarekin (TUVISA) jarri zen harremanetan, eta gai honen inguruan sentsibilizazioa agertzeko dei egin genion, ezintasunen bat edo mugitzeko arazoak dituzten pertsonen

arazo eta beharrizanekiko Udalak duen sentsibilizazioa hain zuzen, zertarako eta erabiltzaile horrek duen arazoari ahalik eta bizkorren irtenbidea aurkitzeko.

TUVISA-k esan zigunez, autobus linea guztietan plataforma baxuko autobusak jartzeko ahaleginak egiten ari badira ere, une horretan ezin zioten aurre egin eskaerari, garraioaren zerbitzuari berari ez dagozkion arazo teknikoak direla-eta. Kasu jakin horretan, linea horretan hiriko autobusak 180º-ko biraketa egin behar du negutegiaren parean, plataforma baxuko autobus batek toki horretan ezin egin zezakeena.

- Emaidza

Hala ere, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen garraiora egokitutako autobusak linea guztietan jartzeko borondatea agertu zuen enpresak. Hori dela-eta, negutegiaren parean dagoen gunea aldatzeko eskatu zion agintari eskudunei, zertarako eta lehenbailehen plataforma baxuko 5 autobus sartzeko linean.

B) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa

⇒ *Herri bidean zaborra uzteko ezarri den ordutegia ez betetzeagatik, administrazioaren zigor jardunbidea (606/1999)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Ararteko erakundera jo zuen, Bilboko Udalak ezarritako zigorreratik kexa agertzeko. Zigorra hiriko garbitasunari buruzko Udal Ordenantza ez betetzeagatik jarri zion Udalak, zaborrak herri bidean baimendutako ordutegitik kanpora utzi omen zituelako. Herritarraren esanetan, bera ez zen izan arau-haustearen egilea.

- Azterketa

Bilboko Udalaren udal zerbitzuek ikusi ahal izan zuten, zabor poltsa bat egon zen herri bidean baimendutako ordutegitik kanpo, eta haren barruan erosketak ordainagiri batzuk zeuden kexa sustatu duenaren izenean. Hori dela-eta, zigor jardunbidea hasi zen hiriko garbitasunari buruzko Udal Ordenantza hautsi izanagatik, eta azkenean isuna jarri zitzaion. Jardunbidean ez zen beste frogarik egin interesatuaren erantzukizuna egiaztatzeko, azkenean arau-haustearen ustezko egilea zigortu zuen jardunbidea hain zuzen ere.

Kexa errekurritzeak 1996ko txostenean gai horri buruzko gomendio orokor bat sartzea ekarri zuen, eta kexa sustatu duenak planteatu duen kasu bertsuetan erabilitako irizpideari eutsita, ordutegitik kanpora utzitako zabor poltsa baten barruan erreklamazioa jarri zuenaren izena zuten dokumentu batzuk topatzeak ez dela nahikoa erabaki zuen Arartekoak, ez dela nahikoa interesatuaren errugabetasun-presuntzioa hausteko (E.K.ren 24.2. artikulua eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137. artikulua), zeren eta frogak hori ez baita erabakigarria zaborra debekaturiko ordutegian jarri duen pertsona nor izan zen egiaztatzeko.

Era berean, eskaera egin duen pertsonaren errugabetasun-presuntzioa hausteko ez da nahikoa Bilboko Udalak nahikoa frogatzen jotzen zuena, Kode Zibilaren 1.253. artikulua oinarritzat hartuta. Ondorio hori atera zen Auzitegi Konstituzionalak (174/1985, 94/1990 eta 24/1997 KAE) eta Auzitegi Gorenak (1990eko urtarrilaren

31ko AGE -A. 1016- eta 1991ko azaroaren 14ko AGE -A. 8135) gaiari buruz finkaturiko doktrina aztertuta eta kasu horretan doktrina horrek eskaturiko bi betekizun falta zirela ikusita. Alde batetik, zeharo egiazaturiko gertaeren –ordutegiz kanpora utzitako poltsak interesatuaren izena zekarten dokumentuak zituen- eta erantzukizuna eragin zuten ustezko gertaeren –poltsa interesatuak jarri zuen- arteko beharrezko lotura logiko, zehatz eta zuzenik ez zegoelako. Eta bestetik, zigorra izan zuen ekintzak ez zuelako beharrezko loturaren ziorik. Zaborra ordutegitik kanpora utzi zen tokia interesatuaren etxetik hurbil izatea Udalak argudiatu zuen lehenengoz kexaren jardunbidean; baina hori ere baztertu egin zuen Arartekoak presuntzio-froga gisa, esandako arrazoi berengatik.

Zigor zuzenbide administratiboa arautzen duten printzipioak aplikatzeko, Udalari dagokio frogaren karga, eta Udalak udal arautegiak debekatzen duen ordutegian utzitako zabor poltsaren barruan aurkituriko dokumentuak interesatuarenak zirela frogatzerik izan ez zuenez gero, interesatuaren errugabetasun-presuntzioak bere horretan jarraitzen zuela ondorioztatu zen. Eta, beraz, frogarik ez dagoenez gero, Udalak ezin eska ziezaiokkeen erantzukizunik zigorra eragin zuten gertaeren batzordean.

Ondorio hori ez zen aldatu Udalak alegaturikoa aztertu ondoren. Izan ere, interesatuak zigor jardunbidean jarrera pasiboa izan zuela alegatu zuen Udalak eta, gainera, zigorrari buruzko jakinarazpen batzuk ez zituela onartu. Udalaren iritziz horren kontra eginez, gertakizun horiek interesatuaren erantzukizuna zehazteko batere garrantzirik ez zutela uste zuen Ararteko erakundeak, zeren eta zigor jardunbide administratiboan zigorra jaso duenak ez baitu errugabetasuna frogatu behar; Udalak frogatu behar du haren errua, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorriz (1992ko urriaren 1eko AGE -A. 8092-), interesatua isilik egoteak ez baitu esan nahi ezarri zaizkion ekintzak onartu behar dituenik.

Azkenik, Udalak bidalitako agirian ondorioztatu zenez, era berean, zigorrak preskribitu egin zuen urtebetea igaro zelako indarrean jarri zenetik interesatuak betearazpen jardunbidea hasia zela jakin zuenera arte.

- Emaizta

Gomendio bat egin zitzaion Bilboko Udalari zigorra baliorik gabe uzteko eta, hala denean, zigorra betetzeko interesatuak ordaindutako kopurua itzultzeko.

Udalak ez zuen gomendioa onartu; erakunde honek antzeko izaera eta edukia izan duten gaiak buruz egindako gomendioetan izandako irizpideak ez ditu bete. Ezezkoa emateko arrazoa, esan zigutenez, eskaera egin zuenari hobena emateko nahikoa frogatzea zegoela iritzita.

Izena ematea ez onartzeko arrazoa, berriz, izena emateko epea jakinarazpen bat dela-eta eten egin zela ulertu zelako. Dirudienez, jakinarazpen hori interesatuari eman zitzaion, ordainketa egiteko aldiaren isuna ordaindu ezik, betearazpen jardunbidea hasiko zela ohartarazteko.

⇒ *Kaleak oinezkoentzat egitea eta pasabideak (1064/2000)*

- Erreklamazioa

Bilbo erdiko kale bat oinezkoentzat egiteko lanek ukitutako garaje bateko titularrak kexa agertu zuen. Izan ere, 2000ko apirilean erreklamazio bat aurkeztu zuen udaletxean,

eta, besteak beste, kale horretan sartzeko espaloiairen garaiera beheratzeko eskatu zuen, espaloiairen maila autoa garajearen sartzeko oztopoa baita. Era berean, antzinako galtzadara kota igotzeak dakartzan kalteak saihesteko edo gutxitzeko neurriren bat hartzea komenigarria izango litzatekeela planteatu zuen eskaeran, zeren eta, euria egiten zuenean edo kaleko garbiketa lanak egiten zirenean, toki desberdinetako ura elkartu egiten zen eta garajearen sarreraren kontra jotzen zuen.

- Azterketa

Erreklamazioa ikusita, Bilboko Udalarekin jarri zen harremanetan Ararteko erakundea, zertarako eta herritar horrek duen arazoari irtenbidea bilatzeko hartutako edo hartzeko asmoa zuten neurriei buruzko informazioa jasotzeko.

Bilboko Udalak tramitaturiko espedientearen ale bat eman zigun, eta bertan jasota utzi zenez, ura garajearen ez sartzeko lanak eginda zeuden. Zehazkiago, Bilboko Udalak aditzera eman zuenez, atean burdin-sare bat jarri zen hala ez gertatzeko.

Hala ere, espedienteak Lan eta Zerbitzuen Aldearen txostena era bazekarren, 2000ko ekainaren 14koa, eta bertan zalantzan jartzen zen pasabidearen baimenari eustea. Izan ere, garajearen tamaina ikusita, neurri ertaineko auto bat edo bi auto txiki sartzeko tokia baino ez zeukan.

Udal espedientearen jasotako erreklamazioa eta argibideak ikusita, bi gairi egin behar zitzairen aurre. Lehenengo eta behin, pasabideetako titularrek zein eskubide dituzten udalak kale bat oinezkoentzat bihurtzeko erabakia hartzen duenean pasabideak dituzten lokaletan sartzeko modurik ez dagoenean. Bigarrenik, baimenak zein kasutan utz daitezkeen baliorik gabe.

Lehenengo gaiari dagokionez, hauxe esan behar dugu: gure antolamendu juridikoan Udalek herri bideetako ibilgailuen eta pertsonen trafikoa arautzeko eskumena dute kaleetan, plazetan, e.a. Eta, beraz, tokiko erakundeek bideon erabilerak arautu ditzakete eta arautu behar dituzte. Eskumen horren barruan, plaza bat edo herri bide bat oinezkoen erabilerarako bihurtzeko ahalmena dute Udalek.

Hala ere, zer gertatzen da bidea oinezkoentzat egiteko erabakiak pasabidea duten lokaletan sartzea galarazten badu? Auzitegi Gorenak, kasu horietan, Udalak erabakia hartzeko duen ahalmen osoa egiaztatu ondoren, hauxe aitortzen du: erabaki horren aurrean, herritarrek ez dutela inongo eskubiderik bide horietatik autoz ibiltzeko ordura arte egiten izan duten moduan, zenbait kasutan ezar daitezkeen kalte-ordainak baztertu gabe.

Titularrari kalte-ordaina eman behar zaion ala ez zehazteko, baimenen behin-behinekotasuna hartzen du oinarritzat Auzitegi Gorenak eta, beraz, ezeztatu egin daitezke. Hots, bidea erabiltzeko baimen berezia ematen zaio onuradunari baimena eman duen Udalaren borondateak indarrean jarraitzen duen bitartean. Hori dela bide, trafikoa bideratzeko moduak ez du behin betiko eskubiderik onartzen bideetatik autoz joateko.

Bestela esanda, Auzitegi Gorenak baimen mota horiek, denon intereserako, funtsean ezeztatu daitezkeela ez ezik, baliorik gabe uzte horrek, oro har, inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ematen ez duela hartzen du kontuan, pasabideei dagozkien baimenak behin-behinekoak baitira.

Hortaz, Auzitegi Gorenak murriztu egiten du kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, herri bidea oinezkoentzat egitean jarduera ekonomiko bat egiteko modurik ez dagoenean, autoen bidez bertara joaterik ez dagoenean, noiz eta jarduera sarbide erabilgarri izatearen

arabera egiten denean. Esate baterako: eraikin bateko sotoan altzarien biltegi bat jartzen denean eta sarbiderik ez dagoenean eta, beraz, jarduera egiteko tokia aldatu behar denean.

- Emaidza

Ura herriko bidetik lonjara sar ez dakion Bilboko Udalak hartutako neurriei buruzko informazioa eman zitzaion kexa aurkeztu zuenari, baita tokiko erakunde horren jarduketak nola bideratzen ari diren moduari buruz ere.

C) Tokiko zerbitzu publikoak

⇒ *Ur-bide baten zortasuna aldarazteko gastuak zortasun-onibarrean (1059/2000)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek errota lan batzuk egitean haren finkan, finbaren lur azpitik zihuan tutueria bat aurkitu zuen, Lapuebla de Labarkako herria urez hornitzeko erabiltzen zena. Kexa sustatu zuenak adierazi zuenez, ez zegoen baimenik zortasun-onibarra eratzeko, eta ildo horretatik, ez zuen konpentsaziorik izan karga horren truke. Tutueria bat lurrazaletik gertu zegoenez gero, ezin egin zezakeen haren ondasunaren aprobetxamendu egokirik. Hori dela-eta, tutueria lur azpian sartzeko lanen kargua hartzeko eskatu zion Udalari, finka behar bezala erabili ahal izateko. Hala ere, Udalak tutuerien bideratze berriaren kostuaren erdia baino ez zuen onartzen.

- Azterketa

Asmo hori egoki tramitzeko, kexari buruzko bere bertsioa emateko eskatu genion Lapuebla de Labarkako Udalari. Udalak txosten bat bidali zigun, eta bertan jartzen zuenez, udalbatzak finbaren ur-bide baten zortasuna du inguruan dagoen iturburua erabili ahal izateko. Udalak emandako dokumentazioaren arabera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, 1951n, iturburua herriak aprobetxatzeko erabakia hartu zuen. Baimen horrek ubidea zihuan finbaren zortasuna eratzea ahalbidetzen zuen, eta horretarako akordio batera heldu behar zuten jabe guztiek, edo eskubidea jabetzea ur-bidea nahitaz ezartzeko espediente baten bidez.

Nolanahi ere, kasu biotan finbaren zortasunak izango zuen kargaren berri izan behar zuten jabeek, eta Udalak erakutsi egin behar zien bide egokiena zela eta gainontzekoentzat onurarik txikiena zekarrena zela, baita zortasun onibarraren jabeari behar bezala ordaindu ere. Erakunde honek ez du daturik zortasuna eratzeko erari buruz, ezta horrengatik kalte-ordainei buruz ere; datuok Lapueblako Udalak ere ez ditu eman. Dena dela, tutueria haren finkatik pasatzeko eskubidea Udalak eskuratu duela ulertu beharko genuke hogeitaz urteko epea igaro dela-eta (Kode Zibilaren 537. artikulua).

Zortasuna eratua duen finbaren jabeen betekizunei dagokienez, Kode Zibilaren 545. artikulua ezarri du ezen finbaren jabeak zortasuna aldatzeko beharrezko obrak egin ditzakeela egoki erabiltzeko, baina aldaketaren gastuak ordaindu behar dituela.

- Emaidza

Nahiz eta espedienteak behar bezala frogatu ez diren gertakari batzuk dituen, hala nola eratutako zortasunagatiko kalte-ordaina eta hori jabeari kargarik txikienekin ezarri

zela, jabeak tutueriaren trazaketa aldatzeko gastuei aurre egin behar diela ulertu behar dugu, zortasuna behar bezala eratu dela uste baitugu.

Gauzak horrela, ez da frogatu tokiko administrazio honek irregulartasunez jokatu izana. Hortaz, esku-hartzea bertan behera utzi dugu.

⇒ *Euri-uren bilketa (128/2001)*

- Erreklamazioa

Portugaleteko Alonso Allende kaleko lokal bateko titularrek salaketa jarri zuten Ararteko erakundearen bi urtez herri bidetik zetozen uriolak jasaten ari zirelako beheko solairuan.

- Azterketa

Arazo horri buruz tokiko erakunde horri txostena egiteko planteatu ondoren, Portugaleteko Udalak, Alonso Allende kaleko euri-uren udal instalazioak zituen ezaugarriak adierazita, instalazioa alde horretako beherengo tokian zegoela esan zuen eta, garbitasunari dagokionez, egoera onean.

Hala ere, Udalak aitortu zuenez, hustubidea hobetu egin zitekeen Alfredo Alonso Allende etxe multzoko arketaren eta Leonardo Rucabado kaleko arketa nagusiarekiko lotune zuzena egiteko lanak eginda.

Portugaleteko Udalak Deskribaturiko lanek hiriko alde horretako euri-urak hustea errazten zutela onartu zuenez gero, erakunde honek udalerraren laguntza eskatu zuen berriro eta epe laburrean lotuneak egiteko lanak aurrikusita dauden ala ez jakinarazteko eskatu genion.

- Emaidza

Handik gutxira, arketak lotzeko lanak eginak zirela adierazi zuen, eta horren berri eman zitzaizen kexa aurkeztu zutenei.

11. OSASUNA

11.1. SARRERA

Osasunaren esparruan 103 kexa aurkeztu dira aurtan, osasun zerbitzuak izateko alderdi ezberdinekin lotuta. Honako hau izan da banaketa administrazio ezberdinei dagokienez:

- Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (Eusko Jaurilaritza).....	56
- Foru Administrazioa	1
- Tokiko Administrazioa	6

Azpiarloen banaketari dagokionez, honako hau da sailkapena

- Osasun publikoa	52
- Erabiltzaileen eskubideak	40
- Osasun-laguntza	5
- Osasun mentala	4
- Administrazioaren funtzionamendua eta proz. administratiboa	1
- Beste alderdi batzuk	1

Osasun zerbitzuak izateko eskubidea ordenamenduak aintzakotzat hartzen duenaren mende dagoela, eta zerbitzuak eta sariak zeintzuk direnen gainean argibideak jasotzeko eskubidea osasun zerbitzuak izateko eskubidearen alderdi zehatz bat dela kontuan hartuta, medikuak produktu bat agindu dion edo Administrazioak informazioa eman dion erabiltzaile batek kexa bat aurkezten du huts egin diotela sentitzen badu, berak pentsatu duen edo buruan sartu dioten itxaropenari dagokionez. Horregatik informazio egokia lortzeko eskubidea, esparru honetan, garrantzi oso handiko eskubidea dela argi izan behar dugu.

Kexak eragin dituzten arazoan aurrekariak aztertu ondoren, Osasun Sailak Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren aurrean informazioa izateko eskubidea bermatzeko ekimen batzuk egin zirela jakinarazi zion Ararteko erakundeari, baita zerbitzuen gaineko edo zerbitzuak lortzeko informazioarekin lotutako erreklamazioak saihesten saiatzeko neurriak hartzen ari zirela.

Zerbitzuen funtzionamendu eta antolamenduari dagokionez, funtsezko alderdi bat osasun zerbitzuen esparruan, antzutasunaren tratamenduarekin lotutako kexak aipatu behar ditugu. Pertsona kaltetuek azaldutako gorabehera batzuk ikusita zerbitzu horren funtzionamendua gaizki antolatuta dagoela eta ekiteko irizpide homogeneorik ez dagoela pentsa daiteke eta beharrezko espedienteari ekin zitzaion. Osasun-agintariek ikusitako arazoak konpontzeko neurriak hartu dituztela jakinarazi digu horrek.

2000 urteari dagokion txostenean, gomendio orokor bat argitaratu zen, beste erietxe batzuetan zaindu behar diren erabiltzaileentzako osasun-garraioaren eskubideari dagokionez, Autonomia Erkidego honetako administrazioak jarrera osasun-zerbitzuen katalogoan esaten zenari begira zuzendu behar zuela esaten zen. Orain arte sistematikoki bazterten ziren kasu batzuk bere gain hartzeko arau bat onartu berri du Osasun Sailak. Katalogoko baldintzak betetzen dituzten baina garraioko kostuaren dirua jaso ez duten hiritarren kexek jarraitzen dute, ordea, eta osasun-garraioaren eskubidea arautik kanpo

dauden irizpide murriztaileak erabiliz gauzatzen jarraitzen dela ematen du. Horregatik ezin dugu esan, zoritxarrez, Arartekoaren gomendioa onartua izan denik.

Esparru honetan, anbulantziaren kostua zein osasun-administrazioaren eskuetan uzteko erabakiaren arazoa azpian dagoela pentsatzeko seinaleak daude –pazientea orduan zaindu zuena ala erabiltzaile bezala duena–. Hala ere, antolamenduko izaera administratiboko arazoak erabiltzailearen eskubideari kalte egiteak ez dauka justifikaziorik, ukoak anbulantzian garraiatua izateko baldintzak ez betetzeagatik ez bada.

Arazo hori Lurraldeen Arteko Osasun Batzarrean lantzea egokia dirudi –agian autonomi erkidegoen arteko konpentsazio sistema bat itunduz–, erabiltzailearen garraioaren eskubiderako baldintzak jadanik araututa daudela eta osasun sistema publikoaren antolamendu autonomikoaren barnean egituraketa eta antolamendua konpontzea besterik ez dela falta ahaztu barik.

Behin Lurraldeen Arteko Osasun Batzarra aipatuta, zerbitzu katalogoan “sexu aldaketako kirurgia, sexuen arteko egoera patologikoak konpontzeko” izenaz agertzen den osasun-zerbitzuaren inguruan sortu den arazoa ere lan dezakegu. Legebiltzarrak kexa horiek erakunde honen aurrean aurkeztu baino lehenago landu zuen arazoa, eta legea ez izateko proposamen bat onartu zuen, Osasun Sailak Lurraldeen Arteko Osasun Batzarrari proposamen bar egin diezaion eskatuz, transexualtasun patologikoko arazoei erantzuteko ardurak publikoak aztertzeke, beste osasun arazoaren arduraren testuinguruan, eta gomendio egokiak asmatu zituen.

Ordenamendu farmazeutikoari dagokionez, farmazia-establezimendurik gabeko botikariek kexa bat aurkeztu zuten oraingo erregulazioarekin ados ez daudelako, establezimendu berrien kopurua mugatzen baitu. Kexak orokorrean autonomi erkidego guztientzat ziren, bakoitzaren ordenamendu farmazeutikoek izan ditzaketen berezitasunak alde batera utzita. Asmo horren zilegitasunari kalte egin barik, Konpetentzia Babesteko Auzitegiaren ildo jarraitzen zuena, legaltasunaren ikuspuntutik aztertu ziren kexak, gure Autonomia Erkidegoko Ordenamendu Farmazeutikoko Legeari dagokionez, legeen aldaketa proposatzeko arrazoirik ez dugu ikusten.

Osasun mentalaren esparruan, Ararteko erakundeak Autonomia Erkidegoan buru gaixotasunaren zainketaren gainean egin duen txostenean agertzen diren gomendioak betetzen diren jakiteko segimendu bati ekin zaio.

Gaixo horien zainketari buruz aurkeztu diren kexei dagokienez, gure Autonomia Erkidegoan bizi diren espetxeetako gaixo kronikoei ematen zaien tratamenduarekin lotuta daudenak azpimarratu behar dira. Orain arte Foncalent-eko Ospitale-presondegi psikiatrikora bidaliak izan dira preso horiek.

Elikaduraren asaldurak dauzkaten pertsonen zerbitzuetaz kexatu dira, eta beste gauza batzuen artean, unitate espezifikoen beharra adierazi dute. Laguntza unibertsal baten ikuspuntutik, guztientzako berdina, agintari publikoek aukeratu dutena, hau da, unitate espezifikoak ez sortzea, ez du ematen arbitrarioa edo funtsik gabea, gaur egungo zerbitzuak hobetu behar direla kontuan hartuta, haur eta nerabeen zainketa psikiatrikoko areagotuz, Autonomia Erkidegoan buru-gaixotasunaren zainketari buruzko txosten monografikoan adierazi zen moduan, geroago aurrera egin bada ere, unitate berriak zabalduz.

11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Osasun-laguntza: gastuak Europako Batasuneko beste Estatu batean (1099/2000)*

- Erreklamazioa

Eskuduntza zuen osasun-administrazioak zentro frantses batean zaindua izateko baimena eman zion erabiltzaile bati.

Daukaten gizarte segurantzaren sistemaren arabera, frantsesek osasun-laguntzako gastu batzuk ordaindu behar dituzte. Gastu horiek ordaindu behar izan zituen interesdunak, dirua itzultzeko eskatu eta ezetz esan zioten. Laguntza gastu osagarri horiekin batera, lekualdaketaren eta egoitzaren dirua ere eskatu zuen.

Tratamendu bera emateko, baimen batzuek eskatu zituen Administrazioak, laguntza bakoitzarentzat baimen indibidualak, alegia. Erakunde honen aurrean kexa aurkeztu aurretik, aurreko baimenen ukapenaren kontrako errekurtsio judizial bat aurkeztu zuen interesdunak, eta ez zen onartua izan.

Hala ere, kexa, kontra egin ez zaion ukapen bati buruzkoa, bideratzea onartu zen, bi arrazoiengatik: bata –esan beharra dago– geroagoko baimenekin harremana duten ukapenekin lotuta izategatik, hortaz, auzitegiak jadanik landuta zeuden ukapenekin loturarik gabe, eta bestea, arazo eztabaidagarri batez ari garelako uste dugulako.

- Azterketa

Erabiltzaile batek aurretik lor dezake baimena Europar Batasuneko beste herrialde batean tratatua izateko. E-112 dokumentua betetzen da, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta Osasun Sailak bisa jarria. Prozedura honen bitartez, afiliatu espainola tratatua den herrialdeko gizarte segurantzak bidaltzen dion faktura bere gain hartu behar du INSSak.

Prozedura horren funtzionamenduak Batasuneko beste herrialde batean tratatua izatea uzten du, baina –garrantzitsua da– herrialde horrek bere afiliatuei eskaintzen dien maila berean. Arazoa bere herrialdean zerbitzu bat izateko eskubidea duen hiritar batek beste herrialde batean gehigarri bat ordaindu behar duenean agertzen da, zerbitzua jasotzen duen Estatuko gizarte segurantzaren sistema horrela izanez gero.

Etorkizunean, Europako Komunitateetako Justizia-Auzitegiaren C-368/98 arazoari buruzko pronuntziamenduak funtzionamendu hori alda dezake. Pronuntziamendua kexa eragiten duten gertakarien ostekoa da.

Edozein modutan, gertakarien unean azaldu dena zen funtzionamendua, eta INSSri dagokio alderdi hori, zerbitzuen faktura bidaltzen duen EB-ko Estatuaren aurrean erantzulea baita. Horregatik egiten dugu lan egoitza eta lekualdaketako gastuen esparruan, Osasun Sailaren ardura baitira gure ustez, eta erabiltzailearen gurasoek ere eskatu zuten hori, gaixoa laguntza behar duen ume bat delako.

Alderdi hori eta beste kexa ondo bereizita, tratamenduko gastuekin zuzenean lotuta baitzegoen, umearekin joateko beharra ez bazen kontuan hartzen eta Osasun Sailak

tratamendua baimendu bazuen, lekualdaketa eta egoitza ordaintzeko eskakizuna oinarritua zegoela pentsatu zuen Ararteko erakundeak.

Osasun Sailak erantzutean, aldiz, bidezkoa ez zela esan zuen, beste sistema batean nahita eskatutako zerbitzu bat delako, eta eman ahal den dirulaguntzat hartu behar zen orduan. Horregatik ez zuen lekualdaketakoko gastuak besterik ordaindu, laguntzailearen egoitzakoak ez, ordea.

Ararteko erakundearen ustez, E-112 formularioaren bitartez gaur egungo konfigurazioa erabiltzeko baimena eman zitzaion pertsona horri, eta horren arabera, osasuna berreskuratzeko osasun-zerbitzuak emateko gizarte segurantzak bere gain hartzen dituen beharren testuinguruan besterik ezin dira erabili zerbitzuak.

Testuinguru horretatik kanpo ez dago besterik –osasun-administrazioaren erantzuna ikusita pentsa daitekeen bezala– hiritarrek osasun sistema nazionaletik kanpo aukera ezberdinak egiteko (borondatezko aukera, zioen txostenak). Hori horrela delako, hain zuzen ere, erabiltzaileek Osasun Sistema Nazionaletik kanpo jasotako zerbitzuengatik dirua itzultzeko eskatuz gero, normalean ezetz esaten zaio, norberaren aukera bat izan denean, aipaturiko sistemarekin zerikusirik eduki gabe, eta horrela jakinarazi diogu administrazioari.

Hortaz, orokorrean, osasun-zerbitzuak jasotzeko baimen batek esparru horretan besterik ez dauka zentzurik, gizarte segurantzak bere gain hartzen duen esparruan, eta baimenak eman ahal diren dirulaguntzak diren beste esparrurik ez dago, kontzeptu hau Euskadiko Ogasun Nagusiko ordenamenduko hastapenekin zerikusirik ez baitauka.

Ikuspegi honetatik, gizarte segurantzak interesdunaren zerbitzua bere gain hartzeak osasun sistema nazionalaren erabiltzailearen eskubideen testuinguruan besterik ez da sartzen. Sistema nazionalako beste zerbitzu batzuetarako hartzen den ikuspegi beretik aztertu behar da lekualdaketa eta dietetako gastua: hau da, gastua halabeharrezkoa izan diren baloratuz, osasun sistema nazionalak agindu duen tratamenduak eragin duelako.

Bere txostenean, Osasun Sailak gure ordenamenduan atzerriko egoerentarako dietak ordaintzeko araurik ez dagoela esaten zuen, eta analogiaz, lekualdaketakoko gastuak besterik ez dira ordaintzen, baita dietak ere erabiltzailea erietxe batean ez bada sartzen.

Ez gatoz irizpide horrekin bat, beste osasun-administrazio batzuen antzera, ezta INSALUD-eko argibide eta zirkularretako edukia ere –Osasun Sailari bidaltzen diogun idatzian aipatzen dugu–, atzerriko osasun-zentroentarako lekualdaketen gastuen ordainketari buruz. Pronuntziamendu judizial batzuek ere analogiaz enplegatu publikoen zerbitzuarengatik kalte-ordainketarako ezarritako irizpideak hartu behar direla esaten dute, dieten kalte-ordainei dagokienez.

- Emaita

Egoitzako gastua ez onartzearen jarrera mantendu zuen Osasun Sailak, baina beste osasun sistema batzuetatik datozen zerbitzuen egoera berrikusteko asmoa zuela esan zigun bere erantzunean, baita izan daitezkeen laguntzak, zenbatekoak eta zerbitzua lortzeko irizpideak ere.

Behin puntu honetara iritsita, Ararteko erakundeak eskuetan geneuzkan gertakariak formalki erabiltzaileak justizia-auzitegietan adierazi zituenekin zerikusirik ez bazuen ere (erreklamazioen atalean adierazi denez), edukiari dagokionez, antzekoak zirela pentsa zitekeen. Horregatik eten genuen gure lana espediente honetan.

Kexaren kasu zehatzari buruzko eten horri kalterik egin gabe, ofiziozko espediente bati ekin genion, Europako Komunitateetako Justizia Auzitegiaren sententzia horrek izan zitekeen oihartzunaren segimendu bat egiteko, Europar Batasuneko herrialdeetan osasun-zerbitzuak jasotzeko baimenei buruz.

⇒ *Osasun-zerbitzuei buruzko informazioa (123/2001)*

- Erreklamazioa

Emakume batek antzutasunaren kontrako tratamendu bat hasi zuen (intseminazio artifiziala) osasun-zentro publiko batean eta emaitzarik ez izatean beste zentro batera bidali zuten, teknika ezberdin bat erabiltzeko (FIV). Zentro honek uko egin zion bere eskakizunari arrazoi medikuak argudiatuz.

Ukoarekin ados ez zegoenez, bere osasun-guneko Administrazioarengana jo zuen. Honek, ukoaren arrazoi medikuak zalantzan jarriz, bere onarpenaren gestioak hastea erabaki zuen arrazoi medikuengatik uko egindako zentrorako, baita bitartean interesdunari FIV teknikarako medikamentua ordaintzea zentro pribatu batean.

Geroago, gastuen itzulpena eskatu zuen interesdunak, joan zen zentro pribatuko zerbitzuengatik. Harrituta geratu zen lehenago medikamentuaren finantzaketa onartu zion osasun-administrazio berak joan zen zentro pribatuko osasun-zerbitzuen gastuen itzulpenari uko egin zionean.

- Azterketa

Tratamendua zentro pribatu batean baimentzen zuen erabakirik eta hil edo biziko kasurik ez zegoela kontuan hartuta, ukoa zuzena zen itxura denez.

Kasu honetan gertatutako kontraesanak nekez utz daitezke alde batera kasu hau aztertzean. Zentro pribatu batean tratamendua jasotzeko medikamentuaren finantzaketa baimendu zuen Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzak, zerbitzu farmazeutikoa osasun-zerbitzutik bereiziz.

Administrazio-organo berak uko egin zion gero zentro pribatu batean FIV tratamenduaren asistentziatzako gastuen itzulpenari, teknika hori sistema publikoan bazegoela adieraziz, eta ukoaren arrazoi medikua zuzena zela eranstean gainera. Ez zitzaion inolako azalpenik eman aurreko guztiaren kontra zegoen erabaki horren gainean.

Bere hasierako erreklamazioaren osteko ukoan –interesdunak argudiatu bazuen ere– ere ez zen ukitu horrela jardun zuen lurraldeko osasun-administrazioaren jarrera kontraesankor eta irregularra.

Lurraldeko osasun-administrazioak eskakizunari erantzuteko edo laguntzak lortzeko arauak buruz informatzeko baliabide nahikoak izanda ere –gastuen itzulpena eskatzeko idaztiaz adierazten dena ikusita–, ez zuen horrelakorik egin, eta idatzi bat bidali zion horren ordean, gastua justifikatzeko dokumentuak eskatzeko, eta horrek bere asmoak lekurik ez zeukala pentsatzera bultzatu zuen.

Horren guztiaren ondorioz, azaldutako ekimenek eskatutako gastuen itzulpenaren onarpena eragiten ez badute ere, bistan da informazio desagokoa eman zela eta egoera horiek zuzentzeko neurriak hartu behar zirela pentsatu zuen Ararteko erakundeak.

- Emaidza

Gomendio bat bidali zitzaion Osasun Sailari, erabiltzailearen informaziorako eskubideari kalte egiten dioten egoera horiek gertatzean ekimen administratiboak ez bukatzeko aurreko erreklamazioaren ebazpenarekin batera. Ekimenak behar den zerbitzura eraman behar dira, etorkizunean horrelako jarrera zuzentzeko.

Gomendio honekin eta bere arazoekin bat etorri zen Osasun Saila, eta hiru lurralde historikoetako profesionalen artean talde bat elkartu zuela adierazi zuen, erabiltzaileari osasun-zerbitzuetaz behar den bezala informatu behar zaiola gogorarazteko asistentziatzko sendagileei eta pazientearen zainketa zerbitzukoiei, baita esparru horretan jarrera desegokiak zuzentzeko ere.

Gure ekimena eten aurretik, talde horrek Osakidetzako arazoak bakarrik ez ukitzea komeni zela adierazi zuen erakunde honek, lan hori Osasun Saileko lurraldeko beste zerbitzuetarako ere beharrezko izango zelako, esparru honetan ere informazio desegokiak eragindako arazoak izan baitziren.

⇒ *Ematen diren osasun-zerbitzuei tratamendu berriak eranstea (377/2001)*

- Erreklamazioa

Zentro mediku pribatu batean eman zioten asistentziatzko gastuen itzulpena uko egin ziotelako kexatu zen pertsona bat. Begietako gaixotasun bati buruzkoa zen kexa, eta Osakidetzako bere sendagileak gomendatu zuen tratamendua.

- Azterketa

Gastuak itzultzeko arauen ikuspuntutik zuzena zen ukoa. Eskakizunari uko egiten zion ebazpenak, ordea, medikamentu hori onartu ez zegoela besterik ez zuen esaten, adierazitako beste alderdi batzuk kontuan hartu barik, sendagile espezialistaren gomendioa, bestean beste.

Alderdi honetaz gain, kexaren aurrekariak kontuan hartuta, gaixotasun hori sistema publikoaren esku dauden beste teknika batzuen bidez tratatzeko aukera argitu behar zela pentsatu genuen.

Lehenengo puntuari dagokionez, sendagilearen gomendio batek sistema publikoa ez duela konprometitzen adierazi zigun Administrazioak, katalogoan agertzen ez den tratamendu bat emateko bada, eta ukoa zuzena zela iruditzen zitzaion.

Gaixotasunaren tratamenduari dagokionez, tratamendu hori saiakuntza kliniko bezala erabiltzen ari zela eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak espezialitate farmazeutiko horren onarpena eta merkaturatzea duela gutxi zabaldu zuela jakinarazi zitzaigun, baita tratamendua osasun sistema nazionaleko zerbitzuen artean sartzeko lehen urratsak egin zirela ere.

- Emaidza

Tratamendua sistema publikoan laster sartuko zela eta Osasun Lurralde Zuzendaritzako erabiltzailearen zainketak eskatutako urratsak geroago jakinaraziko zaizkiola esan genion erabiltzaileari, organo horri egin baitzion beste eskakizun bat. Osasun Sailak zuzenean emango lioke horrela erantzuna bere eskakizunari, bere osasunerako eskubidearen organo erantzule gisa.

Osasun-administrazioari bidali diogun erantzunean ere, honako hau adierazi diogu: Osakidetzako sendagileak gomendatutakoa, zerbitzu bat sistema publikoan sartzeari dagokionez behintzat, Osasun Saila ez badu konprometitzen ere, gertaera hori alde batera utzi, erabiltzaileak eskura dituen zerbitzuen gaineko informazioa izateko eskubideari eragiten diolako. Alderdi hori 123/2001 espedientearen 13/2001 Gomendioan landutako kontu batekin lotuta dago, txosten honetan agertzen da laburpena.

⇒ *Zerbitzu farmazeutiko eta osasun-zerbitzuaren arteko lotura (434/2001)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Osasun Sailak ordura arte finantzatua izandako medikamentu baten finantzaketari uko egin ziolako.

Medikamentu horren agindua ez zela herrialde batean ere ez onartzen jakinarazi zion Administrazioak ukapenaren bitartez, baita bere erabilpena saiakuntza kliniko bezala edo beharbada gupidak bultzatuta bakarrik egitea komeni zela.

- Azterketa

Medikamentuaren Legeak ezartzen duen erregulazioaren ikuspegitik, zuzena ematen zuen Osasun Sailaren erantzuna, arazoa saiakuntza klinikoaren testuinguruan sartuz.

Zerbitzu farmazeutikoari dagokion ikuspegia besterik ez zen ukitzen, ordea, medikamentu hori erabiltzen duen osasun-tratamendua alde batera utzita. Zentzu honetan, medikamentuaren erabilpena saiakuntza klinikoaren bidetik ez eskatzea baldin bazen arazoa, zergatik ez zen kontua horrela konpontzen, bide horri ekiteko baimena emanez? Nola uler daiteke, gainera, osasun-zerbitzua ematen ari zela, zerbitzu farmazeutikoa eteten bazuten gero?

Behin espedienteko dokumentuak aztertuta, tratamendua zentro pribatu batean egiten ari zela ikusi zen, eta honek gertatutako azal dezake. Hau da, bereizi ezin ziren bi zerbitzu ari zirela bereizten: osasun-zerbitzua eta zerbitzu farmazeutikoa.

Datu horrek gertatutako azal zezakeen, medikamentu baten finantzaketaren ukoaren kontrako beste kexa batzuetan bezala. Zerbitzu farmazeutikoaren (medikamentua) eskubidea osasun-zerbitzuarekin lotuta dagoela kontuan hartuta aztertu ziren kexa horiek. Beraz, sistema publikoak osasun-zerbitzua baimendu ez badu, zerbitzu farmazeutikoaren finantzaketa ez da zuzena.

Osasun Sailaren ukapenak ez zuen funtsezko alderdi hori ukitzen. Horri dagokionez, pertsona horri momentura arte finantzatu zitzaion tratamendua zentro pribatu batean egiten bazen, sistema publikoaren baimenik gabe, hori zen, hain zuzen ere, ukapenaren arrazoi nagusia, eta ustezko saiakuntza kliniko bat izatea gorabehera bat besterik ez zen.

Behin bere kexa ikuspegi horretatik aztertuta, pertsona horrek ordura arte sistema publikoan jasotako aginduak ez lirakeke zuzenak, eta aurrekari horiek ezin dute, hortaz, inor konprometitu.

Zerbitzu farmazeutiko eta osasun-zerbitzuaren arteko bereizte erreala oraindik kexak eragiten dituen arazoa da, erabiltzailea ordura arte jasotzen ari zen agindu bati uko egiten zaiolako. Osasun-Administrazioaren jarrera egokia zen egoera horiek bideratu nahi dituelako, baina kexa eragiten zuen erabakiaren gaineko informazioa falta zen.

- Emaizta

Azalpen hori kexa aurkeztu zuen pertsonari bidali eta espedientea artxibatu zen.

⇒ *Zerbitzu ortoprotetikoa jasotzeko aukera: arazo formalak alde batera utzita, edukia birbaloratzeko aukera (967/2001)*

- Erreklamazioa

Osakidetzako erabiltzaile bat Logroñoko ospitale batean zaindu zuten. Gurrpil-aulki baten beharra zuela jakinarazi zioten ospitalean eta erosi egin zuen. Osasun Sailak gastuen itzulpenari uko egin zion, “agindu klinikorik ez zelako izan”.

- Azterketa

Aulkiarena agindua baino lehenagokoa izatea zen ikuskapen medikuaren oniritziak uko egiteko ematen zuen arrazoia. Hauxe egia zen, baina kexako beste datu batzuk aztertu ondoren bideratzea onartzeko bi arrazoi ikusi genituen: lehenik, bere oheburuko sendagileak bi txosten mediku egin zituela eta produktuaren erosketaren ostekoak izanik ere, Logroñoko ospitalean alta hartu zuenean aulkiaren beharraren alde argi eta garbi egiten zuten; bigarren, interesdunak zerbitzu orto-protetikoen finantzaketarako ezarrita dagoen prozedura orokorra ez bazuen erabili, aipatutako zentroak gaizki informatu zuelako izan zela pentsa daitekeela.

Aurrekari hauek eskuen artean, Osasun Sailarengana jo genuen, zerbitzua eskuratzeko prozedura ez betetzearen kontra egon gabe, arazoaren edukia baloratzeko aukera proposatzeko, geroko txosten medikuak kontuan hartuta.

- Emaizta

Osasun Sailak espediente guztia ofizios berrikusi behar zuela esan zigun bere erantzunaren bidez, asistentziatzko prozesua birbaloratzuz.

Aurrekoarekin batera, eta berrikuspen horri kalterik egin gabe, asistentziatzko prozesuak eragindako zerbitzu orto-protetikoa INSALUD-ek bideratu behar zuela ere esan zuen, informazioen alderdiari nahiz alderdi materialari dagokionez.

Mahai gaineko arazoaren jatorria erabiltzailerari emandako informazio eskasa zelarekin bat zetorren Ararteko erakundea. Eta horrela azaltzen dugu interesdunari bidalitako eskutitzean, Osasun Sailak hartutako baiezkotako erabakiaz informatzeko.

B) Osasun publikoa

⇒ *Administrazio publikoaren bulegoetan erretzeko debekua (1224/2000)*

- Erreklamazioa

Udal bateko langileek kexa bat aurkeztu zuten, erretzaile pasiboa ez izateko eskubidea babesteko ez zelako ezer egiten.

- Azterketa

Pertsona horien kexa bat zela-eta, erretzen ez dutenen eskubideak errespetatzeko (18/1998 Legeak argi eta garbi babesten ditu) beharraren aurrean babesa bermatzeko behar ziren aginduak eman zituela esan zigun Udalak. Kexa berri honetan, egoerak berdin jarraitzen adierazten zuten interesdunek.

Horri buruz inolako kexarik ez zuela jaso esan zigun Alkate-Presidenteak, baita jasotzen zituen guztiak Ararteko erakundearen bidetik egiten zuela eta orokorrak zirela. Erretzen ez dutenen eskubideak babesteko asmoa zuela ere baina hori eraginkorra izateko eskatzaileek euren eskubidea babesteko gehiago mugitu behar zutela adierazi zuen Udalak, beharrezko datuak emanez, Udalak solidaritatea alde batera utzita lankideen eskubideak urratzen dituztenen kontra neurri egokiak hartu ahal izateko.

Ikuspegi juridiko zorrotz batetik, eta eskuduntza baten erabilpenari ezin baitzaio uko egin, beharrezko neurriak hartu behar zituen Udalak edozein arau-hasteri buruzko datuak izatean. Hau da, balizko tabakoaren kontsumoa debekatzen duen arauaren hausleari egindako espedienteak aurrera egiteko tresna baliagarria izan daiteke elkarlana, baina arau-haustearen aztarnak izanez gero, Administrazioak ezin du espediente hori elkarlan horren mende utzi.

Baina erretzaile pasiboek jasotzen duten kaltea dudagabeaz gain, erretzaileen kontra neurri hertsatzaileak hartu behar direnen gaineko eztabaida baketsua ez denez, hartu behar diren neurriei dagokienez, erretzen ez dutenen laguntza eskatzen duen Udalaren asmoa zilegizkoa ez zela esatea zaila zen. Edozein modutan, tabakoaren mendekotasun handia dutenen aurrean hartu behar diren neurrien testuinguruan sartu behar da, ez baita Administrazioak ezagutzen dituen arau-hauste administratiboaren kontra egiteko duen beharraren esparru berdina.

- Eraitza

Aurreko azterketarekin bat, tabakoaren kontsumoaren debekuaren arau-hausle baten –honi, bidezkoa denez, bere inguruan erretzen ez dutenak errespetatzeko ahalegina eskatu behar zaio– kontra neurri hertsatzaileak ezartzeko beharra edo aukera dagoenean, behar den espediente administratiboari ekin behar diola adierazten diogu Udalari, kaltetuen laguntza izateko komenigarritasuna eta komenigarritasun hori baldintzatuz hartzeko beharrezkin nahastu barik.

Udaletxeak, bere erantzunean, kexa zehatzik izanez gero, informazio nahikoa izateko beharra nahitaezkoa denez, behar diren neurriak hartuko litzukeela adierazi zion erakunde honi.

12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

12.1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoak lana eta Gizarte Segurantzaren esparruan eskuduntza txikia du eta horregatik da oso txikia kexen kopurua arlo honetan, erakundeak 2001ean egindako lanarekin konparatuta.

Gizarte Segurantzaren esparruko gatazka edo arazoak ukitzen dituzten kexa guztiak Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkio, hain zuzen ere, bertan Estatuko Administrazio Nagusiko organoen jarrera eztabaidatzen baita eta parlamentuko ordezkapen horrek dauka hori aztertzeke eskuduntza.

Beste kexak, hau da, lana eta Gizarte Segurantzaren esparrukoak izanik, euskal erakunde publikoen jardura edo utzikieriaz ari direnak, erakunde honetan aztertuak izan dira. 2001ean Euskadiko hiritarrek bi kexa bidali dizkiote Arartekoari, hain zuzen ere. Ideien deialdi batetaz ari da lehenengoa, Bilboko Udalak sustatua, beste batzuen artean, bere elkarte publiko baten bitartez (aukeratutako kexen atalean agertzen da laburpena); bigarren kexaren bitartez, eskatzaileak –mediku batek– Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak errekurtsio bati erantzunik ez ematearekin bat ez datorrela adierazten du. Eskatzaileak aipatutako sailarekin zeukan desadostasuna da kexaren jatorria. Bere merituak baloratzearekin ez zegoen ados, laneko arriskuen prebentzioaren esparruan funtzio gorenak hiru espezialitateetan betetzeko kreditatu behar zituen meritu horiek. Ezarritako errekurtsioaren alde bat onartzea eta kaltetuari laneko arriskuen prebentzioaren esparruan funtzio gorenak betetzeko kreditatzea ematea erabaki zuen bere ebazpenean, Laneko Seguratasuna espezialitatean.

12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Alegatzen dena frogatu beharraz (757/2001)*

- Erreklamazioa

Bilboko Udalaren mende dagoen elkarte publiko baten jardueraren kontrako kexa aurkeztu zuen hiritar batek, “Enpresarako Ideia eta Ekimenen Deialdia Internet eta Teknologia Berrien esparruan” deialdiaren antolakuntzarengatik. Aurrezki-erakunde pribatu baten fundazioak ere hartu zuen parte aipatutako deialdiaren antolakuntzan.

Laburbilduz, eman ziotela telefonoz esan eta gero, aipatutako deialdiko sari bat ez ziotela eman eta kontratu bat sinatzeko prest ez zegoelako izan zela adierazi zuen kaltetuak. Eskatzaileak pentsatzen zuenez, puntu hori ez zen agertzen sariak lortzeko baldintza gisa deialdia arautzen zuten oinarrietan.

- Azterketa

Berehala ekin zitzaion espedientearen azterketari, eta Bilboko Udalarekin harremanetan jarri ginen, kasuari buruz informatzeko eta horrela behar den konparaketa egiteko.

Erantzuna ikusita eta eskura genuen datu multzoaren arabera, gertaera batzuen alegatzearen aurrean geundela pentsatu genuen: enplegatu publikoren batek egindako dei telefonikoa sari baten ematea jakinarazteko, gertaera hau ezin izan zen egiaztatu, Administrazioari irregularitasun bat egin zuela esateko. Gorabehera honek eskua sartzen jarraitzeko aukerak agortu zirela pentsatzera bultzatzen gintuen.

Ondorio hauek ateratzeko orduan ez genuen alde batera utzi eskatzaileak beranduago ekarritako dokumentazioa, hain zuzen ere, beste erakunde antolatzailearen eskutitza. Idatzi honek eragiten zituen kontuak gure ekiteko aukeretatik kanpo geratzen ziren, pertsona juridiko-pribatu baten eskutik zetozelako.

- Eraitza

Aurreko guztia kontuan hartuta eta interesdunari jakinarazi ondoren, bukatutzat hartu genuen kasu honetan partehartzea.

13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

13.1. SARRERA

Hirigintza atalak eta etxebizitza politiken gaineko auziek eragin handia izan dute erakunde honen eginkizunetan. Hala, kopuruari erreparatuta, 106 kexa jaso dira guztira, hau da, urtean burutzen diren zeregin guztien % 8,75.

Ukitutako administrazioei dagokienez, kexak honelaxe banatu dira:

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	41
Foru Administrazioa	2
Tokiko Administrazioa	70

Azpiatalak kontuan hartuta:

Etxebizitza	41
Hirigintza arauak betear. eta aurriak	31
Admin. jardunbidea eta admin. prozedura	16
Hirigintza antolamendua	10
Hirigintza kudeaketa	4
Araubidea. Kontrat., ondarea eta adm. erantz.	2
Irisgarritasuna	1
Bestelakoak	1

Arlokako ikuspegia oinarri harturik, lurraldearen antolamenduak eta hirigintzak -gizabanakoak bizi direneko ingurunea antolatu eta modu jasangarrian garatzearen herri administrazioen jardute-eskumenak diren aldetik- hiru alderdi jorratzen dituzte: hirigintza antolamendu edo plangintza; hirigintza kudeaketa edo betearazpena; eta hirigintza legezketasunaren babesa, lurzoruaren erabileran eta hirigintza arauen betearazpenean esku hartuta.

Azken gaiak, hirigintza arauak betearazteak, alegia, esku hartzeko eskaera gehienak ekarri dizkio erakunde honi. Sarritan, udalek eraikuntza proiektuaren egokitasuna edo betearazpen lanak kontrolatzeari, plangintzan ezarritakoaren eta emandako baimenaren arabera, jaramon ez egitean datza kexa. Bestalde, administrazioak esku har dezan herritarrek bideratzen dituzten eskaeren arrazoiak, askotan, hirigintza arauak behar bezala betetzeko galdapen zorrotzarekin zerikusirik izan ez arren, lurzoruaren legeetatik datorren antolamendu juridikoa aldarrikatzen duten herri ekimenak erreklamatzailen esku hartzeko interesa legebideztatzen du, eta, hedaduraz, erakunde honena. Horrela, bada, aurtan bideraturiko kexa askotan baimenik gabe egindako lanak edo hirigintza arauetaz nahiz eraikuntza proiektuari egokitzen ez zaizkion obrak salatu dira. Galdapen horietan, udal administrazioari galdetzen diote zein neurri hartzen dituzten udal zerbitzuek hirigintza legezketasuna jagoteko. Geuk esku hartzeko neurri egokiak hartu direla egiaztatu ondoren, kexa-espeditzea amaitutzat jotzen dugu. Hala jazotzen ez bada, udalei gogorarazten diegu lurzoruaren legea eta plangintzaren tresnen zehaztapenak eraz bete eta erabil daitezten jagon behar dutela.

Kexa-espeditente horietan, nabarmendu behar ditugu obren legezkotasuna kolokan jarri edo udalaren hirigintza antolamenduari egokitzen ote zaizkion galdatzen dutenak, norbanakoen eskubide pribatuen zaurtzapenean funtsaturik (jabetasun eskubidea edo zortasunen bat); horrek, jakina, ez du inolako loturarik hirigintzaren legezkotasuna babestearekin. Ildo horretan, erreklamatzaleei jakinarazi ohi zaie udalek ahalmena badaukatela norbanakoek egiten dituzten hirigintza edo eraikuntza jarduketak kontrolatzeko, eta, hortaz, aurkeztu den proiektua hirigintza arauari egokitzen ote zaien ebazteko. Kontrol edo artapen hori bi alditan egiten da: eraikitze baimena tramitatzen denean, aldi horretan aztertzen baita eraikitze proiektua udalerraren arau subsidiarioei egokitzen ote zaienez; eta lehen erabilera baimena ematen denean, orduantxe egiaztatzen baita lanak aurkezturiko proiektuaren arabera egin diren, eta, hala bada, gorkio, aldarazpenek hirigintza legezkotasunari men egiten dioten. Hori dela eta, norbanakoek beren lursailetan egiten dituzten eraikuntzen gaineko udalaren esku-hartzeak hirigintza legezkotasunari egokitzen zaizkiontz erreparatzen dio, ez besteri. Eraikitaileak edo lursailaren jabeak Kode Zibilararen arauak urratzen baditu lanak gauzatzean -beste jabe edo norbanako batzuen eskubideak errespetatzen ez dituelako-, udalak ezin du, ezta behar ere, alderdi horien gaineko ebazpenik eman, eskumenik ez dauka- eta izaera pribatuko auzi horietan bitartekari jarduteko. Ildo horretan, Tokiko Korporazioen Zerbitzu Araudiaren 12.1 artikulua arautzen duenarekin bat, eraikitze baimena ematen da eraikuntza proiektuak gainerakoen eskubideei kalte egin diezaieketela kontuan hartu gabe. Sustatzaile batek norbanakoen eskubideak zaurtu edo haien ondasunei kalte egiten badie, norbanakoak babesteko bitartekoak auzitegi arruntak dira -horietara bai jo dezakete- eta hantxe eska dezakete kalteak konpontzeko, haien interes pribatuen defentsan.

Beste alde batetik, erreklamatzaleak ez dira ados ageri haien ondasunak ukitzen dituen hirigintza plangintzarekin; hain zuzen ere, zalantzan jartzen dute haien jabetzapeko lursailari esleituriko kalifikazioa edo arautu den hirigintza aprobetxamendua zuzenak ote diren. Jakitun gara herri eta hirien hirigintza garapenak arazorik ekartzen duena, bai eta horrek aldeak sorrarazten dituen eraikitze den udal lurzuari esleitzen zaizkion erabilera eta aprobetxamenduetan ere. Hala ere, erabilera zehaztapena jabetza eskubidearen mugapena da, Konstituzioaren 33 artikulua ezartzen duen bezala. Artikulu horrek arautzen duenaren arabera, jabetza pribatuaren eskubidea mugatua da, arauak ezartzen duten gizarte funtzioan oinarriturik. Apirilaren 13ko 8/1998 Legeak, Lurzoruaren Araubide eta Balorazioei buruzkoak, ezartzen duenari jarraiki, jabeek aitortzen zaizkien hirigintza ahalmena legeek arautzen dituzten mugen baitakotzat jo behar da, edo, legeak direla medio, unean-unean erabilera esleitu eraikuntzak baimentzen dituen udalaren hirigintza antolamenduaren baitakotzat. Nolanahi ere den, jagon behar da ahalmen hori hiri eta gizarte ingurunea garatu eta antolatzeko parametro eta irizpide batzuen arabera gauzatzen den, eta parametro zein irizpide horiek behar bezala bidezkoturik egon behar dute plangintzako artezpideetan. Halaber, ahalbidetu behar da herritarrek parte har dezaten plangintza taxutzen, eta banakako erantzun zentzuzkoa eman behar zaie interesdunek jarritako alegazioei.

Hirigintza kudeaketaz den bezainbatean, maiz agertzen dira lurzoruaren jabe txikien auziak, lurra berriro zatitzeko espeditenteetan edo konpentsazio-proiektuetan nahasita gertatzen baitira. Egoera arruntenetako bat dugu norbanakoek erakunde honetara jotzea haien jabetzapeko ondasunak jardun-une batean txertatu dutela jakinda, urbanizatzeko

zamen kostuak ordaintzeko beharraren beldur. Erakunde honek argitzen die lurzorua kudeatzeko egintza horiek -gehienak ekimen pribatukoak- bete nahi dituztela plangintzaren aldia zehaztu ziren erabakiak. Horretarako, lurralde unitateak zedarritzen dira, eta zuzen banatzen dira plangintza artezpideek arautzen dituzten zamak eta onurak. Hala, plangintzatik datozen zamak banatzen dira (urbanizatzeko kostuak, eskubideen lagapena...), eta bai, halaber, onurak, hau da, hirigintza aprobetxamendua.

Etxebizitza azpiatalari dagokionez, herritarrek arrunt aurkezten dituzten kexek hizpide dute Euskadiko herri botereek etxebizitza sustatzeko darabilten politika. Autonomia erkidegoan bizi diren lagunak kexu dira zailtasun handiak dituztelako etxebizitza eskuratu ahal izateko merkatu librean ezartzen duen prezioan, batik bat, azken urteotan izandako gorakada izugarrien ondorioz. Horrek esan gura du premia biziko ondasun preziatu hori eskuratzeko zailtasunak dituzten lagun gehienek itxaropenez hartzen dituztela administrazioek edo sustatzaile pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten etxebizitza sustapenak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren atalari gagozkiola, esan dezakegu etxebizitza babestuen sustapenak ezin duela etxebizitza librean gorakada apaldu, baina salneurri doiko etxebizitzaren eskaintzari eutsi dio hein handi batean. Zalantzarik gabe, emaitza hori zor zaio ekainaren 30eko 17/1994 Legeak eta ekainaren 29ko 20/1998 Legeak ezartzen dituzten legezko erreserben aplikazio eragingarriari.

Nolanahi den, etxebizitza nota hori eskatzen dutenen kopurua eskaintzen den etxebizitza kopuruaren gaintetik dabil, eta, beraz, irizpide pertsonal eta ekonomiko taxuzkoak ezarri behar dira etxebizitzak esleitzeko. Irizpide horiek eta haien balioztapen zuzenak izan dira askotan, eta badira, Arartekok esku hartzeko eskaeraren arrazoia. Kexen hautapenean azalduko dugun legez, gertaera nabarmenetako bat ondokoa izan zen: Gasteizko Udala saiatu zen sustapen publikoko etxebizitzak bizikide bik edo gehiagok osaturiko unitateei esleitzen, eta banakako eskaerak baztertu zituen. Erakunde honek aztertutako beste egoera batzuetan, hainbat talderi -esate baterako, minusbaliatuena-sartzeko aukera errazteko helburuz araudiak proposatzen zituen neurriak ez ziren zeharo eragingarriak, arauaren funtzionaltasun ezagatik. Erakunde honek bermatu nahi du Administrazioak zehazten dituen betekizunak -haren egokitasun irizpideetan funtsatutakoak- gizartearen benetako egoerari nahiz etxebizitza sustatzeko politika publikoei eurei moldatu eta zentzuzkoak izan daitezken. Horretarako, sarri askotan agertu ditugu benetako gertaerak, non araua hertsiki ezarri gero, eskatzaileek ezin helduko liekete etxebizitzak esleitzeko prozedurei; alabaina, gertaera horiek kontuan hartzeko beste arazo batzuk sorrarazten zituzten, edo araudiaren hutsuneak agerrarazten, horren ondorioak bilatu nahi izan ez arren. Hori dela eta, beste balizko batzuk onartu dira babes ofizialeko etxebizitzaren araudian, eta, horri esker, araudiaren helburuari hobeto atxikitzen zaion eskatze prozedura ahalbidetu da: esate baterako, etxebizitzaren beharra aitortzen zaie gurasoek egindako dohaintzaren bidez etxebizitzaren jabetza eskuratu duten titularrei -betiere kuotaen % 50 baino gutxiago badaukate-; edo, bestela, diru-sarreretat hartzen dira (zerga ondoretarako) ogasunak minusbaliatuei egiten dizkien zerga-arinketak, horiek eragozten baitzuten etxebizitza bati heltzeko gutxieneko diru-sarreraren betekizuna.

Aurten ere, aipatu beharra daukagu lurzoruari buruzko araudirik eza, egun dauden legezko xedapenak bategin eta sistematizatu, eta gure autonomia erkidegoak arlo horretan dituen eskumenak garatuko lituzkeena, plangintzaren kudeaketa bizkortu eta kudeaketa

tresnek hirigintza tramiteak erraztearren. Azken batean, lurzorua-ren prezioa apalarazteko neurriak ezarri, eta, horren ondorioz, etxebizitzaren prezioa doitzearren.

13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Hirigintza arauen betearazpena eta aurria

⇒ *Udalen esku-hartzea norbanakoek egindako lanak hirigintza legezkotasunari egokitzen zaizkionentz egiaztatzeke (742/2000)*

- Erreklamazioa

Gasteizko bizilagun batek Arartekok esku har zezala eskatu zuen, udal zerbitzuek hirigintza araubidea betearazteko bideratu zituzten jarduketak egokiak ote ziren zehazteko asmoz, bizilagun horren lursail baten ondokoan eraikitako horma bat eraisteko aginduari dagokionez, plangintzan baimendutako garaieraz kanpokoa zelakoan.

- Azterketa

Udal zerbitzu eskudunek egindako jarduketak argitzeko eskaerari erantzuteko helburuz, udalak jakinarazi zigun harrizko hormaren jabeak apaldu egin zuela garaiera, eta, ondoren, itxitura legeztatzeke baimena eskatu zuela, udal plangintzarekin bat zetozen garaiera eta materialak erabili zituelakoan.

Udalaren azalpenak jaso ondoren, alderdi ilun batzuei buruzko argibideak eskatu genituen berriro ere, honako hauei buruzkoak, hain zuzen ere: horma eraisteko agindua zergatik ez zen aurkeztu, eta joandako denbora kontuan izanda, delako agindua zergatik ez zen gauzatu, edo Gasteizko Udalak xedatu zuen aginduaren eta horma legeztatzeke eskaeraren aldiberekotasuna zertan zen.

Txosten banatan, udalak galderei erantzun zien honako hau azalduta: alde batetik, eraisteko aginduari dagokionez, obren sustatzaileak agindua bete zuen hormaren garaiera murriztuta, baina eraitsi gabe. Halaber, harrizko hormaren itxitura plangintzan ezarritako garaiarekin bat zetorrena aintzat hartuta legeztatu zen.

Beste alde batetik, udalak egiaztatu zuen jabeak jatorrizko kotan egin zituela lursaila leheneratzeko lanak; hala, erabilitako betelaneko materialak lurraren garaiera igoarazi zuen, eta, hortaz, hormarena ere bai. Udalak ebatzi zuen oso zaila zela jatorrizko kota zehaztea, eta hasierako sestra ezarri zuten ondoko lursailenarekin erkatuta.

Kexaren xedari dagokionez, erakunde honek hainbat azalpen eskatu zizkion udalari, erantzunaren zehaztasuna biribiltzearren.

Administratuen jarduketari erreparatuta, herri administrazioen esku-hartzeak hirigintza arauak betearazteko aurretiko administrazio kontrolari eutsi behar dio, eta, horren arabera, edozer eraikitzeke ekintza oro udalaren aurretiazko eta derrigorrezko baimenaren onespenean jarri behar da. Hirigintza baimenak gauzatu nahi den jarduerak hirigintza arauak betetzen dituelako agiriak dira, eta, beraz, jarduerok bat etorriko dira lurzoruari buruzko legeekin eta udalaren antolamendu tresnekin. Administrazioak ez du inolako aukeramenik baimena emateko; bada, egiaztatzea dauka egin nahi diren obrak legezkoak direnentz, eta, horregatik, legez kontrako obrei baimena ukatu beharko die,

eta baimena eman obra egokiei. Egindako obrek hirigintza antolamendua urratuz gero, administrazioak neurriak har ditzake hautsitako lege juridikoa berrezartzeko eta legez kanpoko jarduketak aldarazi duen errealitate materiala leheneratzeko. Hori dela eta, hasitako lanak eteteko baimena eman dezake, edota eraikitakoa eraisteko, legez kanpoko bada.

Aztergai darabilgun kexa honen xedea bazen Gasteizko Udalaren esku-hartze eza salatzea, lursailaren jabeak egin zuen legez kanpoko itxitura eraisteko agindua bete zela ez baitzuen egiaztatu.

Gauzak horrela, udalak jakinarazi zigun agindua eragingarriro bete zela, guri helarazitako egiaztagiriek dioten moduan, udal txostenean jasotako ñabardurei jarraiki.

Udalak onartutako eraiste-agindua betetzeaz den bezainbatean, legez kontrako itxitura baten eraiste-aginduak ondorena ekarri behar die hirigintza arauen kontrako jarduketei, ez besteri. Hori guztia, kontuan izanik Auzitegi Gorenaren 1983-05-06ko epaian (AAJ 1983\2892) honako hau ebatzi zuela: *“baimenik gabe edo ezarritako arauen kontra egindako obrak alor hori arautzen duen legeriaren (Lurzoruaren Legearen barruan) eredura eraitsiko dira. Salbuespenezko neurria da, eta, beraz, interpretazio murrizgarria dauka; gainera, arau horren larriagatik, aipaturiko obrak ezin legeztatzea dakarten urraturiko arauen beren beregiko aipamenean funtsatu behar da erabakia”*. Era berean, Auzitegi Gorenak eraistek saihesteko abiaburua ezarri du -ikus-, besteak beste 1986-10-24ko epaia (AJ 1986\7709)-, behar-beharrezko egoeretan izan ezena.

Horregatik guztiagatik, udalak garaia zenean xedatu zuen eraiste-aginduari kalterik egin gabe, legez kanpoko obraren zatiren bat plangintzarekin bat etorriko balitz, honakoa ondorioztatu behar da: legeztatzeko espedientea bideratu ondoren, lurzorian egindako jarduketa hura bat letorke hirigintza araudiarekin.

Badirudi baldintza hori betetzen dela udalak emandako baimen berrian; izan ere, baimena ematen du harrizko itxitura egiteko garaiera jakin batera. Horrek men egiten dio indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari, 0,8 metrorainoko itxitura opakua eta 1,4 metrorainoko sare metaliko zeharrargitsua edo arantzatsua paratzea baimentzen baititu hark.

Erakunde honek eskura daukan informazioan oinarriturik, obrak gauzatzen ari dira udalak eragingarriro egiaztatu barik obren burutzapena emandako baimenari egokitzen zaizkion. Horixe ondorioztatzen da udalaren ikuskapen zerbitzuak igorritako txostenetatik: haien arabera, hainbat ikustaldi egin eta argazkiak atera dira, baina ez da egiaztatu obraren burutzapena.

Lurra jatorrizko kotara leheneratu den ala ez den, udalak adierazi du oso zaila dela zehaztea lehengo kota zein zen, eta, hortaz, irizpide objektiboa baliatu du: sestra igarri ondoko lursailenarekin erkatuta. Lurraren berezko kota zehazteko, eskuragarri dauden frogabide guztiak erabili behar dira. Hala, kota zehazteko, beste bide batzuetara jo zitekeela alde batera utzita, udalak irizpide objektiboa proposatu du: lursailaren ondoko landalurrak erreferentziatzen hartzea. Udalak hirigintza arauak bete daitezela jagotea eginkizun daukala aintzat hartzen badugu -eta horien baitakoa da itxuturaren garaiera- irizpide hori ezarrita, udala era objektiboan aritu da, eta haren jardutea bat dator hirigintza arauekin.

- Emaizta

Gure iritziz, udalak emandako erantzunak eragingarriro asetzen ditu erreklamatzaillearen galdapen guztiak. Hori dela eta, udalaren balioespen-erabakiekin

ados egon ala ez egon bazter utzita, ezin zaio irregulartasunik leporatu udalaren jarduteari, udal baimenak arauzkoak direla aintzat harturik.

Aurreko inguruabarretan oinarrituta, eta hirigintza arauen legezkotasuna ezartzeko behin betiko jarduketen zain geratzen garela, espediente horren gaineko esku-hartzea eten dugu.

B) **Hirigintza kudeaketa**

⇒ *Administrazioaren aukeramenaz hirigintza arloan (538/2000)*

- Erreklamazioa

Donostiako Bidebieta auzoko auzotar talde batek galdera batzuk egin zizkigun Bidebieta-La Paz auzoa ukitzen duen Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren uneko aldarazpen bati buruz.

- Azterketa

Kexak xede zuen hirigintza hitzarmenak lursail batzuk berriro kalifikatu nahi zituen, hirugarren mailako zenbait erabilera eta komunitatearen ekipamendurako sailkapena indargabetu, eta egoitzazko erabilera esleitzeko, eta beste batzuk, babes bereziko landalur izaera indargabetu, eta gune libre nahiz komunitatearen ekipamendurako hiri lurzoruaren sailkapena esleitzeko.

Arartekoren zereginak hiri antolamenduaren esparru honetara ekarrita, erakunde honek herri administrazioen jardutea artatu behar du, irregulartate edo botere abusurik egin ez dadin, herritarren kaltetan. Alabaina, bazter utzi behar ditugu aukeramerako alderdiak, horiek administrazioaren beraren eskumendekoak baitira, udalerrria antolatzeke eskumenak gauzatzean.

Kexa tramitzatzeko prozeduran, Donostiako Udalari eskatu genion hirigintza hitzarmenaren kopia guri helaraz ziezagula, baita Hiri Antolamendurako Plan Orokorren uneko aldarazpenaren agiria. Uneko aldarazpenari dagokionez, Donostiako Udalak argudiatu zuen interes orokorrekoa izan zela lurzoruaren kalifikazioa aldatzeko erabakia, egoitzazko erabilera esleitzeko helburuz. Gainera, udalaren iritziz, hitzarmena sinaturik sustatzaileak bere gain hartzen zituen kontra-prestazioek balio zuten komunitateak hirigintzako ekintza horrek sorrarazten duen gainbalioari eragingarriro etekina ateratzeko.

Ildo horretan, Plan Orokorra alde horretan aldaraztea behin-behinean onartzen duen erabakiaren ziurtagiri egiaztatzailea bidali zigun. Bertan, zenbait pertsonak eta talde egindako alegazioak gaitzesten dira, eta erabakia Gipuzkoako Foru Aldundia behin betiko noiz onartuko duenaren zain dago.

- Emaizta

Udal plangintza aldarazteko asmoa Donostiako Udalaren aukerameneko auzia da, hiri antolamenduaren baitakoa, eta, beraz, Arartekok ezin du eragotzi administrazioak erabakiak nahierara har ditzan, betiere inolako lege irregulartasunetan erortzen ez bada.

C) **Hiri antolamendua**

⇒ *Administrazioaren aukerarena lurzoru urbanizaezintzat sailkatzeko (863/2001)*

- Erreklamazioa

Honako honetan, kexak xede zuen erreklamatzailearen jabetzako lursail batzuei ezarritako lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, izaera orokorrez, baliogabetzea, Bakioko Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioetan. Garai hartan, Bakioko plangintza behin-behineko onarpenaren aldian zen. Erreklamatzaileak zioen legez, alegazioa aurkeztu zuen udalak plangintza tramitatu zuen aldian, lursail hori lurzoru urbanizagarritzat sailkatzeko aukera zegoelakoan. Udalak, ordea, alegazioa gaitzetsi zuen, une hartan, beharrezko estrategikoak kontuan hartuta, lurzoru urbanizagarria oso ugaria zela argudiatuta. Hori zela eta, lursail horiek urbanizagarritzat sailkatzeko aukera egon arren, ezin zen alegazioa onartu. Erreklamatzaileak zalantzan jarri zuen udalaren argudioa, honako arrazoi honengatik: lurzoru urbanizaezinak bereziki babestutako lurzoru izan behar zuen, era objektiboan babestua, tasatua eta izaera iraunkorrez.

- Azterketa

Apirilaren 13ko 6/1998 Legeak, Lurzoruaren Araubide eta Balorazioari buruzkoak, hain zuzen ere, honakoa jasotzen du 9. artikuluan (ekainaren 23ko 4/2000 Errege Dekretu Legea onartutakoan geratzen den testu berria aintzat hartuta): lurzoru urbanizaezina bada hiri garapenari lotzen ez zaion babes berezia esleitzeko arrazoiren bat daukana. Ildo horretan, legearen corpus beraren 10. artikulua mesedetan, gainerako lursailak urbanizagarri edo hiritartzat sailkatu behar dira.

Zio hori dela eta, erreklamatzailearen lursailaren sailkapen zehatza eta horren bidezko jakiteko eskatu genuen. Ildo horretan, Bakioko Udalak erantzun zigun Bakioko Arau Subsidiarioak Bizkaiko Foru Aldundiak onartzeko zain zeudela.

Erreklamatzailearen lursailak urbanizaezintzat sailkatuta daude. Beraz, Arau Subsidiarioak idatzi zituenean, udalak nekazaritza eta abeltzaintza interesa aitortu zien aipaturiko lurri; eta horretan oinarriturik, urbanizaezintzat sailkatu zituen. Hala ere, udalaren adierazpenen arabera, etorkizunean, lurzoru urbanizaezin horren zati baten nekazaritza eta abeltzaintzako ahalmena iraungi eta lurzoru urbanizagarrien hirigintza garapena agortuta, udalerrira garatzeko erabiliko ahal zen, lurzoru urbanizaezin orokortzat sailkatu eta gero. Alabaina, Arau Subsidiarioak behin betiko onartzeko prozeduran, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak agerian utzi du lurzoru urbanizaezin orokorrak halako eran definitu behar direla, non argi eta garbi geratu behar den zein babes araubideren pean jarri behar diren, nekazaritza, baso, abeltzaintza edo natur baliabideen balioei erreparaturik, eta udalerriak etorkizunean izango duen hirigintza garapenaren gaineko aipamen guztiak ezabatu behar direla.

- Emaizta

Jasotako informazioan oinarri harturik, ondorioztatzen dugu erreklamatzailearen lurzoruari nekazaritza-abeltzaintzako izaera aitortu behar zaiola, eta, beraz, babes bereziko lurzoru urbanizaezintzat sailkatu behar zela, 6/1998 Legearen 9.2 artikuluari jarraiki.

D) **Bestelakoak**

⇒ *Tokiko administrazioak inposaturiko obrak egiteko aginduen proportzionaltasuna, beharrezkoak baitira eraikuntzen segurtasun baldintza egokiak bermatzeko (1230/2000)*

- **Erreklamazioa**

Gasteizko eraikin baten jabeen elkarteak zalantzan jarri zuen Udalaren jarduera hirigintzako diziplinaren betearazpenari dagokionez, gehiegizkoa zela uste baitzuen.

Kexaren kausak, hain zuzen ere, Udalaren bi ebazpen ziren. Ebazpen hauen bitartez, eraikinaren barne egitura obra batzuk egiteko agindua ematen zuen Udalak. Eraikineko etxebizitza batean xilofagoak zeudelako hondatua zen egitura. hiru alderdi ezberdin ukitzen zituen obrak egiteko aginduak: hondatutako solibak sendotu eta zenbait habe aldatu, egiturako osagai guztiak xilofagoen eta suaren kontrako produktuez tratatu, eta lurzorua konprimatze-geruza gisara ezarri.

Jabeen elkarteak hiru alderdi horien arteko bat besterik ez zuen zalantzan jarri: aipaturiko etxebizitzan egurrezko lurzoruaren ezarpena ez zuen sartu nahi, egituraren osagaitzat ezin dela hartu argudiatzen zuen. Lurzoruko lan horiek Udalek hirigintzaren esparruan legez daukaten eskuduntzatik kanpo geratzen zirelako ere sortu zen eztabaida, hori ez baitzen kontserbazio hutsa, eta eraikinaren jabetza horizontaletik datozen harreman juridikoen esparruan sartu behar da.

- **Azterketa**

Erakunde honek arazoaren gaineko informazioa eskatu zion Udalari, baita dagokion espediente administratiboaren kopia bat ere, eraikinak segurtasunari dagokionez, egoera onean gordetzeko obrak egiteko aginduak dagokion xedeari begira eman behar zirela, justifikatzen duten arrazoiekin bat etorri behar dute eta Administrazioak norberaren borondatea gutxien murrizten duen neurria aukeratu behar duela esaten genuen gure idatzian.

Eskakizun horri erantzunez, txosten administratiboaren kopia bat bidali zigun Udalak. Hondatutako solibak, habeak eta lurzorua -konprimatze geruzarena egiten baitu-komunitatearen eskuetan dagoen egituraren osagaiak zirela azaltzen zuen txostenak, egituraren hondamena eragin duten kausak alde batera utzita.

Gorabehera hauek kontuan hartuta, Arartekoak iritzi hauexek bidali zizkion Udalari:

Hirigintzako eskuduntzen esparruan, Administrazioak betiko du hiriko eraikinen jabeen jardueran parte hartzeko gaitasuna, eraikinaren bizitzaren hiru alderdi nagusi ziurtatzeko: segurtasuna, osasungarritasuna eta apainketa.

Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legeko 19.1 artikulua, 1976ko Lurzoruari buruzko Legearen 181.1 artikulua eta Hirigintzako Diziplina Araudiaren 10. artikulua ematen dute ahalmen hori. Tokiko erakundeek lursail eta eraikinen jabeak euren ondasunak segurtasun, osasungarritasun eta apainketa publikoaren esparruan egoera onean edukitzera behartzeko ahalmena daukate xedapen horiei esker, baita baldintza horiek betetzeko behar diren obrak egiteko agintzeko ahalmena ere, pertsonentzat, gauzentzat edo osasunarentzat arriskua saihesteko asmoaz.

Hirigintzaren esparruan, jabetzaren eskubidearen edukiak osatzen duen funtzio sozialaren parte da jabearen betebeharrak legal hori, Konstituzioaren 33. artikulua onartzen

du funtzio hori, eta betebeharren mugarik gorenaren buruaren porrota aitortzean datza, porrota aitortzeko behar diren baldintzak betez, behin porrota izanez gero kontserbatzeko betebeharrak indargabetu egiten da.

Baina Auzitegi Gorenak arlo honetan egindako jurisprudentziak irizpide hori zentzuz erabili behar dela uste du, kasuaren gorabeherak eta segurtasun, higijene eta apaintza publikoaren kontuan hartuta, ezin da erabili behar edo komeni den edozein obra egiteko. Ez du beste alderdirik ukitzen eta konponketa lanak egiteko erabili behar da, eta ez berreraikitzeko, proportzionaltasunaren hastapenak errespetatuz, obra horien inposaketa ahalbidetuko lukeena.

Azken finean, muga horien testuinguruan sartzen da administrazioaren interbentzionismoa, eta obrak egiteko aginduek ezin dute aipatutako artikuluan agertzen ez diren xederik izan, ezta eraikinak aipatutako baldintzak betetzeko ez den beste obrarik eragin. Proportzionala ez den edo gehiegizkoa den edozein neurri ordenamenduaren kontrakoa dela esan behar da, hirigintzaren esparruan Udalak duen eskuduntza gainditzen duelako.

Bestalde, esku hartzeko ahalmen hori ezin da ondasun higiezin mugakideen egoerak eragindako auzotasun harremanak konpontzeko ere erabili, eskumeneko organo zibilak erabaki beharko du horren gainean, eta Administrazioak ezin ditu harreman juridiko pribatuak aldatu, ondasun eta pertsonen segurtasunaz arduratu behar da, ordea.

Jabeen elkarteak salatutako kontuari dagokionez, arazoa ezin da Administrazioak eraikinaren segurtasuna gordetzeko behar ziren neurrietara mugatu, komunitateko etxebizitza baten tarima berriz jartzeko egokitasun edo proportzionaltasunera, baizik.

Xilofagoek eraikinaren egiturari eragindako gaitza ondasun eta pertsonentzako arrisku bihur daiteke, jakina, eta Udalari parte hartzeko ahalmena eman diezaioke. Hala ere, ezin dugu Auzitegi Gorenak jasotzen duen ikuspegia ahaztu, inposaketak proportzionaltasun eta zuzentasunaren hastapenen mende egon behar duela esaten duena, hiritarren jabetzaren eskubidearen esparruan beharrezkoa ez denean sartu barik.

Beraz, Udalak ezin du inolako ekintzarik inposatu eraikinaren segurtasuna, higijenea edo apaintza bermatzeko ez bada. Ondasun higiezinak esparru pribatuan dauzkaten betebeharrak alde batera utzi gabe. Horiek horrela, etxebizitza baten barruan tarima berria ezartzeko beharrak ez du eraikinaren eraikuntza-kalitatean eraginik izango, infekzioa eragin duten parasitoen desagerpena eta egituraren oinarrizko osagai hondatuen konponketa besterik ez baitu bermatu behar.

Bukatzeko, tarima ezartzeko aukera ez da osagai arrunta bailitzan aztertu behar, proportzionaltasunaz baizik, hau da, aipatutako etxebizitzan haritzeko tarima berri baten ezarpena eraikinaren segurtasuna gordetzeko neurri beharrezkoa den ala ez pentsatuz. Erakunde honen ustez, txostenetan ez da osagai beharrezko bat dela egiaztatzen, ez jabeen aldeko txostenetan ezta Udalaren txostenetan ere, espedinete administratiboarekin batera datozenak.

- Emaita

Azaldutako guztia kontuan hartuta, jabeen elkarteak etxebizitza horretan tarima berria ezartzeko betebeharrari dagokionez, Gasteizko udalari obra egiteko agindua berrikusteko gomendioa eman dio erakunde honek, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legearen 19.1 artikulua ezartzen dituen betebeharrekin

bat ez datorrelako, eraikinaren segurtasuna, higiena eta apainketa mantentzeko betebeharez ari gara, noski.

E) Etxebizitza

⇒ *Pertsona ezgaituentzat garajeetan gordetako aparkalekuek gutxienez izan behar duten tamainaz (937/1999)*

- Erreklamazioa

Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenaren bitartez erositako aparkalekua -persona minusbaliatuentzako egokitu- salerosketako kontratuan agertzen zen azalerarekin bat ez zetorrela adierazi zuen hiritar batek.

- Azterketa

Sustatzailearekin sinatutako kontratuak partzelaren tamaina 3,20 x 4,50 metrokoa zela zioen. Badirudi sustatzaileak babes ofizialeko etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzeko arautegiko ordenantzek agintzen dituen arauak ez zituela errespetatu, horri dagokionez kontratua ez baitzuen bete.

Kexaren espedientea behar den bezala bideratzeko, arazo honi buruz Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren iritzia galdetu zuen erakunde honek.

Arartekoari bidalitako erantzunean, sail horrek sustapen honi egokitu behar zaion arautegia 1994ko maiatzaren 18ko Agindua dela adierazi zigun, Agindu honen bitartez babes ofizialeko etxebizitzak diseinatzeko ordenantzak onartzen dira. edozein modutan, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak pertsona minusbaliatuen garaje-partzelak neurtzeko darabilen irizpidea jakinarazi zigun: *“partzelak besteak baino garestiagoak izan ez daitezten, partzela guztiak berdinak direla pentsatzen da, 2,20 x 4,50 metrotakoa, minusbaliatuen partzelek guztiena den eremuaren aldetik zabalera berezi bat izateaz arduratuz, gutxienez Ordenantzek ezartzen duten tamaina lortu arte”*.

Hala ere, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko ezartzen diren aipatutako arau teknikoek, bigarren artikuluan, agindu horretan ezarritako baldintza teknikoak betetzen ez dituen etxebizitza edo garajeen kalifikazioa sail horri ez dagokiola esaten du, ez behin-behinekoa eta ez behin betikoa ere. I. eranskinaren 7.1 atala dago baldintza horien artean, non garaje kolektiboek eskatu behar zaien baldintzak ezartzen diren, eta gutxieneko tamainak 2,20 x 4,50 metrotakoa izan behar duela dio. Partzelak minusbaliotasun fisikoa duten pertsonentzako badira, ordea, partzelaren alde bateko neurriak aukeratzea libre izango da eta 3,60 metrotako zabalera minimoa izango du, 3,20koa izan daiteke alde bat libre izanez gero.

Sailaren txostena ikusita, minusbaliotasuna duten pertsonentzako partzelen tamaina diseinu-ordenantzek ezartzen dutena baino txikiagoak direla ikusten da, eta horrez aipatutako ordenantza teknikoaren araua hausten dela esan nahi du. Diseinu-ordenantzek halaber gutxieneko tamaina libre bat ezartzen du, hau da, guztiena den espazioa kontuan hartu barik, ondorioz, korridoreen azalera gehitzea ez dator zuzenbidearekin bat.

Behin gorabehera horiek ikusita, erakunde honek Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak gutxieneko tamaina errespetata dadin eskatzeko gomendioa bidali

zuen, etxebizitzaren arautegian agertzen den moduan. Erakunde honek sail horrek neurri horren betearazpenaz arduratu behar duela pentsatzen du, babes ofizialtasunaren behin betiko kalifikazioa ematean nahiz Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko Araudiak jasotzen dituen hertsadura erabiltzeko aukeraren bitartez.

- Emaiza

Hasiera batean sail horrek Diseinu-Ordenantzen irakurketa irizpideak onartzen zuen txosten bat bidali bazigun ere, oraingo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak gutxieneko neurriak zehazten dituen jarduera administratibo hori aldatzeko nahia adierazi digu.

⇒ *Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzea egin diren erreserbei buruz (45/2001)*

- Erreklamazioa

2001eko urriaren 19an, Gasteizko Udalak Ibaiondoko babes ofizialeko etxebizitzak sustapeneko 350 etxebizitzak bi kide edo gehiagoko bizikidetzako unitateei besterik ez esleitzeko erabakia hartu zuela jakin zuen erakunde honek, komunikabideen bidez, mugikortasun murriztu iraunkorra dutenentzako, adin-txikiko seme-alabak bakarrik hazten dituzten pertsonentzako eta behar duenari ostatua emateko eta larrialdi sozialeko erreserbez gain. Asmo horrek eskatzaile indibidual asko alde batera geratzen zirela esan nahi du honek.

Komunikabideek emandako informazioa besterik ez bagenuen ere, neurri hau zabaldu zenean gizartean sortu zen zalaparta kontuan hartuta, ofiziozko espediente bati ekitea erabaki zuen Arartekoak, 2001eko urriaren 18an zabaldutako hitzarmena berdintasunaren hastapenaren kontra doan erabakitzeko.

Udaleko Hirigintza Berriztapen Agentziarekin harremanetan jarri zen erakunde hau, Arartekoak ofiziozko espediente bat ireki behar zuela jakinarazteko.

Geroago, eta komunikabideen bitartez ere bai, Udaltza horrek, 2001eko urriaren 22an Ibaiondoko sustapenaren deialdiaren oinarriak onartu zituela jakin zuen erakunde honek. 350 etxebizitzetatik 100 indibidualki eskatzen dutenentzat gordeko zirela ezartzen zuten oinarriek. Kupo orokorrean 189 etxebizitza sartuko zirela eta ostatua emateko eta larrialdi sozialeko egoerei erantzuteko 15 etxebizitza gordeko zirela ere esaten zen. Adin-txikiko seme-alabak bakarrik hazi behar dituzten pertsonentzat, ordea, 30 etxebizitza egongo ziren eta mugikortasuna behin betiko murriztua duten pertsonentzako beste 16 gehiago.

- Azterketa

Hasiera batean erabilitako irizpidea aldatzeak erakunde honek espedientea irekitzeko zuen arrazoia indargabetzen zuen. Hala ere, Udalari laguntza eskakizun bat bidaltzea komeni zela pentsatu zen, Ibaiondoko sustapenaren deialdiaren oinarriak azkenean zertan oinarritu ziren zehazteko.

Udaleko arduradunen hasierako asmoari buruzko zenbait gogoeta egitea ere komeni zela pentsatu zen, hau da, eskakizuna indibidualki egin zutenen bazterketa.

Neurri hori egitatezko bikoteak osatzen zituztenen edo etorkizunean bizikidetzako unitate baten kide izango zirenen eskakizun indibidualei dagokienez egon daitezkeen

iruzurrak saihesteko hartzen zela pentsatzen badugu ere, gehiegizko neurria izango litzatekeela eta berdintasunaren hastapena hautsiko lukeela uste dugu, babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko indarrean dagoen arautegiak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak baztertuko lituzkeelako.

Horri dagokionez, Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuak 2001eko otsailaren 14an egindako Aginduaren arabera, babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileek erregistroan izena emateko prozedura zabaldu zen, I. Gehigarrian agertzen diren sustapenen etxebizitzetaz ari gara (Ibaiondokoa, besteak beste). II. gehigarriak babes ofizialeko etxebizitza eskatzen dutenentzako baldintzen orria zekarren, "*pertsona natural, indibidual edota orain edo etorkizunean bizikidetzako unitate batean sartutako pertsonentzat...*", pertsonaren zergak ordaintzeko gaitasuna eta etxebizitzaren beharraren arabera.

Azkenik, Administrazioak etxebizitzaren eskariaren gaineko datu errealak dituela gogoratu genuen, Etxebidek egindako eskatzaile zerrendari esker, sustapenen deialdi aginduaren aurretik. Datu hauei esker, aginpideek baliabide nahikoak dituzte etxebizitza eskatzen dutenen egoera sozialaren lehen diagnostiko bat egiteko, eta hori sustapen bakoitzean ezarri daitezkeen erreserben eredu edo kupoetan ikusi beharra dago, etxebizitza gehiago behar duten taldeei lehentasuna emateko.

- Emaidza

Eskakizunari erantzuteko, Gasteizko Udalak Udaleko Hirigintza Berriztapen Agentzia S.A.ren Administrazio-Batzordeak 2001eko urriaren 22an onartutako oinarriak bidali zizkion erakunde honi, Ibaiondoko B sektoreko babes ofizialeko etxebizitzaren esleitzeko.

Arartekoak onartutako oinarrietan erreserbak egiteko erabili zen sistema eskatutako etxebizitzaren beharraren errealitate sozialarekin bat zetorrela pentsatu zuen.

Erakunde honek pozik zegoela esan zion Gasteizko Udalari, mugikortasun minusbaliotasunak dituztenentzako etxebizitzak erreserbatzeko egin zen aurreikuspenarengatik, oinarrien 1. artikuluan etxebizitza horiek esleitu barik geratuz gero, mugikortasun minusbaliaturik ez izateagatik, ez zirelako deskalifikatuko. Beraz, Agentziak "*etxebizitza horiek lortzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona minusbaliatuak dauden unean esleitzeko*" erosi zituen etxebizitzak, "*bitartean, etxebizitza horiek Agentziak aukeratutako pertsonak behin-behineko erabiliko dituzte*". Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen 9. artikulua ezarritakoa betearaziko zela bermatzen zen neurri honen bitartez.

⇒ *Desadostasuna etxebizitza baten eskabidea erreserba jakin batean sartzean, ez baitzitzaion egokitzen egiaztatuko famili egoerari (432/2001)*

- Erreklamazioa

Etxebideko zerrendan izena eman zuela adierazi zuen hiritar batek, berak bakarrik hazten zituen adin-txikiko seme-alabak zituela alegatuz. Hala ere, parte hartu zuen sustapenean ez zitzaion gorabehera hori kontuan hartu, eta bere eskakizuna 35 urte baino gazteagoentzako aurreikusitako erreserban sartu zen.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 1997ko azaroaren 12ko Agindua kasu honetarako egokia zela esan zigun (244. EHAA, azaroaren 21ekoa). Honako hau ezartzen du Agindu horren 2.4 artikulua: eskatzailea aldi berean 1.) ataleko b eta c paragrafoetan jasotako erreserbetan sartzeko gai izanez gero, etxebizitza erreserbatu kopuru handiagoa dagoen kupoan sartuko da.

Sustapen honetan, 1999ko ekainaren 7ko Aginduaren arabera (123. EBO, ekainaren 30ekoa), 35 urte baino gazteagoentzako 30 etxebizitza zeuden, eta bat besterik ez seme-alabak bakarrik hazten dutenentzat, horregatik 30eko taldean sartzea zuzena zen.

- Emaiza

Administrazioaren jarreran inolako irregulartasunik ez duenez ikusi, erakunde bere partehartzea bukatutzat eman zuen honek.

⇒ *Babes ofizialeko etxebizitzak prezio tasatuan saltzeari buruz (640/2001)*

- Erreklamazioa

Donostiako bizilagun batek gure esku utzi zuen babes ofizialeko etxebizitza bat prezio tasatu batean saltzeko beharra erabakitzea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren finantzaketa laguntza jaso.

- Azterketa

Proposaturiko kontua, eragin pertsonal ukazina izanik ere, ez zen Administrazioaren irregulartasun bat, BOEn salmenta edo deskalifikazioa erregulatzen duten arauak guztiak betetzen direlako. Etxebizitza mota hau eta aginpideek eskaintzen dituzten laguntzak hiritarrek etxe bat izateko oinarrizko beharrari erantzuteko pentsatuta daude eta, hau da, etxebizitza duin bat izateko eskubideari eta gehien behar duenari laguntzeko, bere egoera ekonomiko eta karga familiarraren arabera.

Horregatik, babes ofizialeko etxebizitza bat lortu edo bere etxebizitza konpontzeko laguntza edo abantailak jasotzen dutenek, merkatuari dagokionez askoz ere merkeago egiten dutelako, honako hau izan behar dute argi: arrazoizko prezio hori lortzeko, ahalegin ekonomiko handia egiten dute aginpideek zerga-salbuespenak, interes-tasen beherapenak eta fondo galduko finantzaketak eta abar lortzeko, alegia.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza baten erosketa edo laguntzen eskakizunak baldintza edo murrizketa batzuekin batera datozela ez da ahaztu behar. Eskatzaileek alde aurretik jakiten dituzte baldintzak eta horiek betetzeko konpromisoa hartu dute. Babes ofizialeko erregimena hogeitau urtean zehar mantentzea da baldintzetariko bat.

Hartutako betebeharrak alde batera uzteko aukera ezohizkoa da eta horrela izan behar du. Honi dagokionez, etxebizitzaren arloko legeek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari babes ofizialeko etxebizitzaren deskalifikatzea eskatzeko aukera eskaintzen dute. Baina "aukeraz" eman ahal izango da deskalifikatze hori, eta edozein modutan ere, eskatzailea hobari fiskalak, tasak,

dirulaguntzak eta babes ofizialeko etxe bat izateagatik jasotzen diren beste laguntza guztiak itzultzera behartuta dago, itzulpenaren zenbatekoa eguneratu egingo da gainera, dagozkien interesak gehituz, berandutze-interes-tasen arabera.

Etxebizitzari buruzko Plan Zuzentzaileak eta abenduaren 26ko geroko 306/2000 Dekretuak, BOEn araubideari eta etxebizitza eta finantzaketa neurriei buruzkoak, kasu batzuetan besterik ez dute uzten etxe kalifikatuak deskalifikatzen, birgaitze ekimen babestuetan eta ez hiritar honek aurkeztutako kasuan bezala.

Horregatik, dekretu hori betez, Eusko Jaurlaritzak, iritiz ez badu aldatzen, hoguei urte eta gero bakarrik onartzen du deskalifikatzeko aukera.

Babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio horrek Eusko Jaurlaritzak erosteko eskubidea duela esan nahi du, etxebizitza saldu nahiez gero, BOEntzat tasatutako prezioan, gainera.

- Emaiza

Irregularitasunik ez dela egon bistakoa denez, interesdunari azaldutako guztia bidali eta bukatutzat eman genuen gure esku-hartzea arazo horretan.

⇒ *Birgaitzen ari diren hiriko alde ezberdinak banatzen dituen ezponda bat (898/2001)*

- Erreklamazioa

Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala birgaitzearen aldeko taldeen koordinadorak gure esku utzi zuen Mirivillas-eko beheko aldean egiten ari diren urbanizatzeak eragiten dion kezka. Bilbo Zaharra birgaitzeko gaur egun administrazio ezberdinek gauzatzen ari diren planaren barruan dago urbanizatze hori, Udaleko alde honek jasan duen degradazioari aurre egiteko.

Koordinadora Saralegi Plazaren inguruan egiten ari ziren urbanizatze lanetan, hain zuzen ere, auzoko urbanizatze ezberdinen koten artean sekulako diferentzia sortzen ari da, eta horrek muga sozial bat ekar dezake berekin, Bilbo Zaharreko auzoa eta beste urbanizatzeen arteko muga, alegia.

- Azterketa

Emaiza izugarri hori saihestu nahian eta ingurua birgaitzeko egin diren lan nabariak ikusita, auzoko elkarteek Birgaikuntzarako Mahaira eraman zituzten oraindik erantzun gabe zeuden proposamen batzuk. Aipatutako eraikinaren atzealdeko ezponda ahalik eta gehien txikiagotzeko edo bestela desnibela gainditzeko eta igarobidea uzteko konponbide arkitektonikoak asmatzeko eskatzen zuten.

Kexa hau behar den bezala bideratzeko, azaldutako kontuari buruzko informazioa eskatu zuen Arartekoak, onartutako urbanizatze lanek aurreikusten duten behin betiko koten arteko ezberdintasunaz eta auzokoek aurkeztutako kontua konpontzeko Udalak hartu behar dituen neurrietaz galdetu du, hain zuzen ere.

Udaleko zerbitzuek txosten bat bidali ziguten, topografiak urbanizatze egoki bat eskatzen duena betetzea zailtzen duela esateko, alde horren -meategia izan zen antzina-egoera morfologikoa dela-eta.

- Emaidza

Edozelan ere, arazoa aztertu eta eragin den kaltea ahalik eta gehien arintzeko konpromisoa hartu zuen Udalak, baita ezpondak kalte nabaria egiten zuela onartzea ere. Honi buruz pentsatutako partehartzeak zeintzuk diren jakiteko zain geratzen gara.

⇒ *Etxebizitzen esleipenean parte hartzeko onartuen zerrendatik kanporatzea, etxebizitza baten jabea izateagatik eta etxebizitza horrek ez duelako salbuespen bat izateko tasazioaren araua betetzen (1118/2001)*

- Erreklamazioa

Irungo hiritar batek bere alabak % 95eko minusbaliotasun onartua zeukala adierazi zuen. Etxebizitza baten jabea izanda, babes ofizialeko etxea lortzeko indarrean dagoen arautegiak jasotzen duen salbuespenaren kasuen artean ez zegoen, bere ondasun higiezinaz ezarritakoa baino gehiago balio zuelako.

Bere etxebizitzak ez zituen irisgarritasuneko baldintzak betetzen, igogailurik gabeko bosgarren solairu batean baitzegoen eta azalera erabilgarriak 62 metro zituen, eta bizikidetzako unitateko lau pertsonak bizi ziren bertan.

- Azterketa

Aurkezturiko kasu honetan ez zegoen Administrazioak egindako inolako irregulartasunik, zalantzan jartzen zena etxebizitzak lortzeko zerrendetan sartzeko baldintzen konplimendua baitzen.

Horri dagokionez, Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduaren 3. artikulua, etxebizitzaren behararen inguruko gorabeherei buruzkoa, etxebizitzen jabeak diren pertsonen babes ofizialeko etxe bat behar dutela erabakitzen duen salbuespenaren baldintzak zehazten ditu, pertsona hori etxebizitza baten jabetza edo gozamina izanez eta zehatz-mehatz azalduetako egoera jakin batzuetan dagoela dokumentuen bitartez egiaztatzen behar du. Horri buruz, honako hau esaten du aipaturiko arauaren 6. puntuak: pertsona minusbaliaturen bat daukan bizikidetzako unitatean biziz gero, salbuespenaren kasuan dago eskatzailea, minusbaliatuak behin betiko mugikortasun murrizketa baldin badauka eta honako baldintza hauek betetzen badira:

“a) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak ezarritako neurriak ez izatea, irisgarritasuna eta aparatu jasogailuei buruzkoak, Dekretu honen bitartez onartzen dira hirien, gune publikoen, eraikuntzen eta informazio eta garraio sistemen irisgarritasuna.

b) Erosi nahi den etxebizitzak bai betetzea aurreko atalean aipaturiko neurriak irisgarritasuna eta aparatu jasogailuei dagokienez.

c) Etxebizitzaren balorazioa ez izatea azalera erabilgarria kopuru hauekin biderkatzean ateratzen den kopurua baino handiagoa:

- *180.000 PTA (1.081,82 euro) etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago. Aipatutako merkatuaren baloratzeak etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak sinatua izan behar du.*

- *20.000 PTA (120,20 euro) etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo baldin badago. Balorazioa, kasu honetan etxebizitzaren balio katastralaren da.”*

Zergei dagokienez arautegiak ezarritako baldintza guztiak betetzen zituen bizikidetzako unitate eskatzaileak, baita etxebizitza izateko beharrarena ere, baina etxebizitzaren balioa Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 2000ko abenduko Aginduaren 6.3c) artikulua ezarritakoa baino handiagoa zen.

Hala ere, araua hitzez hitz irakurritz gero, horrelako etxe bat izateko aukera jadanik babes ofizialeko etxe baten esleipendunak direnek bakarrik izan dezaketela iruditzen zaio erakunde honi. Etxebizitzari eskatzen zaion balorazioa etxe babestuetarako ezarritako tasazio ereduari egokitu behar zaiolako, edo -etxebizitzaren merkatuak gaur egun daukan balorazioa kontuan hartuta- bizigarritasun baldintza oso eskasak dituzten etxebizitzaren jabeentzako, eta arauak kasu horretarako ere aurreikusten du salbuespena (3.3 artikulua).

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak argitaratzen duen *Higiezin-eskaintza* aldizkariko datuen arabera (2000 urteko 4. hiruhilekoko datuez ari da) gure Autonomia Erkidegoan salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren metro karratu baliagarriaren batez besteko prezioa 400.000 pezetakoa izan daitekeela ikusten dugu. Irungo Udalari dagokionez, 285.000 pezeta ingurukoa da prezioa.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak metro karratuko 334.000 pezetako prezioa zeukan, Gipuzkoak 491.000 pezetakoa eta Arabak 446.000 pezetakoa.

Aipatutako aginduaren 6.3 artikulua salbuespen-egoerak nahi duena honako hau da: etxe baten jabeak diren pertsona minusbaliatuei BOE bat izateko aukera lehentasunaz ematea, baina apirilaren 11ko 668/2000 Dekretuak ezarritako neurriak ez baditu besterik ez, pertsona minusbaliatu horien zergen egoera ikusita, gainera, zailtasun handiak izango lituzkete merkatu normalean etxebizitza bat erosteko. Hala ere, etxebizitza ezin badu izan etxe babestuetarako tasazio eredu baina balorazio handiagorik, higiezinaren merkatuari dagokionez, talde honen etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidearen eraginkortasuna nahiko mugatuta geratzen da, eta ekimen publikoak salbuespeneko kasu hori aurkezten du.

Kasu hori baloratzeko unean, ikuspegi bermatzaile batetik aztertu behar zela uste zuen Arartekoak, arkitekturaren oztipoen desagertzea sustatzeko eta eraikitze osagai guztien irisgarritasuna bultzatzeko.

Konstituzioaren 9.2 artikulua honako hau ezartzen duela gogoratu beharra dago: *“aginpideei dagokie pertsonaren eta honek osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak bultzatzea”*. Arau honetan, berdintasunaren ideiak berdintasunak legearen aurrean daukan esparrua gaintzen du, Konstituzioaren 14. artikuluan agertzen dena, alegia, *“bizitzeko baldintzen berdintasuna”*-ren esparru handiagoan garatzeko. Hasiere batean ezberdintasun egoera batean dauden gizartearen sektore jakin batzuek aginpideen neurri positiboaren laguntza jaso dezaketela esan nahi du printzipio horrek, benetako berdintasuna lortzeko.

Pertsona minusbaliatuek berdintasuna lor dezaten, jende talde honentzako gordetako babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko gizarteratze neurriak bultzatu behar dira, beste batzuen artean.

Konstituzioaren 14. artikuluko agindua gogoratu behar dugu: *“minusbaliatu fisiko, sentsoial edo psikikoentzat aurreikuspen, tratamendu eta gizarteratze politika bat garatuko dute, behar duten laguntza espezializatua emango diete eta titulu honek*

hiritarrei ematen dien eskubidea izateko babestuko ditu". Eskubide honen testuinguruan sartuko dira, adibidez, libre ibiltzeko (19. artikulua)edo etxebizitza duin bat izateko eskubideak.

49. artikuluaaren agindu hori, "*politika sozial eta ekonomikoa zuzentzen duten printzipioen*" esparruan sartuta egonez gero, ez da erretorika politikoan jarduteko arau programatiko hutsa. Konstituzioaren doktrinak eta jurisprudentziek egiaztatu duten moduan, hastapen horiek arauaren balioa dute eta agindu espezifiko bat ematen diete aginpideei, emaitzak lortzeko pertsona guztien berdintasun materialaren arloan.

Gure Autonomia Erkidegoaren esparruan, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak gure gizarteko pertsona guztientzako leku fisikoen eta komunikazioaren irisgarritasuna lortzeko hartu behar diren neurriak jasotzen ditu, batez ere jarduera positiboko neurriak ukitzen ditu, desberdintasun sozialeko egoera batean sartzen dituzten murrizketaren bat duten -arrazoi ezberdinengatik- pertsonen gizarteratzea lortzeko. Gorabehera hauek nahitaezkoak dira hiritar guztientzako eskubide zehatz eta oinarritzko batzuk lortzeko.

Horri dagokionez, Legeak, 9. artikuluaaren bitartez, etxebizitzaren eraikuntzetan egin behar diren erreserbak ezartzen ditu, eta a) atalean erreserba gehiago aurreikusten dira babes ofizialeko etxebizitzetan, indarrean dagoen arautegiaren baldintzak kontuan hartuta. Etxebizitza hauen onuradunek beti bete behar dituzte baldintza hauek.

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 1997ko azaroaren 12ko Aginduak, etxebizitza sozialen esleipenari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eskuetan dagoena, etxebizitza bat behar zuten (bizikidetzako unitatean minusbaliatua dela egiazta dezakeen norbait izateagatik) eta beste etxebizitza baten jabeak zirenei, etxebizitza hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren edo sustapenaren Udalaren eskuetan uztea eskatzen zuen. Arau horretan ere agertzen da ondasunen besterentze hori egiteko prozedura (6. artikulua).

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 1997ko maiatzaren 12ko Aginduaren 2.6 artikulua ere hartu behar da kontuan, etxebizitza ohizko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko ezintasunaren kontzeptua zehazteko dena, etxebizitzaren esparruan finantza neurriei buruzko uztailaren 30eko 213/1996 Dekretuaren 7.4) artikuluan jasota. Honek finantza laguntzen eskatzaileei etxebizitza baten jabeak izan behar zutela esaten zien: "*Finantza neurrien eskatzaileen artean bizikidetzako kideren batek gurpil-aulkia behar duen minusbaliatua dela egiaztatu, eta babes ofizialeko etxebizitzetarako pentsatu diren pasabide, aparatu jasogailuak eta etxebizitzaren barneko minusbaliatuentzako egoeraren ezaugarriei dagokienez 1980ko martxoaren 3ko Aginduan jasota dauden neurriak ez ditu bete behar beste etxebizitza horrek.*"

Kasu honetan finantza neurriak eskatzen dituztenen etxebizitzaren besterentzeak izan behar du derrigorrezko baldintza bat, eta eskakizun hori eskatu baino lehenago edo aldi berean egin behar da."

Hala ere, 2001eko abenduaren 26ko Aginduaren 3.6 artikulua, etxebizitza baten beharra izateko gorabehereri buruzkoa eta gaur egun erabili behar dena, beste baldintza bat gehitzen du: eskatzaileek duten etxebizitzaren balorazioa ez da azalera erabilgarria 180.000gatik biderkatuz gero ateratzen den kopurua baino handiago izango, etxebizitza EAEn izanez gero.

Baldintza honek, lehenago esan dugun bezala, BOE bat lortzeko aukera izateko eskubiderik gabe uzten ditu eskatzaile gehienak, eskatzaile hauek, etxebizitza bat izateko beharra izanda, ondasun higiezin baten jabeak baitira, arauak ezarritako tasazio eredia ez baitator higiezin merkatuaren errealitatearekin bat.

Neurri honen bitartez lortu nahi dena ulertzen dugu: merkatuan etxebizitza babestuek duten baino balio askoz handiko etxebizitza bat duten eskatzaileei ez ematea babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko aukera. Baldintza honek, ordea, merkatu normaleko etxebizitza bat duten jabeek kentzen diete eskubide hori. Horregatik, gure ustez, gehiegizko neurri bat da, indarrean dagoen ordenamenduaren berdintasunaren hastapenari dagokionez.

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzarekin izandako harremanen bidez, azaldutako kasu horretan Etxebideko zerrendan 80 bat eskatzaile daudela jakin dugu, eta hau Gipuzkoako Lurralde Historikoak besterik ez. Kexa aurkeztu duen familiari dagokion sustapenean minusbaliatuen taldearentzat 12 etxebizitza gordeta eta sei eskatzaile besterik ez zeudela genekien gainera. Beraz, etxebizitzak bete gabe geratuko lirateke eta kupo orokorrean sartuko lirateke. Gorabehera hau BOEn sustapen gehienetan gertatzen ari da..

Horregatik guztiagatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuari hemen azaldutako gogoetak bidaltzea komeni zela iruditu zitzaion Arartekoari, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko Sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduaren 3.6 artikulua aldatzeko beharra aztertu eta baloratzeko. Etxebizitza baten beharraren gaineko gorabeherak aztertzen ditu artikulua horrek. Azaldutako egoeran dauden pertsonentzako, hau da, azaldutako arrazoiengatik laster egingo zen zozketan parte hartzeko aukera lortu ez dutenentzako konponbide bat, ahal bada, pentsatu beharra -egokiak direla pentsatzen duten mekanismoen bidez eta hirugarren pertsonen eskubideak baztertu barik- ere adierazi zuen Arartekoak: hau da, Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen arloko sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Aginduaren I. eranskinean ezarritako sustapenetan, babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko eskatzaileen erregistroan sartzeko prozedurari dagokionez, etxebizitza hauek 2000ko abenduaren 26ko aginduak ezarritako esleipen prozeduraren mende egonik.

- Emaizta

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak arau horren aldaketa aztertzeko konpromisoa hartu du, eta hurrengo urtean aurkezteko etxebizitza plan berrian gauza daiteke.

14. ZENBAIT KUDEAKETA

14.1. SARRERA

Lantzen diren gaien berezitasunarengatik erakunde honen lana ordenatzeko betiko sailtan behar den bezala sartzen ez diren ekintza guztiak izendatzen dira horrela.

Erakundearen lanaren barnean hondarraren kutsua duen sail batez ari gara, beraz. Oso ezberdinak dira edukiak. Bi ezaugarri horiek zaila egiten dute kasu batzuk beste batzuen artean azpimarratzea edo lantzen diren arazo ezberdinen barne egituratze txiki bat egitea.

Espediente horien bideratzea beti bitartekotza hutsaren ikuspuntutik egiten dela ere zehaztu beharra dago, askotan lantzen diren kontuen nahitaezko giza garrantziarengatik eta beste batzuetan kexen bitartez pizten den problematikaren oihartzunarengatik. Azkenik, kasu horietan pertsona kaltetuak gidatzen saiatzen garela argitzea komeni da, hau da, eskura dituen ekiteko bide ezberdinen gainean gidatu.

Hiritarrek jaso duten laguntza zalantzan jartzeko kexetan aurkezten diren elkargo profesionalen erantzun falta edo urpekariaren ikasketak kontuan hartzeko eta behar den titulazioa lortzeko dauden arazoak bezalako kontu ezberdinak landu dira.

Azterriko pertsonentzako bizilekuko baimenarekin lotutako arazoa ere aipa daiteke. Kexa hauek eragiten dituen jarduera estatuaren erakunde batetik datorrenez, estatu-mailako Herriaren Defendatzailearen erakundeari dagokio arazo honen legaltasuna gainbegiratzea. Beraz, erakunde honi bidaltzen dizkiogu, bidaltzen dizkiguten arazoaren artean, atzeritartasunaren esparruan sartzen direnak. Hala ere, lehenago esan den moduan, pertsona kaltetuei zer egin dezaketinari buruz argibideak ematea da kontua.

Azkenik, erakunde honen lan-esparrutik kanpo dagoen arazo batez ari garenean ere, emakume banandu eta dibortziatuaren arazoaren garrantzia azpimarratu behar dugu, euren senar eta senar ohiek seme-alabak elikatzeko pentsioa ordaintzen ez dutenean.

14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Urpekari profesionala izateko titulua ematea (843/2001)*

- Erreklamazioa

Erakunde honengana jo zuen pertsona batek bere arazoak adierazteko. “2. Maila Murriztuko Urpekari Profesionala” titulua lortzeko frogak gainditu zituela adierazi zuen, Pasaiaiko Itsasoaren Arrantza Institutuak egindakoak, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailaren mende dagoen zentro bat da.

- Azterketa

Autonomia Erkidego honek esparru honetako eskuduntzak bereganatu ez dituelako izan dira erreklamazigilearen arazoak. Eragozpen horiek, neurri batean behintzat, konpontzeko, eskuduntza hau errealtatean darabiltzaten beste Autonomi Erkidego batzuekin batera, Eusko Jaurlaritzak neurri batzuk hartu ditu.

- Emaidza

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin harremanetan jartzeko gomendioa eman zitzaion eskatzaileari, kasua bideratzeko.

B) TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

1. EMAKUMEZKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Emakumezkoek hainbat bereizkeria jasan behar dituzte, batetik, euren eskubideak eragingarritasunez aitortu daitezkeen, eta, bestetik, gizarte-ondasunak eskura ditzaten. Planeta osoan, horixe da, agidanez, giza eskubideak urratzeko biderik ohikoenakuspuntu horretatik, eskubide horiek unibertsalizatzea eta, zehatzago esateko, sexuaren ondoriozko desberdintasunak ezabatzea, oinarrizko abiaburua izan behar da, gizakiaren garapenerako eta elkarbizitza baketsua erdiesteko. Begi-bistakoa denez, "bake" eta "giza eskubideak" kontzeptuak elkarren mendekoak dira. Era beran ere, agerikoa da bi-bion garapena emakumezkoen bidetik ere gertatu behar dela. Ildo horretatik, UNESCOk, bakearen kultura zabaltzeko, baldintza gisa ezarri du emakumezkoek oso-osoko parte-hartzea izatea eta euren egoera sendotzea. Horretarako, honako aitortpen hau egin beharra dago: gaur egun, munduan, gizonezkoek eta emakumezkoek ez dute berdintasuneko egoerarik betetzen; kontrara, emakumezkoek, emakume diren aldetik, taldea osatzen dute, eta talde horren aurka hamaika bereizkeria egiten dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, desberdintasun hori antzeman daiteke, gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Erakunde hau ezin da ezer egin gabe geratu, errealitate horren aurrean, erakunde honen zereginetatik bat delako, hain zuzen ere, gure gizartean giza eskubideen oso-osoko indarraldia sustatzea. Edonondik begira dakiola ere, sarritan (sarriegi, behar bada), gure jarduera salaketa egitera mugatu behar da; beste hitz batzuekin esateko, askotan, gizarte-pedagogia baino ezin dugu landu. Izan ere, bereizkeriaren inguruko egoerarik larrienak eremu pribatuan azaltzen dira, eta, eremu horretan, ezin da esan Herri Administrazioak zuzeneko erantzukizunik duenik.

Hor adierazitakoak ez du esan nahi, ordea, erakunde publikoen jardunbidean egiazko berdintasuna lortu denik. Egiatan, Administrazioarentzat zerbitzua egiten dutenen artean, emakumezkoen kopurua gizonezkoen bestekoa da –eta, eremu batzuetan, handiagoa ere bada–. Egin-eginean ere, enplegu publikoaren arloan, emakumezkoek ez dituzte oztopo gogorrak eta bereizkeria nabariak aurkitzen. Tamalez, halako oztopo eta bereizkeriak ohikoak izaten dira, lan pribatuaren merkatuan. Nolanahi den ere, ezin da ahanzi gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa dela, aukeramenfaktorea agertzen denean –burutzak eskuratzean, hautaketa askeko postuak betetzean...–. Gauza bera gertatzen da, ordezkarietako karguetan edota erakundeen gobernu-organoak eratzeko orduan: parekotasuna urruneko ametsa besterik ez da.

Bestalde, ezagunak dira familia eta etxeko bizimodua antolatzean gertatzen diren desberdintasunak. Desberdintasun horien ondorioak argiro-argiro igar daitezke –hala izan behar da–, herri-administrazioen zerbitzupeko langileen jarduera aintzat hartuz gero. Esate baterako, gizonezko batzuek neurriak hartu dituzte, familiako erantzukizunak eta lanbideko erantzukizunak uztartzeko (lan-utzialdiak, lan-saioa laburtzea etab.), baina gizonezko horien ehunekoa, oraindik, oso-osoa txikia da. Horrek esan nahi du emakumezko askok euren lanbide-karrerari uko egiten diotela.

Testuinguru horretan, Arartekoak zenbait eginkizun bete behar ditu. Alde batetik, argitu behar du zein kasutan gerta daitezkeen ezkutuko edo zeharkako bereizkeriak. Eta, beste alde batetik, Arartekoak zenbait administrazioen ez-egiteak antzeman eta salatu behar ditu. Izan ere, administrazio horiek ez dute euren eginbeharra betetzen,

egin behar hori baita, hain zuzen ere, egiazko berdintasuna sustatzea; gainera, administrazio horiek ez dute ahaleginik egiten, berdintasun horri jarritako oztopoak kentzeko. Geroago azalduko dugun bezala, Irun eta Hondarribiko udalen jarduera eredugarria da, ildo horretatik, emakumezkoek alardeetan duten parte-hartzea kontuan hartuta.

Lehen esan dugun bezala, orokorrean, gure eskumenetatik kanpo geratzen dira zenbait egoera, egoera horietan, argi eta garbi, emakumezkoen taldeak mendekotasuna jasan behar badu ere. Zernahi gisaz, erakundearen eguneroko jardunbidean, generoaren araberako ikusmirari heldu diogu. Horren bitartez jakin edo ikasi nahi dugu gizarte-arazoez zein neurritan duten eragin desberdina, gizonetzkoengan eta emakumezkoengan. Horren ondorioz, gure eginkizuna aztertu eta azterketa horren ondorioak ateratzean, kasu zehatzak antzematen saiatzen gara. Kasu horietako batzuetan, emakume izateak arazoa sorrarazten du edo, bestela, arazoa areagotzen du; beste kasu batzuetan, aldiz, barne-barneko arazoak edo gure esku-hartzearen emaitzak eragin handiagoa edo desberdina du, emakumezkoen gain.

Azken finean, generoaren araberako ikusmira beste bide bat da, errealitateari so egiteko. Arazo zehatz bati heltzeko, kontuan hartzen bada azalduko seinalearen izaera bakarrik, orduan horrek gehiegi zatitu ahal du gizarte-errealitatea. Gehiegizko zatiketa hori saihesteko, gogoan izan behar da emakumezkoen taldeak arazo desberdinak dituela; arazo horien artean, korrelazioak ezarri behar dira, emakumezkoen egoerari bete-betean aurre egiteko. Ararteko erakundeak ikusmira berbera erabili du, orobat, ahultasun handiko beste talde batzuekin (atzeritarrekin, adingabeekin, adinekoekin, elbarriekin etab.), ikusmira horrek gizabanakoa jartzen baitu, azterketaren erdigunean. Edozein modutan ere, ezin da ahantzi, giza talde horietako bakoitzaren barruan, emakumezkoek egoera berezia dutela; eskuarki, ahultasun handiagoko egoera izaten dute emakumezkoek. Hortaz, generoaren araberako ikusmira aplikatu daiteke, aipatutako talde horietan guztietan. Alabaina, azalpena argiagoa izan dadin, hobe da atal bat bakarrik erabiltzea, emakumezkoek dituzten arazo bereziak aztertzeko. Dena den, berriz ere gogorarazi nahi dugu jarraikoa: bereizkeria jasaten duen talde bakoitzaren barruan, emakumezkoek azpitalde bat osatzen dute, eta emakume izate hutsa bereizkeria jasateko arrazoiak izaten da. Emakume izate hutsa, gehienetan –ia beti–, ondorio kaltegarriak biderkatzea dakar. Azter dezagun, adibidez, zein den emakume atzeritarren egoera, adineko emakumeen egoera edo emakume elbarriena.

Generoaren araberako ikusmiraz denaz bezainbatean, hizkeraren arazoak ere asko kezkatzen gaitu. Dakigunez, gizonetzkoek nagusitasun-egoera izaten dute gizartearen barruan, eta nagusitasun hori hitz egiteko moduan ere islatzen da. Gauzak horrela, hizkera sexista erabiltzen da, eta hizkera horrek emakumezkoen presentzia ezkatzen du. Aparte joan gabe, har dezagun 3/85 Legea, Ararteko erakunde hau arautu duena. Lege horrek izendazio berbera erabiltzen du, erakundea bera izendatzeko eta erakunde horren titularrak izendatzeko. Horrek oztopatu egiten du, gaur egun, jendeak jakitea Arartekoaren eginkizunak emakumezkoen batek betetzen dituela.

Jakin badakigu oso zaila dela hizkeratik zantzu sexista guztiak ezabatzea. Hori dela eta, erakunde honen zerbitzupeko langile guztiek heziketa-ikastaro bat egin dute, gai horretan. Gure borondatea, beraz, irmoa da. Baina, borondate hori gorabehera, txosten honek erakusten du beti ez dela erraza emakumezkoak ezkatzen ez dituzten hitzak erabiltzea (*herritarrak, haurrak, atzeritarrak...*). Ohituraren poderioz, sarritan

–nahi baino sarriago–, gizonezkoen hitzak erabiltzen ditugu, taldeak izendatzeko (horrela, gaztelaniaz, *ciudadanos*, *niños*, *extranjeros*... eta antzeko berbak erabiltzen ditugu).

Behin hori argitu eta gero, azter ditzagun, jarraian, emakumezkoek bereziki jasan behar dituzten arazoak. Zehatzago esateko, ondoren aztertuko dugu emakumezkoek zer-nolako kexak helarazten dizkioten erakunde honi. Hori argitu eta gero, erreklamazio zehatz batzuk aztertuko ditugu, horietan beren beregi azaltzen baitira ustezko bereizkeriak edo tratu desberdinak. Eta, bukatzeko, zeharka sortzen diren desberdintasun-egoerak azalduko ditugu.

1. Emakumezkoak, erreklamaziogile moduan

Aurreko urteetako txostenetan gertatu den bezala, aurtengoan ere, estatistika soziologikoaren atalean (III. kapitulu) aipatu dugu nola banatzen den kexen kopurua, erreklamaziogilearen sexua edo generoa aintzakotzat hartuta. Atal honetan, berriz, sakonago aztertu nahi dugu zein gai jorratzen duten kexa horiek; eta, ahal den neurrian, hipotesiren bat iragarriko dugu, eskainitako zifra horiek azaltzeko.

Aurreko urteetan, gero eta handiagoa izan da emakumezkoek aurkeztutako erreklamazioen kopurua. 1999. urteko txostenean, aldiz, azpimarratu genuen goranzko joera horrek alderantzizko bidea hartu zuela. Beherakadak iraun egin zuen 2000. urtean. Baina, dirudienez, 2001. urtean, aldaketa gertatu da berriz, arras gehitu baita emakumezkoek aurkeztutako kexen proportzioa. Honako taula honetan, ehunekoaren bilakaera azter daiteke:

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Taldeak
1996	36,74	46,89	16,25
1997	39,88	48,72	11,90
1998	45,19	46,84	7,97
1999	38,97	45,99	14,65
2000	36,55	49,80	13,65
2001	41,31	43,82	11,57

2001. urtean ere, pixka bat gehitu da zuzeneko laguntza-bulegoetara jo duten emakumeen kopurua. Kopuru hori, orain arte, % 39koa izan da; baina, 2001. urtean, % 41,26koa izan da. Egia esateko, zenbait kasutan, bisita egiten digute bikoteek edo herritarren taldeek. Kasu horiek alde batera utzita, azpimarratzekoa da honako datu hau: iaz bezala, aurton ere, Bilbon, emakumezkoen proportzioak behera egiten du (351 emakumezko eta 485 gizonezko); Donostian eta Gasteizen, aldiz, erakunde honetara jotzen duten herritarren kopurua berdintsua da, bi sexuotan (Gipuzkoan, 297 emakumezko eta 311 gizonezko; Araban, 261 emakumezko eta 270 gizonezko).

Emakumezkoek gehien interesatzen omen zaizkien gaiak kontuan hartuta, eurek aurkeztutako 625 kexa horiek honetara bana daitezke:

Arloa	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Taldeak	Izenik gabekoak
Nekazaritza, Industria,				
Merkataritza eta Turismoa	11	4	3	-
Gizarte Ongizatea	43	42	7	-
Kultura eta Elebitasuna	11	3	1	-
Arartekoen erakundeak	61	29	24	1
Hezkuntza	21	24	16	-
Funtzio Publikoa	80	236	9	41
Orotariko kudeaketak	7	2	6	-
Ogasuna	87	56	3	-
Herrizaingoa	49	19	9	-
Justizia	22	3	6	-
Ingurumena	22	25	33	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	57	46	11	-
Onartu gabeak	93	49	21	7
Osasuna	46	46	10	1
Lana eta Gizarte Segurantza	1	2	1	-
Hirigintza eta Etxebizitza	52	39	15	-
	663	625	175	50

Zifra horien artean, deigarria da emakumezkoek hainbeste kexa aurkeztea, Funtzio Publikoaren arloan. Arlo horretan, nagusi dira emakumezkoen sinadura daramaten erreklamazioak. Nagusitasun hori errepikatu egin da azken urteotan, baina desberdintasuna sekula ere ez da izan hain handia. Arealan ere, hainbat eta hainbat kexa aurkeztu dira, Administrazioarentzat egindako zerbitzu pertsonalen inguruan. Kexa horien arrazoiak era askotakoak izan dira. 2001. urtean zehar, deialdiak egin dira, enplegurako eskaintza publiko desberdinetarako. Horrez gain, herritar-talde handiek banakako kexak aurkeztu dituzte, ohiko arazo eta egoerei buruz (Irale euskalduntze-egitarauaren barruan dauden irakasleak; Osakidetzaren barruan, bitartezko egoera duten osasun-langileak...). Edozein modutan ere, bistan dago talde horiek administrazio-irregulartasuna jasan dutela eta, talde horien barruan, emakumezkoak nagusi direla.

Atal honen sarrera egitean azpimarratu den bezala, emakumezkoen ordezkariak handi hori azaltzeko, honako arrazoi hau erabil daiteke, nahiz eta arrazoi horrek, bera bakarrik, arazo guztiak azaldu ez: emakumezkoen presentzia enplegu publikoan enplegu pribatuan baino handiagoa da, emakumezkoen aurka hainbat aurreiritzi eta bereizkeria sexista izaten baitira, horiek enplegu pribatuaren merkatuan sartzen direnean.

1999. urteaz geroztik, kexen azterketa bereizia egiten dugu, erreklamaziogilearen generoa edo sexua kontuan hartuta. Harrezkero, hauxe igarri izan dugu: emakumezkoen taldeak gizonezkoen taldeak baino askoz kexa gehiago aurkezten ditu, Gizarte Ongizatearen arloan eta Osasunaren arloan. Harrigarria bada ere, aurton, joera hori aldatu egin da, eta zifrak ia-ia parekatu egin dira. Aurreko txostenetan, emakumezkoek gizonezkoek baino kexa gehiago aurkeztu zituzten arlo horietan, eta horretarako arrazoiak izan zitekeen, gure iritziz, emakumezkoek dedikazio handiagoa izatea, pertsona ahulak (adingabeak, adinekoak...) zaintzeko orduan. Orain, berriz, joera aldatu denez gero, pentsa daiteke kexen kopurua berdindu dela, gizonezkoek parte-hartze handiagoa

dutelako, pertsona ahulak zaintzeko eginkizun horietan. Zoritxarrez, gizarte-errealitatearen beste datu batzuek erakusten dute azalpen hori gezurrezkoa dela; datu horien artean aipa daitezke, besteak beste, emakumezkoen langabezia-tasa, senideei laguntzeko lan-utzialdiak eta lan-saioaren murrizketak etab.

Hezkuntzaren arloan ere, berdintsua da bi sexuotako herritarrek aurkeztutako kexen kopurua. Iaz gertatutakoarekin alderatuta, aurton, pixka bat ugariagoak dira gizonezkoek eragindako erreklamazioak; horrela, 1999. urtean antzemandako egoerara itzuli gara. Eta gauza berbera gertatzen da, Ingurumenaren arloan. Arlo horretan, maiz-sarri, begibistan geratzen da emakumezkoek familiaren ongizatearekin duten ardura, besteak beste, zaraten arazoetan, jarduera gogaikarrietan eta abarrekoetan. Ere mu horretan, kexarik orokorrenak izan dira, esate baterako, naturaren ingurunea babesteari buruzkoak, ingurumenaren eta entzumenaren gaineko kutsadurari buruzkoak, hirigintzako legeria kontrolatzeari buruzkoak etab. Kaltetunek edo ekologisten taldeek aurkeztu ohi dituzte halako kexak.

Ohikoa den bezala, Herri Lan eta Zerbitzuen arloan, gizonezkoen erreklamazioak ugariagoak dira, baina, atal batean behintzat, emakumezkoek monopolizatu egin dituzte ia kexa guztiak; atal hori da, hain zuzen ere, garraio publikoari dagokiona. Agerikoa denez, horren arrazoia egitate hau besterik ez da: gizarteko talde berean edo familia berean, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute garraio publikoa.

Aurreko urteetan bezala, ez dira aldatzen gizonezkoen kexa gehienak eragiten dituzten gaiak (hala nola, Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa; Ogasuna; Herrizaingoa...). Edonola ere, hiru arlo aipatu behar dira bereziki. Arlo horiei dagokienez, aurreko txostenetan, gaien banaketa nahiko orekatuta zegoen, interesdunaren sexua edo generoa kontuan hartuta. Aurton, berriz, erreklamaziogile gehienak gizonezkoak izan dira. Hiru arlo horiek jarraikoak dira: Hirigintza eta Etxebizitza; Justizia; eta, orobat, Arartekoari zuzendutako kexak. Horren inguruko azalpena ematea, zinez, ez da erraza. Baina, dirudienek, azken bi arlo horietan, desberdintasuna gertatzen da, espetxeratuek egindako erreklamazioen ondorioz; izan ere, espetxeratuen artean, % 90 gizonezkoak dira.

Bukatzeko, azpimarratu behar da aurreko azterketak kopuruaren arabeko ohar eta deskripzio batzuk baino ez dituela egiten. Guk ez daukagu behar besteko baliabiderik, ikerketa sakona egiteko eta antzemandako emaitzak zergatik gertatu diren zehatz-mehatz adierazteko. Dena den, oso interesgarria izango litzateke honako zalantza hau argitzea: herritarrek Ararteko erakundera jotzen dutenean, herritar horien interesak homogeenak al dira edo, alderantziz, generoaren arabera, desberdintasunak igar daitezke? Bestalde, aintzakotzat hartu behar da, maiz-sarri, herritar batek zuzen-zuzenean arazoa izan arren, ez dela bera erakunde honetara jotzen duena. Ildo horretatik, oso argigarria izango litzateke beste zalantza hau argitzea: emakumezkoek Arartekoarengana jotzen dutenean, euren arazoak azaltzen dituzte, euren zaintzapeko pertsonen interesak babestu nahi dituzte edo euren ordezkariak gizonezko bati eskuordetzen al diote?.

2. Sexuaren ondoriozko bereizkeriak

Gure gizartean, emakumezkoek mendekotasun-egoera jasan behar dute, eta, euren kalterako, boterearen banaketak ere bereizkeria dakar. Genero-indarkeria da, zalantzarik gabe, aipatu berri ditugun gertaeren agerpenik larriena. Gaur egun, gizonezko batzuek

indarkeria erabiltzen dute, emakumezkoen aurka, emakumeekin bizi diren bitartean edo aurretiaz eurekin bizi izan direnean. Bistakoa denez, indarkeria hori giza eskubideen aurkako erasorik garrantzitsuenetarikoa da, eta, horregatik, erakunde bermatzaile honentzat, oinarrizko kezketatik bat da.

Kezka horrek bultzatuta, erakundek honek gai horri buruzko hainbat eztabaidatan eta hausnarketa-forotan hartu du parte. Horren erakusgarri gisa, Arartekoak parte hartu du, CEAR izeneko erakundeak antolatutako mahai-inguruan; mahai-inguru horren izenburua hauxe izan da: *Emakume errefuxiatuak: generoaren ondoriozko pertsekuzioa*. Mahai-inguru hori antolatzeko orduan, laguntzaile jardun dute Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak. Mahai-inguru horretan, proposamen zehatz bat aldarrikatu zen, eta erakunde honek bat egiten du bete-betean proposamen horrekin. Proposamenaren arabera, estatu demokratiko guztiek babes eman behar diete emakumezkoiei, horiek euren herria utzi dutenean, indarkeria sexistatik ihes egiteko. Estatu Batuetan, badira aurrekari batzuk; aurrekari horien eretzean, Afrikako emakume bati asiloa eman zitzaion, bertatik alde egin zuelako, sexu-organoen ebaketa saihesteko. Aurrekariok gorabehera, proposamenak irizpideak zabaldu nahi ditu, bikotearen barneko tratu txarrak ere pertsekuzio-kasutzat har daitezten. Hala egin beharko litzateke, behinik behin, jatorrizko herriaren erakundeek ez dituztenean bermatzen emakumezkoen babes eta erasotzailearen pertsekuzioa.

Bestalde, gure jardunaren abiapuntua hauxe izan beharko litzateke: emakumezkoen aurkako indarkeria gizarte-arazoa da –arazo publikoa da, beraz; ez, ordea, arazo pribatua-. Hortik abiatuta, erakunde honen iritziz, ezinbestekoa da herri-botere guztiek konpromiso zalantzaezina bereganatzea, gaitz horren aurka borrokatzeko, bai aurreneurriak hartzeko orduan, bai emakumezko erasotuei laguntza emateko orduan. Planteamendu horrekin bat eginez, erakunde honek gai bakarreko txostena prestatzea erabaki du; txosten horren izenburua hauxe izango da: *Euskal Autonomia Erkidegoan, erakundeek emakumezkoiei ematen dieten laguntza, emakumeok genero-indarkeria jasan dutenean*. Ikerketa hori egitean, erakunde honen helburua da zerbitzuei buruzko informazio guztia sistematizatzea. Areal ere, administrazio desberdinek laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, harrera-pisuak eta bestelako zerbitzuak eskaintzen dizkiote emakumezkoen talde horri, eta nahitaezkoa da horien inguruko informazio guztia biltzea, zerbitzuon kalitatea balioesteko eta zerbitzu horiek egungo beharrianekin bat datozen ala ez jakiteko. Txosten hau idazteko unean, adjudikatzeko dago proiektatutako txosten horren kontratazioa.

Esan bezala, erakunde honek kezka handia du, emakumezkoek jasan behar duten indarkeria horrekin. Hala eta guztiz ere, oso urriak dira guk gai horretan esku hartzeko ditugun aukerak. Orokorrean, aztergai dugun gai horri buruz, kexak jasotzen ditugun arren, kexa horiek gure eskumenetatik kanpo geratzen dira, subjektu pribatuen arteko harremanen esparruan gertatzen direlako. Hori dela eta, ezin izan dugu gai jakin batzuen izapidetza onartu. Gai horien artean, besteak beste, hurrengo aipa daiteke: emakumezko batek behin baino gehiagotan salatu zuen tratu txarra, eta emakumezko hori ez zegoen ados jarduera judizialarekin, eta, bereziki, kautelazko neurriak ez hartzearekin. Semea bada bere amaren aurkako erasotzailea, orduan hori ere arazo larria da, eta oso zail gerta daiteke, arazo horren aurka konponbide eragingarriak bilatzea. Aurton, halako kasu batzuk azaldu dira, eta, horien artean, batzuk bereziki hunkigarriak dira, jokabide erasotzailea patologia psikologiko baten ondorioa delako.

Emakumezko batzuek Arartekoarengana jo dute, beste kasu batzuk salatzeke, kasu horietan ere bereizkeriako tratamendua gertatu delako. Kasu horietatik bi graduondoko heziketan sartzeari buruzkoak izan dira. Lehenengo kasuan, euskal fundazio batek beka-deialdi bat egin zuen, eta emakumezko erreklamaziogileak uste zuen deialdi horrek beraren aurka bereizkeria egiten zuela, emakume izate hutsagatik. Izan ere, deialdi horrek zenbait baldintza ezarri zituen, *Altzairuaren Galdaketa* izeneko arloan beka jasotzeko. Baldintzak beren beregi adierazten zuen jarraikoa: “*burutu beharreko zereginen ezaugarriak zeintzuk diren kontuan hartuta, komeni da bekaduna gizonezkoa izatea*”. Ezaugarri horiek justifikatzen zuten, antza, tratu desberdina egitea; baina ez zegoen zehaztuta zeintzuk ziren ezaugarri horiek. Zernahi gisaz, bekadunak burutu beharreko lana deskribatzean, ez zen inolako zereginik finkatzen, generoak ezelako garrantzia izan zezan.

Fundazio horren eginkizuna da industriaren arloan ikerketa eta garapena sustatzea. Fundazio horrek izaera pribatua duen arren, Arartekoak egiaztatu du erakunde eta organismo publiko batzuek fundazio horren patronatu kudeatzailean parte hartzen dutela. Hori, gure iritziz, oinarri nahikoa da, guk arazo horretan esku har dezagun. Patronatuburuak erantzuna bidali digu, barkamena eskatzearekin batera. Beraren ustez, eskainitako “*24 beken artean, baten ezaugarriak eta gomendioak azaltzeko orduan, oker tamalgarria*” gertatu da. Patronatuburuaren hitzetan, oker hori egitate bakartua da, eta oker hori ez da gertatu, “*inola ere, edozein motatako bereizkeria nahita egin nahian*”. Era berean ere, patronatuburuak zenbait datu eskaini dizkigu, fundazioak betidanik berdintasun-politikari eutsi diola egiaztatzeke.

Erakunde honen iritziz, ez da behar beste argitu zergatik gertatu den ustezko oker hori. Nolanahi den ere, guk uste dugu gure esku-hartzea etorkizunari begira burutu behar dela. Horregatik, fundazioari eskatu diogu, horrek neurri egokiak har ditzan, bereizkeriako jarduera horiek bihar-etzi errepika ez daitezen.

Zuzenbide Fakultateko bi ikaslek, biak emakumezko, antzeko kexa bat aurkeztu zuten. Bi-bion asmoa zen Espainiako Errege Ikastetxe ospetsuan sartzea, Bolonian (Italian). Kasu horretan, Albornoiz Kardinalak sortu zuen fundazioa, XIV. mendean, eta fundazio horrek zenbait beka ematen ditu; beka horien bitartez, ikaslearen gastu guztiak (ostatua, elikadura, matrikulazioa eta abarrekoak) ordaintzeaz gain, Ikerketako Doktorego Europarra lor daiteke bi urtetan, hitzarmen bat dagoelako sinatuta, Boloniako Unibertsitatearekin. Beka horiek eskuratu ahal izateko, zenbait baldintza bete behar dira. Baldintza horietako batek eragin zuen, hain zuzen ere, erreklamaziogileen kexa. Baldintza, izatez, hauxe da: “*gizonezkoa, espainiarra eta katolikoa izatea; akatsik gabeko jokabidea edukitzea; hogeita hamar urtetik beherakoa izatea; Espainian lizentzia lortu izana, oso kalifikazio onekin; gaixotasun kroniko edo kutsagarriarik ez edukitzea; eta funtzionario publikoa ez izatea*”.

Azaldutako azken gaiarekin gertatu aldera, aztergai dugun kasu honetan, fundazioak izaera pribatua du bete-betean. Eta, horren kudeaketaz arduratzen den patronatuaren buruak adierazi duen bezala, fundazio hori “*ez da sartzen Espainiako Estatuko Administrazioaren barruan, eta ez du administrazio horrengandik inolako diru-laguntzarik jasotzen. Era berean, fundazioak ez du Espainian egoitzarik, ondasunik, ezta jarduerarik ere*”. Guk gure eskura dauden ikerketa guztiak egin genituen. Behin horiek burutu eta gero, honako ondorio hau atera genuen: fundazio horrek lotura bat bakarrik du erakunde publiko batekin, hain zuzen ere, Boloniako Unibertsitatearekin

sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horri esker, Espainiako Ikastetxeko ikasleek zenbait onura lor ditzakete. Onura horien artean aipa daiteke Doktorego Europarra eskuratu ahal izatea, gainerako doktoregaiek baino epe laburragoan. Arrazoi horren ondorioz, Arartekoak bere homologoarengana jo zuen, hau da, Emilia-Romagna eskualdeko *Difensore Civico* horrengana jo zuen. Txosten hau prestatzen genbiltzala, haren erantzuna jaso genuen. Erantzun horretan, hango arartekoak hauxe adierazi zuen: berak ezin du eskurik hartu azaldutako gai horretan; baina *Garante d'Ateneo* izenekoarengana jotzeko gomendatu digu. Erakunde hori Boloniako Unibertsitateko berezko babes-bulegoa da, eta, epe laburrean, bulego horretara joko dugu.

Aurretiaz esan dugun bezala, ez da sarritan gertatzen erreklamazioa jartzea, Herri Administrazioak zuzen-zuzenean bereizkeriako tratua egin duelako. Baina, halako kasu bat izan daiteke, agidanez, Irun eta Hondarribiko emakumezkoek alardeetan duten egoera. Ezaguna denez, emakumezkoek ezin dute alarde horietan parterik hartu, nahiz eta alardeak bi herriotako jai-agerpen nagusiak izan.

1996. urtean, emakumezkoek Arartekoarengana jo zuten, ezin zutelako desfilean parterik hartu, "eskopetari" moduan. 1996. urteaz geroztik, erakunde honek zenbait esku-hartze burutu ditu, eta tokiko korporazioei gomendioak bidali dizkie. Betiere, Arartekoak tokiko korporazioei gogorarazi die zein betebeharrak ezartzen dieten Konstituzioaren 9.2 artikulua eta Autonomi Estatutuak herri-botere guztiei. Betebeharrak horren eretzean, herri-botereek baldintzak sustatu behar dituzte, pertsonen arteko berdintasuna egiazkoa eta eragingarria izan dadin. Ukitutako udalen kasuan, betebeharrak hori honetara gauzatu behar da: udalek beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, herritar guztiek, emakumezko nahiz gizonezko, Alardean berdintasunez parte har dezaten, hala nahi badute bederen.

Azken urteotan, Irunen bazirudien arazoa bideratuta zegoela, guztiz konponduta ez bazegoen ere. Arean ere, Alarde ofizialean –hau da, udalaren diru-laguntzarekin egindako alarde horretan–, emakumezkoek soldadu moduan desfilatzen zuten, gizonezko auzokideen baldintza berdinetan. Ez zen gauza bera gertatzen, ordea, Alarde tradizionalan. Bestalde, Hondarribian, udal korporazioak ez zuten behin ere ekitaldi bat antolatu, ekitaldi horrek emakumezkoen parte-hartzea onar zezan. Gatazka zabaltzeaz geroztik, herri horretako arduradun publikoak ekitaldiaren antolakuntza pribatizatzen saiatu dira; horrela saihestu nahi dute emakumezkoen oinarriko eskubideak errespetatu behar izatea. Epai batzuek adierazi dute Alardea egitea ez dela agerpen-eskubidearen egikaritzea; aitzitik, Alardea jendaurreko ekitaldia da, eta onartezina da horretan sexuaren arabera bereizkeria egitea, antolatzailea edozein izanik ere. Epaiok gorabehera, udal korporazioak bere horretan temati jarraitu dute.

Testuinguru horretan, 1999. urtearen bukaera aldera, Ararteko erakundeak gomendioa luzatu zion Eusko Jurlaritzako Herrizaingo Sailari. Gomendio horren arabera, Ertzaintzak neurri egokiak hartu behar zituen, emakumezkoen eskubidea babesteko; esan bezala, emakumezkoen eskubidea da Hondarribiko Alardean parte hartzea, gizonezkoen baldintza berdinetan. Zoritxarrez, Ertzaintzak esku-hartze hori burutu bazuen ere, ez zuen lortu Jaizkibel Konpainiak 2000ko irailaren 8ko ekitaldian parte hartzea; konpainia horretako kideak, jakina denez, emakumezkoak dira.

Aurton, inguruabarrak aldatu egin dira, baina aldaketa ez da berdintasunaren mesederako gertatu, ezta hurrik eman ere. Ebazpen judizialek ezarri dutenaren arabera, Alardea jendaurreko jai-ekitaldi herrikoa da eta guztioi zabaldua dago; ekitaldi

horrek izaera bikoitza du: batetik, *jendaurreko ekitaldia da* eta, bestetik, *dibertimenduzko jarduera da*. Alardearen antolakuntzari, beraz, 4/1995 Legea aplikatu behar zaio, lege horrek arautzen baititu halako ekitaldiak. Era berean, ere, aurretiazko administrazio-baimenaren araubidea aplikatu behar zaio Alardeari. Inguruabar horrekin batera, behin eta berriz aitortu da emakumezkoek eskubidea dutela, berdintasun-baldintzetan, ekitaldian parte hartzeko. Hori guztia kontuan hartuta, Irungo Alarde ofiziala abian jarri zutenak konturatu ziren ez zela zentzuzkoa bitasunari eustea. Hori dela eta, Alarde bakarraren alde egin zuten.

Jendaurreko ekitaldi hori kalean egiten denez gero, udaleko agintariei dagokie horretarako baimena ematea. Hori dela eta, erakunde honek bi herri horietako alkateengana jo zuen, bere iritzia azaltzeko. Iritzi horri helduta, ezin da jai baterako baimenik eman, baldin eta jai horretatik baztertuta geratzen badira biztanleen erdiak, besterik gabe, emakumezkoak direlako. 4/95 Legearen arabera, ezin da jendaurreko ekitaldi bat baimendu, baldin eta horrek oinarritzko eskubideak hausten baditu. Gainera, jurisprudentziak behin eta berriz ezarri du Alardea berdintasun-printzipioaren kontrakoa dela, baldin eta alarde horretan emakumezkoek parte hartzen badute, baina parte-hartze hori ezin bada soldadu moduan izan, baizik eta kantinari moduan (kantinari bat, konpainia bakoitzeko). Hala eta guztiz ere, bi udalek baimena eman zuten, halako ekitaldiak egiteko.

Talde batzuek beren beregi emakumezkoen parte-hartzearen alde dihardutenez gero, talde horiek errekurtsoa jarri zuten, epaiketa bidez, aipatutako baimen horien aurka. Baina, bi kasu horietan, ez zen kautelazko neurririk hartu, eta, horregatik, urte horretan ere, emakumezkoek ezin izan zuten berdintasunez parterik hartu, jai-ekitaldi horretan.

Beste kasu desberdin bati ekinez, Herri Administrazioak bereizkeriako tratua burutu du, emakumezko espetxeratuen aurka -ez-egitearen ondorioz, behinik behin-. Berriro ere gogoratu behar da emakumezko espetxeratuen egoera gizonezko espetxeratuen egoera baino larriagoa dela, batik bat, gela eta azpiegiturei dagokienez. Arartekoak berriro azpimarratu ditu hutsune horiek, Arartekoen Koordinaziorako XVI. Jardunaldietan. Izan ere, jardunaldi horietan, Arartekoak komunikazio bat aurkeztu du, izenburu honekin: *Emakumezko espetxeratuen egoera EAEn, emakumeok seme edo alaba adingabeak dituztenean*. Komunikazio horrek egiaztatzen duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetan, Amen Unitatea jartzeko eskaria egin da, baina, eskari hori bete ez denez gero, autonomia-erkidego honetan emakumezko espetxeratuek ezin dute bizi euren seme-alabekin, horiek hiru urtetik beherakoak direnean (ikus I. eranskina). Arazo horri dagokionez, aipamen bat egin dugu, txosten honetan bertan, eta, zehatzago, justiziaren arloari egindako sarreran. Aipamen horretan azaldu dugunez, deskribatutako egoerak berebiziko eragina du, espetxeratutako emakumeak atzeritarrak direnean; izan ere, emakumezko horiek ez dute bertan seniderik, senide horiek haien ondorengoak zaintzeaz ardura daitezen. Kasu horrek, beste behin ere, frogatzen du, bazterketa-faktoreek –generoak, atzerriko jatorriak eta askatasunik ez izateak– elkarrekin interakzioa dutenean, bereizkeriako ondorioak areagotu eta astundu egiten direla.

Antzeko testuinguru batean, txiroak ere gizartean baztertuta daude. Aipatzeko modukoa da emakumezko txiro batek luzatutako kexa. Kexa horren arabera, emakumezkoari debekatu egin zitzaion Aterpeko ohe-gunera sartzea; aterpe hori Gasteizko Udalaren zentroa da. Beste arazo batzuen artean, erreklamazioegileak intimitaterik eza aipatzen zuen; gainera, gizonezkoentzako oheak eta

emakumezkoentzako oheak bananduta ez zeudenez gero, horrek segurtasun eza sorrarazten zuen. Erabiltzaileen artean emakumezkoak oso gutxi direnez gero, kexaren eragileak uste zuen, kasu horretan, bereizkeriako tratua jasan zuela. Edozein modutan ere, txosten hau prestatzen genbiltzanean, prentsaren bitartez jakin genuen, aterpe horretan, emakumezkoentzako gune bat ezarri dela.

3. Bestelako arazoak, horiek emakumezkoen gain eragin berezia duten heinean

Azaldutakoaren harira, erakunde honek generoaren araberrako ikusmira aplikatzen du, bere jardunbidea aztertzeo orduan. Hori eginez gero, jakin daiteke zeintzuk diren tratu desberdina dakarten kasuak. Eta, horrekin batera, jakin daiteke zeintzuk diren emakumezkoen artean gehien azaltzen diren arazoak edo zein esku-hartzek sortzen dituen ondorio desberdinak emakumezkoentzat. Egin-eginean ere, esku-hartzeek eragin desberdina izan dezakete, generoaren arabera. Horren arazoa da, gizarte-sisteman, zenbait bereizkeria edo mendekotasun-egoera sustraituta egotea. Hori argi eta garbi azaltzen da, familia eta etxeko bizimodua antolatzeo sortzen diren arazo guztietan.

Funtzio Publikoaren arloari sarrera egitean, zenbait kexa aipatu dira, kexa horiek azalarazten baitituzte lanbidea eta familiako bizimodua uztartzeko dauden arazoak. Ez da ausazkoa kexa horiek guztiak emakumezkoek aurkeztea. Kasuan kasuko azterketa eginez, kasu batean, oposizioilea haurdu zegoen eta, ziur asko, erditzearen datak bat egingo zuen probak egiteko datarekin. Kasu horretan, Administrazioak borondate laudagarria erakutsi zuen, kasuan kasuko inguruabar berezietara egokitu baitzituen probak egiteko baldintzak.

Erakunde honek zenbait proposamen egin ditu, familiako bizimodua eta lanbidea hobeto uztartu ahal izateko. Proposamen horien artean, hurrengo gomendioa azpimarra daiteke: emakumezko irakasle funtzionarioak, amatasuna dela eta, uko egiten badio ordezpén bati, orduan udako hilabeteak zerbitzuetako 165 egunen barruan zenbatuko zaizkio, ikasturte batean zehar horiek guztiak egiaztatu eta aitortu behar direlako, antzinatasunaren ondorioetarako eta zerrenden antolakuntzari buruzko ondorioetarako.

Lan arloan ere, baina funtzio publikotik kanpo, kexa bat jaso dugu, diru-laguntzei buruz. Izan ere, seme edo alaba adingabeen gaineko legezko zaintza izateagatik, lan-utzialdia edo lan-saioaren murrizketa eska daiteke, eta, halako kasuetan, diru-laguntzak jaso daitezke. Emakumezko erreklamazioak adierazi zuen bezala, berak lan egiten zuen enpresa batean, eta enpresa horrek beste pertsona bat kontratatu zuen, hark burutzen zituen eginkizunak betetzeko. Hori gertatu arren, diru-laguntza ukatu zitzaion. Diru-laguntza ukatzeko arazoa hauxe izan zen: 1.232/1996 Dekretuak arautzen ditu lan-denbora banatzeagatik laguntzak; eta, dekretu horren arabera, nahitaezkoa da langabezian dagoen norbait kontratatzea. Hau da, diru-laguntza lortu ahal izateko, kontratu berria egin behar zaio INEM-en enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoenari, eta hori ez zen gertatzen aztergai dugun kasu zehatz horretan.

Zergen arloan ere, kexa batzuk izan dira, zenbait arazo sortzen direlako, ondorengoak zaintzeagatik, enpleguari aldi baterako uko egiten zaionean. Esate baterako, aita batek erreklamazioa aurkeztu zuen, nahiz eta ama izan lan-saioa murriztu zuena. Aitak zioenez, PFEZ horretan aurreikusitako familia-kenketek ez dute inolako eragingarritasunik; izan ere, emakumezkoaren diru-sarrerak txikitzen direnez gero, horrek

ez dauka aitorpena egiteko betebeharririk. Egiatan, tributaziorik ezaren arrazoia ez da familia-zamak izatea, baizik eta diru-sarrera gutxiago izatea. Dirudienez, bi neurri horiek kontraesanekoak dira, euren helburua familiari mesede egitea bada behinik behin.

Egitate hori egiaztatzearen ondorioz, komeni da, familia babesteko neurri fiskalez gain, herri-botereek gizarte-gastuari buruzko beste neurri batzuk hartzea, bigarren horiek lehenengoak osa ditzaten. Ildo horretatik doa, konparazio baterako, *Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko plana*, bertan zenbait laguntza jasotzen direlako. Baina, tamalez, plan hori ez da oraindik gauzatu.

Atal honetan, beraz, arazo zehatz batzuk aipatu nahi ditugu, arazo horiek sortu direlako. lanbidea eta familiako bizimodua uztartu nahi izatearen ondorioz. Horretarako, zenbait neurri hartu dira, eta neurri horien inguruan hausnarketa egin beharra dago. Neurri horien helburu teorikoa da, agidanez, etxeko erantzukizunak gizonetzkoen eta emakumezkoen artean banatzea, eta banaketa hori orekatua izatea. Haatik, errealitateak erakusten du halako proposamenen eskatzaile gehienak emakumezkoak direla. Hortaz, neurri horiek, eginkizunen arteko parekaketa sustatu beharrean, indartu egin dute emakumezkoek eginkizun zehatz batzuekin duten lotura; eta, jakina denez, tradizioaren arabera, eginkizun horiek emakumezkoek dagozkie. Azken finean, nahasgarria da familiari laguntzeko neurriak emakumezkoen emantzipaziorako neurriekin identifikatzea.

Nabari denez, gizarte-rolen banaketak bereizkeria dakar, eta banaketa hori islatzen da, halaber, mendeko pertsonak edo pertsona elbarriak zaintzean sortzen diren arazoetan (egoitza-baliabideak eskatzea, laguntza edo prestazio bereziak eskatzea etab.). Gai horretan, emakumezkoek aurkezten dituzte ia kexa guztiak. Erakunde eskudunek babesgabezia-egoera antzematen dutenean, gurasoei seme-alaba adingabeen gaineko babesa kentzen diete, eta, kasu horietan ere, erreklamaziogile gehienak emakumezkoak izaten dira.

Guraso bakarreko familiak, eskuarki, emakumezkoen ardurapean izaten dira. Familia horien inguruan, 2001. urtean, erakunde honek kexa ugari jaso ditu, guraso bakarreko familiek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko arazoak dituztelako. Hainbeste kexa ikusita, erakunde honek hasiera eman zion jardunari, ofizioz. Arartekoak Etxebizitza Sailera jo zuen. Alde batetik, erakunde honek sailari jakinarazi zizkion talde horrek aurkeztutako erreklamazioak. Eta, beste alde batetik, erakunde honek jakin nahi zuen sailak zer-nolako irizpideak erabiltzen dituen, nahitaezko erreserbak banatzeko; izan ere, etxebizitza batzuk nahitaez erreserbatzen zaizkie guraso bakarreko familiei, guraso horiek seme-alaba adingabeak zaindu behar dituztenean. Esku-hartze horren laburpena txosten honetan bertan aurki daiteke, Hirigintza eta Etxebizitzari buruzko atalean. Hemen, nahiko izan daiteke honako ohar hau egitea: arautegia aldatu denez gero, aldaketa horrek ahalbidetu du Administrazioak etxebizitzaren demandari buruzko datu zehatzak izatea, sustapenen deialdiari buruz agindua eman aurretik; horrela, erreserba eta kupo egokien bitartez, Administrazioak lehentasuna eman diezaike etxebizitzaren premiarik larriena duten gizarte-taldeei.

Aurretiaz esan dugun bezala, Osasunaren arloan, anitz izan dira emakumezkoek sustatutako erreklamazioak. Urte honetan zehar, emakume izatearekin lotura estu-estua duen arazo bat azaldu da, beste batzuen artean. Ugalkortasun ezari aurre egiteko tratamenduek eta lagundutako ugalketa-teknikek eratzen dute arazo hori.

Garraio publikoaren erabileraz denaz bezainbatean, ikerketa soziologikoen erakutsi dute emakumezkoek gizonetzkoen baino sarriago erabiltzen dutela garraio publikoa.

Horren inguruan, jarraikoa azpimarratu behar da: hiriko autobus batzuetan, haurren kotxe edo aulki bat sartzeko, hori plegatu gabe badago, oztopo handiak daude. Dirudienez, arazo hori konpondu egin da Gasteizen, aurton arautegia aldatu delako, erabilera hori errazteko helburuarekin.

Bukatzeko, beste arazo batzuk aipatuko ditugu. Arazo horiek, benaz, eragin handia dute emakumezkoen taldean, baina ez dute erakunde honen esku-hartzea eragin, arazo horien inguruko auzibidea abian jarri delako. Ere mu penalean, jadanik aipatu dugu, indarkeria sexistaren kasuan, epaileen babesak, askotan, ezinegon sorrarazten duela. Gatazka zibilen kasuan, kexa asko ezkontideen arteko banantzeari eta dibortzio-prozedurari buruzkoak dira. Salaketak era askotakoak izan dira: batzuetan, azpimarratu egin da aitak ez duela betetzen bere seme-alabak elikatzeko duen betebeharra; beste batzuetan, berriz, gizona koaren abusuzko jarrera deskribatu da, gizona ko hori bankueginerez baliatu delako, bi ezkontideon ondasunak bereganatzeko.

Era berean, Arartekoak ezin izan du eskurik hartu, erreklamazio zehatz batean; erreklamazio horrek arazo benetan kezagarria islatzen du, eta, zoritxarrez, arazo hori, gure gizartean, gero eta sarriago gertatzen da. Arazo horren eretxean, gurasoetako batek –eskuarki, aitak– seme edo alaba adingabea bahitu eta herritik ateratzen du, horren gaineko zaintza berari eratziki ez zaionean. Euskal elkarte baten helburua da aurreneurriak hartzea eta, hala denean, halako urratzaileak lokalizatzea. Gainera, elkarte horrek laguntza ematen die emakumezkoen, emakumeok egoera tamalgarri hori jasan behar dutenean. Bada, elkarte horrek erakunde honetara jo zuen, bere kezak azaltzeko.

Elkarteak kasu zehatzak azaldu zizkigun, baina guk ezin dugu horietan eskurik hartu, jadanik abian daudelako jardura judizialak. Horrekin batera, elkarteak proposamen hau egin zuen: lokal egokiak atondu behar dira, kontrolpeko bisitak bertan egin daitezten; elkartearen ustez, neurri hori betearaztea erraza izan daiteke, eta, gainera, aurreneurri moduan, egundoko eragingarritasuna izan dezake. Guk proposamen hori helarazi genion Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari; baina, txosten hau bukatzeko unean, oraindik ez dugu erantzunik jaso.

2. ADINEKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Urte honetan zehar, aurreko urtean bezala, bisitak egin ditugu, egoitza-zentroetara eta eguneko zentroetara, horien egoera zein den jakiteko. Bisita horien ondorioz, zenbait ondorio atera ditugu, eta ondorio horiek I. kapituluaren atal egokian daude jasota. Bertan datorren bezala, aitortu behar da administrazioek ahalegin handiak egiten dituztela, eremu horretan.

2000. urteari dagokion txostenean, hauxe azpimarratu genuen: gizarte-zerbitzuentzat, oso garrantzitsua da, administrazio publikoen jarduera-eremuak argitzea. Aurton, uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua onetsi da. Dekretu horrek eginkizunak banatu ditu, gizarte-zerbitzuen arloan; horregatik, dekretua tresna erabilgarria izango da, adinekoentzako zentro eta zerbitzuen gabeziari aurre egiteko, adinekoek horien laguntza behar baitute.

Bizitzaren fase horretan ere, osasun-laguntzen premiak aldatu egiten dira. Egiatan, osasun-arriskua areagotu egiten da adinekoen kasuan, baina horrek ezin du haien osasun-eskubidea mugatu, eskubide horrek dituen agerpen desberdinetan. Hori guztia dela eta, kexa zehatz bat aipatu behar dugu. Herritar batek kexa hori aurkeztu zuen, adinekoa zela eta, zenbait oztopo jarri zitzaizkiolako, medikua aldatzeko eskaria egin zuenean. Azkenean, gure esku-hartzea ez zen beharrezkoa izan; herritarrak temati eutsi zion eskariari, eta behar bezala kasu egin zitzaion. Baina, egoera horretan gertatutako bereizkeria begi-bistakoa denez gero, erakunde honek kexaren berri eman dio Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari. Zuzendaritza horrek adierazi digu adinekoa izatea ezin dela inola ere onartu, bereizketak egiteko irizpide gisa.

Tratu berdina izateko eskubidea, izatez, printzipio erraza da, horren adierazpenaz bakarrik arduratuz gero. Alabaina, printzipio hori gauzatzeko, etengabeko ahaleginak egin behar dira, eta herri-botereek arretaz jardun behar dute. Horren ondorioz, garrantzitsu gerta daiteke zenbait jarduera nabarmentzea. Horien artean, besteak beste, Arabako Foru Aldundiaren jarduera aipa daiteke. Aldundi horrek Adinekoentzako Zentroei buruzko Oinarrizko Estatutua onetsi du. Estatutu horren helburuetatik bat da, hain zuzen ere, adinekoen aurkako bereizkeriak saihestea –eta, era berean, adinekoen eskubideak babestea–. Helburu berberaren eretzean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ongizate Sailak adinekoen aldeko manifestua argitaratu du, eta Adinekoen Kontseiluak onetsi egin du manifestu hori.

Eremu bertsuan, tratu berdina lortu behar da, adineko guztientzat. Ondorenez, bereizkeriako zenbait egoera aipatu behar ditugu, halakoak gertatzen baitira oraindik. Gure eginkizunak bete ahala, jakin izan dugu zein izan den ukitutako administrazioen –hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen– jarduna. Administrazio horiek ahaleginak egiten ari dira, egun dauden bereizkeriak gainditzeko; bereizkeria horien ondorioz, gaur egun, udal bereko erabiltzaileek beste batzuek baino gehiago ordaintzen dute, zerbitzu berberak izateagatik. Gure itxaropena da, hemendik epe laburrera, akordioa lortzea, halako egoerarik gerta ez dadin.

Bestalde, kexa batzuek eragin berezia dute, adinekoen gain, eta aurton ere halakoak helarazi zaizkigu. Kexa horiek azaldu dira, aisialdiko jarduera batzuek hainbat enbarazu eta eragozpen eragiten dituztelako, gure herrietako alde zaharretan.

3. ADIN TXIKIKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Adin txikikoen sektorea, beren ezaugarriak direla kausa, bereziki erasotzen erraz gertatzen den biztanleriaren sektorea dugu, eta bermatu beharreko eskubide berariazkoak dauzkate. Talde horren eskubideen defentsarako, Ararteko erakundeak, urte hauetan, jarduteko lerro ezberdinetan eman du arreta lehentasunez:

- Kexen ebazpenean eta gomendio berariazkoak egiten;
- Bereziki kalteturik edota erasotzen errazago gertatzen diren adin txikikoen talde batzuen arazo zehatzen analisisian eta segimenduan;
- Biztanleriaren sektore honekin eta beraren eskubideei buruzko kulturaren hedapenean lanean diharduten gizarte-eragileekiko, elkarteekiko eta erakundeekiko lankidetzan.

Urtean zehar, beraien eskubideen defentsarekin lotuta burutu diren jarduketa nagusiak islatu nahi dira, era laburrean, atal honetan eta, horretarako, goian adierazitako hiru jarduketa-lerroetako bakoitzean gauzatu diren ekintzen deskripziorako eta balioespenerako elementuetako batzuk ekarri dira. Azken puntuan, gainera, betetzeko dauden eta legeen edo arauen aldetiko garapena eskatzen duten gomendioetako batzuk gogoraraziko dira.

1. Berariazko kexak eta gomendioak

Aurreko urteetan bezala, aurten ere kexa gutxi jaso dugu erakunde honetan adin txikikoei bereziki edo zuzenean lotuta; are gutxiago izan dira adin txikikoei beraiek aurkeztu dituztenak. Seguru aski, faktore ezberdinei zor zaie hori: beren eskubideen gaineko kontzientziarik eza, erakunde hau, beraiei ere irekita dagoen defentsa-mekanismoa dela ez jakitea, erakundeetara jotzeko gaitasun edo ohiturarik eza, familiarekiko, edo beste pertsona edo erakunde batzuekiko mendekotasuna... Faktore horietako zenbait ez dagozkio talde honi soilik, eta kaltetuak edo errazago eraso dakizkiekeen beste sektore batzuetan ere ager daitezke.

Hezkuntza-zerbitzua da, zalantzarik gabe, biztanleriaren sektore honekiko harremanik zuzenena eta ohikoena daukan Administrazioaren zerbitzua. Horrela, ikuspegi zabal batetik, hezkuntza-arlo osoak, unibertsitate-hezkuntzako goi-maila izan ezik, harreman zuzena dauka adin txikikoei gure Erkidegoan hartzen duten trataerarekin (Hezkuntza arloa, txosten honetako II. kapitulua).

Hezkuntza-arloari eginiko aipamen global hori alde batera utzita, ondorengo hauen moduko kexak eta jarduketak planteatu dira, besteak beste direla, aurten:

- Hirigintza-proiektuek edota garraio-zerbitzu berriek, beren diseinuarengatik, kokapenarengatik edo hurbiltasunarengatik, ikastetxeetan daukaten eragina, eta ikastetxearen segurtasun-baldintzetan daukaten eragina;
- Adin txikiko bat adoptatzeko exijitzen diren irizpideei buruzko desadostasunak;
- Gurasoen desadostasuna zenbait testulibururen edukiekin;
- Ospitaleratuta dauden adin txikikoei bisita egiteko erabili diren irizpideak;

- Agiri-kontuak direla-eta, sorlekua atzerrian duten adin txikikoek kirol federatuan jarduteko izan dituzten arazoak;
- Foru aldundien aldetiko tutoretza, lagunarterik gabe, zentroetara bilduta dauden adin txikiko atzerritarrak daudenean;
- Minusbaliotasunak balioesteko irizpideak eta hezkuntza-beharrizan bereziak dauzkaten adin txikikoak eskolaratzeko baldintzak;
- Erasotzen errazagoak diren adin txikikoen talde jakin batzuk eskolaratzeko baldintzak, eta bereziki:
 - Sasoikako langileen seme-alabak.
 - Legea urratu duten eta barneratze-zentroetan dauden adin txikikoak.
 - Lagunarterik ez daukaten adin txikiko atzerritarrak.
- Desadostasunak, anorexia-arazoak dauzkaten nerabeei ematen zaien arreta medikua behar bestekoa den ala ez balioestean.

Aurreko adibideetan adierazi den bezala, hiru arlo ukitzen dituzte kexek edo jarduketek:

- hezkuntza: eskolaratzeko baldintzak, gizartean kaltetuen dauden edo hezkuntza-beharrizan bereziak dauzkaten taldeei dagokienean bereziki;
- adin txikikoen babesa: desadostasunak erakundeen esku-hartzeei dagokienean;
- gaixotasun jakin batzuk dauzkaten adin txikikoei eman beharreko osasun-artapena.

Alor horietan egiten zaie aurre, era batean edo beste batean, hurrengo atalean, nahiz eta horretarako erabiltzen den ikuspegia bestelakoa den.

2. Sektorerik ahulenen arazoan azterketa eta jarraipena

Adin txikikoen taldearen barruan, bere aldetik, haien eskubideak direla-eta, arrisku bereziko egoeretan dauden taldeak edo sektoreak daude. Ararteko erakundeak lehenetsun eman die arreta egoera latzagoetan dauden edo beharrizan bereziak dauzkaten umeen, nerabeen eta gazteen sektore hauei. Eta, lan monografikoen eta ez-ohiko txostenen bidez, eta berorien gainean eginiko segimenduaren bidez jardun du, funtsean, zeregin horretan. Horrela, aurten, eutsi egin zaio segimenduari, edo aurre egin zaio arazoari, sektore horietako sei hauek hartuta:

- lagunarterik gabeko adin txikiko atzerritarrak;
 - babesik gabeko haurrak (arriskudun eta babesik gabeko egoerak);
 - legea urratu duten adin txikikoak (epaiketa-neurriak bete beharri lotuak);
 - sasoikako langileen seme-alabak (eskolara joan gabeko benetako egoeretan);
 - buruko gaitzak dituzten adin txikikoak;
 - hezkuntza-beharrizan bereziak dauzkaten ikasleak.
- **Lagunarterik gabeko adin txikiko atzerritarrak** direla-eta, txosten honexetan, iazkoan bezala, atal berezia eskaini zaio beraien egoeraren analisiari (1.1.5. atala).

Bilduriko datuek erakusten dutenez, haziz doan taldea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan bereziki, eta Foru Aldundiek ahaleginak egiten dituzte erantzunak emateko, horretarako baliabide edo zerbitzu bereziak martxan jarrita. Erakunde honetako langileek bisita egin dute dauden harrera zentro guztietara (Loiu, Urduña, Irun, Martutene eta Vitoria-Gasteiz) eta egoera ezberdinen analisia egin dutelarik, hala alderdi positiboak nola hobetu behar direnak azpimarratu dituzte eta, beharrezko iritzi izan diotenetan, ardura duten erakundeen aurreko ofiziozko jarduketei ekin diete.

- **Familiaren babesik gabeko egoeretan dauden haurrak** direla-eta, Ararteko erakundeak ez-ohiko txostena plazaratu zuen 1997 urtean, eta berariazko 42 gomendio egin ziren bertan. Aurten eutsi egin zaio segimenduari, gomendioak zein gradutan bete diren egiaztatu ahal izateko. Txostena egin zenetik iragan den denbora aintzat hartuta, informazio eguneratua eskatu da arduradun diren erakunde guztietan, aurrerapenen eta bete gabe dauden gaien nondik norakoak egiaztatu ahal izateko. Harrera-zentroei eginiko bisitei dagokienean, berriz, bereziki zaila gertatzen den talde bati sortuz joan diren zerbitzuetakoren batzuetara mugatu dira eta, hala, portaera-arazo latzak dauzkaten nerabeentzako zentro horietara baino ez gara abiatu (Txosten honetako 1.1.5. atala).
- **Adin txikiko lege-hausleak** direla eta, 1998. urtean argitaratu zen ez-ohiko txostena eta bertan 46 gomendio luzatu zitzaizkien erakundeei. Aurten buruturiko segimenduari esker, gure erkidegoan gaurdaino dauden hiru barneratze-zentroetara (Andoio, Urtuella eta Aramaio) bisita egin eta gaur egungo egoera berrikusi ahal izan dugu. Beste alde batetik, neurrien betetze-mailari buruzko datu eguneratuei esker, beraien eboluzioa zein den jakin ahal da, eta balioespena gauzatu, arazo nagusiak azpimarratuz eta txostenaren hasiera bateko gomendioetako batzuen betetze-maila balioetsiz. Adin txikikoen erantzukizun penalari buruzko lege berria 2001eko urtarrilean indarrean sartu izanak (eta horrek berekin dakar epaileen esku-hartzeen eta neurrien gehikuntza, bai eta, arreta ematen zaien gazteen ezaugarrietako aldaketa garrantzizkoak ere) edo, barneratze-neurriei dagokienean, eraikitze lanak amaitu baino lehen ETak egin zuen atentatuaren ondorioz, Zumarragako zentroa irekitzeko gertatu den atzerapenak markatu dute, besteak beste, azken urte horretako errealitatea. Talde honen egoerari buruz gauzatu den segimendua zabal bilduta dago txosten honexetako 1.1.6. atalera.
- **Sasoikako langileen seme-alaben arazoei** dagokienez, esan beharra dago adin txikiko horiek, sendiekin abiatzen direla Araban mahatsa eta patata batzera, eta erakunde honek gai hori urtero-urtero azalarazten duelarik, arreta berezia eman zaio aurten ere. Errioxa Arabarreko, lautadako eta mendialdeko ikastetxeetan lortu den eskolaratze-mailaren analisia egin da, hala lorpenak nola gainditu gabe dirauten arazoak nabarmendurik. Talde edo elkarte batzuek burutu duten lanari esker, datu asko eta asko bildu ahal izan dira, oraindik eskolara joan gabe dauden adin txikikoen kopurua zehaztu, konpondu gabe dauden arazoak zeintzuk diren adierazi, eta bai eskolaratzeko moduari, bai eta bizitzeko eta ostatu hartzeko baldintzei ere, eragiten dieten hobekuntza zenbait proposatu (Txostena honetako 1.1.2. atala).
- Joan den urtean *Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako laguntza komunitarioa* izeneko txosten monografikoa aurkeztu zen Legebiltzarrerara bertan eztabaidatua izan zedin. Txosten hartan, **umeentzako eta gazteentzako laguntza**

psikiatrikoaren egoera eta elikadurarekin lotutako desorekak (anorexia eta bulimia) dauzkaten nerabeen arazo bereziak berriaz bildu ziren bi kapitulutan. Adin txikiko autisten arazo berezietan ere eskaini zitzaizkien atal bat. Txostenean egindako gomendioetako batek zehazki azaldu zuenez, beharrezkoa gertatzen da adin txikikoei bereziki zuzenduta dauden zerbitzuak gehitzea. Aurtengo segimenduan, emandako urratsak zeintzuk izan diren bildu da (Txosten honetako 1.1.9.atala).

- Erakunde honek egin duen azken txosten monografikoak (Eusko Legebiltzarreko buruari 2001eko ekainaren 22an emana eta urte bereko abenduaren 12an Giza-Eskubideen eta Hiritarren Esaeren Batzordean eztabaidatua) hezkuntzako beharrian berezietan buruzko da. Bai baliogabetasun fisiko, psikiko edo zentzumenetakoak eratorrita, edo bai beste baldintza batzuen ondorioz –bereziki gizarte edo kulturaren aldetiko baldintza latzetan egotearen ondorioz-, **hezkuntzako beharrian bereziak dauzkaten ikasleei** eskola-sistemak emaniko erantzunaren analisi sakona gauzatu zen bertan, maila, etapa eta ikastetxe mota ezberdinei zegokienean. Eskubideen bermearen ikuspegitik begiratuta, bereziki kezkarri geratzen diren hamar puntu azpimarratu zituen txostenak, eta 21 gomendio egin zitzaizkion bertan Hezkuntza saileko Administrazioari. Gomendioetako batzuek hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari eta berorren lehentasunei eragiten diete, eta horrelako ikasleriaren gaur egungo banaketa -desorekatua eta parekotasunik gabea gertatzen baita- eta zentro jakin batzuetako kontzentrazioa saihesten saiatzen dira, ezaugarri horien eraginez integrazioa zailago edo ezinezko bihurtarazten duten eskola-ghettoak sortzeko arriskua ematen baita. Kezkarrien suertatzen diren hamar puntu horien laburpena txosten honetako 1.1.10. atalean sartu da.

* * *

- Talde horietako bakoitzaren arazoak era independentean analizatu izanak, beraien artean independente diren edo elkarren arteko loturarik ez duten adin txikikoen sei talderen aurrean gaudela pentsatzera eramán gintzake. Hala eta guztiz ere, ez da horrela gertatzen. Sarri askotan –gero eta maizago agian- gaur egun talde horietako bateko kide den adin txikikoa, biharko egunean beste talde bateko kide izatera ere pasako da. Adibide gisa, babes zerbitzuetatik datozelarik, edota laguntza psikiatrikoa eskatzen duten arazo latzak dauzkatarik, edo eskolara joan gabe egon direlarik.... barneratze zentroetan dauden adin txikiko lege-hausleen proportzio handia aipatzea nahikoa litzateke. Gezurra badirudi ere, gaur egun oraindik, eta gure gizarte honetan, gizartearen eta erakundearen aldetiko arreta lehentasunezkoa behar duten adin txikiko kopuru jakin bati eragiten dioten “bartzerteko zirkuitu” benetakoak ditugu.
- Aztertu diren sektoreetako bakoitzak arazo bereziak dauka. Baina egia da, baita ere, sektore horietako guztietan edo beraietako askotan arazo berberak suma daitezkeela. Horrela, esate baterako:
 - zerbitzuen arteko koordinaziorako zailtasunek (harrera-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, oinarriko gizarte-zerbitzuak...) eragin kaltegarria daukate laguntzaren kalitaterako, eta esku-hartzeen segimendurako eta koherentziarako;

- erakundeen aldetiko laguntza, maiz, denbora-epe jakin batean luzatzen delarik, une jakin batean, eta hezkuntzaren aldetiko ibilbidea izan zitekeenarekiko zerikusirik ez daukaten zioengatik, eten egiten da eta jarraipenik gabe geratzen.
- Erakundeek berek egiten dituzten esku-hartzeak alde batera utzita, aipatu ditugun taldeetakoak edota berdin, erasotzeko erraz gertatzen diren beste talde batzuetakoak diren adin txikikoekiko zerikusia duten albisteei, komunikabideetan zenbaitetan ematen zaaien trataera ere kezkarri gertatzen da erakunde honentzat. Eta hori bereziki jazotzen da informazioak, itxuraz, polizia-iturrietatik datorrelarik, gizartean alarma irazeki edo estereotipoen eta bazterketaren areagotzea sor dezakeenean. Adin txikikoaren interes gorenak -eta horrek behar du izan erakundeen erabaki eta esku-hartze guztien printzipio nagusia - bideratu behar du berari eragiten dioten gaiei buruz, jendaurrera azaltzen den informazioa ere, eta medioen bestelako edozein interesen gainetikoa behar du izan.

3. **Gizarte-eragileekiko lankidetzeta eta gizarte-sentsibilizazioa**

Erakundea ezagutu eza, edota adin txikikoek bere dituzten eskubideei edota honelako moduko toki batean beroriek defenditzeko aukerei dagokienean daukaten kontzientzia urria hartu izan dira biztanleriaren sektore honi lotuta dauden kexen urritasuna azalduko luketen balizko zergatitzat. Azken urtean burutu diren jardunetarikoz zenbaiten helburua, zergati horiei bidea moztea edo, zuzenean zein zeharka, berorien aldarazpenean partaide izatea izan da. Jardunetako askoren bidez, eskubide horiek hedatu nahi izan ditugu, eta gizarte guztia sentsibilizatu.

Jardunon artean, ondorengoak azpimarratuko genituzke esanguratsuenak direlako:

- Arrisku-egoeran dauden edo beharrian bereziak dauzkaten adin txikikoei laguntzen lanean diharduten elkarteekin edo erakundeekin izaniko lankidetzeta-harremanak eta kontaktuak. Elkarte horiek, besteak beste, honakoak izan dira: Berriztu, Gaztaroan Ekin, APNABI, Aspace, Gautena, Uribe-Kosta, Besarka, Era Berri, Gurutz Gorria, Hezilan, Nuevo Futuro, Unicef, ikastetxeetako gurasoen elkarteak... (Txosten honetako 2.1.atala).
- Elkarrekin edo erakundeekin lankidetzeta horren esparruan, adin txikikoen arazoak ardatz harturik, hala gure Erkidegoan nola bertatik kanpo beroriek antolaturiko foroetan eta topaketetan Arartekoak zuzenean esku hartu izana ere nabarmen daiteke.
- Euskadiko ikastetxeetan kartelak, norberak erabiltzeko egutegiak eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren testuaren argitalpenak banatzea.
- Udalarekiko lankidetzarako egitarauaren Vitoria-Gasteizeko ikastetxeetako eskola-taldeei emaniko laguntza eta eginiko erakundearen aurkezpena.
- Erakundea eskola-taldeetan aurkezteko, giza-eskubideei buruzko lan sistematikoaren esparruaren barruan gehienetan, gure presentzia eskatu duten ikastetxeetan gauzaturiko esku-hartze zuzena.
- Giza eskubideei buruzko eskola-materialak gauzatzeko eta hedatzeko, gaurdaino buruturiko lau beken emaitza gisa, azken urte honetan haurren eskubideei buruzko

lan sistematikorako materialen karpeta igorri da Lehen Mailako Hezkuntza ematen duten ikastetxe guztietara, bai eta giza eskubideak lantzeko balio duten karta-sorta, gidaliburuak eta baliabideak dauzkaten kaxak ere Bigarren Mailako Hezkuntzako ikastetxeetara eta bestelako hezkuntza zerbitzuetara. Material didaktiko horiek, lehenago bidali zirenei eta oraindik gauzatze-fasean daudenei gehitu behar zaizkie (txosten honetako 2.3. atala).

- Aurreragoko jarduketa lerroa askozaz zabalagoa den ikuspegi baten barrura bildu behar da: Ararteko erakundeak bereganatuta dauzka adin txikikoen sozializazioarekiko kezka eta konpromisoa, giza eskubideetan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarri hartzen duen kultura batean. Edozein gizarte demokratikotan beharrezko gertatzen den zerbait dugu hori eta are beharrezkoago urteetan eta urteetan bortizkeriaren eta erailketen erabilpen sistematikoarekin batera bizi izan zen gure gizarte honetan. Horren aurrean, erakunde honen asmoa izan da, une oro, giza biziaren goreneko balioa defendatzea eta bere kudeaketetan, elkarriketa, bitartekaritza eta akordioen bila joatea. Proposamenak ere egin ditu hezkuntza sisteman elkarbizitzaren balioei era sistematikoan aurre egin dakien. Ikasleentzat, giza eskubideei buruzko eskolako materialak egin eta zabaldu izana, aipaturiko hori guztia bilatu nahian eginiko zerbait besterik ez da.

4. **Betetzeko dauden arau-izaerako gomendioak**

Amaitzeko, arau izaera dutelarik, Ararteko erakundeak adin txikikoen egoera dela-eta, eman zituen arren, oraindik bete gabe dirauten zenbait gomendio errepikatuko dugu hemen:

- Zero eta hiru urte bitarteko haurren hezkuntza araupetzeko dagoen beharrezana, erakunde honen gomendio baten gaia izan zen 1998. urtean (1998.eko txostenaren VI. kapitulua, 2. atala), eta berriro ere errepikatu zen hezkuntza beharrezana bereziei buruzko ez-ohiko txostenean (Txosten horretako lehenengo gomendioa). 2001. ean, berriz, elkarteen eta sindikatuen plataforma batek esku hartzeko aurkeztu zuen eskaria abiapuntutzat hartuta, erakunde honek berriro adierazi dio Hezkuntza Sailari zeinen ardura berezia daukan hezkuntza-ziklo horren interpretazio zuzenean.
- Ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudiak berrikusi beharrezana ere izan zen erakunde honen gomendio orokor baten gaia (1997.eko txostenaren VII. kapitulua, 7.3. atala).
- Gure Erkidegoko haurrei eta nerabeei lagunduko dien, hiru lurralde historikoetan exiji daitezkeen irizpide komunak eta oinarriko betekizunak ezarriko dituen lege baten beharra (Babesik gabeko adin txikikoei buruzko ez-ohiko txostenean –1997- eta adin txiki lege-hausleei buruzkoan –1998- eginiko gomendioak, eta txosten honetako 1.1.6. atala).

Horiei guztiei erantsi behar litzaizkieke, nola ez, arauen aldarazpenak eskatzen dituzten hezkuntza behar bereziei buruzko ez-ohiko txostenean eginiko gomendio orokorretako zenbait. Baina kasu honetan, aurrekoetan ez bezala, oraindik egin berri dauden gomendioak dira.

4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Gutxi dira, aurten ere, beren kexak aurkeztera gugana zuzenean jo duten atzerritarrak, asko eta askoren ahulezia edo babesik ezeko egoera bereziari erreparatzen badiogu. Erakunde honen aurreko urteetan ere egiaztatu ahal izan duen fenomeno hau, hein batean, pertsona horietako gehienek beren eskubideak eta herri administrazioen jarduerak kontrolatzeko mekanismoak ezagutzen ez dituztelako gertatzen da, baita, kasu askotan, erakundeenganako duten mesfidantzarengatik ere, balizko ondorio txarren beldurrez; baina fenomeno honetan, halaber, atzerritarrek dauzkaten arazoetako asko atzerritarren erregimenari berari edo, estatuaren eskumenekoak direlako, Espainiako Arartekoaren kontrolpean geratzen diren beste gai batzuei ukitzen dietenez, kasu horietan estatuko erakunde zuzenean izapidetzera jotzeak ere eragin logikoa dauka.

Aurten erakunde honengana zuzenean jo duten atzerriko pertsonen kexak Euskadiko herri administrazioen jardueren aurakoak izan dira; hartara, etxebizitza bat izateko aurkitzen dituzten arazoak jakinarazi dizkigute, federazio lizentzia bat ateratzeko sortutako oztopoak eta, halaber, poliziaen jarduera jakin batzuetan ere gure iritzia eta esku hartzea eskatu digute. Baina kexa horiekin batera, lehenago azaldu dugun arrazoiengatik, Espainiako Arartekoaren kontrolari dagozkion beste jarduera batzuen gainekoak ere jaso ditugu. Azkeneko kasu hauetan batzuetan erreklamatu duenaren eta estatuko erakundearen arteko bitartekari hutsak izan gara; beste batzuetan, ordea, kexa helaraztearekin batera, bide batez gure iradokizunen berri ere eman dugu, erakunde bakoitzaren esparru funtzionala beti errespetatuz. Jarraian bide horretatik heldu zaizkigun gai batzuen alderdirik esanguratsuenak garatuko ditugu.

Atzerritarrek gure Autonomia Erkidegoan etxebizitza bat lortzeko aurkitzen dituzten oztopoez hitz egiten hasiko gara. Oztopo horiek agerian geratu dira Gasteizen bizi diren etorkin marokoar ugariaren multzoak aurkeztu digun kexan. Etxebizitza baliabide ekonomiko urriko herritarrentzat arazoa baldin bada, alokatzeko pisu gutxi dagoelako eta oso alokairu garestiak daudelako, etorkinen kasuan egoera askoz ere larriagoa da, jabeek pertsona horiei, atzerritarrak direnez, etxebizitza alokatzeko izaten duten erreparoarengatik.

Planteatutako arazoari erakundearen arteko eta sektore ugarietako ikuspegitik aurre egin behar zaiola pentsatu dugu; eta, horrengatik, kasuan inplikaturik zeudela irizten genien erakunde desberdinengana jo dugu, atzerritarren etxebizitzak lortu ahal izate ditzaten laguntzeko neurriak hartzea iradokitzeke. Besteak beste, etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza zerbitzua sortzea aipa dezakegu, non, eskaintza eta eskaria biltzeaz gain, jabeei errentaren kobrantzari eta alokatutako higiezinaren erabilpen zuzenari buruzko berme gehigarriak eskaini baidiezazkieke; etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak ezartzea; zerga pizgarriak ematea; gizarte premialdietarako higiezinaren kopurua gehitzea; eta landa lurretako herri guneetako alokairuak bultzatzea, kasu honetan, herri garraioko sarearen neurri osagarriak hartuz.

Gure esku hartzea adin txikiko atzerritar baten harrera familiarak ere eskatu du, zeren, esan zigutenez, Bizkaiko Lurraldeko Futbol Federazioak adin txikoiari zegokion federazioko lizentzia ukatu baitzion. Federazioak, ordea, ustez ukatutako eskari horren berririk ez duela erantzun digu. Halaxe jakinarazi diogu interesatuari, eta azkenean lizentzia lortu du.

Lehenago esan dugun bezala, guregana atzerritar bat Ertzaintzak berari eta bere ardurapeko trukerako bulegoan enplegatutako emakumeei, atzerritarrek direlako, bere ustez, emandako tratuz kehatzeko ere etorri da. Esan digunaren arabera, kexa eragin duten egitateak aipatutako enplegatuek, zalantzazko billete baten aldaketarengatik bulegoan sortutako arazoak konpontzeko deituta, Ertzainak bulegora azaldu zirenean gertatu ziren. Ertzainen jardueraren ondorioz, erreklamatu duena, kontatu digunaren arabera, polizia etxera eraman eta bertan, adierazi digunez, erabat biluzarazi eta ez identifikatzeagatik ustezko desobedientzia delitua leporatu zioten.

Oraindik Herrizaingo Sailak eskatu diogun informazioa bidal diezagun zain gaudenez ebazteko dagoen kexa honetan, behin eta berriro gertatutako bi gai piztu dira, oraingoan atzerritarrei dagokienez. Batetik, polizia jarduera batean inplikaturako pertsonak salatu edo kehatzeko modukoa den interbentzioa izan litekeela ohartzen direnean, edo pertsona horrek polizien jardura zalantzan jarri edo kritikatzeko duenean, agenteek desobedientzia salaketa jartzeko duten ohitura; ohitura hori xehetasun handiagok aztertu da II. kapituluaren bertan, 7. atalean, herrizaingo sailari dagokionez (1206/1999 kexaren hitzaurrea eta laburpena). Bestalde, erabat biluzaraziz gorputza arakatzeko eginkariaren mugak, txosten honen VI. kapituluaren ere aipatu baita. Kapitulu horretan gomendio orokor bat sartu dugu, erakundearen iritziz polizia zerbitzuek halakorik egiten dutenean jarraitu beharreko ildoak zehaztuz.

Aurten Estatuko Arartekoari helarazi dizkiogun kexak batez ere nazionalitatea lortzeko, atzerrian luzatutako ikasketa tituluen eta, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan ateratako gidatzeko baimenen homologazioko gaietaz dira.

Azkeneko gai hau etorkin marokoarren kolektibo batek planteatu digu, eta kexaren bidez beren jatorrizko herrialdeetan ateratako gidatzeko baimenen balioa ez ezagutzearen, eta Espainiako gidatzeko baimena ateratzeko egin behar dituzten frogen ondorioz jasaten ari diren kalteak jakinarazi dizkigute. Jabetzen gara kexak deskribatzen duen egoera, maiatzaren 30ko 772/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gidarien Arautegi Orokorrek dakarren arautzearen ondoriozkoa da, Europar Batasunetik kanpo ateratako gidatzeko baimenen eta horren pareko Espainiako gidatzeko baimenarengatik trukatzeko atalean, ezartzen duen denbora tarte laburra igaro ondoren, kanpoko baimenei balioa ukatzen dienean, eta trukea den herrialdearekin sinatutako itun batean baimenduta egotea exijitzen duenean (30. art.). Hala ere, pertsona hauei beren jatorrizko herrialdeetan ateratako gidatzeko baimenaz baliatzerik ez izateak sortzen dizkien arazo larriez ohartu arren –gidatzen urte asko egin ondoren, gidatzeko baimen berria ateratzeko azterketak gainditzera behartzen dituzte, horretarako ordaindu behar den diru xahutzeak eta sarritan azterketa horiek egin behar dituzten hizkuntza ez ezagutzeak gehitzen dizkien trabekin-, kexa hau Espainiako Arartekoari helarazi diogu, araudia aldaraztea aztertzea sustatzeari egoki iritz diezaiolakoan, edo bestela, truke automatikoaren onura ateratzen duten herrialdeen zerrenda luzatzeko itunak sina daitezen aldeko jarrera aktiboagoa izan dadin bultzatzea dezaiekolakoan.

Orain arte aipatu ditugun jarduerak ukitutako pertsonen kexetatik etorri dira. Jarduera horien ondoan, erakundeak, aurten, bere ekimenez, atzerritarrekin zerkusua duten beste esku hartze batzuek ere izan ditu. Horiez ariketarako gara jarraian, oraingoan, lehen bezala, alderdirik esanguratsuenak azpimarratuz.

II. kapitulu honetan sartzen den Herrizaingo Sailaren gaineko hitzaurrean aukera izan dugu, egunkarietan herritar baten oharra irakurri ostean ofizioski abiarazi genuen

jarduera azpimarratzeko. Ohar hartan herritarrak gazte marokoar bat atxilotzean poliziak izandako jarduera irregularrak ari zen. Jarduera haren xehetasunak txostenaren atal horretan dauzkazue.

Aurten sasoikako langileekin zerikusia duten lehenagoko esku hartze batzuek zirela-eta egin genituen gomendioen jarraipen eta kontroleko gure lanarekin segitu dugu, langile horietako asko atzerritarrak izaten baitira. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren eta arau hausle adin txikiko atzerritarren inguruko jarduerak, baita poliziaren jarduerak atzerritarren aurka Bilboko San Frantzisko kalean. Txosteneko I kapituluak jarduera horien gaineko informazio osoa ematen du (1.1.7 eta 1.1.2 atalak).

Gure Autonomia Erkidegoan etorkinen fenomenoari erantzun koordinatu eta integrala eman beharrak txosten honen VI. kapituluan arazo horri erakundeen arteko eta sektore anitzeko ikuspegitik aurre egiteko gai izan dadin inmigrazio plan bat onestea komeni dela dioen gomendio orokorra sartzera eraman gaitu, atzerritarrei ukitzen dieten eskumen autonomiko sektorialak Euskadiko herri administrazio desberdinen artean banatuta daudela eta, administrazio bakoitzaren barruan ere, jarduera esparru desberdinei dagozkiela kontuan izanik.

Gurea bezalako erakunde bermatzaileek etorkinen gizarteratzearen fenomenoaren aurrean duten arduraren ondorioz, urte honen hasieran beste autonomia erkidegoetako ararteko erakundeekin bilera egin dugu lan foro batean, non “Autonomia Erkidegoak eta Inmigrazioa” goiburupean, bakoitzak bere eskumenen ariketan, esparru honetan sortzen diren berariazko arazoei aurre egiteko egin litzaketen jarduerak aztertu eta baloratu baitira. Foroan atera diren ondorioak, erroldatzeari, adin txikiko pertsonen tratamenduari eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera etxeen eskaintzari buruzko gaien ingurukoak dira, besteak beste, eta txosten honetako I. kapituluan sartu dira, giza eskubideen defentsaren harian ari diren erakundeei lotutako jarduerari dagokion 3. atalean.

Giza eskubideen errespetuaren kultura sortzen laguntzeko jardueren alorrean, zeini I kapituluan berariazko atala eskaini baitiogu, azpimarratu behar da erakunde honek urtero deitzen duen ikerkuntza aplikatuko beka, aurten, “EAEn errotutako herritar marokoarren artean dauden gutxiengoaren eskubidearen aplikazioa” gaiaren inguruko lan bati esleitu zaiola. Informazio zehatzagorik nahi izatekotan, aipatutako kapitulu horretako 2.2. atalera jo.

Aurten jarduneko Arartekoak erakundearen lanaren berri zabaltzeko aukera izan du, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak, epaile eta magistratuen prestakuntzarako antolatutako “Atzerritarrak. Gaiaren lege eta gizarte arazoan azterketa” izeneko ikastaro baten barruan, “Autonomietako ararteko erakundeen jarduera” zeritzan ponentzia bat aurkeztu baitu. Ponentzia horretan atzerritarren arazoak aztertu dira, gure erakundearen ikuspegitik, baita arazo horien berri izateko eta pertsona horien eskubideak defendatzeko aurkitzen ditugun muga eta ahalbideak ere.

Azpimarratu behar da, amaitzeko, erakunde honek, aurten ere, arazo honetan inplikaturako gizarteko sektoreekin izan duen lankidetzeta. Harreman hori xehetasun handiz azaldu da txostenaren I. kapituluaren 2.1. atalean sartuta dagoen gizarte zibilarekiko harremanen gaineko atalean, eta bertan zehaztasun handiagoak aurkituko dituzue.

5. EZGAIUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Atal honetan zuzenean zein zeharka ezgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboarengan eragina izan duten Arartekoaren jarduerak aztertzen saiatu gara, batetik, norbaitek eskatuta abiarazi diren kexa espedienteen izapideak eta, bestetik, erakunde honek kolektibo horren eskubideen defentsan ofizioz kudeatu dituen esku hartzeak bereiztuz.

Hezkuntzaren eremuan, hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleen inguruan planteatutako gaietan jardun behar izan dugu berriro. Larrabetzuko HBZko Txinpasmendi Guraso Elkarteak formulatutako salaketa aipatu nahi dugu, non esaten baitzuten 2001-2002 ikasturterako 2 urtekoen gelan hezkuntza berezia behar zuten bi ikasle matrikulatu zirela. Derrigorrezko hezkuntzaren tartea izanik, uste zuten Hezkuntza Administrazioak ez zuela ikastegia beharrezko sostenguaz hornituko (hezkuntza bereziko laguntzaileak).

Erakunde honen iritziz, 0-3 urteko hezkuntza etapa edo ziklo hau, logikoki dauden aukera eta baliabideen araberako pixkana ezartzearen menpe egoteak, ezin dizkigu Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren herri zerbitzuaren ezaugarri izan behar duten funtsezko oinarri eta xedek ahaztarazi, bereziki, ikasleen onarpen eta eskolatzea gidatu behar duen berdintasuneko oinarritzko printzipioa.

Horren harira, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 10.4 artikulua, (aurrerantzean EEPL), urritasun fisiko zein psikikoak konpentsatzeko diskriminazio positiboko banakako neurrien beharraz ohartarazten gaitu.

Are gehiago, lege horren 9.2 artikulua beren beregi adierazten du 0-3 urteko hezkuntza zikloaren pixkana ezartzeko prozesuan lehentasuna emango zaiela, beste kolektibo batzuekin batera, hezkuntzako beharrian bereziak dauzkaten ikasleei, neska-mutil hauen kasuan bezala.

Azken finean, baiezta dezakegu lege hori ikasle guztien artean izatezko aukera berdintasuna ziurtatzen saiatzen dela, ikasleen jatorrizko desberdintasunak konpentsatzeko diskriminazio positiboko neurriak exijituz, besteak beste, urritasun fisiko zein psikikoei lotutako hezkuntzako beharrian berezien ingurukoak.

Arartekoak behin eta berriro hartu du kargu hezkuntza Administrazioak hezkuntzako beharrian bereziak dituzten 2 urteko ikasleen eskolatzeko eskariari erantzun dion moduarengatik, zeren, EEPLaren 9.2 artikulua ezartzen duen lehentasuneko arretaren aginduari jaramon egitetik urrun, ikasle kolektibo honen izatezko berdintasuna lortzeko neurri positiboen exijentziaren berririk ez baita izan. Hartara, desberdintasun nabarmeneko egoeretara eraman dituzte, zeren, urritasun fisiko zein psikikoak jasateagatik ezin izan baitituzte txiki-txikitatik eskolatu.

Oraingoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak zentroak planteatutako beharrian asetzeko neurriak hartu ziren.

Beste alde batetik, 2001 urtean gure hezkuntza sistemak hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleei emandako erantzunaren gaineko txosten berezia amaitu zuen, aurreko ekitaldiko txostenean aurreratutako ikuspegi eta xedeez.

Ararteko erakundearen txosten berezia ekainaren 22an jendaurrera atera eta Eusko Legebiltzarreko buruari eman zitzaion, eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskarien Batzordean joan den abenduaren 12an eztabaidatu zen.

Jada argitaratutako txostenak izanik, elementu kezkarri nagusiak azpimarratzeari eta txosten honen 1.1.10 kapituluaren egindako gomendioak gogoratzeari egoki iritzi zaio.

Ogasunaren eremuan, erakundearen jarduera foru arau desberdinetan ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonentzako zerga hobarien aplikazioaren alde egitera bideratu da.

Jendartean Garraibide Jakin batzuen gaineko Zerga Berezian – matrikulazio zerga izenaz ezagunagoa- ezinduentzako salbuespena esaten zaionaren eta ezgaitasunen bat duten pertsonen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ) -zirkulazio zerga- duten salbuespenaren arauketa desberdinak akatsak eta nahasmena sortu du salbuespenok zuzentzen zaizkion kolektiboaren barruan, zeren, Garraibide Jakin batzuen gaineko Zerga Berezian arauketan ezgaitasunen bat aitortu zaion pertsona oro salbuesten den bitartean, TMIZn horrez gain ondoko hiru baldintza hauek ere bete behar baitira:

- ibilgailua gidariak daukan ezgaitasun fisiko zehatzari egokituta egotea, alegia, ibilgailua automobilaren gidariak daukan ezgaitasunari aurre egiteko behar diren zuzenketa edo egokitzapen objektiboez hornituta dagoela egiaztatu behar da. Zuzenketa objektibo horiek gidatzeko baimenean, baldintza murriztaileen atalean identifikatzen direnak dira;
- ibilgailuaren zerga potentzia 17 zerga zalditik gorakoa ez izatea, ezgaitasunik duen pertsonaren urritasuna % 65 edo gehiagokoa denean. Ibilgailuaren titularrak daukan ezgaitasunaren maila arestian aipatutako portzentajera iristen ez denean, ordea, ibilgailuaren zerga potentzia ez da 14 zerga zalditik gorakoa izango;
- eta, azkenik, ezgaitasuna duen pertsonak ibilgailuaren xedea justifikatzea.

Beste gauza batzuen alorrean, **Barrualdeari** dagokionez, ezgaitasunen bat daukaten pertsonen beraientzat gordeta dauden aparkalekuetan aparkatzeko aurkitu ohi dituzten oztopoak ere kexa iturri izaten jarraitzen dute. Zailtasunak, kasu batzuetan, udalerrian bizi ez direnei horiei eusteko jartzen zaizkien murrizketetatik sortzen dira; eta beste batzuetan, erreserba eskubiderik ez duten pertsonen erabiltzen dituztelako, eta – erreklamatzeko dutenek esaten digutenaren arabera- zenbait udalek horren aurrean erakusten duten pasibotasunarengatik

Bestalde, erakunde honek jarduera ugari egin du hiriaren antolamenduan **Irisgarritasuna** sustatzeko, herri botereei pertsona guztiei, baldintzarik egokienetan, hiri ingurunerako, herri espazioetarako, eraikinetarako, garraibideetarako eta komunikazio sistemetarako Irisgarritasuna bermatzeko.

Horrela, berdintasun baldintzetan sartzea **herri garraioko** zerbitzuen prestazioaren printzipio nagusi bihurtu da, eta bere aplikazioa ezgaitasun fisikoren bat daukaten pertsonen ez eze, gizartearen multzo osoaren onerako ere bada, inor ez baitago inoiz eta ustekabeen mugitzeko arazoak izatetik libre. Hala ere, garraibideetan Irisgarritasuna sustatzeko ezarritako neurririk gehienak, eta horren inguruko gutxitasun edo gabezien gainean erakunde honetan aurkeztutako kexarik gehienak ezgaitasunen bat duten pertsonengandik etorri dira. Pertsona horien kexen gai nagusiak egokitutako dauden unitateen kopurua eta plataformak dauzkaten ibilgailuetako plataformen erabilpena dira.

Hiri barruko garraioko beste eskakizun bat, emakumeen esparru horretako berdintasuna sustatzera bideratzen dena, Donostia eta Gasteizko hiri barruko herri garraioen zerbitzuko arautegietan islatu da, 2001ean zehar: autobusetara hurren aulkiak tolestu beharrik gabe sartu ahal izatea. Neurri hau Donostiako udalak 1999an ezarri zuen, aurretik indarrean zegoen zerbitzu arautegia eskakizun honetara eta gizartearen bilakaeraren beraren ondorioz sortutako beste batzuetara egokitzeko beharrak, arautegi horretan sartzeko atzeratu duen arren. Donostiako udalak ebakitako bidetik jarraituz,

Gasteizko udalak hiri barruko garraioetako erabilpenak aldarazi ditu, autobusera sartzeko lehenetsua, azkenean, beti gurpildun aukietan ibiltzen diren pertsonak dutela ere aitortu duelarik. Aurreikuspen honen zergatia gurpildun aukiek eta haurren aukiek tokia partekatzen dutela da.

Bestalde, ezgaitasunen bat duten pertsonak inoiz mugitzeko bat ere arazorik ez duten pertsonen sentiberatasunik ezarengatik aurkitzen dituzten arazoak planteatzen dituzte, ez dituztelako arazodun pertsonentzako gordetako tokiak errespetatzen.

Hiri barruko garraioan, Irisgarritasuna sustatzeko legeak mugitzeko arazoak dituzten pertsonen erabilpena lehenesteko lau toki gordetzea aurreikusten du. Gordetako toki horiek ezgaitasunen bat duten pertsonen onerako izango direla bermatzeko, hona hemen zer dioen Donostiako Garraioen Arautegiak, 44. artikuluan:

“Eserleku hauetan mugitzeko bat ere arazorik ez duten pertsonak daudenean, gidariak, mugitzeko arazorik duen edozein pertsonak eskatzen badio, eserleku horietan daudenei altxatzeko eskatuko die”.

TUVISA udal erakunde autonomoak, bere aldetik, gatazka horiek konpontzeko, nahitaez betetzeko jardura prozedura bat diseinatu du, enpresako gidari bakoitzari jakinarazi zaiona. Hartara, gordetako eserleketan doazen bidaiariek tokia mugitzeko arazoak dituen pertsonaren bati ukatzen badiote, arazodun pertsonak autobusaren gidariari esku hartzeko eska diezaioke, eta gidariak Gasteizko hiriko bidaiarien garraio kolektiboko zerbitzua emateko arautegian ezarritakoa betearazteko behar diren neurriak hartuko ditu.

Erakunde honek herri eraikinen barruko Irisgarritasuna bermatzeko neurriak hartzeko egin duen lanak ere arreta berezia merezi du, batez ere, adineko pertsonentzako oinarritzako zerbitzuak ematen diren eraikinetan badira (zahar etxeak, eguneko zentroak).

Ekitaldi honetan egoki iritzi zaio, halaber, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako berariazko laguntza zentroen egoera ezagutzeari. Horren harira, Gasteizko zahar etxe bat eta eguneko zentro bat bisitatu dira, bisitatutako zahar etxean dauden pertsonak eguneko zentroaren erabilzaile nagusiak baitira.

Bisitaturako etxea, Goizalde, -lehenagokoa den arren-, ezgaitasunen bat duten pertsonak hartzeko erabat zaharberritu den 2000 urtean inauguraturako eraikin batean dago. Arabako Foru Aldundiaren menpe dagoen arren, ez dute beraiek zuzenean kudeatzen. 19rentzako tokia dauka, bisitaren unean 13 hartuta zeudelarik (2001eko azaroaren 23an). Dauzkan instalazioengatik, zentroa, beren familien etxeetan zain ditzaten arazorik dauzkaten pertsona horientzako harrera etxe atsegina da.

Ehari eguneko zentroa hiriaren periferiako auzune batean dago, eta ezgaitasun fisiko larriak dituzten pertsonak (% 75etik gorakoak) hartzen ditu. Goizalde etxea bezala, Arabako Foru Aldundiaren menpe egon arren, ez dute beraiek zuzenean kudeatzen. 20 tokiko eskaintza dauka.

1998 urtean inauguratu zen, eta instalazioak erabilzaileen beharretara moldatzen dira, zentroko komunitan gurpildun aukiak behar dituzten pertsonentzako nahikoa tokirik ez dagoen arren.

Babes ofizialeko etxebizitzak lortu ahal izatea izan da erakunde honek ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen defentsan jorratu duen beste arlo bat.

Irungo herritar batek zioen bere alabak % 95eko urritasun aitortua zeukala eta, etxebizitza baten jabe izanik, ez zela indarreko araudian babes ofizialeko etxebizitza baten onuraz gozatzeko salbuespenean sartzen, bere etxeak ezarritako balioaren muga gainditzen zuelako.

Ezindua titular zeneko etxebizitzak ez zituen irismen baldintzak betetzen, igogailurik gabeko bosgarren solairuan zegoelako eta 62 metro karratuko gainazal erabilgarria zuelako, eta bizikidetasun unitateko lauak bertan bizi ziren.

Planteatutako kasuan ez zegoen administrazioaren jarduera irregularrik, auzitan jartzen zena etxebizitzei eutsi ahal izateko baldintzen betetzea baitzen.

Horren harira, etxebizitza beharraren inguruabarren gaineko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduaren 3. artikuluan, etxebizitza behar dutenen artean sartzeko ez-ohiko egoerak zehazten dira, etxebizitza baten jabe diren, gainazaleko eskubiderik duten, usufruktua edo loturazko jabetza duten pertsonen eta bertan xehetasunez azaltzen diren egoeretan daudena dokumentuen bidez egiaztatzeko moduan dauden pertsonen begira. Gai zehatz honen inguruan, agindu horretako 6. puntuan salbuespena aitortzen da, bizikidetasun unitate batean mugitzeko arazo iraunkorrak dituen pertsonaren bat dagoela egiaztatzen deneko eskatzaileen kasuetan, betiere ondoko baldintzak betetzen badira:

“a) Sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin batean dagoen etxebizitza izatea. Zehaztapenok hiri ingurune, herri espazio, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemen irismen baldintzen gaineko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasota daude.

b) Erosiko den etxebizitzak arestiko atalak aipatzen dituen sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzea.

c) Etxebizitzaren balorazioa etxebizitzaren gainazal erabilgarria ondokoez biderkatzearen emaitzatik gorakoa ez izatea:

180.000 pta. (1.081,82 euro), etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badago. Merkatuko balorazioa etxebizitza dagoeneko Lurraldeko Ordezkaritzako teknikariak sinatu beharko du.

20.000 pta (120,20 euro), etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo baldin badago. Kasu honetan, balorazioa etxebizitzaren katastro balioa izango da.”

Eskaria egiten duen bizikidetasun unitatean araudian ordaintzeko ahalmenari zegozkion baldintza guztiak betetzen ziren, baita etxebizitzaren beharrarena ere, baina etxebizitzaren balioak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren 2000ko abenduko Aginduaren 6.3.c) artikuluan ezarritakoa gainditzen zuen.

Hala ere, erakunde honen iritziz, arauari hitzez hitz lotzekotan, halako baldintzetako etxebizitza bati eusteko aukera lehendik babes ofizialeko etxebizitza baten esleipendunek soilik edukiko lukete, etxebizitzaz exijitzen den balorazioa etxebizitza babestuetarako ezarritako tasazioaren moduluari doitu behar baitzaio, edo bestela, - etxebizitzen merkatuko oraingo balioa kontuan izanik- bizitzeko gutxieneko baldintzetako etxebizitza baten titularrek soilik eta, gainera, arauak salbuespenerako kasu hori ere aurreikusten du (3.3. artikuluan).

Hirigintza eta Etxebizitza eremuan izandako kexen laburpenaren kapitulura joko dugu, bertan xehetasun handiagoz jaso baita erakunde honek gai hau ebazteko izan duen esku hartzea (1118/2001).

Amaitzeko, iazko txostenean iragarri genuen txosten monografikoa aipatuko dugu, erakunde honek ezgaitasunen bat duten pertsonen gizarte integrazioaren gainean ekin nahi baitzuen, bereziki ahulak diren gizarte kolektiboen egoera sakon aztertu eta hobetzea sustatzeari lehentasuna emanez, horixe baita erakunde honen azkeneko txosten berezirik gehienetan agertu den gaia.

Hasiera batean ikerketaren eremua mugatzeko arazo garbia zegoen eta, ildo horretatik, erakunde honek planteatu zituen aurretiazko oinarrietan, txostena alor honetako arazoen ikuspegi orokorra eskaintzen eta lehentasunezkotzat jotzen ziren edo eragin genezakeen gaietan bereziki sakontzen ahalegindu zen. Hartara, ondokoa planteatzen zen:

- Irisgarritasuna hiri ingurunean eta, bereziki, herri zerbitzuak daudeneko eraikinetan;
- zergak: herri zuzenbideko diru sarrereren tratamendua (zergazkoak eta ez-zergazkoak);
- lan merkaturako Irisgarritasuna (lanbide heziketa, lanpostuen erreserba, kontratazioaren sustapena, autonomo bilakatzen laguntzea, zentro bereziak ...).

Aurretiazko oinarri horietatik abiatuta aurkezten ziren lan proposamenetan lan eremua ahalik eta gehien zehaztea eskatzen zen.

Jasotako erantzunak eta ikerketa talde desberdinekin izandako harremanek lanaren bideragarritasuna zalantzan jarrarazi zuten, gehiegizko handinahiarengatik, eta ikerketa eremuak mugatu eta gaiak bereiztuz, planteamendu berria egitea komeni zela pentsatu zen.

Azkenean, lana bi gaitara soilik hedatzea erabaki da, xedeak hobeto mugatu ahal izateko.

Ikerketaren lehenengo eremua, txosten berezian jaso dena, herri eraikinetarako sarbideak izango dira. Hona hemen zer lortu nahi den:

- Herri eraikinetako arkitektura oztopoak ezabatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan dauden plan eta egitasmoak zeintzuk eta nolakoak diren ezagutzea.
- Herri eraikinetako irismen maila ebaluatzen utziko duen bitartekoa prestatzea, indarreko araudiaren arabera (Irisgarritasuna Sustatzeko Legea eta herri eraikinetarako Irisgarritasunaren gaineko arau teknikoak garatzen dituen dekretua).
- Herri eraikinik erabilien lagin batean irismen maila ebaluatzea.

Ikerketa lanaren prestakuntza teknikoak kasu honetan SIIS Dokumentazio eta Ikerlanen Zentroari esleitu zaio, eta horren inguruko txostena 2002 urtearen barruan amaituta egon litekeela uste dugu.

Ikerketaren bigarren eremuak ezgaitasunen bat duten pertsonen gure Erkidegoen laneratzeko dauzkaten aukerak aztertuko ditu. Horren harira, hauxe da lortu nahi dena:

- Gure Erkidegoan enplegua sustatzeko neurrien aplikazioa norainokoa den jakin, eta beste testuinguru batzuetakoarekin alderatzea.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonen enpleguaren kalitatea aztertzea.
- Kontratutako pertsonen eta gizartean txertatzeko neurrietara lotu diren enpresa kontratatzaileen ezaugarriak aztertzea, laneratzeari lagundu edo oztoporik jartzen dizkioten faktoreak ikertzeko.

Ikerketa lana duela gutxi esleitu da. Kasu honetan Datlan, S.L.ri eman zaio, eta ziurrenik 2002 urtearen tarte handi bat beharko dute amaitzeko. Baliteke amaierako txostena Eusko Legebiltzarrari urtearen amaieran eman ahal izatea eta, bestela, datorren urteko hasierako hilabeteetan emango zaie.

III. ATALA

**ARARTEKOAREN JARDUERA
KOPURUTAN**

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

2001. urtean 1.513 kexa aurkeztu dira, aurrekoan baino % 22,9 gehiago. Urtean zehar tramitazioa amaitu zaien kexei dagokienez, dena-delako administrazioak arauz kanpo jardun duela iritzi zaio 314 kasutan, hau da, banakoek nahiz taldeek aurkezturik aztertu diren kexen % 29,16tan. Azpimarratu beharra dago ezen, Arartekoak aztertu eta irregulartasunen bat aurkitu duen erreklamazioen % 89,49tan, irregulartasuna egin duen administrazioak zuzendu egin duela kexa eragin zuen jokabidea. Eta zuzendu ere, kasu gehienetan, berari gomendioa egin behar izan gabe zuzendu du. Kasuen % 9,96tan gomendioa egin da eta onartu ere bai. Arartekoaren esku-hartzearen eraginkortasun maila, kexa eragin duen arazoari konponbidea aurkitzeko bi bideak kontuan hartuz (gomendio barik edo gomendioa onartuta), pozik egoteko modukoa izan da; izan ere.

Ararteko erakundeak 2001. urtean egindako lanak, Eusko Legebiltzarrarentzat egindako txosten honetan azaltzen denak, erreklamaziogileen oniritzia jaso du. Izan ere, orain dela urte batzuetatik hona, kexak erabat tramitatu ostean erreklamaziogileei inkesta bidaltzen zaie, nahi izanez gero eta izenik eman gabe bete dezaten, eta inkesta horiek agerian jarri dute herritarrek gero eta iritzi hobea dutela Arartekoaren esku-hartzeaz. Hain zuzen ere, jaso ditugun inkesten arabera, erreklamaziogileen % 83,91k balorazio oso ona edo nahiko ona egin dute euren kexa bideratzeko Arartekoak egindako esku-hartzeaz. Arazoa konpondu ez zaien erreklamaziogile gehienek ere (% 73), balorazio positiboa azaldu dute erakundearen esku-hartzeari buruz. Inkestari erantzun dioten erreklamaziogileetatik (geroago aztertuko ditugu zehatz-mehatz inkestaren emaitzak), gehienek adierazi dute Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lieketela Administrazioarekin arazoak dituzten pertsonen.

Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun maila

	%	%
Konpondutako irregulartasuna		89,49
Gomendiorik gabe	90,04	
Gomendioa onartuta	9,96	
Konpondu gabeko irregulartasuna (gomendioa ez da onartu)		10,51

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

Nabarmendu behar da ezen, urtean zehar aurkeztu diren 1.513 erreklamazioetatik, 1.212 tramitera onartu direla, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertu zitzaizkien. Taldeek

(auzo elkarte, sindikatu, ekologista talde eta abar) erreklamazioen % 11,57 aurkeztu dituzte. Aurkeztu diren kexetariko bik 100 pertsona baino gehiagoren babesa izan dute.

- Jasotako kexak

Arestian esan dugunez, 2001. urtean 1.513 kexa jaso dira, denetara. Azpimarragarria da ezen, zenbaitetan, lehengo urteetan, kexa berdin-berdinen multzoak kontuan hartu izan direla norbanakoei tramitatutako espedienteen guztirako kopuruak zenbatzerakoan.

Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 - 2001)

Urtea	Kop.
1989	585
1990	1.159 ¹
1991	766
1992	781
1993	827
1994	747
1995	1.164
1996	1.674
1997	1.991
1998	2.660 ²
1999	1.283 ³
2000	1.231
2001	1.513 ⁴

¹ 545 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute

² 1.143 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte

³ 62 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute

⁴ 264 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

- Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legeko 21. artikulua aditzera ematen ditu hiritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2001. urtean zenbaturikoen guztizkotik, lehenengo eta behin, dena delakoarengatik onartu ez diren kexak bereiztu behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegietan planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo gelditzeagatik.

Nolanahi ere, 2001. urtean erreklamazioei ahalik eta estaldura juridiko handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako araei hiritarrak aurkezturiko kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du hiritarrari gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko gokiak izan daitezkeen bideei buruz.

Onartu gabeko kexak eta egoerak

Eskumen eremutik kanpo	46
Epai bidean	39
Norbanakoen arteko auzia	22
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik	21
Izenik gabe aurkeztu da	14
Irregularitasun nabaria	14
Estatuko Arartekoarekiko bikoiztasuna	7
Legezko epeen zain egon beharra	6
Urtebetetik gora igaro	1
Guztira	170

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

- Herriaren Defendatzaileari eta beste defendatzeile batzuei bidalitako kexak

Ararteko erakundeak berak zuzenean tramitatzen ez dituen kexen artean, ondokoak sartzen dira: jorraturiko arloa dela bide, euren tramitaziorako Estatuko Arartekoari bidaltzen zaizkionak, Estatuko Administrazioaren jarduketak izatearen ondorioz (beraz, ez daude erakunde honen kontrolaren pean). Kexa horiei, gainera, beste erkidego batzuetako parlamentarioei bidalitakoak gehitu behar zaizkie, hala nola, Gaztela-Leongo Procurador del Común deituari eta Nafarroako Arartekoari aurkeztutakoak.

2001. urtean, Estatuko Arartekoari bidalitako kexak 103 izan dira, eta autonomi erkidegoetako kidekoei bidalitakoak, berriz, 12 izan dira.

Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	103
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	12

- Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak

Estatistikei dagokionez, bereiz zenbatzen dira Ararteko erakundeetan bertan onartuak izan arren EAEko Herri Administrazioaren jarduketa jakin baten aurka bideratu ez diren erreklamazioak.

Beste modu batera esateko, halako kexetan zenbait kudeaketa eragin behar izan dira, hiritarrak planteaturiko arazoa konpontzeko; eta, jakina, horietan era askotako gaiak eta arazoak jorratzen dira. Horri dagokionez, izen honetako eremuari dagokion kapituluari, aztertu diren gaien zirriborroa egiten da.

Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak	15
---	----

- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko modua

Lehenengo hurbiltze batean, badirudi administrazio jakinaren jarduketek eragindako edo arlo jakinean kokaturiko kexa kopuru handia egotea estu lotuta dagoela hiritarrek

administrazio horren funtzionamenduarekiko duten iritzi txarrarekin, akatsak nahiz botere gehiegikeriak edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da aurreko lerrokadan kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, a priori administrazio jakinaren jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsuena) erreklamaziogilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari loturiko arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egin beharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokionez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

2. ESTADÍSTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei loturiko gaikako arloen arabera ikertzean ikusten denez, 2001. urtean aldaketa batzuk egon dira, arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Aurreko urteari dagokionez, erreklamazio kopuruak gorakada nabaria izan du Funtzio Publikoaren arloan, guztira 366 kexa jaso baitira, 2000n baino 245 gehiago. Hori horrela izan da Osasun arloko bitarteko enplegatu batzuek 119 kexa aurkeztu dituztelako, eta IRALE egitarauan sartutako irakasleek 145 erreklamazio aurkeztu dituztelako. Ogasun arloan ere aurreko urtean baino 23 kexa gehiago aurkeztu dira, eta Gizarte Ongizatean, berriz, 21 gehiago.

Aldiz, Justizia, Hezkuntza eta Herrizaingo eremuetako kexen kopurua aurreko urtean baino txikixeagoa izan da: 18, 13 eta 4 erreklamazio gutxiago, hurrenez hurren, 2000. urtean baino.

Zuzenean tramitaturiko kexen banaketa, jarduketa-eremuka

	Jasotako kexak %	
Funtzio Publikoa	366	30,20
Ogasuna	146	12,05
Herri Lanak eta Zerbitzuak	114	9,41
Hirigintza eta Etxebizitza	106	8,75
Osasuna	103	8,50
Gizarte Ongizatea	92	7,59
Ingurumena	80	6,60
Herrizaingoa	77	6,35
Hezkuntza	61	5,03
Justizia	31	2,56
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	17	1,40
Kultura eta Elebitasuna	15	1,24
Lana eta Gizarte Segurantzza	4	0,32
Guztira	1.212	100

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

- Kexen sailkapena azpiarloka

2001. urtean gaika jasotako kexen banaketa gaika aztertuz gero, hurrengo koadroan azpiarlo bakoitzak gaikako arlo bakoitzean (Ararteko erakundeak horietan sistematizatzen du bere lana) egon diren aldaketetan duen eragina ikusten da.

Jasotako kexen banaketa jarduketaren azpiarloen arabera

Funtzio Publikoa	366
Irakaskuntzako Funtzio Publikoa	170
Osasun arloko Funtzio Publikoa	132
Funtzio Publiko orokorra	53
Poliziaren alorreko Funtzio Publikoa	5
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	5
Eskubideak eta askatasunak	1
Ogasuna	146
Foru aldundiek tokiko zergak kudeatzea	67
Udal zergak	20
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	18
Foru zergak, PFEZ	17
Udal tasak	12
Udal prezio publikoak	6
Foru zergak, OEZ	2
Beste batzuk	2

EA Eren prezio publikoak	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio-erantzukizuna	1
Herri lanak eta zerbitzuak	114
Tokiko zerbitzu publikoak	28
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	26
Kontr. araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna.	21
Garraioa	15
Derrigorrezko desjabetzapena	8
Landa bideak	6
Obren burutzapena	4
Obren proiektuak	3
Irisgarritasuna	1
Eskubideak eta askatasunak	1
Beste batzuk	1
Hirigintza eta Etxebizitza	106
Etxebizitza	41
Hirigintza arauen betearazpena eta aurria	31
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	16
Hiri antolamendua	10
Hirigintza kudeaketa	4
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.	2
Irisgarritasuna	1
Beste batzuk	1
Osasuna	103
Osasun publikoa	52
Erabiltzaileen eskubideak	40
Osasun laguntza	5
Adimen osasuna	4
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	1
Beste batzuk	1
Gizarte Ongizatea	92
Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	42
Adinekoentzako laguntza	13
Beste batzuk	12
Haur eta nerabeentzako laguntza	7
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	7
Minusbaliatuentzako laguntza	5
Babes bereziko taldeentzako laguntza	4
Eskubideak eta askatasunak	2
Ingurumena	80
Jarduera sailkatuak egoitza-lurzoruan	63
Ingurumenaren beste ukipen batzuk	8
Jarduera sailkatuak industri lurzoruan	6
Jard. sailkatuak lurzoru urbanizaezinean	1

Naturgune babestuak. Landaretzaren eta faunaren babesa	1	
Hondakinak eta isurketak	1	
Herrizaingoa		77
Trafikoa	41	
Eskubideak eta askatasunak	10	
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	10	
Herritarren segurtasuna	9	
Jokoak eta ikuskizunak	5	
Beste batzuk	1	
Kontrat. arabidea, ondarea eta adm. erantz.	1	
Hezkuntza		61
Unibertsitate irakaskuntza	16	
Eskubideak eta betebeharrak	11	
Ikastetxeak	8	
Arte irakaskuntzak	7	
Beste batzuk	7	
Hezkuntza Berezia	3	
Lehen Hezkuntza	3	
Haur Hezkuntza	2	
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	2	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1	
Lanbide Heziketa..	1	
Justizia		31
Espetxeetako jarduketak	22	
Justizi Administrazioaren jarduna	5	
Abokatu eta prokuradoreen elkargoak	2	
Eskubideak eta askatasunak	1	
Legea urratzen duten adingabeak	1	
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa		17
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	7	
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	3	
Industria	3	
Merkataritza	2	
Kontsumoa	2	
Kultura eta Elebitasuna		15
Elebitasuna	9	
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	3	
Kirola	2	
Kontr. arabidea, ondarea eta adm. erantzukizuna.	1	
Lana eta Gizarte Segurantzza		4
Adm. funtzionamendua eta prozedura adm.	2	
Lana	2	

3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ESTADISTIKA

Administrazio bakoitzari buruzko kexa kopuruari kasu eginez gero, argi ikusten da 2001. urtean ere Toki Administrazioak eragin duela erreklamaziorik gehien (% 49,21). Horrenbestez, nabarmen gehitu dira Toki Administrazioaren kontrako erreklamazioak, iazko portzentajea % 40,74 izan zen eta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorrari (Eusko Jaurlaritza) jarri zaizkion kexen kopuruak, aldiz, behera egin du. Urte honetan zuzenean tramitatu diren kexa guztien % 33,13 jotzen dute.

Foru Administrazioaren kudeatze lana dela-eta jaso diren kexek aurreko urtean baino portzentaje apur bat txikiagoa egiten dute, kexa guztien % 14,74, hain zuzen ere.

Era berean, Estatuko Arartekoak eskuordetuta, Estatuaren Administrazioaren aurkako 17 erreklamazio ikertu dira, ikerketa formalik egin gabe baina.

Hurrengo koadroan, adierazitako guztizko kopurua ez dator bat tramitaturiko kexa kopuruarekin (lehen adierazitako kopurua), zeren eta, hemendik aurrera, kolektiboek aurkeztutako kexak erreklamazio bakarra balira bezala zenbatzen baitira. Espedienteetan nahasitako administrazioak ikertu izanak ez du esan nahi administrazio horiek inolako erregulartasunik egin dutenik..

Zuzenean tramitaturiko kexen banaketa, ukitutako administrazioen arabera

	Kop.	%
Toki Administrazioa	404	49,21
Autonomia Erkidegoko Administrazio		
Orokorra (Eusko Jaurlaritza).....	272	33,13
Foru Administrazioa	121	14,74
Estatuko Administrazioa	17	2,07
Erakunde publikoak	4	0,49
Justizia	2	0,24
Hauteskunde Batzordea	1	0,12
Guztira	821	100

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

A) Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak

- Banaketa arloka

Uste izatekoa zenez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Funtzio Publikoa, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa eta Hirigintza eta Etxebizitza) kexa kopuru handiena egon da.

Jasotako erreklamazio guztiek arloka zuten banaketan gertaturikoaren alderantziz, Ogasun arloak beste arloek baino garrantzi erlatibo txikiagoa dauka, Eusko Jaurlaritzaren

jarduketen edo ez-egiteen aurka planteaturiko kexei dagokienez. Hori azaltzeko, Eusko Jaurlaritzak ogasunaren arloan izan duen jarduketa kopuru txikia aipa daiteke (aldundien eta udaletxeen jarduketa kopuruarekin konparatuz gero). Antzera gertatzen da Gizarte Ongizateko erreklamazioekin ere.

Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexen banaketa, arloka

	Kop.	%
Funtzio Publikoa	62	22,79
Osasuna	56	20,59
Hezkuntza	45	16,54
Hirigintza eta Etxebizitza	41	15,07
Herrizaingoa	23	8,46
Herri lanak eta zerbitzuak	14	5,15
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	10	3,67
Gizarte Ongizatea	5	1,84
Kultura eta Elebitasuna	5	1,84
Justizia	4	1,47
Lana eta Gizarte Segurantzza	3	1,10
Ogasuna	2	0,74
Ingurumena	2	0,74
Guztira	272	100

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

- Sailen araberako banaketa

Eusko Jaurlaritzaren egitura berriztatu egin zen 2001eko irailean. Horrek Eusko Jaurlaritzako sailetan eragin dituen aldaketak eta sailek hartu dituzten eskumen berriak direla-eta, urtean zehar aurkeztu diren kexetariko batzuk, agian, sail batean baino gehiagotan zenbatuko ziren, espedienteen hasierako eta amaierako daten arabera.

Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritzan) aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailaren arabera

	Kop.	%
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerkuntza	69	25,37
Osasuna	69	25,37
Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza	30	11,03
Herrizaingoa	29	10,66
Garraioa eta Herri Lanak	16	5,88
Ogasuna eta Herri Administrazioa	15	5,52
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	15	5,52
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzak	12	4,41
Kultura	7	2,57
Industria, Merkataritza eta Turismoa	7	2,57
Nekazaritza eta Arrantza	3	1,10
Guztira	272	100

(Ikus 8. diagrama eranskinean)

B) Foru administrazioen kontra aurkeztutako kexak

- Banaketa lurraldeka

Bizkaiko Foru Administrazioaren kontra aurkeztu da erreklamazio gehien 2001. urtean, aurrekoetan bezala. Izan ere, foru administrazioei egindako kexa guztietatik, % 52,89 Bizkaikoari egin zaizkio. Kexen portzentajeak, hala ere, ez du igoera nabarmenik izan aurreko urteko aldean. Behera egin du Arabako Foru Aldundiaren aurkako erreklamazioen kopuruak (2000. urtean % 23,18 izan ziren eta 2001.ean % 19,84 izan dira), eta gehitu egin dira, aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkakoak (kexen guztirako kopuruaren % 27,27 egiten dute, eta aurreko urtean, berriz, % 23,84).

Foru administrazioen kontra aurkeztutako kexen banaketa, lurraldearen arabera

	Kop.	%
Bizkaiko Foru Aldundia	64	52,89
Gipuzkoako Foru Aldundia	33	27,27
Arabako Foru Aldundia	24	19,84
Guztira	121	100

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

- Arloen araberako banaketa

Oro har, lurralde historikoetako foru administrazioen aurka aurkezturiko kexetan, kexa gehien eragin duena Gizarte Ongizate arloa izan da. Erreklamazioen % 38,84 izan ditu, eta horrenbestez Ogasun arloari berari hartu dio aurrea, azken hori 2000. urtean erreklamazio guztien % 39,07 eragitetik 2001. urtean % 32,23 eragitera igaro baita.

**Foru aldundiaren kontra aurkeztutako kexen banaketa,
arloaren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Gizarte Ongizatea	9	27	11	47	38,84
Ogasuna	10	20	9	39	32,23
Herri lanak eta zerbitzuak	8	8	1	17	14,05
Ingurumena	-	4	1	5	4,13
Funtzio Publikoa	2	1	2	5	4,13
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	-	-	3	2,48
Hirigintza eta Etxebizitza	-	2	-	2	1,65
Osasuna	-	1	-	1	0,83
Hezkuntza	-	1	-	1	0,83
Kultura eta Elebitasuna	1	-	-	1	0,83
Guztira	33	64	24	121	100

(Ikus 9. diagrama eranskinean)

C) Toki Administrazioaren kontra aurkeztutako kexak**- Banaketa lurraldeka**

Bizkaia izan arren, kopuru absolututan, udalen kontrako kexa gehien izan duen lurraldea (kexen % 49,26 Bizkaiko udalen kontra aurkeztu dira), Toki Administrazioaren aurkako erreklamazioen gehikuntzarik handiena izan duen lurraldea Araba da, biztanle gutxien dituen lurraldea, hain zuzen ere. Portzentajearen emanda, Arabako udalek erreklamazioen % 19,55 eragin dute, eta aurreko urtean, berriz, % 15,83 eragub zuten.

Toki Administrazioaren aurkako kexa gehien izan duten udalerrriak, jakina, biztanletsuenak izan dira: Bilbo (64 erreklamazio), Vitoria-Gasteiz (56 erreklamazio) eta Donostia-San Sebastian (42 erreklamazio).

Hiru lurralde historikoetako hiriburuak ez ezik, Barakaldok, Getxok, Portugaletek eta Santurtzik (Bizkaian) eta Urretxuk, Lasarte-Oriak eta Errenterriak ere (Gipuzkoan) kexa kopuru nahiko handia izan dute.

Toki administrazioen kontra aurkeztutako kexen banaketa

	Kop.	%
Bizkaiko udalak	199	49,26
Gipuzkoako udalak	108	26,73
Arabako udalak	79	19,55
Arabako administrazio-batzordeak	9	2,23
Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak	7	1,73
Gipuzkoako mankomunitate partzuergo eta parkeak	2	0,50
Guztira	384	100

Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio-batzordeen aurka aurkeztutako kexak

Arabako udalak	Kop.	Arabako administrazio-batzordeak	Kop.
Vitoria-Gasteiz	56	Langraitz	3
Aramaio	5	Beotegi	1
Iruña Oka	3	Delika	1
Labastida	3	Llanteno	1
Laudio	3	Luxaondo	1
Amurrio	1	Markina	1
Asparrena	1	Untza	1
Barrundia	1	Guztira	9
Biasteri	1		
Campezo/Kanpezu	1		
Lapuebla de Labarca	1		
Moreda de Alava	1		
Ribera Baja/Erribera Beitia .	1		
Salvatierra/Agurain	1		
Guztira	79		

- Banaketa arloka

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketek eragindako kexak modu nahiko homogeneoan banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean alegia. Hala eta guztiz ere, Hirigintza eta Etxebizitza, Herrizaingo eta Gizarte Ongizate eremuetako erreklamazioen kopuruek nabarmen egin dute gora.

Udalen kontra aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri lanak eta zerbitzuak	26	38	18	82	20,76
Ingurumena	17	33	26	76	19,24
Hirigintza eta Etxebizitza	13	36	21	70	17,72
Ogasuna	8	33	11	52	13,16
Herrizaingoa	6	24	19	49	12,41
Funtzio Publikoa	5	12	7	24	6,08
Gizarte Ongizatea	4	10	5	19	4,81
Kultura eta Elebitasuna	6	2	-	8	2,03
Osasuna	-	5	1	6	1,52
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa... ..	2	3	-	5	1,27
Hezkuntza	1	2	-	3	0,75
Lana eta Gizarte Segurantzza	-	1	-	1	0,25
Guztira	88	199	108	395	100

(Ikus 10. diagrama eranskinean)

Toki Administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen kontra aurkeztutako kexak

	Guztira
Bilbao-Bizkaia ur Partzuergoa	4
Mebisa - Bilboko Metroa	3
Servicios de Txingudi, S.A	1
Ur Zerbitzuak	1
Guztira	9

D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen kontra aurkeztutako kexak

Toki nahiz foru administrazioen edo Eusko Jaurlaritzako administrazioen aurka aurkeztu diren kexak ez ezik (lehen aztertu ditugu), erakunde honetan erreklamazio gutxi batzuk beste administrazio batzuen aurkakoak izan dira, eta horiei buruzko jarduketa Ararteko erakundearen ikerketa eremuaren barruan dago: erakunde nahiz organismo publikoen aurkako kexak dira, zuzenbide publikoko erakunde korporatiboen aurkakoak

(elkargo-erakundeak) etab. Era berean, atal honetan Estatuko Administrazioaren aurkako kexak jaso dira; izan ere, Espainiako Arartekoak ahalmena eskuordetuta, halako kexak Ararteko erakunde honek ikertu ditu.

Beste administrazio batzuen kontra aurkeztutako kexak

	Kop.	%
Estatuko Administrazioa	17	70,83
Erakunde publikoak	4	16,67
Justizia	2	8,33
Hauteskunde Batzordea	1	4,17
Guztira	24	100

E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio-zerbitzuen kontra aurkeztutako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/85 Legeko 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizi Administrazioaren ibileraren aurkako kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Hori dela eta, kexa multzo hori bereiztu egin behar da, Euskadiko herri administrazioen aurka jasotako erreklamazioak zenbatzeko orduan, banandutako boterearen ibileraren aurkako salaketak baitira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak honako honi bidaltzen dio kexa: Fiskaltzari, Euskal Herriko Justizi Auzitegiko Lehendakariari edo, bestela, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari. Horrela, halako eskabideak baliozkoak izango dira egiten diren kudeaketan berri erakunde honi emateko eta kudeaketok ikertzeko.

2001. urtean horrelako erreklamazio bat tramitatu da; aurreko ekitaldian, berriz, 13 izan ziren eremu horretako kexa-espeditenteak, Justizi Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio-zerbitzuen jarduna edota espetxeen arloko jarduketak ezbaian jartzen dituzten kexei buruzko espeditenteak, hain zuzen ere.

Justizi Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio-zerbitzuen aurkako kexak	1
---	---

4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

2001. urtean ere, kexa kopuru handiena (651 guztira) aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleak izan dira. Alabaina, kexen gehikuntza nabaria izan da Gipuzkoan (375 kexa) eta batez ere Araban (orain artean kexa gutxien izan duen lurraldea). Hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoko herritarrek 444 erreklamazio aurkeztu dituzte denetara, 2000. urtean baino 188 gehiago.

Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989	288	188	97
1990	828 (284) ¹	195	125
1991	293	244	158
1992	332	241	201
1993	376	250	182
1994	349	234	160
1995	528	281	328
1996	746	448	446
1997	915	663	371
1998	1.471 (764) ²	905 (471) ³	244
1999	649	372 (311) ⁴	237
2000	645	295	256
2001 ⁵	651	375	444

¹ Gai bakarrari buruzko 545 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai bakarrari buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai bakarrari buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai bakarrari buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Kexa hauek bi multzotan tramitatu dira baina erreklamatzailerak, guztira, 264 izan dira, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

- Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko

Kexen jatorriaren azterketa konparatzailea egiteko (lurralde historiko bakoitzaren araberrako azterketa), lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua lurralde horretako guztizko biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik (10.000 biztanle bakoitzeko) jaso diren kexei buruzko datuak jasota daude.

Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1989	4,3	3,3	3,0
1990	4,5	7,87 (2,7) ¹	2,9
1991	5,8	3,6	2,5
1992	7,4	3,5	2,8
1993	6,7	3,7	3,3
1994	5,9	3,5	3,0
1995	11,59	4,54	4,11
1996	15,92	6,55	6,66
1997	13,24	8,03	9,77
1998	8,37	12,95 (6,73) ²	13,30 (6,93) ³
1999	8,37	5,74	5,56 (4,64) ⁴
2000	8,97	5,77	4,42
2001 ⁵	15,56	5,7	5,53

¹ Gai bakarrari buruzko 545 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai bakarrari buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai bakarrari buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai bakarrari buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Kexa hauek bi multzotan tramitatu dira baina erreklamatzailerak, guztira, 264 izan dira, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 12. diagrama eranskinean)

- Kexen banaketa lurraldetariko bakoitzean

Hiritarren jokabidea ez da berdina hiru lurraldeetan, kexen egileak non bizi diren begiratzen badugu, hiriburuan edo lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban, esate baterako, erreklamazioen % 84,68 Vitoria-Gasteizko biztanleek egin dute; alderantziz, Bizkaian eta Gipuzkoan herrietako biztanleek aurkeztu dituzte kexa gehienak, % 62,37 eta % 68,53, hurrenez hurren.

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta

Araba	Kop.	%
Vitoria-Gasteiz	376	84,68
Beste udalerri batzuk	68	15,32
Guztira	444	100
Bizkaia	Kop.	%
Bilbo	245	37,63
Beste udalerri batzuk	406	62,37
Guztira	651	100
Gipuzkoa	Kop.	%
Donostia-San Sebastián	118	31,47
Beste udalerri batzuk	257	68,53
Guztira	375	100

- Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik iritsitako kexak

Aurreko urteetan bezala, 2001ean ere kexaren batzuk jaso dira Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik. Horietatik 40 beste autonomi erkidego batzuetatik etorri dira, eta 3 beste estatu batzuetatik.

Beste autonomi erkidego batzuetatik jasotako kexak ..	Kop.
Gaztela-Leongo A. E.	13
Nafarroako F. K.	8
Madrilgo A. E.	5
Kantabriako A. E.	3
Kataluniako A. E.	3
Andaluziako A. E.	2
Aragoiko A. E.	2
Galiziako A. E.	1
Balear Uharteetako A. E.	1
Errioxako A. E.	1
Asturiasko Printzerria	1
Guztira	40

Beste estatu batzuetatik jasotakoak	Kop.
Frantzia	1
Maroko	1
Venezuela	1
Guztira	3

5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

2001. urtean 1.077 espedienteren tramitazioa amaitu da. Espediente horietatik gehienetan, kexak urte horretan bertan aurkeztuak ziren, eta gainerakoetan (378) aurreko urteetan aurkeztutako erreklamazioak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin tramitatu izan zirenak.

Ararteko erakundeak eman dituen ebazpenek agerian jarri dutenez, 2001. urtean ikertu eta ebatzitako erreklamazioetatik 314tan (% 29,16tan) irregularitasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan.

	Guztira	Administrazioaren irregularitasuna	%	Irregularitasunik ez	%	Beste batzuk	%
2001. urtean amaitutako kexak	1.077	314	29,16	624	57,94	139	12,90

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

- 2001. urtean burututako espedienteak, hasierako urtearen arabera banaturik

Beheko taulan 2001. urtean burututako espedienteak ageri dira (1.077 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

Hasierako urtea	Kop.
1990	2
1992	11
1994	1
1995	1
1996	5
1997	19
1998	33
1999	67
2000	239
2001	699
2001ean bukatutako espedienteak, guztira	1.077

- 2001ean aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta tramitean daudenak

Euskadiko administrazio publikoen aurka aurkeztu eta 2001. urtean aztertzen hasi diren kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 431 ebazpen eman ditu, eta beste 366 espediente oraindik tramitatzen ari dira.

Kexa-espedienteen egoera, jarduketa eremuen arabera

	Tramitean	Amaítuta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Herri lanak eta zerbitzuak ..	63	56	18	27	11
Hirigintza eta Etxebizitza ...	36	77	16	58	3
Ogasuna	40	56	22	24	10
Funtzio Publikoa	19	72	21	46	5
Ingurumena	55	28	8	20	-
Herrizaingoa	51	21	9	9	3
Gizarte Ongizatea	44	27	6	20	1
Osasuna	22	41	12	26	3
Hezkuntza	15	34	6	24	4
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .	9	9	1	7	1
Kultura eta Elebitasuna	8	6	4	2	-
Justizia	3	1	-	-	1
Lana eta Gizarte Segurantzza	1	3	1	2	-
Guztira	366	431	124	265	42

- Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) kontrako kexen egoera

2001. urtean urte horretan 177 ebazpen eman dira urte horretan bertan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkezturiko kexei buruz, eta 2001ean aurkeztutako beste 95 kexa oraindik tramitatzen ari dira. Administrazioaren arauz kontrako jokabidea antzeman eta, beraz, hiritarrek azaldutako arrazioen baliozkotasuna onartu da 41 kasutan.

Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexen egoeraren azterketa, jarduketa eremuen arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Funtzio Publikoa	13	49	12	34	3
Osasuna	19	37	11	23	3
Hezkuntza	13	32	5	23	4
Hirigintza eta Etxebizitza ...	7	34	4	27	3
Herrizaingoa	16	7	2	3	2
Herri lanak eta zerbitzuak ..	10	4	2	2	-
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .	5	5	-	4	1
Gizarte Ongizatea	5	-	-	-	-
Kultura eta Elebitasuna	2	3	3	-	-
Justizia	3	1	-	-	1
Lana eta Gizarte Segurantza	1	2	1	1	-
Ogasuna	1	1	1	-	-
Ingurumena	-	2	-	2	-
Guztira	95	177	41	119	17

**Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexen egoera,
Jaurlaritzako sailen arabera**

	Tramitean	Amaítuta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Nekazaritza eta Arrantza ...	2	1	1	-	-
Kultura	2	5	4	1	-
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerkuntza	20	49	9	34	6
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1	14	5	9	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	4	-	3	1
Herrizaingoa	17	12	2	8	2
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	6	6	2	3	1
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	3	27	4	20	3
Osasuna	23	46	12	30	4
Garraioa eta Herri Lanak ..	10	6	1	5	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	8	7	1	6	-
Guztira	95	162	41	119	17

- Foru administrazioen kontrako kexen egoera

Foru aldundien aurkako 57 erreklamazio, ekitaldi berean aurkeztuak, erabat tramitatu dira. Ondorio gisa, 15 kasutan administrazioaren jokabideari okerra iritzi zaio. Beste 64 kasu oraindik tramitatzen ari dira.

	Tramitean	Amaítuta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Nekazaritza eta Arrantza ...	2	1	1	-	-
Kultura	2	5	4	1	-
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerkuntza	20	49	9	34	6
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1	14	5	9	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	4	-	3	1
Herrizaingoa	17	12	2	8	2
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	6	6	2	3	1
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	3	27	4	20	3
Osasuna	23	46	12	30	4
Garraioa eta Herri Lanak ..	10	6	1	5	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	8	7	1	6	-
Guztira	95	177	41	119	17

Foru aldundien kontrako kexen egoera, lurralde historikoen arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularatasuna	Irregularatasunik ez	Beste batzuk
Bizkaiko Foru Aldundia	36	28	9	17	2
Gipuzkoako Foru Aldundia	13	11	-	11	-
Arabako Foru Aldundia	15	18	6	7	5
Guztira	64	57	15	35	7

Foru aldundien kontrako kexen egoera, jarduketa arloen arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularatasuna	Irregularatasunik ez	Beste batzuk
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .	1	2	1	1	-
Gizarte Ongizatea	28	19	4	14	1
Kultura eta Elebitasuna	1	-	-	-	-
Hezkuntza	1	-	-	-	-
Funtzio Publikoa	1	4	-	3	1
Ogasuna	17	22	8	10	4
Ingurumena	2	3	-	3	-
Herri lanak eta zerbitzuak ..	11	6	2	3	1
Osasuna	1	-	-	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	1	1	-	1	-
Guztira	64	57	15	35	7

- Toki administrazioen kontrako kexen egoera

Toki administrazioen aurka 2001ean aurkeztu diren kexei buruz 191 ebazpen eman dira, eta horietariko 67tan administrazioak arauz kontra jardun duela iritzi zaio. Urtearen amaieran, 40 espediente oraindik tramitatzen ari dira.

Arabako udalen kontrako kexen egoera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Amurrio	-	1	-	1	-
Aramaio	2	3	2	-	1
Asparrena.....	-	1	1	-	-
Barrundia	1	-	-	-	-
Biasteri	-	1	1	-	-
Campezo/Kanpezu	-	1	-	-	1
Iruña Oka	2	1	-	1	-
Labastida	-	3	1	1	1
Lapuebla de Labarca	1	-	-	-	-
Laudio	1	2	2	-	-
Moreda de Araba	-	1	1	-	-
Erribera Beitia	-	1	-	1	-
Salvatierra/Agurain	1	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	32	24	9	15	-
Guztira	40	39	17	19	3

Arabako administrazio-batzordeen kontrako kexen egoera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularitasuna	Beste batzuk
Beotegi	1	-	-	-
Delika	1	-	-	-
Llanteno	1	-	-	-
Luxaondo	-	1	-	1
Markina	1	-	-	-
Langraitz	1	2	2	-
Untza	1	-	-	-
Guztira	6	3	2	1

Gipuzkoako udalen kontrako kexen egoera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Andoain	1	1	-	1	-
Ataun	-	1	-	1	-
Azpeitia	1	-	-	-	-
Beasain	1	-	-	-	-
Berastegi	-	1	-	-	1
Bergara	1	-	-	-	-
Deba	3	1	1	-	-
Donostia-San Sebastián	20	22	7	13	2
Elgoibar	3	-	-	-	-
Errenteria	3	3	1	2	-
Hernani	-	1	1	-	-
Hondarribia	1	2	1	1	-
Irun	3	2	1	1	-
Lasarte-Oria	2	4	-	3	1
Lezo	3	-	-	-	-
Mutriku	1	1	-	1	-
Oiartzun	-	3	2	1	-
Ordizia	-	1	-	1	-
Orio	-	1	-	1	-
Oñati	1	1	-	1	-
Pasaia	3	2	-	2	-
Tolosa	1	1	1	-	-
Urretxu	7	-	-	-	-
Usurbil	-	1	-	1	-
Zarautz	1	1	-	1	-
Zumaia	1	-	-	-	-
Villabona	1	-	-	-	-
Guztira	58	50	15	31	4

Bizkaiko udalen kontrako kexen egoera

	Tramitean	Amituta	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk
Abanto y Ciérvana-					
Abanto Zierbena	2	-	-	-	-
Amorebieta-Etxano	1	-	1	-	-
Arrankudiaga	1	1	1	-	-
Arrigorriaga	1	-	-	-	-
Bakio	1	-	-	-	-
Balmaseda	1	2	1	1	-
Barakaldo	6	14	1	12	1
Basauri	1	-	-	-	-
Bedia	3	1	-	-	1
Bermeo	-	2	1	1	-
Bilbo	36	28	11	15	2
Derio	1	-	-	-	-
Durango	1	1	1	-	-
Erandio	3	1	-	1	-
Ermua	2	1	-	1	-
Errigoiti	1	-	-	-	-
Etxebarria	1	-	-	-	-
Galdakao	4	2	-	2	-
Getxo	9	7	5	2	-
Gorliz	1	1	-	1	-
Gueñes	-	1	-	1	-
Iurreta	3	-	-	-	-
Leioa	-	3	-	3	-
Lekeitio	-	1	-	-	1
Lezama	1	-	-	-	-
Mallabia	1	-	-	-	-
Maruri-Jatabe	-	1	-	-	1
Meñaka	-	1	-	1	-
Mungia	2	1	1	-	-
Muskiz	-	1	-	1	-
Ondarroa	1	1	-	1	-
Orozko	1	1	-	1	-
Ortuella	1	1	1	-	-
Otxandio	-	2	2	-	-
Plentzia	1	-	-	-	-
Portugalete	5	6	3	1	2
Santurtzi	5	5	1	3	1
Sestao	2	2	-	2	-
Sondika	-	1	-	1	-
Sopelana	-	4	3	1	-
Sopuerta	1	-	-	-	-
Urduliz	-	1	-	1	-
Valle de Trápaga-Trapagaran	1	3	1	2	-
Zalla	-	1	-	1	-
Guztira	100	99	33	57	9

Udalen kontrako kexen egoera, jarduketa arloen arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularatasuna	Irregularatasunik ez	Beste batzuk
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa ..	3	2	-	2	-
Gizarte Ongizatea	11	8	2	6	-
Kultura eta Elebitasuna	5	3	1	2	-
Hezkuntza	1	2	1	1	-
Funtzio Publikoa	5	19	9	9	1
Ogasuna	22	30	12	13	5
Herrizaingoa	35	14	7	6	1
Ingurumena	53	23	8	15	-
Herri lanak eta zerbitzuak ..	39	43	14	19	10
Osasuna	2	4	1	3	-
Lana eta Gizarte Segurantzak ..	-	1	-	1	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	28	42	12	30	-
Guztira	204	191	67	107	17

Toki Administrazioiko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularatasuna	Irregularatasunik ez	Beste batzuk
Bilbao-Bizkaia ur Partzuergoa	1	3	1	1	1
Mebisa – Bilboko Metroa...	-	3	-	3	-
Servicios de Txingudi S.A.	1	-	-	-	-
Ur Zerbitzuak	1	-	-	-	-
Guztira	3	6	1	4	1

Toki Administrazioiko beste erakunde batzuen kontrako kexen egoera, jarduketa arloen arabera

	Tramitean	Amaituta	Administrazioaren Irregularatasuna	Irregularatasunik ez	Beste batzuk
Ogasuna	-	3	1	1	1
Herri lanak eta zerbitzuak ..	3	3	-	3	-
Guztira	3	6	1	4	1

6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

- Erreklamaziogileen ezaugarriak

2001. urtean aurkezturiko kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du emakumezkoen erreklamazioen gehikuntza handia, 2000n % 36,55 izatetik 2001ean % 41,31 izatera igaro baitira. Hala, bada, gizonzkoek jarritako kexak oraindik ere ugariagoak badira ere (guztirako kopuruaren % 43,82), ekitaldi honetan aldea oso txikia izan da.

Beste alde batetik, erreklamazioak aurkeztu dituzten taldeen kopurua, lehen bezala, handia izan da. Denetara 175 taldek jo dute erakunde honengana administrazioen baten jardunarekin ados ez daudela adierazteko.

Jasotako kexen banaketa, erreklamaziogileen ezaugarrien arabera

Erreklamaziogileen ezaugarriak	Kopurua	%
Gizonzkoak	663	43,82
Emakumezkoak	625	41,31
Taldeak	175	11,57
Izenik gabe	50	3,30
Guztira	1.513	100

(Ikus 13. diagrama eranskinean)

- Kexa-idazkia egiteko erabilitako hizkuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, gehienbat gaztelania erabili bada ere, euskara hutsean edo hizkuntza bietan egindako kexa-idazkien kopurua nabarmen hazi dela esan behar da: 2000n horrelakoak % 4,07 izan ziren, eta 2001ean, berriz, % 10,18 izan dira.

Erakundean erabiltzen den irizpidea, beste alde batetik, erreklamazioa pertsona bakoitzak aukeraturiko hizkuntzan tramitatzea da, beti ere gure autonomia erkidegoan hizkuntza normalizazioari dagokionez indarrean dauden legeak beteta.

Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera

Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelania	1.359	89,82
Euskara	130	8,59
Biak	24	1,59
Guztira	1.513	100

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

- Kexak aurkezteko era

Kexak aurkezteko moduari dagokionez, azken urteotako aldaketa finkatu egin da, arreta zuzeneko bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan jartzearen ondoriozko aldaketa. Aurreko urteetako txostenetan esanda dagoenez, erreklamazioak egiteko biderik ohikoenak dagoeneko ez dira gutunak, 1996. urtera arte bezala. Horrela, 2001. urtean erreklamaziogileen % 37,08k baino ez dute gutuna erabili euren kexa formulatzeko. Askoz ere gehiago izan dira euren kexa aurkezteko arreta zuzeneko bulegora bertara joan diren hiritarrak: erreklamaziogileen % 43,55k nahiago izan zuten euren kexa erakundeko bulegoetan bertan egitea. Faxez jasotako kexak % 8,26 izan dira, eta Internetez iritsitakoak, berriz, % 11,11 izan dira (168 guztira). Orri horretan, erakundeari, jarduketei, txostenei eta sartzeko moduari buruzko informazio ugari eskaintzeaz gain, kexa aurkezteko formatua nahi duten pertsona guztien eskura jartzen da; hori, eskatzen diren datuak eman ondoren, zuzen-zuzen bidal daiteke Interneteko leku horretatik (www.ararteko.net).

Kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera

Aurkezteko era	Kopurua	%
Bulegora joanda	659	43,55
Postaz	561	37,08
Internetetik	168	11,11
Faxez	125	8,26
Guztira	1.513	100

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

7. ARRETA ZUZENENKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)

1996an Donostiako eta Bilboko arreta zuzeneko bulegoak ireki ondoren (Gasteizen lehendik irekita zegoen), Ararteko erakundeak baditu, arauzko eran, jendeari jaramon egiteko bulegoak hiru lurralde historikoetako hiriburuetan. Gainera, 2001eko irailean Donostiako instalazio berriak ireki ziren, Prim kaleko bulegoa Askatasuna Etorbideko beste lokal batera aldatu baitzen. Instalazio berrietan Ararteko erakundeak hobeto lagundu ahal die administrazioekin arazoak dituzten herritarrei. Esan beharra dago, bestalde, bulegoek irisgarritasunari buruzko arau guztiak betetzen dituztela.

Arreta zuzenerako bulego horien ibileran harturiko esperientziak erakutsi duenez, bertan hartzen diren bisitaldiak ez ezik, telefonoaren bidezko kontsulta asko ere egiten da, eta horiei ere erakundeko langileek berehala egiten diete kasu. Hori dela eta, bisita horiekin batera, gure ustez komenigarria da telefonoaren bidezko kontsultak ere aintzat hartzea; izan ere, seguru dakigu horiek informazio iturri garrantzitsuak direla, pertsonen administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideei buruz. 2001. urtean, guztira, telefonoz egindako 3.003 kontsulta jaso dira.

Telefono bidezko kontsulten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan

Herria	Kontsulta Kop.	%
Bilbo	1.087	36,20
Donostia-San Sebastián	1.170	38,96
Vitoria-Gasteiz	746	24,84
Guztira	3.003	100

2001. urtean 2.203 bisita jaso dira. Bisita horietatik % 41,35 Bilboko bulegoan egin ziren, % 31,37 Donostiakoan, eta % 27,28 Gasteizkoan.

Arreta zuzeneko bulegoetara egindako bisiten kopurua

Herria	Bisita Kop.	%
Bilbo	911	41,35
Donostia-San Sebastián	691	31,37
Vitoria-Gasteiz	601	27,28
Guztira	2.203	100

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako pertsonen ezaugarriak

2001. urtean, Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan arreta zuzenerako dituen bulegoetara etorri diren gizonak emakumeak baino gehiago izan dira. Dena dela, azpimarratzekoa da emakume erreklamatzailen kopuruaren gehikuntza. Gizonezkoen bisiten nagusitasuna nabariagoa da Bilbon, baina Gasteizen eta Donostian ere gizonak emakumeak baino ugariagoak izan dira. Oro har, gizonen portzentajea % 48,39 da eta emakumeena % 41,26. Bikoteek eta taldeek egindako bisiten portzentajeak % 5,31 eta % 5,04 dira, hurrenez hurren.

Arreta zuzeneko bulegoetara egindako bisiten ezaugarriak

	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Guztira	%
Emakumezkoak	351	297	261	909	41,26
Gizonezkoak	485	311	270	1.066	48,39
Bikoteak	38	48	31	117	5,31
Taldeak	37	35	39	111	5,04
	911	691	601	2.203	100

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako herritarren adina

Datuak adin-taldeei erreparatuta aztertzen baditugu, ikusiko dugu nola, aurreko ekitaldian bezala, bisiten erdiak (bisita guztien % 50,25, zehatzago) 36 eta 55 urte bitarteko pertsonen egin dituzten.

Adierazgarria da 25 urtetik beherako pertsonen egindako bisiten portzentaje txikia, eta bai 66 urtetik gorako bisitarien kopuru handia ere.

Arreta zuzeneko bulegoetara egindako bisiten banaketa adin-taldeka

Adina	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Guztira	%
25 urte artekoak	26	14	20	60	2,72
26-35	135	135	119	389	17,66
36-45	252	157	157	566	25,69
46-55	227	167	147	541	24,56
56-65	105	117	71	293	13,30
66 edo gehiago	166	101	87	354	16,07
Guztira	911	691	601	2.203	100

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etorritakoan kexa aurkeztu dutenen kopurua

Arreta zuzeneko hiru bulegoetara egin diren bisitetatik 654tan kexa aurkeztu da, hau da, bisita guztien % 29,69tan.

Kexa aurkeztu deneko bisitak

	Kopurua	%
Bilbo	294	52,31
Donostia-San Sebastián	146	25,98
Vitoria-Gasteiz	122	21,71
Guztira	562	100

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaietara loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat tramitatu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekartzea behar zuten, edo aurretiazko kudeaketak egitea, administrazio organo eskudunetan; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak edo kexa egiteko funtsik gabekoak izan dira, edo bisita kexa espediente baten tramitazioari lotuta egon da, edo hiritarrak bere arazo zehatzean jarraitu beharreko tramiteei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

A) GASTEIZKO ARRETA ZUZENeko BULEGOA

2001. urtean 746 kontsultari egin zaie jaramon. Bestalde, 601 bisita jaso dira, hau da, hilean 50, batez beste; horietatik % 88,35 banakoen bisitak izan dira eta gainerakoak bikoteenak edo taldeenak. Gasteizko bulegoan 122 kexa aurkeztu dira.

Gasteizko bulegora egindako bisiten ezaugarriak

	Kopurua	%
Gizonezkoak	270	44,92
Emakumezkoak	261	43,43
Taldeak	39	6,49
Bikoteak	31	5,16
Guztira	601	100

- Gasteizko bulegora etorritako herritarren adina

Adinari dagokionez, erakundera banan-banan gutxien etorri den adin taldea gazteena izan da (25 urtetik beherakoak), baita 56-65 urte bitarteko pertsonen taldea ere; talde bi horien artean guztizkoaren % 15,14 dira. Bisiten % 70,38 26 eta 55 urte bitarteko pertsonak egin dituzte.

Gasteizko bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldeka

Adina	Kopurua	%
25 urte artekoak	20	3,33
26-35	119	19,80
36-45	157	26,12
46-55	147	24,46
56-65	71	11,81
66 edo gehiago	87	14,48
Guztira	601	100

- Bisitarien jatorri geografikoa

Bisitarien jatorri geografikoari dagokionez, % 84,53 Gasteizen bertan bizi dira, eta ia % 10, berriz, Arabako beste udalerrri batzuetan.

**Gasteizko bulegora egindako bisiten banaketa,
bisitarien jatorri geografikoaren arabera**

	Kopurua	%
Araba-hiriburua	508	84,53
Araba-beste udalerrri batzuk	60	9,98
Gipuzkoa	10	1,66
Bizkaia	16	2,66
Beste batzuk	7	1,17
Guztira	601	100

(Ikusi 20. diagrama eranskinean)

B) DONOSTIAKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

Donostiako arreta zuzeneko bulegoan denetara 1.170 kontsultari egin zaie jaramon, eta 691 bisita jaso dira. Gizonezko bisitarien eta emakumezko bisitarien kopuruak ia berdinak dira. Bisita horietatik 146tan kexa aurkeztu da.

Donostiako bulegora egindako bisiten ezaugarriak

	Kopurua	%
Gizonezkoak	311	45,01
Emakumezkoak	297	42,98
Bikoteak	48	6,95
Taldeak	35	5,06
Guztira	691	100

- Donostiako bulegora etorritako herritarren adina

Donostiako arreta zuzeneko bulegora 2001ean joan diren 25 urtetik beherako gazteak 14 baino ez dira. Ia bisiten erdiak (% 46,89) 36 eta 55 urte bitarteko pertsonak egin dituzte. Bisitarien % 14,61, bestalde, 66 urtetik gorakoak izan dira.

Donostiako bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldeka

Adina	Kopurua	%
25 urte artekoak	14	2,03
26-35	135	19,54
36-45	157	22,72
46-55	167	24,17
56-65	117	16,93
66 edo gehiago	101	14,61
Guztira	691	100

- Bisitarien jatorri geografikoa

Arreta zuzeneko Donostiako bulegora etorri diren pertsonetatik, ia bi herenak hiriburuan bizi dira. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kanpotik egin diren bisitak 4 baino ez dira.

Donostiako bulegora egindako bisiten banaketa, bisitarien jatorri geografikoaren arabera

	Kopurua	%
Gipuzkoa-hiriburua	444	64,25
Gipuzkoa-beste udalerrri batzuk	243	35,17
Bizkaia	2	0,29
Beste batzuk	2	0,29
Guztira	691	100

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

C) BILBOKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

Bilbon 1.087 kontsultari egin zaie arreta, denetara, 2001. urtean. Bisitak 911 izan dira, eta horietarik 294tan kexa aurkeztu da.

Urte honetan, 2000.ean bezala, gizonezkoen bisitak ugariagoak izan dira, bisiten kopuruaren % 53,24, hain zuzen ere.

Bilboko bulegora egindako bisiten ezaugarriak

	Kopurua	%
Gizonezkoak	485	53,24
Emakumezkoak	351	38,53
Bikoteak	38	4,17
Taldeak	37	4,06
Guztira	911	100

- Bilboko bulegora etorri diren herritarren adina

Gasteizen eta Donostian gertatzen den antzera, Bilboko bulegora etorri diren pertsonen adina, gehienbat, 36-55 urte bitartekoa da. Hala ere, 66 urtetik gorako bisitarien portzentaje handia azpimarratu behar da, guztirako kopuruaren % 18,22 jotzen du eta.

Bilboko bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldeka

Adina	Kopurua	%
25 urte artekoak	26	2,86
26-35	135	14,82
36-45	252	27,66
46-55	227	24,92
56-65	105	11,52
66 edo gehiago	166	18,22
Guztira	911	100

- Bisitarien jatorri geografikoa

Bisitarien erdiak baino gehixeago hiriburutik bertatik etorri dira (% 52,14), eta lurraldeko beste udalerrri batzuetatik etorritakoak, berriz, % 45,88 dira. Hiriburutik kanpo bizi diren pertsonen bisiten kopurua asko hazi da: 2000. urtean % 38,50 izan ziren, eta 2001. urtean % 45,88 izan dira.

Bilboko bulegora egindako bisiten banaketa, jatorri geografikoaren arabera

	Kopurua	%
Bizkaia-hiriburua	475	52,14
Bizkaia-beste udalerrri batzuk	418	45,88
Araba	9	0,99
Beste batzuk	9	0,99
Guztira	911	100

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Hiritarren kexei kasu egiteaz gain, erakunde honek (bere ekimenez) zenbait gai ikertu ditu: batzuetan Euskadiko herri administrazioen jarduketa irregularrak egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Horri guztia, beste alde batetik, ofizioz egindako jarduketek barruan sartu dugu; Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak, bestalde, Arartekoari eman zion eskumen hori 17.1. artikuluan; eskumenak, gainera, bere kabuz esku hartzeko aukera ematen dio, Administrazioaren irregulartasunen edo akatsen ondorioz kalteturiko hiritarren erreklamazioei itxaron barik.

2001. urtean 68 espediente hasi dira tramitatzen ofizioz, aurreko urtean baino 22 gehiago. Azpimarragarriak dira, kopuruaren aldetik, Gizarte Ongizate arloarekin zerikusia dutenak, zeren eremu horretan sasoikako langileei buruzko 31 jarduketa egin baitira ofizioz. Gainera, Justiziaren arloko jarduketa bat atal honetan zenbatu da. Arartekoari espetxeen inguruko arazo batean esku hartzeko eskatu zitzaiolako egin zen jarduketa hori.

Ofiziozko jarduketek banaketa, arloen arabera

	Ofizioz egindako espedienteak	%
Gizarte Ongizatea	49	72,06
Osasuna	7	10,30
Justizia	4	5,88
Hirigintza eta Etxebizitza	3	4,41
Ogasuna	2	2,94
Ingurumena	1	1,47
Herrizaingoa	1	1,47
Hezkuntza	1	1,47
Guztira	68	100

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

Ofizioz egindako ikerketek eragindako herri administrazioei dagokienez, jarduketa gehien eragin dutenak toki administrazioak izan dira, hain zuzen ere, jarduketa guztien % 65,15. Jarduketek % 19,70k eragina izan dute foru administrazioetan, eta % 15,15ek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean.

Ofiziozko jarduketek banaketa, eraginpeko administrazioen arabera

	Kopurua	%
Toki Administrazioa	43	65,15
Foru Administrazioa	13	19,70
Eusko Jaurjaritza	10	15,15
Guztira	66	100

(Ikus 22. diagrama eranskinean)

9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

1996an Ararteko erakundeak hiritarregana hurbiltzeko bidea hasi zuen, horien iritzia jakiteko, baita erakundean konfiantza izan eta erreklamazioren bat aurkeztu dutenek Arartekoaren esku-hartzeari buruz egiten duten balorazioa jakiteko ere. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak jakin nahi izan zituen (hiritarraren ikuspegitik), horiek konpontzen saiatzeko.

Horretarako, 1996ko utarrilaren 1etik, kexa-espeditente baten tramitazioa amaitzen denean erreklamaziogileari galdera-sorta bidaltzen zaio; bertan, nahi izanez gero eta izenik ipini barik, galdera batzuei erantzuteko aukera ematen zaio. Hori eginez, erakundera jotzen duten pertsonen ezaugarriak ezagutu nahi izan dira, jaso duten zerbitzuari buruz egiten duten balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai erreklamaziogileek bete dituzten galdera-sorten kopuruak eta bai gure zerbitzuez azaldu duten iritziak ere berretsi egiten dute hasitako esperientziaren emaitza ona. 2001. urtean, galdera-sorta bidali zaien pertsonen % 37k eman digu erantzuna; horrek ondorio fidagarriak eta aintzat hartzekoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan kontuan izan behar dugu ezen, urte honetan tramitazioa amaitu zaien kexa guztietatik, % 29,16tan bakarrik iritzi zaiola araz kontrakoa dena-delako administrazioaren jokabideari.

Urte honetan heldu zaizkigun erantzunek agerian jartzen dute erakundearen esku-hartzeak gero eta oniritzi zabalagoa jasotzen duela, eta, beraz, gure zerbitzua baliagarria dela herritarrentzat. Hala, bada, jaso ditugun inkestetatik % 83,91tan balorazio positiboa edo oso positiboa azaltzen da, oro har, Arartekoaren esku-hartzeari buruz.

Inkestako emaitzak labur biltzeko, tramitazioa bukatuta daukan kexaren bat jarri duten hiritar gehienek (% 81,61ek) iritzi hau azaldu dute: *“Artekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da”*, eta gainera *“erabat edo nahiko ados daude Arartekoak euren kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin”* (% 54,59). Esku-hartzearen balorazio orokorra egiteari dagokionez (hau da, erakutsitako ardura, eskuragarritasuna, egindako kudeaketak...), erreklamaziogileen % 83,91k balorazio *“oso positiboa edo nahiko positiboa”* egin dute, eta diotenez, *“kasu guztietan”* (% 70,69k, eta 2000n % 61,42k) *edo kasu batzuetan* (% 17,82k), *Administrazioarekin arazoren bat duten pertsonen Arartekoarengana jotzea gomendatuko liekete”*.

Inkestari *“kexaren jatorrizko arazoa konpondu barik dago oraindik, edo nahiko txarto konpondu da”* erantzun diotenen ere (galdeketa erantzun dutenen % 57,47k) *“balorazio positiboa edo oso positiboa egiten dute Arartekoaren esku-hartzeari buruz”* eta *“kasu guztietan edo kasu batzuetan Arartekoarengana jotzeko aholkua emango lukete”*.

Inkestetatik ateratzen diren datuak albo batera utzita (ondoren zehatz azalduko dira), erreklamatzailleek euren iritziak eta iradokizunak helarazi ahal dizkigute galdera-sortaren ataletariko bat betez. Iradokizunetan, asko dira Arartekoak aginte handiagoa izan behar duela adierazten duten herritarrak, Arartekoaren ebazpenak derrigor bete beharrekoak izan daitezen, eta zenbaitek uste du Arartekoak ofizios eskatu behar liokeela erantzukizuna Administrazioari. Beste batzuek diote Ararteko erakundearen zabalkundea

eta lana publizitate kanpainen bidez indartu behar liratekeela. Herritar batek adierazi du Arartekoaren bitartekaritza lana ez dela behar bezain erabakigarria, hain zuzen ere, erabakimen faltagatik, erakundeak ahaleginak egiten dituela baina esku-oinak lotuta dituela. Beste batek uste du Arartekoak sakonago ikertu behar lukeela administrazioek bidaltzen dioten informazioa. Kritiken artean, azpimarratzekoa da herritar batzuek Arartekoari informazio-igorle hutsa izatea leporatzen diotela, eta beste batzuek luzeegiztat jotzen dutela erreklamazioa aurkeztu zutenetik erantzuna jaso arte igaro zen denbora.

- **Inkestaren emaitzak** (ikus 23 eta 28 bitarteko diagramak eranskinen)

1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?

1. Oso ona	39,66
2. Ona	41,95
3. Txarra	7,47
4. Oso txarra	6,32
5. Erantzunik ez	4,60

2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?

1. Oso luzea	20,69
2. Luzea	27,01
3. Laburra	36,21
4. Oso laburra	9,20
5. Erantzunik ez	6,90

3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?

1. Erabat ados	31,03
2. Nahiko ados	23,56
3. Ez nago ados	16,67
4. Erabateko desadostasuna	18,97
5. Erantzunik ez	9,77

4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:

1. Oso ondo konpondu da	19,54
2. Nahiko ondo konpondu da	16,67
3. Ez da konpondu	50,00
4. Nahiko txarto konpondu da	7,47
5. Erantzunik ez	6,32

5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)

1. Oso ona	48,28
2. Nahiko ona	35,63
3. Nahiko txarra	7,47

- | | |
|------------------------|------|
| 4. Oso txarra | 5,17 |
| 5. Erantzunik ez | 3,45 |

6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?

- | | |
|-------------------------|-------|
| 1. Bai, beti | 70,69 |
| 2. Bai, batzuetan | 17,82 |
| 3. Inoiz ere ez | 10,34 |
| 4. Erantzunik ez | 1,15 |

Inkestatuen jokabidea, bakoitzaren kexa eragin zuen arazoa konponduta egotearen edo konpondu barik egotearen arabera, desberdina izateko arriskua egon zitekeen. Baina ez da horrelakorik gertatu: galdeketa batzuetan erreklamaziogileek euren arazoa ez dela konpondu diote, eta horrek agerian jartzen du euren erantzuna ez dela emaitzaren araberakoa izan.

- Ararteko erakundeak izandako eskuhartzeari buruz erreklamaziogileek (euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko txarto konpondu da” diotene) egiten duten balorazioa. (ikus 29 eta 30. diagramak eranskinen)

5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

- | | |
|------------------------|----|
| 1. Oso ona | 26 |
| 2. Nahiko ona | 47 |
| 3. Nahiko txarra | 13 |
| 4. Oso txarra | 9 |
| 5. Erantzunik ez | 5 |

6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?

- | | |
|-------------------------|----|
| 1. Bai, beti | 58 |
| 2. Bai, batzuetan | 22 |
| 3. Inoiz ere ez | 18 |
| 4. Erantzunik ez | 2 |

IV. ATALA

ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA

1. SARRERA ETA OHARRAK

Antolamendu juridikoak Arartekoari eratziki dizkion erantzukizunak betetzeko Herri Administrazioen laguntza behar da, eta horien jarduketak euren jarduketa eremuaren menpe jartzen dira. Administrazio lankidetzak hau egituratzeko, beharrezkoa da kexa-espeditenteak sortu dituzten gai guztiei buruz eskatu den informazio guztia Arartekoaren esku jartzea; izan ere, erakunde horrek epai-elementu guztiak eduki behar ditu, erabaki egokia hartu ahal izateko. Administrazioaren betebeharra, beste alde batetik, ez da eskaturiko informazio guztia bidaltzea soilik: ezarritako epeetan bidali beharko du informazio hori, ikerketa eta kontrol lanak eraginkorrak izateko, horiexek baitira Arartekoaren jardueraren oinarritzko elementuak.

Beharrian horiei erantzunez, Euskadiko legegileak, otsailaren 27ko 3/1985 Legea onestean (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen legea), ezarri du lankidetzak hori nahitaez bete beharreko eginkizuna dela, eta epe zehatzean gauzatu behar dela. Horrela, arautegi horretako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, *“9.1 artikuluan aipaturiko erakundeetako organoek, lehentasunez eta lehenbailehen, eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten eta argitasun guztiak aurkeztu beharko dituzte”*. Manu horren bitartez, lankidetzarako betebeharrak hori ezartzen zaie kontrolatzeko moduko jarduketak dituzten erakundeei eta organismoei; egin-eginean ere, horien lankidetzarik gabe, lehen ere esan dugunez, zaila izango da bidezko erabakia hartzea aurkezturiko kexei edo ofizioz hasitako buruz. Beste alde batetik, lankidetzak betebeharra betetzeko dagoen denborari dagokionez arau horretako 26. artikulua ezartzen duenez, *“Txostenak eskatzeko, espeditenteak bidaltzeko edo beste edozein datu bidaltzeko eskatzen denean, Arartekoak epe bat ezarriko du eskaturikoa ebaluatzeko”*.

Lankidetzak jasotzea funtsezkoa da Arartekoa bezala berme emailea den erakunde batek bere helburuak lortzeko eta, horregaitik, Arartekoari buruzko Legean bertan, 24.2. artikuluan *“Edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo herri administrazio baten zerbitzuan jarduten duen pertsonak Ararteko erakundearen ikerketa lanaren aurkako jazargoa edo funtzio horri eragozpenak jartzen baditu txosten berezia egin daiteke eta, hori ez ezik, urteko txostenaren bidezko atalean horren aipamena egingo da.”* esaten da. Urteko txostenaren kapitulu hau sartzearen xedea Legebiltzarrak, eta, ondorioz, iritzi publikoak orokorrean Ararteko erakundearekin azkar eta era egokian lankidetzan jardun ez duten kargu publiko edo funtzionarioen ezagutza izatea da, hau da, erakunde honen esku hartzea eragotziz edo atzeratuz eta epearen barruan herritarrek planteatu dituzten kexak ezin ebatzea eragin dutenak.

Antolamendu juridikoak izugarri garrantzi handia eman dio herri administrazioek lankidetzan aritzeko betebeharrak horri eta, izan ere, betebeharrak horrek zigor tratamendua du. Beraz, lankidetzak betebeharrak hori betetzen ez denean hori Estatuko erakundeen eta

botere banaketaren aurkako delitutzat jasota dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta, halakorik egin ez gero, lana edo kargu publikoa etenda gelditzeko zigorra ezarri ahal izango da, sei hilabetetik bi urtera bitarteko epean, honako hau oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei dagokienez: “...*Herriaren Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo Autonomia Erkidegoetan horien baliokideak diren organoen ikerketa, horiek eskaturiko txostenak ukatu edo beranduegi bidaliz gero, edo espedienteak lortzeko oztopoak jarriz gero, edo ikerketa hori burutzeko behar den administrazio dokumentazioa lortzeko trabak jarriz gero*”. Horrenbestez, mota diseinatu denean, kontuan hartzen dira aipaturiko bi aldagai horiek; aldagaiok, bestalde, lankidetzaren betebeharrak horren izaera gauzatu behar dituzte: lankidetzaren zorroztasun beteko dela eta epe jakinean bideratu behar dela.

Arartekoaren iritziz, lankidetzaren betebeharrak horren eremuaren barruan (ezaugarri batzuekin eta informazio eskabideetan eskatzen denarekiko ikuspegi desberdinarekin), herri administrazioek euren bidaltzen zaizkien legezketasun gomendioei eman behar dieten beharrezko erantzuna sartzen da.

Kapitulu honetan, administrazioek eta erakundeek antolamendu juridikoak ezarritako lankidetzaren betebeharrari dagokionez izan duten jokabidea islatzen da, bideratzen zaizkien informazio eskabideei dagokienez, baita legezketasuna betetzeko gomendioei lotuta ikusi duten erantzun ezari dagokionez ere. Ondoren agertu diren datuetan, beraz, Arartekoak garaturiko kudeaketak agertzen dira; inplikaturiko erakundeak eta organismoak gogoratu eta eskatu egiten die lankidetzaren betebeharrak betetzeko, erakunde bermatzaile honi dagokionez, erantzunik ez dagoenean edo erantzun hori atzeratuta ematen denean, bai egin zaien informazio eskabideari eta bai ikusi diren isilbideei dagokienez (legezketasuna betetzeko gomendioen aldetik).

Kexei dagozkien espediente batzuetan informazioa eskatzeko eskabideei jaramon egiterakoan batzuk gehiegi luzatzen dituzte. Horregatik, uste izan dugu egokia dela, aurreko ekitaldietan ere islatu dugunaren ildotik, txosten honetan 2001 urtean zehar tramitatu diren kexen espedienteen inguruan egin diren eskaeren zerrenda zehatza egin dugu, nahiz eta horien tramiteak aurreko urteetan hasita egon. Bada, horren helburua Ararteko erakundearen araubideari lotuta dauden erakundeen lankidetzari buruzko adierazkari ikuspegi orokorragoa eskaintzea da. Jarraian islatu diren datuen irakurketaren ondorioa izaera objektiboa duen balorazioa da, hots, aurrez islatu diren esparruetan lankidetzaren aritzeko betebeharrak horren beteetze-maila.

Aurreko txostenetan aditza eman dugunez, nabarmendu behar da jardura hau egitean Arartekoak ez duela modu automatikoan jarduten. Organismo eta Erakunde publikoak ezagutzaren ondorioz, erantzukizuna eta zuzentasuna gogoratzeko jardura horren oinarriko printzipio bihurtzen dira; izan ere, lan hori egiteko orduan, kontuan hartu behar izaten dira administrazio zereginetan aldagai batzuk (jario burokratikoak kanpoko aldagaiak). Horri dagokionez, gure ustez komenigarria da gorabehera jakin batzuk haztatzea; egin-eginean ere, gorabeherok eragina izan dezakete ikertu beharreko gaiak aztertze moduan, erantzunen bizkortasun handiagoa edo txikiagoa sortuz. Horri dagokionez, ondokoak aipa daitezke: informazio eskabidea eragin duen arazoaren izaera materiala, formulazio jasotzen duen egitura burokratiko nahiz administratiboaren konplexutasuna, aztertu behar diren prozedurek izan dezaketen pilaketa, kontrolpean jartzen diren erakundeak eratzean egon daitezkeen denbora-aldagaiak (hauteskunde garaien ondorioz), erantzuleen eta funtzionarioen errotazioa edota ordezkaria, etab.

Hori gorabehera, zoritxarrez, behin baino gehiagotan arduratik eza argia adierazten edo frogatzen da eta horrek esan nahi du erakunde honek egiten duen kontrol-funtzioarekiko begirunerik gabeko jarrera egon dagoela eta, ondorioz, erreklamazioak egiten dituzten herritarren eskubideekikoa. Egia da kasu jakin batzuetan lankidetzan jarduteko betebeharra ez betetzearena nabarmenegia dela, eta azpimarratu egin behar dela. Kasu horietan Ararteko erakundeak, eskaera bat baino gehiago egin ondoren erantzunik jaso ez duenean, administrazio ukitu horietako arduradunengana jo behar izan du berriz eta horiei gogorarazi Zigor Kodeko 502.2 artikuluan tipifikaturiko delitua egiteko arriskua dutela, baita gai hori zigor ordena jurisdikzionaletan sartzeko aukera dagoela ere. 2001. ekitaldian zehar, ondoko agintari hauei egin zaie jakinarazpen hori:

Bi aldiz:

- Odón Elorza González, Donostiako alkateari (988/1999 eta 388/2001 espedienteak)
- José Miguel Makazaga Loidi, Orioko alkateari (94/2000 eta 105/2000 espedienteak)
- Iñaki Zarraoa, Getxoko alkateari (883/2000 eta 226/2001 espedienteak)

Behin:

- Joseba Iñaki Gurtubai Artetxe, Herri Lan eta Garraioak zerbitzuko buruari (180/2001 espedientea)
- Juan José Mezcarta, Abanto-Zierbenako alkateari (415/2000 espedientea)
- Gabino Martínez de Arenaza, Alonsotegiko alkateari (358/1999 espedientea)
- Juan Carlos Goienetxea, Bermeoko alkateari (913/1999 espedientea)
- Fernando Landa, Galdakaoko alkateari (2434/1998 espedientea)
- Loren Arkotxa, Ondarroako alkateari (781/2001 espedientea)
- Javier Cruz, Santurtziko alkateari (720/1999 espedientea)

Eskaera horietan guztietan eskatu den informazio hori jaso da, azkenean, baina hori gorabehera salatu egin behar da laguntzarik ez emateko jarrera horrek eragozpen nabarmena eragiten diola Ararteko erakundearen esku hartze egokiari.

Bada, lankidetzaren arloko mentsa horiek ez ezik, 2001 urtean Ararteko erakundearen jarduketara eragozteko beste jarrera bat gertatu da Pasaiako alkatea den Juan Carlos Alduntzin jaunak protagonizatu dituen espedienteen tramitazioan eta, erakunde honek bete dituen hamabi urteetan lehenengoz gertaera horiek Fiskaltzari aurkeztu zaizkio, Zigor Kodearen 502.2. artikuluan tipifikatuta dagoen delitua dela uste dugulako.

Pasaiako alkatearen jarrera hori aspaldiko kontua da eta Fiskaltzari eman zaion zerrendan azaltzen ez diren tramitatutako beste espediente batzuetan ere gertatu da eta, horietan ere, argi frogatu genuen adierazi den alkate horren jarrera.

Adibide moduan, beharrezkotzat jotzen dugu aipatzea 1495/1997/22 espedientea, erreklamazioa aurkeztu zuen herritarren ustez oker igorri zitzaion HHZ kobratzeari dagokiona. Espediente honetan bi aldiz eskatu zitzaien informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Pasaiako Udalari, gaiari buruzko informazioa 1998ko martxoan jasotzeko.

1998ko apirilaren 1ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eskabideari erantzun zion eta akatsa aintzatetsi ondoren, esan zuen akatsa ongituta zuela eta katastroko balorazioa

ere aldarazita zegoela. Ordea, Pasaiako Udalak ez du informazio hori eman eta eskabide hori berriz egin zaio 1998 eta 1999 urteetan zehar, lau eskaera eginez (1998-10-28, 1998-12-02, 1999-01-14, 1999-03-08).

Jarrera hori kontuan hartuta eta erantzuna jasotzeko telefonoz ere makina bat ahalegin egin arren, 1999-11-11n bosgarren eskaera igorri zitzaion -gaur egun ohartarazpena deritzona- Juan Carlos Alduntzin jaunari eta horretan jakinarazi zitzaion bere jardura hori delitua ere izan daitekeela. (Onartu behar da espediente hasi zenean alkatea beste pertsona bat zela, ez Juan Carlos Alduntzin jauna).

2001eko abenduaren 31n Pasaiako alkateak informazio eskabide horri jaramonik egin gabe jarraitzen du. Dena dela, eskerrak Gipuzkoako Foru Aldundiak azkar erantzun zigula eta, horri esker, zilegi izan da, nahiz eta erantzun hori osoa ez izan eta ahoz eman, kexa aurkeztu zuen herritarrari erantzutea.

Garrantzitsua da azpimarratzea espediente horretan ez zela azaltzen ustez Pasaiako alkatearen lankidetzarik eza eragiten duen lelo edo esaldia -Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua eta ETARIK EZ esaldia-, 1998 urtean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 50. urteurrena ospatzeko logotipoa azaltzen zelako, eta "Giza eskubide guztiak guztiontzat" esaldia.

Hala espediente honetan nola beste batzuetan azaltzen den lankidetzarik eza larritu egin zen Juan Carlos Alduntzin jaunak alkatetzaren dekretuaren bidez hartu zuen erabakiarekin, hain zuzen ere Ararteko erakundeak izan behar duen "*neutraltasun politikoa*" desagertarazten duen leloa mantentzen den bitartean idazki guztiak atzera itzultzeko erabakiarekin.

Lau espedienteen tramitazioan bere horretan mantendu duen jarrera larri horregatik, arestian ere esan den bezala, gertaera horiek Fiskaltzari aurkeztea ekarri du. Jarraian hitzez hitz transkribitzen da idazki hori, adierazi den egoera azaltzeko erabat argigarria delako:

"Jakin dakizu Ararteko erakundearen estatutuetan ezarri dena betez, herritarren eskubideak bermatzeko eta legea eta Zuzenbideari erabat lotuta jardun behar duten herri administrazioen jarduketak kontrolatzeko sortuta dago' (E.K.ren 103.1. artikulua).

Herritarrek Ararteko erakundearen herri administrazioen jarduketan aurka aurkezten dituzten kexen tramitazioaren prozeduran argi eta garbi bereizten diren bi fase azertu behar ditugu: lehen fasea instrumentala da, kexa ikertzeari dagokion fasea, eta horren ardatza herri administrazioek Herritarren Defendatzaileekin lankidetzan aritzeko duten betebeharra da; eta, bigarren fasea, prozedurari amaiera ematekoa, pertsuasioan oinarritzen dena, Herritarren Defendatzaileen ebazpenak ez direlako lotarazleak.

Itxuraz kontrajarria den egitura hori ez da, errealitatean, kontrajarria kontuan hartzen bada legegileak ez badu administrazioaren lankidetzara hori beharrezkotzat jotzen eta ez baditu defendatzaileen eskuetan benetan lankidetzara hori lortzeko tresna eragingarriak jartzen, ikerketaren fase horren blokeoak administrazioaren jarduketak kontrolatzea den bere funtsezko funtzioa betetzerakoan erakunde horien eragingarritasun-eza ekarriko luketelako.

Herritarren Defendatzaileen erakundeak arautzeko legeetan kontuan hartu da benetan dela ezinbestekoa Administrazioaren lankidetzara, eta garrantzia

hori frogatzeko nahiko da esatea benetan derrigorrezkoa dela Defendatzaileen kontrol funtzioa betetzeko.

Herritarren Defendatzaileak erregulatzeko arauetan beharrezko bitarteko guztiak jarri dira nahitaezko lankidetzara hori erreala izan dadin erakunde hauei maila gradualean behartzeko diren tresnak zuzkitzeko. Ararteko erakundearen jarduketa eragozten duen jarreraren bat gertatzen denean, esaterako eskatu den informazioa igortzeari uko egiten zaionean, Zigor Kodeak berak, bere 502.2. artikuluan, esaten du jarrera hori delitua dela.

Zorionez erakunde honek dituen urte hauetan euskal herri administrazioek informazio hori igorri lagundu dute eta kasu jakin batzuetan gehiegizko atzerakuntzak gertatu arren, sarritan bidezko zailak izan direnak, azken finean beti jaso dugu eskatutako informazio hori.

Lehenengoz, Udal bateko alkateak, kasu honetan Juan Carlos Alduntzin jaunak, Pasaiako alkateak, behin eta berriz uko egin dio erakunde honekin lankidetzan aritzeari eta jarrera hori, argi eta garbi, Udal horren jarduketan aurka azken hilabete hauetan tramitatzen ari diren espedientei dagokienez Ararteko erakundearen ikerketa lana eragozteko da; jarrera hori delitua izan daiteke Zigor Kodearen 502.2 artikuluan ezarri denaren arabera.

Izan ere, Arartekoaren idazki guztietan Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3 artikulua eta 'ETA NO-ETARIK EZ»' esaldia azaltzen dira, euskaraz eta gaztelaniaz, eta, horregatik Juan Carlos Alduntzin jaunak, lelo horiek dituzten erakunde horren idazkiak jaso ondoren, 2001eko maiatzaren 15ean Alkatezaren Ebazpena eman zuen eta, horren bidez, ebatzi zuen 'Ararteko erakundeari berriz itzultzea igortzen dituzten idazki guztiak, harik eta neutraltasun hori berreskuratu arte» (idazki honi ebazpen honen kopia itsasten zaio, 1. zenbakia duen dokumentu gisa).

Bada, ebazpen horretatik abiatuta, Juan Carlos Alduntzin Juanena jaunak, Pasaiako alkateak, Ararteko erakundeak egunera arte igorri dizkion idazki guztiak itzuli ditu.

Jarrera hori, argi eta garbi, oztopatzailea da eta ekidin egiten du udal horren jarduketei dagokienez erakunde honetan tramitatzen diren espedienteetan esku hartzea, eta hori horrela da nahiz eta hamaika eskaera egin; ondorioz, erakunde honengana jo duten herritarrak indefentsio egoeran daude.

Nabarmena den lankidetzarik eza ikusteko nahiko da Ararteko erakundea eta Pasaiako udalaren artean elkartrukatu diren idazkien zerrenda aztertzea, zerrendan azaltzen diren idazkien kopien dokumentuak eranskinean ematen dira.

a) 827/2000/17 espedientea

- 2000-09-05ean Pasaiako alkateari, Juan Carlos Alduntzin jaunari, informazioa eskatzen zion idazkia igorri zitzaion. Informazio hori garaje jarduera batek eragiten zituen zarategatik ezarri zen salaketa egiten zuen kexari buruzkoa zen eta erantzuteko hamabost eguneko epea eman zitzaion (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 2. zenbakia duen dokumentuan).
- 2000-09-29an, Pasaiako alkatearen, Juan Carlos Alduntzin jaunaren informazioa jaso zen. Idazki horrekin eskatutako espedientea igorri zuen

- (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 3. zenbakia duen dokumentuan).
- 2000-12-26an kexaren xedea den gaiari buruzko informazio berria eskatu zitzaion Pasaiako alkateari, Juan Carlos Alduntzin jaunari, eta idazki horretan 'ETARIK EZ -ETA NO' eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua azaltzen zen euskaraz eta gaztelaniaz; 20 eguneko epea eman zen informazio hori jasotzeko (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 4. zenbakia duen dokumentuan.)
 - 2001-02-05ean eskaera igorri zen, eskatutako informazioa berriz eskatuz (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 5. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-03-23an bigarren eskaera igorri zitzaion Juan Carlos Alduntzin jaunari eta, horretan, berriz ere, informazio hori eskatu zitzaion (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 6. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-05-10ean Juan Carlos Alduntzin jaunari ohartarazpena igorri zitzaion bere lankidetzarik ezagatik eta gogorarazi zitzaion Zigor Kodearen 502.2. artikuluan ezarrita dagoen delitua izan daitekeela (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 7. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-05-17an, Pasaiako alkateak, Juan Carlos Alduntzin jaunak, jakinarazi zuen antzeman duela erakunde honen idazkietan 'ETARIK EZ -ETA NO' leloa azaltzen dela eta, bere iritziz, ez direla eskubideen beste hauste batzuk azaltzen eta horregatik uste duela erakunde honek ez duela eskubide guztiak defendatzeko den erakunde batek berez bete behar duen neutraltasuna betetzen eta, horregatik, erakunde honen idazki guztiak itzuliko dituela harik eta neutraltasuna berreskuratu arte. Halaber, laburrago, eskatu zein informazioa ematen zuen (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 8. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-06-11n Juan Carlos Alduntzin jaunari bi idazki igorri zitzaizkion, euskaraz eta gaztelaniaz eta horietan azaldu egin zitzaion zergatik sartzen zen Ararteko erakundearen idazki guztietan 'ETARIK EZ -ETA NO' leloaren eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua, eta bere idazkian planteatu zituen gaiari buruz erakunde honek egin dituen esku hartze batzuk aipatzen zitzaizkion (tratu txarrak, presoan egoera...) (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 9. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-06-18an Pasaiako Udalak azalpenak emateko idazki hori itzuli zuen «Alkatetzaren 2001-05-15eko Agindua betez» (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 10. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-06-26an Juan Carlos Alduntzin alkate jaunari jakinarazi zitzaion Ararteko erakundearen jarduketa amaitutzat jotzen zela 827/2000/17 espedienteari zegokionez (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 11. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-07-03an idazki hori itzuli zen, eta, horrekin batera Alkatetzaren 2001eko maiatzaren 15eko Ebazpena jaso genuen (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 12. zenbakia duen dokumentuan).
 - 2001-07-18an idazkia igorri zitzaion Pasaiako alkateari, Juan Carlos Alduntzin jaunari, gogoraraziz idazkiak erantzun gabe igortzea,

erakundeen arteko gizabiderik gabeko jarrera ez ezik, Zigor Kodearen 502.2. artikuluan ezarri den delitua izan daitekeela (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 13. zenbakia duen dokumentuan).

- Aurrekoaren egun berean, hau da, 2001-07-18an, egoeraren berri eman zitzaien Pasaiako Udaleko udal talde guztiei (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 14. zenbakia duen dokumentuan)
- 2001-08-10ean, Ararteko erakundearen neutraltasun faltaren argudioak errepikatuz, Pasaiako alkatea den Juan Carlos Alduntzin jaunak arestian aipatu den idazkia itzuli zuen (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 15. zenbakia duen dokumentuan).

b) 636/2001/17 espedientea

- 2001-05-16an, informazioa eskatu zitzaion Juan Carlos Alduntzin alkate jaunari, kasu honetan tailer baten jardueraren ondorio diren irregulartateak salatzen dituen kexa bati dagokionez, eta erantzuteko 20 eguneko epea eman zitzaion (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 16. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-05-21ean idazki hori itzuli zen eta, horrekin batera, Alkatetzaren 2001-05-15eko Ebazpena (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 17. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-10-08an eskaera igorri zen, berriz ere eskatutako informazio hori eskatuz (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 18. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-10-25ean Pasaiako Udalaren idazkia jaso zen, igorritako idazkia itzuliz eta Alkatetzaren 2001-05-15eko Agindua aipatuz (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 19. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-11-23an ohartarazpena igorri zitzaion Pasaiako alkateari, Juan Carlos Alduntzin jaunari, eta horretan, besteak beste, gogorarazi egiten zitzaion bere jarrera hori Zigor Kodearen 502.2. artikuluan ezarrita dagoen delitua izan daitekeela, eta 15 eguneko epe berria eman zitzaion informazio hori igortzeko (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 20. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-11-18an Pasaiako Udalaren idazkia jaso zen, igorritako ofizio hori itzuliz, Alkatetzaren 2001-05-15eko Aginduan oinarrituta (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 19. zenbakia duen dokumentuan).

c) 1119/2001/22 espedientea

- 2001-11-19an, Pasaiako alkateari Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren (TMIZ) kobrantzari lotuta zegoen informazioa eskatu zitzaion eta erantzuteko 15 eguneko epea eman zitzaion (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 22. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-11-19an Pasaiako Udalaren idazkia jaso zen, igorritako ofizio hori itzuliz «Alkatetzaren 2001-05-15eko Aginduan ezarri dena betez» (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 23. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-11-23an ohartarazteko bi idazki igorri zitzaizkion Juan Carlos Alduntzin jaunari, Pasaiako alkateari, euskaraz eta gaztelaniaz eta horietan gogorarazi egiten zitzaion jarrera hori Zigor Kodearen 502.2.

artikuluan ezarri den delitua izan daitekeela, eta berriz ere 15 eguneko epea eman zitzaion eskatutako informazio hori emateko (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 24. zenbakia duen dokumentuan).

- 2001-11-28an Pasaiaiko Udalak itzuli egin zuen arestian adierazi den idazki hori «Alkatetzaren 2001-05-15eko Agindua betez» (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 25. zenbakia duen dokumentuan).

d) 1079/2001/19 espediente

- 2001-11-30an Juan Carlos Alduntzin jaunari, Pasaiaiko alkateari, informazioa eskatzen zion eskabidea igorri zitzaion. Informazio hori Gipuzkoako udalerrri horretako kale batetik ibilgailuak arinegi zirkulatzeari buruzkoa zen, eta hori igortzeko hilabeteko epea eman zitzaion (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 26. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-12-10ean Pasaiaiko Udalaren idazkia jaso zen, informazioa eskatuz igorritako ofizio hori itzuliz «Alkatetzaren 2001-05-15eko Aginduan ezarri dena betez» (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 27. zenbakia duen dokumentuan).
- 2001-12-21ean ohartarazteko idazkia igorri zen eta, horren bidez, Juan Carlos Alduntzin jaunari gogorarazi egiten zitzaion jarrera hori Zigor Kodearen 502.2. artikuluan ezarri den delitua izan daitekeela, eta berriz ere 15 eguneko epea eman zitzaion eskatutako informazio hori emateko (testu honi idazki horren kopia itsatsi zaio, 28. zenbakia duen dokumentuan).

Bada, idazkien zerrenda honetan argi eta garbi adierazten da Pasaiaiko alkatea den Juan Carlos Alduntzin Juanena jaunaren asmoa erakunde honek igortzen dizkion idazkiak ez erantzutea dela, eta horrela egingo duela 'ETARIK EZ - ETA NO' leloa eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua kendu arte. Laguntzarik ez eskaintzeko berariazko eta ageriko borondatea frogatzen duen jarrera horregatik erakunde honek ezin du kontrol funtziorik bete eta, ondorioz, ezin ditu asetu idazki baten bidez Pasaiaiko Udalaren administrazioko jardueri buruzko keak aurkeztuz erakundearengana jo duten herritarren asmoak, hau da, ezin ditu administrazioko jarduketa horiek kontrolatu.

Horregatik guztiagatik, adierazi diren gertaera horien berri ematen dizut, Zigor Kodearen 502.2. artikuluan ezarri den delitua izan daitezkeelako."

Txosten hau itxi den unean Donostiako 1. Instrukzio Auzitegian adierazi diren egintza horiei dagokien zigor prozedura ari da tramitatzen.

Aurreko guztia komentatu ondoren, gauza batzuk argitu nahi ditugu, ondoren sartu ditugun zerrenda horietan jasotako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- * Lehenengo zerrendan organismo eta erakunde guztietan tramitaturiko espediente guztiak jaso dira; horien jarduketak kontrolatu egin dira eta, espedienteen tramitaziorako, gutxienez informazio eskabide bat planteatu behar izan da (batzuetan, eskaera edo bat edo batzuk). Bertan, gomendioak betetzeari buruz egindako informazio eskabideak eta eskaerak sartu dira. Zutabe bakoitzean ageri den informazioa hauxe da:

- (1) 2001. urtean informazio eskabideren bat egin duen espediente kopurua.
 - (2) 2001. urtean informazio eskabidea izan duen espediente kopurua, baldin eta horien tramitazioan errekerimenduren bat egin bada.
 - (3) 2001. urtean informazio eskaeraren bat egin duen espediente kopuru osoari buruzko errekerimendua duten espedienteen portzentaia.
 - (4) 2001. urtean errekerimenduak izan dituen espediente kopurua; horiek, berriz, aurreko urteetan egindako informazio eskabideei egokitu beharko zaizkie.
 - (5) Eskaerak izan dituzten espedienteek dagokienez 2001. urtean egindako errekerimenduaren kopuruaren banakatzea.
 - (6) 2001. urtean egindako guztizko errekerimendu kopurua.
- * Bigarren tokian sartu den zerrendan, zehatz islaturik daude (banan-banan) erakundeei errekerimenduak bidaltzea eskatu duten espediente guztien tramitazioa; horien egintzak bestalde gure kontrolpean jarri dira, bai ohiko informazioei eta bai gomendioak betetzeari dagokionez.
- * Izartxo hau duten espedienteak, beste alde batetik, aurreko urteetan hasitako kexei buruzkoak dira; horiek, berriz, errekerimenduak behar izan dituzte 2001. urtean, urte horretan euren tramitazioekin jarraitu baita.

Azken zutabean dagoen datua emateko (informazioa emanda edo emateko egoteari dagokionez), 2002ko urtarrilaren 30a jarri da epemugatzat.

Azkenik komenigarria da jakitera ematera behin baino gehiagotan erreferentziarekin ageri diren espedienteak informazio bat baino gehiago behar izan dituztenak direla. Planteaturiko eskabide bakoitzerako behar izan diren errekerimenduak jasoarazteko erreferentziatu dira horrela.

2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2001. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA

A) Eusko Jaurlaritza

Saila	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimenduak guztira
					1	2	3	+4	
Nekazaritza eta Arrantza	3	-	-	-	-	-	-	-	-
Kultura	4	2	50	-	2	-	-	-	2
Bizkaiko Futbol Federakundea	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	57	7	12,28	3	6	2	1	-	13
Donostiako musikako goi kontserbatorioa	1	-	-	-	-	-	-	-	-
UPV/EHU	17	4	23,53	-	4	-	-	-	4
Ogasuna eta Herri Administrazioa	9	4	44,44	-	3	1	-	-	5
HAEE	3	-	-	-	-	-	-	-	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	1	33,33	1	-	2	-	-	4
Naturgas	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Spri-Sociedad de promoción y recuperación	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Herrizaingo Saila	28	5	17,85	6	5	4	2	-	19
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	10	1	10	-	1	-	-	-	1
Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena	13	2	15,38	2	3	-	-	1	7
VISESA	1	1	100	-	1	-	-	-	-
Osasuna	13	-	-	-	-	-	-	-	-
SVS/Osakidetza	33	7	21,21	2	7	2	-	-	11
Garraioak eta Herri Lanak	9	2	22,22	-	-	1	-	1	5
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos	5	-	-	-	-	-	-	-	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	9	1	11,11	-	1	-	-	-	1

B) Foru Aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimendua guztira
					1	2	3	+4	
Arabako Foru Aldundia									
Foru eta Toki Administrazioa eta Industri Garapena.....	2	1	50	-	1	-	-	-	1
Nekazaritza eta Ingurumena	4	-	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte Ongizatea.....	7	1	14,29	-	1	-	-	-	1
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak.....	10	-	-	-	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Hirigintza.....	4	-	-	-	-	-	-	-	-
Lehendakaritza	2	-	-	-	-	-	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimendua guztira
					1	2	3	+4	
Bizkaiko Foru Aldundia									
Gizartekintza.....	13	3	23,07	1	3	-	-	1	7
Nekazaritza.....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Kultura.....	2	1	50	-	1	-	-	-	1
Ogasuna eta Finantzak	16	-	-	-	-	-	-	-	-
Ingurumena eta Lurralde Ekintza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Garraioak	6	1	16,66	5	3	2	-	1	11
Lehendakaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Hirigintza	1	1	100	-	1	-	-	-	1

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimendua guztira
					1	2	3	+4	
Gipuzkoako Foru Aldundia									
Nekazaritza eta Ingurumena	2	-	-	1	1	-	-	-	1
Ogasuna eta Finantzak	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte Zerbitzuak	4	1	25	-	1	-	-	-	1
Garraioak eta Errepeideak	2	1	50	1	1	-	1	-	4

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimenduak guztira
					1	2	3	+4	
Aramaio	5	-	-	-	-	-	-	-	-
Asparrena.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Barrundia.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca.....	3	2	66,67	-	2	-	-	-	2
Kripan.....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Labastida.....	2	2	100	-	2	-	-	-	2
Laguardia.....	2	2	100	3	-	3	2	-	12
Lapuebla de Labarca.....	1	1	100	1	2	-	-	-	2
Llodio.....	3	2	66,67	-	2	-	-	-	2
Moreda de Álava	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ribera Baja / Erribera Beitia.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Salvatierra / Agurain	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz.....	56	22	39,28	5	24	2	1	-	31

Arabako administrazio batzak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2001eko eskaera espedienteak	Errekerimendua duten espedienteak	%	Aurreko urteako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatua				2001eko errekerimenduak guztira
					1	2	3	+4	
Astegieta	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Beotegi	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Berantevilla.....	-	-	-	1	-	-	1	-	3
Delika	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Echavarri-Urtupiña	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Llanteno.....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Markina.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Nanclares de la Oca.....	4	2	50	-	1	1	-	-	3
Villodas	-	-	-	1	1	-	-	-	1

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko udalak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)					(6)
	2001eko eskaera espedientek	Errekerimendua duten espedientek	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatua					2001eko errekerimenduak guztira
					1	2	3	4	+5	
Abanto y Ciérvana / Abanto-Zierbena	4	2	50	4	-	4	2	-	-	14
Alonsotegi.....	1	1	100	3	2	1	1	-	-	7
Arrankudiaga.....	3	2	66,67	-	1	-	1	-	-	4
Arrigorriaga.....	1	1	100	1	2	-	-	-	-	2
Bakio.....	1	1	100	-	1	-	-	-	-	1
Balmaseda	3	1	33,33	-	-	1	-	-	-	2
Barakaldo.....	17	3	17,65	4	5	2	-	-	-	9
Basauri	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bedia.....	3	1	33,33	-	1	-	-	-	-	1
Bermeo	3	2	66,67	2	4	-	-	-	-	4
Bilbao.....	55	13	23,63	8	13	5	1	2	-	34
Carranza.....	1	1	100	2	-	1	-	2	-	10
Derio.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Durango	4	2	50	1	3	-	-	-	-	3
Erandio.....	8	1	12,50	-	1	-	-	-	-	1
Ermua.....	4	2	50	-	-	-	1	1	-	7
Errigoiti.....	1	1	100	-	-	1	-	-	-	2
Etxebarria	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Galdakao	6	3	50	1	2	1	-	1	-	8
Gernika-Lumo.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Getxo	11	4	36,36	3	3	2	-	-	2	15
Gorliz	2	1	50	-	1	-	-	-	-	1
Güeñes.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Iurreta.....	2	1	50	-	1	-	-	-	-	1
Leioa.....	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lezama.....	1	1	100	1	2	-	-	-	-	2
Mallabia	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Maruri-Jatabe	1	1	100	-	1	-	-	-	-	1
Mungia	3	2	66,67	-	1	-	1	-	-	4
Ondarroa	1	1	100	1	1	-	-	1	-	5
Ortuella.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Otxandio.....	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plentzia.....	2	1	50	-	-	-	1	-	-	3
Portugalete.....	10	5	50	2	3	2	2	-	-	13
Santurtzi	11	2	18,18	3	3	2	-	-	-	7
Sestao	6	4	66,67	-	3	1	-	-	-	5
Sopelana.....	2	1	50	-	1	-	-	-	-	1
Urduliz.....	1	1	100	-	1	-	-	-	-	1
Valle de Trápaga / Trapagaran.....	3	1	33,33	-	-	-	1	-	-	3
Zalla	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zierbena	-	-	-	1	1	-	-	-	-	1

3. ARARTEKOAK 2001. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA

A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (keza eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Kultura	187/2001/01	Administrazio isiltasuna	1	2001/05/10	J
	742/2001/23	Baserriaren babesa	1	2001/09/10	J
Hezkuntza, Unibertsitateak eta lkerketa	322/2000/20*	Axular lizeoa. Kudeaketako organoak	1	2001/01/25	J
	861/2000/25*	Eskola garraioa: ezartzeko irizpideak	1	2001/01/18	J
	1036/2000/18*	B ereduaren ikasteko laguntza	2	2001/02/07	J
	988/2000/20	Irakasle ordezkapenak. Akatsa adjudikazioan	1	2001/03/06	J
	1149/2000/20	BH Zorroza ikastetxea. Eskolaz kanpoko jarduerak	1	2001/03/22	J
	1149/2000/20	BH Zorroza ikastetxea. Eskolaz kanpoko jarduerak	1	2001/07/26	J
	25/2001/25	Agriren banaketa ikastetxe publikoetan eta eskubide eta askatasunei zor zaien begirunea	1	2001/04/23	J
	25/2001/25	Agriren banaketa ikastetxe publikoetan eta eskubide eta askatasunei zor zaien begirunea	2	2001/12/10	JG
	170/2001/20	Elorza ik. pub. Eskolako instalazioen erabilera	1	2001/03/28	J
	578/2001/20	Unibertsitate bekak . Ukatu.	1	2001/07/19	J
	738/2001/09	Zereginak ikasteko gelak	1	2001/08/09	JG
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	790/2000/17	Iristeko arazoak UPV/EHUko Irakasle Eskolan	1	2001/03/23	J
	155/2001/20	Irakasle titularraren plazaren hornidura	1	2001/03/22	J
Ogasuna eta Herri Administrazioa	451/201/18	Unibertsitate zentrorra sartzan utzi ez	1	2001/05/24	J
	573/2001/24	Ikasle elkarteak. Beharrezko komunikazioak	1	2001/07/02	J
Industria, Merkataritza eta Turismoa	921/2000/20	Gurasoen baimenak. Adingabekoen adopzioa edo harrera	1	2001/03/06	J
	1055/2000/20	Biokimikako lizentziatura. EAEko Administrazioan sartu	1	2001/04/25	J
	650/2001/20	EAEko Administrazio Orokorren HEE. Aurreko esperientziaren balorazioa	1	2001/06/28	J
	667/2001/20	EAEko Administrazio Orokorren HEE: beste deialdi bat buruko odol-jarioagatik	1	2001/07/04	J
	667/2001/20	EAEko Administrazio Orokorren HEE: beste deialdi bat buruko odol-jarioagatik	1	2001/09/24	J
Herrizaingo Saila	154/2000/25*	Administrazioak ezer egin ez merkataritzako establezimendu batean ustez izandako bazterkeriaren salaketa baten aurrean	2	2001/05/21	J
	833/2001/25	IIT eta ibilgailuen agirietan agertarazi beharreko datuak	2	2001/10/30	J
Herrizaingo Saila	1043/1999/19*	Trafiko zehapena	2	2001/10/23	JG
	101/2000/19*	Ertzaintzak dituen datu pertsonalak	3	2001/10/23	J
	824/2000/19*	Trafiko zehapena	2	2001/10/24	JG
	838/2000/19*	Ertzaintzaren tratu txarrak	2	2001/05/21	J
	929/2000/19*	Ertzaintzak gaizki jokatu herritar batekin	1	2001/02/27	J
	955/2000/19*	Bahitura. PFEZ itzuli trafiko isunagatik	3	2001/10/23	JG
	862/2000/19	Sabotaje baten biktimaren kalte-ordainaren balorazioa	1	2001/10/23	JG
	929/2000/19	Ertzaintzak gaizki jokatu herritar batekin	1	2001/10/23	JG
	513/2001/20	Aldi baterako langileak hautatzeko irizpideak. Polizia zerbitzu osagarriak.	1	2001/05/31	J
	590/2001/19	Ertzaintzak etxebizitzari kalte egin miaketan	1	2001/10/23	JG
	961/2001/25	Ertzaintzak ardurarik gabe jardun ibilgailua lapurtzeagatik salaketaren aurrean	2	2001/12/10	JG

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	668/2001/18	Tabakoari buruzko arauak bete	1	2001/09/28	J
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	655/2000/23*	Sustapen publikoko etxebizitzak	4	2001/04/27	J
	1076/2000/23*	Sustapen publikoko etxebizitzak	1	2001/01/04	J
	179/2001/23	Administrazio isiltasuna	1	2001/03/16	J
	899/2001/23	Gizarte etxebizitzaren adjudikazioa	1	2001/09/07	J
VIESA	797/2001/23	Akatsak etxebizitzetan	1	2001/09/10	J
Osasuna SVS/ Osakidetza	724/2000/20*	Erizaintza adimen osasunean	1	2001/02/01	J
	1105/2000/20*	Osagarri berezia lansaio zatituagatik	1	2001/01/25	J
	580/2000/20	Osagarri berezia: biologoak	2	2001/04/25	J
	51/2001/20	Erizaintzako laguntzaileak aldi baterako kontratatu	1	2001/03/28	J
	428/2001/20	Erizaintzako laguntzaileak teknikari espezialistaren lana egiten	2	2001/05/31	J
	489/2001/18	Arazoak ikusmen graduazioarekin	1	2001/07/04	J
	503/2001/18	Larrialdi zerbitzuaren funtzionamendua	1	2001/06/04	J
	525/2001/20	Osatec SA. Aldi baterako beharrianak baliatu ahal izatea	1	2001/06/22	JG
	921/2001/20	Erizaintzako laguntzaileak teknikari espezialistaren lana egiten	1	2001/09/13	J
Garraioak eta Herri Lanak	56/2001/23	Ondare erantzukizuna	2	2001/04/06	J
	180/2001/23	Administrazio isiltasuna	5	2001/11/15	JG
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	1102/2001/17	Akatsak garajeen	1	2001/11/26	J

B) Foru aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Foru eta Herri Administrazioa eta Industri Garapena	740/2001/22	Administrazio isiltasuna	1	2001/10/25	J
Gizarte Ongizatea	38/2001/21	Atzeritarrak. Eragozpenak etxebizitza alokatzeko	1	2001/09/26	JG

- Bizkaiko Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizartekintza	1031/2000/18*	Buruko paralisia dutenentzako laguntza	1	2001/01/11	J
	1212/2000/20	GUFE. Barne sustapena	1	2001/03/13	J
	1212/2000/20	GUFE. Barne sustapena	3	2001/09/14	J
	716/2001/01	Adinekoentzako egoitzan sartu	1	2001/07/20	J
Kultura	738/2001/09	Zeregin ikasketako gelak	1	2001/08/09	J
	742/2001/23	Baserriaren babesa	1	2001/09/10	J
Herri Lanak eta Garraioa	517/1999/22*	Irisingarritasun arazoak			
		Astrabudua-La Ola linean	1	2001/02/08	J
	11/2000/22*	Adostasunik ez Bizkaibus lineen baterakuntzarekin	2	2001/05/10	J
	30/2000/19*	Trafiko zehapena	2	2001/05/21	J
	1119/2000/25*	Herri lanek norbanako baten jabetzakoa ukitu	5	2001/05/21	J
	1137/2000/23*	Lurren desjabetzapena	1	2001/01/30	J
Hirigintza	779/2001/22	Jaiegunetan garraio publikoa kentzea	1	2001/10/25	JG
	178/2001/23	Administrazio isiltasuna	1	2001/03/16	J

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Nekazaritza eta Ingurumena	678/1999/19*	Arartekoren bitartekaritza eskatu du	1	2001/02/28	J
Gizarte Zerbitzuak	436/2001/01	Udalaren ekarpena egoitza plazaren finantzaketan	1	2001/05/10	J
Garraioak eta Errepideak	1062/2000/23*	Sarbideetako obrak	1	2001/01/04	J
	649/2000/23	Hirigintzako arauak bete ez	3	2001/12/04	J

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimen- duaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Iruña Oka / Iruña de Oca	576/2001/17	Industriako lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/07/02	J
	686/2001/22	Herriko bideetako seinaleak	1	2001/08/16	J
Kripan	1146/2000/23	Erantzuna idazkiari	1	2001/04/27	J
Labastida	928/2001/23	Administrazio isiltasuna	1	2001/10/24	J
	929/2001/23	Administrazio isiltasuna	1	2001/10/24	J
Laguardia	472/1999/16*	Ibilgailua herriko bidetik kentzea	2	2001/05/21	J
	993/1999/19*	Tresnak herriko bidetik kentzea	2	2001/05/21	JG
	865/2000/17*	Industriako lurzoruan saikaturiko jarduerak	3	2001/03/23	J
	865/2000/17	Industriako lurzoruan saikaturiko jarduerak	2	2001/11/26	JG
	87/2001/22	Herriko argiak	3	2001/10/25	J
Lapuebla de Labarca	1059/2000/23*	Urodi zortasuna	1	2001/01/04	J
	806/2001/23	Herriko bidearen itxidura	1	2001/09/10	J
Llodio	939/2000/23	Kalte-erreklamazioa	1	2001/05/11	J
	487/2001/23	Garaje lurzatiak ematea	1	2001/05/11	J
Vitoria-Gasteiz	514/2000/17*	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/02/05	J
	646/2000/19*	Trafiko isunen ziozko zorrak banku kontutik kentzea	1	2001/02/28	J
	713/2000/15*	Hirigintzako diziplina	2	2001/03/15	J
	914/2000/22*	Ur-zenbakailuak	1	2001/01/23	J
	1002/2000/22*	Akatsa katastro datuetan	1	2001/01/24	JG
	741/2000/23	Kalte-erreklamazioa	1	2001/03/20	J
	38/2001/21	Atzerritarak. Eragozpenak etxebizitza alokatzeko	1	2001/09/26	JG
	47/2001/19	Trafiko zehapena	1	2001/05/21	J
	177/2001/20	Ensanche 21. Zabalgunea plaza abokatu ekonomialaria	3	2001/09/14	JG
	269/2001/22	Hirigintzako esku-hartzea	1	2001/04/23	J
	285/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	287/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	288/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	289/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	290/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	291/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	292/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	293/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	294/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	295/2001/17	Hiri lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/11/26	J
	370/2001/22	Etxebizitzaren adjudikazioaren ezeztapena	1	2001/09/19	J
	397/2001/23	Ondare erantzukizuna	2	2001/05/11	J
	603/2001/17	Sakelako telefonoen antenen instalazioa	1	2001/07/02	J
	645/2001/18	Seinaleak gaztelania hitsean	1	2001/07/30	J
	731/2001/22	Udal obren burutzapenean berandutzea	1	2001/11/06	J
	814/2001/23	Hirigintzako legezketasuna	1	2001/10/24	J
	850/2001/25	Ondare erantzukizuna	1	2001/11/05	JG

Administrazio batzak

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (keza eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimen- duaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Asteguieta	1143/2000/23	Lur komunalen banaketa	1	2001/09/10	J
Berantevilla	1101/200/23*	Zerbitzu publikoak	3	2001/03/16	JG
Llanten	724/2001/22	Kalte-errekamazioa	2	2001/10/25	JG
Nanclares de la Oca	167/2001/23	Kalte-errekamazioak	2	2001/04/06	J
	861/2001/22	Bidea zabaltzea	1	2001/10/25	J
Villodas	737/200/22*	Administrazio isiltasuna	1	2001/03/26	J

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (keza eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimen- duaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Abanto y Ciérvana / Abanto- Zierbena	533/1999/23*	Hirigintzako disziplina	2	2001/05/02	J
	415/2000/23*	Ondare erantzukizuna	2	2001/02/19	J
	743/2000/23*	Laguntza-eskaera bideetarako	3	2001/04/06	J
	1187/2000/17*	Industriako lurzoruan saikaturiko jarduerak	2	2001/02/20	J
	415/2000/23	Ondare erantzukizuna	2	2001/12/04	JG
	501/2001/23	Landa-bideen mantenimendua	2	2001/07/02	J
	501/2001/23	Landa-bideen mantenimendua	1	2001/11/29	JG
Alonsotegi	358/1999/17*	Legezatu gabeko jarduera	1	2001/02/06	J
	267/2000/20*	Lanpostua. Lanpostuaren izaera	2	2001/03/06	J
	897/2000/18*	Jubilatuaren etxearren garbiketa: betebeharrak	3	2001/03/23	J
Arrankudiaga	739/2001/22	Udalaren erabakia betearazi ez	1	2001/09/18	J
	808/2001/23	Lurzorua disziplina	3	2001/12/03	JG
Arrigorriaga	1077/1999/22*	Jarduera gogaikarriak	1	2001/03/05	JG
	1126/2001/19	Udalak erroldatu ez	1	2001/02/18	JG
Bakio	863/2001/23	Lurzorua saikapena	1	2001/09/11	J
Balmaseda	89/2001/23	Bideen mantenimendua	2	2001/04/09	J
Barakaldo	696/2000/17*	Udal espediente eskuratu ez	1	2001/03/20	J
	867/2000/17*	Jarduera gogaikarriak	1	2001/02/05	J
	1032/2000/23*	Hirigintzako desajabazapena	2	2001/01/30	J
	1224/200/18*	Tabakoari buruzko arauak bete	1	2001/05/14	J
	42/2001/22	Ibilgailua ibilgetu	1	2001/05/17	J
	118/2001/17	Egoitza lurzoruan saikaturiko jarduerak	1	2001/06/14	J
	703/2001/20	Aukera berdintasunerako eta garapenerako lankidetzarako udal plana. Behar de titulazioa.	2	2001/12/13	JG
Bedia	109/2001/23	Etxebizitzaren irisgarritasuna	1	2001/04/06	J
Bermeo	81/1999/22*	Hiriko jarduera saikatuak	1	2001/03/05	J
	913/1999/15*	Auzotar batek herriko bidean ibiltzea eragotzi	1	2001/02/19	J
	81/1999/22	Hiriko jarduera saikatuak	1	2001/09/18	JG
	913/1999/15	Auzotar batek herriko bidean ibiltzea eragotzi	1	2001/04/27	J
Bilbao	1145/1999/22*	Jarduera saikatuak	1	2001/03/02	J
	1192/1999/22*	Etxebizitzaren katastro balorazioarekin bat etorri ez	1	2001/03/02	J
	522/2000/22*	Herri gunearen garbitasuna	4	2001/10/25	J
	582/2000/19*	Ibilgailua kentzea	1	2001/02/28	J
	1064/2000/22*	Garajearen sarbidea	1	2001/03/02	J
	1072/2000/23*	Ondare erantzukizuna	3	2001/07/02	J
	1084/2000/22*	Ur-eriona herri bidean	1	2001/03/05	J

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bilbao	1086/2000/17*	Hiriko jarduera sailkatuak	1	2001/02/05	J
	398/1999/23	Eskaeraren erantzuna	1	2001/09/10	J
	815/2000/23	Erantzukizun zibila	1	2001/10/23	J
	1082/2000/23	Kalte-erreklamazioak	1	2001/10/23	J
	5/2001/19	Oinezkoentzako bihurtzeko arauak bete	2	2001/08/16	J
	10/2001/22	ICIO eta obra tasa	1	2001/06/05	J
	427/2001/22	Lonjaren balorazioarekin bat etorri ez	2	2001/10/25	J
	468/2001/25	Ondare erantzukizuna	1	2001/06/13	J
	631/2001/23	Hirigintzako antolamendua	2	2001/09/10	JG
	672/2001/23	Ibia ematea	4	2001/12/04	JG
	719/2001/22	Sarbidearen atondura	1	2001/10/25	J
	799/2001/25	Ondare erantzukizuna	2	2001/10/30	J
	807/2001/23	Zerbitzu publikoa kobratu	1	2001/09/07	J
837/2001/22	Poliziaren jarduketa	2	2001/11/08	J	
Carranza	69/1998/17*	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	4	2001/11/26	JG
	930/2000/23*	Ondare-ondasunen erabilera	4	2001/04/06	J
	930/2000/23	Ondare-ondasunen erabilera	2	2001/11/26	JG
Durango	958/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	1	2001/01/08	J
	773/2000/17	Administrazio isiltasuna	1	2001/02/20	JG
	766/2001/17	Karkabak biltegi gisara erabili	1	2001/09/18	J
Erandio	497/2001/17	Erreka bideratu	1	2001/11/26	JG
Ermua	434/2000/23	Udal antolamendua	3	2001/12/04	JG
	604/2001/23	Hirigintzako lizentzia	4	2001/12/04	JG
Errigoiti	97/2001/23	Hirigintzako lizentzia	2	2001/05/11	J
Galdakao	2434/1998/17*	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	2	2001/02/06	J
	365/2001/23	Igogailua instalatzeko lizentzia	1	2001/04/06	J
	365/2001/23	Igogailua instalatzeko lizentzia	3	2001/12/04	JG
	368/2001/23	Hirigintzako antolamendua	1	2001/04/27	J
	1094/2001/23	Administrazio isiltasuna	1	2001/12/04	JG
Getxo	759/2000/19*	Erradikalak jazarri eta osoko bilkuretan pankartak jarri	2	2001/05/21	J
	883/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	5	2001/12/03	JG
	1188/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	1	2001/02/12	J
	1188/2000/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	1	2001/10/11	J
	83/2001/23	Hirigintzako antolamendua	2	2001/05/28	J
	226/2001/20	Hezkuntzako B eta D ereduetan matrikulatzea sustatu	4	2001/10/02	J
	937/2001/23	Hondartzen erabilerari buruzko arauak	1	2001/09/06	J
Gorliz	1034/2001/23	Hirigintzako disziplina	1	2001/10/24	J
Iurreta	1044/2001/17	Txakurren eragozpenak	1	2001/11/26	JG
	1041/2000/23*	Galtzadaren mantenimendua	1	2001/01/04	J
Lezama	923/2001/22	Administrazio isiltasuna	1	2001/10/25	JG
	956/2001/23	Zerbitzu publikoa kobratu	1	2001/09/13	J
Maruri - Jatabe	956/2001/23	Zerbitzu publikoa kobratu	1	2001/09/13	J
Mungia	498/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	3	2001/11/26	JG
	804/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	1	2001/09/18	J
Ondarroa	780/2000/23*	Administrazioaren kontratazioa	1	2001/02/27	J
	781/2001/20	Udaltzaingoarean aldatzeko beharizanak bete	4	2001/11/26	J
Plentzia	548/2000/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	3	2001/06/14	J
Portugalete	1200/1999/22*	Jarduera gogaikarriak	1	2001/03/05	J
	1129/2000/23*	Akatsak udal aparkalekuan	1	2001/01/30	J
	337/1999/19	Udaltzainek jasandako eraso	1	2001/05/21	JG
	128/2001/22	Uholdea behe solairuan, herri bidetik sartutako uraren eraginez	1	2001/03/28	J
	128/2001/22	Uholdea behe solairuan, herri bidetik sartutako uraren eraginez	1	2001/10/25	J
	198/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	3	2001/09/19	J
	600/2001/23	Hirigintzako disziplina	3	2001/10/24	JG
	674/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak	2	2001/11/26	JG

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (keza eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduen data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Santurtzi	720/1999/19*	Motozikletan azkartasun handian ibili	2	2001/05/17	JG
	1117/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	2	2001/02/20	J
	1210/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/02/19	J
	1210/2000/17	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/10/11	J
	438/2001/23	Hirigintzako disziplina	1	2001/05/11	J
Sestao	1060/2000/20	Disziplina-erantzukizuna	1	2001/04/25	J
	29/2001/18	Tabakoari buruzko arauak bete	2	2001/07/30	J
	467/2001/25	Ondare erantzukizuna	1	2001/09/18	J
	825/2001/25	Segurtasunik ez udal bulegoetan sindikatu-erako kideen eraginez	1	2001/09/18	J
Sopelana	363/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/05/09	J
Urduliz	170/2001/20	Elorza ikastetxe publikoa. Eskola instalazioen erabilera	1	2001/03/28	J
Valle de Trápaga / Trapagaran	339/2001/23	Hirigintzako antolamendua	3	2001/10/24	J
Zierbena	230/2000/22*	Minusbaliadunentzako aparkalekuak	1	2001/01/15	J

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (keza eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduen data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Azpeitia	1129/2001/23	Hirigintzako disziplina	1	2001/12/28	JG
Berastegi	920/2001/22	Zuhaitzen inausketa	1	2001/11/06	J
Donostia-San Sebastián	988/1999/23*	Hirigintzako disziplina	1	2001/03/12	J
	449/2000/19*	TAO txartela	2	2001/05/21	JG
	507/2000/19*	TAO txartela	2	2001/05/21	JG
	729/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/01/08	J
	745/2000/23*	Ondare erantzukizuna	1	2001/01/04	J
	746/2000/23*	Ondare erantzukizuna	2	2001/01/30	J
	975/2000/23*	Hirigintzako disziplina	2	2001/01/30	J
	1087/2000/23*	Administrazio isiltasuna	3	2001/04/06	J
	94/2001/20	Haur hezitzaileentzako lan burtsa	3	2001/05/31	J
	388/2001/23	Udal zerbitzuak	4	2001/11/15	J
	419/2001/23	Udal zerbitzuak	3	2001/09/10	J
	827/2001/23	Hirigintzako antolamendua	3	2001/12/04	J
	1045/2001/23	Hirigintzako disziplina	1	2001/11/05	J
Elgoibar	396/1999/22*	Jarduera sailkatuak	3	2001/10/25	JG
Errenteria	385/2000/19*	Gaigabetuaren ibilgailua kendu	1	2001/01/02	J
	1006/2000/23*	Hirigintzako lizentzia	2	2001/01/30	J
	136/2001/17	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/03/22	J
	708/2001/22	Edukiontzien kokalekua	1	2001/09/18	J
	758/2001/24	Ibilgailua kendu	1	2001/09/27	J
Hernani	554/2000/23	Hirigintzako disziplina	1	2001/03/29	J
Hondarribia	1078/2000/23	Hiriko bideen mantenimendua	2	2001/01/30	J
Ibarra	744/2000/23	Trafikoaren antolamendua	1	2001/01/04	J
Irun	156/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/02/20	J
	796/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkatu-erako jarduerak	1	2001/02/05	J
Lasarte-Oria	1028/2000/17*	Hiriko jarduera sailkatuak	1	2001/02/05	J
	1028/2000/17	Hiriko jarduera sailkatuak	1	2001/05/10	J
Mutriku	1203/2000/23	Hirigintzako disziplina	2	2001/03/14	J
	643/2001/25	Ondare erantzukizuna	1	2001/12/10	JG

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Oiartzun	292/2000/22	Jarduera sailkatuak	1	2001/05/10	J
	477/2001/22	IVTM	1	2001/05/23	JG
	477/2001/22	IVTM	1	2001/09/18	J
Ordizia	298/2001/17	Txakurren eragozpenak	1	2001/05/09	J
Orio	31/2000/22*	Pasabidearen likidazioa	3	2001/09/18	J
	94/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	1	2001/02/06	JG
	105/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	1	2001/02/06	JG
	94/2000/17	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	3	2001/09/19	JG
Pasaia	827/2000/17*	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	3	2001/05/10	JG
	636/2001/17	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	2	2001/11/23	JG
	1079/2001/19	Gehiegiko abiadura hiriko bidean	1	2001/12/21	J
	1119/2001/22	IVTM	1	2001/11/23	JG
Tolosa	465/2001/22	Mozketak uraren horniduran	3	2001/10/25	J
Zarautz	6/2001/17	Industriako lurzoruan sailkaturiko jarduerak	1	2001/05/09	J
Zumaia	670/2001/17	Hiri lurzoruan sailkaturiko jarduerak	2	2001/11/26	J

D) Beste erakunde publiko batzuk

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Deskripzioa (kexa eragin duen gaia)	Errekerimendu kopurua urtean zehar	Azken errekerimenduaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	431/1999/21*	Abokatuen ogibidesariak aurkaratu	1	2001/03/05	JG
	781/1999/21*	Abokatuen Elkargoak erantzun ez	1	2001/03/05	JG
	810/1999/21*	Abokatuen Elkargoak erantzun ez	1	2001/03/05	JG
	1069/1999/21*	Salaketari erantzun ez	1	2001/03/05	JG
Abokatuen Euskal Kontseilua	366/2001/21	Errekurtso batean aurkeztutako agiriak aztertzen utzi ez	2	2001/09/26	JG

V. ATALA

**ARARTEKOAREN GOMENDIOAK
ZENBATERAINO BETE DIREN**

Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikulua dio Arartekoak «organo eskudunei, funtzionarioei zein horien gainekoei gomendioak egin edo legez dituzten beharrak gogorazi ahal izango dizkiela, legez kanpoko edo bidegabeak diren ekintzak zuzentzen ahalegintzeko edo Administrazioaren zerbitzuak hobeto daitezten lortzeko». Horregatik, ofizioz zein interesatuek eskatuta abiarazten diren kexen espedienteak izapidetzean, administrazioaren jardura zuzena izan ez delako ondorioa ateratzen denean (bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai antolamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai kontrolatu den administrazioaren jarduna herri zerbitzu baten berezko xedea betetzeko berme handiagoak eskaini edo eragingarriagoak izan daitezten ikuspegitik hobeto daitekeelako), Arartekoaren erakundeak, irregulartasun hori egiaztatu ondoren, Administrazioentzako gomendio bat idazten du, jardura aldarazteko eskatzeko.

Esan behar da, ordea, beti ez dela gomendio lan hori egin beharrik izaten. Sarritan, Administrazioak, erakunde honengandik jardura jakin baten gaineko informazioa eskatzeko idatzia jaso, eta legearen arabera jardun ez duela ohartzeko hutsarekin, besterik gabe, ondo jokatu ez duela aitortzen duela ere gertatzen baita, eta egoera konpontzen du, herritarren urratutako eskubidea errespetatuz. Gomendio bat jaso arte zain egotea exijitzen ez duen arazoak konpontzeko modu horrek, irregulartasunik antzeman zeneko administrazioaren 154 jardura inolako gomendiorik egin behar izan gabe konpontzea ekarri du.

Argitasun hori eginda eta, estu-estuan, egindako gomendioak bete diren ala ez kontura mugatuta, aipatu behar da 2001 urtean emandako 42 gomendioetatik, baita 2000ko abenduaren 31n behin betiko amaieraren zain zeuden 27etatik ere, 28 onetsi egin direla, 19 ezetsi egin direla, 19 betetzeko zain daude; 2 ezereztatu direla, eta 1 eten egin dela, gaia epaitegietako egoitzetaraino eramanez eta ebatzi baita.

Zenbaki hutsen ikuspegitik, aurreko ekitaldian onetsitako gomendioen antzeko kopuruetan mantentzen gara, % 56 oraingoan, zeren 2000ko ekitaldiko portzentajezko datuaren (% 62) aldean izandako jaitziera xumea, Getxoko Udaleko langileriaren kudeaketako gai baten gaineko 195/2001 espedientea izapidetu den moduari egotz baitaioke. Kexaren izapidean argitasun handiagoa lortzeko asmoak guztira 5 gomendio egitera eramanez gintuen, azkenean ezetsi direnak, geroago esaten den bezala.

Egindako gomendioen onespenera dagokionez iritsi diren emaitzak baloratzeko orduan, ezin dugu ahaztu gomendioek ez dutela izaera loteslerik eta, ondorioz, erakunde honek esku hartzeko eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzeko egiten duen pertsuasioak Euskadiko herri administrazioen erakundeentzat aldetik betetze maila onargarria izan duela. Hala ere, erakunde honek onetsitako bere gomendioen kopurua gehitzeko xedea jarri dio bere buruari.

Horren inguruan, uste dugu komeni dela, txostenetan behin eta berriro esaten ari garen bezala, oraingoan ere adieraztea administrazio hartzaileak onesten ez duen

gomendio bakoitza erakunde honen eginkizun bermatzailearentzako oztopoa ez eze, legedia ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea ere esan nahi duela, eskubide zilegien errespetuari trabak jarritz.

Era berean, uste dugu komeni dela berriro esatea, gure iritziz, herri administrazioek gomendioak ez onartzea argudio juridiko zorrotzetan oinarritu behar dutela zeren, bestela, erakundeen arteko harremanak zehazten dituzten arauak zeintzuk diren ez jakiteaz gain, administrazioaren jarduera ebaki behar duten oinarriekin errespetu gutxikoak diren jarduera arbitrarioen aurrean aurkituko baikara.

Horren harira, ezin dugu ahaztu Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikulua zehazten duela «Herri Administrazioak interes orokorrei objektibotasunez zerbitzatzen diela, eta eragingarritasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazio oinarrien arabera jarduten duela, Legearen eta zuzenbidearen erabat menpe». Diseinu hau Herri Administrazioen eta Administrazioen Prozedura Erkidearen Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3.1. artikuluan berresten da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen idazketan. Arartekoaren erakundearen eginkizuna, beraz, herri administrazioek beren jardueraren oinarri diren printzipio horiek, bereziki antolamendu juridikoaren mendetasunari dagokiona, zaintzeko behar duten errespetuarekin harreman zuzenean dago.

Gogoeta hauekin erakunde honek herri administrazioetara zuzentzen diren ebazpenak modu egokian arrazoiu eta argudiatu beharri ematen dion garrantzia azpimarratu nahi dugu, bereziki eskatzen dena erabaki bat aldatzea edo esku hartzeko irizpide jakin batzuek aldaraztea denean. Beti esan izan dugu ahalmen hertsatzailerik ezak ahalegin dialektiko handiagoak garatzera eramaten gaituela, gure azterketetan sakontzera, desadostasun juridikoak kontrastatzera eta gure argudioak berrestera, gure gomendio eta gogorarazteak betetzeko orduan justifikaziorik gabeko mesfidantzak ikusten ditugunean. Hau da, esku hartzeko gure ahalbide guztiak agortzen saiatzen gara, egiaztatu ahal izan ditugun egoera irregularrak konpontzeko eta, legez kanpoko edo zilegitasunik gabeko ariketa edo ohiturak, kasu bakoitzean edo orokorrean aldarazteko helburu bakarraz.

Beti onartu izan dugu Arartekoaren erakundeak administrazioaren jarduera bat aldaraztea gomendatzen duenean, balitekeela Administrazioa gomendioaren argudio juridikoekin bat ez etortzea, eta desadostasun horren zergatiak argudiatzea. Halakoetan, Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzen denean, erakunde honek bere gomendioari eusten dio eta urteko txostenean onetsi ez dela agerrarazten du.

Bestelako balorazio bat merezi dute, ordea, gomendio eta oroigarriak betetzera ukatzea erantzunik ezak sortzen duenean gertatzen diren egoerek, hau da, ukitutako administrazioak ez duenean ebazpena betetzeko hartu dituen erabakien gaineko inolako informaziorik ematen, ez eta, gutxienez, edukia onartzea eragozten dion aurkako argudiorik ere. Horren harira, egin zaizkion agindeiak egin arren, Getxoko Udalak 195/2001 kexa espedientearen egin zaizkion gomendioei erantzun ez diela aipatzea merezi du. Jokabide horren ondorioz, gomendio horiek ez onartuzat jo dira, behin betiko.

Gomendio bat eman deneko espedienteak amaitzeko bat ere gogokoa ez den beste modu bat, gure iritziz, aurkako jarrera hori nahikoa sostengatzen ez duen argudiorik eman gabe, eskaria egin zaioneko administrazioak gomendia onartzen ez dueneko da.

Jokabide horiek -erantzunik eza, edo justifikaziorik gabeko ezezko erantzuna-, gure ustez, herriaren burujabetzaren ordezkari den Eusko Jaurlaritzaren mandatari baten eginkizunen ezagumenduaren haustura dakarte eta, gainera, Zuzenbide Estatuak arazoak ebazteko prestatu duen mekanismo batez baliatuz, beren eskubideak ezagut dakizkien eta antolamendu juridikoa bete dadin, erakunde bermatzaile batengana jo duten herritarrenganako begirunerik gabeko jarrera adierazten dute.

Jarraian, 2001ean egindako gomendioen eta 2000ko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden egoeraren aipamena egin dugu. Aipamen honetan gomendioak lau kategoriatan sailkatu eta labur deskribatzen dira: 1) administrazioak onetsitako gomendioak, 2) administrazioak onetsi ez dituen gomendioak, 3) 2001eko abenduaren 31n administrazioaren behin betiko erantzunaren zain daudenak eta 4) eten egin direnak, gaia epaitegietara eraman delako.

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila

* **109/2000/20 espedientea (13/2000 gomendioa)**. Gradu-osteko mailakoentzako espezializazio beka baten eskatzaileari zilegizko nahiari baiezkua ematea gomendatu zen. Neska hark batzorde kalifikatzaileak jarraitutako balorazio irizpideen xehetasunak jakin nahi zituen, baita irizpide horiek aplikatuz hautatutako bekadunek ateratako puntuazioa ere.

* **126/2000/18 espedientea (7/2000 gomendioa)**. Ikasleen eskolatzearen baldintzei eragin liezaieketen erabakiak daudenean, ukitutako sektore desberdinek esku hartzen duteneko gobernu organoetan eskaintzen diren partaidetzazko aukera guztiak, bidezko kontsultak eginez, agor daitezen gomendatu zen.

* **988/2000/20 espedientea (21/2001 gomendioa)**. Leioako Ostalaritza Eskolako hutsuneen espezialitate aldaketak eragindako balizko beste eragindakorik ez zegoela ziurtatzekotan, kexaren bidez erreklamatzeko ari zenari, gerorako ordezkoren ondoreetarako, 2000-2001 ikasturtean eman gabe utzitako zerbitzuak ezagut zekizkion gomendatu zen.

Ogasun eta Herri Administrazioiko Saila

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

* **16/2001/20 espedientea (7/2001 gomendioa)**. Euskadiko herri administrazioetako edozeinetara sartzeko etorkizuneko deialdietan, oinarri arautzaileetan maila goreneko unibertsitate ikasketetako tituluak (filologiak) zeuzkaten hautagaiak hizkuntzen maila egiaztatze berariazko azterketak egitetik salbuestea gomendatu zen.

* **743/2001/24 espedientea (29/2001 gomendioa)**. Herri Politika eta Egitarauen Ebaluazioko Espezialitatearen Diploma ezagutu eta baloratzeko behar ziren izapideak egitea gomendatu zen, estatu mailakoak diren tokiko Administrazioiko funtzionarioen lehiaketen baremo orokorrean sartzeko.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila

* **937/1999/23 espedientea (3/2000 gomendioa)**. Barakaldoko San Luis poligonoan babes ofizialeko 252 etxebizitzetako itundutako sustapenean ahalmen urriko pertsonentzako garaje plazetan neurrien akatsik zegoen zehazteko zegokion aurretiazko prozedura abiaraztea gomendatu zen. Gomendatu zen, halaber, egikari horiek egin ondoren, 1994ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onetsitako diseinu ordenantzen urratzea egiaztatuko balitz, enpresa sustatzaileari plazen dimentsioak urratutako ordenantzara egokitu beharra ezartzea, bidezkoak liratekeen zehapenak aplikatzearen kalterik gabe.

* **826/2000/23 espedientea (39/2000 gomendioa)**. Lekeitioko UARc 12-B eremuan 9 etxebizitza eta garaje eraikitzeke egitasmoa egiteko baimena ematen zuen Ingurumeneko Sailburuordearen ebazpen bat berrikustea gomendatu zen, baimen horretan Kostaldeen 22/1998 Legearen 25.1) artikuluan aurreikusitakoaren aurka zihohan babestu beharreko mendetasun eremu batean eraikuntza erabiltzea gauzatzea babesten baitzen.

Osasun Saila

* **123/2001/18 espedientea (13/2001 gomendioa)**. Herritarrek osasun prestazio jakin bati eusteko informazio egokia jaso ez zutelako zantzurik igartzen zeneko erreklamazioetan, administrazioaren jarduerak interesatuaren aurretiazko erreklamazioa ebaztearekin ez agortzea gomendatu zen. Horren harira, halakoetan osasun Administrazioak zegokion zerbitzura jo zezan iradoki zen, aurrerantzean herritarrei den prestazioari eusteko baldintzen gaineko informazio egoki eta osoagoa emateko.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

* **9/1998/16OF espedientea (109/1998 gomendioa)**. Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala herritarren eskueran izatez argitaratzen den egunean jartzeko behar diren neurriak hartzea gomendatu zen, bertan jasotzen diren arauak ondoreak izan baino lehen jakin ditzaten, indarreko antolamendu juridikoak agintzen duen bezala.

* **1212/2000/20 (36/2001 gomendioa)**. IFASi gomendatu zitzaion, aldi baterako sustapenerako barruko zerrendak eratzeke 2000ko azaroan aurreratutako irizpideak mantentzeko asmoarekin jarraitzekotan, besteak beste, aurretiazko hautapen prozesuez kanpoko irizpideez baliatuz zerrendak sortzeko ahalbideari zegokion irizpidea -bai IFASekoak bai beste administrazio batzuetakoak, orain arte «funtzio gorenen» zerrenda gisa ezagutzen direnenak bezala-, aurkaritzako datuak alde batera utzita egindako zerrendetan sartzeko aukera hori langile kategorია guztietara hedatzea.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Gasteizko udala

* **40/2000/23 espedientea (50/2000 gomendioa)**. San Antoneko zozketarako publizitateko deigarri gisa animaliarik erabiltzea saihestea gomendatu zen, eta animaliek herri ikuskizun edo manifestazioetan baimenik gabe parte hartzea ezabatzea, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4.6 eta 5.d artikuluen

aurreikuspenak, eta Animaliak Eduki eta Babestea arautzen duen udal horretako Ordenantzaren 9. artikulua bete daitezten.

* **47/2001/19 espedientea (34/2001 gomendioa).** Kexa egin zuen pertsonari irekitako premiazko xxxxx zenbakiko prozedurako jarduerak ondorerik gabe lagatzea eta ordaindutako zenbatekoak itzul zekizkion gomendatu zen.

* **150/2001/20 espedientea (8/2001 gomendioa).** Udalaren menpeko udaleko haur eskoletako hezitzaile lanpostuei eutsi eta horietan aritzeko aurreikusitako titulazio baldintzak hezkuntzaren antolamendu berriaren ondoriozko exijentzietara egokitzea gomendatu zen, zegokien lanpostuen zerrendan sartuta egonda, halako lanpostuei eusteko iragarritako deialdietan horiei eusteko baldintzen artean exijitzeko modukoak izan zitezten erara.

Aguraingo udala

* **900/1999/22 espedientea (19/2001 gomendioa).** Kexa jarri zuenari 1993ko lehenengo hiru hilekoaren eta 1998ko lehenengo hiru hilekoaren arteko epean uraren prezio publikoaren kontzeptu pean behar zuena baino gehiago ordaindu zuena itzul zekion gomendatu zen, epe horretan fakturatu zitzaion kontsumoak ez baitzuen berak egindako kontsumorik erakusten, alboko etxebizitzako erabiltzaileena baizik.

Iruña Okako udala

* **1123/1997/22 espedientea (28/2000 gomendioa).** Kexa jarri zuenari trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergaren kontzeptu pean jarritako zenbatekoa itzul zekion gomendatu zen, zeren, zerga sortu zenean zuen bizitokia kontuan hartuta, zenbateko hori beste udalerrri batean sartu behar baitzuen.

BIZKAIKO UDALAK

Bilboko udala

* **598/2000/21 espedientea (33/2000 gomendioa).** Udaltzaingoa egiaztatutako zenbait ohitura aldaraztea gomendatu zen, atxilotutako pertsonen eskubideen errespetuan sakontzera begira, ohitura hauek, zehazki: a) Atxilotua biluzaraztera behartzeko neurriak intimitaterako eskubidearen gutxiespena dakar, beraz, neurri hori hartzea Konstituzio Epaitegiak ezarritako irizpideen arabera neurri egokia, beharrezkoa eta neurrikoa dela justifikatzen denean soilik hartuko da. Baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko da berariazko kasu bakoitzean, egitatearen ingurumariak eta inputatuaren ezaugarri pertsonalak aztertuz. Era berean, neurri hori hartu izana eragin duten arrazoiak labur eta idatziz adieraziko dira, zeren ez baita nahikoa egikari jasotzen duten akta guztietan argudio generiko eta berdina sartzea. b) Polizien atxilotetetan, LECr 520.1 artikulua agindua zorrotz bete behar da, zeinen arabera askatasuna kentzea ez baita egitateak argitzeko ikerketak egiteko estu-estuan behar den denbora baino gehiago luzatuko. Horretarako, argiketaren instrukzioa egiten duen agenteak lehen unetik deituko dio atxilotuaz arduratuko den abokatuari, letratua ofizioz jardun zein atxilotuak izendatua den berdin delarik. Dagokion letratuari deitzea ordu batzuk

beranduagorako utz liteke atxilotuari egozten zaizkion egitatearekin zuzenean lotuta dauden ikerketaren eginkariak egin behar direnean, baina poliziaren funtzionamenduari egotz lekizkion berandutzeek ezin dute, inola ere, atxilotua askatzea atzeratu. c) Polizia etxeko atxiloketa hamabi ordutik gorakoa denean, atxilotuari egunean gutxienez otordu oso eta beroa emango zaio, ogitartekoez soilik ez baita elikadura egokia ematen. Beraz, udal horrek atxilotuak dietaren aldetik ondo zainduta egon daitezzen ziurtatzeko eta, era berean, ahal den heinean erlinjio sinesmenak edo osasunarengatik ezarritako dietak errespetatzen ahalegintzeko behar diren neurriak hartu behar ditu.

* **604/2000/19 Espedientea (5/2001 Gomendioa).** Trafikoaren arauen urratze batengatik izapidetutako zehapen espediente batean emandako ebazpena baliorik gabe uztea gomendatu zen, baita horko isuna kobratzeko jarraitutako premiazko espedientean emandako egitateak indarrrik gabe uztea ere, ez zirelako jakinarazpenerako beharrezko izapideak bete.

* **1089/2000/19 Espedientea (4/2001 Gomendioa).** Aldi batez utzita egon delako herri bidetik kendutako ibilgailu baten jabeak eskumeneko udal zerbitzuen aurrean zirkulatzeko administrazioaren baimen guztiak dauzkala, ikuskaritza teknikoa gainditu duela eta nahitaezko aseguruaren egiaztagiria indarrean daukala egiaztatzen duenean, ibilgailua berehala eman diezaion gomendatu zen, eta berreskuratzeko dirurik ordaindu behar izan ez dezan.

* **1185/2000/19 Espedientea (10/2001 Gomendioa).** Interesatuari, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Trafikoaren, Motoredun Ibilgailuen eta Bide Segurtasunaren gaineko legearen testu artikulatuaren 72.3 artikuluan jasotzen diren aurreikuspenak urratu izanagatik 50.000 pezetako isuna ezarri zion zehapeneko ebazpena indarrrik gabe lagatzea gomendatu zen. Era berean, aurrekoa baliorik gabe utziz, urratze horri legokiokkeen isuna ezartzeko ebazpen berria ematea gomendatu zen, baina kontuan izanda urratzearen zenbaterainokoa erabakitzeko, arau horren 69.1 artikuluan aurreikusitakoekin lotuta, zehapeneko prozeduraren izapideetan zehar egiazta ziratekeen inguruabarrak soilik izango zirela gogoan. Gomendio horren oinarria Bilboko Udalak interesatuari litekeen isunik handiena ezarri ziolako egitatean zegoen, administrazioaren espedientean ez zelako halako isunak zamatu eta larritzeko aukera ematen duten inguruabarrak bat ere izan zenik frogatzen.

* **925/2001/09 Espedientea (35/2001 Gomendioa).** Hontza zerbitzua formalki eta premiaz irekitzeko baimena ematea gomendatu zen, baita erabiltzaileentzat zein inguruko auzotarrentzat ondo aritzeko bermerik handienez jardueri berrekiteko neurriak hartzea ere, zerbitzu horretan behar den eta antzeko beste zerbitzu batzuek sortzeko oinarri izan litekeen jarraipena ginez.

Alonsotegiko udala

* **2431/1998/23 Espedientea (39/1999 Gomendioa).** Hirigintzako legezkotasuna babesteko ezarritako prozedura errespetatu gabe eraikitako txabola bat eraisteko agindua atzera botatzea gomendatu zen. Halaber, ondarezko erantzukizuneko espediente bat ofizioz abiarazte ere gomendatu zen, eraistearen, eraitsarazte subsidiarioaren eta, izatekotan, kaltetuak nahikoa justifikatutako kalte guztien ondoriozko kalteen ordaina emateko..

Galdakaoko udala

* **722/1999/22 Espedientea (22/2000 Gomendioa).** Taberna bat legeztatzeko espedientean egin ez ziren izapideak berehala betetzea gomendatu zen, izapideok betetzea Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 58. artikuluan ezartzen baita. Horren harira, tokiko erakundeak jendaurrera atera behar zuen jarduera legeztatzeko eskaria. Horretarako, udalak instalazioaren iragarkia txertatu behar zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta jarduera kokatzen zeneko tokiko auzotarrik gertuenei zuzenean jakinarazi behar zien, egoki irizten zieten alegazioak eta eragozpenak adierazteko aukera izateko. Era berean, behin funtsezko izapide hori beteta, Galdakaoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txostena eskatu behar zuen, jardueraren ezarpenaren gainean, eta instalazio horren gaineko udal txosten arrazoitua aurkeztu. Azkenik, jardueraren legeztatpena bete ondoren, hasieran aurkeztutako proiektuan gorabeherarik izatekotan, berriro jo behar zen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailaren iritziareske, haren zerbitzuak bidezko neurri zuzentzaileak ezartzea erabaki zezaten.

Gernika-Lumoko udala

* **1169/2000/22 Espedientea (1/2001 Gomendioa).** Kexa jarri zuenari gainkargu gisa kobratutako dirua itzultzea gomendatu zen, zeren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren udal erroldan izena ematearen ondoriozko likidazioa berari zuzenean, berarentzako soilik jakinarazi ez zitzaiolako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen gaineko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Aginduaren 124.3 artikulua agintzen duen bezala.

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako udala

* **2423/1998/23 Espedientea (99/1999 Gomendioa).** Ondarezko erantzukizuneko erreklamazio baten gainean ebazpena ematea gomendatu zen, Herri Administrazioen eta Prozedura administratiboa Erkidearen Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 legearen 42 eta 43. artikuluetan ezartzen den betebeharraren arabera.

Beasaingo udala

* **1125/1999/17 Espedientea (36/2000 Gomendioa).** Taberna-jatetxe baten jarduera, kautelazko neurri gisa, berehala ixtea gomendatu zen, aurretiaz interesatuari entzunaldia emanaz, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65 a) artikulua agintzen duen bezala.

Debako udala

* **76/2001/23 Espedientea (28/2001 Gomendioa).** Kexa jarri duen pertsonaren eskariari jaramon egitea gomendatu zen -dokumentazio bat ikusi ahal izatea eta kopia bat eskuratzea-, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen

Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35, 37 eta 42 artikuluetan xedatzen denaren arabera

Ibarrako udala

* **585/2000/15 Espedientea (3/2001 Gomendioa)**. Higiezin bateko beheko solairuaren jabeak aldarazitako erabilpena legeztatzeko espedientea izapidetzea gomendatu zen, auzotarren salaketak eta lokalean egin eta baimendutako obrak kontuan hartuta, lehenengo erabilpeneko edo beste batzuetako lizentzian aurreikusiez bestelakorik inola ere baimendu gabe.

Oiartzungo udala

* **292/2000/22 Espedientea (19/2000 Gomendioa)**. Ibilgailuen gordetegi jarduera baten titularrari egiten ari den jarduera legeztatzeko agindeia luzatzea gomendatu zen. Horretarako, titularrak aplikatzekoak zaizkion IV. eranskineko ataletan datorren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko luke, eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko Lege Orokorrean aurreikusitako jarduera lizentziatik salbuetsitako jardueren zerrenda ezartzen duen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren 3 eta 4. artikuluetan esaten diren izapideak jarraitu.

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sails

* **788/2001/18 Espedientea (27/2001 Gomendioa)**. Kexa jarri zuenak bere espedientea ikusteko, kasu honetan bere azterketa orria, azaroaren 26ko 37.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sails

* **828/2001/20 Espedientea (32/2001 Gomendioa)**. Bitarteko irakasle funtzionarioek ama izateagatik ordezkapen bati ezezko justifikatua eman badiote, eta horrela ikasturtean zehar 165 eguneko zerbitzuak egiaztatzen badituzte (horien artean, ordezkapen-zerrendak kudeatzeko araudian babesten diren uko-egiteen ondorioz aitortutako zerbitzuak), aintzat har dakizkiela udako hilabeteak ere, soil-soilik antzinatasunerako eta zerrendak antolatzeke.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **1073/2001/20 Espedientea (39/2001 Gomendioa)**. Kudeaketaren baldintzatzaileek Unibertsitatearen herri zerbitzuaren funtzionamenduaren eragingarritasunari eragin ziezaiketean ala ez kontrastatu ondoren, Arte Ederren Fakultatean 2001-2002 ikasturte honetarako eskainitako plaza guztien esleipenaren agindua betetzeko aukera emango zuten neurriak arbitratzea gomendatu zen, unibertsitatera heltzeko behar diren legezko baldintzak betetzen diren ikasleak unibertsitate zentroetara sartzeko hautabideak arautzen dituen urtarrilaren 21eko 69/2000 E.D.ren 1.4. artikulua esaten duen bezala.

Ogasun eta Herri Administrazio Sails

* **619/2001/20 Espedientea (37/2001 Gomendioa)**. EAeko Administrazio Orokorreko OPE 2000ren markoan iragarritako hautespen frogan deialdi desberdinetan Osakidetzan betetako zerbitzuak EAeko Administrazio Orokorrean betetako zerbitzutzat hartzea gomendatu zen, tratu desberdindua justifika lezaketean ordena funtzionaleko diferentziarik tartekatu ezean.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sails

* **98/1999/23 Espedientea (32/2000 Gomendioa)**. Sail horrek 1998an kontratatu zuen hedapeneko ekinaldi jakin baten sustatzaileei eragindako kalte eta minak nolabait ordaintzeko espediente bat izapidetzen hastea gomendatu zen, behin bideratu ondoren, interesatuari hedapeneko ekinaldi horren prestaziorako aurreikusi edo esleitutako kopuru guztietan kalte ordaina ematea erabakitzeko, bai gauzatutakoengatik bai kontratistei gotzi ezineko arrazoiengatik egin ez zirengatik.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

* **863/2000/20 Espedientea (18/2001 Gomendioa)**. Lehendakaritza Sailari funtzionarioen trukeen eskariak onesteko gomendatu zitzaion, indarreko araudiak aurreikusitako gainerako baldintzak betetzeaz gain, izaera berdineko lanpostuen titularrak direna egiaztatzen badute; bereziki: a) titulazio multzo desberdinetako multzoetakoak diren funtzionarioek berdin-berdin hornitzen dituzten postuak direnean, eta b) berriazko osagarri desberdineko postuak, baita xede osagarri desberdinekoak ere, diren postuak direnean, baina horrek norberaren mailaren finkatzeari eta ezagumenduari ukitzen ez badie.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Gasteizko udala

* **1736/1998/23 Espedientea (101/1999 Gomendioa)**. Kexa jarri zuenari trafikoaren arauak hausteagatik bederatzita isun ezarri zizkioten alkatetzaren dekretuak atzera botatzea gomendatu zen.

* **314/2000/23 Espedientea (37/2000 Gomendioa)**. Administrazioaren Ondare erantzukizunarengatik aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen alkatetzaren dekretu bat atzera botatzea gomendatu zen, udalak hiri bideak mantentzeko herri zerbitzuaren funtzionamendu anormalarengatik, eta udal arketa bat taparik gabe eta inolako seinaleztapenik gabe zegoen kale bat ibiltzeko baldintzetan egotea zaindu eta mantentzeko beharra ez betetzeagatik erreklamatzaren duenari eragindako kalteengatik erantzun behar zuelako. Halaber, erreklamatzaren duenari egindako kalteen ondoriozko ondarezko erantzukizuna aitortzeko ebazpen berria ematea gomendatu zen, horren espedientearen instrukzioan zehaztuko lirakeen proportzioan eta zenbatekoan.

* **151/2001/20 Espedientea (2/2001 Gomendioa)**. 2000ko Enplegu Publikoko Eskaintzaren oinarri orokorrak berrikustea gomendatu zen, lehiaketaren fasean deitutako lanpostuarekin zerikusi zuzeneko funtzioetan betetako zerbitzuak baloratzeko, zein herri administrazio edo erakundetan bete ziren begiratu gabe.

BIZKAIKO UDALAK

Abanto-Zierbenako udala

* **205/1998/22 Espedientea (11/2000 Gomendioa)**. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kontzeptu pean bidalitako likidazio bat ofizios atzera botatzea gomendatu zen, zerga oinarrian oraingo titularrak establezimendua alokairuan hartu baino lehen lizentziarik gabe egindako obrak sartzen baitzituen. Iradoki zen, bidenabar,

horren ondoren, interesatuari kontzeptu horrengatik beste likidazio bat egiteko, berak egindako obren izatezko eta benetako kostearen oinarriaren gainean.

Getxoko udala

* **195/2001/20 Espedientea (22/2001 Gomendioa).** Langileria, antolakuntza eta informatika saileko arduradun lanpostua betetzea.

Hutsune horri eusteko interesa zuten balizko hautagai guztiei aurkezten uztea gomendatu zen, aurkezteko aukera hori bermatuta, orduan lanpostuan zegoen pertsona hautatuko balitz, ordura arte hutsune izandako lanpostu horren arauzko estaldurara arte bitarteko funtzionario izenda zezaten.

* **195/2001/20 Espedientea (23/2001 Gomendioa).** Langileriako arduradun teknikari gorenaren lanpostua betetzea.

Hutsune horri eusteko interesa zuten balizko hautagai guztiei aurkezten uztea gomendatu zen, aurkezteko aukera hori bermatuta, orduan lanpostuan zegoen pertsona hautatuko balitz, ordura arte hutsune izandako lanpostu horren arauzko estaldurara arte jatorrizko bere multzoan gogozko eszedentzian zegoela adierazi eta A multzoko bitarteko funtzionario izenda zezaten.

* **195/2001/20 Espedientea (24/2001 Gomendioa).** A multzoko teknikari lanpostu bateko berezko egitekoak betetzea (gainbalioak).

Egiteko horiek A multzoko funtzionario bati esleitzea gomendatu zen. Lehenengo aukera hau bideragarria izango ez balitz, egiteko horien garapenean interesatutako balizko hautagai guztiei aurkezten uztea ziurtatzea gomendatu zen. Aurkezteko aukera hori ziurtatu eta, orduan horretan ari zen pertsona hautatuko balitz, jatorrizko bere multzoan gogozko eszedentzian zegoela adierazi eta egokien irizten zitzaion formularen bidez aldi baterako kontrata zezaten gomendatu zen.

* **195/2001/20 Espedientea (25/2001 Gomendioa).** Langileria berrantolatzeke neurriak.

Langileria berrantolatzeke neurriak kasu bakoitzerako behar diren formaltasun eta izapide guztiak betez eta errespetatuz (arrazoitzea, interesatuen entzunaldia, langileria ordezkarrien kontsulta, eta abar) burutzea gomendatu zen, horrelaxe soilik bermatuko baitziren tokiko administrazioaren jokaera zuzena ez eze, ukitutako langileen interesen izatezko babesa ere, balizko defentsarik ezaren arriskuak saihestuz.

* **195/2001/20 Espedientea (26/2001 Gomendioa).** Ordainsariak

Tokiko Administrazio horretako funtzionarioen ordainsarien araubidea autonomia erkidegoko araudira egokitzea gomendatu zen, bereziki Euskadiko herri administrazioetako funtzionarioen ordainsarien gaineko uztaillaren 30eko 207/1990 Dekretuaren aurreikuspenetara.

Santurtziko udala

* **1125/2000/19 Espedientea (9/2001 Gomendioa).** Trafikoko arauak hausteagatik bideratutako zehapen prozedura batean erabakitako ebazpena indarrrik gabe lagatzea gomendatu zen. Ebazpenean interesatuari 5000 pezetako isuna ezarri zitzaion Zirkulazioko Arautegi Orokorren 154. artikuluko aurreikuspenak behin

urratzeagatik, eta indarrik gabe lagatzea gomendatu zen salaketaren jakinarazpenaren uko-egitea enpresa pribatu batek egikaritu zuelako, bestelako izapiderik gabe eta frogarako beste mekanismorik baliatu gabe.

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako udala

* **1960/1998/19 Espedientea (33/1999 Gomendioa)**. Kexa jarri duenari salaketa ezabatzeko ordaindu zuen dirua itzultzea gomendatu zen. Izan ere, salaketa TAOren eragipeneko gunean horretarako titulurik izan gabe aparkatzeagatik egin zitzaion, baina elbarria dela egiaztatua dauka, nahiz eta beste udalerrian bizi, eta horrek baimentzen zuen autoa aparkatu zuen lekuan eta baldintzetan egiteko. Baita ere, aparkatze neurtuaren gaineko udal zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren aurreikuspenak aldatzea gomendatu zen, Ordenantza bertako eta kanpoko elbarrien egoeraren berdinketa isla dadin. Azkenik, Ordenantza aldatu artean, Udaltzaingo zerbitzuari jarraibideak ematea ere gomendatu zen, praktikan eta bien bitartean, berdinketa hau izatez onar dadin.

Arrasateko udala

* **3/2000/23 Espedientea (8/2000 Gomendioa)**. Iberdrola, S.A. enpresari STD Arrasatetik (Muxola) CT Fagor Ederlaneraino tentsio altuko (30 KW) linea bat ezartzeko obretako lizentzia ezeztatzea gomendatu zen. Izan ere, emate hori bideratzean espedientea ez zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidrauliko eta Hirigintza Sailera bidali, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua finkatutakoa betetzeko, eta izapide hori ezinbestekoa da, urbanizatu ezineko zoru etako tentsio altuko aireko linearen instalazioek alde aurretik eskatzen baitute foru agindu baten bidezko herri balioko aitorpena.

Hernaniko udala

* **533/2001/20 Espedientea (17/2001 Gomendioa)**. Udalbatzak 2001 urterako onartu zuen lan egutegia berrikusi eta uztailearen 28ko 156/2000 Dekretuan finkatutakoa betetzea gomendatu zen, Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko lan jaietako egutegi ofiziala onartu baitzuen (EHAA 152, abuztuaren 9koa), uztailearen 25a (Santiago apostolua), urriaren 12a (Espainiako jai nazionala) eta abenduako 6a (Espainiako Konstituzioaren eguna) jai direla onartuz.

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saila

* **962/1998/20 Espedientea (11/2001 Gomendioa)**. Dietetika eta Giza nutrizioa Diplomaturaren ikasketa planen edukia eta «Prozesu sanitarioak», «Osasun eta laguntza Prozedurak», «Diagnostiko kliniko eta produktu ortoprotesikoen prozedurak» espezialitateei eta «Sukaldaritza eta Gozogintza» espezialitateari, eta egoki irizten zaizkien beste edozeini, dagozkien heziketa zikloak ezartzeko garatu behar den curriculumak, plano material batetik, modu konparatibo batez aztertzea gomendatu zen, irakaskuntza ordezkapenatarako hautagai zerrendei dagokionez titulazio hau gehitzeko aukera baloratu dadin.

* **557/2000/20 Espedientea (40/2000 Gomendioa)**. Egonkorak ez diren bitarteko funtzionarioen kolektiboari senitartekoak zaindu beharragatik eszedentzia egoera baliatzeko aukera onartzeko behar diren neurriak hartzea gomendatu zen.

Herrizaingo Saila

* **1797/1998/19 Espedientea (27/1999 Gomendioa)**. Bizkaiko lurraldeko trafiko arduradunak Berangoko udalerriko kale batean egindako arau-hauste bategatik ezarri zuen zehapen bat ofizios bertan behera lagatzea gomendatu zen. Izan ere, lehenak zehapena ezartzeko eskumenik ez zuelako ondorioa atera zen, Trafiko, Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuaren 68.2 artikulua aipatzen duen eskumeneko aldakuntza gauzatzeko dagokion prozedura bete ez zela frogatu baitzen.

* **597/2000/19 espedientea (47/2000 Gomendioa)**. Trafiko alorreko zigor-arauak ezarri ipini zen zehapen bat bertan behera uztea gomendatu zen, salaketa egin zenetik bi hilabetera jakinarazi baitzen prozedura hasia zela, eta, gainera, Ararteko erakundearen ustez, espedienteak ordurako galdua zuen bere balioa.

Herri lan eta Garraio Saila

* **541/2000/19 Espedientea (6/2001 Gomendioa)**. Donostiako portuan aparkalekuetarako aurreikusitako lekuan ezintasuna edo mugikortasun mugatua daukaten pertsonen ibilgailuek bakarrik erabiltzeko gutxienez hiru plaza gordetzea gomendatu zen, abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta lege hori betetzeko emanda hiri gunetara, herri eremuetara, eraikuntzetara eta informazio eta komunikazio sistemetara sartzeko baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan finkatutakoarekin bat. Halaber, Donostiako portuan aparkatzeko arautegirako aurreikusitako erregimenaren aplikazioan Ezinduentzako Aparkatzeko Txartela arautu eta Komunitatearen Eredu Bateratua egokitzen duen abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan aurreikusitakoak kontutan har daitezela gomendatu zen.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

***2441/1998/15 Espedientea (30/1999 Gomendioa).** Herri Lanak Sailari gomendatu zitzaion Bilboko hiri gunea zeharkatzen eta eskuduntza mugapenean arazoak aurkezten dituzten zazpi errepideren hiri arteko zatiak mugatzeko espedientea zabaltzea. Izan ere, errepide horien hiri zerbitzuen kontserbazioa eragiten du Bilboko biztanleen kalterako. Espedientearen izapidetzeak bat egin behar du Bizkaiko Errepideetako 2/1993 Foru Arauaren 57. artikuluan finkatutakoarekin, eta ezinbestekoa da Bilboko Udaletxeari entzunaldiaren izapidea ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundia

*** 37/2000/23 Espedientea (38/2001 Gomendioa).** Nekazaritza eta Ingurumena Sailari gomendatu zitzaion kexaren egileak aurkeztutako eskabidea atzera botatzea erabaki zuen 1999ko azaroaren 12ko Foru Agindua bertan behera lagatzea. Izan ere, foru erakunde horrek eskatzaileari eragindako kalteei aurre egin behar zizkien, Zumalakarregi kalearen urbanizatzeko herri zerbitzuaren funtzionamenduaren eta oinezkoen pasabiderako irekitako gune bateko irtenguneak begiratu eta kontserbatzeko eginkizunak ez betetzearen ondorioz gertatu baitziren.

Halaber, agindu berri bat ematea gomendatu zuen, non eskatzaileari eragindako kalteen ondorioz izan zitezkeen ondarezko erantzukizuna onartuko baitzen, zehaztuko lirakeen neurri eta kopuruan.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

Arabako udalak

Gasteizko udala

*** 31/1999/190 Espedientea (10/2000 Gomendioa).** Bizikletan oinezkoen guneetatik ibiltzeko bidea ematen duten erabilera, trafiko eta hiri izaerako herri bideetako zirkulazioa arautzen dituen Udal Ordenantzaren aginduak aldatzea gomendatu zen. Izan ere, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartutako Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuaren eta urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Arautegi Orokorren aurreikuspenak urratzen baititu Dekretu horrek.

*** 1230/2000/23 Espedientea (12/2001 Gomendioa).** Jabeen komunitateak etxebizitza zehatz baten zoru guztian tarima berri bat jartzeko betekizunari dagokionez obrak egiteko agindu bat berrikustea gomendatu zen. Izan ere, neurri hori ez da Lur Zoruaren Erregimen eta Balioztapenen 6/1998 Legearen 19.1 artikulua etxea segurtasun, higiene eta apaindura baldintzetan mantentzeko jabeei ezartzen dizkien betekizunen neurrikoa.

* **536/2001/01 Espedientea (20/2001 Gomendioa)**. Aterpe gaueko zentroak kexa ezarri duen pertsonarekin izan duen jarduera berrikustea gomendatu zen, gaueko atsedenaldirako ohea erabiltzea debekatu baitzen, oinetan daukan osasun arazoa eduki arren.

* **717/2001/18 Espedientea (31/2001 Gomendioa)**. Kexa eragin dituzten jardueretan atzera jotzea gomendatu zen, Oblatas del Cristo Redentor elkartearekin izenpetutako hitzarmena alde baterako deuseztapena baino lehenago horretarako ezarritako prozedura jarraitu dadin, horrela, entzunaldiaren funtsezko izapidearen bidez, eragindako aldeak egozten zaizkion kontuen aurrean alegazioak aurkeztu ahal izateko bidea eman dezan. Horrela ezagutu eta finkatu ahal izango da Oblatas del Cristo Redentor elkarteak bere zereginak betetzeko moduari buruzko oharrek hitzarmenaren deuseztapena funtsa dezaketen ala ez.

Bizkaiko udalak

Bilboko udala

* **577/2000/16 Espedientea (38/2000 Gomendioa)**. Udal kirol instalazioak erabiltzeko herri prezioak arautuko dituzten etorkizuneko ordenantzetan guraso biak seme alabekin bizi diren familien aldean guraso bakarreko familien diskriminaziorik eragin dezakeen edozelako motiboa kentzea gomendatu zen, egoera hori nondik sortu zen ezertarako kontutan hartu gabe. Zehazki, guraso bakarreko familien kasuan pertsona bakarreko kuotaren barruan izaera orokorreko gaineko baldintzak betetzen dituzten seme alabak onuradun bezala jartzeko aukera izateko bidea eman behar zaie.

Errigoitiko udala

* **97/2001/23 Espedientea (30/2001 Gomendioa)**. Madalengoiti auzora iristeko bidean egin diren ixteko obrak 1976ko Lur Zoruaren Legearen 185. artikulua biltzen duenaren arabera legezatzeko espedientea irekitzea gomendatu zen, , ondoren obrak Udalak lursailak ixteko daukan ordenantzarekin egokitzen diren frogatzeko. Eskatutako zabalera betetzen ez bada, obrak eraistea aginduko da, hirigintza legediarekin bat ez etortzeagatik.

Getxoko udala

* **937/2001/23 Espedientea (33/2001 Gomendioa)**. Alkatetzaren 2001eko uztailaren 12ko Dekretua ezeztatzea gomendatu zen. Dekretu horrek xedatzen zuen Udaltzaingoa udalerriko hondartzetan edo zelaietan nudismoa egiten duten pertsonen, holakorik ez egiteko ohartarazi eta, agindutakoa beteko ez balute, isun hertsatzaileak ezartzeko bidea ematen du agindutakoa betetzen dela bermatzeko. Izan ere, aurreko oinarriak kontutan harturik, dekretu hori arautegi juridikoaren kontrakoa baita.

Ondarroako udala

* **781/2001/20 Espedientea (41/2001 Gomendioa)**. Bidezko neurriak hartzea gomendatu zen, udaltzain laguntzaile postuak aldi baterako betetzeko deialdian

sistema objektibo bat ezartzeko, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak errespetatuko dituen, eta deialdi horretan kexagileari parte hartzen uztea, gainontzeko hautagaiekin batera.

Plentziako udala

* **271/2000/23 Espedientea (48/2000 Gomendioa)**. Ondarearen erantzukizuneko eskabide bati buruzko ebazpen zehatz bat ematea gomendatu zuen, azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 42 eta 43 artikuluetan bildutako betekizuna betez, behin dagokion espediente administratiboa martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan finkatutako aurreikuspenekin bat bideratu ondoren. Baita ere, ondarearen erantzukizuneko ondorengo eskakizunetan Plentziako Udalak azaroaren 30eko 30/1992 Legean eta ondare erantzukizunetako gaiari herri administrazioen prozeduren Araudian bildutako betekizunak jarrai ditzala ere gomendatu zen.

Sestaoko udala

* **467/2001/25 Espedientea (42/2001 Gomendioa)**. Kexa egin zuen pertsonak oinetakoetan izan zituen kalteengatik aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko eskabidea atzera botatzen zuen ebazpena berrikusi eta gomendatu zen, zabaldutako espedientearen jarduerak atzera zolatze obrak egiten ari ziren espaloi batean kokatuta zegoen estolda tapa bat solte zegoelako gertatu zirelako alegazioa behar bezala kontsideratzeko unera eramatea gomendatu zen.

Trapagaraneko udala

* **892/2001/25 Espedientea (40/2001 Gomendioa)**. Kexa egin zuen pertsonak 2000ko azaroaren 22an jabetza pribatuko lurretan izan zuen erorketagaratik aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko eskabidea atzera botatzen zuen ebazpena berrikusi eta, zabaldutako espedientearen jarduerak atzera kalteak eragin zituen arketa euriko urak biltzeko udal sarearena delako zirkunstantziak behar bezala kontsideratzeko unera eramatea gomendatu zen.

Gipuzkoako udalak

Donostiako udala

* **701/2000/23 Espedientea (31/2000 Gomendioa)**. Etxebizitzak esleitzeko prozesuetan eskatzaileek espedienteak izapidetzen diren bitartean aurkeztutako dokumentu eta alegazio guztiak kontutan hartzea gomendatu zen, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/92 Legearen 79.1 artikuluan, lege beraren 35,e) artikuluari dagokionez hartzen dituen aurreikuspenen aplikazioaz.

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO

A) TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko udalak

Derioko udala

* **160/2000/20 Espedientea (16/2001 Gomendioa)**. Udal langile batek bere lanpostuari dagozkion zereginak benetan betetzea segurtatuko zuten bidezko neurriak hartzea gomendatu zen.

VI. ATALA

GOMENDIO OROKORRAK

1. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN INMIGRAZIOARI BURUZKO PLAN OSO BAT ONETSI BEHAR DA

Gure herrian gero eta etorkin gehiago dagoenez¹, gizarte bazterketa gertatzen ari da, eta eskubideak bermatzekoa den Arartekoarena bezalako erakundeak ezin dezake gaia alde batera utzi. Ez dugu ahaztu behar inmigrazioaren eragile nagusia ekonomia dela neurri handi batean eta herria uzten duten pertsonak, eta herriarekin batera familiak eta ingurunea, bizitza maila hobetzekotan egiten dutela alde oro har, bizi dituzten pobrezia eta injustizietatik nola edo hala ihes egin nahian. Babesik ezak, jokoaren arauak ez ezagutzeak, dituzten eskubideen berri ez izateak, oro har, egoera latzean uzten dituzte etorkinak.

Erakundeek eta euskal gizarteak berak arazoari ematen dioten erantzuna ez dator bat, kasu askotan, elkartasunaren printzipioarekin eta etorkinen oinarritzko eskubideen beharrezko onarpenarekin. Asko dira, oraindik ere, gure erkidegoan integratzeko traba ugari aurkitzen dituzten etorkinak. Etxebizitza, hezkuntza, lana, gizarte bizitzan parte hartzea dira, besteak beste, etorkinek euskal gizartean integratzeko prozesuan aurkitzen dituzten arazo nagusienetako batzuk, erkidegoko gainerako partaideek dituzten baldintza bertsuetan integratzeko.

Handiak dira, inolako zalantzarik gabe, arlo horretan euskal erakunde publikoak egiten ari diren ahaleginak. Hala ere, Ararteko erakundeak egiaztatu ahal izan duenez, sektoreka egiten diren ahaleginak dira, ahalegin bakanak, arlo beretan beste administrazio batzuk egiten duten lana aintzakotzat hartzen ez dutenak. Are gehiago, zenbait alditan antzeko helburua duten bestelako sektore esparruetan administrazioak berak lantzen dituenak dira, ezta ildo horretan gizarte eragileak egiten ari direna ere. Hots, erakundeak arlo hori lantzen du, baina ekintza sakabanatuak dira, koordinaziorik gabekoak eta, batzuetan, koiunturakoak.

Egoera hala izateko badira arrazoiak, neurri batean inmigrazioarekin lotura zuzena duten esparru asko dagoelako, eta bereziki etorkinen integrazio sozialarekin; esparru horretan erantzukizuna duten administrazio anitzak izateak ere zerikusi handia du. Argi izan behar dugu EAEk era askotako eskumenak dituela integrazioaren gakotzat hartzen diren sektore desberdinetan hala nola hezkuntza, osasuna, etxebizitza, gizarte ongizatea,

1 Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren 2000ko azken memoriatik ateratako datuen arabera, EHAEn dagoen etorkinen kopurua % 9,57 da 1998ko datuekin konparatuta; igoera batez ere Araban gertatu da, % 26,36ko hazkundera hain zuzen.

adin txikikoei laguntzea, lana, kultura etab.; eta eskumen horietako asko erakunde komunen eta lurralde historikoen artean banatuta daudela. Horri integrazio prozesuan udalek jokatu behar duten rola gehitu behar diogu, ez bakarrik zenbait arlotan eman zaizkien eginkizunengatik, baizik eta herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak direlako; eta hala direnez gero, etorkinak haiekin jartzen dira harremanetan hasieran. Gainera, administrazio horietako bakoitzaren eskumenak arlo desberdinei ematen zaizkie.

Egoera nahaspilatsu hori are zailagoa egiten da zeren eta inmigrazioa, atzerritarak eta asilo eskubidea bezalako gaiak erantzuna emateko hain eskumen erabakigarriak Estatuarenak baino ez baitira, Konstituzioan ezarritakoaren arabera. Izan ere, etorkinak heltzen direnean izaten duten egoerak oso eragin zuzena du etorkinak integartzeko edozein politika ezartzerako orduan.

Baina euskal administrazioak inmigrazioarako ematen ari diren erantzuna halakoa da, neurri handi batean, gure autonomia erkidegoan tresna egokirik ez dugulako, etorkinak euskal gizartean integratzeak dakartzan arazoei erantzun osoa eta koordinatua emateko. Tresna horrek osotasunean landuko ditu inplikaturik dauden sektoreak, baita administrazioen egituren eraketa eta inmigrazioaren arloan gizarte eragileek egindako lana ere.

Inmigrazioaren inguruan erakundeek duten eginkizunetan dagoen nahaspila izanda, eta inmigrazioaren arazoa ordenan eta planifikatua lantzeko beharra ikusita, gure Erkidegoko etorkinei laguntzeko plan integrala behar da, estatuak eta bestelako autonomia erkidegoek egin duten bezalaxe, beti ere haien eskumenen esparruen barruan.. Hala eginez gero, gaur egunean administrazioak eta gizarte eragileak egiten ari diren ahaleginak batu egingo lirateke, bi erakundek esku-hartze bera egitea saihestuko litzateke eta, azken batean, gure herrian inmigrazioak dakartzan arazo ugariari erantzun planifikatua emango litzaike.

Inmigrazioari buruzko plan autonomikoa egiteko beharra argi utzi du Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak 2000ko urteari dagokion memoria sozio-ekonomikoan.

Era berean, EAEko administrazioak 2001. urtean gehitu du lehenengoz inmigrazioari buruzko berariazko arlo bat haren eraketan², eta arlo hori³ hartzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren bidez, gaiari buruzko plan bat egiteko asmoa iragarri du.

Erakunde honen iritziz, etorkinei laguntza emango dien planak ezin ditzake albo batera utz ondoren laburbilduko ditugun oinarriko gaiak, inmigrazioaren politika autonomikoaren adierazpena den aldetik.

Lehenengo eta behin, etorkinei laguntzeko politikan argi izan behar dugu inmigrazioak etorkinak hartzen dituen gizartearen egituraketan eragina duela, haren bizimoduan, kultur adierazpenean eta elkarbizitzan, eta, hori dela-eta, gizarte osoak hartu behar du bere gain. Horrexegatik, beraz, etorkinak gure gizartean integartzeko eta integrazio hori gizarteko gainerako pertsonen berdintasunean egingo dela bermatuko duen planak ez du bere helburua beteko baldin eta proposatzen dituen neurriak

2 Uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 10. art. Bis (irailaren 17ko 19/2001 Dekretuak gehituta).

3 Uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 10. art. Bis (irailaren 17ko 19/2001 Dekretuak gehituta) eta otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 13 eta 16. artikulua.

etorkinentzat baino ez badira. Gaia osotasunez jorratzean, etorkinak hartzen duen gizartearentzako bestelako jarduketez gain, elkar ezagutzeko bidea emango zaigu, eta inmigrazioa garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako faktore gisa hartu behar da, baita etorkina erkidegoko beste partaide bat legez hartu ere eskubide eta betebeharrak dituztela. Halaxe eginez gero, neurri integratzaileak lortuko ditugu; bestela ez.

Arazoa dagoen gizartearen errealitatea zehatz-mehatz ezagutzea, era berean, edozein herri politika egiteko oinarritzko osagaia da; etorkinei laguntzeko politikari dagokionez ere. Autonomia Erkidegoko inmigrazioaren benetako egoera ezagutzea, beraz, abiapuntu saihestezina da arlo horretako politika autonomikoa zehaztean.

Bestalde, plangintza egiteko edozein tresnari datxekio berorrekin lortu nahi diren helburuak zehaztea eta berau lortzeko baliabideak ezartzea. Inmigratioari buruzko etorkizuneko planak ere oinarritzko eduki hori izan beharko du. Eta, horren ondorioz, honakoak agertuko dira, behinik behin: lortu nahi diren helburuak, garatu beharreko jarduketa zehatzak, berauek burutzeko arduradunak eta ekintzok betearazteko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak.

Baina inola ere ezin da ezkutatu ezen helburuak eta plana betearazteko ekintzak zehaztuta, plana, neurri handi batean, haren bideragarritasun ekonomikoaren menpe egongo dela. Horixe azpimarratu nahi dugu planari dagokionez, eta ondorengo gai hauetan arreta jarri gura dugu: ezarritako jarduketan azterketa ekonomikoaren rol erabakigarria, azterketa abian jartzeko beharrezkoak diren gastuak zenbatzea eta gastuari aurre egiteko beharrezko zuzkidurak aurrekontuetan ezartzea dira etorkizuneko plana betetzeko bermeak.

Bestalde, integrazio prozesuak gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du, lehenago esana dugunez. Hori dela-eta, funtsezkoa da, gure iritziz, etorkinak integratzeko helburua duen plan onetsiak adostasun zabala izatea politikarien artean eta gizartean; oinarritzkoa da ere plana egiteko jardunbidean gizarte eragileek eta etorkinek eurek parte hartzea.

Era berean, etorkizuneko plana eraginkorra izango dela bermatzeko, administrazio egokiek plana egiteko jardunbidean parte hartu eta bertan ezarritako neurriak hartzeko erantzukizuna bereganatu behar dutela uste dugu. Izan ere, administrazio horiek, ustez, plana betearazteko erantzule nagusiak izango dira.

Laburbilduta, Ararteko erakundeak, esandako guztiari aurre egiteko, plan bat onestea gehiago ezin atzera daitekeela uste du. Plan horrek, ikuspegi osoaren eta koordinatuaren bidez eta giza eskubideak errespetatu nahian, inmigrazioaren arazoari aurre egiteko erkidegoak hartu behar duen politika zehaztu beharko du, jarduteko ildoak ezarri beharko ditu eta berau betearazteko beharrezko finantzabideak izan beharko ditu.

2. MIAKETA PERTSONALAREN DILJENTZIA POLIZIAREN BULEGOETAN

1. Sarrera

Pertsona kaltetuaren oinarrizko eskubideei eragin gehien egiten dien poliziaren jardueretatiko bat da atxiloketa. Beste edozein giltzapetze batek bezala, atxiloketak ez du askatasuna bakarrik kentzen. Bistakoa da beste eskubide batzuen murrizketa dakarrela berekin, intimitatea edo norberaren bizitza zuzentzeko autonomia (elikadura, harreman pertsonalak eta abar), besteak beste. Horregatik, hain zuen ere, kautelazko neurri hori erabiltzeko modu eta baldintzek etengabe arduratu dute Arartekoaren erakundea.

Ertzaintzak edo udaltzaingoek atxilotutako zenbait pertsonak guregana urtero jotzen badute ere, esparru honetan kexa asko ez dagoela komeni da argitzea. Dударik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) polizia-zerbitzuen kalitatearen seinale izan daiteke hori, baina ezin da horregatik gainbegiraketa beharrezkoa ez dela pentsatu. Poliziaren jarduerak beti dakar berekin norberaren eskubideen murrizketa, eta honek tentsio eragiten du nahitaez, erakunde bermatzaileen etengabeko ardura ere eraginez.

Kexa kopuru txikia azaltzen duten beste faktore batzuk ere badira. Alde batetik, atxiloketak prozesu penal baten hasiera esan nahi du normalean, organo judizialei dagozkie sumatu diren poliziaren jardueraren balizko irregulartasunak. Bestalde, atxilotu guztiek ez dute euren eskubideak ezagutzen –askotan gizatalde baztertuetakoa dira–, ezta ustezko arau-hausteei aurre egiteko gaitasun nahikoa izaten ere.

Aurea hartzera eta EAEko atxiloketa-guneetako funtzionamendu erreala ezagutzen saiatzera bultzatu gaitu azken egiaztapen honek. *Ziegak. Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren atxiloketa-guneak* ohizkanpoko txostenaren segimendua egiten genuelarik, adibidez, poliziaren bulegoak bisitatzen dituzte erakunde honetako langileek, lekuan egiaztatzeko gure gomendioak betetzen direla. *Poliziaren jarduerak atzerriko jatorria duten pertsonekin San Frantzisko auzoan (Bilbo)* txostenak ere, atxiloketaren gauzatzearen xehetasunak argitzen ditu, eta xehetasun horiek alde batera uzten dira sarri prozedura penalak bideratzean.

Kasu honetan gure ardura atxiloketaren alderdi oso zehatz batean izan behar da, gorputzaren miaketaren Dilijentzian, alegia, atxilotua poliziaren bulegoetan sartzen denean, gainera.

Ez da gai hau ukitzen den lehen aldia. Estatuaren segurtasun indarrei dagokienez, batzuetan neurria gauzatzeko bete behar diren baldintzei buruzko gomendioak egin ditu Herriaren Defendatzaileak: kasuaren gorabehera bereziek eskatzen dutenean besterik ez da justifikatuta egongo, eta erabakia, zentzuzko eta proportzionaltasuneko irizpideetan oinarrituta, idatziz jasota egongo dira, labur, geroago kontrolatu ahal izateko.

Etorkinekin poliziaren jardueren txostenaren ondorioz, gure aldetik, gomendio batzuk ematen dizkiogu Bilboko Ertzaintzari eta Udaltzaingoari. 8. gomendioaren testuinguruan, hiritarren eskubideekin bat ez datozen jarduera polizialak prebenitu eta errotoik kendu nahi dituen, hitzez hitz hauxe esaten duen atal bat erantsi zen:

“g) balizko atxiloketei dagokienez, gorputza biluzik miatzeko neurria ez dela ohizkoa izan behar behin eta berriz esan beharra dago, atxilotuaren gorabehera pertsonalek, leporatutako delituarenak edota atxiloketaren

bilakaerak beharrezko bihurtzen badute besterik ezin da justifikatu, beti zentzuzko eta proportzionaltasun irizpideekin bat. Edozein modutan, neurriaren arduradunak idatziz jaso beharko du erabakia, labur, geroago neurriaren egokitasuna kontrolatu ahal izateko”.

Antzeko gomendioak eman zaizkie Donostiako eta Bilboko udaltzaingoei, kexa indibidualak zirela-eta. Polizi biek onartu dituzte gure iradokizunak, baina Bilboko arduradunek bakarrik idatzi zuten Zirkular (7/98) bat, erakunde honek egindako gomendioak errealitatean erabiltzen saiatzeko. Polizia-argiketetan dilijentzia hori egin dela jasota uzteko akta-eredu bat egin zuten ere. Hasiera batean egindako gomendioak horrela betetzen zirela ematen bazuen ere, aipatutako aktetan beti argudiatze orokor bera jartzen dela jakin dugu gero, eta hori ezin da sekula ere izan kasu jakin batean neurria hartzeko benetako oinarria.

Ertzaintzari dagokionez, lehen idatzita agertu den gomendioaren ondorioz, *jarraibide bereziak* pentsatzen ari zirela jakinarazi zigun Herrizaingo Sailak, Arartekoak iradokitakoaren ildotik. Hala ere, San Franciscoko auzoko polizia-jardueren gaineko gomendioen balorazio txostenean –2000ko otsailean eginda, Eusko Jaurlaritzak eskatuta– honako hau azpimarratu behar izan genuen:

“8.g): Gorputzaren miaketarako bermeak. Barne Sailak ez dio sekula ere jaramonik egin Arartekoak egindako gomendio honi. Ez ditu bere irizpideak azaldu, ezta miaketaren dilijentzia egiteko modua ere. Horregatik guztiatik, iradokitakoa ez dela bete uste dugu”.

Bestalde, Gipuzkoako Probintzi Auzitegiak, 2001eko apirilaren 23ko sententziaren bidez, bi ertzain kondenatu zituela jakin dugu, integritate moralaren kontrako delitu baten egileak izan zirelako (173 CP art.), atxilotu bati biluzarazi eta flexioak eginaraztea tratu iraingarriak zirela pentsatu zelako.

Gorabehera hauek guztiek arazo honetan eta, bereziki, pertsona atxilotuen oinarrizko eskubideen errespetua eta poliziaren funtzioak eraginkortasunez betetzeko baldintzak bateragarri egiteko irizpideen bilaketan sakontzea komeni dela azpimarratu dute.

2. Gorputz araketak

Gure inguruko beste herrialde batzuetan ez bezala, Espainiako ordenamendu juridikoak ez ditu zehazki erregulatu gorputz-kontrolak, eta bere konfigurazioa eta, batez ere, bere mugak lan doktrinazko eta jurisprudentziako lan nekagarri –eta beti lineala ez dena– baten emaitza dira.

2.1. Jurisprudentziaren irizpideen aipamena

Gorputz araketarako arau-kontzepturik ez dagoenez, normalean N. González-Cuellar-ek *-Proporcionalidad y Oinarrizko eskubideak en el proceso penal* (1990):

290- egindako definiziotik ateratzen da doktrina. Honen arabera, gorputz-kontrolak pertsonen gorputzean egiten diren ikerketa-neurriak dira, prozesurako interesgarriak diren gorabehera faktikoak asmatzeko, pertsonaren egoera fisiko edo psikikoa ikusteko nahiz gorputzeko barrunbeetan ezkutaturiko objektuak bilatzeko.

Gorputz araketen sailkapenari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 16ko (STC) 207/1996 sententziak zenbait irizpide ematen ditu salatuaren edo beste baten gorputzean egindako dilijentziak dira, prozedura penal baten testuinguruan egindakoak. Horregatik bereizten du Auzitegiak oinarrizko eskubide kaltetuaren arabera:

a) *Gorputzaren ikuskapen eta miaketak*, atxilotuaren zehazketa egiteko gorputzaren edozein azterketan oinarritzen dira (pertsona beste batzuen artean ezagutzeko azterketak egiteko dilijentziak, daktiloskopiako azterketak eta abar), baita eginkizun zigorgarriarekin lotutako gorabeherak asmatzeko (elektrokardiogramak, azterketa ginekologikoak, eta abar) edo delituaren objektua topatzeko ere (uzkiaren edo aluaren azterketak). Zerrendatze honi, adibidez egindakoa, espetxean egiten diren miaketan erantsi behar zaizkio, eta presondegiko segurtasuna eta ordena gordetzeko edo nork bere burua zauritzeko eta ihes egiteko arriskua saihesteko egiten dira (M.J. Magaldi, “Doctrina constitucional sobre Gorputz araketak en el proceso penal”, CGPJk argitaratua, *Manuales de Formación Continuada* (2000): 117).

207/1996 STCaren arabera, kasu horietan, printzipioz behintzat, ez zaio integritate fisikoaren eskubideari kalterik egiten, normalean ez delako gorputza zauritzen ezta kalterik egiten ere, norberaren intimitatearen eskubidea kaltetua izan badaiteke ere (18.1 CE art.).

b) *Gorputz-kontrolak*, zentzu hertsian, gorputzetik barruko edo kanpoko osagarri jakin batzuk ateratzen dira adituek txostena egin dezaten (odol, gernu, ile, azkazal eta beste osagarri batzuen azterketa), edo erradiozioak ematen zaizkio pertsonari (X izpiak, erresonantzia magnetikoak, eta abar), prozesurako edo presondegian gauza bera lortzeko. Orokorrean, aipatutako jarduerak kaltetzen duten eskubidea integritate fisikoarena izaten da (15 CE art), osasunerako arriskutsua edo gorputzarentzat kaltegarria izan baitaiteke, bere kanpoko itxurarentzat bada ere. Gorputz-kontrol arinak pertsona kaltetuaren osasuna arriskuan jartzen ez dutenak eta minik ematen ez dutenak dira, eta larriak alderantzizko egoera izanez gero.

Azken hitz-tarte hau ikusita, proposaturiko irizpideak -kaltetuaren eskubideaz ari dena- pertsonak bere esparru juridikoan jasotako kontrolaren mailaketa berekin ez dakarrela ematen du, kasu jakin batzuetan, gorputzaren miaketa bat (aluaren azterketa, adibidez) gorputz-kontrol arin bat (listuaren azterketa, adibidez) baino mingarriagoa izan daiteke-eta, honek integritate fisikoa nolabait kaltetzen badu ere.

Gomendio honi dagokionez, hasiera batean gorputzaren inetgritatea kaltetu ez baina intimitatearen eskubidea ukitzen duten ikerketetan jarriko dugu ardura. Aipatutako 207/1996 STCaren arabera, Auzitegi Goren horren doktrina jasotzen duena, oinarrizko eskubide hori pertsonaren duintasunetik dator (CE 10.0 art.), eta “*besteen jarduera eta ezagueraren aurrean norberaren esparru pribatu bat dago, eta beharrezkoa da, gure kulturaren ildoan arabera, gizakiaren bizitzak gutxieneko kalitate bat izan*

dezan” esaldiak adierazten duena dakar berekin (231/1988, 197/1991, 20/1992, 219/1992, 142/1993, 117/1994 eta 143/1994 STCak).

Norberaren intimitatea izateko eskubideak izaera absolutua ez duenez, gorputz-kontrolen bitartez egindako eskubide horien murrizketak justifikazio juridikoa lortzeko behar duten baldintzak mugatzen saiatzen da Auzitegi Konstituzionala. Asmo horrekin gogorarazten du proportzionaltasunaren doktrina, honako baldintza hauek dituena: oinarritzko eskubidea murrizten duen neurria legeak aurreikusita egotea, ebazpen judizial baten bidez erabakia izatea, benetako arrazoi baten ondorioz, eta egokia, beharrezkoa eta neurritzkoa izatea, konstituzionalki zilegizkoa den xede batekin lotuta. Baldintza horietaz gain beste batzuk ere badaude, non integritate fisikoa jokoan dagoen, partehartzea osasun-langileen eskuetan uztea, osasunak inolako arriskurik ez izatea eta neurriaren bitartez tratu anker edo iraingarrik ez ematea.

2.2. Gorputzaren miaketaren dilijentzia

Behin gorputz-kontrolen gaineko doktrina konstituzionala berrikusita, gainetik izanda ere, gogoetaren ardura atxilotuaren gorputzaren miaketaren dilijentzian jartzea komeni da.

Neurri honen gaineko jurisprudentzia, normalean pertsona kaltetua erdizka edo osorik biluz dadin eskatzen duena, oso urria da. Araketa hutsa -printzipioz jantzien gainetik egiten dena- eta gorputzeko barrunbeen ikuskapenaren (ahoarena, uzkiarena edo aluarena) arteko neurri bat delako gertatzen da hori.

Araketari dagokionez -hau da, pertsona jantziaren gorputza eskuez haztatzea-, bere zilegitasuna babesten duten sententzia asko daude eta oinarritzko eskubideak derrigorrez urratzen ez dituela esaten dute. Auzitegi Gorenaren duela gutxiko ebazpenek (99-10-16, 00-03-31 eta 01-05-09 STSak, beste batzuen artean) ibiltzeko askatasunak eta norberaren intimitak kalterik jasotzen ez dutela argitzen dute “*poliziaren jarduerak legearen babesa eduki, zentzuz justifikatua eta proportzionaltasunaren mugetan izanez gero*”. Hala ere, jurisprudentziaren joera batek, doktrinak zalantzan jarri duena, nahikotxo arindu ditu araketa egiteko baldintzak, poliziaren susmo hutsa oinarri nahikotzat hartzera iritsi arte (94-04-27, 94-12-23, 96-02-02 edo 99-04-09 STSak).

Beste muturrean, aluaren edo uzkiaren ikuskapenek gorputzaren intimitatea ukitzen dute derrigor, integritate fisikoari ere kalte egin diezaioke, eta inolaz ere ezin dira epailearen baimenik gabe egin. Gorputzeko barrunbeen araketa horiek osasun langileek egin behar dituzte, gainera, eta leku egokietan egin behar dira, horrela ez bada tratu iraingarria emango baitzaio atxilotuari (15-02ko 94-06-07 STCak eta 37/89 STSak, beste batzuen artean).

Azaldutako bi muturren artean, ebazpen judizial batzuk atxilotuaren gorputzean objektu ezkutuak bilatzeko poliziaren partehartzeen mugak erabakitzen saiatu dira. honi dagokionez, zeharo argia da pertsona atxilotuari biluzarazi eta flexioak eginaraztearen neurria tratu laidogarriztat hartu eta debekatzen duen jurisprudentzia, aluan edo uzkiaren ezkatututa eduki dezakeena botarazteko (adibidez 96-05-11, 98-26-06 eta 99-02-17 STSak, edo 57/94 STCa, 28-02koak).

93-01-15eko STSak -doktrinaren iritzi batzuetan kritikatu- ahoaren miaketa araketa hutsarekin edo azaleko ikuskapenarekin parekatu, eta norberaren intimitateari eraginik

ez diola egiten esaten du. Hala ere, 01-06-01ko duela gutxiko sententzian, Auzitegi Goren berak kontrako joera hartzen duela ematen du. Droga erosi duenari poliziaren bulegoetan oka eginaraztea irentsi duen papelina botatzea lortzeko, kaltetuak baimena askatasunaz baimena ematen ez badu poliziak zilegiki egin ez dezakeen gorputz-kontrol bat dela ezartzen du. Aztertutako kasuan ez baitzen baimen horri buruz ezer adierazten, froga legez kontra lortu dela pentsatzen du Auzitegiak eta, ondorioz, indargabetu egiten du, estupefaziente-trafikoarengatik prozesatuaren absoluzioa lortuz. Aipatutako ebazpenean polizi agenteek bilduki zigilatua botarazteko maniobraren bat egin zutela ez zela frogatzen argitzea komeni da; alderantziz “*lekukoak bere buruari oka eginarazi ziola*” dio Auzitegiak, eta “*inork ez du lekukoaren gorputza ukitu*” esaldia eransten du, baina epaileak baimendu ez duen gorputz-kontrol baten bidez lortu da froga.

Eskubideak defendatzeko erakunde honen ikuspegitik, 207/96 STCak hartutako ildo bermatzailetik doa aipaturiko ebazpena, eta muga zorrotzak ezartzen dizkio eta atxilotuen intimitate edo integritate moralaren eskubideei eragiten dieten jarduera polizialei.

Lehenago esan den moduan, geroago gorputz-kontrolik edo tratu iraingarririk ez duten miaketa pertsonal biluzidunen dilijentzien gaineko sententzia gutxi daude. “Araketa sakon” antzeko bat delako da ere bai, eta dilijentzia honek delituak leporatzen dituzten frogarik ez duela lorrarazten izan daiteke pronuntziamentu faltaren beste azalpen bat. Izan ere, pertsona susmagarriak eroan ditzakeen objektu edo substantziak polizia-etxera joan aurretiko azaleko araketaren bidez edo beste gorputz-kontrol sakonagoen bidez aurkitzen dira. Horregatik -horrela pentsatzen dugu- polizia-etxeetan jartzen biluzteko aginduaren zilegitasuna ez da askotan zalantzan jartzen auzitegietan.

Edozein modutan, dagoen jurisprudenzia arduratzen agituen jarduera polizialari egokitu ahal zaizkion irizpideak ekartzen dituela pentsatzen du Arartekoak.

3. Poliziaren jardueraren ondorio eta jarraibideak

Bistakoa da, eta ebazpen judicial batek ere ez du zalantzan jarri, pertsona bat beste pertsona batzuen aurrean biluztera behartzeak intimitatearen urratze bat dakarrela berekin. Hori esaten dute zehazki 24-07ko 96-05-11ko STSak eta 204/00 STCak. Oinarrizko eskubide hori sakrifikatzearen zilegitasuna proportzionaltasuneko irizpideak eskatutako baldintzak badaude bakarrik aldarrika daitekeela esan nahi du horrek. 207/96 STCak jasotzen du irizpide horren edukia, 2.1. atalean aipatu duguna. Doktrina hori gorputzaren miaketaren neurriari egokitzen saiatuko gara jarraian:

- a) Konstituzionalki zilegi den xedea:** Konstituzioak norberaren intimitatearen eskubidea zilegiki murrizteko aukera ez badu aurreikusten ere, bistakoa ematen du eskubide absolutu bat ez dela. horri dagokionez, errepikatzen dugun 207/96 STCak “*delitu baten berezko interes publikoa, eta, zehatzago, prozesu penalerako gertaera garrantzitsuen zehazketa gorputz-kontrol baten zilegizko arrazoia izan daitezke, Legeak neurri hori aurreikusita duenean, behintzat*” hitzak esaten ditu. Hurrengo epigrafean ukituko dugu azken baldintza hori, arazo nabariak sustatzen dituena, baina garrantzia duen -erakunde honen ustez-xehetasun bat azpimarra dezagun.

Bistakoa da ikerketak azpian eta legez kontrako jarrerak zigortzeak daukan interes orokorra. Gorputzaren miaketak, atxilotuari guztiz biluzaraziz, ez du beti delitua gauzatzean erabilitako objektua edo tresna bilatzeko helburua. Ohizkoa da jabetzaren kontrako jarduerak ikertzen direnean (lapurretak, ebasketak, kalteak...) edo osasun publikoaren kontrako delituak ikertzen direnean ere (droga-trafikoa), baina beste kasu askotan polizien bulegoetan sartu aurretik aurkitu da delituaren gorputza, edo atxiloketa eragin duen delituak ez du inolako objekturik behar.

Azken hipotesi honek erakarri du gure ardura. Zenbait kasu daude -2001eko azken hiruhilekoan bi ezagutu ditugu- non poliziak pertsona bat atxilotzen duen eskatu zaionean identifikatzeari uko egin diola iruditzen zaiolako. Hori izan zen ere bai Ertzaintzak alegatutako arrazoia Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak tratu iraingarria sumatu zion atxiloketarentzat. Erakunde honek askotan azaldu du bere irizpidea, eta honen arabera ustezko desobedientzia horrek atxiloketa justifikatzea oso zalantzazkoa da, Epaitegiak faltatzen hartzen baitu jarrera hori-izaera penala izatekotan-, eta jakina da 495 LECrim artikulua faltengatik atxilotzea debekatzen duela. Identifikatzeari ustez uko egiteagatik askatasuna kautelaz kentzearen zilegitasuna zalantzazkoa bada, are gehiago biluzaraztearena eta horrekin bilatzen den helburua ere.

Izan ere, bistakoa dirudi kasu hauetan -eta delituaren objektu edo tresnarik ez dagoen beste askotan- gorputzaren miaketaren xedea ez dela ikerketa ezta delituaren frogak bilatzea ere. Atxilotu beraren eta polizia-etxean dauden beste pertsonen segurtasuna izaten da kasu hauetan ematen den justifikazioa. Hau da, legez kontrako edo norik bere burua zauritzeko jarrerak prebenitzea da kontua, baita komisariako ordena eta segurtasuna gordetzea.

Jakina, helburu hori zilegizkoa dela uste dugu, eta horrela adierazi dute auzitegiek presondegiei buruzko hamaika sententzietan, eta zaintzen dituzten pertsonen bizitza eta osasuna babesteko beharra dute poliziek (01-3-1eko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren sententzia (EGEA), Bertkay Turkiaren kontrako kasuan). Baina helburu hau ez dator delituen ikerketarekin bat, eta bere oinarriak behar ditu.

b) Legearen babesa: Gorputz-kontrolen aurretik legearen baimena izateko beharra onartu du Auzitegi Konstituzionalak, Europako Giza Eskubideen Hitzarmenak (EGEH) 8.2 artikulua eskatzen duen moduan, intimitatearen eskubidea eranstean du EGEAren jurisprudentziak. Hala ere, gure sistema juridiko penalean gorputz-kontrolerako aurreikuspen legalik ez dagoenez, arazoa konpontzen saiatu da Auzitegi Goren hori, adibide gisa aurrekoetan onartutako gaikuntza legaleko hipotesiak ezarriz, baita babes legal nahikorik ematen ez duten arauak ere (37/89 eta 207/96 SSTCak ikusi). Jakina, arazoa konpontzetik urrun dago, arduratzen gaituzten eskubideen murrizketentzako oinarri legala izan daitezkeen arauen zerrendatzea ez baita oso sakona. Doktrinaren artean, egile bat baino gehiagok jartzen du benetako babes legal baten existentzia zalantzan.

Gorputzaren miaketei dagokienez, Segurtasun Gorputz eta Indarren 2/1986 Lege Organikoaren (SGILO) 11.1 f) eta g) artikulua eta Hiritarren

Segurtasunaren Babesari (HSB) buruzko 1/1992 Lege Organikoaren 18tik 20ra arteko artikulua hartu dira aurreikuspen legaltzat. Espetxeetan dauden presoek araketa eta guztiz biluzteari dagokienez, Presondegietak 1/1979 Lege Organiko Nagusiaren 23. artikulua eta Presondegietak Arautegiaren (PA) 68. artikulua aipatzen dira. gure ustez, eta atxilotu baten egoera eta preso batena berdina ez bada ere, azken arau hauek nolabaiteko oinarria -baina ez guztia- eman diezaioke lehen aipatutako kasuei, non gorputzaren miaketaren helburua ez den delitaren objektua aurkitzea. SGiLOaren 5.3 b) artikulua ere izan daiteke gorputzaren miaketarako oinarri legal bat, honako hau esaten baitu: *poliziek "atxilotu edo zaintzen dituzten pertsonen bizitza eta integritate fisikoa zaindu eta pertsonen ohorea eta duintasuna errespetatuko dute"*.

c) Baimen arrazoitua: 18 CE artikuluan jasotako beste oinarrizko eskubideekin gertatzen ez den bezala, Konstituzioak ez du norberaren intimitatearen guztizko erreserba ezartzen. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalaren arabera, gorputz-kontrolak zilegiki egiteko epailearen baimena behar da aurretik, 207/STCa honako hitz hauek esaten dutenaren kontra ez badago ere: *"Larrialdiak eta beharrak eraginda, Legeak ikuskapen soil bat egiteko edo gorputz-kontrol arin bat egiteko baimena ere eman dezake, proportzionaltasun eta zentzuzko hastapenen baldintzak beti errespetatuz"*.

Atxilotuari guztiz biluzarazita gorputzaren miaketei dagokienez, behin neurriaren beharra eta proportzionaltasuna egiaztatuta, larrialdiko arrazoiak beti daudela ematen du, polizia-etxean sartu bezain pronto ez badira egiten, ikuskapenak zentzu guztia galtzen baitu.

Auzitegi Konstituzionalak gorputz-kontrola erabakitzen duen organo judicialari inposatzen dion arrazoa emateko beharrari dagokionez, bistakoa da lehen aipatutako kasuetan partehartzea egitea erabakitzen duen polizi funtzionarioarentzat berdina dela. behin eta berriz aipatutako 207/96 STCa arrazoa *"proportzionaltasuneko arauaren baldintza formal bat dela"* azaltzen du, kaltetuaren oinarrizko eskubideak eta bilatzen den interes orokorraren arteko zentzuzko parekatzea azaldu egin behar delako.

Gomendio ezberdinen bitartez esan dugun bezala, Herriaren Defendatzaileak proposaturiko aholkuekin bat, neurria hartzeko poliziaren erabakia, bere arrazoiarekin batera -labur bada ere- idatziz jaso egin behar da, geroago bere egokipenaren kontrola egin ahal izateko.

d) Proportzionaltasun irizpidea: Orain arte aipatutako baldintzek gorputz-kontrolaren legaltasunaren testuinguru orokorra osatzen dute eta, bereziki, arduratzen gaituenarena. Atxilotuari guztiz biluzarazita egiten den gorputzaren miaketa jakin baten zilegitasunak proportzionaltasun hastapenak zentzu hertsian eskatzen duena betetzea eskatzen du. 207/96 STCaren arabera, honako hau eskatzen du hastapen hori errespetatzeak:

- Neurria *"egokia (aproposa) izatea konstituzionalki bilatzen den zilegizko helburua lortzeko (EGEHaren 18. art.), hau da, prozesuaren objektu penala osatzen duten ekintzak zehazteko objektiboki balio izatea"*.

- “*horretarako beharrezkoa edo ezinbestekoa izatea, hau da, neurri arinagorik ez izatea, integritate fisiko eta intimitatearen eskubideak sakrifikatu barik edo neurri txikiagoan sakrifikatuz, aipatutako helburua lortzeko berdin balio duten neurririk, alegia*”. Azterketaren mamia osatzen du beharraren irizpide honek. gertatzen diren gorabeheren baloratzea eskatzen du (pertsonaren ezaugarriak, leporatutako ekintza, atxiloketaren bilakaera, eta abar), aurretik hartutako erabaki orokor bat ezin da onartu (adibidez: droga-trafikoarekin lotutako edozein atxilotu biluztea).

Helburu bakarra atxilotu beraren eta polizien segurtasuna gordetzea den kasuetan, beharraren irizpidea zorrotzago bihurtzen da. Biluzia ikerketarako tresna bat ez denez, neurri hori atxilotua oso arriskutsua delako bakarrik onar daiteke, leporatzen zaion delitutik edo atxiloketan izan duen jarreratik ondorioztatu behar da arriskua. Edozein modutan, beste neurri batzuk ere badaude -poliziaren zaingo zorrotzagoa, esate baterako- norberaren intimitatea kaltetua ez izateko.

- “*Egokia eta beharrezko izanda ere, eskubideen sakrifizioa ez izatea handiegia ekintzen eta susmoen larritasunari dagokionez*”. Zuhurtasun honek neurriak dakarren onura atxilotuaren eskubideek jasaten duen kaltea baino handiagoa eskatzen du. Pertsona kaltetuaren egoera zehatza kontuan hartu behar dela dio jurisprudentiak, leporatzen zaizkion ekintzen garrantziari eta delituaren larritasunari dagokienez, baita gorputz-kontrolak izan ditzakeen ondorioei dagokienez ere.

Zentzu honetan, lehen aipatutako atxiloketak, non poliziei apur bat desobeditzeagatik atxilotuari biluzarazten zaion -gure ustez, eta arau orokor bezala- oso desorekatuak dira, eta intimitate eta integritate moralaren eskubidea neurririk gabe kaltetzen da. Ez da ahaztu behar, gainera, poliziaren funtzionarioek gehien alegatutako arrazoia atxilotu beraren segurtasunean oinarritzen dela (bere burua zauritzea saihestea), beraz ez dauka logikarik bere eskubideei kalte egitea bere ustezko babesari on egiteko.

Edozein modutan, atxilotuari biluzarazita egiten den araketa ezin da sekula ere izan atxiloketari erantsitako zigor gisa, ezta pertsona atxilotuaren indar morala iraindu edo hondatzeko tresna gisa ere.

e) Giza duintasunaren errespetua gorputza miatzeko moduari dagokionez:

Atxilotuaren gorputzaren ikuskapena ezin da edozein modutan egin; ezin da izan pertsona kaltetuaren duintasuna hondatzeko tratu laidogarria. Hainbat sententziek azaldu dituzte araketak intimitatea gorde dezan izan behar diren baldintzak. 00-03-31 eta 01-05-09ko STSek sexu bereko norbaitek egin behar duela zehazten du, baita “*araketaren sakontasunaren arabera, leku baztertu batean egin behar dela*” ere.

Azken aholku honetatik -gure ustez- bi ondorio atera daitezke: 1) Pertsona susmagarriari kalean egindako miaketa (araketa) azalekoa besterik ezin da izan eta sekula ere ezin da inori biluzarazi -ezta erdizka ere-, ezta atari batean egiten bada ere (beste batzuen artean, 89-10-05eko STSk laidogarriztat hartutako jarduera). 2) Jantziak kentzea eskatzen duen gorputzaren miaketa polizia-etxean gertatuz gero, modu nahiko ezkutuan egin behar da. PAren 68.3 artikulua,

presondegietako miaketa pertsonalei dagokienez, “*leku itxi batean, beste presorik egon gabe eta ahal den heinean intimitatea gordez*” egin behar direla esaten du. Irizpide hauek, analogiaz, poliziaren atxiloteketei egokitu ahal dira, presondegietako zaingo epaitegien jurisprudentziak ezarritako beste berezitasun batzuen kasuan bezala, besteak beste, biluztasuna erakustea saihesten duen jantziren bat (kapa bat edo txabusina bat) erabiltzea, edo miaketa funtzionario bat baino gehiagoren aurrean ez egitea, eta abar. Ez du beharrezkoa ematen jurisprudentziak aho batez esan duela pertsona biluzi bati flexioak eginaraztea integritate moralaren kontrakoa dela eta hortaz, bere oinarrizko eskubideak urratzen dituela.

Orain arte azaldu denetik, zenbait ondorio eta jokabide ateratzen dira eta -gure ustez- baliagarriak izan daitezke Ertzaintza eta Udaltzaingoaentzat:

1. Atxilotuari biluzarazita egiten den gorputzaren miaketa ezin da ohizko jarduera bat izan, atxilotetetan sistematikoki erabiltzeko. Norberaren intimitatearen eskubideari kalte egiten dion gorputz-kontrola izanik, proportzionaltasun irizpidearekin bat erabaki behar da erabiltzea. Hau da, zilegizko helburua lortzeko egokia izan behar du neurriak, beharrezkoa izan behar du -beste neurri arinago eta kalte gutxiago egiten dutenak ezin dira egon-, eskubidearen sakrifizioa lortzen den baliagarritasunarekin bat etor dadin. Jakina, proportzionaltasun irizpideak gorabeheren azterketa zehatza eskatzen du, eta delitu motari bakarrik begiratzea ez da nahikoa. Zentzu honetan, neurriaren beharra eta neurketa helburuaren mende daude, eta hau zaindutako pertsonaren segurtasunarekin lotzen denean, oinarrizko eskubideei kalte gutxiago egiten dieten baliabideak erabili beharko dira.
2. Kasuaren gorabehera zehatzen azterketa eta proportzionaltasun irizpidetik ateratako ondorioak idatziz jaso beharko dira, eskubideen murrizketaren arrazoi gisa. Arrazoitze hori laburra izan daiteke, baina sekula ere ezin da izan “argudio eredu” baten errepikapen idatzia, Auzitegi Konstituzionalak eskatutako baldintzak modu orokor eta abstraktuan jasotzeko.
3. Atxilotuari biluzarazita egiten den gorputzaren miaketa ezin da polizia-etxetik kanpo egin. Atxilotetaren kasuan, gorabeherak ezinbesteko bihurtzen dutenean, pertsona atxilotuaren duintasuna ahal den heinean errespetatuz egingo da, atxilotuaren sexu bereko polizi batek egingo du, leku itxi batean, eta biluztasuna erakustea saihesten duen jantziren bat erabiliko da. Inola ere ez zaio behartuko mugimenduak egitera edo tratu laidogarrizat har daitezkeen jarrerak hartzera.

Poliziek ezin dituzte zaindutako pertsonaren gorputzeko barrunbeak ikuskatu, epailearen baimena eskatu behar dute gorputza begiratzea baino sakonagoa den edozein ikuskapen egiteko.

Argiketari gorputzaren miaketa egin den modua zehatz-mehatz agertzea komeni litzateke, normalean poliziaren dokumentazioari akta bat eransten zaionez, interesdunak

sinatuta, ziegan sartzean kendu dizkioten objektuen zerrendaz, ez du konplikaturik ematen akta hori handitzeak, miaketarik egin den eta eginez gero ze jantzi kentzera behartu duten atxilotua.

3. IKASTETXEETAN DAUDEN KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO HARTU BEHARREKO GUTXIENEO SEGURTASUN NEURRIAK ARAUTU BEHAR DIRA

Autonomia Erkidego honetako adingabeko batzuek azken urteetan istripuak izan dituzte, batzuetan tamalgarriak izan direnak, ikastetxeetan eta polikiroldegietan jarritako kirol-ekipamendua ez zegoelako behar bezala erantsita lurrari edota hornei (futboleko ateak, saskibaloiko saskiak...).

Istripu horiek eskola-orduetan izan dira, gorputz-hezkuntzako orduetan, ikasleek kirol egiten zuten bitartean edota kirol-instalazioetan jolasean ari zirela.

Gainera, normalean, paradoxa legez, ikastetxeko edo polikiroldegiko kirol-ekipamendua osatzen duten elementuek Erkidegoko eta Estatuko legeriek tankera horretako tresnentzat ezarri dituzten homologazio- eta normalizazio-arauak betetzen zituzten. Alabaina, izan diren istripuek agerian utzi dute neurri osagarriak behar direla osagai horien erabilera beti segurua izan dadin adingabekoentzat.

Ez dugu ezkutatu behar istripu horiek gehienetan gertatzen direla kirol-ekipamenduak era ez egokian erabiltzen direlako edo, besterik gabe, dagokien erabilerarako ez baizik eta beste baterako erabiltzen direlako. Beraz, normalean kalteak izaten dira adingabekoak ateetatik edo saskietatik zintzilikatzen direlako, horiek lurrari tinko finkatuta ez daudelako edo kontrapisurik ez dutelako, eta, horrenbestez, hurrek egindako bultzadaren ondorioz edota hurrek berek duten pisuaren eraginez, ekipamendua gainera erori eta kolpatzen dituelako.

Alabaina, ikastetxeko irakasleei edo jardueren arduradunei leporatu ahal zaizkien *in vigilando* erantzukizunei kalterik egin gabe, arduera antolatua izan bada, ezin da ahaztu hurrek, ikaste-aldian, sarritan esperimentatzeko beharra izateaz gain, ondo neurtu gabeko kalkuluak hartzen dituztela euren gain.

Horregatik, ekipamenduen erabilera horiek ez egokiak izan arren, horrek ez du esan gura ez direla aurrez ikusi behar eta, hortaz, ez dela ahaleginik egin behar erabilera oker horiek eragin ditzakeen kalteak saihesteko, dela horretarako neurriak hartuz, dela haurrak babesteko osagaiak erabiliz, arriskuak aurreikusteko eta mugatzeko eta, era berean, haurrak babesteko lesioak eragin ahal dizkieten istripu eta ezbeharretatik.

Kirol-ekipamenduen segurtasun-maila balioesteko, ekoizkina erabiltzeko irizpidea hartu behar da aintzat, baina, era berean, agingabekoak ekoizkinaz egingo duen erabilera ere aurrez ikusi behar da. Horren ondorioz, segurtasuna aztertzean, hurrek normalean duten portaera kontuan hartu behar da, eta kontua da hurrek normalean ez dutela erabiltzaile helduek izaten duten batez besteko ardura-gradua.

Izan diren istripuak ikusita, lehenengo erantzun gisa, osagai mugikor guztiak lurrari tinko finkatzea edo ainguratzea izan da joera orokorra, arriskuak saihesteko neurri legez. Alabaina, kantxa bera hainbat kirolearako erabili ohi denez, agerian geratu da irtenbide hori ez dela egokiena; izan ere, osagai hori, mugikorra denez, toki batetik bestera garraiatu behar da, kantxan beste kirol bat egin behar denean. Halaber, badirudi ateak, saskiak... instalazioen bazter batean aldi baterako jartzen badira, gutxieneko segurtasun-neurriak ere bete behar direla, toki batean jarri nahiz bestean jarri, behin-behinean jarri arren, adingabekoek jolaserako erabiliko dituztelako eta haien jolaserako gogoia piztuko dutelako.

Orain indarrean dagoen hezkuntzako eta kiroleko legeriak ez du aintzat hartu aztertzen dihardugun gai hau.

Horrela, bada, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Herriko Kirolarenak, gure Autonomia Erkidegoan kirol-praktika arautzen duenak, eskolako kirolaren gaiari ekiten dio, hau da, ikasleek derrigorrezko eskolatze-aldian eskola-orduetatik kanpo egiten dituzten kirol-jarduera antolatuei, eta batez ere botere publikoek praktika hori sustatzeko egin dituzten jardueretan oinarritzen da.

Ikastetxean kirolean jarduteak adingabekoei egiten dizkien onurak ezagunak dira: ona da baldintza fisiko eta osasuneko egokiak izateko, adingabekoaren nortasunaren garapen harmonikorako, adingabekoaren eskola-hezkuntza osatzeko eta, orobat, ikasle minusbaliatuak euren ikasketa-kideen artean bertakotzeko.

Arauek ezarri duenari jarraituta, kirol-jarduerak kirol askotarako izaera izango du lehentasunez eta ikastetxearen bidez egituratuko da. Bestalde, arauak ezarri du udalek ere ikastetxeei eta foru-aldundiei laguntza eman behar dietela, eta laga behar dizkietela udaleko kirol-instalazioak, eskola-kiroleko programak ondo bete ahal izateko.

Hala, bada, legearen arabera, eskola-kirola lehentasunez egin behar da –euren ezaugarriengatik– kirol askotarako erabilgarriak diren instalazioetan; hori kontraesanean egon daiteke orain arte izan diren segurtasun-neurriekin, esaterako, kirol-ekipamendu mugikorra lurrari ainguratzearekin. Bestalde, nabaria da toki-erakundeek gai horretan duten protagonismoa, batez ere udalek, eurek instalazioak lagata laguntza ematen dute-eta. Alabaina, euren ekarpena ez da mugatuko instalazioen erabilera lagatzera; izan ere, Hezkuntza Administrazioaren menpeko haur-hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxeetan, udalek dute eraikinak eta ekipamenduak gordetzeko, mantentzeko eta zaintzeko ardura, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrenak, 17. xedapen gehigarrian ezarri duenaren arabera. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, zeregin horiek Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna dira.

Gai horiekin kezkatuta zegoenez, Arartekoak 1997an txosten monografikoa egin zuen, haur-jolaserako guneeetako segurtasunari eta istripuen prebentzioari buruzkoa. Txostenean, Legebiltzarreko mandatariaik segurtasunerako irizpideak jaso zituen, Kiroletako Kontseilu Gorenak jarraitzen dituenak, oro har, kirol-instalazioak eraikitzeke eta, bereziki, eskolako kirol-instalazioak egiteko. Irizpide horiek, kantxei dagokienez, hauexek dira:

- *Aretoaren hormetan ez da ertzik edo konkorrrik egongo. Horrelakoak egon behar badira nahitaez, bigungarria behar bezala jarriko da.*
- *Segurtasun-banden gutxieneko neurriak (kirol-zelaiaren markaren amaiaeren eta edozein oztoporen arteko distantzia), instalazioko hormei dagokienez, Kiroletako Kontseilu Gorenaren NIDE arauak zehaztu dituztenak izango dira.*
- *Aretoko hormak lauak eta zimurrik gabekoak izango dira, eta ez dira urragarriak izango.*
- *Zorua malgua izango da eta absortzio-gradu jakin bat izango du jaiste-inpakturako, lesio gutxiago egon dadin.*
- *Zorua azalera horizontala izango da, guztiz laua, irtengunerik edo koska txikirik gabekoa, eta pitzadurarik gabekoa. Ez da labaina ez urragarria izango.*
- *Ainguraketak lurlean sartuta egongo dira. Ez dira lurzorutik aterako, eta estalkiak finkoak izango dira eta horiek ere ez dira lurzorutik aterako.*

- *Sala argiztatzen duten beirateak beira tenplatukoak izango dira, eta hauskaintzak izango dira edota babes-sareak izango dituzte ez apurtzeko.*
- *Pistako argiak estankoak izango dira, eta lanpara beira tenplatuz estaliko da.*
- *Ekipamendu finkoa (saskiak, atea, boleiboleko zutoinak, horma-barrak, igotzeko sokak eta bereizte-gortinak) osagai gogorrei ainguratuta egongo da, eta istripuak saihesteko behar diren zamei eutsiko die. Bereizte-gortina, plastikozkoa izaten denez, suaren aurkakoa da.*
- *Ez dago sabai faltsurik, pilota batek joz gero erortzeko arriskua egon daitekeelako, eta kirol-erabileraren ondorioz hondatu egiten delako. Horrelakorik nahitaez egon behar bada, babes-sareak jarriko dira.”*

Jurisprudentziak ere aztertu du ikastetxeetan jarritako kirol-ekipamenduen arazoa, zuzenean egin ez badu ere; hain zuzen, instalazioak era ez egokian erabiltzeak eragindako istripuak izan direnean erantzukizuna norena izan den eztabaidatzeko prozeduretan egin du.

Lehen jurisprudentziak adingabekoaren portaera ez egokiari leporatu zion eragindako kaltearen erantzukizun osoa [Kataluniako JANS (administrazioarekiko auzietako sala), 1997ko ekainaren 12koa (RJCA 1997\1174)]; ostera, bada jurisprudentziako beste bide bat lesioetan erruen konkurrentzia izan dela onartzearen alde dagoena, nahiz eta horiek kirol-ekipamendua modu ez egokian erabiltzearen ondorioz gertatu. Argudio horren atzean, Administrazioari erantzukizuna leporatzeko nahia dago, zeren, aurretiaz, horrek ez baitu neurririk hartu ekipamendu horren erabileraren arriskuak kentzeko.

Hemen ardura digun gaiari joz, epailearen erabaki horietan segurtasunezko neurri onargarriak hartzeko eskakizuna ezarri da. Horrela, bada, Andaluzia-Sevillako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak, 1999ko irailaren 16an emandako epaian, hauxe zioen (RJCA 1999\4000):

“Erraz-erraz amaitzeko, esan gura dena da ez zegoela torlojuekin edo bestelako euskarriekin finkatuta, kirola normal egin ahal izateko moduan. Oinarrian harriak jarrita zeuden, baina hori oinarrizko baliabidea da, jokalariek berek, hurrek berek asmatutakoa; eta, horrek ez dio erantzukizunik kentzen lursailaren jabeari, ez jolasak herriko bideetan segurtasunezko baldintza onargarrietan egiteko ardura duenari”.

Ildo horretan, Andaluzia-Granadako JANS-k (Administrazioarekiko Auzietako Salak), 1999ko abenduaren 28an, hauxe zioen (RJCA 1999\4222):

“...ez da hartu beharreko segurtasun-neuririk hartu pista erabiltzean inork kalterik har ez dezan, eta horren erantzukizuna Udalari leporatu ahal zaio zuzenean. Polikiroldegi horretan jarritako areto-futboleko ateen ez zituzten behar ziren segurtasun-gailuak lurrera ez jausteko (nahikoa zen ainguratzeko sistema edo finkatzeko sistema bat jartzea, toki batetik bestera garraiatzeko aukera emateaz gain, aldi berean, geldiaraziko zuena, atearen aurka inpakturik egonez gero edota kulunkatuz gero); horrenbestez, amaitzeko, esan beharra dago segurtasun-neurri oinarrizko hori ez hartzeak eragin dituen kalteak

Udalak egindako zerbitzu publikoaren funtzionamendu ez ohikotzat hartu behar direla, eta, beraz, udalaren ondarezko erantzukizuna deklaratu behar dela.”

Administrazioari erantzukizunaren zati bat bizkarreratu zaio, kirol-ekipamendu mugikorren erabilera ez egokia heldu baten jarduera arduragabearen ondorioa denean ere bai. Hori da, hain zuzen, Auzitegi Nagusiaren Zibileko Salak 2000ko urriaren 6ko epaian aztertu zuen kasua (RJ 2000/8136). Kasu horretan Auzitegi Nagusiak hauxe azpimarratu zuen:

“Alegatua ez da onartu, zeren **aldi baterako instalazioek, denboraldi jakin baterako izaten direnak, ez baitaude horregatik salbuetsita gauzetan edo pertsonengan kalterik egon ez dadin bete beharreko segurtasunezko neurriak bete behar izatetik, eta, gainera, aldi baterako direnez, segurtasunezko neurriak indartu behar dira.**

Autoen kasuan, atearen kokaera bera arriskutsua zen, eta hori Udalarentzat arriskutsua zen baina ez zen ezezaguna, eta arduragabekeriak jokatu zuen, arriskuari eutsi zion-eta; izan ere, atea lokalaren bazter batean utzi besterik ez zuen egin, eta, herritarrek askotan erabiltzen zuten arren, ez zuen arretazko neurririk hartu; alabaina, egin ahal zuen, eta jokatzeko erabiltzen ez zenean era eraginkorrean gauzaez bihurtu, erraz-erraz, esaterako, lurlean etzanda jarriz era seguruan (...).

Biktimaren errua hautemateko bakarrik, ondo frogatuta egon behar da biktimaren jokaera bakarrak eta borondatezkoak eragin zuela gertaera, baina ez da horrela izan, zeren errekurtsoko epaiak ez baitu albora uzten hildakoaren jarduera okerra; izan ere, areto-futboleko ate bat ez da elementurik egokiena gimnasia egiteko; hortaz, erruen konkurrentzia hauteman zuen, eta, ondorioz, kalte-ordainen ‘quantum’-a moteldu zuen; baina hasierako portaera hori egonagatik, errekurtsoa egin duen Udala ez da bat ere errurik gabe geratzen, gertatu zen heriotzarekiko, aztertu denaren harian.”

Epai honek aipatzen duen istripua Huarte Arakilen izan zen 1993an, eta haren ondorioz Nafarroako Gobernuak uztailaren 15eko 272/1996 Foru Dekretua –kirol-ekipamenduak erabiltzeko segurtasunezko neurriak arautzen dituen– onartu zuen (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 102, 1996-08-28). Arau horrek hiru ardatzen arabera egituratzen ditu ekipamendu horiek erabiltzeko gutxienezko segurtasun-neurriak: titulartasun publikoko ekipamenduen instalazio eta mantentze-lan egokia ziurtatzeko neurriak, segurtasun-eskakizunak eta instalazioetako titularren erantzukizuna zehaztea, eta, azkenik, aurrea hartzeko neurriak.

Kirol-ekipamenduak bete behar dituen eskakizunei eta baldintza teknikoei dagokienez, Nafarroako Foru Dekretuak bestelako berme-araubidea ezartzen du, ekipamenduaren izaeraren arabera. Horrela, bada, baldintza orokorrak finkatzen ditu, hala ekipamendu finkorako nola mugikorrerako, eta neurri horiek osatzeko, neurri osagarriak ere finkatzen ditu, jarriko den ekipamendua izaera mugikorra denean aplikatzeko.

Baldintza horiek hauexek dira hain zuzen:

“A) Mota guztietako ekipamendu finkoek eta mugikorrek bete beharreko eskakizunak eta baldintzak:

- 1. Zurezko materialek ertz biribilduak izango dituzte, lesiorik sor ez dadin, eta modu berezian tratatuko dira gogortasun-maila egokia izan dezaten.*
- 2. Metalezko materialak herdoilaren aurkako inprimazio-geruzekin tratatuko dira.*
- 3. Azaleko tratamenduek ez dute hondatuko estatiko duten materiala.*
- 4. Zurak eta aglomeratuak gogortasun- eta segurtasun-baldintza egokikoak izango dira, eta tratamendu berezia izango dute, erraz hondatu ez daitezen.*
- 5. Torlojuei, oro har, zink-bainua, korrosioaren aurkako galbanizatua edo antzeko tratamenduak egingo zaizkie, ekipamenduei ondo lotuta egon daitezen, erabiltzaileei arriskurik sortu barik.*
- 6. Hodietako metalezko egiturek inpaktuei eusteko gogortasun handia izango dute.*
- 7. Kirol-ekipamendu mugikorrek kokatutako lurak edo zoruak behar den erresistentzia eta sendotasuna izango du, tankera horretako ekipamenduei eta, hala behar bada, ainguraketei era egokian eusteko behar beste.*

B) Ekipamendu mugikorrek bete beharreko eskakizunak eta baldintzak.

- 1. Kirol-ekipamendu mugikorrek kontrapisuko sistemak eta antzeko tresnak edukiko dituzte, era egokian erabiltzekoak eta erabilerara ohikoan iraultzerik egon ez dadin. Iraultzeen aurkako kontrapisuek eta finkatzeko gainerako osagaiek ez dira erraz desegiteko modukoak.*
- 2. Kirol-ekipamendu mugikorren ainguraketak sendoak eta gogorrak izango dira, eta ondo orientatuta finkatuko dira.*

C) Artikulu honek xedatutakoa ezarriko da, Estatuko eta Europako kirol-ekipamenduaren homologazio- eta normalizazio-arauei kalterik egin gabe.”

Gure Autonomia Erkidegoan, ez da orain arte zehaztu zein segurtasun-neurri hartu den kirol-ekipamenduak erabiltzeko, eta, beraz, une honetan hori guztia gure toki-erakundeen gogo onaren arabera dago.

ONDORIOA

Gomendio honek ohartarazi nahi du Autonomia erkidego honetako arauetan hutsune bat dagoela hain korapilatsua den gai honetan, hau da, haurren babes pertsonalean jolasari eta kirol-praktikari dagokienez.

Autonomia Erkidego batek edo bestek, esaterako, Nafarroako Foru Erkidegoak, arazko erantzuna eman die, segurtasunari dagokionez, kirol-ekipamenduaren erabilerari; eta hori erreferentia izan daiteke gaur –esan dugunez– egiteke dagoen zeregin horri ekiterakoan.

Gure toki-erakundeek oso jarrera ona izan dute aurretik kirol-instalazioak erabiltzeko segurtasunaren arloan izan diren eskaerei erantzuterakoan. Alabaina, gure iritziz, aldi

hori gainditu beharra dago, eta behin betiko zehaztu behar dira kirol-ekipamendua erabiltzeko segurtasunaren oinarrizko arloak.

Hartu beharreko segurtasun-neurriak identifikatzea, ekipamenduak era egokian mantentzea, babesteko neurriak nola antolatuko diren zehatzea... horiek izango dira gure toki-erakundeen jardueraren esparrua, ez baitugu ahaztu behar eurak direla gai honetan gehien nabarmentzen direnak.

4. **BERDINTASUN-BALDINTZETAN, FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO ESKUBIDEA: ADINAREN ARABERA MUGAK JARTZEKO AUKERA**

Sarrera

Jakina denez, herritar askok interesa izan dute, EAE-ko polizia-kidegoetan sartzeko. Eta herritar horietako batzuek erakunde honetara jo dute, zalantzan jartzen dituztelako, polizian sartzeko betekizunen artean, adinari buruz ezarri direnak. Euren ustez, adinari buruzko betekizun horiek ez dira bidezkoak.

Administrazioek prozesu horietarako deialdiak egin dituztenean, betekizun edo baldintza zehatz batzuk ezarri dituzte, funtzio publikoan sartzeko. Betekizun edo baldintza horien arrazoia uler daiteke, uztailearen 19ko 315/1994 Dekretura joz gero; izan ere, dekretu horrek onetsi du Euskadiko Polizia Hautatu eta Hezteko Erregelamendua. Dekretu horren 4. artikulua beren beregi ezartzen duenez, Euskadiko polizia osatzen duten kidegoetako eskala eta kategorietan, txanda askearen bidez sartzeko eta hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, beste betekizun batzuen artean, hurrengoak izan behar da: *“agente-kategorian sartzeko, 18 urte izan behar dira eta bete gabe izan behar dira 30 urte; komisariorde-kategorian, berriz, bete gabe izan behar dira 40 urte”*.

Esan bezala, EAEko polizia-kidego desberdinetan sartzeko, deialdiak iragartzen dira, eta horietako batzuk udalen esparruan iragartzen dira, gainera. Bada, deialdi horien inguruan, erakunde honi salaketak helarazi zaizkionean, erakunde honen jarduna izan da erreklamaziogileei ondorioen idazkia bidaltzea; idazki horretan, erakunde honek adierazten du ez duela inolako arrazoirik ikusten, zuzeneko eta berehalako esku-hartzea burutzeko, kexa eragin duten deialdi horietan. Alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak onartzen du adinaren arabera tratu juridiko desberdina ematea. Eta, beste alde batetik, Euskadiko Polizia Hautatu eta Hezteko Erregelamenduak, gai horren inguruan, gutxieneko babesa ematen du.

Erakunde honek, beraz, esku-hartzerik ez izateko erabakia hartu du. Erabaki hori azaldu eta justifikatzeko, erakunde honek kontuan hartu ditu Konstituzio Auzitegiak berdintasun-printzipioari buruz emandako epaietatik batzuk. Erakunde honek bereziki erabili du Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1995eko azaroaren 21ean emandako epaia (AEEJ 1995\1.037). Epai horretan, suhiltzaileen postuak betetzeko deialdi bat aztertu zen; deialdi horrek ezarritako mugaren arabera, postu horietarako ezin ziran izan 36 urte baino gehiago. Auzi-jartzailearen alegazioen arabera, muga horrek ez du legezko oinarririk; izan ere, foru-esparruan, funtzio publikoari buruz indarrean dagoen legerian, manu batek ere ez du mugarik ezartzen, adinaren arabera, funtzio publikoan sartzeko. Aipatutako epaiak, horren inguruan, ondokoa adierazi du:

“Funtzio publikoan sartzeko erregelamenduak —lehen aipatutako horrek— garatu egiten du legea, eta ez dugu ikusten erregelamenduak bere eskumenak gainditu dituenik. Erregelamendu horrek adin-muga bat ezartzen badu ere, ez du ematen horrek Estatutuaren 7. artikulua urratzen duenik. Polizeiei dagokienez, euren legean muga bat ezartzea, eurentzat hobe da; baina erregelamenduak ezarritako muga hori legearen garapena baino ez da, berriz diogu. Arrazoirik pisuzkoena Estatutuaren 7. artikuluko c) atalean aurkitzen dugu, horrek ‘gaitasun

fisikoa' aipatzen duelako. Nabari denez, gaitasun fisikoak eta adinak lotura estuak dituzte, 'nahaste' hobezina eratzen baitute, nahaste banaezin eta zatiezina, hain zuzen. Izan ere, bizitzaren etapa zehatz batzuetan, etapa horiei dagozkien gaitasun fisikoak izaten dira. Non dagoen muga, hori ausazkoa da, eta izaeraren arabera ere. Baina argi dago, segurtasun juridikoa babesteko, puntu finko batean ezarri behar dela muga hori. Horregatik, guk uste dugu legezketasun-printzipioa ere ez dela urratzen”.

Epai horren aurrekariarekin bat eginez, erakunde honek hauxe aldarrikatu izan du: EAEko poliziaren funtzio publikoari dagokion eremu edo esparruan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta Euskadiko Poliziari buruzko Legeak ez dute deus ere esaten; baina adinaren arabera muga batzuk ezartzea bidezkoa da. Izan ere, Hautaketa eta Heziketarako Erregelamenduak ezarri du muga hori, aurreko legeak garatuz; eta ezin da esan horrekin erregelamenduak bere eskumenak gainditu dituenik. Erregelamendu horrek ezartzen ditu, beraz, polizia-kidego desberdinetan sartzeko beharrezkoak diren betekizunak; eta, horien artean, adinari buruzko betekizuna ezartzen du.

Horixe da, laburbilduta, egundaino erakunde honek kexei eman dien tratamendua. Edonondik begira dakiola ere, erakunde honen asmoa izan da beti gomendio orokor bat egitea. Gomendio hori euskal administrazio publiko guztiei zuzenduko zaie, aurrerantzean beste deialdi batzuk iragarri ahal dituztelako, salaketa izan duten horien antzera. Administrazio horiei adierazi nahi zaie komeni dela arauak egokitzea, gai honetan lege bidez gutxieneko arauketa izan dadin. Horrez gain, ukitutako administrazioei eskatu nahi zaie, eta, lortu ere, lortu nahi da, administrazioek euren gain konpromisoa hartzea, adinaren arabera tratu desberdina egiten dutenean, horren justifikazio objektibo eta arrazoizkoa egin dezaten.

Gure aburuz, arestian auzitegiek egin dituzten adierazpenetan, baieztatu da asmo horren egokitasuna. Horregatik, atzerapen gehiagorik izan gabe, jarraian azalduko dugu erakunde honen iritziz zer-nolako arrazoiak dauden, gomendio hau prestatu eta bera administrazioei luzatzeko. Azalpena hobeto ulertzeko, eta gauzak argiago gera daitezen, lehenengo eta behin, alde formalak aztertuko ditugu, horiek zerikusia dutelako legezketasun-printzipioarekin eta lege-erreserbari buruzko printzipioarekin. Hori egin eta gero, muga berberak aztertuko ditugu, oinarrizko eskubideari zor zaion babesaren ikuspuntutik, eskubide hori ezartzen baitu EKren 23.2 artikulua.

Adinaren arabera mugak eta legezketasun-printzipioa

Ideiak gehiegi errepikatzeke arriskua badugu ere, berriz adieraziko dugu lehenago esandakoa. Batzuetan, polizia-kidego desberdinetan sartzeko, deialdiak egin direnean, deialdi horietako oinarrietan adinaren arabera betekizunak ezarri dira, eta horrek herritar batzuen kexak eragin ditu. Kexa horiek jasotakoan, erakunde honek, egundaino, adierazi du nahikoa dela Euskadiko Polizia Hautatu eta Hezteko Erregelamenduaren 4. artikulua ezartzen duen manua. Adierazpen hori egitean, erakunde honek bat egin du, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1995eko azaroaren 21eko epaian ezarritakoarekin (AEEJ 1995\1037).

Dena den, auzitegi berberak, geroago, beste epai bat eman du, hain zuzen ere, 2000ko ekainaren 15ean (AEEJ 2000\1478). Epai horretan, auzitegiak berriz aztertu

du suhiltzaileen postuak betetzeko deialdi bat; deialdi horretan, gehienez jota, 36 urte izateko betekizunari eusten zaio. Baina, oraingoan, auzitegiak bere jarrera aldatu du, goitik behera. Arean ere, bigarren epai horretan, aurrekoan gertatu aldera, auzitegiak hauxe adierazi du:

“Konstituzioaren 103.3 artikulua lehengo tartekadurak legeari erreserbatu dio funtzionario publikoen egoera pertsonala arautzea, bai eta funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak edo ‘estatutu-araubidea’ ere. (...) Horrela, Konstituzioak estatutu-araubidea aukeratu du, orokorrean, herri-zerbitzariarentzat (103.3 art.). Hori dela eta, legeak berak zehaztu beharko du zein kasutan eta zein baldintzatan antolatuko den Administrazio Publikoaren zerbitzuan sartzea. (...) Konstituzioaren aginduz, beraz, gai hori legeari erreserbatzen zaio, aipatu berri dugun bezala. Hortaz, legegileak arauketa egin beharko du eta, arauketa horren arabera, eta aurretiaz ikusitakoarekin bat eginez, legean bertan behar besteko zehaztapan materiala aurkitu behar da, funtzionarioen estatutuan sartzan diren eremuei buruz. Horrela, erregelamendu-ahalari ez zaio inolako aukerarik emango, ez esanbidez, ez isilbidez, legearen araua ordezkatzeko, Konstituzioak legeari eratzikitzen baitio eginkizun hori.

(...) Aztergai dugun auziari dagokionez, manuak gutxieneko adina ezartzen du, suhiltzaileen kidegoan sartzeko; betekizun hori jasotzen da, hain zuzen ere, zuzenean aurkaratu den deialdi horretan. Kontua da ea manu horrek lege-erreserba urratu duen eta, ondorenez, Zuzenbide osoz deuseza den, 30/1992 Legearen 62.2 artikulua arabera.

Areto honek, aurretiaz ‘ut supra’ azaldutako arrazoen ondorioz, hauxe adierazi behar du: Zuzenbide osoz deuseza da 113/1985 Foru-Dekretuaren 6. artikuluko a) atalak suhiltzaileen kidegoari buruz egiten duen erregelamendu-arauketa. Izan ere, legeari erreserbatutako gai bat arautzen du, eta ez ditu legezko manuak osatu edo garatzen bakarrik. Aitzitik, aipatutako artikulua betekizun zehatza ezartzen du, suhiltzaileen kidegoan sartzeko, eta betekizun horrek ez du legezko oinarririk; hau da, legeak ez du babesten erregelamendu bidez ezarritako arauketa hori. Arauketa funtzionario publikoen oinarrizko estatutuari buruzkoa da (funtzio publikoan sartzeko betekizunegandoko eragina dutelako estatutu horretan), eta estatutu hori lege bidez arautu behar da, ez, ordea, erregelamendu bidez, zuzenbideko oinarri honetan argitu izan den bezala. Arean ere, Legegintzako Dekretuak ez ditu irizpide objektiboak jasotzen eta, beraz, erregelamenduak ezin du halako irizpiderik izan, horren garapena burutzeko (irizpide objektiborik izango balitz, garapenaren norainokoa, eremua eta mugak eztabaidatu ahal izango liriteke; hots, arauketa igorpen ez-objektiboa, baldintzarik gabekoa edota zehaztugabea, debekatua edo legez kanpokoa den ala ez eztabaidatu ahal izango litzateke). Kontrara, Legegintzako Dekretuak ez du inolako irizpide, erreferentzia edo gaikuntzarik jasotzen, funtzio publikoan sartzeko muga horren inguruan. Beste hitz batzuekin esateko, Administrazioak gai zehatz batzuk arautu ditzake, nahiz eta gai horiek funtzionarioei buruzko oinarrizko estatutuan eragina izan. Baina, horretarako, legezko arauketa substantiboaren oinarria izan behar du,

legegileak hala ezarrita; bestela (eta horixe da aztergai dugun kasua), egindako arauketak gainditu egingo du erregelamendu-ahala, eta legeari erreserbatutako gaietan sartuko da.”

Gure iritziz, Kataluniako Auzitegi Nagusiak ere antzeko jarrera hartu du, 1999ko urriaren 28ko eta 2000ko apirilaren 7ko epaietan (AEEJ 1999\5073 eta 2000\788, hurrenez hurren). Auzitegi horrek lehiaketa-oposizio baterako deialdia aztertu du; horren bitartez, mossos d’esquadra izeneko kidegoan inspektore-postuak bete nahi ziren. Auzitegiak bereziki azpimarratu du jarraikoa: Generalitateko Poliziari buruzko Legea eta Kataluniako Funtzio Publikoari buruzko Legea batera interpretatuta, eta legegilearen esanbidezko erabakiaren ondorioz, bi lege horiek Administrazioari aukera handiak ematen dizkiote, nahierara jokatzeko, administrazio horrek kidego zehatz batzuetan sartzeko gutxieneko eta gehieneko adinak finkatu behar dituenean. Auzitegiak nabarmentzen duen bezala, Kataluniako Funtzio Publikoari buruzko Legearen 33. artikulua, lehenengo eta behin, aitortzen du, funtzionarioak hautatzeko probetan onartua izateko, hautagaiak, beste betekizun batzuen artean, hurrengo izan behar duela: “18 urte izan behar ditu, edo deialdian ezarritako gutxieneko adina izan behar du, eskabideak aurkezteko epea baino lehen; eta, orobat, hautagaiaren adina ezin da izan kidegoan edo eskalan sartzeko gehieneko adinetik gorakoa”.

Auzitegien bi adierazpen horiek alderatuz gero, eta, horrekin batera, EAE-n poliziaren funtzio publikoak duen sektorekako arauketa kontuan hartua, ez da erraza izango, berehalakoan, honako zalantza hau saihestea: Hautaketa eta Heziketari buruzko Erregelamenduaren 4. artikulua, adinaren arabera mugak ezartzen dituenean, ez ote du hausten lege-erreserbari buruzko printzipioa? Izan ere, legeek, hau da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta Euskadiko Poliziari buruzkoak, ez dute ezer esaten horren inguruan.

Hori guztia dela eta, komeni da —eta gomendio moduan diogu— poliziaren funtzio publikoari buruzko sektorekako legeria egokitzea. Horrela, eztabaidak eta auziak saihestuko dira, halako eztabaida eta auziek eragin baitituzte gorago azaldutako epai-adierazpen horiek. Egokitzapen hori eginez gero, zalantzarik gabe igarri ahal izango da zein den legegilearen egiazko asmoa, alegia, poliziaren funtzio publikoan sartzeko adinaren arabera mugak ezarri ahal izatea.

Adinaren arabera mugak eta berdintasun-printzipioa, funtzio publikoan sartzean (EKren 23.2 art.)

Konstituzio Auzitegiaren hitzak gogoratuz, EKren 14. artikulua, legearen arabera berdintasun-printzipioa ezartzen duenean, hori herritarren eskubide subjektibo gisa onartzen du. Ondorenez, herritarren artean, ezin da pribilegiarik edo desberdintasunik egin, baldin eta herritarrok egitezko egoera berdina badituzte; egitezko egoerak berdina izanik, tratamendu juridikoa ere berdina izan behar da. Argiago esateko, halako kasuetan, araua berbera izan behar da denontzat. Legeen esparruan ez bada horretara jarduten, orduan tratamendu desberdina sortuko litzateke, legegintzako botere publikoaren nahierarako jokabide baten ondorioz edo, behintzat, behar den bezala justifikaturik ez dagoen jokabide baten ondorioz.

Gauzak horrela, Konstituzio Auzitegiak egindako ñabardurari helduta, legegileak aukera egokia egin nahi badu, orduan herritarrentzat tratu desberdina ezarri ahal izango du, egoerak desberdinak direnean bakarrik. Edonola ere, horretarako nahitaezkoa da justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onartutako irizpide eta balorazioen arabera; neurriaren helburua eta ondorioak kontuan hartuta, tratu-desberdintasun hori justifikatuta egon behar da. Gainera, erabilitako baliabideen eta lortu nahi den helburuaren artean, arrazoizko proportzioa izan behar da.

Funtzio publikoaren esparruaz denaz bezainbatean, EKren 23.2 artikulua berdintasun-eskubidea aitortzen du. Eskubide hori, funtzio publikoan sartzeko unean aplikatu ez ezik, funtzionario-harremanek dirauten bitartean ere aplikatu behar da. Horrela, herritarren artean ezin da bereizkeriarik egin, enplegu publikoan sartzean, ezta funtzio publikoan sartu eta gero ere.

Xehetasun gehiago emateko, Konstituzio Auzitegiak argitu du adina dela 14 eta 23.2 artikuluetan barneratutako inguruabarretatik bat; beraz, adinaren arabera tratu-desberdintasunak ere baztertu egin behar dira. Nolanahi den ere, Konstituzio Auzitegiak berak aitortu du hortik okerreko ondorio hau atera daitekeela: herritar orok, bere adina edozein izanda ere, aukera guztiak ditu, antolamendu publikoaren barruan edozein postutan sartzeko (edo, sartu eta gero, postu hori betetzeko). Aitzitik, zilegi da legegileak adinaren elementu bereizlea eta kasuan kasuko postuaren ezaugarriak aintzat hartzea, eta, ondorenez, modu objektiboan adinaren arabera mugak ezartzea. Horrek berarekin ekarriko du, adin hori gainditu dutenentzat, postu horietan sartzeko aukera galtzea.

Europako Batasunean, 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentarauak esparru orokorra ezarri du, enpleguan eta lanbideetan tratu-berdintasuna bermatzeko. Zuzentaru horrek ere orientazio berberari heldu dio: enpleguan eta lanbideetan desberdintasunak ezartzeko, arrazoi batzuk debekatuta daude, eta debekatuta dauden horien artean sartu behar da, hain zuzen ere, adina.

Zernahi gisaz, zuzentarauak estatu kideei aukera ematen die, adinaren arabera tratu-desberdintasunak ezartzeko; baina, horretarako, desberdintasun horiek justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izan behar dute, Estatuaren zuzenbidearen eremuan helburu zuzena dutelako. Eta, gainera, desberdintasunak egoki eta nahitaezkoak izan behar dira, helburu horren eretzean.

Are gehiago, zuzentaru horren hitzaurreak beren beregi aipatzen du, adinaren arabera tratamenduan, salbuespenak izan daitezkeela, besteak beste, indar armatuak, poliziako zerbitzuak, espetxeetako zerbitzuak edo laguntza-zerbitzuak. Izan ere, zerbitzu horietako zereginak betetzeko, gaitasun bereziak izan behar dira.

Aurrekari horiek guztiak aintzakotzat hartuta, kasuan-kasuan aztertu behar da adinaren arabera muga zehatza jartzea aukera zuzena den ala ez; hori erabakitzeko, arrazoizko irizpideak lehen azaldutakoak dira. Autore batzuek azpimarratu duten bezala (adibidez, Santiago González Ortégak), interpretazio zuzentzailea egin behar da, adinaren arabera bereizkeriarik ez egiteko debekuari buruz. Interpretazio horrek kontuan izan behar ditu ustezko tratu-desberdintasunen objektibotasuna, egokitasuna, beharrezkoa, arrazoizkotasuna eta proportzionaltasuna. Saihestu behar dira, orobat, aurreiritzietan, topikoetan eta gizarte-ereduetan oinarritutako justifikazioak. Eta, lanbideko eskakizunak balioesteko orduan, ez dira erabili behar *a priori* adinaren arabera finkatutako irizpideak. Guri dagokigunez, komeni da hurrengo azpimarratzea: Administrazioak, aukera horren gaineko erantzukizuna duen heinean, beharrezkoak diren arrazoiak azaldu behar ditu,

Konstituzioarekin bat etorri adinaren arabera desberdintasunak justifikatzeko. Hala eginez gero, Administrazioak ez du bereizkeriarik burutuko.

Zorionez, adierazpen judizial batzuek jadanik balioetsi dituzte administrazio desberdinek erabili ohi dituzten arrazoiak, adinaren arabera mugak justifikatzeko.

Duda-mudarik gabe, ezgaitasunaren inguruko presuntzioa da abiapuntu moduan erabiltzen den arrazoa. Eggituz, horixe da gehien erabiltzen den arrazoa, lanpostu zehatz batzuetan sartzeko, adinaren arabera muga ezartzen denean. Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiak, 1983ko abuztuaren 3ko epaian (KAE 1983\75), hauxe adierazi zuen:

“Desberdintasuna justifikatzeko, ez da nahiko ezgaitasun pertsonala edo, behintzat, gaitasun txikiagoa dagoela uste izatea; horixe egin da, funtsen kontu-hartzaile kargurako, gehieneko adina hirurogeikoa izan daitekeela ezarri denean. Hori berori ulertu zuen «a quo» auzitegiak, eta presuntzio horren ahultasuna nabarmendu zuen, konstituzio-aurkakotasun arazoa oinarritzeko. Fiskaltzak ere irizpide berbera erabili zuen, konstituzio-aurkakotasunari buruzko adierazpenaren alde, alegazioak egin zituenean. Izan ere, kasu horretan, ‘a priori’ ez da egiazatu adinak gaitasun pertsonal askieza dakarrenik. Horregatik, bi-biok arrazoi dute, ezgaitasunaren inguruko presuntzioa ukatzen dutenean, tratu desberdina justifikatzeko oinarri gisa. Hipotesi moduan, onar daiteke funtsen kontu-hartzaile izateko, funtzionarioak gaitasun berezia behar duela, eta ez duela halako gaitasunik izango, hirurogei urte bete eta gero. Baina hipotesi hori nekez defenda daiteke. Eta, betiere, hurrengo egitatea azalpenik gabe geratuko litzateke, Fiskaltzak berak bikain nabarmendu duen bezala: ezin da ulertu zergatik adin hori gaintu dutenak ezin diren karguan sartu eta, alderantziz, zergatik adin hori bete aurretik jadanik karguan sartu direnek karguan iraun dezaketen, etenik gabe, adinarengatik erretiroa hartu arte. Zalantzarik gabe, ezgaitasunari buruzko presuntzioa baino ez litzateke izango hori, eta presuntzioa berdintasun-printzipioaren ikusmiratik aztertu beharko litzateke, baldin eta hirurogei urteko adina karguan aritzeko muga izango balitz, ez, ordea, karguan sartzeko bakarrik aplikatuko balitz...”

Aipa dezagun beste adibide bat. Horretarako, Kataluniako Auzitegi Nagusiak 1999ko urriaren 28an emandako epaia gogoratuko dugu. Hori aurrekoarekin bat dator, honako baieztapen hau egiten duenean:

“Mossos d’Esquadra izeneko kidegoan, inspektore gisa sartzeko, gehieneko adina berrogei urtekoa da —mugarik esanguratsuen—, eta, egia esan, ez dago zentzuzko arrazoirik, muga hori finkatzeko. Hipotesiak onartuz gero, hurrengo presuntzioa ezar daiteke: adin horretatik aurrera, eginkizuna betetzeko ezgaitasuna dagoela uste izan daiteke. Alabaina, adinaren arabera muga finkatzea guztiz zentzugabea da. Egin-eginean ere, ezerk ere ez die oztopatzen inspektoreei, adin horretatik aurrera eginkizunak bete ditzaten, erretiro-adina heldu arte. Horrekin batera, deialdiak berak hautaketa-proben artean sartzeko proba fisikoak eta medikuntzakoak; eta, dakigunez, proba horiek zehaztuko dute hautagaiak ezgaitasunik duen ala ez, horren adina zein den kontuan hartu gabe.”

Zinez, eta aipatu berri ditugun epaiek baieztatu duten bezala, adinaren arabera muga justifikatzeko, gaitasun txikiagoari buruzko presuntzioa erabil daiteke; baina presuntzio hori ezerezean geratzen da, baldin eta hautaketa-prozesuaren beraren helburua bada, jakina denez eta ohikoa den bezala, hautagaiek euren gaitasun eta meritua egiaztatzea, bete behar diren postu horietarako.

Era berean, muga hori oinarririk gabe geratzen da, hurrengoa aintzat hartuz gero: adinaren arabera muga ez da postuan aritzeko baldintza; aitzitik, postuan sartzeko baldintza besterik ez da. Beste modu batera esanda, herritarrak 30 urte baino gehiago baditu, orduan ezin da agente moduan sartu, poliziako kidego zehatz batean; eta, kontraesanekoa bada ere, jarduneko agente gehienek adin hori arras gainditzen dute.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu deialdi batzuek tratu desberdina jasotzen dutela, adinaren arabera muga edo betekizun hori aplikatzeko orduan. Arealan ere, zenbait kasutan, muga hori aplikatzen da, bitarteko funtzionario moduan sartzeko unean bakarrik. Horrela, postuan behin betiko sartzeko, deialdiak egiten direnean, horietan parte har dezakete, baita muga-adin hori gainditu dutenek ere, baldin eta bitarteko funtzionario moduan sartu baziren, muga-adin hori bete aurretik. Jarduteko modu hori harrigarria da, bistan denez.

Hortaz, ez du ematen ezgaitasunari buruzko presuntzioa erabil daitekeenik, adinaren arabera muga justifikatu eta bermatzeko; presuntzio hori ezin da izan neurriaren legekotasuna arrazoitzeko bidea, funtzio publikoan sartzeko deialdietan. Haatik, presuntzio horrek ez du inolako oinarririk eta, horregatik, kasu horietan, tratu-desberdintasunak bereizkeria dakarrela adierazi behar da. Ondorenez, adinaren arabera mugak ezartzeko orduan, beste batzuk izan beharko dira haien oinarri, ez, ordea, ezgaitasunari buruzko presuntzioa.

Ondorioak

Konstituzio Auzitegiak onartu du, funtzio publikoan sartzeko orduan, adina desberdintasunak egiteko faktorea izatea. Hortik abiatuta, edozein administraziok adinaren arabera muga jarri nahi badu, bere barruan sartzeko deialdiak egiten dituenean, orduan nahitaezkoa da horretarako legezko oinarri nahikoa izatea, bai eta justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izatea ere.

Ondorio horiek euskal administrazio publiko guztiei ere aplikatu dakizkieke, baldin eta adinaren arabera muga ezarri nahi badute, poliziako kidego desberdinetan sartzeko deialdiak egiten dituztenean. Horren inguruan, erakunde honek gomendio hau luzatzen die euskal administrazio publikoei:

1. Euren sustatu behar dute, poliziaren funtzio publikoari buruzko sektorekako arautegia egokitu dadin. Horrela, Poliziari buruzko Legeak, gutxienez, beren beregi ezarri behar du, poliziako funtzio publikoan sartzeko, adinaren arabera mugak izan daitezkeela.
2. Administrazioek behar besteko arrazoiak azaldu behar dituzte, adinaren arabera tratamendu desberdina justifikatzeko. Horretarako, ez da nahikoa uste izatea, adin zehatz batetik gora, hautagaiek ezgaitasuna edo gaitasun txikiagoa izango dutela.

5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ARAUTEGI ZEHATZA BEHAR DA TELEFONIA MUGIKORREKO GUNEAK INSTALATZEKO ORDUAN, HORRETARAKO BAIMENAK ARAUTZEKO

Sarrera

Erakunde honek hainbat kexa jaso ditu, telefonia mugikorrek guneek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak buruz, halako guneak baitaude gure autonomia-erkidegoko udalerrri batzuetan.

Telekomunikazioko azpiegitura eta sare horiek gero eta gehiago dira, eta ugaritze horrek berarekin ekarri du udalerrietan telefonia mugikorrek antena anitz jartzea. Hori dela eta, gizartean kezka handiak agertu dira, batik bat, ugaritze horrek gizakiaren osasunarentzat izan ditzakeen ondorioengatik.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da instalazio horiek begi-bistako disfuntzioak eragin ditzutela, hiriguneetan eta ingurumenean. Hori guztia gogoan izanik, Arartekoak ofizios espedientea hasteko erabakia hartu zuen. Espediente horren helburua da, hain zuzen ere, instalazio-mota horrek izan ditzakeen ondorio eta eragin guztiak zehaztea.

Arestian, Osasun eta Kontsumo Ministerioak adituen batzordea bildu zuen; batzorde horrek aztertu behar zuen eremu elektromagnetikoen (aurrerantzean, EEM) zer-nolako eragina duten osasunarentzat. Batzordeak prestatutako txosten teknikoaren arabera, egun kezka handia dago, EEM horiek osasunarentzat izan ditzaketan ondorioen inguruan. Kezka horren jatorri izan dira, hain justu ere, orain urte batzuk argitaratutako azterketa epistemologikoak. Azterketa horietan, zuzeneko loturak ezarri ziren, leuzemia-mota batzuen eta EEM izeneko artean, betiere, EEM horien frekuentziak oso txikiak izanik eta euren jatorria tentsio handiko lineak izanik. Horri gaineratzen badiogu telefoniako antenen instalazioa arras gehitu dela, eta telefono mugikorrek ere gero eta gehiago erabiltzen direla, orduan EEM horien kopurua asko gehitu dela ondorioztatu beharra dago.

Telefonia mugikorrek antenak nahitaezko instalazioak dira, telefono mugikorren erabiltzaileak elkarrekin komunika daitezzen, bai eta telefono horien erabiltzaileak eta telefono finkoenak elkarrekin komunika daitezzen ere.

Halako antenak lurrian bertan jar daitezke, dorre baten gainean; hala egiten da, batez ere, nekazaritzako guneetan. Osterantzean, teilatuetan edo eraikinen goiko aldeetan jar daitezke antenak, eta hala egiten da hiriguneetan.

Telefoniako gunearen osagaiak hurrengoak dira: antenak, kable ardazkideak eta ekipo elektronikoen erantsiak. Telefoniako gune bakoitzak zerbitzua egiten dio erabiltzaile-kopuru mugatu bati; gune horrek eskualde geografiko zehatza estaltzen du, eta eskualde horri “zelula” deritzo. Halako instalazioak asko ugaritu dira, erabiltzaileen kopurua asko gehitu delako eta, horren ondorioz, gero eta gune handiagoak estali behar direlako.

Telefonia mugikorrek antenek, euren inguruan, eremu elektromagnetikoa sortzen dute; beste modu batera esanda, antena horien erradiazioek gune zehatz batean dihardute.

Antenek uhin-sortak erradiatzen dituzte. Sorta horiek oso estuak dira, igorlearen plano bertikalean, eta zabalagoak dira, berriz, plano horizontalean. Horregatik,

instalazioak eraikinen gainean jartzen direnean, eraikin horien barrurantz erradiazioa sortzen da, baina erradiazio hori oso ahula da. Haatik, telefoniako guneetatik hurbil dauden tokiei dagokienez, jakin nahi badugu zein potentzia-dentsitate dagoen, uhin-sortaren barruan kokatutako puntu batean, orduan kontuan hartu beharko ditugu, batetik, antenak erradiatutako potentzia eta, bestetik, puntu horretatik antenara doan tartea edo distantzia. Aintzakotzat hartu behar da, halaber, alderantzizko proportzioa dagoela, potentziaren eta distantzia horren berbiduraren artean. Horrek esan nahi du, antenaraino doan tartea bikoiztuz gero, potentzia-dentsitatea lau aldiz zatituko dela.

Telefonia mugikorreko instalazioak EEM izenekoak sortzen dituztela kontuan hartuta, EEM horiek zer-nolako eragina dute, osasunaren gain eta ingurumenaren gain?

Eremu elektromagnetikoen biztanleengan duten eraginari buruz, badira gaur egun jakite zientifiko batzuk; baina jakite horiek oso urri eta mugatuak dira. Ikerketa batzuek ziurtatu dute erradiazio ez-ionizatzaileak ez direla kaltegarriak, gizakiaren osasunarentzat. Hala eta guztiz ere, beste azterketa batzuek hauxe adierazi dute: behar besteko zantzuak aurkitu direnez gero, arreta edo interes berezia jarri behar da, intentsitateak gomendatutako mugetatik hurbil daudenean edo hortik beherakoak direnean, halako intentsitateek nolabaiteko ondorioak izan ditzakete eta.

Instalazio horiek erradiazioa sortzen dute, eta erradiazio horren frekuentzia oso txikia da. Zehatzago esateko, erradiazio hori ez da ionizatzailea. Horrek esan nahi du, erradiazio ionizatzaileekin gertatu aldera, erradiazio ez-ionizatzaileen energia ez dela gauza, atomoen batasunak hausteko, ezta intentsitate handikoa denean ere. Hortaz, erradiazio horiek ez dira ionizatzaileak eta, ondorenez, ez dituzte sorrarazten gaiaren ionizazioak dituen ondorio larriak, ezta horrek osasunarentzat duen eragin kaltegarria ere; halakoak sorrarazten dituzte, ordea, X izpiek edota erradiazio nuklearrek. Edozein modutan ere, ikerketa esperimenter batzuek erakutsi dute zenbait erantzun biologiko gertatzen direla, eta, erantzun horien ondorioz, izaki bizidunetan ondorio termikoak gerta daitezke; ondorio horiek, aldiz, eragina izan dezakete, korrante horiekin sentikor diren zeluletan. Halako zelulak dira, besteak beste, muskuluetakoa eta nerbioetakoa.

Dena den, egundaino egin diren ikerketek oso informazio gutxi eman dute, eta horietatik ezin da argi eta garbi zehaztu eta identifikatu luzaroan EEM horien eragina jasateak zer-nolako eragina duen. Hori dela eta, ikerketa gehiago egin behar dira, ebaluazio zuzena egin ahal izateko.

Jakina denez, 1996ko maiatzean, Osasunaren Mundu Erakundeak abian jarri zuen Eremu Elektromagnetikoen Nazioarteko Proiektua edo EEM Nazioarteko Proiektua. Proiektu horren helburua da, hain zuzen ere, zientziaren ikusmiratik argitzea erradiazio horiek zer-nolako ondorioak izan ditzaketen. Aurreikuspenen arabera, ikerketa hori, gutxienez, 2005. urtean bukatuko da. Horregatik, ikerketa horren emaitzari itxaron beharko zaio, eremu elektromagnetikoen osasunarentzat eta ingurumenarentzat zer-nolako eragina duten jakiteko.

Bestalde, hurrengo azpimarratu behar da: gure udalerrietan, telefonia mugikorreko gune anitz jarri dira, eta horrek begi-bistako eragina izan du, hirigintzan eta ingurumenean. Beste modu batera esateko, horrek hiriko ingurunea aldatu du eta, paisaian ere, ikusmen-

aldakuntza eragin du. Hori gerta dadin, lagungarri izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan arautegi zehatzik ez izatea, telefonia mugikorreko antenak instalatu eta egokitze orduan, horretarako baimenak arautzeko. Instalazio horiek jartzeko orduan, kontuan hartzekoak dira hirigintzako eta ingurumeneko inguruabarrak, betiere, espazioaren okupazioari dagokionez, paisaiarekin izan beharreko integrazioari dagokionez, bai eta biztanleriaren babesa bermatzeko beharrezkoak diren kautela-neurriak dagokienez ere.

Arautegia

Hortaz, gure autonomia-erkidegoan, ez dago arautegi zehatzik, telefonia mugikorreko antenak instalatu eta egokitze orduan, horretarako baimenak arautzeko. Ondorenez, zenbait disfunzio gertatu dira, eta, disfunzio horiek ikusita, nahitaezkoa da herri administrazioek prozesu honetan azkar-azkar esku hartzea.

Gure autonomia-erkidegoan, udal gehienek erreakzioa izan dute, gero eta jende gehiago telefoniako gune horien aurka dagoela ikusita. Herritarrek elkarte, talde eta plataformak osatu dituzte eta, polemika hau bultzatzeko orduan, herritarrok oinarrizko eginkizuna betetzen ari dira, auzian dauden alderdiak behartu dituztelako, euren jarrera azal dezaten. Horixe egin diete, bereziki, administrazioei eta, batez ere, Toki Administrazioari. Erraz egiazta daiteke udal batzuek baimen berriak ematea eten egin dutela, instalazio horien gorabeherak arautzen ez diren bitartean. Beste udal batzuek, berriz, egun ezarritako instalazioak legezatu dituzte; eta, bide horretatik, telefoniako operadoreei eskatu diete obra txikietarako baimen-eskariak aurkez ditzaten.

Bestalde, Eibarko Udalak erabakia hartu du, hirigunetik urrun, hiru kokaleku ezartzeko; kokaleku horietan, telefoniako dorretxoak jarriko dira.

Era berean, erakunde honek jaso dituen kexetan, hauxe ikus daiteke: batzuetan, telekomunikazioko ekipoak ezarri dira, horretarako udalaren arauzko baimenik izan gabe; are gehiago, hiri batzuetan, halako ekipoak ezarri dira, inolako proportziorik gabe.

Arestian, hau da, 2001eko martxoaren 14an, Euskadiko Auzitegi Nagusiak agindu zuen, Zizurkiletik telefonia mugikorreko antena bat kentzeko, antena horrek ez zituelako lortu beharrezkoak diren udal-baimenak.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da apirilaren 24ko 11/1998 Legea, hori Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra baita. Legegileak aurreikusi du, sektorea liberalizatzearen ondorioz, telekomunikazioko elementuak gehitu egingo direla. Aurreikuspen horretatik abiatuta, aipatutako legeak zenbait betebeharrak ezartzen dizkie sare publikoen ustiatzaileei eta jendearentzat telekomunikazioko zerbitzuak egiten dituztenei. Betebeharrak horiei “zerbitzu publikoko” betebeharrak deritze. Euren artean, hurrengoak azpimarra daiteke: telekomunikazioko sareak kontrolik gabe ezartzen badira, orduan instalazio horrek eragin handia izango du, hala hirigintzan, nola paisaian; horregatik, eragin hori ahalik eta txikiena izan dadin, azpiegituren erabilera elkarbanatua izan behar da.

Edozein modutan ere, lehen adierazi dugun bezala, gure autonomia-erkidegoan telefoniako guneak instalatu direnean, ez da oso-osorik bete eskakizun hori, kasurik gehienetan. Esate baterako, erakunde honek kexa-espeditentzaren izapideak egin ditu,

Gasteizko biztanle batek hala eskatuta; biztanle horren salaketaren arabera, bera bizi den eraikinean, telefonia mugikorreko bost antena instalatu dira.

Lehenago aipatu dugun moduan, gaur egungo jakite zientifikoak oso urriak dira, EEM deiturikoez osasunaren gain zer-nolako ondorioak dituzten zehazteko. Horren ondorioz, gure jarduna arras mugatuta dago. Hori gorabehera, Osasunerako Mundu Erakundeak aintzakotzat hartzen ditu arreta-printzipioa eta gai honetan izan behar den aurreneurritzko jarduna. Bi horietatik abiatuta, erakundearen gomendioa hauxe da: botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, herritarren osasuna bermatu eta zaintzeko.

Amsterdameko Hitzarmenak bere baitara bildu ditu Maastrichteko 1992ko Hitzarmenak orduko ezarritako xedapen batzuk. Amsterdameko Hitzarmenaren arabera, arreta-printzipioa oinarritzko printzipioa da. Zehatzago esanda, hitzarmenaren 174. artikulua hurrengoia ezarri du:

“2. Ingurumenaren eremuan, Europako Erkidegoaren politikak helburutzat izango du goi mailako babes-maila lortzea; horretarako, kontuan hartuko du, Europako Erkidegoko eskualde desberdinetan, egoera anitz daudela. Europako Erkidegoaren jardunak printzipio hauek izango ditu oinarri: arreta-printzipioa eta aurreneurritzko jardunaren printzipioa; ingurumenaren aurkako erasoak zuzentzeko printzipioa, batik bat, eraso horien iturriaren gainean jarduteko; eta, orobat, “kutsatzen duenak ordaindu beharko du” izeneko printzipioa.

3. Ingurumenaren eremuan, Europako Erkidegoak, bere politika prestatzen duenean, kontuan hartuko ditu:

- eskura dituen datu zientifikoak eta teknikoak;
- egiteak edo ez-egiteak izan ditzakeen alde onak eta alde txarrak.”

Printzipio horrek bere barnean hartzen ditu kasu berezi batzuk. Kasu horietan, jakite zientifikoak oso urriak dira, ez dira erabakigarriak edota zehaztugabeak dira; baina, aurretiazko ebaluazio zientifiko objektiboa aintzat hartuta, susmoak edo arrazoizko zantzuak aurkitu dira, ingurumenarentzat eta osasunarentzat ondorio kaltegarriak etor daitezkeela uste izateko, nahiz eta hori saihesteko babes-maila zehatzak izan. Erabakia da, beraz, neurriak hartzea, beharrezkoak diren jakite zientifiko guztiak izateari itxaron gabe. Erabaki hori, bistan denez, arretan oinarritzen da.

Une honetan, auzitegiak ere arreta-printzipio horretan oinarritu dira eta, ondorenez, oniritzia eman diete herritarren eskari jakin batzuei; eskari horietan, herritarrek aurka egin nahi diote euren jabe-erkidegoak hartutako erabakiari, erabaki horren ondorioz telefonia mugikorreko antenak ezarriko direlako, euren eraikinetan. Bide horretatik, Bilboko lehen auzialdiko 2. epaitegiak epaia eman du, 2001eko ekainaren 9an. Epai horrek adierazi du erkidegoaren erabakia deuseza dela, osasun-arrazoien ondorioz; erabaki horrek onartzen zuen, erkidegoaren eraikinaren teilatuan, telefonia mugikorreko antena igorlea jartzea. Epai-magistratuak, epai horretan, honako ñabardura hau gaineratu du: prozesuaren helburua ez da eremu magnetikoak osasunarentzat kaltegarri diren ala ez erabakitzea; eta, bide beretik, helburua ez da, erradiazioak kalterik eragin gabe izan ditzakeen balioetatik, gehieneko balioa edo muga zein den zehaztea. Hala ere, epaiak oinarritzat hartzen du arreta-printzipioa, hori nazioarteko agirietan eskakizun bihurtu baita. Hortik abiatuta, demandatzaileak ez du inolako betebeharririk, bere etxean

antena bat jasateko, baldin eta inork ere ez badio frogatzen horrek ez dakarrela inolako arriskurik. Izan ere, telefonia mugikorrek eremu elektromagnetikoak sortzen ditu, eta eremu horiek *arrazoiz susmagarriak* dira, *gizakien osasuna modu iraunkorrean haien eraginpean jar ez dadin*.

Bide beretik jo du Bartzelonako Audientziak, 2001eko otsailaren 6ko epaiaren bitartez. Epai horrek dioenez, oraindik ez dira guztiz ezagunak eremu magnetikoek gizakiaren gain izan ditzaketen ondorioak. Hala eta guztiz ere, arlo horretan, Osasunerako Mundu Erakundeak eta Europako Erkidegoak ere zenbait ikerketa egin dituzte eta, ikerketa horiek aintzakotzat hartuta, ondorio hau atera daiteke: zenbait kasutan, eremu horien eraginpean egoteak berehalako ondorioak ekar ditzake, besteak beste, gorputzeko tenperaturari, medikuntzako txertaketetan eta abarrekoetan. Auzitegiak aitortzen du ikerketa zientifikoa, arlo horretan, hasi berria dela, eta horren norainokoa oraindik zehazteke dagoela. Nolanahi den ere, auzitegiak uste du, *instalazio horrek erkidegoarentzat ustezko irabaziaz ekarri arren, horrek ez duela justifikatzen erkidego horretako kide batentzat hain kaltegarri den neurri bat hartzea; eta horixe gertatuko da, hain justu ere, instalazioari baimena emanez gero, hori kaltegarri izan baitaiteke haren osasunarentzat*.

Bistan denez, jurisprudentziak arreta-printzipioa aipatu eta horretara jotzen du. Printzipio horren inguruan, Europako Batzordeak 2000/02/02 Komunikazioa eman zuen. Komunikazio horretan, Europako Batzordeak adierazi zuen, arreta-printzipioa aplikatzeko, nahitaezkoa dela hurrengo jarduerak burutzea:

1º Arreta-printzipio horretara zergatik jotzen den azaldu behar da. Argiago azaltzeko, identifikatu behar dira ustez arriskutsu diren ondorioak; ebaluazio zientifikoa arriskuen ebaluazioan oinarritu behar da; eta, gainera, eskura dagoen informazio zientifikoari zein zalantzagarritasun dagokion ebaluatu behar da.

2º Arreta-printzipioa aplikatzearen ondorioz zein neurri hartuko den zehaztu behar da, bai jardutea erabakitzen denean, bai ez jardutea erabakitzen denean. Gainera, erabakitako ekintzaren izaera zein den argitu behar da.

Edozein kasutan ere, arreta-printzipiora jotzeko, arriskuen kudeaketa onak dituen printzipio orokorrek bete behar dira. Horren ondorioz,

- Neurrien eta aukeratutako babes-mailaren artean, proportzioa izan behar da.
- Neurriak aplikatzeko orduan, ez da bereizkeriarik egin behar.
- Neurriak bat etorri behar dira, antzeko inguruabarretan jadanik hartutako neurriekin; edo, osterantzean, antzeko planteamenduak erabili behar dira.
- Neurriak hartu aurretik, egiteak edo ez-egiteak zein alde on eta zein alde txar duen aztertu behar da.
- Neurriak berrikusi egin behar dira; eta, beharrezkoa izanez gero, neurriok aldatu egin behar dira, ikerketa zientifikoaren emaitzak kontuan hartuta eta neurri horiek izan duten eragina gogoan izanda.
- Neurriokin batera, norbaitek erantzukizuna hartu behar du bere gain, eta horrek beharrezkoak diren proba zientifikoak egin beharko ditu, arrisku guztien ebaluazioa lortzeko.
- Guztion osasuna babestu behar da eta hori, zalantzarik gabe, bestelako gai ekonomiko guztien gain jarri behar da.

Printzipio horiekin bat etorri, Europako Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluak uztailaren 112ko 1999/591/EE Gomendioa onetsi zuen; gomendio hori eremu elektromagnetikoez jendearen gain duen eraginari buruzkoa da (0 Hz-etik 300 GHz-etara).

Gomendio horrek, printzipio orokorrez gain, jendea babesteko metodoak ezartzen ditu. Modu bertsuan, hurrengo zehazten du: *“Estatu kideen eskumena da arau xeheak ezartzea, eremu magnetikoen eraginpean egoteak izan ditzakeen iturri eta eginerei buruz; gainera, estatu kideen eskumena da, eremuen eraginpean izan daitezkeen gizabanakoak kontuan hartuta, baldintzak sailkatzea, profesionalak eta profesional ez direnak bereiziz, eta, betiere, Europako Erkidegoak langileen osasun eta segurtasunari buruz eman dituen arauak kontuan hartuta eta horiek errespetatuz.”*

Xedapen berberari helduta, Europako Erkidegoko estatuek informazioaren eta arau praktikoen zabalkundea sustatu behar dute; horrela, gero eta gehiago jakingo da zeintzuk diren eremu elektromagnetikoen arriskuak eta nolako babes-neurriak har daitezkeen.

Xedapenaren eranskinetan, oinarriko murrizketa batzuk eta erreferentzia-maila batzuk ezartzen dira; horiek guztiak aplikatu beharko lirateke, eremu elektromagnetikoez igorritako erradiazioa edozein izanik ere, ikusmen-erradiazioaren kasuan eta erradiazio ionizatzailearen kasuan izan ezik.

Dena den, jakite zientifiko berriak agertu ahala, teknologiaren arloan berrikuntzak izan ahala, eta eremu elektromagnetikoen inguruko aplikazioak eta praktikak ugaritu ahala, gomendio hori berrikusi egin beharko da eta, aldian-aldian, horren ebaluazioa egin beharko da.

Esan bezala, apirilaren 24ko 11/1998 Legea Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra da. Lege hori garatzeko, arestian irailaren 28ko 1.066/2001 Errege Dekretua onetsi da. Errege dekretu horrek legearen erregelamendua onetsi du. Erregelamendu horretan ezartzen dira, besteak beste, jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, igorpen erradioelektrikoei ezarritako murrizketak eta, orobat, igorpen erradioelektrikoen aurka, osasuna babesteko neurriak.

Aurretiaz aipatu bezala, uztailaren 12ko 1999/519/EE Gomendioak osasuna babesteko irizpideak ezarri ditu, igorpen erradioelektrikoez sorrarazten dituzten EEM horien aurka. Bada, aipatu berri dugun errege dekretuak irizpide horiek barneratzen ditu. Horrekin batera, errege dekretuak ezarri du komeni dela herritarrei informazio egokia helaraztea, eremu elektromagnetikoez izan ditzaketen ondorioei buruz eta horiei aurre egiteko hartu diren neurriei buruz; horrela, hobeto ulertuko da zeintzuk diren arriskuak eta osasunak zein babes behar duen, haien aurka. Gainera, Europako Erkidegoko gomendioak esposizio-muga batzuk ezartzen ditu, erradiokomunikazioen sistemei buruz; eta errege dekretuak jaso ditu muga horiek ere.

Erregelamenduak, bestalde, zenbait aurreneurri ezartzen ditu. Aurreneurri horiei buruz, 8.7 artikulua aipa daiteke. Artikulu horrek hurrengo adierazten du:

“Instalazio erradioelektrikoen plangintza egiten denean, instalazio horien titularrek kontuan hartu behar dituzte, beste batzuen artean, hurrengo irizpideak:

- a) *Gune erradioelektrikoen kokalekua, ezaugarriak eta jardunerako baldintzak aukeratzean, ahalik eta txikiena izan behar da jendearengan orokorrean igorpen erradioelektrikoez duten eragina, igorpen horien jatorria gunea*

- bera izan nahiz horri lotutako terminala izan; gainera, zerbitzuaren kalitate egokia ziurtatu behar da.*
- b) Gune erradioelektrikoak jartzen badira etxebizitzetako eraikinen estalkietan, orduan instalazio erradioelektrikoen titularrek, igorpen-sistema instalatzeko orduan, ahaleginak egingo dituzte, ahal den neurrian, igorpen-diagramak eraginik izan ez dezan, eraikinaren, zabaltzaren edota atikoaren gainean.*
 - c) Kokalekuak elkarbanatzeko baldintza izango da, hain zuzen ere, igorpen erradioelektrikoen kontzentrazioa.*
 - d) Bereziki, gune erradioelektrikoen kokalekua, ezaugarriak eta jardunerako baldintzak aukeratzeko orduan, ahalik eta gehien txikitu behar dira espazio sentikorren gaineko igorpen-mailak; halako espazioak dira, besteak beste, ikastetxeak, osasun-etxeak, ospitaleak edo parke publikoak.*

Nabari denez, hainbat muga ezartzen dira. Alabaina, ez da inolako neurririk ezartzen, igorpena beste eraikin batzuen gainekoa denean. Halaber, erregelamenduak adierazten du igorpenak, “ahal den neurrian”, ahalik eta txikienak izan behar direla; baina ez da definitzen zer den hori eta, orobat, ez dira ahalegin horiek zenbatzen.

Bestalde, erregelamendu hori onetsi aurretik, Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoak lege bat eman zuen, telefonia mugikorrek azpiegituren instalazioa arautzeko; horretan, autonomia-erkidego hori aitzindari izan da estatuan. Ekainaren 28ko 8/2001 Legeak *irradi-komunikazioen instalazioa antolatu du, Gaztela-Mantxan*. Lege horren helburua da *irradi-komunikazioen azpiegiturak arautzea eta, bereziki, telefonia mugikorrek azpiegiturak arautzea, betiere, autonomia-erkidegoaren lurraldean horiek izango duten banaketa antolatu eta planifikatzeko, herritarren osasuna zaindu eta babesteko, eta instalazio horiek ingurumenean, ikusmenean eta hirigintzan duten eragina txikitzeko*.

Arau hori, esan bezala, aitzindari izan da, Espainiako estatuan; eta, Europako Erkidegoko arauen artean, zorrotzenarikoa da. Arau horrek erradiazio-potentziaren gehieneko mailak ezartzen ditu, eta gehieneko horiek 1999/519/EE Gomendioak ezarritakoak baino txikiagoak dira. Bestalde, arauak babes berezia proposatzen du, zentro sentikor deitzen dituenentzat; halakoak dira, besteak beste, ospitaleak eta geriatrikoak, adinekoentzako etxeak, ikastetxeak eta haur-eskolak. Arauak, orobat, babes-guneak zehazten ditu, igarotzeko guneentzat; gune horien barruan, ezin da halako eremuen esposiziorik izan (luzeran, hamar metro; sakoneran, sei metro; eta, altueran, berriz, lau metro).

Ildo beretik, 2001eko maiatzaren 29an, Kataluniako Generalitateko Gobernuak 148/2001 Dekretua onetsi zuen. Dekretu horrek telefonia mugikorrek instalazioen eta irradi-komunikazioko beste instalazioen ingurumen-antolaketa arautu du. Laburbilduta, dekretu horrek telefonia mugikorrek antenak arautu eta mugatu ditu, Kataluniako Autonomia Erkidegoan, instalazio horiek ingurunean duten eragina txikitzeko, eta osasunaren gain izan ditzaketen ondorio kaltegarriei begira aurreneurriak hartzeko.

Azpitarratzekoa da telefonia mugikorrek enpresek hitzarmena sinatu dutela Generalitateko Ingurumen Sailarekin; hitzarmen horren ondorioz, enpresok konpromisoa hartu dute, arau hori indarrean jarri aurretik ere, horretan ezarritako agindu teknikoak aplikatzeko.

Egundaino, udalen eremuari dagokionez, beste autonomia-erkidego batzuetako udalek udal-ordenantza egokiak onetsi dituzte, telefonia mugikorrek guneen instalazioa

eta jardunbidea arautzeko. Ordenantza horien helburua da, hain justu ere, halako azpiegiturek bete behar dituzten baldintzak ezartzea; horrela, azpiegiturok jartzean, ahalik eta espaziorik txikiena okupatuko da, eta ikusmenaren gainean, ingurumenaren gainean eta osasunaren gainean, eragina ahalik eta txikiena izango da. Horrekin, udalek herritarrak babestu nahi dituzte, herritarron eskubidea baita, euren osasunarentzat arriskurik jasan gabe, bizitza-baldintza egokiak izatea.

Esate baterako, Madrilgo Udalak, 1999ko abenduaren 20an, lehendabiziko udal-ordenantza eman zuen. Ordenantza horrek hirigintzako baldintzak arautu ditu, Madrilgo udal-mugartean telekomunikazioko elementuak eta ekipoak instalatu eta jardunean jartzeko; elementu eta ekipo horien artean, nabari denez, telefonia mugikorreko instalazioak sartzen dira.

Katalunian, ordenantza-eredua prestatu da, irrati-komunikaziorako instalazioen jardunbidea arautzeko. Ordenantza-eredu hori prestatzeko, kontuan hartu dira udalek egindako ekarriak, bai eta Lan Batzorde bereziak egindakoak ere. Lan Batzorde hori osatu dute Generalitateko Ingurumen Saileko ordezkariak, Kataluniako Generalitateko Telekomunikazio Zentroko ordezkariak eta Localret-eko ordezkariak. Azken organismo hori udalen esparruan eratu da, telekomunikazioko sareen eta teknologia berrien garapenerako; organismo horretan ordezkaturik daude autonomia-erkidego horretako biztanle guztiak ia-ia.

Ordenantza horren aginduz, operadoreek garapen-egitaraua aurkeztu behar dute; egitarau horren helburua da udalei beharrezkoak diren argibide guztiak ematea, udal horiek erabaki egokia har dezaten. Ordenantza horren arabera, azpiegiturak elkarbanatzea beharrezkoa da, hori teknikaren aldetik komenigarri den tokietan eta, batez ere, lur urbanizaezinean. Gainera, ordenantzak azpiegiturak ezartzeko mugak zehazten ditu eta, horretarako, aintzakotzat hartzen ditu, besteak beste, horiek paisaian duten eragina, pertsonen osasunaren gainean edota gune historikoen gainean duten eragina, bai eta zaharkitze teknologikoa ere.

Gure autonomia-erkidegoan, arestian eta, zehatzago, 2001eko uztailaren 12an, UEMA-k ordenantza-eredua onetsi du; ordenantza-eredu horrek instalazio erradioelektrikoak arautu ditu eta, horien artean sartzen dira, jakina denez, telefonia mugikorreko antenak. Ordenantza horri helduta, telefoniako guneak ezartzeko, udalaren baimena lortu behar da, eta baimen hori lortzeko baldintza da, hain justu ere, enpresa operadoreek garapen-egitaraua aurkeztea. Ordenantzari eutsiz, orobat, kokalekuak elkarbanatu behar dira, salbu eta hori arrazoi teknikoen ondorioz ezinezkoa denean edo elkarbanatzeak ikusmenean eragin handiagoa izan dezakeenean. Xedapen horren eredia eta beste autonomia-erkidego batzuetan onetsi dena berberak edo, behintzat, antzekoak dira.

Ordenantzaren 7.3 artikulua gogoan izanik, telekomunikazioko instalazioak jarri behar badira, *ingurumenaren ikusmiratik sentikor diren guneetan*, orduan instalazio horiei banakako ebaluazio-prozedura aplikatuko zaie, ingurumenean duten eragina balioesteko. Eta, horrekin batera, instalazioek bete beharko dituzte Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean edo horren ordezeko arautegian ezarritako betebeharrak.

Ildo horretatik, aipatutako legearen 51. artikulua honetara definitzen ditu *ingurumenaren ikusmiratik sentikor diren guneak*: gune horien ezaugarriak bereziak dira, ingurumeneko balioak eta horien ahultasuna kontuan hartuta; horregatik, gune

horietan, ingurumen-kaltea handiagoa izan daiteke. Edozein kasutan ere, definizio horretatik kanpo geratzen dira, arau hori aldarrikatzeko unean hiri lur gisa sailkatutako lurak. Zehatzago esateko, gune sentikorrek ondokoak dira:

- a) *“Itsas-lurreko jabari publikoa eta horren babeserako zortasuna.*
- b) *Jabari publiko hidraulikoa. Horren barruan sartzen dira korronte iraunkorreko berezko ubideak; laku, aintzira eta azaleko urtegien hondoak, betiere, ubide publikoetan; eta, orobat, ur-bazterretako polizia-guneari eta zortasun-guneari dagozkion espazioak, baldin eta horiek katalogaturik badaude.*
- c) *Urdunak berriz kargatzeko guneak, eta kutsadurarako ahultasun handia duten guneak, baldin eta horiek katalogaturik badaude.*
- d) *Naturaren aldetik interes handia duten gune edo enklabeak, baldin eta horiek katalogaturik badaude.*
- e) *Katalogoan edo inbentarioan sartu diren gune edo enklabeak, horiek historia- eta arte-ondarearen zati direlako; gune edo enklabe horien ingurunea ere gune sentikorraren barruan sartzen da.”*

Nabarmentzekoa da, bestalde, ordenantzaren 7. artikuluko 3. paragrafoak ezartzen duena. Horren arabera, telekomunikazioen instalazioei dagokienez, ez da egin behar jarduera-baimenaren izapidetza; halako instalazioen jarduera, beraz, izapidetza horretatik salbuetsita dago. Horregatik, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuak ezarritako prozedura bete behar dute telekomunikazioen instalazioek. Izan ere, dekretu horrek ezartzen du zein jarduera geratuko den, jarduera-baimenetik salbuetsita. Jarduera-baimen hori arautzen du, arautu ere, otsailaren 27ko 2/1998 Legeak, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, hain zuzen.

Jarduera edo instalazioei 165/1999 Dekretua aplikatuko zaie, baldin eta jarduera edo instalazio horiek eragin txikia badute ingurumenaren eta gizakiaren osasunaren gainean eta, horren ondorioz, jarduera-baimenetik salbuetsita egon badaitezke. Esangura horretan, arauaren hitzaurreak hauxe adierazten du: Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Erregelamendua aplikatzean, eskarmentu edo esperientzia handia lortu da, eta, esperientzia horrek erakutsi duenez, egokia da zenbait mekanismo ezartzea, instalazioa jartzeko beharrezkoak diren administrazio-izapideak azkarrago egin daitezken.

Ingurumena babesteko helburuari ez zaio kalterik egiten, arauak kontrol-mekanismoak ezartzen dituelako, ingurumenean eragin txikia duten jarduera edo instalazioentzat. Hala eta guztiz ere, zientzialariek ohartarazi dute instalazio jakin batzuen inguruan nahitaezkoa dela neurri zehatzak hartzea, telefonia mugikorrek guneek EEM deiturikoak sortzen dituztelako eta, zantzuen arabera, EEM horiek osasunaren gain ondorioak dituztelako. Instalazio horien kasuan, erakunde honek uste du ustezko azkartasun horri ez zaiola lehentasunik eman behar. Hala gertatzen da, ordea, prozeduran zehar, udal-espeditentari ez bazaio erantsi behar —salbuetsita dagoelako— osasun-txosten arauzko eta loteslea, eta autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak edo foru-organo eskudunak ez baditu neurri zuzentzaileak ezarri behar, izapide hori ere salbuetsita dagoelako. Bigarren izapideari dagokionez, hori ezarrita dago, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, hau da, Eusko Jaurlaritzak ingurumena babesteko eman duen lege orokor horretan.

Ezaguna denez, arreta-printzipioa nagusi izan behar da, osasunarekin zerikusia duten gai guztietan; eta nagusi izan behar da, nahiz eta zalantzakoa izan pertsonen osasunarentzat datorren arriskua. Ez da itxaron behar, beraz, arriskuen egiazkotasuna eta larritasuna oso-osorik egiatzatu arte.

Edozein kasutan ere, aurretiaz adierazi dugun bezala, ukaezina da telefonia mugikorrek antenek ingurumenean duten eragina.

Gainera, aintzakotzat hartu behar da jarraikoa: antena horiek jardunean jartzeko, makineria anitza behar da, batik bat, makineria elektronikoa, eta makineria hori eraikinen ganbaretan instalatzen da. Gure iritziz, makineria hori onartzeko baldintza izan behar da beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzea; horrela, saihestu egingo da auzotarrentzat ingurumen-ondorioak gertatzea eta, aldi berean, kontrol handiagoa bermatuko da, haiek behar bezala ibil daitezten.

Bukatzeko, hurrengo aipatu nahi dugu: ingurumen-organoak edo foru-organoak kalifikazio-izapidea egitea laguntza zalantzaezina da, batez ere, udal txikientzat, udal horiek zailtasun larriak baitituzte sailkatutako jardueren gainean jarraipen zuzena egiteko; izan ere, udal txikiek ez dituzte izaten horretarako beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonalak.

Hortaz, erakunde honen ustez, telefonia mugikorrek instalazioei administrazio-baimenaren araubidea aplikatu behar zaie. Araubide hori ezartzen dute, hain zuzen ere, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 55. artikulua eta ondorengoek; aurretiaz esan dugun bezala, lege hori Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra da.

Eskumenak mugatzea

Udalek prozesu honetan parte hartu behar dute, udal bakoitzak hirigintzaren arloan, ingurumenaren arloan eta osasunaren arloan dituen eskumenak kontuan hartuta. Eskumenoï dagokienez, gogoan izan behar dira apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25, 26 eta 28. artikulua, lege horrek toki-araubidearen oinarriak arautzen baititu.

Egiantan, telekomunikazioen arloan, estatuak du eskumen eskusiboa (EKren 149.1.21 art.). Alabaina, telefonia mugikorrek azpiegituren kokalekuak eragina du, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, eta eragina izan dezake, berebat, ingurumenaren gainean; eta, gai horietan guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du. Arean ere, Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua arabera, autonomia-erkidegoak eskumen eskusiboa du, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan. Gainera, Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikuluari helduta, autonomia-erkidegoak eskumena du, estatuaren oinarritzko legeria garatu eta betearazteko, ingurumenaren eta ekologiaren arloan. Garapen hori jadanik gertatu da, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen bitartez, hori Ingurumena Babesteko Lege Orokorra baita. Bestalde, 18.1 artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du, estatuaren oinarritzko legeria garatu eta betearazteko, barneko osasunaren arloan.

Bide bertsutik, Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua gogoratu behar da. Artikulu horrek ezartzen duenez, *herritar guztiak ingurumen egokia izateko eskubidea dute, euren burua gara dadin; eta ingurumen hori zaintzeko eginbeharra ere badute*. Artikuluak berak gaineratzen duen bezala, botere publikoek zaindu behar dute, naturaren baliabide guztiak zentzuz erabil daitezten, *bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko* helburuarekin.

Gainera, Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua *osasuna babesteko* eskubidea aitortzen du; eta, haren aginduz, botere publikoen betebeharra da *osasun publikoa antolatu eta babestea, aurreneurriak hartuz*.

Horiek guztiak, izatez, gizarte eta ekonomiaren politikari buruzko printzipio artezkariak dira. Euren oinarria, jakina denez, EKren 53.3 artikulua da. Halako printzipioak aintzakotzat hartu behar dira, legeak emateko orduan, epaitegietako egineretan, bai eta botere publikoen jardunean ere.

Ildo horretatik, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak Euskadiko osasun-antolamendua ezarri du. Bada, lege horren 3. artikulua haxe aldarrikatu du: *“Herritarrei euren osasuna babesteko eskubidea aitortu zaienez gero, aitorten horrek betebeharrak ezarri dizkie euskal botere publikoei; ondorenez, Euskal Osasun Administrazioari dagokio osasun publikoaren gaineko babes orokorra bermatzea, aurreneurriak hartuz, osasuna sustatuz...”*.

Era berean, otsailaren 27ko 3/1998 Legea Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra da. Lege horren 8. artikulua hurrengo ezartzen du, ingurumen-politikaren koordinazioari buruz:

“1- Administrazio publiko desberdinek eragingarritasun- eta koordinazio-printzipioen arabera jardungo dute, ingurumenaren arloan eskumenak erabiltzen dituztenean.

2- Ingurumen-politikaren koherentzia bermatzeko, autonomia-erkidegoaren ingurumen-organoari dagokio koordinazio-ahalmenak erabiltzea, hori Euskadiren interes orokorrari komeni bazaio; eskumen horrek bere baitan hartuko ditu, adibide gisa, honako tresna eta mekanismo hauek:

- a) Arautegia prestatzea.*
- b) Ingurumenari buruzko Egitarau Markoa prestatzea.*
- c) Administrazio-prozedurak erraztea.*
- d) Metodo eta irizpide teknikoak homogeinizatzea.*
- e) Agintariek batera jokatzeko, bakoitzak berari dagozkion eskumenen barruan.*
- f) Elkarri informazioa emateko sistemak ezartzea.”*

Proposamenak

Ondorenez, xedatutako gutzia ikusita, Arartekoak uste du arau-marko bat prestatu behar dela. Arau-marko horretan, ez zaie kalterik egin behar udalek eta Estatuko Administrazioak gai honetan dituzten eskumenei. Horiei kalterik egin gabe, gida-lerro erkideak finka daitezke, gure autonomia-erkidegoarentzat. Horrela, azpiegiturak zentzuz erabili ahal izango dira, ingurumenaren gaineko eragina eta luraren okupazioa txikiagoak izango dira, eta Administrazioaren esku-hartzeetarako sistema berezia ezarriko da, telefonia mugikorrek antenen guneak dagokienez.

Gainera, arau horrek, ahal bada behintzat, murrizketak eta gutxieneko kautela-neurriak ezarriko ditu; horien barruan, proposamen zehatzak sartu behar dira, osasunarentzat etor daitezkeen arriskuak saihesteko, bereziki, biztanleriari sentikorrenarentzat (ikastetxeetatik edo ospitaleetatik hurbil).

Gure autonomia-erkidegoko udalek arau-marko horren jarduera-gida-lerroak errespetatu beharko dituzte; eta, gainera, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak gai honetan ematen dizkien eskumenak erabili beharko dituzte, lege horrek arautzen baititu toki araubidearen oinarriak. Modu horretan jokatzuz, gure udalek euren udal-ordenantzak prestatu beharko dituzte, euren lurralde-esparruari dagozkion ezaugarriak eta helburuak kontuan hartuta.

Bestalde, toki-erakundeek kasuan kasuko planeamendu-tresnak aldatu edo egokitu beharko dituzte. Horrela, lurraren erabilerak zonifikatu eta zehaztuz, hirigintzaren ikusmiratik arautuko da nola ezarri behar diren telefonia mugikorreko guneak, betiere, apirilaren 24ko 11/1998 Legearen 44.3 artikuluekin bat etorriz, lege hori Telekomunikazioen Lege Orokorra baita.

6. ERAKUNDEEN BURUZAGITZA, AHULTASUN HANDIKO TALDEENTZAT ZERBITZUAK SORTU BEHAR DIRENEAN

Gure gizartean, talde zehatz batzuk ahultasun handikoak dira eta, haientzat bereziki, zerbitzuak sortu edota egitarauak abian jarri behar dira. Hori egitean, maiz-sarri, Arartekoaren erakundeak esku hartu behar izaten du. Batzuetan, Arartekoak erakundeei azaldu behar die nahitaezkoa dela pertsona horien arazoei erantzuna ematea, bai eta pertsona horiek gizartean ez baztertzea ere. Beste batzuetan, Arartekoak bitarteko moduan jardun behar du, alderdien artean eztabaidak daudelako edota auzotarren erkidegoek berari kexa helarazi diotelako, zerbitzu zehatz bat sortu denean.

Halako esku-hartzeen adibideak hainbat eta hainbat izan daitezke; baina nahiko izango da garrantzi publikorik handiena izan duten gaietatik batzuk aipatzea. Gaiok, besteak beste, hurrengoak izan dira:

- Drogen menpe daudenentzat gaueko laguntza-zerbitzua sortu da, Zamakolan (Bilbo), eta auzotarrak hori irekitzearen aurka jarri dira (Hontza harrera-zentroa).
- Drogen menpe daudenentzat ere, lehendik eguneko zerbitzua zegoen, Bailen kalean (Bilbo), eta orain zerbitzu hori zabaldu egin da; kale horretako auzotarrek, orobat, euren kexak azaldu dituzte (Ihesaren aurkako Batzordearen eguneko zentroa).
- Sestaon, Ijitoen Idazkaritzak zerbitzua sustatu du, eta gizarte-erreakzioa gertatu da, zerbitzu hori irekitzearen aurka.
- Zaintzailerik ez duten adingabe atzerritarrentzat, harrera-zentroak jarri dira abian; baina, horretarako, hamaika zailtasun eta gizarte-istilu gertatu izan dira, harrerako herrietan (Loiu eta Orduñako harrera-zentroak).
- Foruako udalerrian, atzerritarrentzako babeslekua ireki nahi zen, eta auzotarrak ere horren aurka jarri ziren (Afrika Etxea izeneko proiektua)...

Bide beretik, jendaurreko eta ageriko zailtasunak izan dira, kartzela berri bat eraikitzeko; ijitoen seme-alabak eskolatzeak arazoak ekarri ditu, ikastetxe batzuek hori ukatu egin dutelako; Arabako nekazaritza-gune batzuetan, sasoikako langileen familiak gizarteratzea oso zaila izan da...

Adibide horietan, eta beste hainbatetan ere, honako datu hau atzeman daiteke beti: baztertutako taldeak edo ahultasun handiko taldeak izaten dira kasuan kasuko zerbitzu, laguntza edo egitarauaren jasotzaileak, eta biztanleriaren zati handi batek — eskuarki, zerbitzu, laguntza edo egitarau horretatik hurbil bizi denak— uste du hori desagokia dela edo eragozpen- eta arazo-iturria dela. Gainera, kasu askotan, elkartasuneko erakunde edo elkarteek sustatzen dituzte baliabide horiek; eta erakunde edo elkarteok, gizartearen laguntza izan beharrean, beste zailtasun batzuei ere aurre egin behar diete.

Egia esan, beste instalazio batzuk arriskutsuak edo kutsagarriak direla uste izan denean (gasolindegia, elektrizitatea ekoizteko guneak, zaborrak biltzeko zerbitzuak...), horien aurka ere antzeko erreakzioak gertatu dira; horregatik, hemen egingo diren oharretako batzuk beste kasu horiei ere aplikatu dakizkieke. Alabaina, gomendio honetan, egoera berezi-berezi batzuk baino ez ditugu aztertu nahi. Egoera horiek sarritan gertatzen dira, baztertutako taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean. Zehatzago esateko,

gomendio honetan aztertu nahi dugu, halako egoeretan, erakunde arduradunek zein buruzagitzak bereganatu behar duten.

Zerbitzuak sortzen direnean, zerbitzu horien ezaugarriak kontuan hartuta, arautegi zehatza bete behar da eta, ondorenez, zerbitzua sortzeak prozedura arautua bete behar du (obrak egiteko baimena, irekitzeko baimena...). Kasu horietan, Administrazio eskudunak haxe besterik ezin du egin: legezko arauketa aplikatu, ezarritako prozedura zehatz-mehatz bete eta, kasuan-kasuan, erabakia hartzea, zerbitzuari oniritzia edo gaitziritzia emanez. Zalantzarik gabe, prozedura horien oinarriko eginkizunetatik bat da alderdiei segurtasun juridikoa ematea; hots, segurtasun juridikoa ematea, bai zerbitzua irekitzea eskatu eta sustatu dutenei, bai proiektuaren eragina jasan dezaketenei. Hortaz, oso garrantzitsua da prozedura zorroztasunez betetzea eta prozedura horrek eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea, alderdi guztiak euren alegazioak egin ditzaten eta, garaiz eta forma egokiz, euren jarrerak azal ditzaten.

Gertatutako arazo batzuk, beharbada, ez ziratekeen gertatuko, aurretiazko pausoak ondo bete izan balira, besteak beste, jendeari argibideak ematea, alderdiei jakinarazpenak egitea, alegazioei erantzuna ematea... Baina beste kasu batzuk oso konplexuak dira edo inguruabar berezietan gertatzen dira; eta, horren ondorioz, baliteke jarrerak eta ezezkoek euren horretan irautea, nahiz eta arauetan ezarritako pauso guztiak behar bezala bete. Alabaina, hori ez litzateke inoiz aitzakia izan behar. Alderantziz, egoera konplexua denean edota gizartea proiektuaren aurka jar daitekeela aurreikusten denean, orduan arreta berezia jarri behar da, eta ahalegin handiagoak egin behar dira, argibideak emateko, jarrerak aztertzeke, erabakiak hartzeke eta alderdiak elkar hurbiltzeke. Beste esparru batzuetan, ohikoak izaten dira adiskidetzeko edo bitarteko gisa jarduteko mekanismoak, eta halako mekanismoak erabil daitezke, aztergai ditugun kasuetan ere.

Gomendio honek, bide horretan, lagungarri izan nahi du; horregatik, arestiko eskarmentuak, hala positiboak, nola negatiboak, gomendio honen abiapuntuak izango dira. Gure lehendabiziko helburua, beraz, haxe izango da: auzotarren erreakzioek zein arazo edo hutsune azalarazten duten adieraztea.

Alde batera utziko dugu auzotarren azalpenak zuzenak edo okerrekoak diren, eta, orobat, ez dugu aztertuko azalpen horiek nola kanporatzen diren. Hori guztia bazter utzita, auzotarren erkidegoek zer dioten entzunez gero, eta euren arrazoiak aztertuz gero, euren hitzetatik edo hitzetan ezkutatuta atera daiteke zeintzuk diren ezetz esateko arrazoiak eta zeintzuk diren zalantzan jartzen diren kontuak. Modu erraz baina didaktikoan, hurrengo puntuetara bil daitezke erabilitako arrazoi gehienak:

- a) *“Zerbitzuari ez”*. Auzotarren iritziz, zerbitzua desegokia da; adabaki bat besterik ez da; ez die arazoei erro-errotik heltzen; ez dator bat zerbitzuaren beraren helburuekin...
- b) *“Zerbitzua, hemen, ez”*. Zenbait kasutan, ezetz esateko arrazoiak da aurretiaz ere antzeko beste hainbat zerbitzu bertan izatea (“gure elkartasun-kuota jadanik beteta dago”); beste kasu batzuetan, berriz, arrazoiak da auzuneak arazo berriak bereganatzea, lehen halakorik izan ez arren... Argiago esateko, ez da zalantzan jartzen egitaraua ona izan daitekeenik (adibidez, drogen kontsumoari lotutako kalteak txikitzea); zalantzan jartzen da, ordea, zerbitzuaren kokalekua bera.
- c) *“Zergatik hemen eta ez han?”*. Arrazoi hauek eta aurrekoak antzekoak dira (hemen ere zalantzan jartzen baita kokalekuaren egokitasuna). Baina, hemen,

konparazioa egiten da, eta konparazio horretatik batzuek ateratzen dute eurei kalte egiten zaiela.

- d) “*Ez digute argibiderik eman, eta ez digute entzun*”, behar den beste edo aurretiaz: ez digute kontsultarik egin; gure iritzia ez da aintzakotzat hartu; guretzat etor daitezkeen ondorio kaltegarriak ez dira balioetsi; proiektua isilpean gauzatu da; jadanik bukatuta eta erabakita zegoenean aurkeztu zaigu...

Arrazoi-mota horiek modu desberdinetara kanpora daitezke, pertsonen arabera eta egoeren arabera. Baina, arrazoi-mota bakoitzaren azpian, oinarriko arazoak atzeman daitezke eta, sarritan, gizartearen ikusmiratik ez dira asko lantzen arazo horiek. Ildo horretatik,

- Politika zehatz batzuen aurkako iritzia igar daiteke. (a)
- Zalantzan jartzen da zerbitzu zehatz batzuk gune jakin batzuetan pilatzea. (b)
- Salatu egiten da ez dela plangintzarik egin eta baliabideak ez direla ekitatez banatu. (c)
- Protesta egiten da, informaziorik jaso ez delako eta parte hartzeko biderik izan ez delako. (d)

Berriz diogu: hemen kontua ez da arrazoiak zuzenak ala okerrekoak diren balioestea; kontua ez da, berebat, kritikarik gabe arrazoi horiek onartzea. Haatik, kontua da, jarrera horien euskarriak, hau da, oinarriko arazoak, zeintzuk diren ulertzea. Esate baterako, zerbitzu zehatz batzuen inguruan, plangintza publikoa izango balitz, ziur asko errazagoa izango litzateke, gune jakin bateko auzotarren ordezkarien aurrean, gune horretan baliabide zehatza nahitaezkoa dela defendatzea; izan ere, antzeko zerbitzuak ezartzen dira —edo, plangintzaren arabera behintzat, etorkizunean ezarriko dira—, beste gune batzuetan ere. Edozein kasutan, honako gertaera hau ez dirudi ustekabekoa denik: kontrako erreakzioak edo erreakziorik zitalenak, maiz-sarri, degradazio handiko herri eta auzuneetan edo euren burua bazterturik ikusten duten horietan gertatzen dira.

Kontuan hartzekoa da, beraz, azken urteotako eskarmentua eta, bereziki, azken urte honetakoa; azken urte honetan, Arartekoari hainbat arazo eta kexa helarazi zaizkio, aztergai dugun gaiaren inguruan. Eskarmentu hori guztia aintzakotzat harturik, errazago azter daiteke zergatik sortu eta zabaltzen diren aurreiritziak, eta zergatik burutzen diren jardura zehatz batzuk; horiek guztiek, modu objektiboan, liskarra handitzen dute, arazoak enkistatzen dituzte eta arazoon konponbidea oztokatzen dute. Askotan, ezezko erreakzioak ez dira sortu edo zabaltzen, egiazko edo esperimentatutako arazoan ondorioz, baizik eta estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako ustezko edo balizko arazoan ondorioz.

Gure aburuz, elementu jakin batzuek aurreiritziak sustatu eta arazoak areagotzen dituzte, hala nahita zein nahi gabe. Elementu horiek, besteak beste, ondokoak dira:

- Ez da zuzeneko informaziorik ematen, eta gizarteak ez du parte hartzeko biderik izaten (edota informazioa eta parte hartzeko bideak urriak dira).
- Zenbait kasutan, komunikabideen jarrera erabakigarri gertatzen da, komunikabideok alde txarrak baino ez dituztelako azpimarratzen.
- Erakunde arduradunek ez dute ezer egiten edo ez dute buruzagitza euren gain hartzen.

- Ez da alde aurretik pentsatu zeintzuk izango diren gizartearen erreakzioak eta nola egingo zaien aurre.
- Tentazioa da, besterik gabe, ezer ez egitea, denboraren poderioz, iskanbila usteldu arte edo iskanbilak indarra galdu arte.

Oso kezkarria da gizartearen erreakzio zehatz batzuk ikustea, erreakzio horiek intolerantzia eta gorrotoa erakusten dituztenean. Halakoak gertatu dira, gertatu ere, ahultasun handiko taldeei edota gizartetik baztertutakoei zerbitzu bereziak eskaini zaizkienean, eta zerbitzu horiek deserosotzat jo direnean. Era berean ere, hainbat zailtasun eta oztopo jarri dira, proiektu horiei buruzko informazio esanguratsua helarazteko, elkarrizketa eraikitzaileerako bideak ezartzeko, eta interes desberdinak eta elkarren aurkako eskubideak bateratzeko.

Egiantan, horrelako erreakzioak ez dira berriak eta, gainera, ezin daiteke esan biztanle guztiek modu horretan jokatzeko dutenik. Baina erreakzio horiek gero eta ugariagoak izatea kezkarria da oso. Azken urteotan, gure gizartean, gizarte-zerbitzuek garapen garrantzitsua izan dute; bereziki garatu dira baztertutako taldeen gizarteratzea edo integrazioa bultzatu nahi dutenak. Proiektu batzuk, batez ere, hasieran, ez ziren ondo hartu, eta arbuiatu egin ziren. Baina, orokorrean, hasierako ezin-ikusi eta susmo txar horiek gainditu egin ziren, informazioa zabalduz eta behar den moduan jokatu. Praktikak erakutsi du zerbitzu horiek ez dutela arazorik erakartzen; kontrara, aurretiaz zeuden arazoak konpontzen dituzte. Ez du ematen alde positibo horiek gizartean barnerratu direnik.

Bistan denez, zerbitzu horiek sortzeko orduan, hainbat jardule edo agente izaten dira tartean: erakundeak, elkarteak, komunikabideak, erabiltzaileen taldeak eurak... Horiei guztiei dagokie —guztiori dagokigu— eginkizun berezia betetzea.

Burututako jardunean, Arartekoaren erakundeak, batzuetan, bitarteko moduan jardun du, alderdien artean. Eta, ia beti, informazio bildu du, eta administrazio eskudunei adierazi die, behar den moduan bete behar dituztela, bai legeak, bai eta euren erantzukizunak ere. Zenbait kasutan, erakunde honek, kexen izapidetza egin duen bitartean, bere ustez beharrezkoa den gomendioa egin du, baina ez da horretara mugatu. Are gehiago, Administrazio ukituari zenbait ohar helarazi dizkio, horrek eman dituen pausoei buruz eta, Arartekoaren iritziz, eman beharko lituzkeen pausoei buruz. Ohar horiek, jakina denez, kasu zehatz baten inguruan egiten dira, eskuarki; eta halako oharak dira hemen jaso nahi ditugunak. Ohar horiek antzeko egoeretan ere aplikatuko ahal izango dira etorkizunean, eta, beraz, arreta-elementu izan daitezke, bihar-etziko arazoei begira.

Gauzak horrela, pertsona-talde batzuek baztertuak izateko arriskua badute, edo talde horien egoera ahultasun handikoa bada, eta haientzat zerbitzu bereziak sortu nahi badira, orduan, Arartekoaren erakundearen ustez, administrazio eskudunek jarrera aktiboa eta buruzagitzako jarrera izan behar dute, kasu guztietan, hurrengo helburuak lortzeko:

- Gizartearen sentsibilizazioa sustatu behar da, biztanle zehatz batzuek baztertuak izateko arriskua dutenean eta horientzat zerbitzuak sortu nahi direnean. Zerbitzu horiek beharrezkoak eta onak dira, eta gizartea horretaz jabetu behar da. Horretarako, nahitaezkoa da, gutxienez, informazio sistematiko eta argia eskaintzea, bazterketaren aurkako politika eta apustuei buruz, bai eta bazterketa horren aurkako gizarte-erantzunari buruz ere.

- Laguntza-beharrizanak zehatz-mehatz aztertu behar dira eta, horren ondorioz, erantzunak eta horien lurralde-banaketa planifikatu behar dira. Ahal den neurrian, saihestu behar da gehiegizko kontzentrazioak izatea, horrek guettoak sortzeko arriskua baitakar.
- Gizarteari parte hartzeko mekanismoak eskaini behar zaizkio, eta mekanismo horiek izan eta zabal daitezten erraztu behar da. Halako mekanismoen bitartez, argibideak eta proposamenak trukatu ahal izango dira, eta, horrekin batera, proiektuaren fase guztietan, presentzia aktiboa izango dute, bai antolatutako gizarte-agenteei (elkarteei...), bai eta zuzenean ukitutako auzotarrek ere.
- Ukitutako administrazio edo sail desberdinen artean (tokikoak, lurraldekoak nahiz erkidegokoak), koordinazio izan behar da, eta administrazio edo sail horiek jarrera bateratuak izan behar dituzte.
- Zerbitzuaren jardunbidea zuzena izan dadin, beharrezkoak diren bermeak eskaini behar dira. Konparazio baterako, egitaraueri edo profesionaleri laguntza, kontrola, ebaluazioa, jarraipena... eta gainerakoak bermatu behar zaizkie, batik batik, baliabidearen kudeaketa beste erakunde baten esku uzten denean edo baliabide hori gizarte-ekimenetik sortzen denean. Bermeak eskaini behar zaizkie, gainera, dela zerbitzuaren erabiltzaileei, dela toki horretako auzotarrei.
- Ahal den neurrian, istiluak saihestu behar dira; eta, istiluak sortzekotan, lan egin behar da, horiek azkar konpon daitezten.
- Egitarauen gaineko jarraipena egin behar da; jarraipen horri esker, beharrezkoak diren aldaketak egingo dira eta, modu berean, eginera onak zabalduko dira.

Hori guztia dela eta, Arartekoaren erakundearen iritziz, guztiz beharrezkoa da erakundeetako arduradunek proiektu horiek sustatzea eta proiektuon buruzagi izatea. Beharizan hori areagotu egiten da, proiektuen hasieran batez ere, biztanle batzuk kezkatua egon daitezkeelako, edo biztanleok ez dituztelako proiektu horiek begi onez ikusten; hori gerta dakieke, bereziki, hurbilen daudenei edota proiektuen ondorioak zuzenean jasango dituztenei. Erakundeen buruzagitza horrek honako helburu hauek izan behar ditu: gizartea sentsibilizatzea; herritarrek parte hartzea; beharizanen erantzunei buruz, plangintza egitea; administrazioen artean, koordinazioa izatea; elkartasuneko gizarte-ekimenei laguntza ematea; gizarte-eragileek konpromiso berezia badute baztertutakoen alde lan egiteko, orduan eragile horiekin elkarlanean aritzea; eta, halaber, zerbitzuak behar bezala dabilzala ziurtatzea.

7. UDAL ORDENANTZEK ZEHAPENAK EZARTZEKO LEGEZ GAITUTA EGON BEHAR DUTE. PERTSONEN ZEHAPEN-LEGEZKOTASUNERAKO ESKUBIDEA

Toki Administrazioa da hiritarrendandik hurbilen dagoena. Hurbiltasun-ideiak administratzaile eta administratuen arteko erlazio etengabea eragiten du, udalari dagozkion eguneroko lanak eraginkortasunez burutzeko aprobetxatu behar dena. Udalak tokian tokiko arazoetatik hurbil daude eta, horregatik, batzuetan udalak auzo-gatazka horiek beraien esku-harmena gaitzen duten eskumen edo abiaburu orokorretara joz arautzen saiatzen dira. Hala ere, lurralde erakundeon jarduketa-eremua ezin da toki eremu horrekin zerikusia duten arazo guztietara zabaldu: antolamendu juridikoak berak zehaztuta egon behar du jarduketa-eremu horrek.

Udalek funtsezko eginkizuna dute: ordezkaritza eta administrazio aldeetatik beren interesak kudeatzea. Udal eremuko interesen kudeaketa horrek Konstituzioak aintzatetsitako toki autonomiaren abiaburua du oinarri.

Alabaina, toki autonomiaren abiaburu hori ez da oztopo udalerriek, hala nola, Herri Administrazioak, Konstituzioari eta antolamendu juridikoari men egin behar izateko. Horren ondorio nagusia legegilearen borondatearekiko eta agintari horrek ematen dituen arauetik menpekotasun osoa da, hau da, legez gaitzearekikoa.

Baieztapen horrek zuzeneko ondorioak ditu toki autonomiaren abiaburuarentzat, jakinik ezen tokiko eskumen-eremuaren erabilera arautzeko ahalgoarekin burutzen dela. Autonomia erkidegoek, aldiz, zentzu hertsian legeak egiteko ahala dute. Horregatik, udalek legegaren esku-harmena behar dute, beraien tokiko eskuharmen-eremua zehazteko.

Udalerrien legegarekiko funtsezko lotura hori gorabehera, maiz lurralde administraziook beraiek legez gaitu ez diren gaiak ukitzen dituzten gaiak antolatzen dituzte, ezarritako neurriak bete edo errespetatu ezean dagokien zehapen-araubidea ezarri.

Udal ordenantza lokabeok, hau da, ezein legeri lotuta ez dauden udal ordenantzok, pertsonen zehapen-legezkotasunerako eskubidea ukitzen dute. Izan ere, jarraian azalduko dugun bezala, funtsezko eskubide horren edukia araberak, legean aipatutako ekintzak edo alderauzketak bakarrik zeha daitezke.

Horregatik, udal ordenantza batzuk deusez adierazi dituzte auzitegiek. Egin-eginean ere, ordenantza horiek, erkidegoarentzat garrantzizkoak ziren gaiak azaldu arren, ez zeuden legea urratzearen gutxieneko edukia eta ezarri beharreko zehapena biltzen zituen arlo-legegaren bitartez gaituta. Adibide gisa, ibilgailuen aparkaldi muga araupeturik zuten trafiko-ordenantzak aipatu ahal ditugu. Gai horri buruz epai ezberdinak ematen zituzten justizi auzitegiek, eta horrek Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea eraldatzea ekarri zuen. Horretarako, martxoaren 24ko 5/1997 Legea baliatu zen, udalak aparkaldi mugatuko zonetan txarto aparkaturiko ibilgailuak zehazteko gaitu zituena.

Dena den, erakunde honentzako balizkorik kezagarrienak toki administrazioek legeriatik at legea barik morala oinarri hartuta gaitzesten diren jokaerak antolatzen dituztenekoak dira. Horixe gertatzen da udalek orokorrean honakook eragozten dituzten ordenantzak araupetzen dituztenean: portaera lizunak, gizalegaren kontrako jarduketak edo hiritarren moralitasunari erasotzen diotenak. Moralitasuna bezalako gaiez ari diren lege-kontzeptu zehaztugabe horiek, gizartean eboluzionatzen baitute eta oso subjektiboak

baitira, ez dute ezein legezko arauen oinarririk. Hori dela eta, ezin dira jokaera horiek administrazio-zehapenen bitartez gaitzetsi. Alabaina, maiz aurki ditzakegu toki administrazioek aipatu erreferentziak jaso dituzten gizabide mailako eta gobernu oneko ordenantzak.

Gomendio orokor honen xedea tokiko herri botereek Konstituzioaren 25. artikuluan ezarritako zehapen-legezketasunerako eskubidea behar bezala aintzatesteko oinarriak finkatzea da. Eskubide horri jarraiki, toki autonomiaren abiaburu gorabehera, udalek ez dute esku hartzeko beren eremua gainditu behar, ezta ezein lege zehatzetan ezarrita ez dagoen ekintza edo alderauzketarik zehatu ere.

I. Zehapen-legezketasunaren abiaburuaren eragina antolamendu juridikoan

- Administrazioaren legearekiko lotespina

1978ko Konstituzioak berariaz aintzatetsitako konstituzio-abiaburuaren artean, lege-erreserbaren abiaburuari buruz hausnar egin behar da bereziki. Izan ere, abiaburu hori Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko bermeetako bat bezala itxuratuta dago.

Beraren edukiarekin bat etorririk, demokratikoki hautetsitako ordezkariak bakarrik araupetuko dituzte hiritarren askatasun-eremuak, eta betearazleek ez: beroriek interes orokorrek kudeatuko dituzte. Era berean, abiaburu horren bitartez hiritarren segurtasun juridikoa bermatu gura da, lex certa baten aurrean une oro zeini lotu eta lege-urratze bezala tipifikatuta dauden ekintzak edo alderauzketak zein diren behar bezain ziur jakin dezaten.

Abiaburu hori Konstituzioaren 9. artikuluan aipatuta dago, eta 103.1 artikuluan garatuta. Izan ere, bertan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioak «Legeari eta Zuzenbideari erabat men eginez» jardun behar du. Manu horren edukiaren ondorioz bereziki adierazi behar denez, indarrean dagoen antolamenduan araudiek, legearena baino beheragoko lerruneko betearazpen-botereak ematen dituen arau orokorrek diren aldetik, legeak beraientzat aurretik ezarritako eskuharmen-aukeren menpean egon behar dute.

- Lege-erreserba, administrazio-zuzenbide zehatzailean

Aurrekoa oinarri hartuta, abiaburu honek babes maila altuagoa iristen du, Konstituzioaren I. tituluaren II. kapituluaren II. atalean eskubide eta askatasunak babesteko dagoen eremuan sartuta baitago. Izan ere, bertan ezarrita dagoenaren arabera, Administrazioak ezin dio ezein pertsonari zehapenik ezarri, urratzea zer den eta beronen administrazio-zehapenak nolakoa izan behar duen berariaz ezarri duen legerik ez badago.

25.1 EK artikuluan aintzatetsitako funtsezko zuzenbideak, zehapen-administrazioaren antolamenduari aplikatu ahal zaionak, hiritarrentzako berme bikoitza sartu du: lehenengo bermea, materiala, zilegitzat hartzen ez diren jokaerak eta dagozkien zehapenak aurretik arauz zehazteko eskaerari buruzkoa; eta bigarrena, erazkoa, administrazio-urratzearen motak eta dagozkien zehapenak araupetzeko lege-erreserbaren beharrari buruzkoa.

Berme hori gero (zehatzeko ahalgoa baliatzeko kontuan hartu behar diren oinarriko abiaburuak eta beraietatik datozen eskubideak araupetzear) garatu da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bitartez.

Lege horretan bilduta daude, besteak beste, legezketasun (127. artikulua) eta tipikotasun (129. artikulua) abiaburuak. Beraiei jarraiki, administrazioek zehatzeko ahalgoa erabili ahal dute, baldin eta soilik baldin lege-lerruneko arauan berariaz eratzikitzen bazaie, baita dagozkien administrazio- urratzeak eta -zehapenak ere. Alabaina, arauak lege ezarritako urratze edo zehapenetara zehaztapenak eta mailakapenak sartzeko araudira jotzeko aukera zehaztu du, baldin eta urratze edo zehapen berririk eratzten ez bada eta beraren izaera eta legeak itxuratutako mugak errespetatzen badira.

Gure autonomi eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zehatzeko ahalgoari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14.1 artikuluan aipatuta dagoenez, «*Legean aurretik zehazturiko zehapenak bakarrik ezarri ahalko dira*». Arau hori aplikatu behar dute, haren 1.1 artikulua arabera, Euskadin beren zehatzeko ahalgoa erabiltzen duten erakunde guztiek, bai Estatuko Administrazioak bai lurralde historikoetakoek eta toki erakundeek, Autonomia Erkidegoak arau-eskumen osoa edo konpartitua duten gaitetan. Arau horren zio-azalpenean zehaztuta dagoenez, zehatzeko ahalgoa burutzeko lege zehatza behar da. Zio-azalpen horretan aipatuta dago prozedura ikuspegitik eta ikuspegi materialetik lege horrek gutxienez bildu behar duen edukia ere: «*Aurretik aipatutako helburuak lortzeko araupeketarako tresnarik egokiena legea da. Konstituzioaren 25.1 artikuluan ezarritako lege-erreserba urratze eta zehapenei bakarrik dagokie berariaz, baina zentzuzkoa da zehapen-araubideen funtsezko alderdiak, benetakoak eta prozedurazkoak, erreserbaren eremuan sartu dituen tesia. Pentsa bedi, esate baterako, erantzukizuna zehaztearekin loturiko guztian: frogatzeko kariatetan, errugabetzeko kariatetan, partaidetzan, preskripzioan, defendatzeko eskubidean eta abarretan.*»

Manu horiek Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 8ko 132/2001 KAE epaiaren jurisprudentzi bideari jarraitu diote: «*Apirilaren 7ko 42/1987 KAE epiaz geroztik adierazi izan du ezen 25.1 EK artikulua bere eduki materialik ez duten arauak gaitzea galarazi duela. Doktrina hori gero xehekatu eta zehaztu da urratze eta zehapenen tipifikazioan arauzko lankidetzako hainbat balizkotarako. Horretara, zehaztu dugunez, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako arau arau-emaleei begira, Lege zehatzaileak legearen kontrako jokaeraren funtsezko elementuak eta ezarri beharreko zehapenen izaera eta mugak izan behar ditu (urtarrilaren 21eko 3/1988 KAE, 9. E; ekainaren 8ko 101/1988 KAE, 3. E; azaroaren 18ko 341/1993 KAE, 10. E; martxoaren 2ko 305/2000 KAE, 3. E). Formulazio zuzenekoagoz esan genuen urriaren 25eko 305/1993 KAEan, 3. E.an, ezen, 25.1 EK artikuluan ezarritakoaren arabera legegileak bere kabuz araupetu behar zituela aplikatu ahal zitzaizkion administrazio-urratzearen motak eta zehapenak. Konstituziotik abiatuta, ezin da urratze berririk tipifikatu ez zehapen berririk sartu. Era berean, ezin du dauden zehapenen koadroa aldatu Lege-lerruneko beste arau batek aurretik behar bezain zehaztu edo mugaturik ez dagoen edukia duen arau arau-emale batek. Adierazpen hori gero berretsi da urtarrilaren 17ko 6/1994 KAEaren 2. E.an eta beste epai batzuetan. Argi dago, batera edo bestera, gure jurisprudentziak 25.1 EK artikuluan ikusi izan duela administrazio-urratzeen funtsezko elementuak eta dagozkien*

zehapenak tipifikatzeko eskaera. Hala denean, Araudiari dagokio Legeak aurretik ezarritako urratze motak garatu eta zehaztea».

Gauzak horrela, zehapen legezkotasunaren abiaburua legeriaren kontrako jokaerak eta dagozkien zehapenak araupetzen dituen berariazko legea eskatzen duen bermea da. Lege-erreserba lege zehaztutako funtsezko elementuak zehaztu edo mailakatzeko arauetara jotzearekin bateratu ahal da. Hala ere, bai aipaturiko legeriaren bai konstituzio-jurisprudentziaren arabera, araudiak ezin dute urratze ez zehapenik bildu, legeak horretarako berariaz gaitzen ez baditu; ezta arau-garapena osorik edo hutsik jotzeko erabili ere, eduki material berezirik ezarri ezean. Nolanahi ere den, lege-lerruneko arauak administrazio-urratzeen funtsezko elementuak eta dagozkien zehapenak tipifikatzea ezarri behar du.

Kontuan hartu behar dugu ezen abiaburu hori ñabartu duela Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak kasu zehatz batzuetan. Horrek haren edukia malgutzea ekarri du. Horixe ikus daiteke lotura bereziko deietan (abenduaren 10eko 234/1991 KAE).

Abiaburua berriro ñabartu du konstituzio-jurisprudentziak 177/1992 KAE epaian-eta. Izan ere, lege-lerruneko arau bezala onartu ditu berriro ikusi ez diren eta indarrean dirauten arau-lerruneko konstituzioarreko xedapenak, baldin eta araupetutako gaia behar bezala eguneratu ez bada.

Azkenik, Konstituzioaren 25.1 artikulura bildutako abiaburuaren modulazioa aipatu behar dugu. Hura konstituzioaren baitan garatu da beste konstituzio-abiaburu bat zaintzeko, toki autonomiaren abiaburua zaintzeko alegia, lasaitasunez aztertuko duguna.

II. Zehapen-legezkotasunaren abiaburua eta beraren eragina toki administrazioan

Antolamendu juridikoari jarraiki, legeria prestatu behar da arautzeko eta zehatzeko ahalgoa erabili ahal izateko. Legeak egin behar hori are garrantzitsuagoa da udal eremuan eta beronen arau-agerpide klasikoan, ordenantzetan. Izan ere, tokiko lurralde erakundeek ez dute legerik egiteko ahalgorik. Egin-eginean ere, toki eremuko herri administraziook, beren interesak kudeatzeko autonomia duten arren, ez dute lege-lerruneko araurik egiteko eskumenik.

Horrek eta Konstituzioak toki autonomiaren abiaburuari emandako garrantziak doktrina- eta jurisprudentzia-etzabaida handia sartu dute, udal ordenantzak dituen toki eremuan legea eta beraren modulazioak nagusitzeari buruzkoa.

Toki autonomiaren abiaburua Konstituzioaren VIII. tituluari sartuta dago. Bertan bermatuta dago udalerriek beren interesak kudeatzeko duten autonomia.

- Toki autonomiaren abiaburua Konstituzioan, eta beraren edukia

Konstituzioaren 137. eta 140. artikuluetan ezarritako autonomi abiaburu hau erakunde-bermea da eta beraren definizioa garatu du Konstituzio Auzitegiak 32/1981 bere Epaiatz geroztik: *«toki erkidegoaren eskubidea, dagozkion gaien gobernuan eta administrazioan bere organoen bitartez parte hartzekoa. Partaidetza horren bizitasun maila gai horien barruan tokiko eta tokiz gaindiko interesen artean dagoen erlazioaren arabera da. Dagozkion gaien gobernuan eta administrazioan parte*

hartzeko, toki erkidegoa ordezkatzan duten organoek horretarako ahalgoak izan behar dituzte eta beroriek gabe ezin dute autonomiari begira jardun».

Ikuspuntu materialetik, autonomia erkidegoentzat ezarritakoaren kasuan ez bezala, bere eskumeneko gaitan parte hartzeko eskubide hori ez dago eskumen eremu edo zerrenda zehatz baten bitartez Konstituzioak bermatuta. Izan ere, erakunde-berme horren bitartez babestuta geratu den gutxieneko edukitik harago, toki autonomia legegileak zehaztutako legezko edukiko lege-kontzeptua da.

Horrela, Konstituzio Auzitegiaren 2001eko uztailaren 5eko Epaian aipatuta dagoenez, *«Azken batean, 137. EK artikuluan (eta osagarri gisa, 140. eta 141. EK artikuluetan) ezarritako toki autonomiak lurraldeko toki izakien autogobernuaren oinarritzko gunearen edo funtsezko elementuen erakunde-bermea dakar: Gune hori nahitaez errespetatu behar du legelariak (estatukoak zein autonomikoak, orokorrak nahiz arlokakoak) administraziook autogobernuden erakunde bezala aintzatets daitezten. Konstituziogileak ez zuen aurretik ezarri toki autonomiaren eduki zehatzik. Hori dela eta, funtsezko gune horren zati direla zentzuz esan daitekeen gaiak araupetzeko konstituzioz gaitutako legegileak zentzu batean edo bestean hura itxuratzeke bere hasierako askatasuna erabili ahalko du, baina, hori egitekotan, ezin izango du 137., 140. eta 141. EK artikuluetan finkatutako marko orokorrarekin bateratu ezin den toki autonomiaren edukirik ezarri.»*

Era berean, toki autonomiaren nozio hori Toki Autonomiari buruzko 1985eko Europako Gutunean bilduta dago, zein Espainiak 1988an berretsi baitzuen. Haren 3. artikuluan ezarrita dagoenez, *«toki autonomia toki erakundeek herri gaien zati handi bat legearen markoan, beren erantzukizunpean eta bertako biztanleen onerako antolatuta eta kudeatzeko duten eskubide eta benetako gaitasuna da».*

Gauzak horrela, berme horren gutxieneko edukia Konstituzioan aintzatetsita dago; baina, toki araubideari buruzko Estatuko oinarritzko legeriaren eta arlo-legeriaren bitartez garatu behar da, benetan eskuduna den administrazioaren arabera, Estatuaren edo autonomia erkidegoaren arabera.

- Legea, udalerrien eskuharmenerako eremua itxuratzen duen elementu bezala

Alde batetik, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 2.1 artikuluan ezarrita dagoenez, estatuko edo autonomiako herriko ekintzaren arloen legeriak, eskumen-banaketaren arabera, toki autonomiaren berme hori bermatu behar du, haien interesak zuzenean ukitzen dituzten gaitan esku hartzeko eskubidearen bitartez.

Ezarpen horri edukia emateko, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeak udalerrien jarduketa-eremuaren gutxieneko edukia ezarri du, lege baten bitartez zehaztu behar dena. 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, udal interesak kudeatzeko, udalerriak eskumen batzuk baliatuko ditu gero emango den edo, hala denean, dagoen estatu edo autonomi eremuko arlo-legerian ezarritako eran, haren bigarren xedapen gehigarrian aipatuta dagoen bezala.

Kasu horretan, udalerrien eskuharmenerako eremuaren itxuraketa zehatza ezagutzeko kontuan hartu behar da haiek dituzten edo eskuordetuta eratxiki zaizkien eskumenak garatzen dituzten arlo-legeen edukia. Izan ere, berauek udalerrien eskumen-multzoa zehazten dute. Gai horiek udalari bere interesaren alde jarduteko eremua gordetzen dion arautegi zehatzean bilatu behar dira, arlo batzuetan gertatzen den bezala.

Arlo horiek honakook dira: hiritarren segurtasuna babestea, zirkulazioa eta bide-segurtasuna araupetzea, lurzorua araubidea, ingurugiroa edo osasuna.

Udalerrien jarduketa-eremua mugatu ahal izateko mekanismoak ezarri ostean, udalerriek bertan jarduteko dituzten tresna edo ahalmenak zein diren adierazi behar dugu. TAOL Legearen 4.1.a artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, toki administrazioek udaleko beren eskumen-eremuan arautzeko eta zehatzeko ahalgoa erabiltzeko ahalmena dute, besteak beste.

Udallerriak bere arazoei jaramon egiteko duen arau-agerpidea Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 84.1.a artikuluan zehaztuta dago. Manu horretan bilduta dagoenez, udalek udal ordenantzak dituzte arau-tresna. Hortik kanpo daude udalerriek beren burua antolatzeko dituzten eskumenak erabiltzeko araudiak eta, salbuespen gisa, alkatetzaren bandoak.

Udal eskumenez, hortaz, arlo-legeek zehaztuta egon behar dute. Legeok udalerrien jarduketa-eremua argi identifikatu behar dute eta legeen aurkako jokoerak eta ezarritako aginduak bete ezean ezarri beharreko zehapenak ezarri.

Eskema hori ulertzeko aipatu behar da aurretik azaldutako hiritarrarentzako beste oinarrizko berme-abiaburu hori: legezketasun abiaburu. Beraren bitartez legea nagusi da eta ordenantzak lege-lerruneko arauak aurretik araupeturikoarekin lotetsi behar dira.

Konstituzio-ikuspuntutik, udalen eskumenez eduki materiala zehazteko lege-lerruneko arau bat eskatu behar da, toki erakundeok beren ahalmenak erabili ahal izan ditzaten, hala nola, arautu eta zehatzeko ahalgoa. Gainera, zehatzeko ahalgoak babes maila altuagoa eskatzen du. Izan ere, Konstituzioaren 25. artikuluan bilduta dagoenaren arabera, legezko gaikuntza aurreikusi eta administrazio-urratzearen tipikotasuna berariaz biltzen duen lege bat eskatzea dago, hiritarrei dagozkien zehapenak ezarri ahal izateko.

III. Toki eremuko zehapen-legezketasunaren abiaburuaren modulazioak

Aurrekotik ondoriozta daitekeenez, udalaren eskumenez gaiak araupetzen dituzten toki ordenantzak, beraietan ezarritako betebeharrak bete ezean ezarri beharreko zehapenak ezartzen dituztenak, estatu- edo autonomia-lege gaitzailearen menpean daude.

Hala ere, doktrina hori zehaztu behar da udal ordenantzen arau-lankidetzaz zehaztu behar denean. Udal ordenantzei begirako lege-erreserbaren alkantzua zehazteko xedez, Konstituzio Auzitegiak lege-erreserbaren gaineko ulerkerak malgua hartu du eta, horren ondorioz, arauak garatzeko udal ordenantzen jarduketa-eremu zabala onartu du.

Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiak abenduaren 13ko 233/1999 Epaian zehazturik du zerga-arloko legezketasun abiaburuaren modulazioaren edukia, toki autonomiari dagokionean. Horretarako, lege gaitzailearen beharra ezartzen jarraiturik ere, uste du ezen udalerrien arau-lankidetzako eremua, ordenantzak garatua, Estatuko arauzko arautegia ikusita kontuan har daitekeena baino handiagoa dela. Hala ere, legea behar-beharrezkoa da tokiko zerga-ahalgoa arautzeko.

Auzitegiak bi alderdi topatu ditu hori justifikatzeko: organo ordezkaria den Udalaren Osoko Bilkurak onetsitako udal ordenantzen izaera bera eta toki autonomiaren bermea. Izan ere, berme horrek dakarrenez, legeak ezin du toki interesa present-present dagoen

gaietan eskumena agortzen duen araurik ezarri. Horrelako gaien artean sartuta daude toki zergak.

Udal ordenantzen kasuan, aurretik ikusi dugun bezala, 25.1 EK artikulua zehapeneko legearen erreserba hertsia da. Izan ere, erreserba horrek Estatuaren zigor-ahalari begirako hiritarren lege-jarrera bermatzen du.

Eremu horretan, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren ulerbide etengabea izan du, udal ordenantzei begirako zehapeneko legearen erreserbaren alkantzua zehaztu duena.

Modulazio hori osotasunean aztertzeko kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 8ko 132/2001 Epaia. Bertan goi-azuzitegiak berariazko lege batek administrazio -urratze eta -zehapenak tipifikatzea eskatu du, haien ordenantza bidezko arauzko garapenerako halako malgutasun bat onartu badu ere. Udal araupeketan eskuratu ahal den eremua mugatu ere egin du:

«Zerga-legearen erreserbari buruz gogora ekarri berri dugun moduan, urratze eta zehapenak tipifikatzeko legearen eskaerak malgua izan behar du, halaber, toki interesa ageri den gaitan, baldin eta toki araupeketan Udalaren Osoko Bilkurak onesten badu. Izan ere, gai horietan udal araupeketarako eremu zabala dago. Malgutasun horrek, baina, ez du lege-eskaera irmotasunez baztertzeko balio. Egin-eginean ere, udalei eskumenak lege eratzkitze hutsak (TAOL Legearen 25.2 artikuluko eskaeraren arabera) ez dakarkio berez udalari bati bere eskumeneko gaitan administrazio -urratze eta -zehapenak osorik eta bere irizpidearen arabera tipifikatzeko baimenik. Hortaz, ez dago elkarrekikotasunik toki interesaren eremu materiala araupezeko ahalmenaren eta Udal Ordenantzak ezarritako betebeharrak ez betetzeak zigorra noiz eta nola ekarri ahal edo behar duen ezartzeko ahalaren artean. Malgutasun hori dela eta, ezin da eskatu legean legekontrako mota eta zehapen bakoitza zehazterik; baina malgutasun horrek ez du legegilearen inibiziorik iristen.

25.1 EK artikulua ondorioz, gutxieneko eskaera bi daude, jarraian azalduko direnak. Lehenik, urratzeak tipifikatzeari dagokionez, legeri legeriaren kontrako gutxieneko irizpideak finkatzea dagokio. Beraien arabera ezarri ahal ditu Udal bakoitzak urratze motak. Legeak ez du motarik zehaztu behar, ezta Udal Ordenantzaren bitartez gero osatu ahal den urratze mota orokorrik finkatu ere: urratze motak ezartzeko udalari bakoitzaren balorazioa orientatu eta baldintzatzen duten irizpideak zehaztu behar ditu. Bigarrenik, zehapenei dagokionez, 25.1 EK artikulua ondorioz, gai bakoitza araupeketan duen legeak udal ordenantzek ezarri ahal dituzten zehapen motak ezarri behar ditu, behintzat. Legeak ez du zertan ezarri legekontrako mota bakoitzarentzako zehapen mota zehatzik, Udal Ordenantzak berak tipifikatutako administrazio-urratzeen larritasunaren arabera aurretik ezarri ahal dituen zehapen posibleen zerrenda bat baino.»

Horrenbestez, mugatuta dago toki autonomiari begirako abiaburu horren edukia, toki ordenantzei buruzko lege zehatzailearen beharrezko erreserbaren bitartez. Horregatik, ezin da urratze ez zehapenik bildu hori ezartzen duen lege zehatzik ez badago, eta ezin

da TAOL Legearen 25. artikuluko eskumen-eratzikipena bakarrik aipaturik ordeztu berme hori.

Hala ere, lege-eskaera gorabehera, balizkootan udal ordenantzek arau-lankidetzaz burutu ahal dute, baldin eta urratzeen legekontrako gutxieneko irizpideak eta ezarri ahal diren zehapenen zerrenda bat behar bezala zehazten badira. Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak, toki autonomiari jarraiki, tipikotasun abiaburuaren edukia ñabartu du, 30/1992 Legearen 129. artikulura eta 2/1998 Euskal Legearen 4. artikulura bildua; eta legeari dagokion eremua eta udal ordenantzek duten eremua mugatu ditu.

Hala eta guztiz ere, udal zehapen-eskubidearen kasuan legezko erreserbaren eskema hori era zabalagoan interpretatu beharra ekarri duen lege-doktrina aipatu behar da. Beraren arabera, bestelako ulerkera eskaintzeak toki arazoak konpontzeko udalaren jarduketarako aukerak zalantzan jartzea ekarriko luke. Izan ere, toki gobernu onerako urratze eta zehapenak betidanik araupetu eta tipifikatu ditzuten udal ordenantza asko daude eta haiek ez daude lege-lerruneko arauak lagunduta. Horretara, haiek udal ordenantzek udalerriei gordetako arauak araupe ditzaten nahi dute, lege-erreserbaren beharra alboratuz, ordenantza horiek arau-lerruneko xedapen orokorrak direlarik.

Zehapen-legezkotasunaren abiaburuaren salbuespen horren justifikazioek arautzeko eta zehatzeko ahalgoa baliatzeko balio dute eta toki autonomiak bere interesak kudeatzeko xedaturiko konstituzio-babes berezia dute kari. Konstituzioari begirako argudio horrekin batera, are, uste izan da ezen herri borondatearen udal ordezkartzako organoren bateko ordezkagarritasunak, hala nola, Osoko Bilkurakoak, hark ematen dituen ordenantzei legebidezkotasun demokratikoa ematen diela. Halaber, TATB Testuko 55. artikuluko testua aipatu da. Bertan ezarritakoaren arabera, *«Beren eskumenen eremuan, Toki Erakundeek ordenantzak eta araudiak onetsi ahalko dituzte eta alkateek bandoak eman. Haiek inoiz ez dute Legeen kontrako manurik izango baina»*. Aipatutako doktrina-arloek xedapen hori erabili dute ondorioztatzeko ezen toki eremuko lege-erreserbaren abiaburua legeekiko ezezko lotespenak mugatuta geratzen dela. Izan ere, ez da ordenantzek aurretiko legerik garatzerik eskatzen, haiek legeen kontrakoak ez izatea baizik. Era berean, TATB Testuko 59. artikulura bildutako zehapen-mailakapena zehapenen munten barruko zehapenak ezartzeko eskumenak eratzikitzeke erabiltzen da.

Doktrina hori eremu batzuetan oinarritu da, hala nola, Estatuko Kontseiluaren 1995eko otsailaren 23ko Irizpenean (1749/1994 gaia). Bertan ezarritakoaren arabera, toki ordenantzak, herri borondatea ordezkatzeko duten erakundeek emandako arauak direnez gero, legeen baliokideak dira udalerrietan, eta beren eremuan lege-indarra eman beharko litzaieke. Halaber, doktrina horri laguntzeko, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretu eztabaidagarriko testua aipatu da, zehatzeko ahalgoa burutzeko prozeduraren Araudia onetsi duen Dekretuko testua alegia. Hark ægaratu duen 30/1992 Legearen eta, are, Konstituzioaren 25.1 artikuluen beraren kontraæ zabal-zabal onartu du, bere 1.2 artikuluan, toki ordenantzek urratze eta zehapenak tipifikatzea.

Ulerkera horrek sartzen dituen disfuntzioak eta arriskuak eta araudi problematiko horren alkantzua ikusi eta gatzigatu ditu doktrinari baimenduak, zeinek araudia berriro ikusteko eskatu baitu haren deuseztasun osoarengatik. Ildo horretatik, García de Enterríak udalen zehapen-eremuaz esandakoaren arabera, *«toki autonomiaren konstituzio-abiaburuaren ohi ez bezalako aipamenak ez du Udalei zertan-eta Legeak beraiek eremu horretan jarduteko gaitu beharretik salbuesten saiatzeko inongo indarririk»*.

Laburbilduta, legerari zuzenean lotetsi barik ordenantzek zehatzeko duten balizko ahalgoari begira iritzi-elementuak ekartzeko jarri gura diren argudio horiek guztiek, sakonean dagoen arazoari buruzko eztabaida garrantzitsua (Konstituzioak horri buruz ezer ez ezartzeari buruzkoa) ekarri arren, ezin dute balio izan EK-aren 25.1 artikulura bildutako konstituzio-zuzenbidea eta Konstituzio Auzitegiak diseinaturiko ulerbidea ezeztatzeko. Beronek, ñabarduraren bat gorabehera, benetako lege bat egotea eskatzen du, zertarako-eta hiritarrei zehapenak udal ordenantzen bitartez ezarri ahal izan dakizkien.

Nolanahi ere den, toki autonomiak ez du ezein kasutan balio izan behar gizakien funtsezko eskubideen gutxieneko edukia aldatzeko, ezta hiritarren berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzen aurkako «zapalgune»rik sartzeko ere.

IV. Ondorioak eta gomendioak

– Arautu eta zehatzeko ahalgoek estatu edo autonomi mailako arlo-lege baten beharrezko existentziari lotuta egon behar dute, eta lege horrek udalaren eskumen-eremua zehaztu behar du.

Arautzeko ahalgoaren kasuan, legeak toki autonomiaren abiaburua aplikatzeko udalerriek baliatzen duten tokiko jarduketa-eremuaren baldintzak bildu behar ditu.

Toki administrazioek zehatzeko ahalgoa erabiltzeko, arlo-legeriak berariaz sarturik eduki behar ditu legeriaren kontrako gutxieneko irizpideak eta zehapen moten zerrenda, zertarako-eta, gero, ordenantzek administrazio-urratzeen motak eta legearen irizpideei jarraiki dagokien zehapen-araubidea ezartzeko.

– Toki administrazioek tokiko jarduketa-eremuan diseinatuz joan diren estatu eta autonomi mailako arlo-legeak bakarrik hartu behar dituzte kontuan araupetzeko eta zehatzeko beren ahalgoa erabiltzeko. TAOL Legearen 25.2 artikuluko eskaeraren arabera udalei eskumenak legez eratzitze hutsak ez dakarkio berez udalerrri bati bere eskumeneko gaitan urratze eta zehapenak tipifikatzeko baimenik. Konstituzio Auzitegiak udalerrietako zehapen-legezkotasunaren abiaburuari begira ezarririko malgutasunak ez du legegilearen inhibiziorik iristen.

Horregatik, arartekoaren ustez, toki administrazioek berririo ikusi behar dituzte hiritarren zehapen-legezkotasunerako eskubidea bermatzen duen aurretiko legerik gabe zehapen-araubidea biltzen duten udal ordenantzak.

– Bereziki aipatu behar ditugu gizakien ekintzak edo alderauzketak debekatzeko baliatu nahi diren uste moraletan oinarriturik urratze eta zehapenak bildu eta tipifikatzen dituzten gizabide mailako eta gobernu oneko udal ordenantzak. Zehazki, jarduketa horien artean aipatu behar dira eskaletasuna, nudismoa eta kaleko alkohol-kontsumoa debekatzeko ekintza edo alkantzu zehaztugabeko bestelako iritziak, hala nola, portaera onak edo jokabide itxurosoak.

Eskumenak Konstituzio aurreko arauetan oinarriturik dituen moralitasun txukun hori udalerrien eskumen-eremutik kanpoko gaia da; eta Parlamentuan eztabaidatu behar da, indarrean dagoen konstituzio-ordenan babestutako eskubide eta askatasunak ikusirik ñabartu nahi diren askatasunen mugak eta zehaztapenak lekutzeko.

Edozein kasutan, toki administrazioak eremu horretan esku hartzeko gaitzen dituen legerik ez dagoen bitartez, hiritarren moraltasunari buruzko gaiak araupetu eta jokaera batzuetarako zehapenak ezartzen dituzten ordenantzak deuseztuta daude, EK-aren 25.1 artikuluari jarraiki.

– Bistan denez, udalerriak hiritarrendandik hurbil daudela eta, administraziook askotan detektatzen dituzte Parlamentuaren esku-harmena eskatzen duten antolamenduaren disfuntzio edo arazo batzuk.

Horrela, ona izango litzateke toki ordezkartzeko erakundeen legegintzako biltzarrekiko komunikaziorako mekanismoak ezartzea, zertarako-eta detektatzeko diren eta araupeketa berria edo dauden arauak aldaraztea ekar dezaketen antolamenduko hutsuneak eskualdatzeko eta erakunde horiek toki eremuko beren eskumenak erabiltzeko beharrezko dituzten legezko gaikuntzak jasotzeko.

– Beharrezkoa da, Autonomia Estatutuaren 10.1 artikuluan ezarritako eskumena garatzeko, Eusko Legebiltzarrak, Udalerrien Euskal Legea etorkizunean onesten duenean, Euskadiko toki administrazioen zehapen-legezkotasuna betetzea bermatzeko neurriak ezartzea eta herri administrazioei begira zehapen-ahalgari buruzko 2/1998 Legearen testua ñabartzea.

– Era berean, Udalerrien Euskal Legean edo udal eskumenetan eragina duten arlo-legeetan, Eusko Legebiltzarrak tokiko eskuharmen-eremua argi zehazteko eta mugatzeko irizpideak eta bideak onetsi beharko litzuzke, eta erakundeek zehatzeko ahalgoa ondo erabiltzeko beharrezko izango litzuzketen mekanismoak ezarri.

VII. KAPITULUA

ONDORIOAK.

ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua, Arartekoaren erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio”*.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta euskal erakunde publikoek hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak erakusten duten errespetua.

2001. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Hala ere ezin dugu ahaztu ETak 2001. urtean 15 pertsona asasinatu dituela, tarte honetan eskubideen urratzerik larriena izanik.

Mehatxuak eta estortsioak herri-ordezkarri hautetsi, epaile, fiskal, kazetari, enpresari, alderdi politiko eta sindikatuen militante eta euskal hiritarren bizitzeko, integritate fisikorako eta adierazpen askatasunerako eskubideak mugatu dituztela ere gaitzetsi behar da.

Etikak agintzen duen legez, euskal hiritar askorentzat oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak ahuntzaren gauerdiko eztula direla adierazi behar dugu. euskal hiritar mehatxatu bakar bat dagoen bitartean, hiritar guztiek edukiko dugu askatasun gutxiago.

Gauza horiek oso larriak izanez gero, kapitulu honetan egiten den balorazioak euskal erakunde publikoaren jarduera eta jarduera honek ekarri duen eskubideen haustea ukitzen ditu.

Konstituzioaren testuan agertzen den lehenengo izenburuan egiten den eskubideen azterketaren arabera egituratzen da kapitulua, Arartekoari Lege arautzailearen 1.1 artikulua egozten baitio horren defentsa.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako II. kapituluko sarrera bakoitzean administrazio-jardueraren arlo ezberdinak eta hiritarren eskubideekin dauzkaten harremana aztertzen dira.

Hasierako hurbilketaren bidez, Arartekoaren eta Estatu gainerako ordezkari parlamentarioen txostenetan Espainiako Konstituzioaren I. izenburuko bigarren kapituluan azaltzen diren eskubideen urratzeen gaineko kexak oso gutxi direla eta normalean horrela izaten dela esan dezakegu, hau da, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoen urratzeen gaineko kexa gutxi izan direla. 2001. urtean ere horrela izan da.

Aurrekoaren isla gisa, gizarte eskubideen gaineko kexak dira aurkeztutako kexa gehienak, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzeak ere -erakunde

publikoak eraginkortasuna eta zuzenbidearen printzipioak erabiliz jardutera behartzen ditu erakunde publikoak, beti legea eta zuzenbidearen mende, interes orokorren zerbitzuan beti -.

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

• **Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua**

“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako diskriminazioa ezin da nagusi izan.”

Berdintasunaren printzipioarekin zerikusia dute eskubide eta askatasunekin lotutako kexa gehienek.

Erakunde honen oinarrizko kezkarik handienetariko bat botere publikoaren jardura diskriminatzailea ez izaten saiatzea da, Konstituzioaren testuan aurreikusitako edozein zergatiaren ondorioz.

Berdintasunerako eskubidearen haustea askotan beste edozein eskubidearekin lotu behar dela zehaztea komeni da. Beraz, eskubide horiek aztertzen direnean, batzuetan, printzipio hori ukitzen da.

Gure gizartean, lana lortu eta gordetzeari eta familiako arduen banaketari, bizitza politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean parte hartzeari dagokienez, funtsezko desberdintasunak daude gizon eta emakumeen artean. Horregatik dago oso bizirik pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko agindua -Konstituzioa eta Autonomi Estatuturen 9.2 artikuluek indar publiko guztiei egotzen dizkiote-, oztopo diren gauzak aldatuz. Erakunde publikoen funtzionamenduan generoaren ondorio diren desberdintasunak agertzen badira ere, horrek gizarte osoa ukitzen baitu, ez dira oso sarriak balizko tratamendu diskriminatzaileak aurkezten dituzten kasuak. Hala ere, erakunde honek agindu hori ez betetzeagatik egindako hausteak ikusi ditu, erakunde publiko guztiek ez baitute egiten berdintasuna lortzeko oztopoak desagerrarazteko behar den ahalegina.

Bestalde, argi dago berdintasunerako eskubidearen hausterik larrienak esparru pribatuan ere gertatzen direla (laneko harremanak, familiakoak, eta abar).

Kasu batzuetan pertsona baten baztertua jazotzeko faktore bat baino gehiago egon direla adierazi beharra dago, eta diskriminazioa areagotzen duen eragin bat sortzen du horrek. Espetxean dauden atzerriko emakumeekin gertatzen dena da, besteak beste.

Atzerriko pertsonen eskutik ere agertu dira kexak, arrazakeriarengatik diskriminatu dituztela salatzeke.

Batzuetan pertsona horiei berdintasunaren printzipioarekin bat ez datorren tratatu bat emateagatik sortzen dira diskriminazioak; beste batzuetan, ordea, esparru pribatuan sortzen dira diskriminazioak.

Magrebeko jatorria duten pertsonak etxe bat alokatzeko dituzten zailtasun handien bidez ikusten da hori.

Zenbait langile publikoren famili bizitza eta bizitza profesionala elkarri egokitzeko proposamenen aplikazioak -Administrazioarekin duten harremanaren izaeraren arabera- berdintasunaren printzipioaren errespetuari buruzko galderak eragin ditu.

Amatasunarengatik uko justifikatuaren aukera egin duten bitarteko irakasle funtzionarioen kasuan, ikasturte batean zehar 165 egunetan lan egin dutela egiaztatuz gero, (ordezkapenen zerrendaren kudeaketari buruzko arautegiak babesten dituen ukoen ondoriozkoak izan direnak barne), udako hileak kontuan har daitezzen gomendatu du erakunde honek, antzinatasunari eta zerrendetako ordenari dagokienez.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jokabidea egokia izan dela erabaki da, ordea. Sail horrek egonkortasunik gabeko bitarteko funtzionarioek edoskitzeko baimena izateko eskubidea ezin dutela izan iritzi dio, haurdunaldi eta erditze baimena izan ondoren, beste irakasle funtzionarioekin gertatzen den ez bezala. Jokabide honek ez dakar baimenaren ukorik berekin, baimenaz gozatzeko orduan baldintza bat besterik ez delako.

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

2.1. BIZITZEKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua**

“Guztiek dute bizitzeko eta integritate fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”

Botere publikoek hiritarren bizitzeko eta integritate fisikorako eskubidea errespetatzen dutela zaindu behar du Arartekoaren erakundeak.

Etikak agintzen duen legez, ETA erakundeak eskubide horiek sistematikoki hausten dituela salatu beharra dauka.

Bizitza edo integritate fisikoa galtzeko mehatxupearan bizi diren hiritar asko daude.

Egoera honek, biolentzia darabilena degradatu egiten duena, guztion ardura da.

Beharrezkoa da 2001ean 15 bizitza desagerrarazi dituen ekintza totalitario horren kontrako gaitzespen aktiboa erakustea, baita terrorismoaren biktimekiko solidaritaterik minena erakustea ere.

Egoera horrek jarraitzen duen bitartean, Arartekoaren erakundeak, bere idatzi ofizial guztietan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua lema agerrarazten du euskaraz eta gaztelaniaz: “gizaki guztiek dute bizitzeko, askatasunerako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea”, baita ETARI EZ esamoldea ere.

Emakumeen kontrako biolentziak bizitzeko eta integritate fisikorako eskubideen hausterik larrietako bat osatzen du gaur egun, erakunde bermatzaile hau ezin da bihozgabe agertu horren aurrean, orokorrean eraso sexiten kasuetan esku hartzeko ahalmenik ez badu ere. Edozein modutan, emakumeen bizitza gaitzesteak hauek pairatzen duten diskriminazioaren adierazpenik ikusgarri eta dramatikoena osatzen duela azpimarratu beharra dago, eta horregatik pertsona guztien arteko berdintasun eraginkorra lortzeko neurriek besterik ez dute, epe luzera, lortuko generoko biolentzia sustraitik kentzea.

Espetxeratuen alde lan egiten duten zenbait elkartek salatu dituzte presondegietan dauden pertsonen osasun-arazoak. Langraiz Okako presondegiko gazte baten heriotzaren kasuan, hain zuzen ere, 2001eko apirilean, presondegiko administrazioak gazteak pairatzen zituen krisi epileptiko zorrotzen zoritxarreko ondorioei kontra egiteko baliabide egokiak ez zituela erabili salatu zuen familiak. Itxura denez, heriotzaren unean bere gelan bakarrik zegoen gaztea, ospitalean sartu zen azken aldian zaindu zuten medikuek beti lagunduta egon behar zuela gomendatu bazuten ere. Presondegiko erakundeak bere beharra bete ez zuela posible izanik, presoan bizitza eta osasuna zaintzeko betebeharra, alegia, Estatuko Arartekoari bidali zitzaion arazoa.

2001. urtean zehar zenbait kexa jaso ditugu poliziak atxilotuei emandako tratu txarrei buruz, baina, Barne Ministerioaren mende dauden kidegoei buruz ari ziren eta Estatuko Arartekoari jakinarazi zaizkie.

Bestalde, Herrizaingo Saila komisariatoko ziegen aldean bideo-grabazio sistema antolatzeko gomendioa betetzeko behar diren aldaketak gauzatzen ari dela ematen du. Hala ere, oraindik ez zaigu jakinarazi sistema behin betiko martxan jarri denik, 1999an iradoki zena.

2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

• Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikuluko honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.

2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritza judizialaren eskuetan uzteko askatuko da.

3. Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arazoak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.

4. ‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”

Legezketasunaren errespetuaren kontrola batez ere instrukzio penalaz arduratzen diren organo judizialek gauzatzen dutela bistakoa da. Hala ere, legeak erakunde honi egozten dion hiritarren eskubideen babesaren funtzioak kautelazko neurri hori xehetasunez zaintzera behartzen gaitu. Zentzu horretan, kexetan ukituriko arazoan ikerketak, polizia-etxeetara egindako bisitetan egindako azalpenekin batera, poliziaren jardueraren berri ematen digute zuzenean, eta honek hobekuntzak egiteko proposamenak egiten uzten digu.

Erakunde honek azken urteotan egindako gomendioek -Ertzaintzari zein Udaltzaingoei- kontu oso ezberdinak ukitzen dituzte: atxiloketa denboraren murriztea,

legelarien laguntza hasiera batetik eskatuta, interpretariaren laguntza lortzeko sistemak hobetuz, edo dokumenturik gabeko atzeritarrak identifikatzeko mekanismoak arinduz; ziegetako egoitzaren hobekuntza (elikadura, argia...); atxiloketaren saihestea polizia desobeditu ez zaielako; atxilotu baten gorputz biluzia miatzeko erabakiak apartekoa eta arrazoitua izan behar du.

Urte honetan zehar, normalean gure gomendioak onartzen dituztela egiaztatzen badugu ere, jarduera poliziala ez da beti benetan aldatzen, norberaren eskubideak asko errespetatzen ez dituen -erakunde honen ustez- jarduera jakin batzuk mantentzen dira. Jakin ditugun kasu batzuetan, guardiako abokatuari atxiloketa baino 24 ordu beranduago eman zaio abisua. Poliziei ustez desobeditzeagatik egindako atxiloketengatik kexak jaso ditugu atzera ere, eta epaitegian argiketa jasotzen duten unetik faltatzen hartu izan dituzte kasu horiek. Gorputzaren miaketaren dilijentziari dagokionez, kasu batzuetan ez da justifikatu neurri hauen beharra, ezta proportzionaltasuna ere.

2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

• **Espainiako Konstituzioaren 18.1. artikulua**

“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nor bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”

Polizia-etxeetan egiteko miaketaren dilijentziaren gaineko gomendio orokorrean, Arartekoaren kezka agertzen da, neurria hartzen den maiztasunarengatik, honek -erakunde honen irizpidearen arabera- pertsonalitatearen esparru barne-barnekoan eskua sartzea dakar berekin. Oinarrizko eskubide kalteuari dagokionez jurisprudentzia ezberdinak egonda ere -intimitaterako eskubidea, zenbait sententzien arabera, integritate moralerakoa, beste batzuen arabera-, kaltea edozein modutan eragiten dela bistakoa dirudi, eta neurriaren beharra, zilegizko xedearekiko egokitasuna eta hori eta atxilotuaren arlo juridikoan eragindako kaltearen arteko proportzionaltasuna oinarritzen dituzten gorabehera zehatzak daudenean besterik ez da justifikatzen.

Hezkuntzaren esparruan, familiaren eta norberaren intimitatea hobeto babesteko beharra sustatu da berriz ere, Getxoko Udalaren ekintza baten ondorioz. Udal honek eskolatzea hasten duten umeak dauzkaten familia guztiei bidali dizkie gutun bat B eta D ereduetan matrikulatzeko gomendioa emateko.

Udalaren esku-hartze batek, kasu honetan, toki-eremuan hezkuntza behar den bezala programatzeko pentsatuta egon beharko du, elebitasunaren mailakako orokortzea egiaztatzen duen hizkuntza ereduaren eskaintza nahikoa egon dadin. Izan ere, gure ustez, udalen ardura berezi bat da hori, hau da, EAEko hezkuntza-erakundearekin batera lan egiteko ardura, udalerrian hezkuntza-ereduen eskaintza badagoela ziurtatzeko eta ikastegia eta hezkuntza-eredua askatasunaz aukeratzen direla egiaztatzeko.

Baina hemendik aurrera, udalek garatu nahi duten edozein ekimenak ezin izango du norberaren eta familiaren intimitatean eraginik izan udalerrian bizi direnen artean, eskubideak babestearen esparru zorrotzean, automatikoki lantzen diren datu pertsonalak, errolda bezalako fitxategietan agertuta ere, ezin izango dira erabili eskuduntzak gauzatzeko ez bada.

2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

• **Espainiako Konstituzioaren 23.2. artikulua**

“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”

Erakunde publikoek berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipioak errespetatu dituzan lan egiteko joera dauka erakunde honek, baita publikitatearen esparruan ere, enplegu publikoan nagusi izan behar baitute Konstituzioak horrela aginduta. 2001. urtean langileak aukeratzeko prozesu batek baino gehiago izan du erakunde honek esku hartzeko beharra.

EAEko Administrazio orokorraren EEPn ez dira falta izan aurreko esperientzia administratiboa edo egindako zerbitzuen balorazioarekin lotutako kezak. Administrazioaren arlo laguntzailean sartzeko probetan zalantzan jarri da kategoriatan berean Osakidetzan egindako lanak kontuan ez hartzea.

Gasteizko udalak egindako EEPri dagokionez, lehiaketaren garaian eskainitako lanpostuarekin lotutako lan guztiak baloratzeko gomendatu dugu, lan horiek zein administrazio edo erakunde publikoarentzat egin diren kontuan hartu barik, gure ustez, Udalak emandako arrazoiek (arrazoi guztiak toki eta foru administrazioen egitura eta antolakuntzaren ezaguera zuzenarekin lotuta zeuden) ez baitzuten irizpide funtzionaleko oinarririk, baina ez digute jaramonik egin. Eta proposatzen ditugun irizpide hauek - azken urteotan errepikatu dugunez- besterik ez dute balio egindako lanen baloratzeko ezberdina egiteko, lanpostu publikoak lortzeko prozesuan nagusi izan behar duten berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipioak urratu barik.

Kexa oso berezi bat azpimarratu beharra dago. Honek erakunde ezberdinek oposizioegileen ezohizko gorabeheren aurrean probak egiteko baldintzak egokitzeko ahal den guztia egiteko ahaleginak nabaritzen ditu. Erietze batean ospitaleratua egotea izan daiteke gorabehera bat. Oposizioegile haurdun bati buruz ari gara, eta umea laster izan behar zuenez, probak egiteko data ospitalean sartzearekin batera izango zela uste zuen eta horregatik eskatzen zuen proba egiteko modua egokitzeko aukera.

Erakunde honen jardura zenbait lanpostuen hornidura egiteko moduz ere arduratu da. Getxoko Udalaren eta udal horretako Langileria-Batzordearen kide batzuek eragindako kearen kasua da. Egindako gestioek zenbait lanpostu betetzeko sistema arautu eta normalizatzeko beharra azpimarratu dute, batzuetan funtzio publikoaren oinarritzko arau edo joerak ahaztu baitira. Honen gainean gomendioak egin baditugu ere, Getxoko alkatetzak ez du erantzun izan nahi eta beraz ez du gomendio bat ere onartu.

Bestalde, toki-administrazioen mende zeuden elkarte publiko batzuek zenbait lanpostu emateko modua salatu da. Zuzenbide pribatuaren funtzionamendu-erregimenaren esparruan zeudela aprobetxatuz, elkarte horiek berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipioaren derrigorrezko errespetua saihesten saiatu izan dira. Gasteizko Udalak sortutako “Ensanche 21 Zabalgunea” hirigintza-elkartearekin hori gertatu da, abokatu/ekonomilari baten lanpostuaren gestioari dagokionez.

Osasunaren arloan ere, zenbait zerbitzuen gestioa zuzenbide pribatuaren arabera egiteak (Osatek-en kasuan bezala, teknologia handiko osasun diagnostiko eta

tratamenduen gestio, administrazio eta ustiapenez arduratzen den enpresa) batzuetan jarrera okerrak dakartza berekin. Horregatik hartu behar dugu Arartekoaren erakundearen gain zuzenbide pribatua erabiltzea praktikotasun kontua besterik ez dela esatea, eta lanpostuak emateko funtzionaritzak berezko duen gestioa erabili barik beste modu bat egingarria bada ere, berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipio konstituzionala indarrean daudela ezin da ahaztu, zerbitzu horiek egiteko lanpostu publikoak emateko orduan.

Osasunaren esparru berean, aldi baterako kontratazio listen sistemari dagokionez, zerbitzu organizazio bakoitzak gestionatutako ordezkapena eta ebentualtasunen zerrenda gaizki erabiltzearen arriskuak gogoraraztea komeni dela pentsatu dugu. Sei hilabete baino gehiagoko behin-behineko beharrei erantzutea da kontua, eta bete gabeko postuen eta postu erreserbatuen zerrendatik hartu beharko lirateke. Horrela ez bada egiten, bete gabeko postuen eta postu erreserbatuen zerrendetako hautagaien itxaropenak kalte daitezke. Horri dagokionez, EAEko osasun-sareko ospitaletarako langileak kontratatzea kontrolatzeko aukerak zorroztea gomendatu dio Arartekoaren erakundeak Osakidetxari, sei hilabete baino gehiagoko behin-behineko beharrak eta etengabeko arretako beharrak betetzeko eskubide gehiago duten langileak sartu ahal izateko, bete gabeko postu eta postu erreserbatuetako zerrendako langileak, alegia.

Azkenik, poliziaren arloan, EAEko polizi gorputz ezberdinetan sartzeko eskatzen den adinaren gaineko beste kexa bat dago, eta poliziaren funtzio publikoan sartzeko baldintza horrekin lotuta dagoen gomendio orokor bat argitaratzera bultzatu gaitu.

2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIOA

• **Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua**

“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”

“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nork bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere.

Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitzeke arauak jarriko ditu legeak.”

2001. urtean zehar prozedura judizialen atzerapenekin lotutako kexa gutxi jaso dira. edozelan ere, justizia-administrazioaren funtzionamendu arruntaren denbora eta epeak luzeegiak direla ikusten da berriz ere hiritarren ikuspuntutik.

Zergen esparruan, zergak ediktuen bidez jakinarazteak dakartzan arazoak azpimarratu behar dira, ordainagiriaren bidez aldizka kobratzeko zergei dagokienez. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko lbigailuen gaineko Zerga dira mota honetakoak.

Hala ere, zenbait toki-administrazioek egindako ahalegina azpimarratzen dugu, Bilboko Udalarena edo Gasteizko Udalarena, besteak beste, hiritarrei modu indibidualean jakinarazteagatik borondatezko aldiaren egiteko ordainketen datak, urtean zehar ordaindu behar diren zergei dagokienez, eta banku-helbideratzeak sustatzeagatik. Hau guztia ordainagiria premiamendu bidetik ez sartzeko eta ondorioz kitapenaren kontrako aurkezpena aurkeztu ahal izateko.

2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

• Espainiako Konstituzioaren 25.2. artikulua

“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”

Gaur egun, askatasuna kentzen duten penek lortu behar duten birgizarteratzearen jarrerak -Funtsezko Arauaren arabera- batez ere esanahi negatiboa duela pentsatzen da: agente publikoek itxialdiaren ondorio txarrak saihestu behar dituzte. Horri dagokionez, Arartekoaren erakundeak duela urte batzuetatik hona salatu ditu Euskadin kokatutako hiru presondegietako egiturazko hutsuneak, eta Konstituzioaren aipatutako aginduak esaten duena betetzeko oztopoak dira hutsune horiek. Penak erregimen itxian betetzeko sailik ez egoteak, Basaurin emakumeentzako modulurik ez izateak, euren hiru urtetik azpiko umeekin bizi ahal izateko lekurik ez izateak eta beste hutsune batzuek ere Euskadiko preso asko euren ohizko helbidetik oso urrun dauden presondegietara joatea eragiten dute. Horrek erauztea pairatzeko aukera areagotzen du sarri, eta askatasuna kentzeak gizartetik kanpo biziaraztera bultzatzen dezake presoak, kondenatuaren familiak jasotzen dituen kalteak ahaztu barik.

Presondegiaren alternatiba diren penen ezartzeari dagokionez -gutxi daudela behin eta berriz salatu dugu-, zenbait udalek Komunitatearen Probetxurako Lanen pena ezartzeko hitzarmenak sinatu dituztela jakin dugu urte honetan zehar. Ildo honetatik jarraituz, eta presondegietako eskuduntza Eusko Jaurlaritzari ematea komeni dela berriz esanez, Autonomia Erkidegoko Administrazioari arlo horretan izan ditzakeen ardurak eta esku hartzeko aukerak bere gain har ditzan eskatu behar diogu.

2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIIDEA

• Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.

2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.

3. *Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*
4. *Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*
5. *Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*
6. *Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*
7. *Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegiaren kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
8. *Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
9. *Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
10. *Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera.”*

Heziketarako eskubidea prestazio-eskubide bat da eta horregatik litzateke egokiagoa gizarte eskubideekin batera lantzea. Hala ere, Konstituzioaren idatzian agertzen denez eta aukeratutako metodoa dela-eta, atal honetan aztertua izango da.

Unibertsitateetik kanpoko irakaskuntza mailan, haurren hezkuntzaren lehenengo zikloak (0-3 urte) konpondu gabeko erronka bat izaten jarraitzen du. Seme-alabak dauzkaten familiei laguntzeko Erakundearen arteko planak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailek egindakoa, Haurren 0-3 Hezkuntzaren Aldeko Mahaian sartuta dauden antzeko taldeen ukoa eragin zuen, 0 eta 2 urteren arteko umeei laguntzazko izaera egokitzen diotela esaten dutelako.

Eskakizun honen aurrean, erakunde honek behin eta berriz esan du hezkuntzaren aginte publikoek dagokielako haurren hezkuntzako lehen zikloa ezarri eta egokitzeko prozesua, euren dagokielako Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legean agertzen dena, 0 urtetik aurrera eskolatzea jasotzeko zainketa progresiboko aginduarena, alegia. Lege berak, horretarako, beste erakunde eta etapa honetako hezkuntzako eragileekin batera lan egiteko ildo argi bat ezartzen du.

EAEko hezkuntza beharrei erantzuna izenburuko ezohizko txostena ere aipatu beharra dago.

Eskubideen ikuspuntu bermatzaile batetik, txosteneko alderdirik kezagarrienak azpimarratu behar ditugu, lehentasuna eman behar baitzaizkie:

- Eskolako arautegia eta jarduerarena arteko aldea.
- Gaitzespen soziala ez dela behar bezala kontuan hartzen.
- Eskola-sareen arteko ezberdintasunak heziketa-behar bereziei dagokienez.
- Lurraldeena arteko ezberdintasunak zainketari dagokionez.
- Erantzuteko gaitasun gutxiko eta eskolako emaitza eskaseko ikastegiak daudela.
- Hezkuntzaren munduko jende guztiak heziketa-behar bereziei erantzuteko parte har dezaten dauden zailtasunak.
- Bigarren Hezkuntza aniztasunari eta heziketa-behar bereziak zaintzeko beharrene egoera.
- Heziketa-behar bereziak prebenitu eta berehala zaintzeko hutsuneak.

- Zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa eta hezkuntza-sistema eta famili eta elkartearen arteko harremana.
- Jarduera onen baloratzea eta elkartrukatzea.

Hezkuntza beraren eskubidea zuzenean ez badu ukitzen ere, baina horrekin estu lotuta dagoenez, hezkuntzaren instalazio eta gune publikoen erregulazio edo partehartzeko administratibo minimo bati ekitea komeni dela azpimarratu nahi dugu.

Azkenik, bekak eta ikasteko laguntzen esparruan, hezkuntza administrazioaren jokaera aztertu behar da. Izan ere, batzuetan, bere irizpide bati jarraitu beharrean, zergen arabera ezarritako baloreak bere gain har ditzake, benetako errentagarritasunarekin bat datorren ala ez zalantzan jarri barik. Hala ere, beste batzuetan, objektiboki kalkulatu behar diren zerga-erregimenen mende dauden profesionalen edo langile autonomoen diru-sarrerak kalkulatu behar direnean, diru-sarrera horiek jasotzen duten zergen tratamendua alde batera uzten da, paradoxikoki, diru-sarrerak benetako errentagarritasunaren arabera kalkulatzeko beharrean babestuz.

Jokabide honek, deialdiaren oinarriek ematen dioten formaren babesa izanik, hezkuntzaren Administrazioarentzat arbitrariotasuna izateko arriskua dakar berekin, eta nekez justifika dezake bere diru-sarreraren kalkulua eztabaidaezina izatea benetako errentagarritasunari dagokionez. Bestalde, zenbait ekimen publikoetarako (etxebizitza...) diru-sarrerak kalkulatzeko irizpide baliagarriak zergetakoak direla hiritarrei azaltzea da benetan zaila dena, beste esparru batzuetan, hezkuntzaren arloan, besteak beste, diru-sarrera horiek errefusatu egiten dira eta beste batzuk jartzen dira bere ordean, beste hauek, benetako errentagarritasunari erantzuteko zilegizko borondatea izan arren, arbitrariotasuna izan dezaketela pentsa daiteke.

Unibertsitateko hezkuntzaren mailan, 2001. urtean, EHU n sartzeko eta matrikulazioarekin lotutako kexa nahikoak jaso dira, eta hau gauza nahiko berria izan da. Salaketa hauek Arte Ederretako Fakultatea ukitu dute, batik bat.

Disfuntzio garrantzitsuak daudela azpimarratu dute egindako gestioek, eta prozesu hori berriz arautzeko beharra ikusten da. Izan ere, Ordenamendu Akademikoaren Errektoreordetzak 2002-2003 hurrengo ikasturte akademikoan erreforma horri ekiteko nahia erakutsi du.

3. HERRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAK

• Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua

“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoak eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.

2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginikortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.

3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”

Pertsona Fisikoen Errentaren Aitorpenean zerga-ordainketaren aukeraren aldaketak kexen iturri izaten jarraitzen du, duela gutxi zerga honi buruzko foru arauak erregulazioa egin badute ere. 1999aren aurreko arautegiak aitorpena aurkezten zenetik aukeraren (indibiduala, taldekoa) aldaketa galarazten zuen bitartean, egundo arautegiak aldaketa hori egiten uzten du zergen Administrazioak “edozein ekimen” egin artean, eta legegilearen nahiak Administrazioaren alde izaten jarraitzen duela esaten digu horrek, bere gestioaren lanak erraztuz, ahalmen ekonomikoarekiko errespetua bermatu ordez, gure ustez hori kaltetzen jarraitzen baita.

Gaur egungo araudia zergadunaren eskubideen esparruan aurrerapen txiki bat izan dela kontuan hartuta, nahiko ez dela izan begitانتzen zaigu, baita ahalmen ekonomikoarekiko errespetua muga horren kentzearekin bat datorrela ere. Bestalde, ez dugu ahaztu behar zerga-ordainketaren sistemak Administrazioari baliabide nahikoak ematen dizkiola, iruzurrezko jardueri kontra egin nahi dionean zigorrak ezartzeko, aukera honekin lotuta sor daitezke jarduera horiek, beste muga batzuk eransteko beharrik gabe.

Itzulketak egitean ofiziozko interesa ezartzearekin lotutako zerga-ordainketako administrazioen jarduerari dagokionez, (ofiziozkoa nahiz egin behar ez ziren diru-sarrerena), erakunde honek 2000. urtean egindako gomendio orokorra izanik ere, non egiteko legezko betebeharra gogorarazten baitzitzaien, bere orokortzeari dagokionez hutsuneak ikusten jarraitzen dugu, batez ere ofiziozko itzulketei dagokionez.

Toki-zergei buruz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak kexen aurkezpena eragiten jarraitzen du, antzeko ezaugarriak dituzten ondasun higiezinaren balorazio ezberdinaren ondorioz.

Udal prezio publikoen esparruan, erakunde honek familia seme-alabak bakarrik hazten dituzten familien aldeko diskriminazio positiboa egiteko beharra dagoela esango du behin eta berriz, zenbait toki-administrazioen aldetik larregiko aurkakotasuna aurkitzen badu ere.

3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

• Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

- “1. Jabetza pribaturako eta jaraunpletzarako eskubidea onartzen da.*
- 2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.*
- 3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera.”*

Jabetza pribaturako eskubidearen edukia eskubide horri egokitzen zaion funtzio sozialak mugatzen du, eta funtzio horren adierazpenetariko bat udalen hirigintza-ordenamendua da. Lursail baten jabeek eraikitze edo lurra erabiltzeko daukaten muga interes sozial eta orokorraren bitartez justifikatzen da, udalaren hirigintza planarekin bat, hiri eta herrien zentzuzko garapenearen ondorioz. Arartekoarengana hirigintzaren

ustiapenaren mugak edo bere jabetzari aginte publikoek derrigorrez ezarritako erabilpena zalantzan jartzeko jotzen duten hiritarren interesak babesteko eskuduntzarik ez du erakunde honek.

Izan ere, eskatzaileek euren jabetzak ukitzen dituzten hiri-plangintzarekin desadostasunak adierazten dituzte, euren lurrek jasotako kalifikazioa egokia den edo aurreikusitako hirigintza-plana zalantzan jartzen dute. Herri eta hirien hirigintza-garapenak sortzen duen arazoaz eta udalerrian eraikitzeko dagoen lurrerako pentsatuta dauden erabilpen eta ustiapenez kontziente gara. Erabilpenen zehazpena, ordea, Konstituzioaren 33. artikulua aurreikusten duen jabetza pribaturako eskubidearen murriztapen bat da, non jabetza pribaturako eskubidea arauk ezartzen duten funtzio sozialaren arabera murrizten den. Lur eta Balorazioen Araubideko Apirilaren 13ko 8/1998 Legeak jabeen onartzen zaizkion hirigintza-gaitasunak legeek ezartzen dituzten mugen barruan sartu behar direla esaten du, edota legeen arabera, une bakoitzean onartzen diren erabilpen eta eraikuntzak agintzen dituen hiri-plangintzaren barruan. Edozein modutan, ahalmen hori hiri-inguru sozialaren garapen eta ordenamenduen parametro eta irizpideekin bat erabiltzen den egiaztatu behar da, hauek plangintzaren trenetan behar den bezala arazoituak agertu behar baitira. Plangintza horiek egitean hiritarren parte-hartzea onartu eta bultzatu behar da, interesdunek aurkeztutako arazoibideei kongruentziaz eta banan-banan erantzungo zaiela ziurtatuz.

Ondarearen arduraren institutua da aipatu behar den beste kontu bat, honek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dio hiritarrari zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondoriozko kalteengatik. Atal honetan administrazio publikoetan erantzun barik geratu diren erreklamazioak edo eskatzaileen asmo ekonomikoak onartu ez direlako Arartekoari bidalitako kexak bideratzen dira.

4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK)

4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

• Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”

“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesa izango dute.”

Familiaren babesaren esparruan, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakundeen arteko Plana osatu du Eusko Jaurlaritzak. Plan honek jadanik existitzen diren neurriak legeen egituratzea behar duten neurriekin batera jasotzen ditu. Neurri hauen artean, seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldiaren murrizketa nahi duten gurasoentzako ezarri diren dirulaguntzak azpimarratu behar dira, baita seme-alaba bat jaiotzeagatik emango den dirulaguntza baten ezarpena ere (bigarren umea jaiotzen denetik aurrera). Ezarpenaren aurretik neurri hauen zabalkuntzak itxaropenak sortu eta gai honekin lotutako kontsultak eragin ditu.

Urte batzuetatik hona, famili ugarietzako indarrean dauden legeek onartzen dituzten onurak eman nahi ez dituzten unibertsitateen kontrako keak jaso izan dira, Deustuko Unibertsitatearen kontrakoak, batez ere. Arazo hau konpondu da hiritar onuradunentzat, 2001-2002 ikasturtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzak 2001eko apirilaren 3an egindako hitzarmenaren ondorioz. Hitzarmen honek tasa eta eskubide akademikoen salbuespena edo murrizketa onartzen du, Euskadin ikasketak ematen dituzten unibertsitate eta ikastegi unibertsitario pribatuetan.

Hala ere, arazoak irauten du aurreko urteei dagokionez, non onura horiek ez diren gauzatu. Erakunde honek unibertsitate pribatuek eta Elizak indarrean dagoen legeek onartutako onurak eman behar dituela pentsatzen du, Administrazioaren konpentsazio ekonomikoa jaso barik ere.

Benetan kezagarria da bakarrik dauden atzerriko adin txikikoen egoera, eta hazten ari den talde bat da, Bizkaiko Lurralde Historikoan batez ere. Foru aldundiak benetako ahaleginak egiten ari dira erantzun egoki bat emateko baliabide eta zerbitzu espezifikoak martxan jartzeko.

EAEn buru-gaixotasunaren zainketaren gaineko txostenean, adin txikikoei zuzendutako zerbitzuak areagotzeko beharra ikusten zen.

Osasun Administrazioak emandako erantzunean “ume eta gazteen ospitaleratze psikiatrikoa gure Autonomia Erkidegoko zainketa psikiatrikoaren gabezia historiko bat” zela onartzen da, eta “hiriburu bakoitzean ospitaleratze unitate bat zabaltzeari ekingo zaio (Donostia, Basurto eta Santiagoko ospitaleetan)”.

Adin txikiko arau-hausleen inguruan eragindako arazorik larrienetariko bat gaztea kalera ateratzen denean gertatzen da, adin txikikoa bere inguruan integratu edo beste zerbitzu batzuk eman behar dizkiotenean.

Oso konplexuak diren egoera hauei emateko erantzunak diseinatzen ari da Administrazioa.

Azkenik, behin eta berriz esango dugu adin txikikoentzako lege baten beharra dagoela EAEn, esparru honetan erreferentziak eta jarraibideak ezartzeko.

4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

• Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

“1.- Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.

2.- Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez

3.- Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”

Osasun Administrazioak teknika berriak bere gain berehala hartzeko etengabeko bilakaera teknikoak eta zailtasunek osasun prestazioetan eragin orokorra dute, baita itxarote-zerrendetan ere, iraupena zein gestioaren arloan. Osasuna lortzea unibertsaltasun, zuzentasun eta berdintasunaren printzipioarekin bat etortzea gure sistema publikoaren xede nagusia denez, normala da zailtasun hori.

Hiritarren kexa gehienak zailtasun horien esparruan koka ditzakegu, hau da, zenbait prestazio lortzeko irizpideen edo itxarote-zerrenden gestioaren esparruan, zerbitzu

beraren esparruan baino. Antzutasunaren tratamenduaren gaineko kekek osatzen dute adibide esanguratsu bat, azken teknikak erantsita ere, prestazio lortzeko sistemak irizpide homogeneorik ez duela ematen du. Kexa horien segimenduak osasunaren zenbait arduradun horretaz arduratzen ari direla jakiten utzi digu.

Neurri handi batean, egungo osasun sistema publikoak bere xedeak betetzeko dituela esan badaiteke ere, badaude behar den maila lortu ez duten esparru espezifikoak, sistema osoarekin konparatuz gero. Presondegietako osasunaz ari gara. Aurrerapenak kontuan hartuta ere, gaixoak beste hiritarren zainketa bera izatetik oso urrun daude -batez ere zainketa espezializatuari dagokionez-. Zainketa psikiatrikoa ere aipatu behar da, esparru espezifiko batzuetan baliabideak falta direlako, gaixo mental kroniko eta akutuen edota ume eta nerabeen zainketa psikiatrikoaren kasuan bezala, adin horretan gehien dauden patologiei ematen zaien erantzun urriarekin lotuta dago hau, elikaduraren asaldurak, besteak beste.

4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

• Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

“1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baita hura zaintzeko betebeharra ere.

2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.

3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.”

Jarduera sailkatuak esaten zaien horiek ingurumenean eragiten dituzten arazoekin lotutako kekek kutsadura akustiko eta atmosferiko larria salatzen dute askotan.

Tabernak, pubak, jatetxeak, txokoak eta ostalaritzako antzeko beste establezimenduek zarata, usain eta kearekin lotutako arazo larriak sortzen dituzte. Hala ere, ostalaritzako jarduerak ez dira ingurumena erasotzen duten bakarrak, kotxeak konpontzeko tailerrak, akademiak, jarduera industrialak eta gimnasioak ere badaude.

Udal agintariek orokorrean arazo hauei ihes egiten dietela uste dute hiritarrek, baita beharrezko neurririk ez dutela hartzen ere (zigorrak edo bortxazkoak), arazoak konpontzeko.

Gure udalerrietan hazten ari den fenomeno bat azpimarratu behar dugu: lokalen erabilpena jendea elkartzeko, musika ekipoa eta telebista izaten dute eta horretarako erabiltzeko ez daude egokituta.

Instalazio hauek jarduera sailkatuen araubidearen barruan daudela iruditzen zaigu, eta beraz Ingurumenaren Babesari buruzko Euskal Lege Orokorraren baimen administratiboaren araubideari lotuta.

Jarduera industrialek sortzen dituzten kutsadurari buruzko kexa asko jaso dira. kasu askotan duela zenbait hamarkada funtzionatzen duten industriaz ari dira, kokatzen den udalaren ekonomiarako funtsezkoak izanik.

Udalek, oro har, ahalegin handiak egiten dituzte jarduera horiek legean sartzeko, behin funtzionamendua legeak ezartzen dituen kutsatzeko mugei egokitzuz gero, zuzentzeko behar diren neurrien bidez.

Ibilgailuen zirkulazioak sortzen duen kutsadura akustikoa, gero eta nabariago, ingurumenari egiten zaion erasorik ohikoena da. Horregatik dira garrantzitsuak Bizkaiko Foru Aldundiak egin duenaren antzeko ekimenak. Lurralde historiko horretako errepedeetan zarataren kontra egiteko plan bat abian jarri du, zarataren mapak eta osasunari egiten zaizkion kalteei aurre egiteko planak edukitzeko bidea emango duena.

Azkenik, Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan kokaturiko telefonia mugikorrek baseek eragindako ustezko kalteekin lotutako kezka sozial handia azpimarratu behar da.

Erakunde honek gomendio orokor bat egin du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan telefonia mugikorrek baseak ezartzeko arautegiaren beharrezan dela-eta.

4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

• **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua**

“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorarekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.

Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”

Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonak etxebizitzaren garestitasunak eta merkatu libreak ezartzen dituen zailtasunek kezkatuta daude, etxebizitzak hiritar gehienentzat lortezinak baitira. Etxebizitza lortzeko arazoak dituzten pertsona askok administrazioek eta promotore pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten sustapenen bitartez besterik ezin dutela etxebizitza bat lortu esan nahi du horrek.

Bistakoa da babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileak eskaintzen diren etxebizitzak baino askoz ere gehiago direla, eta horregatik da beharrezkoa esleipenen prozedurak zehazteko zenbait irizpide objektibo ezartzea.

Jasotzen diren kexa gehienek etxebizitzaren esleipenaren prozesuan sartzeko irizpideren bat zalantzan jartzen dute. Ahal den kasuistika guztia jasotzen duten irizpide objektibo eta orokorrak ezartzeko zailtasuna kontuan hartzea bidezkoa da. Kexetako benetako kasuetan arau zorrotzak esleipenaren prozesuan sartzeko galarazten dute askotan, materialki bidezkoak ez diren egoerak sortuz. Kasu horiek arauak zerbait ahaztu dutela edo zorrotz erabiliz gero nahi izan ez diren ondorioak sortzen dituzten klausulak islatzen dituzte, eta arautegia irizpide objektibo eta bidezkoagoetara moldatzen laguntzen dute.

Adierazitakoaren adibide gisa, talde gaitzetsiei esleipenean sartzeko laguntzeko neurriak batzuetan eraginkorrak ez direla adieraz dezakegu, arauak disfuntzioak dituelako, ezigaitasunak dituzten pertsonen kasuan, besteak beste.

Gure ustez berdintasunaren printzipioa urratzen duen kasu eztabaidagarrienetariko bat Gasteizko Udalaren ekimena izan zen. Udal hori bi edo kide gehiago dauzkaten bizikidetzako unitateentzako besterik ez diren etxebizitza babestuak sustatzen saiatu zen, eta beraz eskakizun indibidual guztiak baztertuta geratu ziren.

Aurreko urteetan bezala, lurraren euskal arau baten beharra aldarrikatu behar dugu, egun dauden xedapen legalak moldatu eta sistematizatzeko eta, besterik ezean, lurraren prezioaren areagotzea murrizteko.

4.5. MINUSBALIATU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK)

• Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua

“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaikuntza eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”

Erakunde honek jarduera asko egin ditu gure herri eta hirien ordenamenduan irisgarritasuna sustatzeko, aginte publikoei ezgaitasunak dauzkaten hiritarrak hiri-ingurura, gune publikoetara, eraikinetara, garraioetara eta komunikabideetara irits daitezten neurri zehatzak eskatu die.

Eraikin publikoen irisgarritasunak agintarien lehentasun bat izan behar du, batez ere gizarte zerbitzuak ematen dituzten eraikinen.

Mugikortasun murriztua dutenentzako moldatutako garraio publikoaren unitateen pixkanakako instalazioa areagotu behar dute, eta plataforma duten garraioetan plataformen erabilpena bermatu behar da.

Donostiako eta Gasteizko hiri-garraioko zerbitzuek autobusen irisgarritasuna tolestu gabeko ume-auto eta aulkien bitartez erregulatu dutela azpimarratu behar da.

Ezgaitasuna daukaten pertsonak aparkatzeko leku erreserbatuak lortzeko zailtasunak aurkitzen jarraitzen dute, askotan erreserbak eskubide barik erabiltzen dituztenen solidaritate faltarengatik eta gauza hauen aurrean udal askok erakusten duten pasibotasunarengatik.

Eskolan dauden bizilagunen %1,9k hezkuntza beharrian bereziak ditu, ezgaitasunen baten ondorioz.

Bereizketa positiboko neurriak eratu behar dira baliabideak esleitzean, heziketa-behar bereziak dituzten ikasle gehiago dituzten ikastegiei dagokienez.

Hezkuntza Administrazioak askotan utzi ditu erantzun barik heziketa-behar bereziak dituzten 0 eta 3 urteren arteko umeen eskolatzeko eskakizunak eta horrengatik, hain zuzen ere, ezin izan dute garaiz eskolan hasi.

Zorionez, 2001. urtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazitako kasuetan eskakizun horiei erantzuteko neurri egokiak hartu zituen, EHLren 9.2. artikulua ezartzen duen lehentasuna betez.

4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

• Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte

zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikokoak konpontzeko.”

Iazko txostenean, atal honetan bertan, gizarte zerbitzuetarako administrazio publikoen esparruak zehazteko garrantzia ukitzen genuen. Horregatik poztu behar gara 155/2001 Dekretua onetsi delako, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta Eudelen arteko hitzarmena izan zen honen aitzindari. Dekretu honek funtzioen banaketa bat ezartzen du gizarte zerbitzuen arloan eta esparru horretako zehazpen hobetago bat ekar dezake berekin, laguntza behar duten adineko pertsonentzako etxe eta zerbitzuen eskasia arintzeko.

Arabako 19/2001 Foru Dekretuaren onespena ere azpimarratu behar da. Arau honek, foru erakundearen mende dauden zentro guztientzako oinarritzako estatutu bat ezartzean, zentro eta bertara doazen adineko pertsonen arteko harremanaren alderdi nagusiak ukitzen ditu eta euren eskubideak bermatzeko tresna egokia izan behar du.

Adineko pertsonen bazterketa galarazten dela bermatzeko funtsezko xede horren barruan, adineko pertsonen aldeko adierazpen baten argitalpena aipatu baeharra dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak aterata, eta Adineko Pertsonen Batzordearen oniritzia duena.

Eskumena duten administrazioen konpromisoa kontuan izanik ere, adineko pertsonak zaintzeko gizarte zerbitzuen eskaintzak -egoitzena eta besteak- eskasa izaten jarraitzen du eta gainera gaizki banatuta dago, administrazioaren arabera. Horregatik pozten gara Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakiaren antzekoak azpimarratzen ditugunean, sei egitza eta egunean joateko bederatzi etxe eraikitzeko erabakia hartu baitu.

Bestalde, osasun zainketaren beharrak pertsona bakoitzarentzat ezberdinak badira ere, osasun arriskua handiagoa da adineko pertsonentzako, eta hori ezin da izan bere osasun eskubidearentzako muga bat alderdi ezberdinetan. Horregatik da derrigorrezkoa pertsona batek aurkeztu zuen kexaz aritzea. Honek sendagilea aldatzeko eskatu zuenean ezetz esan zioten adineko pertsona bat zela argudiatuz. Ez zen beharrezkoa izan inolako esku-hartzerik, pertsonak behin eta berriz aldarrikatu baitzituen bere eskubideak eta behar den bezala erantzun zioten bere eskakizunari, baina aurkeztutako diskriminazio-egoera dela-eta, kexa Osakidetzako Zuzendaritza Orokorraren eskuetan utzi behar zela pentsatu genuen, eta honek gorabehera hori jasanezina zela esan zigun.

5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere II. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Kexen laburpenek 2001ean zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, I. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2001ean egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutakoen segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa agente publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

EMAKUME ESPETXERATUEN EGOERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, EMAKUMEOK SEME-ALABAK DITUZTENEAN

Herri Defendatzaileen arteko Koordinaziorako XVI. Jardunaldiak

Egitan, gizartearen eremu batean ere ez da lortu emakumeen eta gizonezkoen baldintzak benetan berdinak izatea. Baina, emakume espexeratu taldean arreta jarri gero, nahitaz aitortu behar da tarte izugarria dagoela, egungo egoeraren eta berdintasun-jomugaren artean.

Errealitate horrek jatorri historikoa du. Orain hamarkada batzuk arte, emakumeek oso parte-hartze urria zuten, delitugintzari buruzko estatistiketan; horregatik, erantzun penalak —eta, horien artean, lehendabiziko eta oinarriko erantzun gisa, espexealdia— gizonezko delitugilearentzat egituratu ziren.

Egitate horrek ondorio garrantzitsuak ditu. Esate baterako, segurtasun-neurriak eta zaintza-neurriak berberak dira, emakumeentzako espexeetan eta gizonezkoentzako zentroetan; ez da inola ere kontuan hartu emakumeentzako espexeetan indarkeria-indizeak gizonezkoentzako zentroetan baino askoz txikiagoak direla. Halaber, ez da aintzakotzat hartu emakumeek egiten dituzten delituak oso gutxitan izaten direla indarkeriazkoak. Ez da gogoan izan, orobat, emakume espexeratu artean, nekez gertatzen direla jokabide oldarkorrak edo matxinadak. Hori guztia dela eta, maiz-sarri, kontrol fisiko eta psikologikoak gehiegizkoak eta proportziorik gabekoak izaten dira, emakume espexeratu egiazko arriskugarritasuna kontuan hartuta.

Ildo beretik ere, espexeetako tratamendua eta, bereziki, graduen araberako sailkapena, patro androzentrikoen arabera egin da argi eta garbi; bi horiek ez dira aldatzen, generoaren arabera ikuspuntutik, nahiz eta guztiok jakin ikuspuntu hori erakunde guztien jarduera-eremuetan aplikatu behar dela.

Hortaz, bereizkeria egiten da, emakume espexeratu aurka. Bereizkeria horren alderik nabariena da, hain zuzen ere, espexeen beraien egitura. Zinez, azken urteotan, asko gehitu da emakume espexeratu kopurua. Hori gorabehera, askotan, emakumeok betetzen dituzte, gizonezkoentzako espexeetan egokitutako moduluak. Horrela, emakume horien bizitza-baldintzak, maiz-sarri, gizonezkoenak baino urriagoak dira.

Hori guztia dela eta, seme-alabak dituzten emakumeek espexeetan zein egoera duten aztertu aurretik, nahitazkoa da, labur-labur bada ere, orokorrean emakume espexeratuak zein egoera duten azaltzea. Horretarako, gure autonomia-erkidegoko zenbait datu alderatuko ditugu hona.

Emakumeen bizitza-baldintzak, EAE-ko presondegietan

Arartekoak txosten berezia argitaratu zuen, 1996. urtean, *Kartzelen egoera, Euskadin* izenburuarekin. Txosten horrek azpimarratu zuen emakumeentzako sailtan zenbait hutsune atzeman zirela.

Gure autonomia-erkidegoan, hiru espexe daude: Basaurikoa, Martutenekoa eta Langraiz Okakoa. Azken biek bakarrik dituzte emakumeentzako atalak. Horrek esan nahi du Bizkaiko emakumeak ezin direla destinatu, aurreneurriko espexeratu gisa, ezta zigortu gisa ere, euren bizilekuetatik hurbilen dagoen espexera; eta, kopuruaren aldetik, Bizkaiko emakumeena da, hain justu ere, talderik ugaritsuena.

Txostena prestatzeko unean (1995. urtearen amaiera aldean), 29 emakume zeuden Martutenen barneratuta eta 112, berriz, Langraizen. Lehendabiziko bizitza-baldintzei dagokienez, orduan arazo hauek nabarmendu genituen, beste batzuen artean: guztiok erabiltzeko moduko guneak ez izatea (patioa oso-oso txikia izatea; bibliotekako aretoa oso txikia izatea...); atal irekirik ez egotea; soldatapeko lana lortzeko, aukera gutxi izatea; kirola egiteko, zailtasunak edukitzea; osasun-laguntza espezializatuan, akatsak izatea etab.

Hala eta guztiz ere, emakume espexeratu iritziz, arazorik larriena ondokoa zen: emakumeok espexean

sartzean, euren familien egoera oso latz gertatzen zen, batez ere, emakumeek euren seme-alaba adingabeengandik banandu behar zirelako.

Langraizko espetxeaz denaz bezainbatean, egoera oso antzekoa zen. Zehatzago hitz egiteko, beharbada egoera larriagoa zen, sasoi hartan espetxean zegoen gehiegizko pilaketarengatik. Emakumeentzako bi moduluek muga asko zituzten, batik bat, eraikinaren egituraren ondorioz (aurreneurrizko espetxeratuentzako zentroa egokitu besterik ez zelako egin). Alde txarren artean, azpimarratzeko modukoa zen gela handietako bat "erizaindegi" moduan prestatu izana (lau oherekin), zentroak ez zeukalako emakumeentzako erizaindegirik. Era berean ere, emakumeek eta gizonezkoek zenbait gune elkarrekin banatu behar zituzten, jarduera desberdinetarako. Halako guneak ziren, besteak beste, jantokia eta eskola; egongela eta tailerra; ikasgela eta biblioteca... Gainera, ez zegoen gune aproposik, amak euren seme-alabekin egon zitezen.

Zinez, lanbideetarako tailerak jartzeko, beste modulu batzuetan baino lokal gehiago zeuden. Alabaina, emakume espetxeratuek gizonezkoek baino tailer gutxiago zituzten. Horrela, soldatapeko lana lortzeko aukerak, emakumeentzat, oso murriztak ziren.

Bestalde, emakume espetxeratuek, euren arazo berezien artean, hurrengoak azpimarratu zituzten: ginekologiako zerbitzua askieza zen; emakumeentzat ezinezkoa zen sukaldeko destinoak eskuratzea; emakumeek arazoak zituzten, euren seme-alaba adingabeekin komunikatzeko; matxarden tailerlean (emakumeentzat, ekoizpen-tailer bakarra), soldata urriak lortzen ziren, eta urria zen, orobat, tailer horren antolaketa-sistema; emakumeek gizonezkoek baino aukera gutxiago zituzten, tratamendu alternatiboak lortzeko edota, droga-mendekotasun kasuetan, jarraipena eskuratzeko; emakumeentzat ezinezkoa zen atal irekian sartzea etab.

Deskribatu berri dugun egoeraren ondorioz, gure gomendioen artean, ondokoa barneratu genuen: neurri bereziak hartu behar dira, emakume espetxeratuen taldeak egiazko eta lehenasuneko laguntza jaso dezan. Hala ageri zen, hain justu ere, Eusko Jaurilaritzak eta Justizia Ministerioak, 1994. urtean, sinatutako hitzarmenean; hitzarmen horren izenburua hauxe zen: *Lankidetzarako Hitzarmen Markoa, Espetxeen arloan*. Zehatz esateko, guk azpimarratu genuen emakume espetxeratuek beharrez bereziak zituztela, euren haurrak zaindu behar izanez gero. Lege-aginduak bete ezean, Euskadiko hiru kartzeletatik batek ere ez zuen izango dependentzia egokirik, hiru urtetik beherako umeak euren amekin bizi zitezen. Horrela, emakumeek bi aukera zituzten: autonomia-erkidegoteko kanpo joan edo, osterantzean, euren haurtxoengandik aldentu. Guk azpimarratu genuen, orobat, emakumeen eta euren seme-alaben arteko komunikazioa erraztu behar zela, baita espetxetik kanpo ere. Eta, ahal izanez gero, espetxean bertan baldintza egokiak ezarri behar ziren, adingabeek bisitak egin zituzten.

Horiek dira, beraz, atzemandako hutsuneak; eta, nabari denez, horietako asko egitura-akatsak dira. Bada, gaur egun, hutsune horiek guztiek badiraute iraun, eta zailtasun garrantzitsuak sorrarazten dizkiete emakume espetxeratuei. Esate baterako, emakume espetxeratuentzat, ez dago atal irekirik, eta gehienak, lehen esan bezala, Bizkaikoak dira. Hori dela eta, emakume espetxeratu askok nahiago dute espetxetik ez ateratzea, nahiz eta hirugarren graduari sailkatuta egon. Beste emakume batzuk, ordea, espetxetik ateratzen dira lan egiteko, eta espetxera itzultzen dira, moduluan gaua pasatzeko, bigarren graduako emakume espetxeratuekin batera; horregatik, presio handiak jasaten dituzte (adibidez, kanpotik objektuak sartzeko).

Laburbilduta, 1996. urtean, zenbait ondorio atera genituen, emakume espetxeratuek duten egoerari buruz. Ondorioen artean, salatu behar genuen, emakumeon aurka, ageriko bereizkeriak izatea. Bada, gaur egun, ondorio horiek indarrean daude bete-betean. Arrazoi hori abiapuntutzat hartuta, Arartekoaren erakundeak, ondoz ondo, zenbait txosten helarazi dizkio Eusko Legebiltzarrari; txosten horietan, behin eta berriz azpimarratu da emakume espetxeratuek duten egoera tamalgarria. Konparazio baterako, 1999ko txosten arruntean, berriro ere nabarmendu genuen zer-nolako arazoak dakartzan euskal presondegietan ama-haurrentzako modulerik ez izateak. Izan ere, emakume espetxeratu batek kexa bidali zigan. Kexa horren arabera, emakumeak umea erditu zuen eta, haurtxoengandik ez aldentzeko, bere bizilekutik oso urrun zegoen kartzela batera joan beharra izan zuen. Aurretiaz ere, ofizioz, estatuko Arartekoarengana jo genuen. Hari eskatu genion Espetxeetako Administrazioarengana jo zezan, aipatutako hutsunea betetzeko, hutsune horrek eragina baitu, Euskal Autonomia Erkidegoan, haur txikitxoak dituzten emakume espetxeratu askorengan.

Gure iritziz, arazo horrek berriro ere erakutsi zuen komeni dela Euskal Autonomiak Erkidegoak eginkizun bereziak betetzera, espetxeetako eskumenei dagozkienez. Jakin bagenekien Eusko Jaurilaritzako Justizia Sailak ezin zuela esparru horretan erabakirik hartu. Hala ere, arazoaren berri eman genion, sail horrek gaitasuna duelako, euskal presondegiren batean, *Amentzako Unitatea* sor dadin sustatzeko eta sorkuntza horretan lankidetzan aritzeko. Bide beretik ere, uler daiteke autonomia-erkidegoak laguntza eman dezakeela, *mendeko unitate* deiturikoak abian jar daitezen eta, horrela, zigorra araubide irekian betetzera posible izan dadin. Horrela, emakumeek euren seme-alabekin egoteko aukera izango lukete, espetxeko tratamenduan hirugarren graduako sailkapena lortuz gero.

Justizia Sailak adierazi zигun Espetxeetako Administrazioari jakinarazi ziola, bera prest zegoela, *Amentzako Unitate* deiturikoaren obrak bere gain hartzeko. Baina, antza denez, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak ez du Espetxeetako Administrazioaren erantzunik jaso.

1999. urtean zehar ere, Langraiz Okan espetxeratutako emakume batzuek idatzia bidali zioten Arartekoari. Idazki horri helduta, emakumeek adierazi zuten eurentzat ezinezkoa zela presondegiko ekoizpen-tailerretan sartzea. Euren aburuz, ezintasun hori emakumeen aurkako bereizkeria zen; are gehiago, ezintasun horrek hautsi egiten zuen, haien iritzi, EKren 25.2 artikuluan ezarritako eskubidea. Jakina denez, artikulua horrek oinarritzko eskubide bat aitortzen die espetxeratu guztiei, hain zuzen ere, soldatapeko lana izateko eskubidea. Guk kexa hori jakinarazi genion estatuko Arartekoari, eta, horrez gain, arazoaren berri eman genion Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari. Izan ere, aipatutako *Hitzarmen Markoaren* arlo zehatzetatik bat da, bereziki, lanbide-heziketari eta enpleguaren sustapenari dagokiona, eta sail horrek koordinazio-lana bete behar du, hitzarmenaren garapenean. Justizia Sailak jakin bazekien emakumeentzako lanpostuak urriak zirela, eta, Arartekoarekin batera, arazo horrekin kezkatuta agertu zen. Baina Justizia Sailak uste zuen berak ez zeukala inolako aukerarik, euskal kartzeletan espetxeratutako emakumeen lan-egoera hobetzeko.

2000. urteko txosten arruntean, berriz gogoratu genuen *Amentzako Unitate*a oraindik ez zela abian jarri, nahiz eta Espetxeetako Administrazioak behin baino gehiagotan esan, aurreikuspenen arabera halako unitate bat sortuko dela, etorkizunean autonomia-erkidego honetan izango den espetxe horretan. Arazoa da oraindik EAE-n ez dela inolako zantzurik atzematen, espetxe berri baten eraikuntza hasiko dela uste izateko.

Orain arte, beraz, labur-labur azaldu dugu zein den Euskadiko espetxeetan barneratutako emakumeen egoera. Laburpen honekin bukatzeko, komeni da beren beregi aipatzea osasunaren babesarekin zuzeneko lotura duen gai bat. Zehatz esateko, osasun-laguntza espezializatua gogoratu nahi dut eta, bereziki, laguntza ginekologikoa.

Aurretiaz esan dudana bezala, 1996ko txostenean, orduko, emakumeek kexa bidali zituzten, gai horren inguruan. Osakidetzarekin egindako hitzarmenaren arabera, sare publikoko adituek ematen dute laguntza ginekologikoa: batzuetan, profesionalak eurak doaz espetxeetara eta beste batzuetan, ostera, emakumeak eramaten dira ospitaleetara. Arazoa da, arrazoi eta inguruabar desberdinen ondorioz, sasoi batzuetan sistema horrek kale egin duela. Guk jaso ditugun informazioen arabera, gaur egun, ginekologo batek bisita egiten die Martutenen barneratutako emakumei. Eta, orain egun gutxi, hitzarmena sinatu da, Gasteizko osasun-etxe batekin, Arabako presondegian barneratutako emakumei aldiro-aldiro azterketak egiteko; horrela, emakume horiei guztiei, gutxienez urtean behin, azterketa ginekologikoa egingo zaie. Hortaz, Langraiz Okako espetxeak azken hilabeteotan hutsune hori izan badu ere, aurrerantzean hori konponduta geratuko da.

Laguntza ginekologikoari lotuta, bada beste arazo bat, nekez kanporatzen dena. Arazo horren eretzean, emakume espetxeratuek aukera izan dezakete, euren borondatez, haurdunaldia eteteko. Zentzuzkoa denez, Espetxeetako Administrazioak bermatu behar du emakume espetxeratuek eta espetxetik kanpo daudenek baldintza berberak izatea, gai horretan. Hala eta guztiz ere, hori ez da batere erraza. Alde batetik, kontuan hartu behar dira emakume espetxeratuak ohiko arazoak: desegituratze pertsonala, informaziorik eza, erauzketa, familiako laguntzarik ez izatea... Eta, beste alde batetik, espetxean egoteak zenbait arazo sorrarazten ditu, hala nola, haurdunaldia berandu atzematea, medikuen aginduzko txostenak lortzeko zailtasunak etab.

Eragozpen horiekin batera, beste batzuk ere izan daitezke, eta bestelako horiek eragina dute, baliabide ekonomiko urriak dituzten biztanleengan. Izan ere, zenbait kasutan, osasun-arloko zerbitzu publikoek ez dute behar besteko gaitasunik, haurdunaldia eteteko, legean ezarritako kasu eta epeetan. Guk lortu ahal izan ditugun datuen arabera, dirudienez, Euskal Autonomia Erkidegoko presondegietan, ez da arazorik izan, emakumeek euren haurdunaldia bukarazi behar izan dutenean, osasun fisikoa dela eta. Zailtasunak handiagoak izan dira, ordea, arriskua osasun psikikoarentzat izan denean.

Arartekoak uste du generoaren arabera ikuspuntua erabili behar dela, nahitaez, espetxeratuei laguntza ematen zaienean. Espetxeetako Administrazioak kontuan hartu behar du ikuspuntu hori, orokorrean, emakumeen osasuna babestu behar duenean, eta, bereziki, haurdunaldia eteteko arazoari aurre egin behar dioenean, bi-biok ere egundoko garrantzia baitute. Horrek esan nahi du, besteak beste, beharrezkoak diren baliabide guztiak erabili behar direla, emakumeen heziketarako plan bereziak izateko, aurreneurriak hartzeko eta osasun-laguntza espezializatua lortzeko.

Emakume espetxeratuaren arazo bereziak, emakumeok seme-alaba adingabeak dituztenean

Lehen aurreratu dugun bezala, Euskadiko presondegietan barneratuta dauden emek arazo larria dute: ez dago sail berezi bat, bertan emakumeok euren haurtxoekin izan daitezten.

EAE-n, emakume espetxeratu gehienak Langraiz Okako presondegian daude. Azken hilabeteotan, 60 emakume izan dira bertan, gutxi gorabehera. Zehatzago hitz egiteko, 2000. urteko abenduan, 64 emakume zeuden barneratuta; eta, 2001. urteko abuztuaren 31 n, berriz, 56. Emakume horien artean, ehuneko handi bat (% 80, gutxi gorabehera) Bizkaitik dator, eta 4 emakumek bakarrik dute euren bizilekua Araban. Gainerako emakumeak beste autonomia-erkidego batzuetakoak edo atzerritarrak dira. Espetxeak dituen datuen arabera, emakume horien erdiak baino gehiagok seme-alaba adingabeak ditu; eta, maiz-sarri, seme edo alaba bat baino gehiago. Horrek esan nahi du 75 haurtxo euren amengandik aldentuta bizi direla.

Martuteneko presondegiari dagokionez, 2001. urteko abuztuaren 31 n, 18 emakume zeuden bertan barneratuta; horietatik 12 gutxienez adingabeen amak dira.

Azken urte honetan, EAE-n askatasunik ez duten emakumeen artean, hiruk familia izan dute. Horietako batek haurtxoa izan zuenean, Adingabearen Kontseiluak bereganatu zuen haurtxo horren gaineko babesa, horrek uste izan zuelako amak ez zeulaka behar besteko baliabiderik, umetxoa behar bezala hazteko. Beste bi emakumeek, euren egoera aintzat hartuta, dilema saihestezina izan zuten: euren bizilekutik urrun zegoen espetxe batera joan zitezkeen, euren haurtxoa zaintzeko, nahiz eta horrela familiarengandik eta, beharbada, beste seme-alaba adingabeengandik aldentu beharra izan; edo, osterantzean, EAeko espetxean gera zitezkeen, jao berriarekin bizitzeko eskubideari uko eginez.

Emakume espetxeratu asko ijitoen erkidegokoak dira. Gainera, espetxeratuta dauden guztien artean, askok ere haur txikitxoak dituzte. Hori dela eta, ezin dute pentsatu ere egin, Euskaditik kanpoko espetxe batera joateko aukera dutenik. Ondorenez, jao berriarengandik aldentu behar dira emakume horiek. Amak familiaren edo gizartearen laguntza ez duenean, adingabeen babeserako erakundeek zaintzen dituzte ama horren ondorengoak. Neurri hori, hasieran behintzat,aldi baterako dela ulertzen da; hau da, amak askatasuna berreskuratu arte luzatzen da neurria. Alabaina, emakumeek uste dute neurri hori, beraientzat, zigor erantsia dela. Are gehiago, neurri hori, emakume espetxeratuentzat, mehatxu bat da, etorkizunean euren seme-alabak zaintzeko aukera eta euren maitasuna ere gal dezaketelako.

Ido bertsutik, ezin dira ahantzi kriminologiako ikerketak. Ikerketa horiek erakutsi dute gure gizarteak zama sinboliko handiagoa ematen diola emakumeen delitugintzari. Gure gizartean, emakumeen delitugintza ez da legea haustea bakarrik. Horrez gain, emakumeen delitugintzak hautsi egiten ditu emakumei betidanik eratxiki izan zaizkien zereginak, besteak beste, ama izatea eta hezitzailea izatea. Arazo horretan, beste batzuetan bezalaxe, kontuan hartu behar dira pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta inguruabarrak. Hala jokatzu gero, argi dago ezin direla adierazpenak orokortu: emakume espetxeratu batzuek ezin dituzte euren haurtxoak behar bezala zaindu; eta, beste batzuek, aldiz, horretarako gaitasun egokia dute. Garrantzitsuena da kasuan-kasuan azterketa sakona egitea, eta aurreiritziak alde batera uztea; aurreiritzien arabera, emakumeak delitua egin badu, orduan ezin da ama ona izan.

Bada, bestalde, nabarmentzeko moduko beste arazo bat ere. Arazo horren eretzean, kontuan izan behar da askatasunik ez duten amek nola zaindu ahal dituzten euren seme-alaba adingabeak. 1995. urtean, Langraiz Okako Talde Teknikoko txostena egin zuen. Txosten horren arabera, erakundeak ez zekien nola bizi ziren espetxe horretako emakumeen 115 seme-alaba. Antza denez, emakume askok, espetxean zartzean, euren ondorengoak zaintzeko ardura eman zieten hurbileko pertsoneri; baina ez zieten hori jakinarazi erakundeko arduradunei, seme-alaba horien gaineko zaintza galtzeko beldur zirelako. Horren ondorioz, espetxeko gizarte-zerbitzuek eta adingabeen babeserako erakundeek ez zuten inolako ikuskapenik egin, ukitutako haur horien benetako egoerari buruz.

Ez daukagu daturik egungo egoerari buruz. Baina, gure iritziz, errealitate horri ezin zaio behar bezala aurre egin, espetxeko gizarte-zerbitzuek dituzten baliabideekin, nahiz eta arazoa haien eginkizunen esparruan sartu bete-betean. Era berean ere, zerbitzu horiei dagokie adingabeak babesteko eskumena duten erakundeekin koordinazioa izatea eta lankidetzan aritzea.

Etorkizunari begira

Ohar hauek bukatu baino lehen, gida-lerro batzuk eman nahi ditugu. Gure aburuz, gida-lerro horiek proposak izan daitezke, etorkizunean emakume espetxeratuen bizitza-baldintzak hobek izan daitezkeen. Baina, gida-lerroen kontuari ekin aurretik, aurretiaz arazo bat aipatu behar dugu, behinik behin, hausnarketarako puntua izan dadin: espetxeratuen seme-alabek arazoak izaten dituzte, antza, emakumeak direnean presondegian sartzen direnak; horrek ari eta garbi erakusten du gure kulturen generoaren araberako desberdintasunak puripuri-ian daudela.

Gaur egun, zentzurik gabekoa omen da hiru urteko haurtxoak gizonezkoen sailetan bizitzea. Aldi berean ere, begi-bistakoa da gizonezkoek ondorengoak zaintzeko ardura izan behar dutela, emakumeok ere ardura hori duten neurri berean. Bi-biok erantzukizuna izatea nahitaezko baldintza da, genero desberdineko

pertsonen artean egiazko berdintasuna izan dadin. Hori dela eta, botere publiko guztiek —Espetxeetako Administrazioak barne— berdintasun hori sustatu behar dute, EKren 9.2 artikuluko konstituzio-agindua zorrotz betetzeko.

Horren inguruan, zerbait argitu beharra dago. Bi-bion erantzukizuna aipatzen dugunean, ez dugu esan nahi gizonetako espetxeratuek seme-alaba adingabeen gaineko zaintza bereganatu behar dutela, amak askatasuna duenean; hori zentzurik gabekoa izango litzateke. Guk haxe baino ez dugu uste: espetxeak ezin du aitatasuna alde batera utzi; alderantziz, gizonetako espetxeratuek euren ondorengoak zaindu behar dituzte, eta horiek in kezkatu behar dira, eta espetxeko agintariek hori sustatu eta erraztu behar dute. Bestalde, ezin da ahantzi, emakume espetxeratuaren artean, ehuneko handi baten kasuan, bikoteak ere ez duela askatasunik. Kasu horietan, garden-garden ikus daiteke, amatasunak eta aitatasunak tratatu desberdina dutela, espetxeratuaren artean.

Gizonetako espetxeratuek parte-hartze handiagoa izan behar dute, euren seme-alabak zaintzeko orduan. Hori ez da haien eskubidea bakarrik; haien eginbeharra ere bada. Gainera, gizonetako horiek berriro gizarteratzeko elementu garrantzitsua izan daiteke parte-hartze handiagoa izatea, eta euren erantzukizun pertsonala garatzeko bide bat ere bada. Ondorengoak zaintzea, beraz, espetxeko tratamenduaren faktoreetako bat izan daiteke. Hori ulertuta, bi norabide hauek har daitezke:

- Alde batetik, *a priori* ez da hurrengo aukera baztertu behar: etorkizunean, beharbada, gizonetako espetxeratuek euren seme-alabekin bizi ahal izango dira, eta hori lor daiteke, esate baterako, betepenerako unitate mistoak gehituz. Horrekin batera, unitate mistoetan sartzeko baldintzak malgutu beharko lirateke, gure ustez, hori beharrezkoa da eta.
- Bi gurasoek batera erantzukizuna beregana dezaten, beste bide bat izan daiteke espetxeetako gizarteratzeko laguntzarako zerbitzuak laguntza handiagoak ematea, batik bat, laguntza horiek espetxeratuaren familiakoei egiten zaizkienean. Laguntzak ez dira ekonomikoak bakarrik izan behar. Aitzitik, familiaren arazo guztiei orokorrean egin behar zaie aurre. Horrela, espetxe-onuren bidez, erraztu egingo da espetxeratuek parte-hartze pertsonala izatea, euren seme-alabak zaintzeko orduan.

Aurreko hausnarketa horiek azaldu eta gero, ezin da ahantzi, une honetan, bi gurasoak espetxean daudenean, seme-alaben bizitza-baldintzak, batez ere, amaren egoeraren arabera direla.

Bide horretan, nahitaezkoa da *Amentzako Unitateak* abian jartzea, hala agintzen baitu Espetxeetako Erregelamenduak ere. Autonomia-erkidago bakoitzak, gutxienez, halako dependentsia egoki bat izan behar du, emakumeek eta euren haurtxoek bertan ostatu izan dezaten. Bestela, emakume espetxeratuek ezin izango dituzte euren seme-alaba adingabeak zaindu, baldin eta kondena betetzen badute, euren bizilekuetatik hurbil dauden zentroetan. Egoera hori izanik, berriro gizarteratzeko helburua oztopatu egiten da, eta helburu hori izan behar da, hain justu ere, zigorren betearazpena bideratzen duena, baita horren gutxienezko edukian ere. Gutxienezko eduki hori da, izan ere, *zigortuak gizarteratean bazterturik gera daitezzen saiheste* (ELOren 12. art.).

Ama-haurtzeko unitateez gain, espetxeetako arautegiak beste zenbait aukera eskaintzen ditu, eta aukera horiek, EAE-n behintzat, ez dira oraindik jorratu. Aurretiaz aipatu izan ditugu *sail mistoak*; beraietara *destinaturik egon daitezke, aldi berean, gizonetakoak eta emakumeak* (EEren 168. art.). Hasieran bederen, ez dago aurreikusita, zentro horietan hiru urteko haurtxoak bizitzea. Baina kontuan hartu behar dira legetestuan jasotako orientazioak eta helburuak. Orientazio horien arabera, komeni da ezkontide espetxeratuaren arteko elkarbizitza sustatzea (EEren 172. art.). Eta helburuen arabera, berriz, familiaren desegituratzea saihestu beharra dago (EEren 168. art.). Hori guztia gogoan izanik, espetxeetan sail bereziak antola daitezke eta, sail horietan, bikoteak euren seme-alaba adingabeekin onar daitezke. Horrela, familiaren elkarbizitza normalizatua erraztuko da.

Beste alde batetik, *mendeko unitate* deiturikoak ere konponbide egokiak izan daitezke, emakume espetxeratuentzat eta euren haurtxoentzat. EEren 165. artikuluan ezarritakoari helduta, unitate horiek “*espetxeen esparrutik kanpo kokatzen dira, batik bat, etxebizitza arruntetan*”. Unitate horien kudeaketa, “*zuzen-zuzenean eta lehentasunez, espetxetik kanpoko elkarte edo erakundeek burutzen dute*”. Balia bide hori hirugarren graduaren sailkatutako zigortuentzat aurreikusi da, eta lagungarri izan dakieke ama diren espetxeratuei, euren egoera hobea izan dadin. Izan ere, horrek eragotzi egingo du emakumeek espetxean bizitzea, bai eta horrek dakartzan ondorio kaltegarri guztiak ere.

Egundaino, Euskadin ez da halako unitaterik sortu. Zernahi gisaz, eta aurretiaz esan dugun bezala, halako unitateak izatea ez litzateke hain zaila izan behar, lankidetzarako itunak edo hitzarmenak sinatu direlako Espetxeetako Administrazioaren eta barneratutakoak berriro gizarteratzeko beste erakunde batzuen artean. Arartekoaren erakundeak uste du lehen aipatutako xedapenak bide ematen duela —eta, neurri batean behintzat, xedapen horren arabera, nahitaezkoa dela— herri administrazioek parte-hartze handiagoa izatea, batik bat, eurei dagokielako egoerarik kaltegarrienean dauden taldeei gizarteratzeko ematea.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak, ondoz ondo, emakumeentzako ekintza positiboari buruzko planak (EEPP izenekoak) onetsi ditu. Esate baterako, III. EEPPren 9.4.3 helburuaren arabera, *emakume espetxeratuen egoera hobetu eta normalizatu behar da*. Horretarako, ekintza positiboak dira, ama-haurrentzako unitateak sortzeaz gain, *beharrezkoak diren balibideak jartzea, "mendeko unitateak" ezarri ahal izateko; eta, orobat, gizarteratzeko zentroak eta atal irekiak finkatzea, bertan emakumeek zigorrak bete ditzaten, araubide irekian*.

Puntu horri dagokionez, gogoan izan behar dira komunikazio honen hasieran egindako oharra. Horiek gogoratuz, emakume espetxeratuen arriskugarritasuna, orokorrean, txikiagoa da; era berean, jokabide oldarkorrak urriagoak dira emakumeen artean, eta emakumeek gaitasun handiagoa dute, euren burua espetxeko araubidera egokitzeko. Bistakoa denez, gure proposamena ez da emakumeek, emakume izateagatik soilik, hirugarren graduko sailkapena lortzea, gizonezkoek baino errazago. Baina ezin da ahantzi, orokorrean, emakumeen jokabide-ereduak eta gizonezkoenak desberdinak direla, eta horrek ondorio onuragarriak ekarri ahal dizkiela emakumeoi.

Esangura horretan, erakunde honek kontsulta egin die talde teknikoetako profesionali. Profesional horiek hurrengoa baieztatu dute: egitarau jakin batzuetan, aukera dago egunez espetxetik ateratzeko, baldin eta espetxeratua bigarren graduan sailkatuta badago; emakumeek, talde gisa, gizonezkoek baino erantzun hobeak izaten dute, halako egitarauetan (berbarako, EEren 117. artikuluan ezarritakoetan). Esperientzia horiek lagungarri izan daitezke —eta, ziur asko, lagungarri izan behar dira—, egitarau berritzaileak abian jartzeko; egitarau horien bitartez, espetxeetako araubidea malgutu ahal da eta, ondorenez, emakumeek gero eta askatasun handiagoko esparruak izan ahal dituzte.

Bukatzeko, berriro ere azpimarratu behar ditugu komunikazio honetan zehar aipatu izan diren neurrietako batzuk. Lehenengo eta behin, halako neurri bat jaso genuen, 1996. urtean, euskal espetxeei buruzko txostenean, eta neurri hori proposatzen du, orobat, Euskadiko III. EEPP izenekoak. Neurri horren eretzean, erraztu egin behar da emakume espetxeratuek harremanak izan ditzaten, espetxetik kanpo dituzten seme-alabekin. Horretarako, nahitaezkoa da espetxeetan bertan, dependentzia egokiak sortzea eta, batez ere, baldintza aproposak finkatzea, amen eta haurren arteko komunikazioa aberasgarria izan dadin, bi alderdiontzat.

Gogoratu behar da, halaber, espetxeetako gizarte-zerbitzuek aurre egin behar dietela, dedikazio osoarekin eta gehieneko intentsitatearekin, adingabeen beharrezkoen, adingabe horien amak espetxean daudenean. Kontua ez da pertsona horien bizitzaren gainean kontrola ezartzea; eta, are gutxiago, emakume espetxeratuen familiakoekin izandako harreman horiek erabiltzea, emakumeon gaineko botere-tresna gisa. Proposamena, izatez, hauxe besterik ez da: espetxeak balibide egokiak jarri behar ditu, zigorrek zigortuak birgizarteratzeko helburua bete ditzaten eta, bereziki, askatasuna kentzeak sarritan dakartzan ondorio kaltegarriak saihestu daitezten.

II. ERANSKINA

ARARTEKO ERAKUNDEA GIZARTE-ESKUBIDEEN GARAPENEAN

Iberoamerikako Ombudsman Federazioaren VI. Biltzarra

I. GIZARTE-ESKUBIDEAK ETA OMBUDSMAN-EN JARDUNA

Gaur egun, giza eskubideei buruz hitz egitean, hauxe baieztatu behar da: gizakiak, gizaki den heinean, bere izaera eta duintasunaren ondorioz, giza eskubide batzuk ditu. Eskubideok gizakiari dagozkio, eta ez dira sortzen gizarte politikoak gizakiari horiek eman dizkiolako; aitzitik, gizarte-politikoak eskubideok aitortu eta bermatu egin behar ditu. Hortaz, gizakiaren duintasuna da eskubide guztien lehendabiziko eta azken oinarria, baita eskubide ekonomikoena eta gizarte-eskubideena ere.

Ikuspuntu horretatik, ezin zaio eutsi eskubide eta askatasun politikoen, eta gizarte eta ekonomiaren eskubideen arteko bikoiztasunari, kategoria desberdineko eskubideak izango bailiran. Aitzitik, giza eskubide guztiak zatiezinak eta elkarren menpekoak direla azpimarratu behar da. Are gehiago, elkarren osagarri dira eta, ondorenez, euren artean interakzioa gertatzen da. Hortaz, ezin dira zatikatu, eta euren artean ez dago antinomiarik.

xx. mendearen bigarren erdian, Europako konstituzio ia guztietan eskubideen adierazpenak barneratu ziren. Horrekin batera, eskubide horiek babestu eta bermatzeko sistemak ezarri ziren.

Prozesu horretan, gizarte eta ekonomiaren eskubideak ere Zuzenbidearen munduan agertu dira eta, ondorenez, nazioarteko itun eta adierazpenetan jaso dira, bai eta nazioetako hainbat konstituziotan ere. Jakina denez, gizarte eta ekonomiaren eskubideak prestazio-eskubideak edo kreditu-eskubideak dira. Horrek esan nahi du, eskubideok eragingarriak izan daitezken, nahitaezkoa dela estatuak jarduera zehatz eta planifikatua burutzea.

Era berean ere, une historiko jakin batean, estatuaren transformazio-fenomenoa gertatu zen eta, horren ondorioz, estatua *welfare state* bihurtu zen, alegia, ongizate-estatua edo, gure artean, Zuzenbideko estatu gizartekoia.

Carl Schmitt-ek bikain azaldu du estatua transformatzeko prozesu hori. Aditu horren hitzetan, "*estatu bihurtutako gizartea estatu ekonomiko, kultur estatu, estatu zuhur, estatu ongile, ongizate-estatu bihurtu da. Gizarteak bere burua antolatzearen ondorioz, estatu berria sortu da, eta estatu hori jadanik ezin da gizartetik benetan banandu. Aitzitik, gizarteari dagozkion kontu guztiak barneratu behar ditu estatuak; hau da, gizakien arteko elkarbizitzarekin zerikusia duen guztia bereganatu behar du estatuak. Horrela, estatuak sektore guztietan esku hartu behar du, ezin baitu inolako sektorearen aurrean baldintzarik gabeko neutraltasuna izan, hori ez esku hartzeko konpromiso gisa hartuta.*"

Egundaino, sistema judiziala izan da eskubideak babesteko sistema nagusia. Alabaina, gaur egun, sistema judizial hori krisi larrian dago. Administrazioak herritarrekin dituen harremanak aldatu egin dira eta, horrekin batera, estatuaren eta gizartearen arteko harremanak ere aldatu egin dira.

Bestalde, "interes publiko-interes pribatu"aren arteko bikoiztasuna ahuldu egin da. Milurteko berri honetan, gainditu gabeko irakasgaiak eta erronka garrantzitsuak dira gizarte-eskubideen norainokoa, euren eragingarritasun juridikoa, bai eta horiek babesteko sistemak ere.

Agerikoa denez, gizartea asko aldatu da, azken urteotan. Izan ere, gizartea herritar zorrotz eta arduratsuen erkidego bihurtu da. Eta gure Administrazioak ahalegin handiak egin ditu, zerbitzu publiko egokiak

eskaintzeko, zerbitzu horiek erantzun eragingarriak eman ditzaten eta, ondorenez, ongizatea eta kalitatezko zerbitzuak ziurtaturik gera daitezten.

Egoera horretan, administrazio-jardueraren gaineko ohiko kontrola oztopatuturik geratu da, kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzearen ondorioz edo nahierarako ahalak eratzkitzearen ondorioz. Administrazioa toki guztietara heltzen dela, bistan dago; eta, istilu-egoerak gertatzen direnean, Zuzenbidea eta sistema judiziala gizarte-errealitatearen atzetik dabilta. Horregatik, kontrolerako forma berriak asmatu behar dira, eta, horien artean, Ombudsman-en jarduna aipatu behar da.

Gure kasuan, Eusko Legebiltzarrak otsailaren 27ko 3/1985 Legea onetsi du. Lege horren bidez, Arartekoaren erakunde sortu eta arautu da. Antzeko erakundeak sortzen dituzten lege gehienekin gertatzen den bezala, lege horrek ere honako definizio hau ematen du: Arartekoa erakunde bermatzailea da, eta erakunde hori bat dator, argi eta garbi, Zuzenbideko estatu gizartekoi eta demokratikoaren garapenarekin; estatu horrek zenbait hutsune erakutsi ditu, eskubide eta askatasunak benetan bermatzeko, adierazpen formal hutsetatik kanpo, eta Arartekoak hutsune horiek konpondu nahi ditu, eta, aldi berean, Arartekoak lortu nahi du gizarte-eskubideak, botere publikoentzat, egiazko betebeharrak izatea.

Gurean, Ombudsman izeneko erakundeari Ararteko deritzogu, eta badakigu beste hainbat izen ere badituela erakunde horrek. Izenak gorabehera, Ombudsman-en erakundeak, guztiok dakigunez, Administrazioa limurtu edo konbentzitzeko magistraturak dira, berrikusi beharreko kasuak aipatzen dituzte, eta Administrazioaren jardunbidean egin beharreko aldaketak iradokitzen dituzte. Are gehiago, jardunbide okerraren jatorria legea bera denean, legegintzako ekimenaren titularrei galdatzen diete, legea alda dezaten. Jarduera horien guztien helburua da, hain justu ere, bizitza-kalitate hobea izatea. Arartekoek, beraz, lankidetzak kritikoa dihardute Administrazioarekin, eta lankidetzak horrek asetzen ditu eskubideak bermatzeko sisteman dauden hutsuneak.

Ondorenez, Ombudsman-ek eskumen orokorra dute, Administrazioako agintari eta funtzionarioei mota guztietako gomendioak egiteko, betiere, euren eskumen-esparruaren barruan. Gomendio horien edukiak, eskuarki, eskari bat jasotzen du, eta Administrazioari dagokio eskari hori betetzea.

Tornos Mas irakasleak azpimarratzen du, Ombudsman-en erakundeak ezartzean, zein helburu lortu nahi den. Areak ere, Zuzenbideko estatu gizartekoietan, administrazio-justiziaren sistemak zenbait hutsune ditu, eta Ombudsman-en erakundeak erantzuna bilatu behar du hutsuneontzat, horixe baita, hain zuzen ere, haren helburua.

Kontua ez da, orokorrean behintzat, eskari zehatzak asetzea; alabaina, banakako hainbat kexa konpontzen ditugu, gure erakundeetara halakoak heltzen direnean. Kontua da ikerketak egitea, azterketak prestatzea eta alternatibei buruzko proposamenak egitea, Administrazioaren disfuntzioentzat erantzun orokorrak bilatu ahal izateko.

Bistan denez, Ombudsman-en erakundeek, batetik, botere publikoak kontrolatzen dituzte eta, bestetik, herritarren eskubideak bermatzen dituzte. Zernahi gisaz, Ombudsman-en erakundeek jardun behar dute, eurei dagokien ingurune zehatz horretan, bertan bizi baitira.

Egia esan, berdinak dira gure erakundeek euren jardunean erabiltzen dituzten ezaugarri eta tresna gehienak. Nolanahi den ere, jarduera horiek errealitate oso desberdinen gainean islatzen dira. Herri batzuetan, ongizate-estatu krisian dagoela esaten da; eta, herri horietan, gizarte-eskubideak ezartzeko eredia oso aurreratua da. Halako herrietan, hezkuntza-eskubidea edota osasunerako eskubidea unibertsalizatuta daude, eta egiazkoak dira. Beste herri batzuetan, aldiz, eskubide horien ezarpena arian-arian egiten ari da edo, osterantzean, eskubide horiek urrun-urruneko utopiak besterik ez dira.

II. ARARTEKOAREN JARDUNA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, GIZARTE-ESKUBIDEAK BABESTEKO ORDUAN

Hori dela eta, komunikazio honen bitartez labur-labur azaldu nahi dut zein izan den Arartekoaren jarduna, Euskal Autonomia Erkidegoan, gizarte-eskubideak babesteko orduan. Horretarako, kontuan hartuko ditut Arartekoak jardunean egin dituen urteak.

Urte horietan guztietan, zorionez, hauxe atzeman dugu: oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak urratzeagatik, zenbait kexa jaso ditugu, baina, kopuruaren aldetik, kexa horiek oso gutxi izan dira. Kontuan hartu behar da, baieztapen hori egitean, eskubideen oinarrizko guneaz ari garela. Alderantziz, gizarte-eskubide deiturikoek eta, zehatzago, eskubide horiek izan eta erabiltzeko aukerak bultzatzen dute gure jardun nagusia..

Kexa asko jaso ditugu, eskubide zehatz batzuen indarraldia lortzeko; eskubideok dira, besteak beste, hezkuntza-eskubidea, osasunerako eskubidea, etxebizitza izateko eskubidea, familia babesteko eskubidea, adinekoen eskubideak, adingabeen eskubideak eta elbarritasun fisikoa, zentzumenetakoa edo psikikoa duten

pertsonen eskubideak. Kexa horien izapidetza egitean, eta kexok ebatztean, garrantzia handiko arazoei erantzuna ematen diegu, kexa jarri duten pertsonentzat bederen. Aldi berean, Administrazioaren jarduna kontrolatzen dugu, horrek legezotasuna bete dezan eta herritarren eskubideak errespeta ditzan.

Zeregin horri ezin zaio garrantzirik kendu. Alabaina, guk uste dugu gure erakundeek erabilgarritasun handiko hiru tresna dituztela, gizarte-eskubideei zor zaie errespetua sakontzeko. Tresna horiek, izatez, hurrengoak dira: lehendabizikoa, ofizioz egindako jarduna; bigarrena, gomendio orokorrak; eta, hirugarrena, txosten monografiko bereziak, administrazio-eremu zehatza aztertzeko.

Ofizioz egindako jardunaren bidez, Arartekoak esku har dezake, kexarik eragin ez duten administrazio-jardueren aurka; kexarik eragin ez arren, jarduera horiek zuzendu beharrekoak dira, euren garrantzia edo larritasuna kontuan hartuta.

Gorago esan bezala, gizarte-eskubideak prestazio-eskubideak dira. Hori gogoan izanik, ofizioz jarduteko modu eragingarria izan daiteke administrazio-zentroetara bisita egitea eta halakoak ikuskatzea, zentro horietan eskubideak ematen diren heinean. Bisitak egin daitezke, konparazio baterako, adinekoen egoitzetara, adingabeen zentroetara, ikastetxeetara, ospitaleetara, atxiloketa-zentroetara... Bisiten bitartez jakin daiteke zer-nolako hutsuneak dauden, zerbitzuak egiteko unean —ez hutsune materialak bakarrik—. Gizakiaren duintasunari begirunea zor zaio, eta begirune hori izan behar da, azken finean, gure erakundeak halako kasuetan izan behar duen jardunaren euskarri nagusia.

Kasu askotan, proposatutako hobekuntzek begi-bistako ondorio ekonomikoak dituzte; eta, horregatik, zenbait kasutan, aurrekontuko zailtasunak izan daitezke, hobekuntza horiek burutzeko. Baina, beste batzuetan, hobekuntzek eragina dute antolaketa-kontuetan, zentroaren eremuan, parte hartzeko bideetan...

Oso komenigarri gerta daitezke bisiten egutegi sistematikoa prestatzea. Zenbait kasutan, bisitak egingo dira, aurretiaz txosten monografiko zehatza prestatu delako. Beste batzuetan, ostera, bisitak egingo dira, aldez aurretik txosten bereziak egin direlako eta horien ondoriozko gomendioak nola betetzen diren jakin nahi delako. Gure kasuan, urtero-urtero, jarduerak burutzen dira, ordu arte egindako txosten guztiak kontrolatzeko.

Bigarrenik, jarduteko tresna gisa erabil daitezke **gomendio orokorrak**. Gomendio horiek zerikusi handia dute, Norberto Bobbiok "Zuzenbidearen sustatze-eginkizun" deitu zuen horrekin.

Gomendio horien bitartez, alde batetik, banakako eskariari erantzuna ematen zaio; eta, beste alde batetik, eta batez ere, pertsona-kopuru zehaztugabe baten gainean eragina duen arazo bati heltzen zaio. Kasu anitzetan, arauen hutsuneak bete nahi dira, edo arauen aldaketa erraztu nahi da.

Beste batzuetan, jardunak ez du inolako eraginik arauen esparruan. Aitzitik, jardunak zailtasunak jartzen ditu Administrazioaren egunerako batzuk; horregatik, jardunak eginera horiek aldatzeko iradokizuna egiten du, edo administrazioen laguntza-prestazioetan defizitak edo hutsuneak daudela azpimarratzen du.

Gomendio orokorretara jotzeak erabilgarritasun handia du, horien bitartez arazo orokorrak konpon daitezkeelako eta, era berean, Administrazioaren disfuntzioak ezaba daitezkeelako. Horrela, aurrerantzean, ez dira berriz gertatuko.

Administrazio-eremu zehatz bati buruz, bestalde, azterketa monografikoak egin daitezke; horrekin, prestazioaren benetako egoera eta horren hutsuneak ikertu ahal dira. Legegileak Ombudsman-en esku jarri dituen tresnen artean, horixe da, beharbada, garrantzitsuenetakoa.

Hirugarrenik, beraz, **txosten bereziak** aipatu behar dira. Txosten berezi horien helburua aukeratzeko orduan, Arartekoaren erakundeak honako irizpide hau aplikatu izan du: gizartean talde batzuen egoera beste batzuen baina askoz ahulagoa denez gero, Arartekoak lehenengo horien egoera eta beharrianak aztertu nahi ditu, eta botere publikoek haiei ematen dizkieten erantzunak ikertu nahi ditu. Arreta berezia jarri da, ondorenez, adinekoen gain, adingabeen gain, askatasunik ez dutenen gain, buruko gaixotasuna dutenen gain, bai eta elbarritasuna dutenen gain ere.

Azpimarratzekoa da, zenbait kasutan, pertsona berberak aldi berean izaten dituela ahultasun handiko faktore bat baino gehiago. Esate baterako, askatasunik ez dutenen artean, batzuk emakumeak dira, eta, gainera, atzeritarrak; eta, askotan, euren egoera ekonomikoa larria da. Beste batzuetan, adineko pertsona batek ezgaitasun fisiko larria du, bere osasuna oso kalteturik dago, eta miseria gorrian bizi da. Euskadin, gizarte-laguntzarako sare berezia eratu da, eta ikerketek sare hori aztertzei ekin diote. Emaitzen arabera, nahitaezkoa da administrazio publiko desberdinen arteko koordinazioa.

Egundaino egindako txosten berezi guztiak, epe laburrera, gure web orrira bilduko dira (www.ararteko.net). Txostenok hurrengoak dira:

- *Ziegak. Udaleko atxiloketa-zentroak eta Ertzaintzarenak*. 1991.
- *Psikiatrikoak. Buruko gaixotasuna dutenen egoera, ospitale psikiatrikoetan*. 1992.
- *Adinekoen egoitzak, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 1992-1993.
- *Adinekoei egoitzatik kanpo emandako laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 1994-1995.

- *Kartzelen egoera, Euskadin*. 1996.
- *Babesik ez duten haurrei eta nerabeei emandako laguntza*. 1997.
- *Adingabe urratzaileekin izandako esku-hartzea*. 1998.
- *Uraren kalitatea babestea, Zadorra sistemaren urtegiatan*. 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera, EAE-n*. 1999.
- *Erkidegoak buruko gaixotasunari emandako laguntza*. 2000.
- *Hezkuntzako beharrian bereziei emandako erantzuna, EAE-n*. 2001.

Une honetan, azterketa berezi bat abian jarri da, elbarriek Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoera arakatzeko. Azterketa horren izenburua hauxe izango da: "Eraikinetan sartzeko oztopoak, EAE-n". Eta, urte honetan bertan, azterketa berezia egingo da, izenburu honekin: "Elbarriak lan-munduan integratzea, EAE-n".

Nabarienez, ikerketa gehienak, neurri handi batean, estatu gizartekoietan oinarritzekoak diren eskubideei buruzkoak dira. Halako eskubideak dira, besteak beste, ondokoak: osasunerako eskubidea, hezkuntza-eskubidea, familia babesteko eskubidea, adinekoen eskubideak, adingabeen eskubideak... Gainera, arazo bereziak sortzen dira, gizarteko biztanlerik ahulenean eskubide horiek erabili nahi dituztenean edo haiei eskubideok aplikatu behar zaizkienean.

Labur-labur bada ere, txosten horietako batzuk aztertuko ditut jarraian. Laburpen hau argigarri izan daiteke, euskal administrazioen gizarte-ekintzak zer-nolako erantzuna izan duen ulertzeko.

2.1. Hirugarren adina babestea. Adinekoen eskubideak

Tradizioaren arabera, hirugarren adinarentzako gizarte-zerbitzuen egoerari aurre egiteko, egoitzak sortu dira, eta adinekoak zentro horietan sartu dira. Alabaina, jakinekoea denez, biztanleria gero eta zaharragoa da eta, ahal den neurrian behintzat, adineko pertsonarentzat hobe da berezko ingurunean geratzea —bere familiarekin, bere etxean—. Hori dela eta, gizarte-baliabide berriak ezarri dira, hala nola, eguneko zentroak edota bizilekuan bertan emandako laguntza.

Adinekoen egoitzek duten egoerari dagokionez:

- Txostena egiteko unean —1994. urtean—, egiaztatu zen egoitzen eskaintza onargarria zela —65 urtetik gorako biztanleriaren % 3,34 plaza—, baina askieza. Nahitaezkoa da plazak gehitzea, adineko biztanleriaren % 5 izan arte. Defizit hori zuzentzea gizarte-politikaren lehenetarikoa helburua izan behar da. Eskaintza horren bitartez, plazak lortu behar dira, batez ere, elbarritasunen bat duten adinekoentzat.
- Txostenak erakutsi zuen egoitzetan sartzeko aukerak arautu behar zirela, betiere, berdintasun-printzipioa eta arrazionaltasuna kontuan hartuta.
- Txostenak azpimarratu zuen "gizarte-osasuneko espazioa" ez zela betetzen. Horregatik, txostenak erakunde-koordinazioa eskatu zien gizarte-ongizatearen arloan eskudun diren organoei. Era berean, beharrezkoa zen gizarte-ongizatearen arloa eta osasun-egiturak koordinatzea.
- Arauen esparruan, nahitaezkoa zen gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek zein eskubide duten jakitea; eta, horretarako, taula bat prestatu beharra zegoen. Era berean, gizarte-zerbitzuak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko eskubidea bermatu behar zen. Gainera, erabiltzaileen eginbeharrei buruzko taula finkatu behar zen, gainerako egoiliarren eskubideak bermatzeko.
- Orokorrean, eraikinen egoera onargarria zen. Zernahi gisaz, zenbait aldaketa egin behar ziren, besteak beste, kanpotik eraikinetara sartzeko (arrapalak, labainkaden kontrako lurrak), geletara eta komunetara sartzeko, alarma-sistemak jartzeko, geriatrikoetako bainugelak hobetzeko, suteen aurka babesa izateko... Urtero-urtero, bisitak egiten dira, hirugarren adinarentzako egoitza desberdinetara, horien egoera egiaztatzeko eta beharrezkoak diren hobekuntzak proposatzeko.

Adinekoei egoitzatik kanpo emandako laguntza —eguneko zentroak, bizilekuan bertan emandako laguntza— asko garatu da, azken urteotan. Hala eta guztiz ere, honako datu hauek egiaztatu dira:

- Egungo defizita konpondu behar da, bizilekuan emandako laguntza-zerbitzuari dagokionez, adineko biztanleriaren % 6 izan arte.
- Gaeuz eta asteburuetan, bizilekuan bertan egindako zerbitzuak garatu behar dira; izan ere, sasoi horietan, hainbat beharrian-egoera gertatzen dira, eta gehienak babesik gabe geratzen dira.

- Berezko sareari laguntzeko, konponbideak bilatu behar dira, konparazio baterako, “arnasa hartzeko laguntza” edo alde baterako egoitzan sartzea.

2.2. Osasunerako eskubidea. Buruko gaixotasuna dutenen eskubideak eta espetxeratuen eskubideak

Osasunerako eskubidea hausteak eta osasun-zerbitzuen erabiltzaile-kopurua ugaria izateak kexa anitz sorrarazten ditu, hainbat gairen inguruan. Halako gaiak izan daitezke, besteak beste, medikua aukeratzeko eskubidea, itzaroteko zerrendak, jasotako osasun-laguntzarekin ados ez egotea, gastua berreskuratzea etab.

Hala eta guztiz ere, hemen bi arazo bakarrik aztertuko ditut: batetik, buruko osasunaren inguruko azterketa laburra egingo dut, Euskadiri dagokionez; eta, bestetik, bertan espetxeratuek duten osasun-eskubidea azalduko dut.

Euskal Autonomia Erkidegoko **ospitale psikiatriko**etan egindako azterketari helduta, eta horren gainean geroago egindako jarraipena gogoan izanik, begi-bistan geratu da gure autonomia-erkidegoan laguntza psikiatrikoak hobekuntza handia izan duela. Zernahi gisaz, honako gomendio hauek egin dira:

- Ospitale batzuetan eta psikiatriko unitate batzuetan, berritatzeko lan arkitektonikoak egin behar dira eta, hala denean, hasitako lanak bukatu behar dira.
- Gaixo oligofreniko eta senilek arazo psikiatriko zehatzik ez badute, orduan despsikiatratu egin behar dira, eta beste leku batzuetan eman behar zaie ostatua, laguntza berezia jaso dezaten.
- Psikiatrikoetako gaixoei bertan denboraldi luzeak egin behar dituztenean, gaixo horiek populazio homogeneoetan birbanatu behar dira, sendatzeko zein beharizan duten kontuan hartuta; gaixo horiei, halaber, egitarau bereziak eskaini behar zaizkie.
- Baliabide erkideak sortu behar dira, besteak beste, babestutako pisuak edo “erdi bideko etxe” deiturikoak. Era berean, laguntzarako erkidego-zerbitzuak garatu behar dira.
- Tokikomanoen diagnostikoa bikoitza denean, gaixo horien tratamendurako, unitate bereziak sortu behar dira.

Behin ospitale psikiatrikoen egoera aztertu eta gero, nahitaezkoztat jo zen Euskal Autonomia Erkidegoan buruko gaixotasunari ematen zaion laguntza erkidea aztertzea. Horretarako txostena 2000. urtean egin zen. Arartekoaren ikusmiratik, gai batzuek garrantzi berezia dute eta, gure ustez, gai horietan, hobekuntza esanguratsuak egin behar dira. Gaiok, izatez, hurrengoak dira:

- Pertsona horien eskariak, euren dagozkien eskubideak eta eskubide horiek bermatzeko bideak, guztiak ere, egokitu behar dira.
Sarritan, ez dago behar besteko korrelaziorik edo egokitzapenik, pertsona horien beharizanen, eskubideen eta eskubide horiek praktikan bermatzeko beharrezkoak diren bideen artean.
- Erantzukizunak argitu edo zuritu behar dira, eta “gizarte-osasuneko gune” izenekoa garatu behar da. Gaixotasun kronikoen kasuan, arazoa ez da sendatzea, baizik eta zaintzea, autonomia sustatzea, kalteei begira aurreneurriak hartzea... Osasuneko beharizanak asebetze behar dira (osasun-laguntza, tratamendua, errehabilitazioa...), baina bestelakoak ere: ostatua, elikadura, kultur gaikuntza edo lanbide-gaikuntza, gizarteratzea...
- Laguntzarako sare eta zerbitzu desberdinak koordinatu behar dira.
Laguntza hobetzeko, beti ez dira baliabide berriak behar. Batzuetan, erantzunaren kalitatea hobetzeko, nahikoa da koordinazioa lortzea eta egungo baliabideak hobeto aprobetxatzea: baliabideok definitzea (argiago edo ilunago), baliabideak antolatzea (eragingarritasun handiagorekin edo txikiagoarekin), baliabideen inguruko abiapuntua, egitarauen egokitasuna, lankidetzarako mekanismoak...
- Bitarteko baliabideei dagokienez, ageriko hutsuneak atzeman dira.
Guztiok bat gatoz, bitarteko egituren beharizan eta erabilgarritasunari buruz. Horien artean aipa daitezke, konparazio baterako, ondokoak: eguneko ospitale edo zentroak, tailerrak, erkidego terapeutikoak, babestutako pisuak, lanbideetarako zentroak, klubak...
- Talde zehatz batzuek zailtasun bereziak dituzte eta, horregatik, euren gain arreta handiagoa jarri behar da.
Ildo horretatik, kontuan hartzekoak dira hurrengo datuak:
 - Zenbait baliabide erabiltzen dira, erabili ere, haur eta nerabeei laguntza psikiatriko berezia emateko. Baina agerian dago baliabide horiek urriak direla (bitarteko azpiegituren kasuan, ez dago halako azpiegiturarik).

- Autismoa dutenentzat, beharrezkoak dira, bestak beste, laguntza goiztiarreko egitarauak, eguneko zentroak, lanbideetarako egitarauak, krisialdietarako laguntza-unitateak, arnasa hartzeko egitarauak... Dena den, egoera hori, zati batez behintzat, konpondu egin da, arazoa duten familiek eurek elkarrekin eratu dituztelako eta, elkarre horien bidez, berezko baliabideen sarea sortu delako.
- Beharizan "berriak" gero eta gehiago dira, eta eurei emandako erantzuna askieza da. Hori gertatzen da, esate baterako, elikadura-arazoekin (anorexia eta bulimiarekin, hain zuzen).
- Berezko sareari laguntza eman behar zaio.
- Buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonetatik, gehienak euren familiekin bizi dira. Izan ere, elkarrizketa izan zuten pertsonen artean, euren familiekin bizi zen % 80. Beste batzuk, berriz, bakarrik bizi dira edo ostatuetan.
- Eskainitako zerbitzuak kontrolatzeko orduan, eta zerbitzu horien kalitatea ebaluatzeko orduan, eragozpenak aurkitu dira.
- Ez du ematen oraindik zerbitzuen ebaluazio kualitatibo eta sistematikorik egin denik.
- Lan egin behar da gogor, gizarte-sentsibilizazioa lortzeko eta pertsona horien gizarte-integrazioa hobetzeko.
- Gaur egun, oraindik, gure artean buruko gaixotasuna dutenek halako estigma bat dute eta, sarri askotan, euren familiei ere horixe gertatzen zaie; ondorenez, batzuk eta besteak baztertu egiten dira, eta euren aurkako bereizkeria burutzen da. Komunikabideek albiste zehatz batzuei ematen dieten tratamendu sentsazionalistaren ondorioz, askotan areagotu egiten da estigma hori.
- Egoera jakin batzuen arauketa juridikoa hobetu beharra dago.
- Halako egoerak dira, hala nola, ezgaitza-prozesuak, argibideak lortu eta gero emandako adostasuna, borondatearen aurkako barnerapen psikiatrikoa, egozgarritasun penala...

Espetxeen gaineko txostenaz denaz bezainbatean, hemen interesgarri iruditu zaigu **espetxeratuak duten osasun-eskubidea** aipatzea. Azterketa horretatik, ondorio hauek atera daitezke:

- Espetxeetan, droga kontsumitzen da, eta arrisku handia dago, kontsumo horrekin zerkusia duten gaixotasunetatik batzuk —adibidez, ihesa— transmiti daitezke. Egoera horiei aurre egiteko, egitarau bereziak abian jarri behar dira, edo egungoak zabaldu behar dira, hala egitarau terapeutikoak, nola arriskuak txikitzeko egitarauak: tratamendu alternatiboak egitea; metadona banatzea; xiringak elkarrekin trukatea; osasunerako eta aurreneurrietarako hezkuntza ematea; baldintzapeko askatasuna aplikatzea, pairamen sendaezinak dituzten gaixoei...
- Zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa eta errentagarritasuna hobetu behar da (zerbitzuok espetxe barrukoak izan zein espetxetik kanpokoak izan), baldin eta zerbitzu horiek parte hartzen badute, espetxeratuaren osasun-beharrizanei aurre egiteko.
- Gomendio horretan ez genuen eztabaidatu —nahiz eta ezinbesteko eztabaida izan— zein den osasun-laguntzarako eredurik egokiena, espetxeratuentzat. Hala ere, gomendio horretan, gutxieneko arazo gisa, hurrengoak azpimarratu genuen: zerbitzu horien guztien arteko koordinazioa hobetu behar da eta, horretarako, administrazio arduradunak ados jarri behar dira.
- Espetxeetan bertan dauden osasun-zerbitzuak asko hobetu behar dira.
- Komeni da espetxeratuari lehen mailako laguntza eta laguntza arrunta ematea, espetxean bertan. Ikuspuntu horretatik, nahitaezkoa da txosten horretan behin eta berriz aipatutako hutsune batzuk gaitzitea:
 - erizaindegien kokalekua, plaza-kopurua eta baldintzak;
 - profesionalen plantilak egokitzea, horiei egonkortasuna ematea eta euren dedikazioa finkatzea;
 - kontsultetarako sistema eta egitaraupeko laguntza zehaztea;
 - historia klinikoak eta banakako jarraipenak informatizatzea...
- Zentroetako osasun-langileen lanbide-egoera hobetu behar da.
- Arreta berezia jarri behar da, eta beharrezkoak diren baliabideak erabili behar dira, arazo psikologikoak dituzten espetxeratuentzat eta pairamen sendaezinak dituzten gaixoentzat.
- Zentroetako garbitasun-baldintzak eta osasun-baldintzak gehiago kontrolatu behar dira.

2.3. Adingabeak babestea. Arreta berezia jartzea, egoerarik kaltegarrienean dauden adingabeengan

Arartekoaren erakundeak arreta berezia jarri du, adingabeen gain eta eurek osatzen duten talde horretan. Arartekoak zenbait kexa ebatzi ditu, ofizioz jarduna burutu du eta, orobat, gomendio orokorrak egin

ditu. Horrez gain, erakunde honek hiru txosten monografiko prestatu ditu:

- *Babesik ez duten haurrei eta nerabeei emandako laguntza.*
- *Adingabe urratzaileekin izandako esku-hartzea.*
- Hezkuntzako beharrian bereziei emandako erantzuna, EAE-n.

Babesik ez duten haurrei eta nerabeei emandako laguntzari dagokionez, txostenak oinarritzko bi arazo hauek aztertu zituen: alde batetik, arrisku-egoerak eta babesgabezia-egoerak atzemateko erabilitako prozedurak, eta kasuan-kasuan egoki izan daitezkeen erantzunak; eta, beste alde batetik, adingabe horientzako harrera-zentroetan egindako egoitza-zerbitzuak.

Labur-labur bada ere, gure aburuz, oso garrantzitsuak dira hurrengo arazoak:

- Euskal Autonomia Erkidego osoarentzat baliozko eta erkide den arautegia onetsi behar da. Arautegi horrek jorratu behar ditu babesik gabeko adingabeei laguntzeko beharrezkoak diren arazo guztiak. Horrela, arautegi horrek adingabeen oinarritzko eskubideak bermatuko ditu.
- Adingabeen arazoei erantzun anitz eta desberdinak eman behar zaizkie, hori beharrezkoa da eta. Bistan denez, pertsona bakoitzak eta testuinguru bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Hori dela eta, egoera bakoitzari emandako erantzuna banakakoa izan behar da. Horretarako, zerbitzuen aniztasuna bermatu beharra dago, eta zerbitzu horiek guztiak elkarren osagarri izan behar dira.
- Babesgabezia-egoera atzemateko mekanismoak asko hobetu behar dira. Horretarako, alde jakin batzuk sakondu behar dira, besteak beste, hurrengoak:
 - Oinarritzko laguntza-zerbitzuak eta zerbitzu espezializatuak koordinatu behar dira; eta, erabakiak hartzeko orduan, azkar jokatu behar da.
 - Familiaren testuinguruaz gain, beste testuinguru batzuk ere aintzakotzat hartu behar dira.
 - Beste gizarte-agente batzuek ere (hezkuntzakoek, osasun arlokoek, ofizialek, epaitegietakoek...) zuzeneko harremanak dituzte, adingabeekin eta euren familiekin, eta, horregatik, agente horiek parte-hartze handiagoa izan behar dute.
- Oinarritzko gizarte-langileek laguntza ematen dute, erkidegoaren esparruan, eta hezitzaileek, aldiz, egoitzetan lan egiten dute. Behin adingabea zentroan sartzeko erabakia hartu eta gero, gizarte-langileen eta hezitzaileen artean, harreman-eredu desberdinak ezarri behar dira; eta, egungo eredueta hutsune larriak atzeman direnez gero, horiek konpondu behar dira.
- Sarritan, pertsona horiei laguntza eman behar zaie, baita adin nagusitasunera heldu eta gero ere; hau da, 18 urte bete eta gero ere.
- Erakunde arduradunek zerbitzuen inguruko ebaluazio kualitatiboa egin behar dute; eta, horrekin batera, kontrol-mekanismo sistematikoak ezarri behar dituzte, forma hutsa gainditzeko eta laguntzarako egiazko gida-lerroak egiaztatzeko.

* * *

Adingabe urratzaileei emandako laguntzari dagokionez, eta euren eskubideak bermatzeko helburuarekin, bereziki azpimarratu behar dira ondoko datuak:

- Legean ezarritako neurrietatik batzuk oso gutxi erabiltzen dira, nahiz eta oso eragingarriak izan, hezkuntzako helburuak eta gizarteratzeko helburuak lortzeko. Neurri horien artean, besteak beste, hurrengoak sartzen dira: bitartekaritza; ohararazpena; asteburuetak barnerapena; zaindutako askatasuna; beste pertsona batek edo beste familia batek harrera egitea; erkidegoarentzako zerbitzuak egitea; tratamendu ambulatorioa...
- Askotan, denbora gehiegi igarotzen da, egitateak burutu direnetik neurriak betearazi arte. Denbora hori ahalik eta gehien laburtuz gero, adingabeak errazago elkartuko ditu bi elementu horiek, bere jarduna gizartearen erantzunarekin lotuko du, eta jardun horren gainerako erantzukizuna bereganatuko du.
- Sistema arruntek parte-hartze txikia izaten dute, adingabeen arazoei erantzuna emateko orduan. Argi dago zerbitzu desberdinek (hezkuntzakoek, osasun arlokoek, gizartekoek, poliziakoek...) aurreneurri-lan garrantzitsua egin dezaketela, adingabeei begira, bai delitu-egintza gertatu aurretik, bai neurriak betearazi aurretik edo gero ere. Baina, nabari denez, sare arrunten parte-hartzeak abantaila izugarriak ditu, baita neurriak betearazten diren bitartean ere.
- Pertsona horien eskubideak bermatzeko orduan, hutsuneak igarri dira. Esate baterako,
 - poliziaren dependentzietan dauden bitartean, baldintzak ez dira egokiak izaten.

- Adingabeei ez zaie argibiderik ematen eta, argibideak ematekotan ere, hizkera ulertezina erabiltzen da.
- Prozeduretan, abokatuaren zeregina anbigua izaten da.
- Autoebaluazioa alde batera utzita, ez dago zerbitzuak kontrolatzeko eta ebaluatzeko sistemarik.
- Kexak edo erreklamazioak egiteko, badira mekanismo batzuk; baina mekanismo horiek ere hutsuneak dituzte.
- Eusteko moduluak erabil daitezke, asko jota, 15 egunetan...

* * *

Zentzuzkoa denez, hezkuntza-eskubideari babesba zor zaio. Babes hori dela eta ez dela, erakunde honek zenbait esku-hartze burutu behar izan ditu, gai oso desberdinetan. Hemen beren beregi aipatu nahi dut **hezkuntzako beharrizan bereziei emandako erantzuna, EAE-n.**

Lehenago esan bezala, bermearren ikusmiratik heltzen diegu beharrizan horiei. Ikusmira horretatik, hurrengo datuak nabarmendu behar dira:

- Jakina denez, integrazioa eta normalizazioa dira hezkuntzako beharrizan bereziei erantzuna emateko printzipio nagusiak. Bide horretan emandako pausoak eta lortutako aurrerapenak anitz izan dira, baina aztertutako errealitateak erakusten du integrazio eta normalizazio horiek, egitez, ez direla beti erdietsi.
- Gizartearen laguntzarik ez izateari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen.
- Ezaguna denez, gizartearen laguntzarik ez izatea, bereziki, gune eta zentro jakin batzuetan gertatzen da, horietan kontzentratuta egoten baita gabezia hori. Horregatik, halako egoerei lehenatasuneko eta konpentsaziozko laguntza eman behar zaie. Bildutako datuek ez dute erakusten lehenatasuneko laguntza hori gertatzen denik.
- Hezkuntzako beharrizan bereziei aurre egiteko orduan, desberdintasun ugari atzeman dira, eskolako sareen artean.

Hezkuntzako beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeari buruz, zenbait datu bildu dira. Eskolatzeko datu horiek eta emaitzen datuak edo, hobeto esanda, eskolako kalifikazioen datuak, aintzakotzat hartuta, errealitate oso kezagarria nabari daiteke: halako ikasleak ez dira ekitatez banatzen, zentro eta sare desberdinetan; joera da halako beharrizanak dituzten ikasleak, proportzio handi batean, zentro zehatz batzuetan kontzentratzea eta, bereziki, gune edota hizkuntz eredu jakin batzuetako zentro publikoetan kontzentratzea. Banaketa desberdin hori nabari daiteke, halaber, zentro batzuetako eta besteetako ikasleek lortzen dituzten eskola-kalifikazioetan ere. Arriskua da, ondorenez, zenbait zentro guetto bihurtzea, eta, horrela, edozein integrazio ezinezkoa izatea...

- Ikastetxe batzuek ez dute gaitasunik, erantzun egokia emateko; eta, zentro horietan, eskolako emaitzak ez dira oso onak izaten.

Gorago esan dugun bezala, askotan, zentro jakin batzuetan kontzentratzen dira laguntzarik ez izatearen ondoriozko egoerak eta, orokorrean, hezkuntzako beharrizan bereziak.

- Hezkuntzako erkidegoak parte-hartze aktiboa izan behar du, hezkuntzako beharrizan berezietan; baina, parte-hartze hori lortzeko, hainbat zailtasun izaten dira.

Hezkuntzako beharrizan bereziei aurre egiteko, maiz-sarri, baliabide bereziak behar dira, eta zentro arruntek halako baliabideak eskuratu behar dituzte. Egitez, azken urteotan, baliabide berriak sortu dira, eta profesional berriak barneratu izan dira hezkuntzako sistemetan, bai laguntzarako zerbitzuetan, bai ikastetxeetan beraietan, bai zerbitzu ibiltari gisa: itsuentzako baliabide-zentroetako irakasleak; profesional anitzeko guneko taldeak; irakasle-aholkulariak; orientatzaileak; lanbideak irakasteko profesionalak; pedagogia terapeutikoko irakasleak; logopedak; laguntzaileak; fisioterapeutak...

Nolanahi den ere, zailtasun asko daude, hezkuntza-erkidegoko kide guztiak hezkuntzako beharrizan bereziei aurre egin diezaieten, euren arazoa izango balitz bezala, ez, ordea, langile berezi edo espezializatuen arazoa izango balitz bezala.

- Bigarren Hezkuntzan, arreta berezia jarri behar da, aniztasun eta hezkuntzako beharrizan berezietan ere; eta, horretarako, planteamendu berezia izan behar da.
- Hezkuntzako beharrizan bereziei begira, hutsuneak atzeman dira, aurreneurriak hartzeko orduan eta laguntza azkarra emateko orduan.
- Zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa lortu behar da, eta hezkuntzako sistemaren eta familia nahiz elkartearen artean, harreman-sare egokia ezarri behar da.


LABURBILDUTA

Erakundeen zeregina eskubideak babestea denean, erakunde horiek eginkizun garrantzitsua bete behar dute, gizarte-eskubideak eta kultur eskubideak babesteko orduan ere. Eremu bakoitzaren barruan, eta gure herriek dituzten beharrian bereziak aintzakotzat hartuta, gure zeregina izan behar da eskubide horiek egiazkoak eta eragingarriak izan daitezen zaintzea. Eskubideon ezarpena arestikoa denean, guk eragin behar dugu gure botere publikoen jarduna, alegia, jardun horren dinamizatzaile izan behar gara. Azken finean, guztiontzat bizitza duina bermatu behar da.

III. ERANSKINA


GRAFIKOAK

ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2001ean BUKATUTAKO KEXETAN




1. DIAGRAMA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



2. DIAGRAMA


ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2001)



- 1 545 kexek kexa berdín-berdinen multzo bat osatzen dute.
- 2 1.143 kexek kexa berdín-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.
- 3 62 kexek kexa berdín-berdinen multzo bat osatzen dute.
- 4 264 kexek kexa berdín-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.


3. DIAGRAMA

2001ean JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




4. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




5. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




6. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




7. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




8. DIAGRAMA

FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




9. DIAGRAMA

UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA



10. DIAGRAMA


LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2001)



	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
BIZKAIA	288	828	293	332	376	349	528	746	915	1.471	649	645	651
GIPUZKOA	188	195	244	241	250	234	281	448	663	905	372	295	375
ARABA	97	125	158	201	182	160	328	446	371	244	237	256	444


11. DIAGRAMA

LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2000)




12. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMATZAILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




13. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




14. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




15. DIAGRAMA

2001ean ARRETA ZUZENENKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA

BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA




18. DIAGRAMA

KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



19. DIAGRAMA


ARRETA ZUZENeko HIRU BULEGOETARA JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA



20. DIAGRAMA


OFIZIOZKO JARDUERAK (2001)

BANAKETA ALORREZ ALOR



21. DIAGRAMA



ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



22. DIAGRAMA



ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?



23. DIAGRAMA



2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?



24. DIAGRAMA



ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?



25. DIAGRAMA


4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:




26. DIAGRAMA

ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)




2001




2000

27. DIAGRAMA

6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?



2001




2000

28. DIAGRAMA


**ARAZOA “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da”
DIOTEN ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ
EGIN DUTEN BALORAZIOA**

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?
(Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**



29. DIAGRAMA

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana
jotzeko aholkatuko zenioke?**



30. DIAGRAMA

GAIEN AURKIBIDEA

A**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**

Administrazioaren isiltasuna, 255

Bidegabeko atzerapenak, 255

Erantzukizun zibila, 254

Lankidetzarik eza, 252

Adierazpen-askatasunerako eskubidea

Adin txikikoak, 188

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak

Erakundeen arteko gizarteratze plana, 191

Hezkuntzako beharrian bereziak, 191

Adin txikiko lege hausleak, 87, 321, 491

Giza eskubideak, 139

Tratu txarrak, 253

Adin txikikoak, 57, 319

Atzerritarrak, 320, 491

Datu pertsonalen babesa

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 483

Familia, 321

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 323

Gizarte komunikabideak, 323

Gizarte sentsibilizazioa, 323

Gizarte taldeak, 323

Gizarte zerbitzuak, 57

Hezkuntzako beharrian bereziak, 109, 177, 322, 328

Hezkuntzaren programazio orokorra, 176

Haur hezkuntza, 324

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 406

Irakastegiak, 188

Kirolak, 169, 325

Kooperazio printzipioa, 322

Koordinazio printzipioa, 322

Laguntza psikiatrikoa, 321

Legegintzaren beharra, 57, 324

Matrikulazio kanpaina, 483

Nazioarteko haur ebastea, 317

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 178

Sasoikako langileak, 321

Tutoretza, 161

Adinekoak, 494

Berdintasun printzipioa, 318

Berdintasunerako eskubidea, 318

Egoitza zentroak, 48, 54, 161, 167, 318

Nahi den medikua hautatzea, 318

Telealarma, 164

Adinekoen eskubideak, 48, 318, 494**Adin-muga**

Funtzio publikoa, 442

- Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 201
- Administrazio publikoa**
 - Emakumeak, 306
- Administrazioaren aukeramena**
 - Hiri plangintza, 291, 292
- Administrazioaren isiltasuna**
 - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 255
 - Kultur ondarea, 174
- Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak**
 - Kooperazio printzipioa
 - Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191
 - Adin txikikoak, 322
 - Haur hezkuntza, 176
 - Hezkuntzako beharrian bereziak, 177
 - Koordinazio printzipioa
 - Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191
 - Adin txikikoak, 322
 - Haur hezkuntza, 176
 - Hezkuntzako beharrian bereziak, 177
- Administrazio-erregistroak**
 - Jatorri-izena, 154, 155
- Administrazio-errekurtsoak**
 - Jatorri-izena, 154, 156
- Administrazio-hitzarmenak, 418**
 - Telefonia mugikorra, 171, 418
- Agintaritzari ez obeditzea**
 - Polizia, 231, 238, 326
- Alardea**
 - Emakumeak, 313
- Aldi baterako kontratazioa**
 - Osasun alorreko funtzio publikoa, 199
 - Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 201
- Aldizkari ofizialak**
 - Arauen publizitateko printzipioa, 407
- Alkatetza dekretuak**
 - Nudismoa, 233, 418
- Amatasuna**
 - Emakume espetxeratuak, 249, 314, 499
 - Emakumeak, 249, 314, 499
 - Funtzio publiko orokorra
 - Sarrera, 196, 217
 - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
 - Ordezkapenak, 199, 208, 412
- Animalien babesa**
 - Ohiturazko ikuskizunak, 236, 407
- Anorexia eta bulimiaren tratamendua, 276**
- Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**
 - Arauen hierarkiaren printzipioa
 - TAO, 241, 415
 - Berdintasun printzipioa, 480
 - Adinekoak, 318
 - Emakumeak, 306, 312, 313, 315, 480
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 328, 415
 - Legezketasun printzipioa
 - Alkatetza dekretuak, 233, 418
 - Prozedura zigortzailea, 245, 414
 - TAO, 241, 415
 - Udal ordenantzak, 466

Zehapenak, 245, 414
Zehatzeko ahalmena, 466

Aparkaldia

Seinaleztapena, 243
Zehapenak, 243

Arartekoa

Gizarte eskubideak, 505

Arauen publizitateko printzipioa

Aldizkari ofizialak., 407

Arkitektura oztopoak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 161
Babes ofizialeko etxebizitzak, 406

Arreta-printzipioa

Telefonia mugikorra, 261, 449

Askatasun ideologikorako eskubidea

Adin txikikoak, 188

Atmosferako kutsadura

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 492

Atxiloketak, 483

Biluzteak, 483
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 408, 482
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 408, 482
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 408, 483
Polizia, 232

Atxilotuak

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 408, 482
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 408, 482
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 408
Polizia, 232

Atzerritarrak, 136, 231

Adin txikikoak, 320, 491
Autonomia erkidegoetako ombudsmanak, 148, 327
Berdintasun printzipioa, 480
Erakundeen adierazpenak, 148, 327
Erakundeen arteko gizarteratze plana, 327, 423
Espetxeratuak, 250
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 325
Gidatzeko baimena, 326
Gizarte taldeekiko harremanak, 126
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
Kiolak, 169, 325
Polizia, 100, 231, 326
Sasoikako langileak, 327

Aukeraketa organoak

Diskreziionalitate teknikoa, 194
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 200

Aurrearretazko espetxeratzea

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 250

Autonomia erkidegoetako ombudsmanak

Atzerritarrak, 148, 327

Auzibideratzea

Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 254
Bidegabeko atzerapenak, 252
Emakumeak, 317
Frogabideak, 252
Genero-indarkeria, 254

Azterketak

Funtzio publiko orokorra, 194

B**Babes bereziko taldeak, 461**

- Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak
 - Erakundeen arteko gizarteratze plana, 191
 - Hezkuntzako beharrian bereziak, 191
- Adin txikiko lege hausleak, 87, 321, 491
 - Giza eskubideak, 139
 - Tratu txarrak, 253
- Adin txikikoak, 57, 319, 491
 - Atzerritarrak, 320, 491
 - Burutik gaixo daudenak, 491
 - Datu pertsonalen babesa, 483
 - Familia, 321
 - Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 323
 - Gizarte komunikabideak, 323
 - Gizarte sentsibilizazioa, 323
 - Gizarte taldeak, 323
 - Gizarte zerbitzuak, 57
 - Hezkuntzako beharrian bereziak, 109, 177, 322, 328
 - Hezkuntzaren programazio orokorra, 176, 324
 - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 324, 406
 - Kirolak, 169, 325, 436
 - Kooperazio printzipioa, 322
 - Koordinazio printzipioa, 322
 - Laguntza psikiatrikoa, 321
 - Legegintzaren beharra, 57, 324
 - Lehen hezkuntza, 180
 - Matrikulazio kanpaina, 483
 - Nazioarteko haur ebastea, 317
 - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 178
 - Oinarrizko eskubideak, 188
 - Sasoikako langileak, 321
 - Tutoretza, 161
- Adinekoak
 - Egoitza zentroak, 48, 54, 161, 167, 318
 - Nahi den medikua hautatzea, 318
 - Telealarma, 164
- Atzerritarrak, 136, 231
 - Adin txikikoak, 320
 - Autonomia erkidegoetako ombudsmanak, 148, 327
 - Berdintasun printzipioa, 480
 - Berdintasunerako eskubidea, 480
 - Erakundeen adierazpenak, 148, 327
 - Erakundeen arteko gizarteratze plana, 327, 423
 - Espetxeratuak, 250
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 325
 - Gidatzeko baimena, 326
 - Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
 - Kirolak, 169, 325, 326
 - Polizia, 100, 326
 - Sasoikako langileak, 327
- Burutik gaixo daudenak, 104, 161
 - Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 - Osasun prestazioak, 276
- Drogaren menpekoak
 - Gaueko arreta zerbitzuak, 162, 409
- Elikadura asaldurak dituzten gaixoak
 - Osasun prestazioak, 276

- Emakume atzerritarrak
 - Emakume espetxeratuak, 250
- Emakume espetxeratuak
 - Amatasuna, 249, 314, 486, 499
 - Emakumeak, 249, 250, 314, 499
 - Espetxeak, 314, 499
- Emakumeak
 - Adin txikikoak, 317
 - Administrazio publikoa, 306
 - Alardea, 313
 - Amatasuna, 196, 199, 208, 217, 249, 314, 412, 499
 - Auzibideratzea, 317
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 297
 - Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 254
 - Berdintasun printzipioa, 199, 208, 315, 316, 412
 - Berdintasunerako eskubidea, 306, 480
 - Edoskitze baimenak, 199
 - Emakume espetxeratuak, 249, 250, 314, 499
 - Funtzio publikoa, 309
 - Genero-ikuspegia, 307
 - Genero-indarkeria, 125, 254, 310, 481
 - Gizarte zerbitzuak, 309
 - Guraso bakarreko familiak, 297, 316
 - Harrera zentroak, 314
 - Herri lanak eta zerbitzuak, 310
 - Hezkuntza, 310
 - Hizkera sexista, 307
 - Ingurumena, 310
 - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
 - Irisgarritasuna, 317
 - Kexak, 308
 - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 199, 208, 315, 412, 480
 - Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 416
 - Osasuna, 309
 - Oztopoak garraioan, 268, 329
 - Sexu eta ugal eskubideak, 316
 - Umeak izateko tratamendua, 316
 - Unibertsitateko hezkuntza, 312
- Espetxeratuak
 - Artapen psikiatrikoa, 251
 - Atzerritarrak, 250
 - Aurrearretazko espetxeratzea, 250
 - Baldintzapeko askatasuna, 249
 - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 250, 486
 - Erkidegoarentzat lan egitea, 486
 - Espetxeak, 25
 - Espetxeratzearen ordezkio neurriak, 486
 - Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 482
 - Osasun artapena, 250
 - Tratu txarrak, 249
 - Zigorra betetzea, 254
 - Zigorra non bete, 248
 - Zigorraren likidazioa, 249
- Etixerik gabeko pertsonak
 - Harrera zentroak, 418, 161, 165
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 494
 - Arkitektura oztopoak, 161, 329, 332

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 295, 300, 330, 406
- Ezgaitasun-gradua, 165
- Gizarte taldeekiko harremanak, 126
- Hezkuntzako beharrian bereziak, 328
- Hirigintza oztopoak, 329
- Oztopoak garraioan, 268, 269, 329
- TAO, 241, 329, 415, 416
- TMIZ, 219, 329
- Familia, 490
- Familia ugariak
 - Garraioa, 268
 - Matrikulazio zerga, 218
 - Unibertsitateko hezkuntza, 490
- Gazteak
 - Burutik gaixo daudenak, 491
 - Kultur kanpainak, 171
- Gizarte taldeekiko harremanak, 126
- Guraso bakarreko familiak
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 297
 - Emakumeak, 316
 - Prezio publikoak, 418, 488
 - Udal prezio publikoak, 488
- HIESa duten gaixoak, 162
- Ijitoak
 - Txabolismoa, 166
- Sasoikako langileak, 43, 327
 - Adin txikikoak, 321
 - Gizarte taldeekiko harremanak, 126
- Terrorismoaren biktimak
 - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
- Txiroak
 - Oinarrizko errenta, 136, 168
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 288, 298**
 - Arkitektura oztopoak, 406
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 406
 - Erreserbak egiteko irizpideak, 296, 493
 - Esleipenerako irizpideak, 419
 - Guraso bakarreko familiak, 297
- Badaezpadako neurriak**
 - Ibilgailuak erretiratzea, 244, 246, 409
 - TAO, 246
- Baimenak, 411**
 - Ostalaritza establezimenduak, 261
 - Telefonia mugikorra, 261, 449
- Bakezaleak**
 - Gizarte taldeekiko harremanak, 126
- Baldintzapeko askatasuna**
 - Zigorak metatzea, 249
- Banantze eta dibortzioetarako prozedura**
 - Auzibideratzea, 254
- Bekak**
 - Diru-sarrerak eta errentak egiaztatzea, 178, 486
 - Giza eskubideak, 136
 - Unibertsitateko hezkuntza, 406
- Berandutzagatiko interesak, 488**
- Berdintasun printzipioa, 480**
 - Atzerritarrak, 480
 - Emakumeak, 306, 312, 480

Lanbidea eta familiako bizi-tza uztartzea, 199, 208, 315, 412

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

TAO, 241, 415

Lanbidea eta familiako bizi-tza uztartzea, 480

Berdintasunerako eskubidea, 480

Atzeritarrak, 480

Emakumeak, 306, 312, 313, 480

Lanbidea eta familiako bizi-tza uztartzea, 315, 480

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

TAO, 241, 415

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea

Bitarteko funtzionarioak diren emakumezko irakasleak

Amatasuna, 199, 208, 412

Funtzio publiko orokorra, 196

Amatasuna, 196, 217

Azterketak, 194, 195, 216

Enplegu eskaintza publikoa, 484

Hornikuntza, 414, 484

Sarrera, 484

Titulazioak, 197

Funtzio publikoa, 442, 484

Funtzionarioak

Egindako zerbitzuak, 193, 195, 210, 412, 413, 414

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Aukeraketa organoak, 200

Unibertsitateko katedra, 200

Polizien alorreko funtzio publikoa, 201, 418

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 254

Espetxeratuak, 248, 250, 486

Bidegabeko atzerapenak

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 255

Auzibide zibila, 256

Doako laguntza juridikoa, 256

Biluzteak

Atxiloketak, 483

Birgaikuntza

Hirigintza kudeaketa, 299

Bitartekaritza

Hezkuntza, 181, 184

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 136

Kontserbatorioak, 181

Musika-irakastegiak, 184

Musikaren irakaskuntza, 181, 184

Bitarteko funtzionarioak

Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 416

Osasun alorreko funtzio publikoa, 197

Bitarteko funtzionarioak diren emakumezko irakasleak

Edoskitze baimenak, 199

Ordezkapenak

Amatasuna, 199, 208, 412

Bizikletak

Hiriko trafikoaren antolamendua, 417

Burutik gaixo daudenak, 104, 161, 276

Adin txikikoak, 491

Gazteak, 491

Gazte taldeekiko harremanak, 126

D**Datu pertsonalen babesa**

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 483

Delituen biktimak

Kaltea konpontzea, 255

Delituen biktimen eskubideak

Kaltea konpontzea, 255

Destinoen trukaketak, 197, 201, 413**Diru-sarrerak eta errentak egiaztatzea**

Bekak, 178

Diskrezionalitate teknikoa

Funtzio publiko orokorra, 195

Aukeraketa organoak, 194

Diskriminatua ez izateko eskubidea

Elkarteko herritarren eskubideak, 142

Doako laguntza juridikoa

Bidegabeko atzerapenak, 256

Doktorego-egitarauak, 179**Drogaren menpekoak**

Gaueko arreta zerbitzuak, 409, 162

E**Ebazpena emateko betebeharra**

Ondare erantzukizuna, 410

Edoskitze baimenak

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Ordezkapenak, 199

Egoitza zentroak, 162

Adinekoak, 48, 54, 161, 167, 318

HIESa duten gaixoak, 162

Itxaron zerrendak, 167

Laguntza prestazioak, 167

Ehiza-barrutiak, 155**EIOZ**

Zerga egitatea

Preskripzioa, 227

Elikadura asaldurak dituzten gaixoak, 276**Elkarteko herritarren eskubideak**

Diskriminatua ez izateko eskubidea, 142

Emakume atzerritarrak

Emakume espetxeratuak, 250

Emakume espetxeratuak

Amatasuna, 249, 314, 486, 499

Emakume atzerritarrak, 250

Emakumeak, 249, 250, 314, 499

Espetxeak, 249, 314, 499

Emakumeak, 268, 329

Adin txikikoak

Nazioarteko haur ebastea, 317

Administrazio publikoa, 306

Alardea, 313

Amatasuna, 249, 314, 499

Funtzio publiko orokorra, 196, 217

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 199, 208, 412

Auzibideratzea, 317

Babes ofizialeko etxebizitzak, 297, 316

Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 254

Berdintasun printzipioa, 306, 312, 480

Berdintasunerako eskubidea, 306, 313

- Bitarteko funtzionarioak, 416
- Edoskitze baimenak
 - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 199
- Emakume espetxeratuak, 249, 250, 314, 499
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 297
- Funtzio publikoa, 309
- Genero-ikuspegia, 307
- Genero-indarkeria, 125, 254, 310, 481
- Gizarte zerbitzuak, 309
- Guraso bakarreko familiak, 297
- Harrera zentroak, 314
- Herri lanak eta zerbitzuak, 310
- Hezkuntza, 310
- Hizkera sexista, 307
- Ingurumena, 310
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
- Irigarritasuna, 317
- Kexak, 308
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 480
- Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 416
- Osasuna, 309
- Oztopoak garraioan, 268, 329
- Sexu eta ugal eskubideak, 316
- Umeak izateko tratamendua, 316
- Unibertsitateko hezkuntza, 312
- Enplegu eskaintza publikoa**
 - Funtzio publiko orokorra, 193, 194, 195, 196, 412, 413, 414
 - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 199
- Enpleguaren sustapena**
 - Funtzio publiko orokorra, 197
- Entzunaldi eskubidea**
 - Lehen hezkuntza, 180
- Eraikinen segurtasuna**
 - Hirigintza arauak betearaztea, 293
 - Hirigintzako diziplina, 417
- Erakundeen arteko gizarteratze plana**
 - Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191
 - Atzeritarrak, 327, 423
- Erkidegoaren antolamenduaren printzipioak**
 - Arreta-printzipioa
 - Telefonia mugikorra, 449
- Erkidegoarentzat lan egitea**
 - Espetxeratuak, 486
- Errolda, 232**
- Errugabe joa izateko eskubidea**
 - Prozedura zigortzailea, 270
- Eskola garraioa**
 - Hezkuntza eskubidea, 486
- Eskolako materiala**
 - Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 137
- Eskolatik kanpoko jarduerak, 178, 190**
- Eskumenen banaketa**
 - Gizarte zerbitzuak, 48, 54, 161
- Espedientea ikusteko eskubidea, 410, 412**
 - Kultur ondarea, 174
- Espetxeak**
 - Artapen psikiatrikoa, 250
 - Atzeritarrak, 250

Aurrearretazko espetxeratzea, 250
 Baldintzapeko askatasuna, 249
 Berriro gizarteratzeko eskubidea, 250, 486
 Emakume espetxeratuak, 249, 314, 499
 Espetxeratuak, 25
 Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 Gorputz araketak, 250
 Osasun artapena, 250
 Pertsonak miatzea, 250
 Tratu txarrak, 249
 Zigorren likidazioa, 249

Espetxeratuak

Artapen psikiatrikoa, 251
 Atzerritarrak, 250
 Aurrearretazko espetxeratzea, 250
 Baldintzapeko askatasuna, 249
 Berriro gizarteratzeko eskubidea, 250, 486
 Erkidegoarentzat lan egitea, 486
 Espetxeak, 25
 Espetxeratzearen ordezeko neurriak, 486
 Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 482
 Osasun artapena, 250
 Pertsonak miatzea, 250
 Tratu txarrak, 249
 Zigorra non bete, 248
 Zigorren likidazioa, 249

Espetxeratzearen ordezeko neurriak

Espetxeratuak, 486

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 493

Atzerritarrak, 325
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 296, 298, 419, 493
 Birgaikuntza, 299
 Emakumeak, 297
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 295, 300, 330
 Ijitoak, 166

Etixerik gabeko pertsonak

Harrera zentroak, 418, 161, 165

Europako Erkidegoko antolamenduaren printzipioak

Arreta-printzipioa
 Telefonia mugikorra, 261

Europako erregioetako ombudsmanak

Diskriminatua ez izateko eskubidea, 142

Euskara eta gizarte-komunikabideak, 170

Euskara eta herri administrazioa, 170

Hizkuntzaren normalizazioa, 169

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 494

Arkitektura oztopoak, 161, 329, 330
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 406
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 295, 300, 330
 Berdintasun printzipioa, 241, 328, 415
 Berdintasunerako eskubidea, 241, 328, 415
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 295, 300, 330
 Ezgaitasun-gradua, 165
 Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 Gizarteratzea, 123, 494
 Hezkuntzako beharrian bereziak, 328
 Hirigintza oztopoak, 329

Irisgarritasuna, 494
 Oztopoak garraioan, 268, 269, 329
 TAO, 241, 329, 415, 416
 TMIZ, 219, 329

Ezgaitasun-gradua, 165

F

Familia

Gizarte eskubideak, 490

Familia ugariak

Garraioa, 268
 Matrikulazio zerga, 218
 Unibertsitateko hezkuntza, 490

Farmaziak, 276

Foru funtzionarioak

Destinoen trukaketak, 197, 201, 413

Foru zerbitzu publikoak

Ondare erantzukizuna, 417

Foru zergak

Matrikulazio zerga
 Familia ugariak, 218
 PFEZ
 Deklaratu beharra, 218
 Ohiko etxebizitza erostea, 220

Funtzio publiko orokorra

Aukeraketa organoak
 Diskrezionalitate teknikoa, 194
 Barne sustapena, 407
 Destinoen trukaketak, 197, 201, 413
 Enplegu eskaintza publikoa, 193, 194, 195, 196, 412, 413, 414
 Enpleguaren sustapena, 197
 Hornikuntza, 414
 Lan baldintzak, 420
 Lekualdatze-lehiaketa
 Hornikuntza, 406
 Ordainsariak, 414
 Ordezkapenak, 416
 Sarrera, 196
 Amatasuna, 196, 217
 Azterketak, 194, 195, 216
 Diskrezionalitate teknikoa, 195
 Egindako zerbitzuak, 193, 195, 210, 412, 413
 Hizkuntzen ezagueraren egiaztapena, 195, 209, 406
 Sozietate publikoak, 196
 Titulazioak, 197

Funtzio publikoa

Adin-muga, 442
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 442
 Emakumeak, 309

Funtzionarioak

Sarrera
 Egindako zerbitzuak, 193, 195, 210

G

Garajeak

Hiri jarduera sailkatuak, 411
 Lizentziak, 411

Garraio astunetako ibilgailuak

Trafikoaren antolamendua, 268

Garraioa

Familia ugariak, 268

Gaueko arreta zerbitzuak

Drogaren menpekoak, 162, 409

Gazteak

Kultur kanpainak, 171

Gaztetxeak

Kutsadura akustikoa, 265

Genero-ikuspegia

Emakumeak, 307

Genero-indarkeria

Auzibideratzea, 254

Emakumeak, 125, 307, 310, 481

Gidatzeko baimena

Atzeritarrak, 326

Giza eskubideak

Bekak, 136

Giza eskubideen aldeko hezkuntza

Adin txikikoak, 323

Eskolako materiala, 137

Gizarte bazterketa

Oinarrizko errenta, 136, 168

Gizarte eskubideak

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191

Adin txikikoak, 161, 319, 490

Adinekoak, 48, 54, 161, 164, 167, 318, 494

Arartekoa, 505

Atzeritarrak, 327

Babes bereziko taldeak, 461

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166, 295, 296, 297, 298, 300, 325, 330, 419, 493

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 161, 165, 219, 241, 268, 269, 328, 329, 406, 415, 494

Familia, 490

Familia ugariak, 218, 268

Gizarte bazterketa, 136, 168

Guraso bakarreko familiak, 418

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 258, 259, 261, 263, 264, 265, 266, 449, 492

Kultur ondarea babestea, 174

Ombudsmana, 144

Osasunerako eskubidea, 162, 250, 251, 261, 282, 409, 449, 491

Gizarte komunikabideak

Adin txikikoak, 323

Gizarte taldeak

Adin txikikoak, 323

Gizarte taldeekiko harremanak, 126

Atzeritarrak, 126

Babes bereziko taldeak, 126

Bakezaleak, 126

Burutik gaixo daudenak, 126

Espetxeratuak, 126

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 126

Haur hezkuntza, 126

Hezkuntzako beharrian bereziak, 126

Sasoikako langileak, 126

Gizarte zerbitzuak

Adin txikikoak, 57
 Emakumeak, 309
 Eskumenen banaketa, 48, 54, 161
 Telealarma, 164

Gizarteratzea

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 123, 494

Gorputz araketak

Espetxeratuak, 250
 Polizia, 231, 326, 426, 483

Guraso bakarreko familiak

Babes ofizialeko etxebizitzak, 297
 Emakumeak, 297
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 316
 Prezio publikoak, 418, 488
 Udal prezio publikoak, 488

H

Harrera zentroak

Emakumeak, 314
 Etxerik gabeko pertsonak, 161, 165, 418

Haur eskolak

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 196, 206, 408

Haur hezkuntza

Datu pertsonalen babesa, 483
 Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 Hezkuntza eskubidea, 486
 Hezkuntzaren programazio orokorra, 176, 196, 206, 324, 408
 Irakaskuntzaren programazio orokorra, 486
 Kooperazio printzipioa, 176
 Koordinazio printzipioa, 176
 Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 483
 Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko plana, 176, 486

Herri administrazioaren kontratuak

Ondare erantzukizuna, 412

Herri bideak

Udaleko herri zerbitzuak, 417

Herri defendatzaileen erakundeak

Gizarte eskubideak, 505
 Kooperazio printzipioa, 141
 Koordinazio printzipioa, 141

Herri lanak eta zerbitzuak

Emakumeak, 310

Herri lanen proiektuak, 267

Herritarren parte-hartzea, 267

Herri zerbitzuak

Ondare erantzukizuna, 419

Herritarren eskubideak eta askatasunak

Adinekoen eskubideak, 494
 Informazioa jasotzeko eskubidea
 Osasun prestazioak, 491
 Jabetza pribaturako eskubidea, 489
 Zergadunen eskubideak
 Berandutzagatiko interesak, 488
 Interesen itzulketa, 488
 Zerga-ordainketarako aukera, 488
 Zerga-ordainketarako aukera, 488
 Zergen zuzentasunaren printzipioa, 488
 OHZ, 488

Prezio publikoak, 488

Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 267

Adinekoen eskubideak, 48, 318

Elkarteko herritarren eskubideak

Diskriminatua ez izateko eskubidea, 142

Entzunaldi eskubidea

Lehen hezkuntza, 180

Espedientea ikusteko eskubidea, 174, 410, 412

Herritarren parte-hartzea

Herri lanen proiektuak, 267

Informazioa jasotzeko eskubidea, 275, 279, 280, 407

Prozedura administratiboa, 407

Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 406

Konsumitzaileen eskubideak, 155

Nahi den medikua hautatzea

Adinekoak, 318

Zergadunen eskubideak

Zor ez diren sarreren itzulketa, 408

Herritarren parte-hartzea

Herri lanen proiektuak, 267

Herritarren segurtasuna

Polizia

Agintaritzari ez obeditzea, 23, 238, 326

Identifikatu beharra, 231, 238

Manifestazioak, 231

Pertsonak miatzea, 231, 326, 426, 483

Sarrera eta miaketa, 240

Hezkuntza

Bekak, 178

Bitartekaritza, 181, 184

Emakumeak, 310

Eskolatik kanpoko jarduerak, 178, 190

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 109

Irakastegiak, 188

Adierazpen-askatasunerako eskubidea, 188

Askatasun ideologikorako eskubidea, 188

Kontserbatorioak, 181

Musika Batxilergoa, 182

Matrikulazio kanpaina, 178

Musika-irakastegiak

Laguntzak eta diru-laguntzak, 184

Musikaren irakaskuntza, 181, 184

Musika Batxilergoa, 182

Hezkuntza eskubidea, 486

Adin txikikoak

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 109

Eskola garraioa, 486

Haur hezkuntza, 486

Hezkuntza itunak, 486

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 177, 191, 328, 486

Ikasleen onarpena, 177

Unibertsitateko hezkuntza, 486

Hezkuntza itunak

Hezkuntza eskubidea, 486

Hezkuntzako beharrizan bereziak

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191

Adin txikikoak, 109, 322

Gizarte taldeekiko harremanak, 126
 Hezkuntza eskubidea, 177, 328, 486
 Ikasleen onarpena, 177

Hezkuntzaren plangintza

Irakastegiak, 178

Hezkuntzaren programazio orokorra

Haur hezkuntza, 176, 324
 Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
 Haur eskolak, 196, 206, 408

HIESa duten gaixoak

Egoitza zentroak, 162

Hiri hondakin solidoak

Udal zerbitzu publikoak, 269

Hiri jarduera sailkatuak

Baimenak, 411
 Garajeak, 411
 Gaztetxeak, 265
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 258
 Kutsadura akustikoa, 258
 Lonjak, 259
 Ostalaritza establezimenduak, 261, 263, 410
 Transformadoreak, 266
 Zinemak, 264

Hiri plangintza, 287

Administrazioaren aukeramena, 291, 292
 Babes zortasuna
 Itsas-lehorreko jabari publikoa, 407
 Lurra, 292

Hiri segurtasuna

Polizia
 Atzerritarrak, 100

Hirigintza arauak betearaztea, 286

Eraikinen segurtasuna, 293
 Obrak egiteko baimenak, 289

Hirigintza kudeaketa, 287

Birgaikuntza, 299

Hirigintzako diziplina, 418

Eraikinen segurtasuna, 417
 Obra Lizentziak, 415
 Ondare erantzukizuna, 409

Hiriko trafikoaren antolamendua

Bizikletak, 417

Hizkera sexista

Emakumeak, 307

Hizkera teknikoa

Kontsumoa, 155

Hizkuntzaren normalizazioa

Euskara eta gizarte-komunikabideak, 170
 Euskara eta herri administrazioa, 169, 170

Hizkuntzen ezagueraren egiaztapena

Funtzio publiko orokorra, 195, 209, 406

I

Ibilgailuak erretiratzea, 243, 244, 246, 409

TAO, 246
 TMIZ, 225

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa

Tarifak, 160

Identifikatu beharra

Polizia, 231, 238

IEOZ

Zerga oinarria, 413

Ijitoak

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166

Txabolismoa, 166

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 324

Datu pertsonalen babesa, 483

Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 406

Ikasleen onarpena

Doktorego-egitarauak, 179

Hezkuntzako beharrian bereziak, 177

Unibertsitateko hezkuntza, 179, 185, 412, 486

Industri jarduera sailkatuak

Kutsadura, 260

Industria, 154**Informazioa jasotzeko eskubidea**

Osasun gastuak itzultzea, 279, 407

Osasun prestazioak, 275, 280, 491

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 410, 492

Atmosferako kutsadura, 265, 492

Hiri jarduera sailkatuak, 258

Kutsadura, 260, 266

Kutsadura akustikoa, 258, 259, 260, 261, 263, 264, 492

Ingurumena

Emakumeak, 310

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea

Adin txikiko lege hausleak, 253

Adin txikikoak

Kirolak, 436

Atxiloketak, 408, 482

Atzerritarrak, 481

Emakumeak, 125, 481

Genero-indarkeria, 481

Harrera zentroak, 314

Espetxeratuak, 249, 482

Genero-indarkeria, 310

Pertsonak miatzea, 231, 250, 326, 426, 483

Terrorismoaren biktimak, 481

Interesen itzulketa, 488**Internet**

Laguntzak eta diru-laguntzak, 159

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Aukeraketa organoak, 200

Bitarteko funtzionarioak

Emakumeak, 416

Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 416

Edoskitze baimenak, 199

Enplegu eskaintza publikoa, 199

Haur eskolak, 196, 206, 408

Ordainsariak, 200

Ordezkapenak, 200, 205, 406

Amatasuna, 199, 208, 412

Sarrera, 196, 206, 408

Unibertsitateko katedra, 200

Irakaskuntzako bitarteko funtzionarioak

Ordezkapenak, 205, 406

Irakaskuntzaren programazio orokorra

Haur hezkuntza, 486

Irakastegiak

Adierazpen-askatasunerako eskubidea, 188

Askatasun ideologikorako eskubidea, 188

Eskolatik kanpoko jarduerak, 178, 190

Hezkuntzaren plangintza, 178

Kirolak, 436

Irisgarritasuna

Arkitektura oztopoak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 161, 329, 332, 406

Emakumeak, 317

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 494

Hirigintza oztopoak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 329

Oztopoak garraioan

Emakumeak, 268, 329

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 268, 269, 329

Itxaron zerrendak

Egoitza zentroak, 167

J**Jabetza pribaturako eskubidea, 489****Jakinarazpena**

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 232

Prozedura zigortzailea, 245, 414

TMIZ, 223, 410

Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 485

Zehapenak, 245, 414

Jatorri-izena

Administrazio-erregistroak, 154, 155

Administrazio-errekurtsoak, 154, 156

K**Kaltea konpontzea**

Delituen biktimak, 255

Kexak

Emakumeak, 308

Kirolak

Adin txikikoak, 169, 325, 436

Atzerritarrak, 169, 325

Kontserbatorioak

Bitartekaritza, 181

Musika Batxilergoa, 182

Kontsumitzaileen eskubideak, 155**Kontsumoa**

Hizkera teknikoa, 155

Kooperazio printzipioa

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191

Adin txikikoak, 322

Haur hezkuntza, 176

Herri defendatzaileen erakundeak, 141

Hezkuntzako beharrian bereziak, 177

Ombudsmana, 141

Koordinazio printzipioa

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191

Adin txikikoak, 322

Haur hezkuntza, 176

Herri defendatzaileen erakundeak, 141
 Hezkuntzako beharrian bereziak, 177
 Ombudsmana, 141

Kultur intereseko ondasunak, 174

Kultur kanpainak

Administrazio-hitzarmenak
 Telefonia mugikorra, 171
 Gazteak, 171

Kultur ondarea

Administrazioaren isiltasuna, 174
 Espedientea ikusteko eskubidea, 174
 Kultur intereseko ondasunak, 174

Kutsadura

Industri jarduera sailkatuak, 260

Kutsadura akustikoa

Gaztetxeak, 265
 Hiri jarduera sailkatuak, 258
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 261, 492
 Lonjak, 259
 Ostalaritza establezimenduak, 261, 263
 Trafikoa, 260
 Transformadoreak, 266
 Zinemak, 264

L

Laguntza prestazioak

Egoitza zentroak, 167

Laguntza psikiatrikoa

Adin txikikoak, 321

Laguntzak eta diru-laguntzak

Internet, 159
 Musika-irakastegiak, 184

Lan osasuna

Datu pertsonalen babesa, 483
 Tabakismoa, 282

Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 480

Berdintasun printzipioa, 199, 480
 Emakumeak, 199, 208, 315, 412
 Emakumeak, 199, 208, 315, 412

Laneko jaiegunak, 415

Lankidetzarik eza

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 452

Legegintzaren beharra

Adin txikikoak, 57
 Lurra, 288, 493

Legezketasun printzipioa

Alkatetza dekretuak, 233, 418
 Prozedura zigortzailea
 Jakinarazpena, 245, 414

TAO

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 415
 Zehapenak
 Jakinarazpena, 245, 414
 Zehatzeko ahalmena
 Udal ordenantzak, 466

Lehen hezkuntza

Igotzea
 Entzunaldi-eskubidea, 180

Lekualdatze-lehiaketa

Funtzio publiko orokorra, 406
Osasun alorreko funtzio publikoa, 198

Lizentziak

Garajeak, 411
Ostalaritza establezimenduak, 410

Lonjak

Kutsadura akustikoa, 259

Lurra

Hiri plangintza, 292
Legegintzaren beharra, 288, 493

M**Matrikulazio kanpaina**

Hezkuntza, 178

Matrikulazio zerga

Familia ugariak, 218

Merkataritzako establezimenduak

Prozedura zigortzailea
Preskripzioa, 157

Musika-irakastegiak

Bitartekaritza, 184

Musikaren irakaskuntza

Bitartekaritza, 181, 184
Musika Batxilergoa, 182

N**Nahi den medikua hautatzea**

Adinekoak, 318

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea

Atxiloketak, 408, 482
Espetxeratuak, 250

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Adin txikikoak, 483
Matrikulazio kanpaina, 178, 483
Atxiloketak, 408, 483
Emakumeak
Harrera zentroak, 314
Haur hezkuntza, 483
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 483
Jakinarazpena, 232
Lan osasuna, 483
Pertsonak miatzea, 231, 250, 326, 426, 483

Nudismoa

Alkatetza dekretuak, 233, 418

O**Obra Lizentziak**

Hirigintzako diziplina, 415

Obrak egiteko baimenak

Hirigintza arauak betearaztea, 289

Ohiko etxebizitza erostea

PFEZ, 220

Ohiturazko ikuskizunak

Animalien babesa, 236, 407

OHZ

Zor ez diren sarreren itzulketa, 221

Oinarrizko errenta

Gizarte bazterketa, 136, 168

Txiroak, 168

Oinarrizko eskubideak, 479

Adierazpen-askatasunerako eskubidea

Adin txikikoak, 188

Askatasun ideologikorako eskubidea

Adin txikikoak, 188

Berdintasun printzipioa, 480

Atzerritarrak, 480

Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 480

Berdintasunerako eskubidea, 480

Adinekoak, 318

Atzerritarrak, 480

Emakumeak, 199, 208, 306, 312, 315, 480

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 328, 415

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea

Bitarteko funtzionarioak diren emakumezko irakasleak, 199, 208, 412

Funtzio publiko orokorra, 194, 195, 196, 197, 216, 217, 414, 484

Funtzio publikoa, 442, 484

Funtzionarioak, 193, 195, 210, 412, 413, 414

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 200, 484

Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 201, 418

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 254

Espetxeratuak, 248, 250, 486

Bizitzeko eskubidea

Terrorismoaren biktimak, 479

Errugabe joa izateko eskubidea

Prozedura zigortzailea, 270

Hezkuntza eskubidea, 486

Adin txikikoak, 109

Eskola garraioa, 486

Haur hezkuntza, 486

Hezkuntza itunak, 486

Hezkuntzako beharizan bereziak, 177, 191, 328, 486

Unibertsitateko hezkuntza, 486

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea

Adin txikiko lege hausleak, 253

Adin txikikoak, 436

Atxiloketak, 408, 482

Atzerritarrak, 481

Emakumeak, 125, 314, 481

Espetxeratuak, 249, 482

Genero-indarkeria, 310

Pertsonak miaztea, 231, 250, 326, 426, 483

Terrorismoaren biktimak, 479, 481

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea

Atxiloketak, 408, 482

Espetxeratuak, 250

Terrorismoaren biktimak, 479

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Adin txikikoak, 178, 483

Atxiloketak, 408, 483

Datu pertsonalen babesa, 483

Emakumeak, 314

Haur hezkuntza, 483

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 483

Jakinarazpena, 232

Lan osasuna, 483

Personak miatzea, 231, 250, 326, 426, 483
 Terrorismoaren biktimak, 479
 Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 485
 Bidegabeko atzerapenak, 252
 Doako laguntza juridikoa, 256
 Jakinarazpena, 485

Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 102

Oinezkoentzako eremuak

Trafikoa, 231

Ombudsmána

Gizarte eskubideak, 144, 505
 Kooperazio printzipioa, 141
 Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 144

Ondare erantzukizuna

Ebazpena emateko betebeharra, 410
 Foru zerbitzu publikoak, 417
 Herri administrazioaren kontratuak, 412
 Herri zerbitzuak, 419
 Hirigintzako diziplina, 409
 Udaleko herri zerbitzuak, 413, 419
 Zerbitzu publikoak, 268

Ondorengoak zaintzeko eszedentzia

Bitarteko funtzionarioak, 416
 Emakumeak, 416

Ordainsariak

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 200

Osasun alorreko funtzio publikoa

Aldi baterako kontratazioa, 199
 Bitarteko funtzionarioak, 197
 Lekualdatze-lehiaketa, 198
 Sozietate publikoak, 198

Osasun artapena

Espetxeratuak, 250

Osasun garraioa, 275

Osasun gastuak itzultzea, 277, 279, 280, 407

Osasun mentala, 276

Osasun prestazioak, 280

Anorexia eta bulimiaren tratamendua, 276
 Informazioa jasotzeko eskubidea, 275, 491
 Osasun garraioa, 275
 Osasun gastuak itzultzea, 277, 279, 280, 407
 Prestazio ortoprotesikoak, 282
 Produktu farmazeutikoak, 281
 Sexu aldaketa, 276
 Umeak izateko tratamendua, 275, 279, 407
 Emakumeak, 316

Osasuna

Emakumeak, 309

Osasunerako eskubidea, 491

Drogaren menpekoak, 162, 409
 Espetxeratuak, 250, 251
 Tabakismoa, 282
 Telefonia mugikorra, 261, 449

Ostalaritza establezimenduak

Baimenak, 261
 Hiri jarduera sailkatuak, 410,
 Kutsadura akustikoa, 263
 Lizentziak, 410

Zarata, 261

Oztopoak garraioan

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 269
Zerbitzu publikoak, 268

P

Pasabideak, 271

Pertsonak miatzea

Espetxeratuak, 250
Polizia, 231, 326, 426, 483

PFEZ

Deklaratu beharra, 218
Ohiko etxebizitza erostea, 220

Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 479

Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonak, 191
Adin txikikoak, 161, 164, 319, 490
Adinekoak, 48, 54, 161, 167, 318, 494
Atzerritarrak, 327
Babes bereziko taldeak, 461
Berdintasun printzipioa
 Adinekoak, 318
Bitartekaritza
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 136
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166, 295, 296, 297, 298, 299, 300, 325, 330, 419, 493
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 161, 165, 219, 241, 268, 269, 328, 329, 406, 415, 494
Familia, 418, 490
Familia ugariak, 218, 268
Gizarte bazterketa, 136, 168
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 258, 259, 261, 263, 264, 265, 266, 410, 492
 Telefonia mugikorra, 261, 449
Kultur ondarea babestea, 174
Ombudsmana, 144
Osasunerako eskubidea, 162, 250, 251, 261, 282, 409, 449, 491
Zergen bidez kototasunaren printzipioa
 Prezio publikoak, 418

Polizia

Agintaritzari ez obeditzea, 231, 238, 326
Atxiloketak, 232
Atzerritarrak, 100, 326
Identifikatu beharra, 231, 238
Manifestazioak, 231
Pertsonak miatzea, 231, 426, 483
Sarrera eta miaketa, 240, 326
Ziegak, 118

Poliziaren alorreko funtzio publikoa

Adin-muga, 201
Aldi baterako kontratazioa, 201
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 201
Sarrera, 418

Preskripzioa

EIOZ, 227

Prestazio ortoprotesikoak

Gurpil-aulkiak, 282

Prezio publikoak

Guraso bakarreko familiak, 418, 488

Produktu farmazeutikoak, 281

Prozedura administratiboa, 412

- Administrazioaren isiltasuna
 - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 255
 - Kultur ondarea, 174
- Administrazio-erregistroak
 - Jatorri-izena, 154, 155
- Administrazio-errekurtsoak
 - Jatorri-izena, 154, 156
- Administrazio-hitzarmenak, 418
 - Telefonia mugikorra, 171
- Badaezpadako neurriak
 - Ibilgailuak erretiratzea, 244, 246, 409
- Baimenak, 411
 - Ostalaritza establezimenduak, 261
 - Telefonia mugikorra, 261, 449
- Ebazpena emateko betebeharra, 157
- Espedientea ikusteko eskubidea, 410, 412
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak
 - Entzunaldi eskubidea, 180
 - Espedientea ikusteko eskubidea, 174, 410, 412
 - Informazioa jasotzeko eskubidea, 275, 280
- Hirigintza arauak betearaztea, 286
 - Eraikinen segurtasuna, 293
 - Obrak egiteko baimenak, 289
- Hirigintzako diziplina, 418
 - Eraikinensegurtasuna, 417
 - Obra Lizentziak, 415
- Laguntzak eta diru-laguntzak
 - Internet, 159
- Lizentziak
 - Garajeak, 411
 - Ostalaritza establezimenduak, 410
- Ondare erantzukizuna
 - Ebazpena emateko betebeharra, 410
 - Foru zerbitzu publikoak, 417
 - Herri zerbitzuak, 419
 - Hirigintzako diziplina, 409
 - Udaleko herri zerbitzuak, 413, 419
 - Zerbitzu publikoak, 268
- Prozedura zigortzailea, 409
 - Badaezpadako neurriak
 - Ibilgailuak erretiratzea, 243, 246
 - Eskumenak
 - Trafikoa, 416
 - Ibilgailuak erretiratzea, 246
 - Jakinarazpena, 245, 409, 414
 - Premiazko bidea, 408
 - Preskripzioa, 157, 270
 - Trafikoa, 230, 413, 416
- Zergen alorreko prozedura
 - Preskripzioa, 227
 - Zerga egitatea, 225
 - Zerga-bilketa, 223, 410
 - Zor ez diren sarreren itzulketa, 221, 226, 408

Prozedura zigortzailea, 409

- Badaezpadako neurriak
 - Ibilgailuak erretiratzea, 243, 246
- Errugabe joa izateko eskubidea, 270

Eskumenak
 Trafikoa, 416
 Ibilgailuak erretiratzea, 246
 Jakinarazpena, 245, 409, 414
 Premiazko bidea, 408
 Preskripzioa
 Merkataritzako establezimenduak, 157
 Zaborrak, 270
 Trafikoa, 230, 413, 416

S**Sasoikako langileak, 43, 327**

Adin txikikoak, 321
 Gizarte taldeekiko harremanak, 126

Seinaleztapena

Aparkaldia, 243

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko plana, 490

Haur hezkuntza, 176, 486

Sexu aldaketa, 276**Sexu eta ugal eskubideak**

Emakumeak, 316

Sozietate publikoak

Funtzio publiko orokorra, 196
 Osasun alorreko funtzio publikoa, 198

T**Tabakismoa, 282****TAO, 230**

Arauen hierarkiaren printzipioa, 241, 415
 Berdintasun printzipioa, 241, 415
 Berdintasunerako eskubidea, 241, 415
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 329, 415, 416
 Ibilgailuak erretiratzea, 246
 Legezketasun printzipioa, 241, 415,
 Zehapenak
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 415

Tarifak

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa, 160
 Ur kontsumoa, 226, 408

Telealarma

Adinekoak, 164
 Gizarte zerbitzuak, 164

Telefonia mugikorra

Arreta-printzipioa, 261, 449
 Baimenak, 261, 449
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 261, 449
 Kultur kanpainak, 171
 Osasunerako eskubidea, 261, 449

Terrorismoaren biktimak

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 481
 Oinarrizko eskubideak, 479

Titulazioak

Funtzio publiko orokorra, 197

TMIZ

Ezgaitasunen bat duten pertsonak
 Salbuespenak, 219, 329
 Jakinarazpena, 223, 410
 Zerga egitatea

Ibilgailuak erretiratzea, 225

Trafikoa, 260

Kutsadura akustikoa, 260

Prozedura zigortzailea, 230, 409, 413, 416

Eskumenak, 416

Trafikoaren antolamendua

Garraio astunetako ibilgailuak, 268

Oinezkoentzako eremuak, 231

Transformadoreak

Kutsadura akustikoa, 266

Tratu txarrak

Adin txikiko lege hausleak, 253

Espetxeratuak, 249

Tutoretza

Adin txikikoak, 161

Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 485

Bidegabeko atzerapenak, 252

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 255

Doako laguntza juridikoa, 256

Jakinarazpena, 485

Txabolismoa

Ijitoak, 166

Txiroak

Oinarrizko errenta, 136, 168

Txirotasunaren aurkako plana

Oinarrizko errenta, 136, 168

U

Udal ordenantzak

Zehatzeko ahalmena, 466

Udal prezio publikoak

Guraso bakarreko familiak, 488

Udal tasak

Ura eta saneamendua, 219

Udal zerbitzu publikoak

Estolderia, 274

Hiri hondakin solidoak, 269

Ur hornidura, 269

Ur kontsumoa, 226

Zortasunak, 273

Udal zergak

EIOZ, 227

IEOZ, 413

OHZ, 221

TMIZ, 223, 225, 410

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 219, 329

Udaleko herri zerbitzuak

Herri bideak, 417

Ondare erantzukizuna, 413, 419,

Ur kontsumoa, 408

Umeak izateko tratamendua, 275, 279, 407

Emakumeak, 316

Unibertsitateko hezkuntza

Bekak, 406

Doktorego-egitarauak, 179

Emakumeak, 312

Hezkuntza eskubidea, 486

Ikasleen onarpena, 179, 185, 412, 486

Unibertsitateko katedra

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 200

Ur hornidura

Udal zerbitzu publikoak, 269

Ur kontsumoa

Zor ez diren sarreren itzulketa, 226, 408

Ura eta saneamendua

Udal tasak, 219

Urpekari profesionalak

Eskumenak, 304

Z**Zaborrak**

Prozedura zigortzailea, 270

Zarata

Gaztetxeak, 265

Hiri jarduera sailkatuak, 258

Lonjak, 259

Ostalaritza establezimenduak, 261, 263

Trafikoa, 260

Transformadoreak, 266

Zinemak, 264

Zehapenak

Aparkaldia, 243

Jakinarazpena, 245, 414

TAO

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 415

Zehatzeko ahalmena

Udal ordenantzak, 466

Zerbitzu publikoak

Ondare erantzukizuna, 268

Oztopoak garraioan, 268

Zergadunen eskubideak

Berandutzagatiko interesak, 488

Interesen itzulketa, 488

Zor ez diren sarreren itzulketa, 408

Zerga-ordainketarako aukera, 488**Zergen alorreko prozedura**

Preskripzioa, 227

Zerga egitatea, 225

Zerga-bilketa

Jakinarazpena, 223, 410

Zor ez diren sarreren itzulketa, 221, 226, 408

Zergen bidezketasunaren printzipioa

Prezio publikoak

Guraso bakarreko familiak, 418

Zergen zuzentasunaren printzipioa

OHZ, 488

Prezio publikoak

Guraso bakarreko familiak, 488

Zerga-ordainketarako aukera, 488

Ziegak, 118**Zigorra betetzea**

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 254

Zigorra non bete

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 248

Zigorraren likidazioa

Zigorrak metatzea, 249

Zinemak

Kutsadura akustikoa, 264

Zor ez diren sarreren itzulketa

OHZ, 221

Ur kontsumoa, 226, 408

Zergadunen eskubideak, 408